UNIVERSIDAD DE DEUSTO

TERCER CICLO

PROGRAMA: Lengua y Linguística

PERPAUS KONPOSATUAREN JOSKERA

(J.LEIZARRAGAREN OINARRITURIK)

Tesis doctoral presentada por Dña. ***Mercedes ANDRES GUERRERO***

Dirigida por el Dr. ***Patxi ALTUNA BENGOETXEA***

AURKIBIDEA

0. **HITZAURREA** I

1. **ALBORAKUNTZA** 1

2. **LOKAILUAK eta JUNTAGAILUAK** 6

2.1. **EMENDIOZKOAK** 8
A. LOKAILUAK 10
2.1.1. **Ere** 10
2.1.2. **Halaber** 17
2.1.3. **Berere(n) / Behinçat** 20
2.1.4. **Berçalde (Berce alde)**.....24
2.1.5. **Ez solament... baina (are)... ere (bay)** 26

B. JUNTAGAILUAK 31
2.1.6. **Eta** 31
2.1.7. ***Eta** 51
2.1.8. **(Ez)...ez...(ere) / Ez...ezeta...(ere)** 55
2.1.9. **(Bay)...bay...(ere) / Bayeta...(ere)** 64
2.1.10. **Etare** 69

2.2. **HAUTAKARIAK** 71
A. LOKAILUAK 72
2.2.1. **Ezpere** 72
2.2.2. **Bercela** 75

B. JUNTAGAILUAK 77
2.2.3. **Edo** 77
2.2.4. **Ala** 90
2.2.5. **Ezpa** 99
2.2.6. **Nahiz** 102

2.3. **AURKARITZAKOAK** 104
A. LOKAILUAK 106
2.3.1. **Aitzitic** 106
2.3.2. **Berriz** 111
2.3.3. **Ordea** 115
2.3.4. **Alabaina** 120
2.3.5. **Badaric-ere** 123
2.3.6. **Hala-ere (Halere)** 126
2.3.7. **Guciagatic-ere** 128
2.3.8. **Salbu** 131

B. JUNTAGAILUAK 133
2.3.9. **Baina (I)** 133
2.3.10. **Baina(II)** 145
2.3.11. **Baicen** 155

2.4. **ONDORIOZKOAK** 162
2.4.1. **Beraz** 163
2.4.2. **Bada** 169
2.4.3. **Hala(z), Halatan, Horrela** 183
2.4.4. **Harren** 187
2.4.5. **Orduan** 189

2.5. **KAUSAZKOAK** 191
2.5.1. **Ecen** 193
2.5.2. **Bestelako esapideak** 206

3. **MENDERAGAILUAK** 209

3.1. **KONPLETIBOAK** 211

A. FORMA JOKATUAK 212

A.1. ADIERAZPENEZKOAK 212
3.1.1. **(Ecen)... -(e)la** 212
3.1.2. **-(e)n** 229
3.1.3. **Nola... -(e)n** 242

3.1.4. **Bait-** 251

A.2. GALDERAZKOAK 262
3.1.5. **-(e)n(ez)** 262

A.3. AGINTERAZKOAK 274
3.1.6. **-(e)la / -(e)n** 274

B. FORMA JOKATUGABEAK 282
3.1.7. **-t(z)e...** 282

3.2. **ERLATIBOZKOAK** 292
3.2.1. **-(e)n** 293
3.2.2. **Bait-** 317
3.2.3. **Anaforikoak** 325

3.3. **DENBORAZKOAK** 365
3.3.1. **-(e)nean** 366
3.3.2. **-(e)la / -(e)laric** 374
3.3.3. **Noiz-(ere)... bait-** 380
3.3.4. **-(e)no** 383
3.3.5. **-(e)n artean / [-(e)n] arterano** 386
3.3.6. **-(e)n bizquitartean** 389
3.3.7. **-(e)n becembatean** 392
3.3.8. **-(e)n beçain sarri / -(e)n sarrienaz** 394
3.3.9. **-t(z)ean / -t(z)eracoan** 397
3.3.10. **-(e)n baino lehen / aitzinean** 400
3.3.11. **-(r)ic** 403
3.3.12. **[-(e)n] ondoan** 407
3.3.13. **-(e)netic** 410
3.3.14. **[-(e)na]z gueroztic** 412

3.4. **MODUZKOAK eta KONPARATIBOAK** 415
A. MODUA ADIERAZTEN DUTENAK 417
3.4.1. **-(e)la / -(e)laric** 417
3.4.2. **-(r)ic** 425
3.4.3. **-(e)z** 428
3.4.4. **-(e)n becembatean** 433

3.4.5. **-(r)en araura / arauez** 437

B.KONPARAZIOA (eta inoiz MODUA ere) ADIERAZTEN DUTENAK-439
3.4.6. **(Hala)... Nola... bait-, ...(hala)** 439
3.4.7. **[-(e)n] beçala** 445
3.4.8. **Beçain** 456
3.4.9. **[-(e)n] becembat** 458
3.4.10. **Cembat(enaz) ... (-ago) ... bait-, hambat(enaz) ... -ago** 460
3.4.11. **[-(e)n] baino... -ago** 463
3.4.12. **-ago... ecen ez** 468

3.5. **HELBURUZKOAK** 472
3.5.1. **-(e)n** 473
3.5.2. **-(e)nçat** 478
3.5.3. **-t(z)era** 487
3.5.4. **-t(z)eco** 493

3.6. **KAUSAZKOAK** 497
3.6.1. **Ceren... bait-** 498
3.6.2. **Ceren... -(e)n** 510
3.6.3. **-(e)lacotz** 518
3.6.4. **Nola... bait-** 524
3.6.5. **-(e)naz gueroz** 528
3.6.6. **-(e)naren gainean** 532
3.6.7. **Bestelakoak** 534

3.7. **KONTSEKUTIBOAK** 539
3.7.1. **Hain... non... bait- / -(e)n** 541
3.7.2. **Hala... non... bait- / -(e)n** 545
3.7.3. **Halaco (maneraz)... non... bait- / -(e)n** 552
3.7.4. **Hambat... non... bait- / -(e)n** 555
3.7.5. **Non... bait- / -(e)n** 561

3.8. **BALDINTZAZKOAK** 563
A. FORMA JOKATUAK 564
3.8.1. **(Baldin)... ba-** 564
3.8.2. **Non... -(e)n** 584

B. FORMA JOKATUGABEAK 588
3.8.3. **-t(z)ecotz** 588

3.9. **KONTZESIBOAK** 591
A. FORMA JOKATUAK 592
3.9.1. **(Baldin) Ba-...ere** 592
3.9.2. **-(e)la / -(e)laric** 600
3.9.3. **-(e)naren gainean** 606

B. FORMA JOKATUGABEAK 608
3.9.4. **-(r)ic** 608
3.9.5. **-agatic** 612

4. **ONDORIOAK** 616
4.1. Lokailuak eta Juntagailuak 616
4.2. Menderagailuak 629
4.3. Azken ondorioak 650

5. **BIBLIOGRAFIA** 654

0. HITZAURREA

Ondoko orrialdeetan perpaus konposatuen joskera aztertzeko asmoa dut; baina azterketa hau Joannes Leizarragarengan oinarrituko denez, hitzaurre hau bi zatitan banatu behar zela iruditu zait, alde batetik, J.Leizarragaz eta bere obraz hitz bi esateko; eta bestetik, tesian erabilitako metodologiaren deskribapena egiteko.

A.- J.LEIZARRAGA ETA BERE OBRA

Baten bati, agian, arrotz suerta dakioke euskal joskeraren analisia egiteko Leizarraga bezalako autore batengana jotzea; baina, gogoan izan behar dugu Elsoren Doctrina Christiana (1561) delakoaren aleren bat agertzen ez den bitartean, euskaraz inprimaturiko bigarren liburua Leizarragarena dela, eta, gainera, Etxepareren obran hitzaurre laburra -ez, haatik, balio urrikoa- kenduta, gainerakoa olerkiak direnez gero, hitz lauz idatziriko aurreneko liburu ezagunaren aurrean gaudela.

Leizarragaz, egia esan, gutxi dakigu. Testamentu Berriaren hasieran Nafarroako Erreginari zuzentzen dion kartan esaten duenaren arabera, Beraskoitzen jaio zen (... *bere cerbitzari gucizco chipiac eta gucizco obedientac, Ioannes Leiçarraga* ***Berascoizcoac,*** ...); baina, datari dagokionez, ezer gutxi dakigu, 1520an edo jaio bide zela imagina dezakegun arren.

Apaiz katolikoa izan arren, garai hartako giro politiko-erlijiosoak bultzatuta protestante bihurtu zen. Bestalde, seguraski, Leizarraga oso apaiz jakintsua izan zen -bere obran agertzen diren kultismo guztiek horixe adierazten dute-; hori dela eta, 1564an Paben ospatu zen

Sinodoan Testamendu Berria euskarara itzultzeko agindua jaso zuen. Ikus dezagun nola deskribatzen duen Akesolok:

> *"Orrez gaiñera, Jakintsua da, liburu-zalea, eta euskeraren muiña ta barruak beste bere lagunak baiño sakonago ezagutzen dituena; onetan maixutzat zeukaten beste guztiek. Orregatik, beren erligiokoen arimazaitzari beren semeetan iraunerazi naiez, Leizarragagana joten dute, beren aurrei euskera irakatsi ta euskaldunen artean artzai izateko gai atera zitzan"*[1]

Testamentu Berria -Kalendrera eta **ABC** obrekin batera-1571ean inprimatu zen; beraz, Etxeparek bere Linguae Vasconum Primitiae 1545ean argitaratu zuenez, euskaraz, momentuz behintzat, ezagutzen den bigarren liburuaren aurrean gaude.

Atal honen hasieran aipatu dugunez, garai hartan Etxepareren liburuaz gain, badirudi beste bi edo izan zirela: Elsoren Doctrina Christiana (1561) eta, agian, Joannes Etxegarairen Artzai Gorria pastorala. Edozein modutan, ez dirudi Leizarragak, azken biak behintzat, ezagutzen zituenik, bere liburuan, bai Erreginari eginiko kartan bai "Heuscalduney" atalean, behin eta berriro, erabiltzen duen hizkera erabiligabea dela aipatzen baitu:

> *"... cembatez nic scribatu dudan lengoage motá baita, sterilenetaric eta diuersenetaric: eta oraino, trâslationetâ behinçat, vsatu gabea..."* (Guc.,21-23, 252.or.)

> *"... orhoituren da, othoi, ecen hunelaco gauçác, guciz lengoage oraino vsatu gabe batetan, ecin behingoz halaco perfectionetan iar daitezquela, ..."* (Heu., 16-19, 254.or.)

Egia da lehenengo aipuan "translationetan behintzat" zehazten duela, honek Leizarragak beste libururen bat ezagutzen zuela pentsatzeko bidea ematen digularik. Edonola ere, birritan aipatzen du "usatu gabea" dela; beraz, libururik ezagutzen bazuen, berearekin zerikusirik ez zuen bat izan behar zen (ez, adibidez, Elsoren Doctrina), agian, Etxeparerena -azken finean, honetan olerkiak dira nagusi eta ez prosa-. Ikus dezagun zer dioen Lafonek honetaz:

> *"Nous n'avons pas à étudier ici dans le détail les bases dialectales de la langue des écrits de*

---

[1] AKESOLO, L., "Joannes Leizarraga ..." Jaunaren Deia, 33, 274.or.

Liçarrague. Il suffit de savoir que, bien qu'elle ne soit pas homogène, elle constitue un système dont la structure concorde avec celle de la langue de Dechepare."

Hala ere, hau guztia suposizioak baino ez dira, ez baitaukagu datu zehatzik Leizarragak Etxepareren liburua ezagutu zuen ala ez jakiteko. Izan ere, bi liburuen artean 26 urteko aldea izan arren, ez litzateke harritzekoa -elkar ezagutu gabe ere- biek sistema berdintsua erabiltzea; azken finean, Etxeparek ekialdeko behe-nafarreraz idatzi zuen eta Leizarragak euskalki hau ezagutu behintzat, ezagutzen zuen bere jaioterrian, Lapurdin egon arren, XVI. mendetik aurrera ekialdeko behe-nafarreraz hitz egiten zutelako.

Edozein modutan, zalantzarik gabekoa dena Leizarraga Etxepareren ondoko lehendabiziko prosista izan zela da; Etxeparek ere prosa egin zuen arren, eta ez nolanahikoa gainera, hitzaurre labur bat besterik ez baitaukagu.

Beraz, hona hemen Leizarragaren xedeetariko bat: esku artean zuen hizkuntza "esteril" eta "usatu gabea" izanik ere, horri aurre eginez, euskal prosa sortzea Jainkoaren mezua ahalik eta euskaldun gehienei helarazteko asmoz:

"Alabaina segur içanez ecen Heuscaldunac berce natione gucién artean ez garela hain bassa, nô gure lengoagez ecin eçagut eta lauda deçagun gure Iainco Iauna ..." (Guc., 24-27, 252.or.)

Gogora dezagun, bestalde, Etxeparek bere obrarako bertsoak hautatu arren, kezka hau berau agertu zuela, alegia, erakustea euskara gainerako hizkuntzak bezain baliogarria eta aberatsa zela idatziz edozein gauza adierazteko:

"Ceren bascoac baitira abil animos eta gentil eta hetan içan baita eta baita sciencia gucietan lettratu handiric miraz nago iauna nola batere ezten assayatu bere lengoage propriaren fauoretan heuscaraz cerbait obra eguitera eta scributan imeitera ceren ladin publica mundu gucietara berce lengoagiac beçala hayn scribatzeco hon dela." (Etxep., Hitzaurrea, 6-12, 4.or.)

Hortaz, ikusten dugunez, bi idazleek xede berbera izan zuten, bion arteko diferentzia bakarra hautatu zuten

---

LAFON, R., Le système du verbe basque au XVI^e siècle, 65.or

moldea izan zelarik -Etxeparek, bertsogintza eta Leizarragak prosa, itzulpengintzaren bidez-.

Leizarragak euskal prosa sortze-prozesu horretan, zalantzarik gabe, asmatu zuen, lortu zuen emaitza oso prosa tajutua eta ongi egituratua izan baitzen. Ez dirudi, ez, lehendabiziko aldiz idazten den prosa, urte askotan zehar erabiliaren erabiliaz finkatutako hizkera landua baizik.

H. Schuchardtek dioenaren arabera *"Leizarraga fijó él mismo la lengua en la que escribió. Cierto que en la dedicatoria dice simplemente que el vascuence, hasta entoces, no ha sido en absoluto utilizado, al menos en traducciones. Pero de seguro que tampoco existía nada en el ámbito de la literatura original en lo que hubiera podido basarse. Habia un único libro escrito en vascuence anterior al de Leizarraga, el de los poemas de Detxepare, de 1545, que eran de poca extensión, estaban en una forma muy descuidada y además en un dialecto distinto del adoptado por Leizarraga, de modo que no tenían transcendencia para éste, si es que los conocía."*[3]

Aipu hau, egia esan, eztabaidagarria da, Leizarragak Etxepareren liburua ezagutu zuen ala ez frogatzen ez den bitartean ezin dugulako jakin Leizarragak berak finkatu zuen bere hizkera ala beste baten eraginik izan zuen. Egia da Etxeparek duen gehiena bertsoak direla, baina hortik Leizarragarentzat, ezagututa ere, balio urrikoak izango zirela esatera tarte handiegia dagoela iruditzen zait; gainera, euskalkiari dagokionez, egia da Leizarraga, gehien bat, lapurteraz baliatu zela bere obra egiteko, baina honek ez du esan nahi Etxepareren euskalkia ezagutzen ez zuenik, Beraskoitzen, dirudienez, ekialdeko behe-nafarreraz mintzatzen baitziren.

Beraz, Leizarragak sortu zuen prosa, nagusiki, berak finkatutakoa dela esan genezake, baina Etxepareren balioa, inola ere, gutxietsi gabe, honen hizkera aski finkatua baitzegoen. Gainera, Lafonek berak diosku bien sistemak bat datozela. (Ikusi Lafonen aipua aurreko orrialdean)

---

[3] SCHUCHARDT, H., in LEIZARRAGA, J., Iesus Christ gure Iaunaren Testamentu Berria, 135.or.

Edozein modutan, Leizarragaren maisutasuna dudarik gabekoa da. Ikus dezagun, bada, zer dioen Villasantek:

> *"... Leizarragaren obrak ez dira nolabaitekoak. Ez dira arinki eta gaingiroki eginak. Han ez da xehetasunik falta. Aitzin solasak, oharrak, aurkibideak, eskeintzak, Zuberoako herrian usantzatan ez diren hitzen taula, ta abar. Dena duzu txukun, dena ongi landua eta burutua. Erreginaren aginduz egindako lana zen, eta ez zen nolanahi egin behar. Jainkoaren hitzari, erreginari eta euskal herriari zerbitzu egin nahiz zebilen Leizarraga, eta obrak ere halakoxeak atera zitzaizkion: alde guztiz onduak, osoak, perfetasun harrigarri batez burutuak, umoak."*[4]

Baina, bestalde, ezin uka dezakegu Leizarragarena itzulpen lana baino ez dela, eta hori gutxi bailitzan, testu bibliko baten itzulpena dela, honek eskatzen dituen fideltasun eta testuarekiko atxikimendu bortitzarekin. Edozein modutan, ikus dezagun nola desbribatzen duen L.Mitxelenak emaitza:

> *"Construir la prosa de una lengua sin cultivo precisamente en la traducción de unos textos de carácter muchas veces nada apropiado y a los que se debía la más estricta fidelidad, escoger entre distintos usos lingüísticos, de suerte que el resultado de la selección no restringiera automáticamente el número de posibles lectores, no era ciertamente empresa sencilla.*
>
> *Vistas las cosas en conjunto, Leizarraga salvó los obstáculos con notable acierto. Leyéndole, creeríamos, si no dispusiéramos de tantos testimonios en contrario, que escribía en una lengua normalizada por largos años de práctica literaria. Pero en realidad, según la expresión de Schuchardt, "fue Leizarraga mismo quien fijó la lengua en que escribió."*[5]

Zalantzarik gabe, Leizarragaren akatsik handiena jatorrizko testuarekin agertu zuen atxikimendua izan zen. Protestantea izanik, Jainkoaren "hitz puroa" jaso behar zuen, itzulpen zehatza -agian, zehatzegia- burutu behar zuen; hortaz, bere lana hizkuntza klasikoetatik harturiko

---

[4] VILLASANTE, L., "Euskaltzainburu Jaunaren hitzaldia" in Euskera, XVII, 1972, 129.or.

[5] MITXELENA, L., Historia de la Literatura Vasca, 53.or

maileguz josita dago eta honek, obran zehar aurki ditzakegun arkaismoei loturik, lana ulergaitz bihurtu zuen; horregatik ez zuen arrakastarik ez jarratzailerik izan, herriak berrogei urte beranduago sortuko zen hizkera herrikoia -Axularrek eta, orokorrean, Sarako eskolakoek ezarri zutena- nahiago izan zuelako.

Beraz, ikusten dugunez, Leizarragak bere xedean asmatu bazuen ere, euskal prosa tajutua eta landua erdietsi zuelako, inork ez zion bere meritoa aitortu; eta horrexegatik uste dut merezi duela guk aztertzea, bere garaian ukatu zitzaion maisutasuna agerian uzteko.

Baina, bada Leizarragari zor diogun beste merito bat, euskal prosa sortzen saiatzeaz gain, euskara batua sortzen ere ahalegindu baitzen. Izan ere, Leizarragaren kezka lingüistikoa izugarria izan zen, leku batetik bestera zeuden mintzaira-desberdintasunak ikusita, ahalik eta euskaldun gehienek ulertuko zuten moldea sortu nahi izan baitzuen. Egia da bera iparraldekoa izanik, hango mintzairak bakarrik bildu zituela; baina, ezin dugu ukatu, gaur egun, lau mende pasatuta, horixe bera lortzen saiatzen ari garela oraindik.

Leizarraga, izatez, Beraskoitzekoa zen; eta lehenago aipatu dugunez, badirudi XVI. mendetik aurrera Beraskoitzen ekialdeko behe-nafarreraz hitz egiten zela. Hala ere, Leizarragak ez zuen, nagusiki behintzat, euskalki hau erabili; ezaugarri batzuk agertzen dira, bai'a zuberera ere; baina, nagusiki Leizarraga lapurteraz baliatu zela esan dezakegu.

Luze hitz egin da Leizarragak darabilen euskalkiaz, eta baten bat aipatzekotan, Lafonen hitzak ekar ditzakegu gogora:

> *"Le parler propre de Liçarrague, celui qu'il a appris à Briscous, a pu être un labourdin mêle de formes non labourdines, peut-être parce qu'il y avait dans cette localité des gens parlant labourdin et d'autres parlant bas-navarrais, peut-être aussi parce que sa famille comprenait des personnes d'origine bas-navarraise ou souletine. Si, comme il est probable, le parler de Briscous était, dès le XVI° siècle, foncièrement bas-navarrais, il est possible aussi que Liçarrague ait cheché, sans y réussir complèment, à labourdiniser son parler propre (...)*

La présence de formes non labourdines dans une langue normalisée dont le fond est labourdin tient probablement à plusieurs causes qui, loin de s'exclure, ont dû jouer concurremment: peutêtre l'existence en labourdin, au XVI° siècle, de formes qui lui étaient communes avec le souletin et le bas-navarrais et qu'il a perdues par la suite; très probablement l'existence d'eléments non labourdins dans le parler propre de Liçarrague; certainement la collaboration de reviseurs et correcteurs dont le parler propre n'était pas le labourdin."[6]

Lafonek ongi azaltzen digunez faktore ugarik azal ditzakete Leizarragaren obran aurkitzen diren aldaera guztiak. Argi dago Etxeparek ez bezala, Leizarragak ez zuela bere hizkera propioa erabili bere obra idazteko orduan; baina ez dugu oso urrun joan behar aldaera horien zergatia aurkitzeko, Leizarragak berak azaltzen digulako:

"... *batbederac daqui heuscal herriâ quasi etche batetic bercera-ere minçatzeco manerán cer differentiá eta diuersitatea den: raçoin hunegatic sensu eguiazcotic aldaratu gabe, lengoageaz den becembatean ahalic guehiena guciey adi eraciteari iarreigui içan gaitzaitza, eta ez choil edocein leku iaquineco lenhoage bereciri* ..."(Heu., 8-13, 254.or.)

Ohart gaitezen, beraz, Leizarragaren balioaz. Alde batetik, ordurarte gehien bat bertsogintzan bakarrik erabilitako hizkeraz baliatuz (Etxepareren lana ezagutzen baldin bazuen), euskal prosa sortzen duen idazlea dugu; baina, bestetik, euskararen batasunaren arazoaz arduratzen den lehenengo hizkuntzalariaren aurrean gaude, gu baino lau mende lehenago, euskara batua sortzen ahalegindu zena, hain zuzen ere. Gizaki guztiok bezala, bere gauza onak eta bere akatsak izango zituen; gainera, apalki aitortzen du: *"badaquigu ecen demborarequin anhitz hitz eta minçatzeco manera, eridenen dela obra hunetan bercela hobequi erran çatenic"* (Heu., 13-15, 254.or.).

Gure herrian, halere, askotan, beldurra edo lotsa (edo auskalo zer) ematen digunez atzera begiratzeak eta gure iragana aztertzeak, idazle zaharrak, orain gutxira arte bederen, gaitzetsi egin ditugu; baina jokabide

---

[6] LAFON, R., Le système du verbe basque au XVI° siècle, 63-65.or.

horrekin behin eta berriro behaztopatuko gara harri berean, begiak itxita ezin baita aurrera egin.

Leizarragarena, itzulpen lana izanik, ezin goraipa dezakegu sormena, sarrera moduko testuak alde batera utzirik, Leizarragak ez zuelako ezer sortu; hala ere, hau ez da arrazoi nahikoa Leizarragak itzulpen hori burutzeko darabilen hizkera ez aztertzeko, eta are gutxiago, gaitzesteko. Bestela, ekar dezagun gogora L.Villasantek jokabide garbizale honen aurrean agertzen zuen iritzia:

> *"Leizarragak badu oraindik, guri irakasteko, beste leziorik. Hark ez zuen euskera bere buruaren kontenplatzen euki nahi, bere xokoan sartua eta gordea. Europako kulturari ateak idiki zizkion. Zubi bat ezarri nahi zuen Okzidenteko kultura eta euskeraren artean. Zoritxarrez jarraitzaile guti izan du. Euskera landu dugunok, gehienetan, euskera hertsia erabili nahi izan dugu, huts garbia, aratza, kanpotiar usainik gabea eta erdera kutsuren fitsik ez duena, bainan purismu amorratu horrekin ez ote diogu euskerari mintzabide egoki bilakatzeko bideak hertsi? Ez dut nik esaten Leizarragak erabiltzen dituen erdal hitz guztiak onestekoak direnik. Baina pontu hontan naturaltasun osoz, bat ere konplejurik gabe jokatu zen. Europarrak gara euskaldunak ere, Okzidenteko kulturaren seme, eta inguruneko hizkuntzetan onarturik ikusten zituen kultur hitzak beldur gabe onartzen zituen, etxeko bihurtzeko asmoz. Eta hori egitean, behar genuken bidea ez ote zigun agertu?"*[7]

> *"La verdad es que nuestros autores de los siglos pasados nos dejaron la prosa hecha y equipada con todo el utillaje necesario para este menester. Lo que ha sucedido es que se desautorizó a estos autores tildándolos de corruptores del idioma, de imitadores de modelos latinos, etc., y esto bastó para que fueran arrinconados, sin siquiera haberlos estudiado detenidamente."*[8]

Nire asmoa ez da, inondik inora, Leizarragak darabilen joskera goraipatzea eta eredutzat jotzea; baina, herri batek eta, jakina, hizkuntza batek aurrera egingo badu, lehendabizi bere iragana ezagutu behar du, behintzat, iragan horretan gauzaturiko akatsak errepika ez

---

[7] VILLASANTE, L., "Euskaltzainburu jaunaren hitzaldia" Euskera XVII, 131.or.

[8] VILLASANTE, L., Sintaxis de la oración compuesta, 5.or.

ditzan; eta, bide batez, zergatik ez, oneginak aprobetxatzeko. Hortxe dugu, esate baterako, R.Lafonen lana -Le système du verbe basque au XVIe siècle-, morfologiaren arloan izan diren handienetarikoa.

Nirea ez da, zoritxarrez, Lafonen lanaren mailara iritsiko; baina, behintzat saiatuko naiz Leizarragak darabilen joskerari buruzko lan sakona egiten hutsegiteak kritikatzeko, eta, aldi berean, ongi eratutako moldeak jasotzeko. Izan ere, ez dezagun ahanz, sarritan aitortu ez bazaie ere, gure euskara idatziaren aitzindariak Leizarraga eta Etxepare direla. Baina, utz diezaiogun hitza R.Lafon-i:

> *"Aspaldiko mendeek zirauteno, eskuara ilhunpean nekez doi-doia, dudarik gabe, bizi izan zen. Hamaseigarren mendean, bi Eskualdun khartsuk erakutsi eta phorogatu nahi izan zuten eskuara, bertze mintzaireak bezala, "eskribatzeko hon" zela, lehenik neurthitzetan, geroz hitz laxotan. Ez elgarrekin, ez batean. Bi partetan, bi erditan argitaratu zen phorogua. Nehor ere ez zen bi erdien bateratzea atrebitu. Nehor ere ez zen Dechepareren ez Leizarragaren izenen aiphatzera ausartu. Nehork ere ez bataren ez bertzearen ikaslea, jarrailea guti edo aski zela aithortu nahi zuen (...) Aphez katolikoaren eta ministro protestantearen obrak gaitzeru pean ezarriak ziren. Bainan ez zuten lur harrizu gainean erein. Egungo egunean, Jainkoari eskerrak, goqoetak eta bihotzak khanbiatuak dire. Haizu gare bien izenen gorestera. Eta erran dezakegu ez kinukeela Joanes Etcheberri'rik ez Axularr'ik ez balire izan Dechepare eta Leizarraga."*[1]

---

[1] LAFON, R., "Joanes Leizarraga, itzularia eta idazlea" Euskera XVII, 154.or.

B.- METODOLOGIAREN DESKRIBAPENA

B.1. LANAREN HELBURUA.

Arestian aipatu dudanez, lan honen helburua, J.Leizarragaren obran oinarrituta, perpaus konposatuen azterketa egitea da.

Azterketa honekin, "Etxepare ala Leizarraga, nor izan zen lehena", "batak bestearen obra ezagutzen zuen ala ez", "Leizarragak grekera, latina ala frantsesa izan zuen oinarri" ... eta honelako eztabaidak saihestu nahi izan ditut, nire interes nagusia linguistikoa izan delako, eta hortaz, antzua eta zaila ere, zergatik ez aitortu, iruditzen zitzaidan ur horietan murgiltzea. Kronologiari begira, Etxepare da lehenengoa eta Etxeparek darabilen euskara mota kontutan harturik, baliteke Leizarragak obra hori ezagutzea; azken finean, Beraskoitzen XVI.mendetik aurrera ekialdeko behe-nafarreraz mintzatzen ziren. Bestalde, jatorrizko bertsioari dagokionez, zergatik ez hirurak?; guztiok dakigu Leizarraga oso gizon kultoa zela, beraz, hiru hizkuntzak eduki ahal izan zituen aurrean; edozein modutan ere, urteak eman genitzake suposizio horiek eztabaidatzen; aitzitik, ukaezina eta eztabaidaezina dena idazle hauen emaitzak dira. Beraz, hizkera hori nondik etor daitekeen interesgarria bada ere, ez dut hori xedetzat hartu, hizkera bera aztertzea baizik.

Bestalde, aurrera jarraitu baino lehen, bi zehaztapen egin behar ditut: alde batetik, Leizarragari dagokionez, "bere obran" oinarritu naizela esatean, Testamentu Berriaren itzulpenari eta honekin batera agertzen diren sarrera-testuei nagokiela, "Othoitza ecclesiasticoen forma", "Catechismea", "Kalendrera" eta "ABC, edo christinoen instructionea" ikutu gabe uzten ditudalarik.

Beraz, gehien bat, Leizarraga itzultzailea aztertuko dudala esan dezakegu. Nolanahi ere, honek badu bere azalpena: Testamentu Berriaren itzulpena aztergai

harturik, azterketan zehar suertatu diren zenbait egitura arrotz edo, Leizarragaren ondoren Testamentu Berria -lapurteraz ere- euskaratu zuen idazle batekin -Haranederrekin- erkatzea genuen. Gainera, itzulpenaz gain, Leizarragak berak sorturiko sarrera-testuak ditugu; beraz, itzulpenarekin eta sormen-lan txiki horrekin material nahikoa zelakoan, gainerako testuak beste lan baterako, edota nire tesia zuzendu eta osatu nahi duen ororentzat uzten ditut.

Bigarren zehaztapena lanaren helburuari berari dagokio, "perpaus konposatuen azterketa" zertan datzan argitu behar baita.

Lan hau joskeraren esparruan sartzen da; baina ezin esan dezakegu joskera bere osotasunean aztertzen duenik, hau lan zabalegia izango bailitzateke; horregatik, zertxobait murriztu nahian, joskeraren arlo bat baizik ez dut hartu, perpaus konposatuaren azterketari dagokiona, eta gehiago zehaztuz, lokailu, juntagailu eta menderagailuen mundua.

Arlo honetan alborakuntza ere sar zitekeen, baina arestian aipatutako atalak emankorragoak izango zirelakoan, alborakuntzaz zertan datzan adierazteko aipamen labur bat besterik ez dut egin. Izan ere, Leizarraga alborakuntzaz baliatzen bada ere, bere joskera ez da sinplea edo gehien bat, alborakuntzan oinarritua; beraz, fenomeno honek ez zuen aparteko azterketarik merezi; hortik, bada, atal honen urritasuna.

Edozein modutan ere, egin dudan azterketa, neurri handi batean, taxonomia hutsa dela aitortu behar dut. Izan ere, nire asmoa ez da izan perpaus konpasatuei buruzko teoria berririk asmatzea, ezta gaur egun ditugunak kritikatzea ere, baizik eta gaur egungo joskeran oinarriturik, gaur egun ditugun teoriak erabiliz gure iraganaren azterketa bat egitea. Hala ere, lan zabalegiek arrisku bat dute, gehiegi sakondu nahian, arinkerietan geratzea, alegia; horregatik, pausuz pausu ibiltzeari egokiena iritziz, hona hemen lehendabiziko urratsa: Leizarragak dituen lokailu, juntagailu eta menderagailu

guztien inbentarioa, hauei dagokien deskribapenarekin, noski.

B.2. ERABILITAKO MATERIALA.

J.Leizarragarengan oinarrituriko lan bat egiteko, ezinbesteko materiala J.Leizarragaren obra bera da, hortxe baitago abiapuntua. Beraz, edizioren bat aukeratu beharrean, egokiena izango zelakoan, 1900ean Linschmannek eta Schuchardtek prestaturiko edizioan oinarriturik, 1990ean Euskaltzaindiak argitaratutakoa izan da erabili dudana.

Baina honez gain, joskerari dagokion azterketa izanik, euskal gramatikek eta gramatikariek jorraturiko bideak ezagutzea derrigorrezkoa zen, gutxienez, zein bideri jarraitu behar nion jakiteko.

Aztergaia iparraldeko idazlea izanik, lehendabiziko erreferentzia nafar-lapurtera literarioa aztertu zuen gramatikaria zen. Beraz, neurri handi batean, P.LAFITTEk bere Grammaire Basque liburuan ezarritako bideari jarraitu diodala aitortu behar dut.

Bestalde, gaur egun, agian zaharkiturik gelditu bada ere, oso kontutan hartu beharreko beste gramatika bat L.VILLASANTErena zen. Gainera, gogora dezagun Villasantek bere Sintaxis de la oración compuesta-n Lapurdiko idazle handia izan zen Axularrengan oinarriturik, euskal joskerari buruzko lan sakona burutu zuela. Nire asmoa ez da izan Villasanteren lana emulatzea; baina, hein handi batean, aski parekoak direla aitortu behar dut, biok iparraldeko idazleetan oinarriturik, euskal joskera klasikoaren azterketa gauzatzen baitugu; biok, gainera, helburu berdinarekin: XVI, XVII.mendeetako joskera izan arren, gaur egun, zertxobait behintzat, baliogarri eta aberasgarri suerta dakigula.

Beste zutabe garrantzitsua P.GOENAGA-k ezarritakoa izan da, honek bide sortzaileari jarraiki, bere Gramatika Bideetan liburuan euskal gramatika oso bat eskaintzen baitigu. Nire lanean, egia esan, ez diot gramatika sortzaileak proposaturiko bideari jarraitu, baina, besterik gabe, bide deskriptiboan errezago moldatu naizelako. Hala ere, gramatika hau eta aspektu puntualei buruz dituen hainbat ikerketa oso kontutan hartu ditut

Orden kronologikoari jarraituz, azken erreferentzia, berriena delako, Euskaltzaindiak plazaturiko EGLU gramatika da; eta azkena izan arren, lehenengoa izan beharko litzateke, nire lana burutzeko erreferentzia-gunerik garrantzitsuena izan delako. Izan ere, lanaren sailkapena ere EGLU-k iradoki dit, beraiek izan baitira, "perpaus koordinatuak" / "perpaus subordinatuak" sailkapen tradizionala alde batera utzirik, "lokailuak" / "juntagailuak" / "menderagailuak" sailkapen aurrerakoia -eta neuk ere gogoan izan dudana- prosatu dutenak.

Nire lanaren azken partean -menderagailuei dagokien atalean- ezinezkoa zen EGLU-ren erreferentzia, Euskaltzaindiak azken parte hau oraindik kaleratu gabe baitu; baina gainerako ataletan, ikusiko denez, EGLU-ren eragina nabarmena da.

Lau hauek izan dira nire lana eraikitzeko zutaberik garrantzitsuenak, ez haatik, bakarrak, eskergaiztokoa izango bainintzateke beste gramatikari anitz ere kontutan hartu ditudala aipatuko ez banu. Edozein modutan, hitzaurre honetan guztiak aipatzea lan eskerga litzatekeenez, amaierako bibliografian aurkituko dituzue; nolanahi ere, nire esker ona agertu nahi diet guztiei, beren laguntzarik gabe nire lan hau ez baitzatekeen posible izango.

Eta azkenik, aipatzekoa eta, zalantzarik gabe, eskertzekoa P.Altunak eskainitako laguntza, sarritan, nire ikusmena lausotzen zenean, berak irekitzen baitzizkidan begiak bere ohar zuhurren bitartez.

B.3. METODOLOGIA.

Azkenik, nire lana ulergarriago suerta dadin, nola burutu dudan azalduko dut:

1.- Lehendabiziko pausua, eta, zalantzarik gabe, garrantzitsuena perpaus konposatu mota guztien, eta, jakina, lokailu, juntagailu eta menderagailu mota guztien korpus erraldoia osatzea izan zen.

Korpusa osatzeko, hasieran azaldu dudanez, alde batetik Testamentu Berria hartu nuen, eta bestetik, den-dena itzulpena izan ez zedin, Leizarragak sorturiko sarrera-testuak (Erreginari eginiko karta ...e.a.).

Bestalde, Leizarragaren obratik ateratako korpusa -osoa ez bada, gehiena bederen- I.Haranederrek euskaraturiko Testamentuarekin erkatu dut. Beraz, azterketan zehar sarritan egiten diot erreferentzia Haranederri, alde batetik, bi idazle hauek zertan datozen bat eta zertan ez aztertu ahal izateko; eta bestetik, Leizarragaren zenbait egitura ilun edo zalantzagarri argitu ahal izateko.

Azkenik, zalantzen aurrean, inoiz grekera eta latina ere kontutan hartu ditut Leizarragak dituen zenbait egitura ilun argitu nahian edo. Hala ere, kontutan hartu behar dugu erreferentziok J.M.BOVER eta J.O'CALLAGHAN-ek plazaraturiko Nuevo Testamento Trilingüe-n oinarriturik egin ditudala eta, agian, Leizarragak -latinari dagokionean behintzat- beste bertsio bat ezagutu ahal izan zuela; gainera, seguraski frantsesa ere izan zuen aurrean; horregatik, urriak dira grekerari edo latinari eginiko erreferentziak.

2.- Sailkapenari dagokionez, hiru atal bereizi ditut:

1.- Alborakuntza

2.- Lokailuak eta Juntagailuak

3.- Menderagailuak

Zehaztu dezadan hiru atal badira ere, lehenengoa sinbolikoa baino ez dela, lanaren funtsa beste bietan baitatza, atal hauetan lokailuak, juntagailuak eta menderagailuak betetzen duten funtzioaren edo hartzen duten balioaren arabera sailkatuz.

Horrela, lokailu eta juntagailuen kasuan, batzuetan biek balio bera har dezaketenez eta juntagailu batzuk lokailu gisa ere aritu daitezkeenez, zenbait ataletan biak sartu ditut. Adibidez:

2.1. Emendiozkoak:

A.- Lokailuak

B.- Juntagailua(k)

Bestalde, atal bakoitzaren barruan, lokailuen, juntagailuen eta menderagailuen forma, perpausaren baitan hartzen duten kokalekua, adierazten duten balioa ...e.a. aztertzen saiatu naiz, beti ere Leizarragaren, eta sarritan, Haranederren adibideak lagun. Edozein modutan, zehaztu behar dut adibiderik adierazgarrienak bakarrik aipatu ditudala, korpusean zeuden adibide guztiak jasotzea lan ikaragarria izateaz gain, neurri handi batean, baliogabekoa ere izango bailitzateke.

3.- Lanean zehar erabilitako terminologiari dagokionez, lehenengo bi ataletan bide tradizionala alde batera utzirik, EGLU-k hobesten duen terminologia erabili dut. Horrela, adibide bat jartzearren, tradizioan "disjuntiboak" deituriko juntagailuak HAUTAKARIAK deitu ditut.

Aitzitik, hirugarren atalari dagokionez, erreferentzia berririk ezean, bide tradizionalera jo dut.

4.- Azkenik, azterketan erabili ditudan laburduren berri emango dut, batez ere, testuan zehar aipatzen ditudan adibideak nondik atera ditudan agerian gera dadin:

Adv. - Advertimendua

Apo. - Ioannes Theologianoaren Apocalypsea

Apost.Act. - Apostolu Sainduen Acteac

Col. - Colossianoetaratco Epistola

Cor.1. - Corinthianoetaratco Epistola Lehena

Cor.2. - Corinthianoetaratco Epistola Bigarrena

Eph. - Ephesianoetaratco Epistola

Etxep. - Bernard Etxepare

Gal. - Galatianoetaratco Epistola

Guc. - Gucizco Andre Noble... (Erreginari karta)

Haran. - Haraneder

Hebr. - Hebraicoetaratco Epistola

Heu. - Heuscalduney

Iac. - S.Iacques Apostoluaren Epistola

Io. - Ioan

Io.1. - S.Ioan Apostoluaren Lehen Epistola

Io.2. - S.Ioannen Bigarren Epistola

Io.3. - S.Ioannen Hirugarren Epistola

Iuda. - S.Iuda Apostoluaren Epistola

Lc. - Luc

Leiz. - Leizarraga

Mc. - Marc

Mt. - Matheu

Or. - Orrialdea

Orr. - Orrialdeak

Phil. - Philippianoetaratco Epistola

Phile. - Philemonganatco Epistola

Pier.1. - S.Pierris Apostoluaren Lehen Epistola

Pier.2. - S.Pierris Apostoluaren Bigarren Epistola

Rom. - S.Paul Apostoluaren Romanoetaratco Epistola

Som. - Sommarioa

Thes.1. - Thessaloniceanoetaratco Epistola Lehena

Thes.2.- Thessaloniceanoetaratco Epistola Bigarrena

Tim.1. - Timotheoganatco Epistola Lehena

Tim.2. - Timotheoganatco Epistola Bigarrena

Tite. - Titeganatco Epistola

Amaitzeko, bi zehaztapen egin behar ditut zalantzarik egon ez dadin:

a) Sarrera-testuetan -Erreginari eginiko karta,... - adibideak errezago aurkitzeko, hasieran aipaturiko edizioan oinarrituta, lerroak zenbatzea erabaki nuen; beraz, honako aipu hauek aurki ditzakegu: (Guc.,**10-12**, 249.or.). Horrek esan nahi du aipaturiko adibidea orrialde horretako 10. eta 12.lerroen artean dagoela.

b) Bestalde, Testamentu Berriari dagozkion adibideen artean honelako aipuak aurki ditzakegu: (Mc.,VII,**0-15**). Bertsikuluaren zenbakiaren ordez, 0 jarri dut adibidea atal bakoitzaren hasieran agertzen diren izenburuetatik aterata badago.

Honetan datza, gutxi gorabehera, nire tesia. Asmatu ote dudan ala ez, ondorengoek esan beharko dute; edozein modutan, urratsik garrantzitsuena eta askotan zailena, hau da, hasiera, emanda dago; beraz, hemendik aurrera, ongi etorriak izan daitezela lan honek merezi bide dituen kritikak eta zuzenketak. Izan ere, L.Villasantek esaten zuenez *"se hace inexcusable aceptar el riesgo de equivocarse. Al fin y al cabo, si no se dan los primeros pasos, nunca se hace nada. Y si se dan, aunque haya un tanto por ciento de desaciertos, aun éstos pueden servir para atinar con el camino verdadero"*.[10] Hala izan bedi!

---

[10] VILLASANTE, L., Sintaxis de la oración compuesta, 7-8.orr.

1. ALBORAKUNTZA

Perpaus elkartuekin hasi aurretik, alborakuntza aipa dezakegu; hala ere, gogoan izan behar dugu hitzaurrean esandakoa, alegia, atal honetan alborakuntza zertan datzan adierazteko aipamen labur bat baino ez dugula egingo, perpaus mota hauek, oro har, ez dutelako funtzio berezirik betetzen Leizarragaren obran.

Edozein modutan, eskain dezagun definizio bat behintzat:

> **"Alborakuntza"** hizki edo partikula jakin eta berezirik erabili gabe burutzen den juntadura dela esan dezakegu, hau da, bi perpaus besterik gabe elkartzen direnean sortzen den fenomenoa:
>
> *Berandu jaiki naiz; ez dut gosaldu*

Gaur egungo gramatiken artean -gure hizkuntzaren azterketari gagozkiola, jakina- alborakuntza ikutzen duen ia bakarra EGLU[1] da, horregatik bertan aipatzen dena jasoko dugu:

> *" ... ez juntagailurik ez menderagailurik ez duena (...). Ez dirudi, halere, alborakuntza juntaduraren eta menderakuntzaren hurren jar daitekeenik, maila bereko hirugarren saila balitz bezala. Haren egitekoa, izan ere, juntadurari dagokiona besterik ez da, perpausak bata besteari erantsita juntatzekoa, alegia. Eta erabilera ere juntadurari dagokiona du, bai perpaus elkartuko bigarren perpausean eginkizun diren elipsiei dagokienean eta, bai banakaritzari dagokionean eta baita hikako alokutiboaren onargarritasunari dagokionean ere. Azken honetan, gainera, menderakuntza ez bezalakoa da alborakuntza:*
>
> *a. Lasai egon, neska, laster etorriko dun.*

---

[1] EUSKALTZAINDIA, Euskal Gramatika Lehen Urratsak-III (Lokailuak), 11-12.orr.

*b. Lasai egon, neska, laster etorriko bait da/*dun."*

Beraz, EGLU-k erakusten digunez, alborakuntzaz hitz egitean gramatika tradizionaletan egin ohi zen hiru sailen arteko banaketa, alegia, "alborakuntza" edo "yuxtaposizioa" / "koordinazioa" / "subordinazioa" erabat baztertu behar dugu, alborakuntzaren egitekoa juntadurari baitagokio. Nolanahi ere, juntadura hori gauzatzeko ez da inolako lokailurik behar; hortik, bada, perpaus hauen antzutasun gramatikala -nolabait esateko-, perpaus hauek joskeraren aldetik, edo agian zehatzago esanda, lotura hitzen azterketaren aldetik, ez baitute inolako berezitasunik eskaintzen, guztiek jokabide bera agertzen dute eta.

Leizarragaren obra aztertzean alborakuntzaz hitz egin genezake, gure autorea, beste hainbat bezala, errekurtso honetaz baliatzen delako. Hala ere, lehentxeago aipaturikoa gogoan izanik, ez diogu garrantzi handiegirik eskaini perpaus alboratuen korpusa biltzeari, testuan agertzen diren adibide guztiak jasotzea lan eskerga eta, neurri handi batean, baliorik gabekoa izango baitzatekeen.

Dena dela, Leizarraga alborakuntzaz maiz baliatzen dela kontutan harturik, gure azterketa, agian, motz geratuko litzateke alborakuntzari buruzko zertzelada batzuk bederen emango ez bagenitu.

EGLU-k esan digunez, alborakuntzaren egitekoa juntadurari dagokio; hala izanik, perpaus alboratuen bidez, perpaus juntatuen bidez adierazten diren balioak -agian guztiak ez, baina batzuk behintzat bai- emango dira aditzera:

A.- Izan ere, kasu anitzetan perpaus alboratuen artean emendiozko adiera oso nabaria da. Adibidez, Leizarragaren obran alborakuntza kontestu batean bereziki azaltzen zaigu, estilo zuzenari dagozkion perpausen enumerazioetan, alegia. Eta gogora dezagun enumerazioetan, erregistro

neutro batean, azken bi terminoen artean ETA emendiozkoa ezartzen dela. Ikus ditzagun adibide batzuk:

- *... cioela, Desertuan oihuz dagoenaren voza da, Appain eçaçue Iaunaren bidea, çuçen itzaçue haren bidescác.* (Mt.,III,3)

- *Erhiac senda itzaçue, sorhayoac chahu itzaçue, hilac resuscita itzaçue, deabruac campora egotz itzaçue: dohainic errecibitu duçue, ...*(Mt.,X,8)

- *... Eta Iesusec erran ceçan Eztuc hilen, Eztuc adulteraturen, Eztuc ebatsiren, Eztuc testimoniage falsuric erranen.* (Mt.,XIX,18)

Adibide hauetan ikus dezakegunez, Leizarragak zehar estiloa baztertuz, estilo zuzena darabil, itzulpenari eta Ebanjelioari berari bizitasun eta arintasun berezia emanez; hortaz, perpausak elkarri lotuta aurkezten dizkigu, baina juntagailu jakinik erabiltzeke.

Seguraski, errekurtso honen bidez helburu adierazkorra bilatzen zen, entzuleek mezua modu argi eta zehatz batean jaso behar baitzuten. Edozein modutan, ohart gaitezen, helburu hori ez zuela Leizarragak ezarri, jatorrizko testuetan hala egongo baitzen. Gogora dezagun, Leizarragak ahalik eta fidelkien jaso behar zituela Jainkoaren hitzak ezer edeki edo eratxeki gabe.

B.- Bestalde, ohart gaitezen alborakuntza ez dela beti ETA emendiozko juntagailuaren elipsiaren bitartez sortzen, alegia, alborakuntzak ez duela, derrigorrez, asindetona adierazten, zenbait kasutan perpaus alboratuen artean kausalitate kutsu bat ere soma baitaiteke.

Hala ere, puntu honetara helduta zehaztapen bat egin behar dugu, EGLU-k lehentxeago aipaturiko aipuan ongi adierazi digunez, alborakuntzaren egitekoa eta erabilera juntadurari edo perpaus juntatuei dagokiena baita. Horrela izanik, bi perpaus alboratuen artean kausalitate kutsua somatu arren, ez ditugu, inondik inora, perpaus menderatuekin parekatu behar, zeren eta perpaus bakunen ezaugarriak, hala nola, aditzak aurrizkirik ez atzizkirik ez hartzea, adizki alokutiboen erabilera, ... e.a.

mantentzen baitituzte. Gainera, gauzak aurreratzea bada ere, perpaus hauen kasuan lokailuren baten ezabaketaz hitz egitekotan, ECEN lokailua aipatu beharko genuke, Leizarragak behintzat, lokailu hau perpaus juntatuetan bakarrik erabiltzen baitu. Edonola ere, ikus dezagun adibideen bidez:

- *... erran cieçon paralyticoari, Auc bihotz on, semé, barkatu çaizquic eure bekatuac.* (Mt.,IX,2)

- *... erran ceçan, Auc bihotz on, alabá, eure fedeac saluatu au.* (Mt.,IX,22)

- *...oihuz iar cedin, ciotsola, Auc pietate niçaz Dauid-en seme Iauná, ene alaba duc deabruaz gaizqui tormentatua.* (Mt.,XV,22)

- *Eta harc itzuliric errâ cieçón Pierrisi, Guibelerat adi eneganic Satan, empatchu atzait.*(Mt.,XVI,23)

Perpaus hauek, lotura hitzen baten bidez lotu nahi izango bagenitu, argi dago kausazkoren bat erabiliko genukeela. Gainera, gogora dezagun, guk, gaur egun, ETA kausazkoa dugun bezala -perpaus juntatuen ezaugarriak mantentzen dituena-, Leizarragak ere ECEN lokailua zeukala. Beraz, ez gara juntaduraren eremutik aldentzen.

Gauzak horrela, EGLU-ri arrazoi osoa emanez, zalantzarik gabe esan dezakegu alborakuntza inon kokatzekotan juntaduraren barnean sartu behar dugula.

C.- Azkenik, komenta dezagun alborakuntzak, edo juntadura mota honek har dezakeen beste balio bat: **banakaria.**

Gramatika tradizionaletan, perpaus koordinatuen artean sail berezi bat eskaintzen zitzaien perpaus distributiboei. EGLU-k, ordea, **banakaritza** sail honetan -hots, alborakuntzan- kokatzen du, hau, alboraturiko perpausetan hitz edo partikularen bat errepikatuz gauzatzen baita:

> *"Ez dira, ordea, errepikaturiko partikula horiek beroriek juntadura gauzatzen dutenak (...) Haien egitekoa beste hau da: juntadurari balio banakaria ematea"*[2]

Hau kontutan izanik, Leizarragaren testuan suertatzen diren "perpaus distributiboak", alborakuntzari dagozkiolakoan, ondoren burutuko den azterketan ez sartzea erabaki dugu.

Ikus ditzagun, hala ere, adibideren bat:

- *Ecen resurrectionean* **ez***tu nehorc emazteric hartzen* **ez** *emaiten ezconçaz...* (Mt.,XXII,30)

- *... deitzen gara heretage hunetara personezco aceptioneric ez consideratioñeric batre gabe, arra* **ala** *emea, chipia* **ala** *handia, cerbitzaria* **ala** *nabussia, magistrua* **ala** *discipulua, bereterra* **ala** *laicoa ...* (Adv.,33-36,265.or.)

Zalantzarik gabe, alborakuntzaz gauza gehiago esan litezke; hala eta guztiz ere, ondoren aztertuko ditugun perpaus eta lokailu motak emankorragoak izango direlakoan, alborakuntzari dagokion aipamen laburra honetan utziko dugu.

---

[2] EUSKALTZAINDIA, Euskal Gramatika Lehen Urratsak-III, 18.or.

2. LOKAILUAK eta JUNTAGAILUAK

A.- LOKAILUAK:

Gure gramatiketan, lokailuen figura ondoen eta sakonkien aztertu duena EGLU da; beraz, honetan oinarriturik, lokailuak zertan dautzan azaltzen ahaleginduko gara.[1]

Lokailu hauek, berez, aditzondoak dira; beraz aurreko perpausari erreferentzia egiten dioten arren, ez dezakete perpausik elkar. Bi perpausak, semantikari dagokion aldetik, loturik edo behintzat harremanetan daude, baina joskerari dagokionez perpaus bakunak edo lokabeak izaten jarraitzen dute.

Definizio bat ematekotan, lokailuak testu batek behar duen lotura eta koherentzia bideratzeko tresnak direla esan dezakegu. Hala ere, zertan bereiz ditzakegu lokailuak eta juntagailuak?

a) Lokailuen zeregina testu mailan geratzen da, perpausekin perpaus zabalagoak osatzeko gauza ez direlarik. Perpausak elkartzeko indarra juntagailuarena izango litzateke eta ez lokailuarena berarena.

b) Oso kokaleku librea dute, perpausaren hasieran, tartean zein amaieran ager daitezkeelarik. Juntagailuek, berriz, kokaleku tinkoa izan ohi dute.

c) Juntagailuak metatuezinak diren bitartean (***eta baina**, ***baina edo**), lokailuak juntagailuekin batera ager daitezke (**eta aldiz**, **baina halere**).

d) Juntagailuak ere lokailu gisa aritu daitezke. Orduan ez dute bi perpausen arteko lotura gramatikala gauzatzen, baina bi perpaus horien arteko erlazioa zein den esaten digute.

e) Hortaz, edo perpaus lokabeetan agertuko zaizkigu -aurrekoarekin duen harreman semantikoaren berri ematen digutelarik- edo jadanik "juntatuak" -juntagailu bidez nahiz alborakuntzaz juntatuak- dauden perpausen arteko harremanaren xehetasunen bat eskaintzera etorriko zaigu lokailua.

---

[1] EUSKALTZAINDIA, Euskal Gramatika Lehen Urratsak-III (Lokailuak), 18-31.orr.

Lokailu hauek, beraz, bi perpausen artean suertatzen den harreman semantikoaren berri ematen digute. Hortaz, harreman semantiko honen arabera, lokailu mota desberdinak bereiz ditzakegu:

2.1. EMENDIOZKOAK

2.2. HAUTAKARIAK

2.3. AURKARITZAKOAK

2.4. ONDORIOZKOAK

2.5. KAUSAZKOAK

B.- JUNTAGAILUAK:

Arestian aipatu dugunez, lokailuek bi perpausen artean sortzen den harreman semantikoaren berri ematen digute, baina ez dute juntadurarik gauzatzen. Juntagailuek, berriz, harreman semantikoaren berri emateaz gain, bi perpausen edo perpausetik beheragoko osagaien arteko juntadura gauzatzen dute.

Edonola ere, ez dezagun ahanz juntagailuak lokailu gisa ere aritu daitezkeela. Kasu honetan, noski, ez lukete inolako juntadurarik gauzatuko.

Honez gain, juntagailuen bidez elkarturiko perpaus juntatuak aztertu nahi baditugu, lehendabiziko eginbeharra elkarketa mota hau definitzea izango litzateke:

> **JUNTADURA:** Maila sintaktiko bereko bi perpaus elkartzean sortzen den multzo berria.

Eta bigarren pausua perpaus hauen arteko harremana zein motatakoa den zehaztea izango litzateke, baina horretarako beste sailkapen bat egin behar dugu:

2.1. EMENDIOZKOAK

2.2. HAUTAKARIAK

2.3. AURKARITZAKOAK

2.1. EMENDIOZKOAK

Aurreko orrialdean aipatu dugunez, juntagailuen bidez elkartzen diren perpausen arteko harremana zer-nolakoa den definitu behar dugu. Ekin diezaiogun, bada:

Emendiozkoen kasuan, gehitze zentzu bat dago, perpaus bat beste bati atxikitzen baitzaio zerbait erantsi nahirik.

Bestalde, eta aurrera egin aurretik, zehaztu dezagun gure azterketa egiteko elkarketa gauzatzen duten juntagailuak ezezik elkarketarik burutzen ez duten lokailuak ere hartuko ditugula kontutan. Gainera, ohart gaitezen Leizarragak lokailu ugari erabiltzen baditu ere, gehienetan, emendiozko lokailu gisa, ETA juntagailua bera erabiltzen duela.

Hortaz, lehendabizi, aurkez ditzagun obran zehar aurkituko ditugun formak:

A.- LOKAILUAK:

2.1.1. ERE

2.1.2. HALABER

2.1.3. BERERE(N) / BEHINÇAT

2.1.4. BERÇALDE (BERCE ALDE)

EMENDIOZKO ESAMOLDEAK:

2.1.5. EZ SOLAMENT...BAINA (ARE)...ERE (BAY)

B.- JUNTAGAILUA:

2.1.6. ETA

JUNTAGAILUAREN ADIERA BEREZIA:

2.1.7. *ETA

JUNTAGAILUAREN INGURUAN SORTUTAKO FORMAK:

2.1.8. (EZ)...EZ / EZ...EZETA

2.1.9. (BAY)...BAY / BAYETA

2.1.10. ETARE

A.- LOKAILUAK:

2.1.1. ERE

Emendiozko lokailuak aztertu nahi baditugu, lehendabizi, bere nagusitasuna kontutan izanik, **ERE** lokailuari egin behar diogu erreferentzia.

2.1.1.1. Forma.

A.- **ERE** lokailua emendiozko juntagailuarekin eta beste aditzondoekin ere ager daiteke, perpausaren baiezkotasuna edo ezezkotasuna indartzeko:

- **EZ ETA...(ERE)**
- **BAY ETA...(ERE)**
- **ETA...(ERE)**

Hala ere, aitor dezagun honelako egituretan -Leizarragaren obran bederen- ERE lokailua ez dela oso maiz erabiltzen; gainera, egitura hauek ETA juntagailuarekin batera aztertuko ditugunez, momentuz, aipamen labur hau bakarrik egingo dugu.

Esan dezagun, beraz, ERE lokailua, eskuarki, bera bakarrik, ezkerreko aldean duen osagaiari itsatsita aurkitzen dugula.

Ikus dezagun zer esaten duen EGLU-k lokailu honetaz:

> "... *Balioaren aldetik, esan dezagun lokailu honek zabaldu egiten duela perpausaren erreferentzia mundua (...) Lokailu honek ezin dio inola ere hasierarik eman perpausari, izen sintagma, aditz edo aditzlagunen baten laguntzan erabiltzen dugulako (...)*
>
> *Lokailuaren ezkerrekoa mintzagaia den aldetik, perpausaren hasieran nahiz amaieran joan daiteke (...) Edozein osagai izan daitekeenez mintzagai*

-aditza bera ere barne- edozein osagaik eraman ahalko du ***ere*** *bere eskuinetara ..."*[1]

Hortaz, lokailu honek bere aldamenean beste osagai bat behar du. Lokailua osagai honi zeharo atxikitzen zaio, enklitiko bihurtuz; gainera, Leizarragak enklitikotasun hau areagotzeko ERE lokailua aurreko osagaiari gidoi baten bidez lotuta aurkezten digu:

- *... hala içanen da guiçonaren Semearen ethortea-***ere**. (Mt.,XXIIII,27)

Salbuespenak badaude, baina oso urriak direnez gero, akats tipografikoak direla esan dezakegu:

- *... Baina nor da haur, haiceac eta itsassoac,* ***ere*** *obeditzen baitute?* (Mc.,IIII,41)

(Inprenta akatsa izan liteke, gidoia ipini beharrean, koma ipinita)

B.- Bestalde, ERE lokailuak ezkerraldean daraman osagaiari gagozkiolarik, hau edozein motatakoa izan daitekeela esaten digu EGLU-k. Ikus dezagun, beraz, Leizarragaren obran lokailua zeri atxiki dakiokeen:

B.1.- Sintagma bati atxikirik:

Sintagma kategoriaren barruan, mota desberdinak bereiz ditzakegu:

a) Izen sintagmak:

- *Ecen non baita çuen thesaura, han içanen da çuen bihotza-***ere**. (Mt.,VI,21)

b) Izenordeak:

- *Bada segur naiz, ene anayeác, ni neuror-***ere** *çueçaz, ...* (Rom.,XV,24)

c) Erakusleak:

- *Hunec-***ere** *bada ordu berean ethorriric ...* (Lc.,II,38)

---

[1] EUSKALTZAINDIA, Euskal Gramtika Lehen Urratsak-III, 35-41.orr.

d) Indefinituak:

- ... *eztaquizquión guehiagoric minça icen horretan nehori-**ere**.* (Apost.Act.,IIII,17)

e) Adizlagunak:

- ... *eta ikusten cituen vrrundanic-**ere** claroqui guciac.* (Mc.,VIII,25)

Bakan batzuk baino ez ditugu aipatu; edonola ere, hauen bidez agerian geratzen da lokailu hau edozein motatako sintagmari atxiki dakiokeela.

Ondoren, aipagarri suertatzen diren zenbait adibide komentatuko ditugu, hala nola, izenlagunekiko jokabidea:

(1)- *Ecen Sabbathoaren-**ere** Iaun da guiçonaren Semea.* (Mt.,XII.8)

(2)- ... *Guiçonaren Semea iabe da Sabbathoaren-**ere**.* (Lc.,VI,5)

(3)- ... *ecen hura anhitzen ostatessa içan da, eta neurorren-**ere**.* (Rom.,XVI,2)

Leizarragak ERE lokailua izenlagunaren eta izenaren artean kokatzen du; beraz, badirudi bi elementu horien arteko lotura hauskorra dela; izan ere, izena aurreratzen denean (2), edota zeharo ezabatzen denean (3), Leizarragak ERE lokailua ematen zaigun informazio berriari itsasten dio; beraz, informazio hori genitiboaren bidez ematen bazaigu, genitiboari lotuko dio lokailua, horretarako, izen lagunaren eta izenaren arteko lotura apurtu behar badu ere. Edozein modutan, bi elementu hauen arteko lotura apurtzea ez da Leizarragaren ezaugarri bereizgarria, Etxeparek berak ere egiten baitzuen:

Ni gathibu naducana captiua da berceren

Ene dichac hala eguin du ny gathibu bigaren

(Etxep.,IV,3-6)

Azkenik, aipa dezagun sintagma hauek erlatibozko perpausek osatuak ere izan daitezkeela; kasu hauetan, ERE lokailua erlatibozkoari loturik aurkituko dugu:

- *Baina ethorriric talentbat recebitu çuenac-**ere** diotsa ...* (Mt.,XXV,24)

- *Ecen cer iudicatzeco dut nic campoco diranenez-**ere**?* (Cor.1,V,12)

B.2.- Aditzari atxikirik:

Leizarragak, maiz, ERE lokailua aditz nagusiari atxikitzen dio. Aditz nagusiaren eta laguntzailearen artean dagoen lotura apurtu egiten du eta lokailua bien artean tartekatzen du, hau perpaus lokabeetan (1),(2) zein menpekoetan (3) gerta daitekeelarik:

(1)- *... Ikussi dut Spiritua iausten dela vsso columba baten guissán cerutic eta egon-**ere** bacedin haren gainean.* (Io.,I,32)

(2)- *Eta ez haur solament baina gloriatzen-**ere** bagara Iaincoa baithan ...* (Rom.,V,11)

(3) *Cein denuntiatzen-**ere** baititugu, ...* (Cor.1,II,13)

Ohart gaitezen lokailuaren ostean datorren adizki laguntzailea -beste aurrizkirik ez badarama, behintzat-BA- aurrizkiaren bidez indartu ohi dela (1),(2),(4):

(4)- *... promettatu vkan cerauê (...) deliuraturen eta libertatean eçarriren-**ere** **ba**liradela* ...(Som.,30-39, 274-275.orr.)

Adizki perifrastikoak alde batera utzirik, adizki sintetikoak aztertzen baditugu, hauetan ere aditzaren aurreko osagaiak ERE lokailua badarama, aditza indartu egiten dela ohartzen gara:

- *Baina orain-**ere** **ba**ceaquiat ...* (Io.,XI,22)

Hala ere, orain arte aipatutakoa ezin da legetzat jo, ERE lokailuaren ondoko adizki laguntzaileak behintzat ez

baitira beti indartzen; izan ere, BA- indartzailerik gabeko adibideak ere aurki ditzakegu:

- ... *hec deithu-**ere** ditu (...), hec iustificatu-**ere** ditu (...) hec glorificatu-**ere** ditu.* (Rom.,VIII,29)

- *Halacotz côtenitzen-**ere** da Scripturán, ...* (Pier.1,II,6)

Bestalde, aurreko adibideetan ikusi dugunez, aditz nagusiaren eta laguntzailearen arteko lotura ez da hain bortitza, bien artean ERE lokailua tarteka baitaiteke; eta are gehiago, aditz nagusiaren eta laguntzailearen artean lokailua ezezik beste era bateko osagaiak ere tartekatzen ditu Leizarragak:

- ... *Eta ni iayo-**ere** burgés nauc.* (Apost.Act.,XXII,28)

- ... *sinhesten dugu vicico-**ere** harequin garela.* (Rom.,VI,8)

Azkenik, esan dezagun ERE lokailua laguntzailerik gabeko aditz nagusiari loturik ere aurki dezakegula:

- ... *ceinetan sinhetsi-**ere** vkanic, ciguilatu içan baitzarete ...* (Eph.,I,13)

- ... *eta hunetan alegueratzen naiz, eta alegueraturen-**ere**.* (Phil.,I,18)

B.3.- Perpaus oso bati atxikirik:

ERE lokailua aditzari ezezik, perpaus oso bati lotuta ere ager daiteke; hauek, orokorrean, menpeko perpausak izaten dira:

- ... *Are Spiritu saindua denez-**ere**, eztiaguençun.* (Apost.Act.,XIX,2)

- *Ecen çuequin guinadenean-**ere** haour denuntiatzen guendrauçuen, ...* (Thes.2,III,10)

2.1.1.2. Ere bay / Ere ez.

Lokailu hau beste juntagailu edo lokailuen zerbitzuan ager daiteke; baina, bera ez al da inoiz beste aditzondo edo lokailuek lagundurik agertzen? Ikus dezagun zer dioskun EGLU-k:

> *"Zenbait kasutan, oso arrunta da perpauseko osagai guztiak ezabatzea, lokailuarekin doan sintagma eta lokailua bera izan ezik (batzutan **bai** edo **ez** erants dakioke lokailuari ondoren, batez ere mendebaldean egiten delarik hau)"*[5]

A.- **"Ere ez"** egiturari dagokionez, Leizarragaren obra osoan ez dugu adibide bakar bat ere aurkitu. Edozein modutan, argitu dezagun kontestu egokirik ere ez dugula aurkitu; bestela, suposatzekoa da elementu guztiak elidituko balira, EZ aditzondoa ERE lokailuaren arrimuan agertuko litzatekeela, ezezkotasuna markatzeko ezinbestekoa baita. Izan ere, horrela ez balitz, perpaus erabat agramatikalak izango genituzke:

- Ni ez naiz joango
- * Ni ere

B.- **"Ere bai"** egiturari dagokionez, ordea, jokabide desberdinak topa ditzakegu:

Zenbaitetan, Leizarragak, osagai guztiak eliditu arren, ez du **bai** aditzondoaren beharrik ikusten:

- ... *Hebraico dirade? ni-***ere**: ... (Cor.2,XI,22)

Erka dezagun Haranederrek duen adibidearekin:

- *Hebrearrac dire?* **Bai eta** *ni* **ere**... (Haran., Cor.2,XI,22)

---

[5] EUSKALTZAINDIA, Euskal Gramtika Lehen Urratsak-III, 45.or.

Edonola ere, honek ez du esan nahi Leizarragak ez duenik ERE BAY egitura inoiz erabiltzen, Testamentuan zein sarrera moduko testuetan adibideak aurki ditzakegu eta:

- *Eta eztiat hecgatic solament othoitz eguiten, baina hayén hitzaz ni baithan sinhetsiren dutenacgatic-***ere bay.** (Io.,XVII,20)

- ***Spiritua:** (...) Batzutan adiméduagatic edo raçoinagatic* ***ere bay.*** (Hitz eta Minçatzeco Manera,1212.or.)

Esan dezagun, beraz, perpausaren elementu guztiak -lokailua bera izan ezik, jakina- eliditzen direnean, perpausa ezezkoa bada, EZ aditzondoaren agerpena derrigorrezkoa den bitartean, perpausa baiezkoa denean, BAI erabiltzea edo ez erabiltzea -Leizarragaren hizkeran, bederen- aukeran dagoela.

2.1.1.3. ERE lokailu edo juntagailuen indargarri.

Azkenik, gogora dezagun ERE lokailua beste edozein juntagailu zein lokailurekin ager daitekeela:

- ... *Eta* ***halaber*** *guciec-***ere** *erraten çutén.* (Mc.,XIIII,31)

- ... ***Ala*** *çuec-***ere** *ioan nahi çarete?* (Io.,VI,67)

- ... ***baina*** *recebi ceçaten hec-***ere** *dinero baná.* (Mt.,XX,10)

- ***Bada*** *ia aizcora-***ere** *arborén errora eçarria da ...* (Lc.,III,9)

- ***Halacotz*** *neure buruä-***ere** *eztiat digne estimatu ...* (Lc.,VII,7)

- ***Ecen*** *guiçonaren Semea-***ere** *ezta ethorri ...* (Mc.,X,45)

2.1.2. HALABER

EGLU-k aipatzen duenez*, Euskal Literaturaren hasieratik lokailu hau bereziki Lapurdiko euskalkian izan da erabilia. Asko hitz egin da Leizarragak darabilen euskalkiaz eta ez gara orain auzi horretan sartuko; edozein modutan, ez dezagun ahanz Leizarraga, nagusiki, euskalki honetaz baliatzen dela.

HALABER, berez, aditzondoa baino ez litzateke izango; baina perpausaren hasieran kutsu berezia hartzen du: bi perpausen arteko zubia dela ematen du, bi perpaus horiek lokabeak izan arren, lokailu honi esker nolabaiteko lotura -bakarrik semantikoa bada ere- gauzatzen baita.

2.1.2.1. Tokia.

Lokailu honen kokalekuari dagokionez, normalean perpausaren hasieran agertzen dela esan dezakegu; hala ere, azkeneko posizioan edo esaldiaren barruan ere aurkituko dugu:

1- Perpausaren hasieran:

> - ***Halaber*** *erran içan da, Norc-ere vtziren baitu bere emaztea ...* (Mt.,V,31)

Perpausaren hasieran, lokailu hau ERE lokailuak lagunduta ere ager daiteke. HALABER eta ERE lokailuak esanahiaren aldetik parekoak direnez, askotan zenbait adibidetan biak batera agertzen zaizkigu. Hala ere, ERE ez da inoiz HALABER lokailuaren ondoan agertzen, bion artean mintzagaia agertzen baita, hau sintagma bat edo perpaus oso bat izan daitekeelarik:

> - ***Halaber*** *biga recebitu cituenac-**ere**, irabaz citzan berce biga.* (Mt.,XXV,17)

---

* EUSKALTZAINDIA, Euskal Gramtika Lehen Urratsak-III, 57.or.

- **Halaber** *Lot-en egunetan-**ere** eguin içan cen beçala* ... (Lc.,XVII,28)

2- Tarteko posizioan:

a) Aditzaren ondoan:

- *Eta hauc dirade **halaber** leku harriçuetara hacia recebitzen dutenac* ... (Mc.,IIII,16)

b) Beste edozein osagairi lotuta:

- ... *eure onac eure vician recebitu dituala, eta Lazaroc **halaber** gaitzac* ... (Lc.,XVI,25)

Edozelan ere, tarteko posizioan eta ondoren ikusiko dugun amaierako posizioan, HALABER honek lokailua baino gehiago aditzondo hutsa dirudi.

3- Perpausaren amaieran:

- ... *eta harc-ere etzieçán leinuric vtzi: eta hirurgarrenac **halaber**.* (Mc.,XII,21)

- ... *çuec-ere eguieçue haey **halaber**.* (Lc.,VI,31)

Lokailu honek hartzen duen kokaguneak ez dirudi erabakiorra denik; hots, lokailu honek askatasun handia du posizio batean zein bestean agertu ahal izateko, baina ez du ematen honek lokailuak hartzen duen balioan eraginik izan dezakeenik, posizio desberdinetan gauza bera adieraz baitezake. Ikus dezagun adibide bat:

- *Erraiten cerauen **halaber** ...* (Lc.,XIIII,7)

- **Halaber** *erran ceçan, ...* (Lc.,XV,11)

2.1.2.2. Balio berezia.

Azkenik, aipa dezagun lokailu honek har dezakeen beste balio bat:

> "... *Aski arrunta da modu-konparazioa egiteko erabiltzen ditugun perpausetan aurkitzea, HALA hutsaren ordez jartzen delarik.*"[7]

Leizarragaren obran ere honelako adibideak ditugu:

> - *Eta hala nola Iannesec eta Iambresec resistitu baitraucate Moysesi:* **halaber** *hauc-ere eguiari resistitzen diraucoé ...* (Tim.,III,8)
>
> - *... Eta nola (...) promettatu içâ baitzê:* **halaber** *(...) declaratu içâ da ...* (Adv.,21-24,263.or.)

---

[7] Id., 62.or.

2.1.3. BERERE(N) / BEHINÇAT

Sarrera gisa, ikus dezagun zer esaten duen EGLU-k BEHINTZAT lokailuari buruz:

> *"Hitz hau biltzen duen kategoria eta* **ere** *hitza biltzen duena kategoria bera ez bada, oso hurbilekoa dela esan dezakegu. Biek egiten diote erreferentzia beste zerbaiti, aurreko perpausen batean baieztu nahiz ukaturiko zerbaiti, alegia.*
>
> *(...) Funtzioari dagokionez, esan denari buruz nolabaiteko muga jartzeko erabiltzen du hiztunak."*[8]

BEHINTZAT lokailuari buruz esandakoa BERERE(N) lokailuari ere aplika lekioke; halere, EGLU-k bi forma hauek neurri haundi batean baliokidetzat jo arren, zenbait puntutan bereiz daitezkeela zehazten du:

> *" Bi hauen parekoa* -BEHINTZAT, SEGURIK- *dugu (...)* **bederen** *lokailua ere eta* **behintzat** *bezalaxe erabil daiteke, nahiz, literaturan ikusten denez, ezezko perpausetan maizago ageri diren beste bi lokailuak.*
>
> *(...) Bi lokailu hauek* -BEHINTZAT, BEDEREN- *alor semantiko diferenteak dituzte, eremu handi eta zabal batean (handienean) bat egiten duten arren:* **bederen** *lokailuak badu besteak ez duen baldintzazko kutsua.*
>
> *(...)* **bederen** *lokailuak badu besteek askoz ere nekezago eskuratzen duten (inoiz eskuratzen baldin badute) kontzesio kutsua ..."*[9]

Leizarragak biak erabiltzen ditu, baina ez dira oso ugariak; adibidez, sarrera moduko testuetan adibide bana baino ez dugu aurkitzen, eta Testamentuan ere urriak dira; dena den formarik erabiliena BEHINÇAT da, 22 adibideetatik, 16 forma honi baitagozkio.

---

[8] Id., 65.or.

[9] Id., 70-76.orr.

2.1.3.1. Balioa.

Bion arteko desberdintasunari dagokionez, gauzak ez dira hain argi ikusten. EGLU-k ezezko perpausetan BEHINTZAT edota beste lokailu batzuk BERERE(N) baino maizago ageri direla esaten digu; halere, Leizarragak BERERE(N) ezezko perpausetan ere erabiltzen duela ikusten dugu:

(1)- ... *Ezaiz Iaincoarê* ***berere*** *beldur,* ... (Lc.,XXIII,40)

(2)- ... *baldin neure ausartgoa hunez cerbait excusa* ***bereren*** *eman ezpaneça* ... (Guc.,7-8,249.or.)

Baldintzazko kutsuari dagokionez, BERERE(N) lokailua baldintzazko perpausetan ere agertzen dela zalantzarik gabekoa da (2); baina horixe bera esan liteke BEHINÇAT lokailuaz:

- *Baldin* ***behinçat*** *ençun vkan baduçue* ... (Eph.,III,2)

Bereizketa, beraz, ez da hain sinplea. Dena den, baldintzazko kutsua BERERE(N) lokailuaren bidez eraikitzen diren perpausetan BEHINÇAT daramatenetan baino ageriago dagoela dirudi:

- *O baldin hic* ***berere*** *eçagutu vkâ bahitu eure iornata hunetan* ***berere****, eure baquearen gauçác!* (Lc.,XIX,42)

Adibide honetan, esate baterako, Haranederrek Leizarragak bezalaxe jokatzen du, BEDEREN erabiliz:

- *"Ochala çorionezco egun huntan* ***bederen*** *eçagutu bahitu baquea hiri emateco gai ciren gauçac* ... (Haran., Lc.,XIX,42)

BEHINÇAT lokailuari bagagozkio, forma hau BERERE(N) lokailua baino neutroagoa dela ematen du, edozein motatako perpausetan -baita baldintzazkoetan ere- aurki baitezakegu. Gainera, gogora dezagun formarik ugariena

dela; hortaz, markatugabeena. Ikus ditzagun adibide batzuk:

- ... *Ni* ***behinçát*** *Paulê naiz, ...* (Cor.1,I,12)

- *Baldin* ***behinçat*** *ençun vkan baduçue ...* (Eph.,III,2)

Gainera adibideok Haranederrek dituenekin erkatzen baditugu, honek ere Leizarragak bezalaxe jokatzen duela ohartzen gara, berak ere BEHINTÇAT erabiltzen baitu:

- ... *"Ni* ***behintçat*** *Paulorena naiz"...* (Haran., Cor.1,I,12)

- *baldiñetariac* ***behintçat*** *aditu içan baduçue ...* (Haran., Eph.,III,2)

2.1.3.2. Forma.

Lokailu hauen formaz hitz egitean, beste bereizketa bat egin behar dugu, BEHINÇAT lokailuak bere forma aldaketarik gabe mantentzen duen bitartean, BERERE(N)-k bi forma har baititzake:

1- BERERE (Ugariena):

- *Baldin bercén Apostolu ezpanaiz, çuen* ***berere*** *banaiz ...* (Cor.1,IX,2)

2- BERERE**N** (Adibide bakarra):

- ... *baldin neure ausartgoa hunez cerbait excusa* ***bereren*** *eman ezpaneça ...* (Guc.,7-8,249.or.)

2.1.3.3. Tokia.

Lokailu hauen kokalekuari dagokionez, BERERE(N), beti, perpausaren barruan agertzen da:

- ... *othoitz eguiten ceraucaten haren arropa ezpaina* ***berere*** *hunqui leçaten* ... (Mc.,VI,56)

BEHINÇAT lokailuak mugikortasun handiagoa agertzen du; gehienetan perpaus barruan agertuko da, baina, hasieran zein amaieran ere ager daiteke:

* Perpausaren hasieran:

  - ... *baldin* ***behinçát*** *Iaincoaren Spiritua habitatzen bada* ... (Rom.,VIII,9)

  - *Baldin* ***behinçát*** *huraençun vkan baduçue,* ... (Eph.,IIII,21)

  (Perpausaren hasieran agertzen denean, beti baldintzazko perpaus batean eta BALDIN formari loturik izaten da. Kokaleku honetan, beraz, ez da markatu nahi duen terminoaren eskuinaldean agertzen.)

* Perpausaren barruan (ugariena):

  - ... *gorputza* ***behinçát*** *hil da* ... (Rom.,VIII,10)

  - ... *eta oraino, trâslationetâ* ***behinçat,*** *vsatu gabea* ... (Guc.,23,252.or.)

* Perpausaren amaieran:

  - ... *ethorri nahi içan gara çuetara (ni Paul* ***behinçát***) ... (Thes.1,II,18)

2.1.4. BERÇALDE (BERCE ALDE)

Ikus dezagun, zer esaten duen EGLU-k lokailu honetaz:

> " *Funtzioa (...) gehitzearena da (...) ekintza bati beste bat gehitzen zaiola adierazteko balio du (...)* ***Bestalde*** *lokailuak* ***gainera*** *lokailuaren balioa hartzen duela esan daiteke."*[10]

Leizarragak ez du inoiz GAINERA lokailua erabiltzen; baina, balio hori adierazteko BERÇALDE lokailuaz baliatzen da; izan ere, Leizarragak GAINERA, emendiozko lokailu gisa bete dezakeen funtzioan ezezik bere gainontzeko funtzio guztietan ere ordezkatzen du BERÇALDE-ren bitartez. Ikus dezagun adibide bat:

> - *... Fedeaz eta charitateaz* ***berçalde****, Spiritu hunec berac emaiten draucu sperança vkaiteco verthutea ...* (Som.,28-30,276.or.)

Argi dago adibide honetan -(e)Z BERÇALDE gaur egun erabiltzen dugun **-(e)Z GAIN(ERA)** egituraren baliokidea dela. Honez gain, ohart gaitezen adibide honetan BERÇALDE ez dela emendiozko lokailua, **EZEZIK... ERE** formaren balio bera duen emendiozko esapidea baizik.

Orain, LOKAILUAri bagagozkio, lehendabizi **FORMA** azter dezakegu. Izenburuan ikus dezakegunez, bereizirik zein elkarturik ager daiteke; dena den, aitor dezagun bereizirik behin baino ez dela agertzen. Ikus dezagun adibide bana:

> - *Eta* ***berce alde****, gure eta çuen arteâ abysmo handibat duc ...* (Lc.,XVI,26)
>
> - ***Berçalde*** *manamendu berribat scribatzen drauçuet, ...* (Io.1,II,8)

---

[10] Id., 53.or.

Formaz ari garenez, lokailu honen aldaera bat aipatu behar dugu: BERÇALDERA.

- ... *Eta* ***berçaldera*** *(...) erranen draue* ... (Som.,21-22,278.or.)

(Zehaztu dezagun oso forma urria dela, obra osoan adibide hau bakarrik aurkitu baitugu)

KOKALEKUAri dagokion aldetik, hasieran zein tartean ager daiteke; baina, tartean agertzen denean aditzondo soila dela dirudi:

* Perpausaren hasieran:

(Adibide gehienak kokaleku honetan aurkitzen ditugu, aurreko perpausarekiko lotura semantikoa adierazten dutelarik)

- ***Berçalde*** *(...) hitz bakoitz batzu letra cheheagoz (...) eçarri içan dirade* ... (Heu.,3-5,254.or.)

- ... :***berçalde***, *hura bere verthutez resuscitatu içan da* ... (Adv.,5-6,265.or.)

* Tarteko posizioan:

- *Eta Leguea* ***berçalde*** *sarthu içan da handi ledinçát offensá* ... (Rom.,V,20)

Honez gain, beste juntagailu edo lokailuekin ere ager daitekeela aipatu behar dugu. Orokorrean, emendiozkoekin izango da, BERÇALDE hasierako posizioan agertzen denean, ETA lokailu edo juntagailuak lagunduta aurkitu ohi baitugu:

- ... ***Eta berçalde***, *hura da* ... (Som.,31,277.or.)

- ... ***Eta berçaldera*** *(...) erranen draue* ... (Som.,21-22,278.or.)

Azkenik, esan behar da, orokorrean, BERÇALDE lokailua oso gutxitan erabiltzen dela -obra osoan 10 adibide besterik ez daude-, eta gehienak (7) sarrera-testuetan aurkitzen ditugula.

2.1.5.EZ SOLAMENT...BAINA (ARE)...ERE (BAY)

Formari begira, esapide hau aurkaritzakoen artean kokatu beharko genukeela dirudi; izan ere, BAINA juntagailua dugu aztergai; dena den, ikus dezagun zer dioskun EGLU gramatikak:

> *"... Ekialdeko erabilera nagusia eta ia bakarra dugu hau, mendebaldeko idazle bakarren batek erabili badu ere.*
>
> ***Bainan, baina,** berez formari begiratuta aurkaritzakoak badira ere, hemen emendiozko balioa dute."*[11]

Edozein modutan, hasi aurretik, zehaztu dezagun EGLU gramatika **Ez bakarrik...baina...(ere)** egituraz aritzen dela, eta Leizarragak **bakarrik** aditzondoaren ordez **solament** erabiltzen duela.

2.1.5.1. Lehen atalaren forma eta funtzioa.

Lehen atalaren formari gagozkiolarik, EGLU-k hiru aukera posible aipatzen ditu:

- ez ... bakarrik
- ... bakarrik ez
- ez bakarrik ...

Leizarragak BAKARRIK aditzondoaren ordez SOLAMENT erabiltzen duenez, teorikoki, honako aukera hauek aurkitu beharko genituzke:

- ez ... solament
- ... solament ez
- ez solament ...

---

[11] EUSKALTZAINDIA, Euskal Gramatika Lehen Urratsak-IV. Juntagailuak, 106.or.

Hala ere, Leizarragaren obran bi bakarrik aurkitu ditugu: **"ez...solament / ez solament ..."**:

- ... ***ez*** *ene oinac* ***solament***, *baina escuac-ere eta buruä.* (Io.,XIII,9)

- ... ***ez solament*** *cargaren eta vnciaren, baina gure vicién-ere peril eta calte hâdirequin içanen dela.* (Apost.Act,XXVII,10)

Bi hauen artean, nagusitzen den forma **"EZ ... SOLAMENT"** da. Honez gain, zehaztu dezagun bi aditzondoen artean osagai mota desberdinak -bai sintagmak, bai perpausak- aurki ditzakegula:

1.- Sintagmak:

- ... ***ez*** *hi* ***solament***, ***baina*** *ni egunençuten nauten guciac-**ere** eguin cindeizten ...* (Apost.Act.,XXVI,29)

- ... ***ez*** *circoncisionecoén* ***solament***, ***baina*** *(...) hatzari darreizconen-**ere**.* (Rom.,IIII,12)

2.- Perpausak:

2.1. Jokatugabeak:

- ... *Ecen ni* ***ez*** *estecatu içatera* ***solament***, ***baina*** *Ierusalemen hiltzera-**ere** prest naiz* ...(Apost.Act.,XXI,13)

2.2. Jokatuak:

- ... ***eztu*** *Sainduén necessitatea supplitzen* ***solament***, ***baina*** *abundatzen-**ere** badu* ...(Cor.2,IX,12)

Edozein modutan, **"EZ SOLAMENT..."** egituraren bidez ere sintagmak zein perpausak elkar daitezke:

1.- Sintagmak:

- *Eta* ***ez solament*** *haren ethortez,* ***baina*** *hura çueçaz consolatu içan den consolationeaz-**ere**, ...* (Cor.2,VII,7)

2.- Perpausak:

* Jokatugabeak:

- ... *eman içan çaiçue Christgatic,* ***ez solament*** *hura baithan sinhestea,* ***baina*** *harengatic suffritzea-****ere****.* (Phil.,I,29)

* Jokatuak:

- ... ***ez solament*** *ficotzeari eguin içan çayona eguinen duçue,* ***baina are*** *baldin mendi huni badarroçue, khen adi, eta iraitz adi itsassora eguinen da.* (Mt.,XXI,21)

Bi egiturek, beraz, funtzio bera betetzen dute. Lehenengoa bigarrena baino maizago aurkituko dugu; baina horixe da bion arteko desberdintasun bakarra. Izan ere, hurrenkera desberdin hauek ez dira Leizarragaren ezaugarri berezia Haranederren obran ere hurrenkera desberdinak aurki ditzakegu eta. Ikus ditzagun, esate baterako, Haranederren adibide bi:

(1)- ... *nic higuituren dut* ***ez solament*** *lurra,* ***baina*** *ceruä-****ere****.* (Leiz., Hebr.,XII,26)

- ... *"Oraiño behin iharrosico dut nic* ***ez choilqui*** *lurra,* ***baiñan*** *cerua* ***ere****.* (Haran., Hebr.,XII,26)

(2)- ... ***ez*** *vrez* ***solament,*** ***baina*** *vrez eta odolez* ... (Leiz., Io.1,V,6)

- ... ***ez*** *urarequien* ***choilqui,*** ***bainan*** *urarequien eta odolarequien,* ... (Haran., Io.1,V,6)

Esapide hau ekialdeko erabilera nagusia izanik, Haranederren obran ere aurkitzen dugu, bi idazleen artean soma dezakegun desberdintasun bakarra lehen atalean agertzen den aditzondoari dagokiona delarik, Leizarragak, gehienetan, SOLAMENT, eta Haranederrek, berriz, CHOILQUI erabiltzen baitu.

Edozein modutan, Leizarragak, hain ugariak ez badira ere, beste aditzondo batzuk ere erabiltzen ditu:

* CHOIL :

- ... **eztitu choil** *galdu (...): **baina** (...) suportatu vkan ditu ...* (Adv.,31-33,256.or.)

* BER:

- ... *etzen Aingueru batez **ber** ekarri içan berri haur, **baina** approbatu-**ere** **bay** Aingueruezco compainia handi batez, ...* (Adv., 10-12,264.or.)

2.1.5.2. Bigarren atala.

Bigarren atalaren buruan adiera aurkaririk gabeko **BAINA** aurkituko dugu. Hau sistematikoa da; baina honez gain, beste aditzondo eta lokailu batzuk ere ager daitezke. Beraz, honako egitura hauek topa ditzakegu:

1- **BAINA ARE ...**

- ... *eta ethor citecen **ez** Iesusgatic **solament**, **baina are** Lazaro ikus leçatêçat.* (Io.,XII,9)

- *Eta **ez solament** natione harengatic, **baina are** Iaincoaren haour barreyatuac bil litzançát batetara.* (Io.,XI,52)

2- **BAINA ARE ... ERE**

- ... *eztute (...) pena eta diligêtia eçarri vkâ **solament: baina are** (...) scribuz-**ere** hura eçarri eta vtzi vkâ duté ...* (Adv.,20-25,262.or.)

3- **BAINA ... ERE**

- ... **ez** *ene oinac **solament**, **baina** escuac-**ere** eta buruã.* (Io.,XIII,9)

- ... *desir guenduen çuey partitzera **ez solament** Iaincoaren Euangelioa, **baina** gure arima propriac-**ere**, ...* (Thes.1,II,8)

4- **BAINA ... ERE BAY**

- ... *Eta **ez** Iaincobat **solament**, **baina** (...) eguin vkan ahal duen becembat-**ere** **bay** ...* (Adv.,1-3,259.or.)

- **Vncia**, *ezta **solament** communzqui costumatzê den beçala hartzen: **baina** (...) instrumêt beçala*

*cerbitzatzê den guciagatic-**ere** **bay**.* (Hitz eta Minçatzeco Manera, 1213.or.)

5- **Ez...solament, BAINA ...**

- *... **ez** vrez **solament**, **baina** vrez eta odolez ...* (Io.1,V,6)

Ikusten dugunez, esapide hau osatzeko molde ugari ditugu; dena den, guztien artean bat da nagusitzen dena: **EZ SOLAMENT, BAINA ... ERE**, gure **EZEZIK ... ERE** egiturarekin bat egiten duena.

Edozein modutan ere, zehaztu dezagun goian aipaturikoa eredurik erabiliena izan arren, batzuetan, ERE emendiozkoa jakintzat eman eta eliditu egiten dela:

- *... nola **ez** Ephesen **solamêt**, **baina** quasi Asia gucian ...* (Apost.Act.,XIX,26)

- *... emâ içâ çaye **ez** Israelecoey **solamêt**, **baina** natione eta regione orotaco gêde mota guciey, ...*(Adv.,12-13,262.or.)

B.- JUNTAGAILUAK:

2.1.6. ETA

Hau emendiozkoen artean aipa dezakegun juntagailu bakarra da; dena den, ez dezagun ahanz lokailu balioa ere har dezakeela.

Leizarragaren Testamentu Berrian juntagailu honen ugaltasuna ikaragarria da; ezpairik gabe, gehien erabiltzen den juntagailua da. Hau dela eta, adibide guztiak jasotzea lan itzela izateaz gain, balio urrikoa izango litzatekeelakoan, interesgarrienak bakarrik jaso eta komentatuko ditugu.

Sarrera-testuetan, berriz, ETA juntagailua ez da hain maiz agertzen; hala ere, kontutan hartu behar dugu Testamentua itzulpena dela eta sarrera-testuak sormen lana direla, honek idaztankera baldintzatzen duelarik. Itzulpenetan itzultzaileak bere askatasuna galtzen du, eta are gehiago testu bibliko baten itzulpena bada, itzultzailea testuari erabat lotzen zaiolako; horregatik, sarrera-testuetan emendiozko juntagailuaren erabilera ez da hain bortxatua, idazleak askatasun handiagoa duelako.

2.1.6.1. **Forma.**

Formari dagokionez, juntagailu honek ez digu buruhausterik sortzen Leizarragaren erabilera oso sistematikoa delako. Gainera, ikus dezagun zer esaten digun Patxi Altunak iparraldeko idazle zaharrek darabilten formaz[12]:

> *"Mendebaldeko euskalkietan batikpat, **ta/da** agertzen da maiz. Ez dirudi forma laburtu honek, halere, oso zaharra edota iparraldeko idazle zaharren artean ez oso hedatua bederen"*

---

[12] ALTUNA, P. "Juntagailu Kopulatiboak", Fontes Linguae Vasconum, 47.or.

Puntu honi dagokionez, iritzi guztiak datoz bat. Ikus dezagun zer dioen EGLU gramatikak:

> *"**Eta** osoaren ordez **ta**, **da** idazteko ohitura ez da hain zaharra, egia esan, edo ez hain zabaldua bederen. Oihenart da antzineko iparraldeko idazleetan darabilen bakarra ..."*[1]

Leizarragaren obran ere juntagailua dugun guztietan forma osoa agertzen zaigu, laburdurarik edo aldaketa fonetikorik gabe:

> *- ... **eta** harc deliuraturé **eta** idoquiré lituela bekatutaric **eta** deabruaren tyranniatic **eta** suiectionetic, fede viciz **eta** (...) sinhestez* ...(Som.,1-3,275.or.)

2.1.6.2. ETA lokailua.

Sarreran aipatu dugunez, lokailuak testu batek behar duen lotura eta koherentzia bideratzeko tresnak dira.

Askotan perpausek, lokabeak izan arren, euren artean nolabaiteko lotura agertzen dute eta lotura hau bigarren perpausean dagoen partikula bati esker gauzatzen da. Hauxe da, bada, lokailuen funtzioa.

Lokailuak aditzondoak izan ohi dira, baina juntagailua bera ere lokailu gisa aritu daiteke; beraz, perpaus baten hasieran agertzen denean, aurreko perpausarekiko lotura marka dezake; hala eta guztiz ere, bi perpaus lokabe ditugunez, ezin dugu esan elkarketaren aurrean gaudenik.

Bestalde, lokailu hauek zein kontestutan agertzen diren zehaztu nahi badugu, orokorrean perpaus baten hasiera-hasieran, hots, puntuaketa larriaren ostean agertzen direla esan dezakegu. Honek Leizarragaren obran puntuaren edota gure puntu eta koma adierazten duten bi

---

[1] EUSKALTZAINDIA, Euskal Gramatika Lehen Urratsak-IV. Juntagailuak, 22.or.

puntuen ondoren azaltzen direla esan nahi du. Ikus dezagun adibide bat:

> - *Baina hameca discipuluac ioan citecen Galilearát, mendira, non ordenatu baitzarauen Iesusec.*
>
> ***Eta*** *hura ikussiric adora ceçaten:* ***eta*** *batzuc duda ceçaten* (Mt.,XXVIII,16-17)

Gauzak, halere, ez dira hain sinpleak, Leizarragak darabiltzan puntuazio-markak, batzuetan, benetan ilunak direlako. Hala beraz, Leizarragak darabilen puntuaketa larriaren ostean agertzen diren **ETA** guztiak ezin ditugu, besterik gabe, lokailutzat jo. Lehendabizi, aurreko perpausarekin duten lotura aztertu beharko da, bi puntu horiek gure komaren funtzio berbera betetzea gerta baitaiteke. Ikus ditzagun adibide batzuk:

> - ... *eman cietzén bere discipuluey:* ***eta*** *discipuluéc populuari.* (Mt.,XV,36)
>
> - ... *eltzoa irazten duçue:* ***eta*** *camelua iresten.* (Mt.,XXIII,24)

ETA-ren ostean datozen bi perpausak semantikoki ezezik sintaktikoki ere, aurreko perpausari loturik daude eta horren frogarik argiena adibide horietan ditugun elipsiak dira. Beraz, argi dago bi puntuen ondoan agertu arren juntagailuen aurrean gaudela.

Azken finean, ezin dugu ahaztu mende bakoitzak bere ohiturak dituela; beraz, zeinu diakritikoak ez ditzakegu fidagarritzat jo.

Azkenik, azter ditzagun hurrengo adibideak:

> (1)- ... *prest nauc hirequin* ***eta*** *presoindeguira* ***eta*** *heriora ioaitera.* (Lc.,XXII,33)
>
> (2)- ... *erran cieçon Iesusec,* ***Eta*** *ikussi duc hura,* ***eta*** *hirequin minço dena duc hura.* (Io.,IX,37)
>
> (3)- ... *cioela,* ***Eta*** *glorificatu diat,* ***eta*** *berriz glorificaturen.* (Io.,XII,28)

Perpausetan bina ETA ditugu. Bigarrenek juntagailu-funtzioa betetzen dute, bi sintagma edota bi perpaus elkartzen baitituzte; baina, zein da lehenengoen funtzioa?

Izan ere, ez dirudi aurreko perpaus edo sintagmari lotuta daudenik. Semantikak ezezik sintaxiak berak esaten digu elkarketa hori ezinezkoa dela, emendiozko juntagailu batek ezin baititu desberdinak diren sintagmak edo perpausak elkartu:

(2)- ... *erran cieçon Iesusec,* **Eta** *ikussi duc...* (Io.,IX,37)

Baina, ohart gaitezen Leizarragak ez zituela gaur egungo bi puntuak ezagutzen (berak erabiltzen zituenak, arestian esan dugunez, gure koma edo puntu eta komaren ordezkoak ziren); beraz, estilo zuzenari hasiera emateko komaz baliatzen zen, usu. Hortaz, hemen duguna honako hau izan liteke:

- ... erran çieçon Iesusec: "ikussi duc..."

Argi dago bada, lehenengo ETA horiek ez direla juntagailuak eta ez dutela ezer elkartzen. Leizarragak zertarako edo zergatik erabili zituen argitzeko grekerara edo latinera jo dezakegu, han **καὶ** eta **et** formak topatzen baititugu. Ikus dezagun adibide bat:

(2)- ... *erran cieçon Iesusec,* **Eta** *ikussi duc hura, eta hirequin minço dena duc hura.* (Io.,IX,37)

– εἶπεν αὐτῷ ὁ Ἰησοῦς **Καὶ** ἑώρακας αὐτὸν καὶ ὁ λαλῶν μετὰ σοῦ ἐκεῖνός ἐστιν.

- *Dixit ei Iesus:* "**Et** *vidisti eum et qui loquitur tecum ipse est*". (Io.,IX,37)

Beraz, hemendik atera dezakegun ondorioa da Leizarragak jatorrizko bertsioan -grekera, latina edo frantsesa- aurkitu zuena errepikatu zuela, besterik gabe.

Ikus dezagun orain nola itzultzen dituen adibide hauek Haranederrek, honek ez baititu hasierako ETA horiek erabiltzen :

(1)- ... *Jauna, prest naiz çurequien goaterat bai presondeguirat eta bai heriotcerat ere.* (Haran., Lc.,XXII,33)

(2)- *Erran cioen Jesusec: "Icussi içan duçu eta çurequien mintço dena bera da".* (Haran. Io.,IX,37)

(3)- ... *Ethorri içan cen bada boz bat cerutic: "Ja glorificatu dut eta berriz ere glorificatuco dut"* (Haran., Io.,XII,28)

Hau ikusita, lehenengo **ETA** horiek balio enfatikoa -eta banakaria, agian, batzuetan- duten lokailuak direla ondoriozta dezakegu. Seguraski, sintagma edo perpaus horiek indartu nahian erabiliko zituen. Gogora dezagun, gainera, EGLU gramatikak esaten diguna:

" *Beste batzuetan, indarra, enfasia emateko erabiltzen dugu* **eta**. *Itxuraz bi juntagairen artean azaldu arren ez du emendio baliorik; ustezko osagaiek ere kasu-marka desberdina eraman ohi dute, edo erreferente berekoak dira, ...*"[14]

2.1.6.3. ETA JUNTAGAILUA.

2.1.6.3.1. Juntagailuak zer elkartzen duen.

Juntagailuaren zeregina, berez, maila sintaktiko bereko perpausak lotzea da; baina honez gain, maila bereko sintagmak edo sintagmen osagaiak ere elkar ditzake. Eta perpausei dagokienez, hauek lokabeak zein menpekoak izan daitezke.

Hona hemen esan dugunaren adibide batzuk:

A.- SINTAGMEN OSAGAIEN ELKARKETA:

- ... *cein ethor baitzitecen Galileaco* **eta** *Iudeaco* **eta** *Ierusalemeco burgu gucietaric.* (Lc.,V,17)

---

[14] EUSKALTZAINDIA, Euskal Gramatika Lehen Urratsak-IV. Juntagailuak, 47.or.

- ...*puissança claroqui manifestatuaren* **eta** *declaratuaren contra iaquiara alchatzen licela* ... (Adv.,29-31,263.or.)

B.- SINTAGMEN ELKARKETA:

a - *Eta cen Ioannes veztitua camelu biloz,* **eta** *larruzco guerrico batez bere guerruncean inguru, eta othi* **eta** *bassezti iaten çuen.* (Mc.,I,6)

b - ... *ceinena baita adoptionea,* **eta** *gloriá,* **eta** *alliançác,* **eta** *Leguearen ordenançá,* **eta** *cerbitzu diuinoa* **eta** *promessac.* (Rom.,IX,4)

Azken bi adibideetan aditzarekiko komunztadura suertatzen da aipagarri: NOR sintagmak elkartzen direnez, aditzak, teorikoki, plural marka hartu beharko luke; hala ere, zenbait kasutan, aditzak elkarketa hori singularra balitz bezala joka dezake. Kasu hauen berri EGLU-k ematen digu:

- *Perpausak juntatzen direnean*
- *Kideko sintagmak juntatzen ditugunean*
- *Erreferente bereko izen sintagmak ditugunean*
- *Izen sintagma abstraktuak*
- *Partitiboa*
- *Aditza sintagma juntatuen aurrean dugunean*[15]

Gure adibideetara bueltatzen bagara, (a)-n: "*othi* **eta** *bassezti*" kideko sintagmak ditugu; beraz, komunztadura singularrean egitea zilegi litzateke.

Bigarrenean, aditza aurrean duen enumerazio baten aurrean gaude, eta gainera, izen sintagma abstraktuak elkartzen dira; beraz, hemen ere guztiz zilegi litzateke.

---

[15] Id.,50-55.orr.

Azter ditzagun orain beste adibide batzuk:

(1) *...Eztuçue iracurri Dauid-ec gossez eguin çuena* **eta** *harequin ciradenec?* (Mt.,XII,3)

(2) *... ecen bekatu guztiac guiçonén seméy barkaturen çaiztela,* **eta** *blasphematu dituqueizten blasphemio guciac.* (Mc.,III,28)

(3) *Eta sar cedin Ierusalemen Iesus,* **eta** *templean ...* (Mc.,XI,11)

(4) *Orduan populu guciac horiençunic* **eta** *publicanoéc iustifica ceçaten Iaincoa ...* (Lc.,VII,29)

(5) *... hura sar baitzedin vncian* **eta** *haren discipuluac ...* (Lc.,VIII,22)

Adibide hauetan juntagailuak bi sintagma elkartzen ditu; baina, bereziena da sintagma hauek ez daudela elkarren ondoan, bion artean aditza edo bestelako sintagmak tartekatu baitira.

Honez gain, elkartzen diren bi sintagmak sujeto badira ere, elkarrengandik aldenduta badaude, aditzak lehendabiziko sintagmarekin bakarrik gauzatuko du komunztadura (1),(5).

Bestalde, perpaus hauek, zenbaitetan, ulergaitz ere suerta daitezke, batez ere perpaus luzeak baldin badira (2),(4). Elkartzen diren bi sintagmen artean, aditzaz gain beste sintagmak ere tartekatu dira, horregatik emendiozko juntagailua ikustean ez da errez somatzen zer lotzen duen.

Nolanahi ere, juntagailuak bi sintagma elkartzen dituela esaten dugunean ez dugu ahaztu behar sakoneko egituran bi perpausen elkarketa daukagula; gertatu dena da errepikatzen diren elementu guztiak azaleko egiturara pasatzean eliditu egin direla:

(1)*...Eztuçue iracurri Dauid-ec gossez eguin çuena* **eta** *harequin ciradenec* (**gossez eguin çutena**)?

(2) *... ecen bekatu guztiac guiçonén seméy barkaturen çaiztela,* **eta** *blasphematu dituqueizten blasphemio guciac* (**guiçonen semey barkaturen çaiztela**).

(3) *Eta sar cedin Ierusalemen Iesus,* **eta** (**sar cedin**) *templean ...*

(4) *Orduan populu guciac horiençunic* **eta** *publicanoéc* (**hori ençunic**) *iustifica ceçaten Iaincoa ...*

(5) *... hura sar baitzedin vncian* **eta** *haren discipuluac* (**sar baitzitecen vncian**)...

Normalean, sakoneko egituran berdinak diren elementuak eliditzea erabakitzen dugunean, transformaketa bat suertatzen da kideak diren bi sintagmak elkarren ondoan kokatuz. Leizarragak, ostera, ez du halako transformaketarik gauzatu, gaur egun arrotz suerta dakizkigun perpausak sortuz.

Adibide hauek Haranederrek dituenekin erkatzen baditugu, honek adibide arruntagoak, ulerterrezagoak erabiltzen dituela jabetzen gara. Ikus dezagun adibide pare bat:

(1)- ... *Ez duçue iracurri cer eguin içan çuen Davidec, bera eta bere lagunac gosse içan ciren batez,...* (Haran., Mt.,XII,3)

(2)- ... *Barkhatuco çaizte guiçonen umei eguiñen dituzgueten bekhatu eta blasphemio guciac,* (Haran., Mc.,III,28)

C.- PERPAUSEN ELKARKETA:

Honaino sintagmez aritu gara; baina honez gain, juntagailuak zein eratako esaldiak elkartzen dituen aztertu behar dugu, hauek lokabeak zein menpekoak izan baitaitezke. Has gaitezen lokabeekin:

Hiru kontestu bereizi beharko genituzke:

1- Adierazpen perpausak:

- ...*Lohi eçarri vkan draut neure beguién gainera,* **eta** *garbitu naiz,* **eta** *ikusten dut.* (Io.,IX,15)

- *Eztu iharduquiren, ez***eta** *oihuric eguinen,* **eta** *nehorc eztu carriquetâ harè vozaençunen.* (Mt.,XII,19)

2- Galde perpausak:

- ... *Iauna, Iauna, eztugu hire icenean prophetizatu,* **eta** *eztitugu hire icenean deabruac egotzi campora,* **eta** *eztugu hire icenean verthute anhitz eguin?*(Mt.,VII,22)

3- Aginte perpausak:

- ... *renuntia beça bere buruäz,* **eta** *har beça bere crutzea,* **eta** *berrait niri.* (Mt.,XVI,24)

- ... *Iaiqui adi,* **eta** *har eçac eure ohea,* **eta** *habil eure etcherát* (Mc.,II,11)

Menpeko perpausei dagokien aldetik, ETA juntagailuak era guztietakoak elkar ditzake: erlatibozkoak, konpletiboak edo-ta zirkunstantzialak. Baldintza bakarra elkartzen dituen perpausak mota berekoak izatea da:

a) Konpletiboak:

- ... *eztuçuen artharic çuen vicitzeaz, cer ianen duçuen* **eta** *cer edanen ...* (Mt.,VI,25)

- ... *baceaquiagu eguiati aicela,* **eta** *Iaincoaren bidea eguiazqui iracasten duála,* **eta** *nehoren ansiaric eztuâla ...*(Mt.,XXII,16)

- ... *othoitz eguiten drauat, ethor adin,* **eta** *eçar ditzán escuac ...* (Mc.,V,23)

b) Erlatibozkoak:

- *Merkatuan iarriric dauden,* **eta** *bata berceari oihuz dagozcan haourtchoac ...* (Lc.,VII,32)

- ... *ceinetan fermu baicaude,* **eta** *gloriatzê baicara ...* (Rom.,V,2)

c) Zirkunstantzialak:

- ... *eta senda ceçan hura, halaco maneraz non itsu eta mutu cena minço baitzen* **eta** *ikusten baitzuen.* (Mt.,XII,22)

- *Eta handitu cenean belharra,* **eta** *fructu eguin çuenean, orduan aguer cedin hiraca-ere.* (Mt.,XIII,26)

- ... *ceren borthitz baitzarete,* **eta** *Iaincoarê hitza çuetan egoitê baita,* **eta** *gaichtoari garaithu baitzaizquiote.* (Io.1,II,14)

Menpeko perpausak agertzen direneko kontestuak aztertzean, baldintza bat jarri dugu: elkartzen diren perpausak tipo berekoak izatea; baina salbuespenik ote dago?

1- ... *eçar ditzán escuac haren gainean, senda dadinçát* **eta** *vici den.* (Mc.,V,23)

2- *Egun hetan, gucizco gêdetze handia cen beçala,* **eta** *ezpaitzuten cer ian leçaten, dei citzan ...* (Mc.,VIII,1)

3- *Ecen cer probetchu du guiçonac baldin mundu gucia irabaz badeça,* **eta** *bere buruä destrui deçan,* **eta** *gal dadin?* (Lc.,IX,25)

Hau ikusita, inork ETA-k perpaus desberdinak elkartzen dituela pentsa lezake, baina ez da horrela; formaren aldetik, desberdintasuna soma dezakegu, baina perpausak, sakonean, tipo berekoak dira:

(1)- Leizarragak helburuzko perpausak gauzatzeko bi forma erabiltzen ditu. **-nçat**-dun forma bestea baino ugariagoa da; baina Testamenduan zein sarrera-testuetan biak agertzen dira. Beraz, baliokideak diren perpausak elkartu ditu .

Ohart gaitezen Haranederrek ere bi formak erabiltzen dituela:

- ... *çato, pausa dioçoçu escua gaiñean, senda dadintçat* **eta** *bici dadin."* (Haran., Mc.,V,23)

(2)- Adibide honetan azalpena ez da hain erreza. Alde batetik, **-n beçala** formak ohiko ez duen balioa hartzen du; izan ere, moduzkoa baino gehiago, kausazkoa edo, hobeto esanda, esplikatiboa dela esan genezake.

Bestetik, **bait-** aurrizkia dugu. Honek ez du funtzio edo balio zehatzik Leizarragaren obran, balio anitz adierazteko erabiltzen baitu; hortaz, menderakuntza adierazlea dela esan dezakegu, aurrean daraman perpausaren arabera balio bat edo beste hartuko duena. Horrela, menderakuntza adierazlea izanik, arazorik gabe ager daiteke -(E)N BEÇALA-ri juntaturik. Gainera, ez dezagun

ahaztu **bait-** aurrizki honek, beste adibide batzuetan, adiera kausal-esplikatiboa ere har dezakeela.

Honez gain, Haranederrek darabilen adibidearekin erkatzen badugu, bi perpausak tipo berekoak direla egiazta dezakegu:

> - *Egun hetan* **nola** *jendetce handi bat* **baitcen** *Jesusequien* **eta ez baitçuten** *jatecoric, deithu içan cituen ...* (Mc.,VIII,1)

(3)- Hasiera batean arrotz suerta dakigukeen forma, aski arrunta da Leizarragaren obran zehar. Baldintzazko perpaus bat baino gehiago ditugunean -elkarren segidan, eta orokorrean **eta** juntagailuak elkarturik-, **ba-** aurrizkia errepikatu beharrean, menpekotasuna ere adierazten duen **-(e)n** atzizkiaz balıatzen da. Aurreko kasuan komentatu dugun gauza bera errepika genezake hemen ere. **-(e)n** atzizkiak, berez, ez luke baldintzazko kutsua adieraziko, baina baldintzazko bati loturik har lezake balio hau (Leizarragaren obran, bederen).

Ikus dezagun bada, Haranederrek nola itzuli duen:

> - *Cer probetchu du ecen guiçonac mundu gucia irabaztea ere, bere burua galtcen badu* **eta** *bere caltetan hari bada?* (Lc.,IX,25)

Beraz, bai sintagmak, bai perpausak elkartzen direnean bete beharreko baldintza hauek mota berekoak izatea da, salbuespenik gabe.

2.1.6.4. Elipsiak.

Alde batetik, sintagmei buruz hitz egitean, juntagailuak bi sintagma elkartzen dituenean, sakoneko egituran bi perpaus ditugula eta berdintsuak diren elementu guztiak ezabatu direla esan dugu. Hau, beraz, elipsi mota bat da:

> - *Orduan ethor cedin harêgana Ierusaleme* **eta** (ethor cedin harêgana) *Iudea gucia,* **eta** (ethor cedin

harêgana) *Iordanarê inguruco comarca gucia.* (Mt.,III,5)

Ikusten dugunez errepikatzen diren elementuak -aditzak, bestelako osagaiak, e.a.- eliditu egin dira.

Baina, honez gain, beste elipsi mota bat aipatu behar dugu, bi perpausetako adizkien artean gauzatzen dena, alegia.

Teorikoki behintzat, hiru aukera ditugu:

1. Ezabaketarik eza.
2. Laguntzailearen ezabaketa.
3. Aditz osoaren ezabaketa.

1- EZABAKETARIK EZA

Juntagailuak bi perpaus elkartzen dituenean gerta daiteke bi perpausetan aditza oso osorik mantentzea, hots, elipsirik ez egotea:

* Perpaus lokabeetan:

- *... eztugu hire icenean prophetizatu,* **eta** *eztitugu hire icenean deabruac egotzi campora,* **eta** *eztugu hire icenean verthute anhitz eguin?* (Mt.,VII,22)

* Menpeko perpausetan:

- *Eta norc-ereençuten baititu ene hitz hauc,* **eta** *ezpaititu eguiten, comparaturen da ...* (Mt.,VII,26)

Hau ikusita, elipsia, batzuetan behintzat, aukeran dagoela dirudi, aurreko adibideetan elkartzen diren perpausen adizki laguntzaileak berdinak izan arren ez baita elipsirik gauzatu.

Beste adibideetan, ordea, ezabaketarik ez gauzatzeko arrazoi argiak ditugu. Ikus ditzagun hurrengo bikoteak:

(1)- ... *ezpere lehertzen dirade çahaguiac,* **eta** *mahatsarnoa issurtzen,* **eta** *çahaguiac galtzen* (Mt.,IX,17)

- ... *ezpere mahatsarno berriac lehertzen ditu çahaguiac* **eta** *mahatsarnoa issurtzen da,* **eta** *çahaguiac galtzen dirade ...* (Mc.,II,22)

(2)- ... *Norc-ere vtziren baitu bere emaztea,* **eta** *bercebat emazte harturen,...* (Mc.,X,11)

- *Eta baldin emazteac vtzi badeça bere senharra,* **eta** *berce batequin escon badadi* (Mc.,X,12)

Perpausok antzekoak izan arren, batean bakarrik ezabatzen da adizkia. Dena den, bi perpausen arteko desberdintasuna nabarmena da: lehenengo adibideetan, eliditzen diren aditz laguntzaileak eta aurreko perpausarenak berdinak dira; baina bigarrenetan laguntzaileak desberdinak dira; horregatik ez da ezabaketarik burutzen.

Azkenik, gerta daiteke elipsia eta elipsirik eza konbinatzea; hau bi perpaus baino gehiago elkartzen direnean gertatzen da, perpaus batzuetan elipsia suertatzen da eta gainerakoetan ez:

- *Eta haourtchoa handitzen cen* **eta** *spirituz fortificatzen,* **eta** *behatzen cen sapientiaz ...* (Lc.,II,40)

Adibide honetan, aditz laguntzaile guztiak berdinak izan arren, bigarren perpausarena bakarrik eliditu da.

Honako eskema hau ere aurki dezakegu:

... (aditz osoa) ETA ... (aditz laguntzailearen elipsia) // ETA ... (aditz osoa) ETA ... (aditz laguntzailearen elipsia):

- ... *ecen behar çuela ioan Ierusalemera,* **eta** *anhitz suffritu Ancianoetaric eta Sacrificadore principaletaric, eta Scribetaric,* **eta** *heriotara eman behar cela,* **eta** *hereneco egunean, resuscitatu.* (Mt.,XVI,21)

- ... *hetaric batzu hilen dituçue* **eta** *crucificaturen:* **eta** *hetaric batzu açotaturen*

*dituçue çuen synagoguetan, **eta** persecutaturen hiritic hirira.* (Mt.,XXIII,34)

Honek guztiak, seguraski, hainbeste perpausen artean erritmo bizia, arina lortzea zuen helburu.

2- LAGUNTZAILEAREN EZABAKETA

Patxi Salaberrik[16] laguntzailearen ezabaketaren arazoa argitu nahian, liburu klasikoetara jo zuen eta honako eskema hauek atera zituen:

a) Partizipio ezburutuarekin

1.Eredua:

1.1. -ten du eta -ten O

1.2. -ten du eta O O

2.Eredua:

2.1. -ten O eta -ten du

2.2. O O eta -ten du

b) Etorkizun partizipioarekin (Berdina)

Bere ikerketatik atera zuen ondorioa honako hau izan zen: iparraldeko idazleetan lehen ereduaren aldeko joera nabarmena dagoela, hegoaldeko autoreetan, berriz, bigarrenaren aldeko joera nagusitzen delarik.

EGLU gramatika ere arazo honetaz aritu da; hona hemen esaten dutena:

"... kontuan har bedi aditz laguntzailearen desagertaraztea aukerazkoa dela, eta nahi izanez gero errepika daitezkeela adizkerak (...) Aditz laguntzailea eskuineko perpaus juntatuetan desagertaraztea oso zabaldua da (...) aditz nagusiak aspektu markaduraren aldetik dauzkan ezaugarriak atxikitzen ditu (...) Aditza ezkerreko juntagaian ezabatzea mendebaldeko idazleen artean bereziki gertatzen dela dirudi, eta orduan ia beti ezkerreko aditz nagusia(k) partizipio burutuaren forman agertzen d(ir)a (...) Ekialdeko idazleen

[16] SALABERRI, P. "Aditz laguntzailearen ezabaketa eta hizkuntzaren irakaskuntza", Zutabe, 93-97.orr.

artean, ordea, aditz guztiak forma berean uzten dira."[17]

Ikus dezagun, beraz, zein den Leizarragaren joera, joera zehatzik baldin badu:

A.- Salaberrik proposatzen duen lehengo ereduari jarraituz, elipsia eskuineko perpausean aurkituko dugu:

- *... beraz arbore fructu onic eguiten eztuen gucia piccatzen da* **eta** *sura egoizten.* (Mt.,III,10)

- *Iaten duenac ene haraguia,* **eta** *edaten ene odola, ...* (Io.,VI,54)

- *... beguiratu içan naiz* **eta** *beguiraturen deusetan-ere* (Cor.2.XI,9)

Adibide gehiago eman genezake, aurkitu ditugun gehienak eredu honi baitagozkio. Beraz, Leizarragak elipsia, gehienetan behintzat, elkarketaren bigarren juntagaian gauzatzen duela esan dezakegu.

B.- Dena den, honek ez du esan nahi Salaberriren bigarren ereduari dagokion adibiderik ez dagoenik; egon badaude, eta lehenengo eredukoak bezain ugariak izan ez arren, zalantzarik gabe, aintzat hartzekoak dira:

(1)- *... haur da, hitzaençuten,* **eta** *hura bertan bozcariorequin recebitzen duena.* (Mt.,XIII,20)

(2)- *Eta hura dute liuraturen Gêtiley, escarnia,* **eta** *açota,* **eta** *crucifica deçatençat.*(Mt.,XX,19)

(3)- *Orduan ethor cedin harengana Zebedeoren semen amá bere semequin, gurtzen,* **eta** *cerbait escatzen çayola.* (Mt.,XX,20)

(4)- ... **eta** *iraitziren* **eta** *iniuriaturen çaituztenean, ...* (Lc.,VI,22)

(5)- *Eta haourtchoa handitzen* **eta** *spirituz fortificatzen cen ...* (Lc.,I,80)

---

[17] EUSKALTZAINDIA, Euskal Gramatika Lehen Urratsak-IV. Juntagailuak, 69-70.orr.

Azken adibidea kenduta, gainerako guztietan menpeko perpausen arteko juntadura aurkitzen dugu: erlatibozkoak, helburuzkoak, moduzkoak eta denborazkoak. Adibide hauetan, beti ere gure erregistrotik begiratuta, ezabaketa ezkerreko perpausean gauzatzea ia derrigorrezkoa dela iruditzen zaigu, batez ere esaldi osoaren ulergarritasuna kontutan harturik. Elipsia ezkerreko perpausean eginda, ontzat eta ulergarriagotzat jotzen ditugu perpaus hauek; dena den, ez dezagun ahanz, hegoaldean, Salaberriren bigarren ereduaren aldeko joera nagusitzen dela, hots, elipsiak, gehienetan, ezkerreko perpausetan gauzatzen ditugula. Honek, ezpairik gabe, gure pentsakera baldintzatzen du; baina hurrengo adibideetan, Leizarragarentzat elipsia ezkerreko zein eskuineko perpausean burutzea erabat aukerazkoa dela ohartuko gara, menpeko perpausetan ere eskuinaldean gauzatzen baitu:

(1')- ... *Hic templea deseguiten duanorrec,* **eta** *hirur egunez edificatzen, empara eçac eure buruä.* (Mt.,XXVII,40)

(2')- *Ian deçaçuençat* **eta** *edan ene mahainean ...* (Lc.,XXII,30)

(3')- ... *presenta cedin (...) othoitz eguiten ceraucala* **eta** *erraiten, Iragan adi ...* (Apost.Act.,XVI,9)

(4')- ... *ia haren adarra ninicatzen denean* **eta** *hostatzen, badaquiçue ...* (Mt.,XXIIII,32)

(5)ean, perpaus lokabeak ditugu; beraz, argi ikusten da elipsia ezkerreko perpausean gauzatzea ez dela menpeko perpausei soilik dagokien kontua.

Bestalde, aurreko adibideetan gertatu den bezala, honekin ere berehalaxe ohartuko gara elipsia ezkerreko perpausean zein eskuinekoan burutzea libre dela. Bestela, ikus dezagun hurrengo adibidea:

(5')- *Eta haourtchoa handitzen cen* **eta** *spirituz fortificatzen,* **eta** *behatzen cen sapientiaz ...* (Lc.,II,40)

(5) eta (5') berdin-berdinak dira; hala ere, ikusten dugunez, elipsia juntagai ezberdinetan gauzatu da.

Hau guztia ikusita, elipsiak gauzatzeko orduan askatasun handia dagoela, edo behintzat Leizarragak askatasun handiz jokatu zuela aitortu behar dugu.

Askatasuna aipatu dugu; hala ere, ez dugu bere osotasunean ulertu behar. Elipsiaren "tokia" aukeratzeko, dirudienez, ez zegoen arau zorrotzik; baina elipsia burutuz gero, hau nola edo zein kasutan egin behar zen zehazteko oso arau tinkoak zeuden, antza:

1.- Aditz laguntzailea ezabatzen da, baina aditz nagusiak aspektu marka -edo markarik eza- mantendu behar du:

- ... *haur da, hitzaençuten,* **eta** *hura bertan bozcariorequin recebitzen duena.* (Mt.,XIII,20)

- *Eta hura dute liuraturen Gêtiley, escarnia,* **eta** *açota,* **eta** *crucifica deçatençat.*(Mt.,XX,19)

Honi dagokionez, ez dago salbuespenik, laguntzailea ezabatzen duen perpausak ez baitu inoiz aditz nagusiaren aspektu-marka ezabatzen. Gerta daiteke elkartzen diren bi perpausek aspektu-marka desberdinak izatea; baina hala eta guztiz ere, perpaus bakoitzak bere aspektu-marka mantenduko du:

- ... *ecen lunatico duc* **eta** *gaizqui tormentatzen* ... (Mt.,XVII,15)

- ... *eta beguiratu içan naiz* **eta** *beguiraturen deusetan-ere* ... (Cor.2,XI,9)

2.- Elipsiaren legeekin jarraituz, errepikatzen diren elemenduak dira ezabatzen direnak. Beraz, honek, eliditzen den laguntzaileak eta mantentzen denak berdinak izan behar dutela esan nahi du. Ikus dezagun adibide bat:

- ... **eta** *eure etsayéc assetiaturen auté trancheaz,* **eta** *inguraturen,* **eta** *hersturen alde gucietaric.* (Lc.,XIX,43)

Aditz laguntzaileak desberdinak diren kasuetan, berriz, perpausak oso-osorik agertzen zaizkigu:

- ... **eta** *erdirê aiz seme batez,* **eta** *deithuren dun (...)* **eta** *eritziren ciayon subiranoaren Seme:* **eta** *emanen diraucâ (...)* **eta** *regnaturen din (...)* **eta**

haren resumaren finic eztun içanen ... (Adv.,1-7,264.or.)

Baina, arau honetan, ba ote dago salbuespenik? Gaingiroki begiratuta, salbuespenak aurki ditzakegula irudi lekiguke; edonola ere, adibideak arretaz aztertuz gero, lehenengo araua bezain zorrotza dela jabetuko gara. Ikus ditzagun adibide batzuk:

(1)- *Ecen vnguentu haur precio handitan saldu ahal çatequeen,* **eta** *eman paubrey.* (Mt.,XXVI,9), (Mc.,XIIII,5), (Io.,XII,5)

(2)- *Harc behar du handitu,* **eta** *nic chipitu.* (Io.,III,1)

(3)- *Ni iraizten nauenac,* **eta** *ez recebitzen ene hitzac, ...* (Io.,XII,48)

* Azken bi adibideetan pertsona aldaketak ditugu, besterik ez. Adizki guztiak indikatiboak eta NOR-NORK sailekoak dira; beraz, laguntzailearen ezabaketa, zalantzarik gabe, zilegi da.

* Lehenengo adibidean, berriz, lehenengo begiratuan, eliditu den laguntzailea eta mantendu dena desberdinak direla irudi lekiguke: biak indikatiboak dira, baina lehenengoa NOR sailekoa, eta bigarrena NOR-NORI sailekoa. Dena den, Iparraldeko idazleetan NORI sintagmarekiko komunztadura ez betetzea aski arrunta da; beraz, hau kontutan izanik, ezabaketa hori ere guztiz legezkoa dela esan daiteke.

3.- Azkenik, laguntzailearen ezabaketarekin bukatzeko, esan dezagun, elipsiak perpaus luze eta korapilotsuetan ezezik, perpaus labur eta sinpleetan ere gerta daitezkeela:

- ... *bilhatu vkan niauc* **eta** *eriden.* (Tim.2,I,17)
- ... *Icitu naiz* **eta** *ikaratu.* (Hebr.,XII,21)

3.- ADITZ OSOA EZABATURIK:

Zenbait kasutan aditz osoa ezabatzen da, bai aditz nagusia, bai laguntzailea:

- ... *gratiac rendaturic hauts citzan,* **eta** *eman cietzén bere discipuluey:* **eta** *discipuluéc populuari.* (Mt.,XV,36)

- ... *eure onac eure vician recebitu dituala,* **eta** *Lazaroc halaber gaitzac ...* (Lc.,XVI,25)

- ... *nola guiçô-batez bekatua mundura sarthu içan baita,* **eta** *bekatuaz herioa ...* (Rom.,V,12)

Fenomeno hau sintagmen elkarketaz hitz egin genuenean komentatu genuen: sakoneko egituran bi perpaus ditugu eta perpaus hauetan zenbait elementu errepikatzen dira; orduan, berdinak diren elementu guztiak -aditza bera ere barne- ezabatu egiten dira.

2.1.6.5. Polisindetona.

Emendiozkoetan, perpaus bat baino gehiago dituguneán juntagailua azken bi juntagaien artean kokatu ohi da. Baina Leizarragak ez du beti horrela jokatzen; zenbaitetan, juntagailua termino guztien artean jartzen du polisindetona sortaraziz:

* Sintagmetan:

- ... *ceinena baita adoptionea,* **eta** *gloriá,* **eta** *alliançác,* **eta** *Leguearen ordenançá,* **eta** *cerbitzu diuinoa* **eta** *promessac.* (Rom.,IX,4)

* Perpausetan:

a) Perpaus lokabeak:

- **Eta** *erori içan da vria,* **eta** *ethorri içan dirade vr sobernác,* **eta** *eraunsi vkan duté haicéc,* **eta** *io vkan duté etchearen contra:* **eta** *ezta erori içan.* (Mt.,VII,25)

b) Menpeko perpausak:

- ... *qaitzetsiren çaituztenean,* **eta** *iraitziren* **eta** *iniuriaturen çaituztenean,* **eta** *çuen icena qaichto beçala iraitziren dutenean,* ... (Lc.,VI,22)

Leizarragak oso maiz erabiltzen du ETA juntagailua. Bere parrafoak, orokorrean, oso motzak direnez, sarritan ez gara errepikatze honetaz ohartzen; baina parrafo luzeagoak dituqunean, batzuetan, bost edo sei juntagailu eduki ditzakegu batera. Dena den, juntagailu guztiak ez dira alferrikakoak, zenbait adibidetan, juntagailu horiek behar-beharrezkoak dira eta :

- ... *Bada Iainco Aitari, ceinaganic* **eta** *ceinez* **eta** *ceinenac baitirade gauça guciac,* **eta** *Iesus Christ haren Seme gure Iaun* **eta** *redemptoreari,* **eta** *Spiritu sainduari dela ohore* **eta** *gloria secula seculacotz.* (Som.,6-9,279.or.)

Parrafo honetan sei juntagailu ditugu, eta dudarik gabe, baten bat ken liteke; baina, guztiak maila berekoak ez direnez, ezin daiteke polisindetonaz edota errepikapenaz hitz egin, gehienak kenduko bagenitu parrafoa ulertezina izango bailitzateke.

Azkenik, esan dezagun polisindetona oso ugaria dela, baina batez ere Testamenduan, sarrera-testuetan elipsia, adibidez, polisindetona baino maizago topatuko dugu eta.

Bestalde, gehiegizko erabilera azaltzeko kontutan hartu behar dugu Leizarragaren aurretik, prosaz, Etxepareren hitzaurrea bakarrik dugula; beraz, euskaraz argitaraturiko lehendabiziko prosa liburua Leizarragarena izan bazen, prosa hau oraindik erabat finkatu gabe zegoela onartu behar dugu. Honez gain, polisindetona ez dugu inondik inora gaitzetsi behar. Testamenduaren itzulpenaren aurrean gaude eta Testamendua jende xehearentzat zegoen idatzita, baina ez hauek irakurtzeko, baizik eta entzunda ulertzeko. Hor ematen zen mezuak oso argia izan behar zuen; beraz, ondo markatzea eta indartzea derrigorrezkoa zen. Eta polisindetona helburu hau lortzeko baliabide literario ezin egokiagoa da, dudarik gabe.

2.1.7. *ETA

ETA juntagailuak emendiozko adiera izateaz gain, beste balio batzuk ere har ditzake.

Villasantek, adibidez, juntagailu honi beste bi balio ezarri zizkion:

- Denborazkoa: ETA (BEREHALA)

- Kausazkoa: *"ETA, pospuesta"* (Kausa logikoa adierazten du, eta Villasanteren ustez, mendebaldeko euskalkietan aurkitzen da.)[18]

Lafittek ere ETA mendeko perpausen artean kokatzen du, Villasantek bezala, denborazko eta kausazko balioak ezarten dizkiola:

> *"Le participe est aussi suivi de postpositions: (...)* ***eta, ondoan,*** *aprés ..."*[19]
>
> *""****ohartzen-eta****" (L'inessif archaïque employé absolument)*
>
> *"****izaki-eta****" (Les adverbes participes)"*[20]

Patxi Altunak, ordea, ETA berezi hau perpaus juntatuen barruan kokatzen du:

> *"... menderazaile ez baizik kopulatibo soila ez dela esatea nahiago dugu (...) mendeko perpausek ez dituzte onartzen adizki alokutiboak deriztenak;* ***eta****-k osatuek bai, aldiz."*[21]

---

[18] VILLASANTE, L. Sintaxis de la Oración Compuesta, 108, 155.orr.

[19] LAFITTE, P. Grammaire Basque, 459.or.

[20] Id., 453.or.

[21] ALTUNA, P, "Juntagailu kopulatiboak", Fontes Linguae Vasconum, 49-51.orr.

Bestalde, Villasantek eta Lafittek aipatzen dituzten denborazko eta kauzazko balioez gain, Patxi Altunak beste bi gehitzen ditu: baldintzazkoa eta kontzesiboa.

Leizarragak ere emendiozko baliorik ez duen ETA berezi hau erabiltzen du; dena den, ez da oso ugaria. Testamentu Berria eta sarrera-testuak aztertuta, guztira, 24 adibide aurkitu ditugu, baina guztiak Testamentuan.

FORMAri eta **KOKAGUNEA**ri dagokienez, ETA aurreko elementu bati loturik agertzen zaigula esan behar dugu. Emendiozkoen artean autonomia osoa zuena enklitiko bihurtzen zaigu, aurrean beste elementu bat behar baitu bere funtzioa bete dezan. Honez gain, ETAren ondoren beti koma bat aurkituko dugu emendiozko juntagailuarekin nahas ez dadin.

Aurreko elementu horri gagozkiola, esan dezagun Leizarragaren obran sistematikoa dela, beti partizipioa da eta.

Bestalde, mendebaldeko euskalkietan partizipioari lotzen zaion forma honek bi aldaera izan ditzake: **ta/da** eta, oro har, partizipioari zeharo atxikitzen zaio: **hartuta**, **entzunda**. Leizarragak, ordea, emendiozkoen artean gertatzen den bezala, forma oso-osorik mantentzen du; sekula ez du laburtzen, eta partizipioari loturik egon arren, inoiz ez dira biak batuta agertzen:

> - *guero iguzquia goratu* **eta**, *erre içan dirade, ...*
> (Mt.,XIII,6)

Kokalekuari dagokionez, beste gauza bat aipatu behar dugu, baina horretarako Patxi Altunak esaten diguna gogoratuko dugu:

"*Ekialdekoek beti*

(32) Amak haur egin du eta, ez da etorri.

diote edo idazten dute, ez, ordea,

(33) Ez da etorri, amak haur egin du eta.

(...) Haien **eta** *horrek, izan ere, beste zerbait eskatzen du beti atzean eta ez dezake berak perpausaren azken bukaera marka."*[22]

Arrazoia eman behar diogu Patxi Altunari, Leizarragak ez baitu sekula ETA daraman sekuentzia perpaus nagusiaren ostean kokatzen, sekuentzia honek -iparraldean, noski- ez dezakeelako perpausaren azken bukaera marka:

- *... gratiác rendatu* **eta**, *hauts citzan ...* (Mc.,VIII,6)

- *Beraz gaztigatu* **eta**, *largaturen dut.* (Lc.,XXIII,16)

Egia esan, adibide bakar batean agertzen zaigu ETA-dun sekuentzia perpaus nagusiaren atzean; baina berehala ohartuko garenez, Leizarragak kasu horretan ez zuen beste aukerarik izan:

- *... accord etziradenaren gainean, parti citecen, Paulec hitz haur errâ* **eta**, *Segurqui vngui Spiritu saindua minçatu içan çaye ...* (Apost.Act.,XXVIII,25)

ETA-ren ondoren estilo zuzenera aldatuz, *"hitz haur"* azaltzen duen parrafo luze bat sartzen duenez, derrigorrez, ETA-k azken terminoan agertu behar du; bestela perpausa zeharo ulertezina izango litzateke. Baina, errepika dezagun hau testuaren ulergarritasunak berak eskatzen duen orden aldaketa dela, gainerako adibide guztietan ETA-ren sekuentzia perpaus nagusiaren aurrean agertzen baita.

BALIOAri dagokionez, Leizarragaren obran bat bakarrik aipa daiteke, denborazkoa, alegia:

- *Bada partitu* **eta**, *predica eçaçue, ...* (Mt.,X,7)

---

[22] ALTUNA,P, "Juntagailu kopulatiboak", Fontes Linguae Vasconum, 51-52.orr.

- ... *baina hec iragan* **eta**, *guero gosse cedin.* (Mc.,IIII,2)

- *Ecen Macedoniara ethorri* **eta**, *eztu vkan gure haraguiac paussuric batre,* ... (Cor.2, VII,5)

Esan dugunez, adibide gutxi aurkitu dugu, baina badirudi guztietan balio hau nagusitzen dela. Adibide batzuk agian ez dira aipatutakoak bezain argiak, eta kausalitatea edo beste zentzuren bat dagoela pentsa lezake inork; dena den, beldur naiz ez ote den gauzak gehiegi bortxatzea. Ikus ditzagun adibide batzuk:

(1)- *Oraino bada bere seme maitebat vkan* **eta**, *hura-ere igorri vkan du* ... (Mc.,XII,6)

(2)- ... *discipuluac bilduac içan* **eta**, *Paul minço cen* ... (Apost.Act., XX,7)

Perpaus hauetan agertzen zaizkigun ETA hauek denborazkoak diren ala beste balioren bat hartzen duten ez da oso argi ikusten, ezta Haranederrek dituen adibideekin erkatuta ere:

(1')- *Fiñean seme bakhoitz eta maite bat içan* **eta** *hura ere igorri içan çaroen azquenecotz,* ... (Haran., Mc.,XII,6)

(2')- *Asteco lehenbicico egunean* **bildu baiguiñen** *oguiaren hausteco, Paulo (...) mintçatu citçayen* ... (Haran., Apost.Act.,XX,27)

Edozein modutan, salbuespenak baino ez dira; beraz, hobe dugu Leizarragaren obran denborazko adiera nagusitzen dela esatea.

2.1.8. (EZ)...EZ...(ERE) / EZ...EZETA...(ERE)

Sarrera moduan, gogora dezagun zer dioen Patxi Altunak honetaz:

> "... ***ez X + ez Y*** *esateko euskara hiru hitztxo hauezaz balia daiteke:* ***ez, eta, ere****. Hirurez, nahiz biez, nahiz bakarrez (...) euskarak dituen hiru eredu nagusiak ageri dira:*
>
> *a) ez eta (ere)*
>
> *b) eta ez (ere)*
>
> *c) ez (ere)*
>
> *(...) Hiru eredu nagusi horietan* ***ere****-ren lekua alda daiteke, edota erabat ez ager. Bestetik,* ***eta*** *erabiltzen dela edota gabe,* ***ez*** *lot dakioke* ***ere****-ri, eta* ***ere ez*** *moldea sortzen delarik, perpausaren jarrera batean nahiz bestean koka daiteke. (...) Leizarragaz ez gara benturatzen ezer segururik baieztatzen. Gehienez ere hauxe:* ***ez eta****,* ***bai eta*** *biak darabiltza;* ***eta bai****,* ***eta ez****, berriz, ez ditugu aurkitu ..."*[23]

Leizarragaren obra aztertzen badugu, hiru eredu horietatik, bi bakarrik aurkitzen ditugu: **ez eta (ere)** eta **ez (ere)**, Altunak ondo apuntatzen duenez, Leizarragak ez duelako bigarrena erabiltzen.

Bestalde, agertzen diren bi ereduen maiztasunari dagokionez, **EZ (ERE)** ugariena dela esan behar dugu. Hona hemen zenbat adibide aurkitu ditugun:

	Testamendua	**Sarrera**
EZ (ERE) ----	84	27
EZ ETA (ERE) -	41	2

---

[23] ALTUNA, P, "Juntagailu kopulatiboak", Fontes Linguae Vasconum, 54-59.orr.

2.1.8.1. EZ ETA...(ERE)

Lehendabizi, aztertzen hasi aurretik, formaz hitz egin behar dugu. Normalean **EZ** aditzondoa **ETA** juntagailuari lotuta agertzen zaigu, baina inolako aldaketa fonetikorik eragin gabe: **EZETA**. Edozein modutan, hau nagusitzen den joera izan arren, bereizirik ere ager daitezke:

> - *Segur ezta arbore ona (...)* ***ez eta*** *arbore gaichtoa, ...* (Lc.,VI,43)

A.- Patxi Altunak "EZ ETA...(ERE)" Axularrengan aztertzen du, ikus dezagun zer dioskun:

> *"Ezinbestekoa da aurreko perpausa ere ezezko izatea (...) aurrean ia beti puntuaketa larria du: puntua ia beti (...) edozeinek aitortu behar* ***ez eta*** *horien aurrean pausaldi luzea egin daitekeela ia adibide guztietan (...)*
>
> *Bat:* ***ez eta****-ri ia beti aditz sintagma berria, are beste perpausa, darraikio. Bi: perpaus berria markatuz batzuetan* ***bada*** *edo* ***beraz*** *juntagailuak ageri dira (...) ez kopulatibo soila. Hiru: perpaus berria ia beti* ***ere****-k indartzen du ... "*[24]

Altunak host ezaugarri aipatu ditu, ikus dezagun ea Leizarragaren obran betetzen diren:

A.1.- Aurreko perpausa ezezkoa da:

Hau derrigorrez bete behar den baldintza da, formak berak eskatzen baitigu. Azken finean, ezezko perpausen artean suertatzen den elkarketaz ari gara, beraz, perpausok ezezkoak izan behar dute:

> - ***Ez****tu iharduquiren,* ***ezeta*** *oihuric eguinen ...* (Mt.,XII,19)

---

[24] ALTUNA,P, "Juntagailu kopulatiboak", Fontes Linguae Vasconum, 59-60.orr.

A.2.- Aurrean ia beti puntuaketa larria du:

Dakigunez, Leizarragaren obran puntuazio-marken inguruan iluntasuna da nagusi; edonola ere, esan dezagun, eskuarki, forma hauek komaren ondoren aurkitzen ditugula:

- ... ***Eztuçue*** *haren voza egundano ençun,* ***ezeta*** *haren irudia ikussi.* (Io.,V,37)

A.3.- **Ez eta**-ri ia beti aditz sintagma berria, are beste perpausa darraikio:

P.Altunak aipatzen duen ezaugarri honi dagokionean ere bat datoz Leizarraga eta Axular; juntagailu honen bidez perpausak zein sintagmak elkar baitaitezke; zehaztu dezagun, alabaina, obra osoan aurkitu ditugun 43 adibideetatik 14 kasutan bakarrik elkartzen direla perpausak, gainontzeko guztietan sintagmak elkartzen direlarik:

a) Sintagmak:

- ... *cerê* ***ezpaitaquizquiçue*** *Scripturác,* ***ezeta*** *Iaincoaren verthutea?* (Mc.,XII,24)

b) Perpausak (lokabeak zein menpekoak):

- ... ***eznauçue*** *ihardetsiren,* ***ezeta*** *ioaitera vtziren.* (Lc.,XXII,68)

- ... *ecin sinhets queneçaque nola Messiasa igorri vkan duen Iaincoac mundu hunetara,* ***ezeta*** *nola Messias hura Iesus den ...* (Som.,19-20,276.or.)

A.4.- Perpaus berria markatuz, batzuetan **bada** edo **beraz** ageri dira, ez kopulatibo soila:

Puntu honetan bi idazleek desberdin jokatzen dute, Leizarragak ez baititu emendiozko perpaus hauek beste lokailuen bidez indartzen.

A.5.- Perpaus berria ia beti **ere**-k indartzen du:

Lehendabizi, gogora dezagun EGLU-k esaten duena:

> - " ... **Ere** *lokailuaren beharrezkotasunari dagokionez, bestalde, juntagaiak ukapen perpausetakoak direnean, nahikoa da bigarren juntagaiaren aurretik* **ez eta** *ezartzea; ez dago* **ere** *lokailuaren beharrik, batez ere Iparraldeko testuetan ageri den bezala ..."*[25]

Leizarragak **ERE** lokailua erabili, erabiltzen du; baina, Axularrek "ia beti" erabiltzen duen bitartean, Leizarragaren kasuan "ia inoiz ez" egokiagoa izango litzateke. Edozein modutan, ikus dezagun adibide bat:

> - ... *nehor eztaqui,* **ez eta** *ceruän diraden Aingueruëc-***ere**, **ez eta** *Semeac-***ere**, ... (Mc.,XIII,32)

B.- Bestalde, Patxi Altunak "ETA EZ...(ERE) Axularrengan"[26] aztertu eta forma honen ezaugarri batzuk aipatzen ditu. Leizarragak, arestian aipatu dugunez, ez du ETA EZ forma erabiltzen; beraz, ikus dezagun Axularren ETA EZ formarako aipatzen diren ezaugarriak zeintzuk diren eta, aldi berean, ea Leizarragak EZ ETA formaren bitartez betetzen dituen:

B.1.- Ia beti bi izen sintagma lotzen ditu:

> - (**ez** *guiçonéz* **ezeta** *guiçonen partez, ...)* (Gal.,I,1)

B.2.- Bi aditz sintagma ere lot ditzake:

> - **Ez***tu iharduquiren,* **ezeta** *oihuric eguinen ...* (Mt.,XII,19)

---

[25] EUSKALTZAINDIA, Euskal Gramatika Lehen Urratsak-IV. Juntagailuak, 80.or.

[26] ALTUNA,P, "Juntagailu kopulatiboak", Fontes Linguae Vasconum, 61-63.orr.

B.3.- Perpaus osoak ere uztar ditzake:

- ... *eta nehorc* **eztu** *eçagutzen Semea Aitac baicen:* ***ezeta*** *Aita nehorc eztu eçagutzen* ... (Mt.,XI,27)

B.4.- Sintagmak sailean datozenean, azkenengoaren aurrean bakarrik ageri da **eta ez**, ia beti:

- ... *ecen* **eztute** *ereiten,* **ez** *errequeitatzen,* ***ezeta*** *graneretara biltzen,* ... (Mt.,VI,25)

B.5.- Bi **eta ez** ager daitezke, elkarren segidan:

- ... *nehor eztaqui,* **ez eta** *ceruän diraden Aingueruëc-***ere**, **ez eta** *Semeac-***ere**, ... (Mc.,XIII,32)

B.6.- Aditz sintagma bakarra, ezezkoa noski, azkenean ager daiteke eta orduan **eta ez**-en aurreko sintagmak ere ukapena behar du.

B.7.- **Eta ez**-en aurreko puntuaketa oso xehea izaten da, ia beti koma dugu. (Edozein adibide aipa liteke; gogora dezagun, EZ ETA formaz esandakoa)

B.8.- **Ere** noizbehinka baizik ez da ageri. Agertzen denean ez zaio **eta ez**-i itsasten, honengandik apart aurkitzen dugu:

- ... *nehor eztaqui,* **ez eta** *ceruän diraden Aingueruëc-***ere**, **ez eta** *Semeac-***ere**, ... (Mc.,XIII,32)

Hau ikusita, Leizarragaren **EZ ETA**-k Axularren **ETA EZ** eta **EZ ETA** formen balioak hartzen dituela esan dezakegu.

2.1.8.2. EZ...(ERE)

Baiezko perpausetan **ETA** juntagailua ezinbestekoa dugu bera baita elkarketa gauzatzen duena; ezezkoetan, aldiz, ETA juntagailua desager daiteke, **EZ** aditzondoarekin aski dugularik.

A.- Forma hau aurrekoaren ordaina da. Izan ere, batzuetan, funtzio bera betetzen du, kontestu berdinetan ager daiteke eta zenbait kasutan adibide berdinetan ere aurki dezakegu:

(1)- ... *nehorc* ***ez****taqui,* ***ez*** *ceruëtaco Aingueruëc-****ere****,...* (Mt.,XXIIII,36)

- ... *nehorc* ***ez****taqui,* ***ez*** ***eta*** *ceruän diraden Aingueruëc-****ere****,* ... (Mc.,XIII,32)

(2)- ***ez*** *circoncisioneac du deus balio,* ***ezeta*** *preputioac* ... (Gal.,V,6)

- ***ez*** *circoncisioneac du deus balio,* ***ez*** *preputioac* ... (Gal.,VI,15)

Ikusten dugunez, bi formak erabat baliokideak izan daitezke. Honez gain, aipatutako adibideak ikusita, inork **EZ...(ERE)** formak sintagmak elkartzeko bakarrik balio duela pentsa lezake; edozein modutan, adibide gehiago azterturik, agerian geratuko da **EZ...(ERE)** honek sintagmak zein perpausak elkar ditzakeela:

1- Sintagmak:

- ... *Eta* ***ez****ta deus içan* ***ez*** *ceruan,* ***ez*** *lurrean* ... (Adv.,23,265.or.)

2- Perpausak:

* Aditz laguntzailea eliditurik:

  - ... *ceren* ***ez****paitu ikusten hura,* ***ez*** *eçagutzen* ... (Io.,XIIII,17)

* Perpaus osoak:

  - ... ***ez****taquiçue nôdic ethortê naicen,* ***ez*** *norat ioaitê naicén.* (Io.,VIII,14)

3- Biak: Sintagmak eta perpausak:

- ... **ez** *offrendaric,* **ez** *holocaustic* **ez** *oblationeric bekatuagatic* **eztuc** *nahi vkan* **ez** ***ez****tituc approbatu* ... (Hebr.,X,8)

Perpaus lokabeak elkartzen direnean, biak ezezkoak direnez, aditz laguntzailea aurreratuta, EZ aditzondoa birritan errepikaturik agertzen zaigu:

- ... ***Ez****tinát eçagutzen,* **ez** ***e****tzeaquinat hic cer dionán...* (Mc.,XIIII,68)

- ... ***ez****tuté harturen ezconçaz,* **ez** ***ez****tirade harturen.* (Lc.,XX,35)

Bestalde, ezezko perpausetan, oro har, aditz laguntzailea aurreratu eta EZ aditzondoari itsatsita agertzen zaigu; dena den, zenbaitetan Leizarragak aditzondoa eta aditz laguntzailearen artean beste osagai batzuk tartekatzen ditu:

- ... ***Ez*** *ni nauçue eçagutzê,* **ez** *ene Aita ...* (Io.,VIII,19)

- ... **ez** *circoncisioneac du deus balio,* **ez** *preputioac ...* (Gal.,VI,15)

Baina, badago beste eredu bat: baiezko perpausen hurrenkera mantentzen duena, alegia. Patxi Altunak honen berri eman zigun Etxepareren bi adibide erkatuz. Hona hemen adibideok:

"*Egundano ezta içan ez içanen iagoytic*
Iudicio hayn handiric ..." (Etxep.,I,260-261)

"*Ez galdu da ez galduren çure gomenducoric*" (Etxep.,II,102)

Ikus dezagun orain ematen digun azalpena:

"... *Lehenean* ***-ezta içan-*** *ezezko adizki perifrastikoa komunzki eman ohi dugun eran dago tolestuta; alegia, ukapena lehenik, gero adizki laguntzailea eta azkenik partizipioa. Bigarrenean, ordea* ***-Ez galdu da-*** *adizki laguntzailea eta partizipioa trukatu gabe daude, baiezko perpausetan*

*bezalaxe, **ez** ukapenak adizki laguntzailea bereganatu ez duelarik.*

*Hori formari gagozkiola. Esan nahiari begiratzen badiogu, berriz, euskaldun gehienok ados egongo ginatekeela uste dut lehen bertsoan **ez** arrunta eta **ez** indartua ditugun bitartean, bigarrenean bi **ez**-ak indartuak direla. Gaztelerаz esateko, lehena "**No**... **ni**..." itzuli behar dela eta bigarrena "**Ni**... **ni**..."*[27]

Patxi Altunak ongi apuntatzen duenez, hau ez da inondik inora Etxepareren litzentzia poetikoa edo, Leizarragak ere halako adibideak baititu:

- *... **ez** nekatzen dirade, **ez** iruten duté.* (Mt.,VI,28)

- *... Guc **ez** letraric recebitu diagu (...): **ez** ethorriric anayetaric nehorc denuntiatu dic.* (Apost.Act.,XXVIII,21)

B.- Ezezko perpaus hauetan suertatzen diren **ELIPSIAK** ere aipagarriak dira,baina horretarako EGLU-ra joko dugu:

- *"Juntagaiak ezezko perpausak direnean, bestalde, aukera bat baino gehiago dugu euskalkien arabera laguntzailea ezabatzeko: (a) ohiko **ez** + laguntzailea hurrenkera gorde eta eskuineko perpausean laguntzailea ezabatu, hau litzateke arruntena: (b) **ez** perpaus bakoitzaren buruan ezarri eta laguntzailea ezkerreko perpausean ezabatu, eskuinekoan aditz nagusia eta laguntzailea baiezko perpausetan bezalako hurrenkeran emanez; nahiz (c) egitura beraz baliatuz -**ez** perpaus bakoitzaren buruan ezarri eta aditz laguntzailea aditz nagusiaren eskuinean- laguntzailea eskuineko perpausean ezabatu.*

a. Ez dut ogirik jan (eta) ez ardorik edan.

b. Ez ogirik jan (eta) ez ardorik edan dut.

c. Ez ogirik jan dut (eta) ez ardorik edan."[28]

---

[27] ALTUNA,P, "Juntagailu kopulatiboak", Fontes Linguae Vasconum, 66-67.orr.

[28] EUSKALTZAINDIA, Euskal Gramatika Lehen Urratsak-IV. Juntagailuak, 116.or.

Leizarragaren obran hiru aukera horietatik bi aurki ditzakegu: (a) eta (c), hain zuzen ere. Ikus dezagun adibide bana:

a) *...oguiric iaten eztuela,* ***ez*** *mahatsarnoric edaten, ...* (Lc.,VII,33)

c) *...* ***Ez*** *hunec bekatu eguin du,* ***ez*** *hunen aitaméc ...* (Io.,IX,3)

C.- Azkenik, **ERE** lokailuaren erabilerari dagokionez, aurreko forman bezain urria dela esan behar dugu, testuan ditugun 111 adibideetatik, 7 kasutan bakarrik agertzen baita:

- *Ecen segur naiz ecen* ***ez*** *herioc,* ***ez*** *vicitzec (...)* ***ez*** *berce creaturac batec-***ere** *ecin separaturen gaituela ...* (Rom.,VIII,37-38)

- *... haiceric ezlaguiançát lurraren gainean,* ***ez*** *itsassoaren gainean,* ***ez*** *arbore baten-***ere** *gainean.* (Apo.,VII,1)

- *... nola bere-berez etzen* ***ez*** *egundano-***ere** *içan ...* (Adv.,34-35,255-256.orr.)

ERE lokailua, esan dugunez, oso gutxitan agertzen da, baina agertuz gero, sintagmekin aurkituko dugu; sekula ez dugu gure artean hain erabilia den "ezta pentsatu ere" edo horrelako adibiderik topatuko.

Ikusi dugun guztia aintzat harturik, **EZ ETA...(ERE)** eta **EZ...(ERE)** formak baliokideak direla esan dezakegu. Gelditzen zaigun zalantza "noiz" edo "zergatik" erabili bata eta ez bestea izango litzateke. Guk, egia esan, ez dugu ageriko arrazoirik ikusi; dena den, baliteke arrazoi izkuturen bat egotea.

2.1.9. (BAY)...BAY...(ERE) / BAYETA...(ERE)

Aurreko atalean ikusi dugunez, ezezko perpausak elkartzeko, teorikoki behintzat, hiru eredu ditugu:

- **EZ ETA...(ERE)**
- **ETA EZ...(ERE)**
- **EZ...(ERE)**

Hau horrela izanik, baiezkoen artean ere eredu berdinak aurkitu beharko genituzke:

- **BAI ETA...(ERE)**
- **ETA BAI...(ERE)**
- **BAI...(ERE)**

Baina, utz dezagun teoria alde batera eta ikus dezagun ea Leizarragak eredu hauek guztiak erabiltzen dituen.

Ezezko perpausetan hiru eredu horietatik bi bakarrik aurkitu ditugu: EZ ETA...(ERE) eta EZ...(ERE). Hortaz, orain BAI ETA...(ERE) eta BAI...(ERE) beharko genituzke, eta horixe da Leizarragaren obran aurkitzen duguna, ETA BAI...(ERE) formaren adibiderik ez baitugu aurkitu:

> - ... *demoniatuéc,* **bay eta** *harçaz resuscitatu içan diraden hilec-***ere** *asco seignale claroric eman vkan dute* ... (Adv.,3-4,265.or.)
>
> - ... *circoncisionean da solament ala* **bay** *preputioan-***ere**? ... (Rom.,IIII,9)

Bi eredu hauen maiztasunari dagokionez, hona hemen aurkitu ditugun adibideen kopurua:

	Testamentua	Sarrera
BAY ETA...(ERE) --	**12**	**16**
BAY...(ERE) ----	**8**	**6**

Forma hauek ez dute ezezkoen oparotasuna; adibide gutxi daude eta gehienak, itzulpenetatik kanpo, sarrera-testuetan aurkitzen ditugu. Bestalde, formarik ugariena BAY ETA...(ERE) bada ere, bien arteko aldea, ikus dezakegunez, ez da oso esanguratsua.

2.1.9.1. BAY ETA...(ERE)

A.- Lehendabizi, eta **FORMA**ri dagokionez, ezezko perpausetan egin genuen zehaztasun bera egin behar dugu hemen: BAY aditzondoa eta ETA juntagailua loturik (BAYETA) zein bereizirik (BAY ETA) aurki ditzakegu. Dena den, formarik ugariena BAYETA izango da. Eta honekin batera, BAIETA forma ere aurki dezakegu:

> - ... *Iaincoaren hitza (...) predicatzen baita,* **baieta** *disciplina ecclesiasticoa (...) obseruatzen* ... (Guc.,23-26, 250.or.)

Hau, halere, obra osoan zehar topatu dugun adibide bakarra da; gainera, Leizarragak beti BAY idazten zuela kontutan harturik, errata, akats tipografikoa dela pentsa daiteke.

B.- **ERABILERA**ri dagokionez, lehendabizi, juntagailua ala lokailua den aztertu beharko genuke eta aurkitu ditugun adibideak kontutan harturik, bi funtzioak bete ditzakeela esan dezakegu.

Zenbait kasutan, pausaldi larriaren ondoan, hau da, bi puntu edota puntu baten ostean dator. Kasu hauetan, aurreko perpausarekin duen harremanaren berri ematen digu, baina ez du elkarketarik gauzatzen:

> - ... *gauçác, caltetaco estimatu vkan ditut (...)* **Bayeta** *segur gauça guciac calte diradela estimatzén dut* ... (Phil.,III,7-8)

Edozein modutan, lokailu hauek aski urriak dira eta hainbat kasutan lokailuak direnentz ere ez dago oso argi;

beraz, kasu gehienetan, juntagailuen aurrean aurkitzen garela esan dezakegu.

Juntagailu hauek, gehien bat, sintagmak elkartzen dituzte; hala ere, perpausak ere elkar ditzakete:

a) Sintagmak:

- *Pierrisen ama guinharrebá,* **bayeta** *anhitz demoniatu eta eri sendatu.* (Mt.,VIII,0-14)

b) Perpausak:

- *... Iaincoaren hitza (...) predicatzen baita,* **baieta** *disciplina ecclesiasticoa (...) obseruatzen ...* (Guc.,23-26,250.or.)

- *... cer probetchu recebitzé dugû,* **bay eta** *cer moldez hartzeco eta applicatzeco dugû ...* (Adv.,28-30, 262.or.)

(Orokorki, perpaus txertatuak dira, eta gehienetan, aditz laguntzailea ezabatzen da)

Bestalde, **ERE** lokailuak lagunduta ager daitezke. Baina, lokailu hau ez zaio inoiz BAYETA formari itsasten, honen bidez elkartzen den sintagmari baizik:

- *... ereiten duenac bozcario duençát,* **bayeta** *biltzen duenac-***ere** (Io.,IIII,36)

- *... demoniatuéc,* **bay eta** *harçaz resuscitatu içan diraden hilec-***ere** *asco seignale claroric eman vkan dute ...* (Adv.,3-4, 265.or.)

Lokailu honen funtzioa indartzea da; dena den, Leizarragak, dirudienez, ez zuen lokailu honen beharrik somatzen, obra osoan, bi adibide hauek bakarrik aurkitu ditugu eta.

2.1.9.2. BAY...(ERE)

Ezezkoetan gertatzen den bezala, hauetan ere ETA juntagailua ezabatuta, BAY aditzondoa bakarrik ager daiteke.

Forma honen balioari dagokionez, hiru erabilera bereizi beharko genituzke:

1- BAY ETA...(ERE) formaren baliokidea.

EZ...(ERE) forma aztertzean, EZ ETA... (ERE) formaren baliokidea izan daitekeela ikusi dugu eta baiezkoetan badirudi gauza bera esan dezakegula.

Egia esan, ez da oso ugaria, baina zenbait adibide aipa ditzakegu; gainera kasu hauetan, perpausok ERE lokailuak indartuta agertzen dira:

- ... *circoncisionean da solament ala* **bay** *preputioan-***ere**? ... (Rom.,IIII,9)

- ... *gauça quciac penetratzen ditu,* **báy** *Iaincoaren gauça barnác-***ere**. (Cor.1, II,10)

Hauek, funtsean, gure ERE BAI formaren ordainak dira; aldaketa bakarra BAI lokailuaren posizioa da, Leizarragaren adibideetan aurreratu egin baita. Hala ere, ohart gaitezen hau ez dela Leizarragaren ezaugarri bereizgarria, beste askok ere halaxe erabiltzen baitute. Ikus ditzagun, esate baterako, Haranederren adibideak:

- *Dohatsutassun hori, bada, circoncidatuac direnetan choilqui edireten da ala* **bai** *circoncidatuac ez direnetan* **ere**? (Haran., Rom.,IIII,9)

- ... *Izpirituac ecen penetratcen ditu gauça quciac,* **bai** *Jaincoaren secretu gordeènac* **ere**. (Haran., Cor.1,II,10)

Edozein modutan ere, balioari gagozkiolarik, ez dirudi BAITA... ERE formaren bidez adierazten denetik oso

urrun dagoenik; beraz, bi formak baliokidetzat jo ditzakegu.

2- Enumerazioetan:

Kontestu honetan aurkitzen ditugu adibide gehienak. Hauek balio banakaria hartzen dute; eta gainera enumerazioetan, sintagmak ezezik perpausak ere topa ditzakegu:

- ... *eta arrasaturen duté* **bay** *gure lekua,* **bay** *nationea.* (Io.,XI,48)

- *Eta halacotz dugu desiratzen,* **bay** *present bagara,* **bay** *absent bagara,* ... (Cor.,2,V,9)

3- Kasu bereziak:

Hauetan, badirudi BAY aditzondoaren funtzioa perpausei enfasi berezia ematea dela:

- ... *gaizetsi vkan du Iaincoac (...)* **bay** *erraiterano* ... (Adv.,20-21, 256.or.)

- ... *altchatu vkâ ditu bere enseignác eta armoriác* **bay** *hain gauça clarotâ, nô* ... (Adv.,5-6, 257.or.)

- ... *côfirmatu içan da promes hura bera:* **bay** *hâbatetarano, nô (...) declaratu içan baitzê,* ... (Adv.,14-16, 260.or.)

Adibide hauek guztiak sarrera-testuetatik atera ditugu. Leizarragak perpausak indartu nahi bide zituen, eta horretarako BAY aditzondoaz baliatu zen, "incluso" edo horrelako esamolderen bat adierazteko.

2.1.10. ETARE

A.- Lehendabizi argitu beharko genukeen arazoa **FORMA**ri dagokiona da: ETARE, ETA+ERE dela uste izan da luzaroan. Baina, ene ustez, Leizarragak darabilen forma ETA ARE da, eta froga Leizarragak berak eskaintzen digu:

> - ... *eta ceric da huni eman içan çayon sapientia haur,* **eta are** *hunelaco verthuteac hunen escuz eguiten baitirade?* (Mc.,VI,2)

Leizarragak forma hauek guztiak, elkarturik zein bereizirik erabili ohi ditu, eta hemen ikus dezakegunez, bereizirik erabiltzen dituenean ETA ARE agertzen zaigu.

ETA ARE...(ERE) honen berri Villasantek ematen digu, Axularrek ere erabiltzen baitzuen *"y aun"*, *"y hasta"* adierazteko.[29]

Bestalde, Patxi Altunak adierazitakoaren arabera, ETARE honen azpian bi adiera soma ditzakegu, latinez **"et"** (hasta, incluso) eta **"veruntamen"** (pues bien) ditugu eta.

Leizarragaren obran ETARE oso urria da; bederatzi adibide bakarrik ditugu, eta guztiak Testamenduaren itzulpenean.

ETARE, goian aipatu dugunez, ETA formatik eratorritakoa da; beraz, ETA-rekin gertatzen den bezala, bederatzi adibide horien artean lokailuak zein juntagailuak aurkituko ditugu:

a) Lokailuak:

> - *Maledictione hiri Corazin, maledictione hiri Bethsaida (...).* **Etare** *diotsuet, ...* (Mt.,XI,21-22)

---

[29] VILLASANTE,L. Sintaxis de la Oración Compuesta, 19.or.

- ... *ençun diat anhitzetaric guiçon hunez (...):* **Etare** *hemen badic authoritate ...* (Apost.Act.,IX,13-14)

b) Juntagailuak:

- ... *eta ceric da huni eman içan çayon sapientia haur,* **eta are** *hunelaco verthuteac hunen escuz eguiten baitirade?* (Mc.,VI,2)

- *Bada segur naiz (...) ontassunen betheac çaretela (...):* **etare** *elkar admonesta ahal baiteçaqueçue.* (Rom.,XV,14)

(**etare** bi punturen ostean agertzen bada ere, juntagailutzat jo dezakegu, *elkar admonesta ahal baiteçaqueçue* hónek, berez, ezin baitu perpaus bat osatu)

B.- **BALIOA**ri dagokionez, funtsean, ARE aditzondoak indarturiko ETA emendiozko juntagailu edo lokailuaren aurrean gaudela esan daiteke.

ARE partikularen bidez, eta adibide batean behintzat, ERE lokailuak lagunduta, arestian aipatu ditugun "incluso", "hasta" edo halako zentzuren bat hartzen du:

- ... *Ecen Gentil iustitiari etzarreitzanéc iustitia ardietsi vkan dutela:* **etare** *iustitia fedezcoa.* (Rom.,IX,30)

- ... *gaitzestê ezpaditu bere aita eta amá, eta emaztea eta haourrac (...)* **etare** ***guehiago*** *bere arima-***ere**, *ecin date ene discipulu.* (Lc.,XIIII,26)

- ... *ençun diat anhitzetaric guiçon hunez (...).* **Etare** *hemen badic authoritate ...* (Apost.Act.,IX,13-14)

- *Eta halacotz batetaric (***etare** *ia hilaganic) sorthu içan da ...* (Hebr.,XI,12)

Beraz, forma hauek, oro har, emendiozko juntagailu edo lokailu adierakorrak direla esan dezakegu; adierazkorrak, ARE partikulak ETA-ri berez ez duen adiera berezia atxikitzen diolako.

2.2. HAUTAKARIAK

Hautakariez hitz egiteko, aurrekoetan bezala, lehendabizi, elkartzen diren perpausen artean suertatzen den erlazio semantikoaren berri eman behar dugu: hemen hiztunak hautaketa bat egin behar du; bere aurrean aukera bat baino gehiago dauzka eta hautatzeko eskatzen zaio, bat hautatzen duenean gainerako guztiak alboratzen edo baztertzen dituelarik.

Honez gain, beste adiera bat ere gaineratu behar dugu:

" Egun triste edo goibela"

Kasu honetan ez da hautaketarik egiten, hartzaileari azalpen bat, argibide bat ematen zaio, baina besterik ez. Beraz, kasu honetan hautaketaz baino gehiago, baliokidetasunaz hitz egin behar dugu.

Bestalde, ez dezagun ahanz juntagailuekin batera balio hautakaria hartzen duten zenbait lokailu ere ager dakizkigukeela; beraz, hona hemen Leizarragaren obran agertzen diren guztiak:

A.- LOKAILUAK:

2.2.1. EZPERE

2.2.2. BERCELA

B.- JUNTAGAILUAK:

2.2.3. EDO

2.2.4. ALA

2.2.5. EZPA

2.2.6. NAHIZ

A.- LOKAILUAK:

2.2.1. EZPERE

Orain aztertzen ari garen forma, berez, aditzondoa da; baina, zenbaitetan, bi perpausen artean dagoen harreman semantikoaren berri ematen digunez, lokailutzat ere har dezakegu; dena den, lokailua izanik, inoiz ez du ez perpausik, ez bestelako osagairik elkartuko.

2.2.1.1. Balioa.

Lokailu honek har ditzakeen balioei dagokienez, EGLU gramatikan oinarriturik[1] honako hauek aipatu behar ditugu:

1- BESTELA lokailuaren parekoa: baldintza moduko hautaketa adierazten du:

A, ezperen B = A, eta A ez bada, B.

2- BEDEREN eta BEHINTZAT lokailuen antzeko balio murriztailea.

3- EDO eta EZPA juntagailuen baliokidea.

Leizarragaren erabilerari dagokion aldetik, lehendabizi, lokailu honen urritasunaz ohartu behar gara, obra osoan zehar 14 adibide bakarrik aurkitu baititugu; honez gain, 14 hauetariko batzuk Ebanjelio desberdinetan errepikatzen diren pasarte berdinak dira.

1.- Gorago aipatu ditugun hiru balio horietatik, Leizarragaren obran lehenengoa da garrantzitsuena, adibide gehienetan -12 adibidetan, hain zuzen ere- balio hau nagusitzen delako:

---

[1] EUSKALTZAINDIA, Euskal Gramatika Lehen Urratsak-III (Lokailuak), 89-90.orr.

(1)- *Beguirauçue çuen elemosyná eztaguiçuen guiçonen aitzinean heçaz ikus çaiteztêçát:* ***ezpere*** *sariric eztuçue vkanen ...* (Mt.,VI,1)

(2)- *... eta hiregana, benignitatea, baldin perseuera badeçac benignitatean:* ***ezpere*** *hi-ere ebaquiren aiz.* (Rom.,XI,22)

Ikusten dugunez, EZPERE lokailuaren baliokide argia BESTELA da. Gainera, pasarte horiek Haranederren obran aztertzen baditugu, bietan, EZPERE lokailuaren ordez BESTELA aurkitzen dugu:

(1')- *Beguirautçue çuen obra onac eguitetic guiçonen aitcinean, hetaz icussiac içatea gatic;* ***bertcela*** *ez duçue içanen sariric ...* (Haran., Mt.,VI,1)

(2')- *... eta haren ontassuna çure alderat, baldin irauten baduçu ordean haren ontassunac eman çaituen estatuan;* ***bertcela*** *çu ere ebaquia içanen çare.* (Haran., Rom.,XI,22)

Honek, halere, ez du esan nahi Haranederrek EZPERE lokailua erabiltzen ez duenik, bere obran zenbait adibide aurkitu baititugu:

(3)- *... Nehorc eztrauca eratchequiten abillamêdu berri baten pedaçua abillamendu çar bati:* ***ezpere*** *berriac ethencen du ...* (Leiz., Lc.,V,36)

(3')- *...* ***ezperen*** *berriac hausten du çaharra.* (Haran., Lc.,V,36)

2.- Bigarren balioa ere (BEDEREN eta BEHINTZAT lokailuen antzeko balio murriztailea, alegia) soma dezakegu; dena den, hau ez da lehenengoa bezain oparoa. Ikus dezagun, halere, adibide bat:

(4)- *Sinhets neçaçue (...):* ***ezpere*** *obra beracgatic sinhets neçaçue.* (Io.,XIIII,11)

Erka dezagun Haranederren adibidearekin:

(4')- *...* ***Bederen*** *eguiten ditudan obren beren gatic ere sinhetx çaçue.* (Haran., Io.,XIIII,11)

3.- EGLU-k hirugarren balio bat ere aipatzen du. Hona hemen:

"3- EDO eta EZPA juntagailuen baliokidea."

Dena dela, Leizarragaren obra osoa azterturik, balio honi legokiokeen adibiderik ez dugu topatu.

Beraz, EGLU-k aipaturiko hiru balioetatik Leizarragaren obran lehengo biak bakarrik antzeman ditzakegula ondorioztatu behar dugu.

2.2.1.2. Tokia.

Azkenik, lokailu honen kokalekuari gagozkiolarik, beti perpausaren hasieran agertzen dela esan behar dugu. Lokailuaren aurrean bi puntu, edota koma bat aurki dezakegu; edonola ere, beti eten baten ostean, ondoko perpausari hasiera emango dio:

> - *Beguirauçue çuen elemosyná eztaguiçuen guiçonen aitzínean heçaz ikus çaiteztêçát:* **ezpere** *sariric eztuçue vkanen ...* (Mt.,VI,1)

2.2.2. BERCELA

Aurreko lokailua -EZPERE- BESTELA-ren baliokidea dela esan dugu. Hala ere, honek ez du esan nahi BERCELA lokailua agertuko ez denik; beraz, Leizarragak ideia bera adierazteko bi lokailu erabiltzen dituela esan dezakegu.

Bestalde, EZPERE lokailua urria bazen, BERCELA lokailuaz beste horrenbeste esan behar dugu; edo are gehiago, EZPERE baino urriagoa dela esan dezakegu, obra osoan 10 adibide bakarrik aurkitu baititugu.

2.2.2.1. Balioa.

Lokailu honek har ditzakeen balioez, ikus dezagun zer esaten digun EGLU gramatikak:

> *"a- Gehienetan, aurreko perpausaren aditzari dagokion balizko esanahia dute, beti ere halako baldintza bat edo dagoela ezkutuan seinalatuz (...) "aurreko perpausak esaten duena betetzen ez bada" esapidearen laburdura litzateke, alegia.*
>
> *b- (...) "gainontzean", "delakoa alde batera utzita", "hori bazter utziz" eta antzeko esapideen baliokide izango litzateke (...) Beraz, murriztea izango litzateke lokailu honen zeregitea"*[2]

Leizarragaren obran aurkitu ditugun adibide gehienetan, lehenengo balioa nagusitzen da, hau da, baldintza moduko hautaketa:

> - *Guertha eztadila:* ***bercela,*** *nola iugeaturen du Iaincoac mundua?* (Rom.,III,6)
>
> - *... moienaçale batê beharra içâ da:* ***bercela,*** *quiçona (...) indignationeâ guelditzê cen ...* (Adv.,25-27,259.or.)

Adibide hauetan, hortaz, EZPERE lokailuaz hitz egitean aipatu dugun balio berdina soma dezakegu.

---

[2] Id., 80-82.orr.

Bigarren balioari dagokionez, Leizarragak, egia esan, ez dirudi BERCELA lokailuari adiera "murriztailea" egozten dionik. Ikus dezagun adibide bat:

> - *Ecen Legueac ethorteco ciraden onén itzala çuelaric, ez gaucén imagina vicia, vrthe oroz ardura offrendatzen cituzten sacrificio heçaz beréz, ethorten ciradenac iagoitic ecin sanctifica citzaqueen.*
>
> ***Bercela*** *ala etziratequeen guelditu offrendatu içatetic, ...* (Hebr.,X,1-2)

Adibide honetan ikusten dugunez, lokailuaren zeregina ez datza aurreko perpausean esandakoa murriztean, baldintza moduko bat ezartzean baizik. Eta ez dago esan beharrik adibide honetan ezezik, gainerako guztietan ere adiera hau nagusitzen dela. Beraz, "adiera murriztailea" EZPERE lokailuaren bidez adieraz daiteke, baina BERCELA lokailuaren bitartez ez dirudi adierazten denik -edo behintzat Leizarragak ez du egiten-.

2.2.2.2. Tokia.

Azkenik, lokailuaren kokaguneari dagokionez, EZPEREN lokailuaz esan genuena gogoratu behar dugu, berdin jokatzen baitute biek:

Perpausaren hasieran agertzen da, aurrean pausaldi larria duelarik. Eten hori puntuak, bi puntuek, zein komak berak burutu dezakete; edonola ere, lokailu honek beti emango dio hasiera perpaus berriari:

> - *Guertha eztadila:* ***bercela****, nola iugeaturen du Iaincoac mundua?* (Rom.,III,6)

B.- JUNTAGAILUAK:

2.2.3. EDO

Hautakarien artean gehien erabiltzen den juntagailua EDO dugu; baina, hain erabilia izanik, juntagailurik polisemikoena ere bada. Dena den, juntagailu izateaz gain, lokailu ere izan daiteke, hau da, bi perpausen arteko harreman semantikoaren berri eman diezaguke, nahiz eta bi perpausok sintaktikoki elkartzeko gauza izan ez.

2.2.3.1. EDO LOKAILUA.

Lokailu honen **funtzioa** zehaztekotan, EGLU-k eskaintzen digun definiziora jo genezake:

> *"Hautakari direlako hauek, nolabait, aurreko perpausaren kontra jartzen duten aukera edo hautabide bat aurkezten dute"*[1]

Ikusten dugunez, juntagailuen funtzio berbera bete dezakete, baina beti ere, semantikaren aldetik; hau da, arestian aipatu dugunez, lokailu hauek bi perpausen artean suertatzen den aukera edo hautabidea adierazi arren, ezin dugu juntaduraz hitz egin, bi perpausok lokabeak izaten jarraitzen baitute.

Kokalekuari dagokionez, lokailuak diren aldetik, bigarren perpausaren hasieran agertuko dira, aurrean puntuaketa larria, oro har, puntu bat dutelarik:

> - *Ecen cer probetchu du guiçonac (...)* ***Edo*** *cer emanen du guiçonac ...?* (Mc.,VIII,36-37)

---

[1] EUSKALTZAINDIA, Euskal Gramatika: Lehen Urratsak-III, 24.or.

Edonola ere, gogora dezagun ETA emendiozkoaz hitz egitean aipaturikoa, alegia, Leizarragak darabiltzan puntuazio-markak, gehienetan, zalantzagarriak direla. Hortaz, puntuaketa larritzat jo ditzakegun bi puntuak, agian, gure komaren ordezkoak baino ez dira, eta, noski, hor ez legoke lokailuez hitz egiterik, juntagailuez baizik:

- *Baina nolatan orain dacussan, eztaquigu:* **edo** *norc irequi dituen honen beguiac, ...* (Io.,IX,21)

2.2.3.2. EDO JUNTAGAILUA.

Adibide gehienetan EDO juntagailua aurkitzen dugu. Juntagailu izanik, bi perpaus edo osagaien artean sortzen den aukeraren berri emango digu. Dena den, lokailuetan ez bezala, oraingo honetan sortzen den harremana semantikoa ezezik, sintaktikoa ere izango da, juntagailuak elkarketa gauzatzen baitu.

Juntaduraz ari garenez, lehendabizi, EDO honek zer elkartzen duen aztertu beharko genuke:

2.2.3.2.1. Zer elkartzen duen

1- Sintagmen osagaiak:

- ... *eznaiz ethorri eloquentiazco* **edo** *sapientiazco excellentiarequin ...* (Cor.1, II,1)

- ... *ezgara gauaren* **edo** *ilhumbearen haour.* (Thes.1,V,5)

Aipaturikoak izenlagunak dira; dena den, sintagmen osagaien artean izenondoak ere elkar ditzake:

- *Generatione gaichtoa* **edo** *adulteroa signo esquez dago, ...* (Mt.,XVI,4)

- ... *gauça cômunic* **edo** *satsuric eztuc egûdano sarthu ene ahoâ.* (Apost.Act.,XI,8)

Aipagarria da, bestalde, bai izenlagunen, bai izenondoen kasuan, Leizarragak, beti, bi osagaiak deklinabide markarekin aurkezten dizkigula; hau da, ez duela ardatz anitzetako izen sintagmarik edo izenondorik elkartzen, kasu-sintagmak baizik.

Erabilitako terminologia argitzeko, gogora dezagun EGLU-k dioskuna:

> "... ***Kasu sintagma***, *beraz, [izen sintagma + kasu marka] egitura duten sintagmak izanen dira (...)*
>
> *... ondarkia behin baizik agertzen ez den adibideetan, izen sintagma bakar baten barnean gertatzen da juntaketa. Holako egiturak izendatzeko, ardatz izen bat baino gehiago dutenez gero,* ***ardatz anitzetako izen sintagmak*** *direla esango dugu."*[4]

Azkenik, esan dezagun Leizarragak kasu sintagmak elkartzea ez dela jokabide isolatua. EGLU-k berak adierazten digu ekialdeko euskalkietan kasu sintagmak elkartzeko joera nagusitzen dela.

2- Sintagmak:

Juntagailu honek, gehienetan, sintagmak elkartzen ditu; halere, sintagma horien azpian, sakoneko egituran perpausak ditugula gogoratu behar dugu.

> - *Aita* ***edo*** *ama ni baino maiteago duena ...* (Mt.,X,37)
>
> - *Eta ez guciz mûdu hunetaco paillartequin,* ***edo*** *auaritiosoequin* ***edo*** *harrâparietquin,* ***edo*** *idolatrequin: ...* (Cor.1,V,10)

Hemen ere, agerian geratzen da kasu sintagmak elkartzeko joera.

---

[4] EUSKALTZAINDIA, Euskal Gramatika: Lehen Urratsak-IV. Juntagailuak, 33.or.

[5] Id.,35-36.orr.

Dena den, adibide urrietan bada ere, ardatz izenak ere aurki ditzakegu:

- ... *ecen baldin guiçonetaric bada conseillu* **edo** *obra hori, ...* (Apost.Act.,V,38)

3- Perpausak:

EDO juntagailuak edozein perpaus mota elkar dezake: beregainak zein menpekoak; eta jakina, perpaus osoak nahiz aditza elidituta dutenak:

3.1. PERPAUS BEREGAINAK:

3.1.1. Elipsirik gabekoak:

- ... *Cer ianen dugu,* **edo** *cer edanen dugu,* **edo** *ceçaz veztituren gara?* (Mt.,VI,31)

3.1.1. Elipsidun perpausak:

- ... *eztu hura vnci batez estaltzen,* **edo** *ohe azpian eçarten ...* (Lc.,VIII,16)

- ... *anayetaric nehorc denuntiatu dic* **edo** *erran deus hiçaz gaizquiric.* (Apost.Act.,XXVIII,21)

Ikus dezakegunez, elipsiak, oro har, bigarren perpausean burutzen dira. Bestalde, aditz laguntzailea ezabatu arren, aditz nagusiak bere aspekto marka -edo markarik eza- mantentzen du.

3.2. MENPEKO PERPAUSAK:

3.2.1. Elipsirik gabekoak:

- *Ez ia ardietsi dudalacotz,* **edo** *vana gloriaz naicelacotz ...* (Phil.,III,12)

3.2.2. Elipsidun perpausak:

- ... *elkar accusatzen dutelaric,* **edo** *excusatzen-ere.* (Rom.,II,15)

- ... *esteyari hiltzen* **edo** *martirizatzen dacusquigunean-ere ...* (Adv.,8-9,269.or.)

Ezabaketak, esan dugunez, orokorrean eskuineko osagaian gauzatu ohi dira; dena den, ezkerrekoan

ere ager daitezke (aipatutako azken adibidean, kasu).

Bestalde, elipsien artean anakolutoak aipatu beharko genituzke. Fenomeno hau perpaus batean ezagunak diren elementu guztiak ezabatzen direnean suertatzen da. Guztiak desagertzean, perpausean osagai bakarra -informazio berria dakarkiguna- eta EDO juntagailua geratzen zaizkigu. Edozein modutan, Leizarragak **"X edo,"** egitura ez du behin ere erabiltzen.

2.2.3.2.2. Erabilera.

Juntagailu honen erabilerari dagokionez, GOENAGA-k oso eskema adierazgarria eskaintzen digu:

EDO [+junt., +disjuntiboa, -GALD---][6]

AREJITA-k ere "*EDO [-gald] / ALA [+gald]*" dikotomia aurkezten digu:

" ... **ALA** *(...) "itaun" edo "galderetan" erabiltzen da ...*

EDO *(...) "Itaun ez diren esaldi arruntetan" erabiltzen da, baiezko eta ezezkoetan"*[7]

Bi gramatikariek arrazoi dute; nolanahi ere, EDO juntagailua galde-perpausetan ere aurki dezakegu. Beraz, astiroago aztertu beharreko arazo baten aurrean gaude. Ikus dezagun, adibidez, Patxi Altunak dioskuna:

"Podemos, por tanto, afirmar que el lugar de ALA frente a EDO, es el de la interrogación, cuando ésta es compuesta, sea implícita o explícita, directa o indirecta. Con lo cual queda dicho que oraciones como ***"Zu EDO ni joango garela esango ahal diozu?"*** *nada prueban en contra de nuestra*

---

[6] GOENAGA, P., Gramatika Bideetan, 250.or.

[7] AREJITA, A., Euskal Joskera, 53-56.orr.

aplicación, puesto que lo que aquí subyace es ***"Zu EDO ni joango gara"*** *una enunciativa, y la interrogación afecta a otro sintagma distinto:* ***"Hori esango?"***[8]

Honetan datza, bada, EDO-ren berezitasuna, ez zein perpaus motetan agertzen den, edozein motetan ager baitaiteke, baizik eta perpaus horien sakoneko egituran zer-nolako perpausak aurkitzen ditugun.

EGLU-ra jotzen badugu, gramatika honek EDO juntagailua adierazpen-perpausetan zein galde-perpausetan ager daitekeela onartzen du. Hona hemen galde-perpausetarako eskaintzen dituen kontestuak:

> "*a. Perpaus beregainak elkartuz*
>
> *b. Mendeko galde-perpausak, hau da zehar-galderak, elkartuz*
>
> *c. Perpausa baino beheragoko kategoriak juntatzen dituenean, galdegai ez diren juntagaiak berezi behar dira batetik*
>
> *d. galde-hitzak elkartuz ere aurki daiteke*
>
> *e. galde-hitz ez diren galdegaiak juntatuz*"[9]

Beraz, gramatika tradizionaletan kontrakoa pentsatu bazen ere, EDO adierazpen-perpausetatik kanpo ere aurki dezakegu. Gainera, hau ez da gaur egungo joera berria, Leizarragak berak EDO juntagailua adierazpen-perpausetan ezezik, galde-perpausetan ere erabiltzen baitzuen.

Azter dezagun, bada, galde-perpausen barruan zer-nolako kontestuetan darabilen Leizarragak EDO juntagailua:

---

[8] ALTUNA, P., "Villasante, Fr.Luis", Mundaiz, nº 7, 46.or.

[9] EUSKALTZAINDIA, Euskal Gramatika: Lehen Urratsak-IV. Juntagailuak, 124-126.orr.

1- Galde-perpaus lokabeak elkar ditzake:

> - ... *Ceren galdez ago?* **edo,** *Cer minço aiz horrequin?* (Io.,IIII,27)
>
> - *Ecen norc eçagutu vkan du Iaunaren gogoa?* **edo** *nor içan da haren conseillari?* (Rom.,XI,34)

Hemen ez da inolako araurik apurtzen, EDO juntagailuak, ETA-k egiten duen bezala, edozein eratako perpausak, -adierazpen, galde zein aginte perpausak- elkar baititzake. Ikus dezagun zer esaten duen honetaz EGLU-k:

> "... *juntagailu hautakari hau* (edo) *da ageri den bakarra bi galdera desberdin (eta ez galdera beraren bi aukera) elkartzeko.*"[10]

Gainera ohart gaitezen adibide horien sakoneko egituran adierazpen perpaus bat daukagula. Ikus dezagun lehenengo adibidea:

> - ... *badaric-ere nehorc etzieçon erran, Ceren galdez ago?* **edo,** *Cer minço aiz horrequin?* (Io.,IIII,27)

Perpaus horretan daukaguna honako hau da: "Inork ez zion erran X edo Y". Kasualitatez, X eta Y galde-perpausak dira; baina, hori gutxienekoa da, perpausa berdin-berdin delako adierazpenezkoa.

2- Perpausetik beheragoko osagaien artean, galde-hitzak elkar ditzake:

> - ... *Cer botherez* **edo** *noren icenean gauça haur eguin duçue çuec?* (Apost.Act.,IIII,7)
>
> - ... *noizco* **edo** *cer demborataco (...) declaratzen cituen ...* (Pier.1,I,11)

---

[10] EUSKALTZAINDIA, Euskal Gramatika: Lehen Urratsak-IV. Juntagailuak, 137.or.

3- Perpausetik beheragoko osagaien artean, galdegai ez diren juntagaiak ere elkar ditzake:

> - *... eztu lachatzen bere idia* **edo** *bere astoa mangederatic ...?* (Lc.,XIII,15)
>
> - *... nola eçaguturen da chiruláz* **edo** *harpáz ioiten dena?* (Cor.1,XIIII,7)

Perpaus hauetan guztietan, galde-perpausak izan arren, EDO juntagailua dugu; eta ez dut uste perpaus hauek inori arrotz suertatuko zaizkionik. Gainera, Haranederren erabilera aztertzen badugu, Leizarragarekin bat datorrela ikusiko dugu:

> - *... çuetaric batbederac ez du lechatcen sabbato egunean bere idia* **edo** *bere astoa ...?* (Haran., Lc.,XIII,15)
>
> - *... nola jaquinen da cer jotcen da chirolaz* **edo** *narpaz?* (Haran., Cor.1,XIV,7)

Kontestu hauek guztiak ikusita, EDO juntagailua galde-perpausetan ere ager daitekeela ukaezina da; dena dela, zehaztu dezagun galde-perpausetan agertu arren ez duela, inondik inora, ALA-k duen hautaketa adiera, hots, ez zaigu eskatzen bi juntagaietako bat har eta bestea erabat gaitzes dezagun, biak zilegi baitira, nolabait. Gainera, gorago aipatu dugunez, garrantzizkoena da perpaus horien sakoneko egituran adierazpen-perpausak ditugula, nahiz eta azaleko egiturara pasatzean galdera ikurra eraman. Azter ditzagun, esate baterako aipaturiko azken bi adibideak:

> (1)- *... eta erran ceçan, Hypocritá, çuetaric batbederac Sabbathoâ eztu lachatzen bere idia* **edo** *bere astoa mangederatic ...?* (Lc.,XIII,15)

Azaleko egituran zalantzarik gabeko galde-perpausa dugu; baina, funtsean, baiezko perpaus baten aurrean gaude: "Hypokrita, zuetarik batbederak Sabbathoan bere idia **edo** bere astoa mangederatik laxatzen du", "Ez al da

horrela?" Beraz, galderak ez dio eragiten EDO daraman sekuentziari; nire ustez, behintzat.

> (2)- ... *baldin cerbait differentia tonuz ezpademate nola eçaguturen da chiruláz* **edo** *harpáz ioiten dena?* (Cor.1,XIIII,7)

Adibide honetan, alde batetik ohartu behar gara EDO-k bi galde-perpaus elkartzen dituela; gertatu dena da azaleko egiturara pasatzen berdinak ziren elementuak eliditu egin direla; baina honako hau izango genuke:

> "... *nola eçaguturen da chiruláz* (ioiten dena)? **edo** (nola eçaguturen da) *harpáz ioiten dena?* (Cor.1,XIIII,7)

Eta bestetik, gogoratu behar dugu galde-perpausak ezezkoen ahaide hurbilak direla eta horixe dela hemen daukaguna eta EDO-ren agerpena ahalbideratzen duena:

> "Baldin zerbait diferentzia tonuz ez bademate, **ezin da ezagutu txirulaz joiten dena EDO harpaz joiten dena.**"

2.2.3.2.3. Tokia

Juntagailu honen kokalekuaz ere hitz egin beharko genuke, EDO juntagailua bi posiziotan aurki baitezakegu:

a)Hautatzen diren bi sintagmen edo perpausen artean:

- ... *Generatione gaichtoa* **edo** *adulteroa signo esquez dago,* ... (Mt.,XVI,4)

Erdian kokatu arren, zenbaitetan bi sintagma edo perpaus horien artean beste osagai batzuk ere tarteka daitezke:

- *Baina nolatan dacussan, eztaquigu:* **edo** *norc irequi dituen honen beguiac,* ... (Io.,IX,21)

b) Bi sintagmen edo perpausen hasieran:

- ***Edo*** *eguiçue arbore ona, eta haren fructua on:* ***edo*** *eguiçue arbore vstela, ...* (Mt.,XII,33)

- *... cerbitzari çaretela:* ***edo*** *bekatuaren heriotara,* ***edo*** *obedientiaren iustitiatara?* (Rom.,VI,16)

Arazoa bi sintagma edo bi perpaus baino gehiago elkarren segidan datozenean sortzen da. Gure ikuspegitik begiratuta, ohikoena azken bien artean kokatzea izango litzateke:

- *... estal, corrumpi* ***edo*** *ezezta daquigun? ...* (Adv.,8-9,266.or.)

Dena den, Leizarragak, adibide gehienetan, ETA juntagailuarekin egiten zuen bezala, EDO osagai guztien aurrean errepikatzeko joera dauka:

- *Nehorc bada etzaitzatela condêna ianean,* ***edo*** *edanean,* ***edo*** *besta egunaren,* ***edo*** *ilhargui berriaren,* ***edo*** *Sababthoén respectuz* (Col.,II,16)

- *... modestiarequin acotra ditecê, ez bilo içurtzez* ***edo*** *vrrhez* ***edo*** *perlaz,* ***edo*** *abillamendu soberanciatacoz.* (Tim.,II,9)

2.2.3.2.4. Balioa

Azkenik, juntagailu honek hartzen dituen balioak aipatu behar ditugu, adiera bat baino gehiago har baitezake:

1- Hautakaritza:

Hauxe da juntagailu honen adierarik berezkoena; izan ere, juntagailu hautakaria da. Aukera bat baino gehiago dauzkagu eta hautaketa egin behar da; dena dela, egiten den hautaketa ez da erabatekoa, bat aukeratzeak ez baitu bestea zeharo baztertzea suposatzen, biak posible dira, nolabait:

- ... *Iauna, noiz ikussi augu gosse* **edo** *egarri,* **edo** *arrotz,* **edo** *billuci,* **edo** *eri,* **edo** *presoindeguian, eta ezaugu cerbitzatu?* (Mt.,XXV,44)

- ... *eztu lachatzen bere idia* **edo** *bere astoa mangederatic...?* (Lc.,XIII,15)

2- Orobatasuna:

Balio honen berri emateko EGLU gramatikaren hitzak balia ditzakegu:

> "*Juntagailuaren bidez elkartzen diren aukeren artean hiztunarentzat ez dagoela desberdintasun handiegirik, berdintsu edo orobat zaiola bata nahiz bestea litzateke (...)* **edo**-*k hartzen duen balioa...*"[11]

Zenbaitetan aukera ala orobatasuna den ez da errez bereizten; hala ere, aipa ditzagun adibide batzuk:

- ... *Equiten duanean barazcaribat* **edo** *afaribat ...* (Lc.,XIIII,12)

- ... *baldin Spiritubat* **edo** *Ainguerubat minçatu baçayó ...* (Apost.Act.,XXIII,9)

3- Baliokidetasuna:

Hemen perpausak edo sintagmak ez daude elkarren aurka, ez da hautaketarik egin behar, beraien arteko baliokidetasuna baino ez da adierazten. Hauek ere, orobatasuna adierazten dutenekin pareka daitezke zenbait adibidetan:

- ... *behaztopagarriric batre* **edo** *trebucagarriric çuen anayeri eçar ezteçoçuen.* (Rom.,XIIII,13)

- ***Commun****, erran nahi da polluitua* **edo** *satsua, ...* (Hitz eta Minçatzeco Manera,1204.or.)

---

[11] Id., 131.or.

4- Emendiozko kutsua:

Arestian aipatu dugunez, EDO juntagailuaren bidez adierazten den "hautaketa" ez da erabatekoa; horregatik, zenbait adibidetan juntagailu honek emendiozko kutsua ere har dezakeela dirudi. Ez geundeke, jakina, emendiozko juntagailuaren aurrean, baina, hainbat adibidetan EDO juntagailuaren ordez, ETA juntagailua jarrita, esanahia berdintsua izango litzateke. Ikus dezagun, halere, adibideen bidez:

(1)- *Generatione gaichtoa* **edo** *adulteroa signo esquez dago ...* (Mt.,XVI,4)

(2)- *... Nor da ene ama,* **edo** *ene anayeac?* (Mc.,III,33)

Ikus dezagun, bada, nola ematen dituen perpaus hauek Haranederrek:

(1')- *... Arraça gaixto* **eta** *adulterios hunec seiñale bat galdetcen du ...* (Haran., Mt.,XVI,4)

(2)- *... Nor da ene ama* **eta** *nor dire ene anayac?* (Haran., Mc.,I I,33)

Horrexegatik esan dugu zenbait adibidetan EDO juntagailuak emendiozkoaren antzeko adiera har dezakeela.

6- Banakaritza:

EDO juntagailua errepikaturik agertzen zaigunean, banakaritza zentzua ere har dezake:

- *Bada,* **edo** *iaten baduçue,* **edo** *edaten baduçue,* **edo** *cerbait berceric eguiten baduçue, gucia Iaincoaren gloriatan eguiçue.* (Cor.1,X,31)

- *... soinu emaiten dutenec-ere* **edo** *den chirula,* **edo** *harpa ...* (Cor.1,XIIII,7)

Azkenik, esan dezagun aipaturiko adibideetan balio banakaria nagusitu arren ezin dela juntagailu banakariez hitz egin, banakaritza, aditzondo, edo kasu honetan bezala, juntagailu baten errepikatze hutsean baitatza.

Ikus dezagun zer dioskun honetaz EGLU-k:

> *"Hortaz, ez dugu juntagailu banakaririk aipatu beharrik. Konposizio distributiboa, izan ere -horrela mintza bagaitezke- ez da juntaduraren bitartez gauzatzen, juntagailuz edo alborakuntzaz juntaturiko perpausetan partikula batzuk errepikatuz baizik (...) Ez dira, ordea, errepikaturiko partikula horiek beroriek juntadura gauzatzen dutenak (...) Haien egitekoa beste hau da: juntadurari balio banakaria ematea. Azken batean, banaketa zentzu hori errepikatzearen bidez eta osagaiak korrelazioan jarriz lortzen da."*[12]

---

[12] EUSKALTZAINDIA, Euskal Gramatika Lehen Urratsak-III (Lokailuak), 18.or.

2.2.4. ALA

Hautakaritza adierazteko ALA da -EDO juntagailuarekin batera- gehien erabiltzen den forma.

Juntagailu gehienek bezala, honek ere bi funtzio bete ditzake: alde batetik sintagmak zein perpausak elkartzen dituen juntagailua eta bestetik, bi perpausen arteko harreman semantikoaren berri ematen duen lokailua izan daiteke.

2.2.4.1. ALA JUNTAGAILUA.

2.2.4.1.1. Zer elkartzen duen.

Juntagailu den aldetik, osagai desberdinak elkar ditzake:

1- Sintagmak:

- *Ioannesen Baptismoa nondic cen? cerutic* **ala** *guiçonetaric?* (Mt.,XXI,25)

- ... *Ceinec bekatu eguin du, hunec* **ala** *hunen aitaméc* ... (Io.,IX,2)

(Ohart gaitezen ALA-k galdegai diren juntagaiak elkartzen dituela.)

2- Perpausak:

2.1. Perpaus beregainak:

- ... *emanen dugu,* **ala** *eztugu emanen?* (Mc.,XII,14)

2.2. Menpeko perpausak:

ALA juntagailua galde-perpausetan agertzen denez, menpeko perpaus hauek zehar-galderak izango dira.

- ... *eya Iaincoaganic denez,* **ala** *ni neure buruz minço naicenez.* (Io.,VII,17)

2.3. Anakolutoak:

Elkartzen dugun bigarren perpausean gerta daiteke osagai guztiak elliditzea, ezagunak edo aurretik aipatuak direlako:

- ... *bidezco da Cesari tributaren emaitea,* **ala** *ez?* (Mt.,XXII,17)

ALA juntagailua agertzen deneko kontestu desberdinak aipatu ditugu; hala ere, guztiek dute zerbait amankomunean, alegia, galde-perpausak izatea, ALA juntagailu hautakaria denean behintzat, galde-perpausen eremuan soilik aurkituko baitugu.

2.2.4.1.2. Balioa

EDO juntagailuak bezala, ALA-k ere balio bat baino gehiago adieraz dezake.

A.- Lehendabizi, ALA juntagailuaren baliorik berezkoena aipatu behar dugu, hots, BALIO HAUTAKARIA.

- *Ecen cein da handiago, mahainean iarriric dagoena,* **ala** *cerbitzun ari dena?* (Lc.,XXII,27)

- ... *norçaz Prophetác erraiten du haur? bere buruäz,* **ala** *cembeit bercez?* (Apost.Act.,VIII,34)

Adibideetan ikus dezakegunez, bi aukeren arteko derrigorrezko hautaketaren aurrean gaude. ALA-k galdegaiak elkartzen ditu; beraz, nahitaezko hautaketa egin behar da, perpaus beraren barruan bi galdegaik ez baitute lekurik.

B.- ALA juntagailuak galde-perpausetan ezinbesteko hautaketa adierazten du; baina, adierazpen perpausetan beste adiera bat hartzen du: BALIO BANAKARIA edo OROBATASUNA.

Adiera honen berri Mitxelenak ematen digu, Villasanteren Sintaxis de la Oración Compuesta liburuari egindako oharretan:

> "*Un ejemplo oriental de indistinción lo hallamos en* ***Alphonsa Rodriguez*** *(del bajonavarro Lopéz, p.83):* ***ala deçacien jan, ala edan deçacien, edo beste cer nahi eguin deçacien oro Gincoaren gloriari daucola eguin itçacie*** *= "sea que comáis, sea que bebáis, o hagais otra cosa cualquiera, hacedlo todo para la gloria de Dios"*[13]

Mitxelenak eskaintzen digun adibidean ezin dugu hautakaritzaz hitz egin, ezta Leizarragak berak aurkezten digunean ere, nahiz eta EDO erabili:

> - *Bada,* ***edo*** *iaten baduçue,* ***edo*** *edaten baduçue,* ***edo*** *cerbait berceric eguiten baduçue, gucia Iaincoaren gloriatan eguiçue.* (Cor.1,X,31)

Leizarragak EDO erabiltzen du. Baina, adibide honetan ez gaude EDO juntagailu hautakariaren aurrean, banakaritza adierazten duen EDO errepikatuaren aurrean baizik.

Hala beraz, Leizarragaren EDO-ren bidez banakaritza adierazten bada, Mitxelenak aipatzen duen ALA-ren bidez ere gauza bera adierazi behar da, adibide berdina da eta.

Ikus dezagun, Patxi Altunak honetaz dioskuna:

> "*...en el campo de las enunciativas, EDO y ALA compiten con NAHIZ, o alternan, de forma bastante indistinta. Tal es el caso del ejemplo que cita Mitxelena ...*"[14]

Beraz, nahiz eta orain arte ALA beti galde-perpausen eremuan kokatu, salbuespen hau izan behar dugu kontutan, ALA-k adierazpen-perpausetan banakaritza edo orobatasuna adierazten duelako:

> - *Daquiçuelaric haur, ecen batbederac cerere vngui eguin baituque, hura recebituren duqueela,* ***ala*** *den sclaboc* ***ala*** *librec.* (Eph.,VI,8)

---

[13] MITXELENA,K., in VILLASANTE, L., Sintaxis de la Oración Compuesta, 25.or.

[14] ALTUNA, P., "Villasante, Fr.Luis" Mundaiz, nº 7, 46.or.

- *Cein guregatic hil içan baita: bagaude iratzarriric,* **ala** *bagaunça lo, harequin batean vici garén.* (Thes.1,V,10)

Azken adibide hau aipagarria da. Banakaritzaz hitz egitean, hau errepikatzearen bidez edo osagaiak korrelazioan jarriz lortzen zela esan genuen. Eta grekera edo latina aztertuz gero, hizkuntz hauetan juntagailuen errepikapena aurkitzen dugu: **εἴτε...εἴτε, sive...sive.** Leizarragak euskaratutako adibidean, berriz, ALA bakar bat daukagu; beraz, hemen OROBATASUNAz hitz egin dezakegu.

Ikus dezagun, bestalde, adibide bera nola euskaratu duen Haranederrek:

- ... **nahiz** *gaudecen iratçarriac,* **nahiz** *gaudecen lo,* ... (Haran., Thes.1,V,10)

Testamentutik at, sarrera-testuetan aurkitzen dugun adibideak ere funtzio hau betetzen du. Eta ohart gaitezen, hemen ere bi osagaien arteko OROBATASUNA adierazten duen ALA bakarra dugula:

- ...*deitzen gara heretage hunetara personezco aceptioneric ez considerationeric batre gabe, arra* **ala** *emea, chipia* **ala** *handia, cerbitzaria* **ala** *nabussia, magistrua* **ala** *discipulua, bereterra* **ala** *laicoa* ... (Adv.,33-36,265.or.)

Azkenik, esan dezagun balio banakariari edo orobatasunari dagokionez, Mitxelenak eta P.Altunak goian aipatutako oharretan adierazten dutenez, EDO eta ALA juntagailuak baliokideak direla:

- *Eta gauça arima gabe soinu emaiten dutenec-ere* **edo** *den chirula,* **edo** *harpa, baldin cerbait differentia tonuz ezpademate,* ... (Cor.1,XIIII,7)

- *Daquiçuelaric haur, ecen batbederac cerere vngui eguin baituque, hura recebituren duqueela,* **ala** *den sclaboc* **ala** *librec.* (Eph.,VI,8)

2.2.4.1.3. Tokia.

Bestalde, juntagailu honek hartzen duen kokalekuari gagozkiolarik, EDO juntagailuaz esan genuena errepikatu beharko genuke. Eskuarki, elkartzen diren bi sintagmen edo perpausen artean agertuko da; dena den beste posizio batzuetan ere aurki dezakegu:

a) Bi sintagmen edo perpausen artean:

- *... norçaz Prophetác erraiten du haur? bere buruäz,* **ala** *cembeit bercez?* (Apost.Act.,VIII,34)

b) Bi sintagmen edo perpausen hasieran:

- **Ala** *eznaiz haiçu nahi dudanaren eguitera neure onéz?* **ala** *hire beguia gaichto da, ceren ni on bainaiz?* (Mt.,XX,15)

c) Osagai guztietan errepikatuta:

- *... eztaquiçue noiz etcheco iauna ethorriren den, arratsean,* **ala** *gauherditan,* **ala** *oillaritean,* **ala** *goicean.* (Mc.,XIII,35)

2.2.4.2. ALA LOKAILUA.

Leizarragak, berez juntagailuak direnak, lokailu gisa ere erabiltzen ditu sarritan eta adibiderik argiena hementxe dugu, Leizarragaren obran aurkitzen ditugun ALA gehienak lokailuak baitira.

Lokailu hauek puntuaketa larriaren ostean aurkitzen ditugu; dena dela, ez dezagun ahanz Leizarragarentzat puntuaketa larria puntua, bi puntuak zein koma bera izan daitekeela:

- *Cer beraz erranen dugu?* **Ala** *da iniustitiaric Iaincoa baithan?* (Rom.,IX,14)

- *eta has cequión hetaric batbedera erraiten,* **Ala** *ni naiz, Iaunà?* (Mt.,XXVI,22)

- *... Hitz hauc eztirade deabrua duenarenac:* **ala** *deabruac itsuén beguiac irequi ahal ditzaque?* (Io.,X,21)

Ikusten dugunez, ALA hauek ez dira bi perpaus edo sintagma elkartzen dituzten juntagailu hautakariak. Elkarren ondoan dauden bi perpausen artean, harreman semantikoren bat egon daiteke, baina ez da bien artean hautaketarik egin dadila eskatzen.

Nolanahi ere, gogora dezagun zer dioskun Azkuek ALA honen jatorriari buruz:

> *"Según se vió ya, viene del afijo adverbial* **al** *"por ventura", seguido del interrogativo* **a**. *Denota interrogación expresa o tácita."*[15]

Leizarragaren obran agertzen diren adibideak arretaz ikertzen baditugu, Azkuek aipaturiko balioa hartzen dutela ohartuko gara. Azken finean, lokailuak baino gehiago, galderari hasiera ematen dioten partikulak dirudite. ALA hauen bidez galderak sortzen ditugu, baina ez dira galdera arruntak, erretorikoak edo erantzunik espero ez dutenak baizik. Galderok, partikula honen bitartez, AL aditzondoaren adiera hartzen dute: "acaso", "por ventura". Beraz, zaila da ea hautakarien artean aipatu behar ditugun erabakitzea, harremanetan dauden bi perpausen artean ez baitago hautaketarik.

Ikus ditzagun adibide batzuk:

> - *Erran ciecén halaber,* **Ala** *candela ekarten da gaitzurupean, edo ohapean eçar dadinçat?* (Mc.,IIII,21)
>
> - *... eta erran cieçoten,* **Ala** *gu-ere itsu gara?* (Io.,IX,40)

Argibide bila, grekera edo latina hartzen baditugu, ez dugu juntagailu edo lokailu hautakaririk aurkituko, **"*Numquid*, Mὴ"** eta halako galde-partikulak baizik.

Bestalde, mendebaldeko hiztunoi hasierako posizioan agertzen diren ALA partikula hauek arrotzak irudi

---

[15] AZKUE, R.M., Morfologia Vasca, 251-252, 485.or.

dakizkiguke; baina zer gertatzen da partikula hauek perpausaren amaieran kokatzen baditugu?

- "candela gaitzurupean edo ohapean eçar dadinçat ekarten da, **ala**?"

- "gu-ere itsu gara, **ala**?"

Guk perpausaren amaieran kokatzen ditugun "anakolutoak" ez al dira Leizarragak perpausaren hasieran ezartzen dituenak bezalakoak?

Hortaz, partikula hauek aukeraren bigarren partea isilpean uzten duten anakolutoak diren ala, besterik gabe, galdera erretorikoari hasiera ematen dioten partikulak diren aztertu beharko genuke.

Leizarragak erantzunik espero ez duten galderen hasieran, sistematikoki, ALA erabiltzen du. Hala ere, ez dirudi hau Leizarragaren jokabide isolatua denik, Haranederrek, esate baterako, adibide askotan Leizarragak bezala jokatzen baitu:

(1)- **Ala** *gure Legueac condemnatzen du nehor...?* (Leiz., Io.,VII,51)

(1')- **Ala** *gure legueac jugeatcen du ...* (Haran., Io.,VII,51)

(2)- *... cer erranen dugu?* **ala** *iniusto da Iaincoa ...?* (Rom.,III,5)

(2')- ... **ala** *injustua da Jaincoa ...* (Haran., Rom.,III,5)

Dena den, Haranederrek gauza bera adierazteko beste partikula batzuk ere erabiltzen ditu:

* OTHE

Partikula hau oso ugaria da Haranederren obran. Leizarragak, aldiz, erabilera urriagoa du:

(3)- **Ala** *recebitu duçue Spiritu saindua sinhetsi vkan duçuenean?* (Leiz., Apost.Act.,XIX,2)

(3')- *Errecibitu* **othe** *duçue* ... (Haran., Apost.Act.,XIX,2)

Haranederrek, partikula hau ALA lokailuarekin batera ere erabili ohi du:

(4)- **Ala** *ni hic nahi nauc hil, ...?* (Leiz., Apost.Act.,VII,28)

(4')- **Ala** *hill nahi* **othe** *nauçu...?* (Haran., Apost.Act.,VII,28)

* NASQUI:

Partikula hau sekula ez dugu Leizarragaren obran aurkitzen:

(5)- ... **Ala** *artha du idiéz Iaincoac?* (Leiz., Cor.1,IX,9)

(5')- ... **Nasqui** *idiez baidu griña Jaincoac?* (Haran., Cor.1,IX,9)

Haranederrek balio hau aditzondo zein partikula jakinik gabe ere adierazten du:

(6)- *Erran ciecén (...),* **Ala** *çuec-ere ioan nahi çarete?* (Leiz., Io.,VI,67)

(6')- ... *Ez duçue nahi goan çuec ere?* (Haran., Io.,VI,68)

Arestian aipatu dugun auzia, hau da, ea ALA hauek aukeraren bigarren partea isilpean utzi duten anakolutoak ala galdera erretorikoen galde-partikulak diren, Haranederren adibideak aztertu ondoren birplanteatzen badugu, badirudi galde-partikulen aldeko apostua egin behar dugula.

Haranederrek darabiltzan OTHE edo NASQUI ezin ditugu inolaz ere hautakaritzat jo; aitzitik, guztiok onartuko genuke galderazko partikulak direla. Edozein modutan, ez dirudi gure anakolutoen eta galderazko partikula hauen artean tarte handiegirik dagoenik:

a.- *Eta, baldin arrain esca badaquió,* **ala** *suguebat emanen drauca?* (Leiz., Mt.,VII,10)

a'.- ... *emanen* **othe** *dioçue sugea?* (Haran., Mt.,VII,10)

a''.- Eta baldin arraina eskatzen badio, suge bat emango **al** dio? (Geuk asmatua)

a'''.- Eta baldin arraina eskatzen badio, suge bat emango dio, **ala**? (Geuk asmatua)

Azkenik, esan dezagun lokailu honek beste balio bat ere har dezakeela:

- *O Iaincoaren sapientiaren eta eçagutzearen abrastassunen barná!* **ala** *haren iugemenduac baitirade comprehendi ecin daitezqueen beçalacoac, eta haren bideac erideiteco impossibleac!* (Rom.,XI,33)

Etxeparek ere honen antzeko ALA bi ditu:

- *Benedica fortuna* **ala** *encontru hona* (Etxep.,IX,1)

- *Ixil endin nahi niquec* **ala** *ene fedia* (Etxep.,XII,38)[16]

Ikus dezagun zer-nolako azalpena ematen dien Patxi Altunak partikula hauei:

"**ala**: *zin egiteko egungo egunean ere (ala Jainkoa!) erabili ohi den hitz hau ...*"[17]

Laburbilduz, ALA formak adiera bat baino gehiago har dezakeela esan behar dugu. Alde batetik, juntagailu hautakari arrunta dugu -zeinek errepikatuta zentzu banakaria ere har baitezake-, eta bestetik, galdera erretorikoak markatzen dituen ALA partikula -azken hau oso ugaria Leizarragaren obran-.

---

[16] ETXEPARE, B., Linguae Vasconum Primitiae, 176, 222.or.

[17] ALTUNA, P., in ETXEPARE, B., Linguae Vasconum Primitiae, 177.or.

2.2.5. EZPA

Hautakaritzaren barruan bi juntagailu nagusi ditugu: EDO eta ALA; baina, hain garrantzitsua izan ez arren, hirugarren bat ere aipatu behar dugu: EZPA juntagailua.

2.2.5.1. EZPA juntagailua.

Bizkaian honen oinarrian eraiki diren lokailuak dauzkagu: EZPABERE, EZPADA ...; baina jatorrizko forma ez lokailutzat, juntagailutzat jo beharko genuke, zeren eta agertzen deneko kontestuek hala eskatzen baitigute:

- *Halaber eure buruäz eztuc iuraturen, ecen bilobat churi* ***ezpa*** *beltz ecin daidic.* (Mt.,V,36)

- ***Heresia*** *(...) Hereticoa da secta bereciric appart eguitê duena* ***ezpa*** *daducana ...* (Hitz eta Minçatzeco Manera, 1207.or.)

- ***Patriarchá*** *(...) (cein içan baitirade populuco hamabi ondoac* ***ezpa*** *erroac beçala) ...* (Hitz eta Minçatzeco Manera, 1209.or.)

- *... Ecê ahal datequea ene côditionezco bachotassunic* ***ezpa*** *hunelaco berce gauçaric batre, ...* (Guc.,3-5,251.or.)

Guk aztertu ditugun testuetan EZPA juntagailua lau aldiz bakarrik agertzen da, eta lau hauek izen sintagmak juntatzen dituzte. Hala ere, EGLU-k[18] jasotzen dituen adibideak ikusita, sintagmak ezezik perpausak ere elkar ditzakeela ikus dezakegu:

(453) *Eta lehenik, gauza klaroa da, ezen Iainkoaz ordenatu ezpa manatu etzaikun guzia, gure libertatean dela* (J.Leizarraga, *Othoitza*, 20)

Bestalde, Etxeparek ere EZPA darabil:

- *Mundu oro iarriren da bi lecutan hersiric Glorian* ***ezpa*** *yfernuyan ezta escapaceric.* (Etxep., I,242-243)

---

[18] EUSKALTZAINDIA, Euskal Gramatika: Lehen Urratsak-IV. Juntagailuak, 179.or.

- *Amoretan othe date leyal denic batere*
Hiz ederrez ***ezpa*** *ioyaz mutha eztadin huraere.* (Etxep., II,11-12)

- *Secretuqui vehar dicit harequila minçatu*
Ordu hartan iagoyticoz exay ***ezpa*** *vaquetu.* (Etxep., VII,12)

- *Ene mayte maytena eguidaçu çucena*
Ioan duçuna eqhardaçu ***ezpa*** *eman ordayna.* (Etxep., IX,3-4)

Ikusten dugunez, bat datoz bi idazleak EZPA juntagailuaren erabilerari dagokionean, biok, honen bidez, sintagmak ezezik perpausak ere elkartzen baitituzte.

Oker ez banago, Etxeparek ez du inoiz EDO juntagailua erabiltzen; agian, horrexegatik darabil EZPA, juntagailu honek, funtsean, balio hori duelako, EDO juntagailuarena, alegia.

Leizarragaren adibideetara bueltatuz, nire ustez, ukaezina da EZPA-ren eta EDO-ren arteko baliokidetasuna; gainera, Testamentuan aurkitu dugun adibidea Haranederren obran aurkitzen dugunarekin erkatzen badugu, azken honen obran EDO aurkitzen dugu:

- *Halaber eure buruäz eztuc iuraturen, ecen bilobat churi* ***ezpa*** *beltz ecin daidic.* (Leiz., Mt.,V,36)

- *... ceren ecin çure ille izpi bat churiaraz* ***edo*** *beltçaraz baideçaçuque.* (Haran., Mt.,V,36)

2.2.5.2. EZPA lokailua.

Dakigunez, Leizarragak juntagailu guztiak lokailu gisa ere erabiltzen ditu:

- ***Ezpa*** *nolatan nehor sar ahal daite bortitz baten etchera ...* (Mt.,XII,29)

Hemen EZPA perpausaren hasieran agertzen zaigu; beraz, ezin esan dezakegu juntagailua denik partikula

honen bidez ez baita perpausik, ez sintagmarik elkartzen. Lokailu honek bete dezakeen funtzio bakarra perpaus honek aurrekoarekin duen lotura semantikoaren berri ematea da:

> *- Eta baldin Satanec Satâ campora egoizten badu, bere côtra partitua da: nolatân beraz iraunen du haren resumác?*
>
> *(...)*
>
> ***Ezpa** nolatan nehor sar ahal daite bortitz baten etchera, eta haren ostillamendua pilla, baldin lehen esteca ezpadeça borthitza?* (Mt.,XII,26-29)

Erka dezagun, orain, azken adibidea ondokoarekin:

> *- Baina harc errâ ciecén, Eztuçue iracurri Dauid-ec gossez eguin çuena eta harequin ciradenec?*
>
> *Nola sarthu içan cen Iaincoaren etchean ...*
>
> ***Edo** eztuçue iracurri Leguean, nola Sabbath egunetan Sacrificadoréc templean Sabbath eguna hausten dutén, ...* (Mt.,XII,3-5)

Ikusten dugunez, bion arteko kidetasun semantikoa agerian dago. Beraz, laburbilduz, aipatu ditugun adibideak eta Etxeparek berak darabiltzanak kontutan harturik, EZPA formaren baliokiderik argiena EDO hautakaria dela ondoriozta dezakegu.

2.2.6. NAHIZ

Juntagailu honi ekin aurretik, ikus dezagun zer dioskun EGLU gramatikak:

> " **edo, ala** *(batez ere Ipar-Ekialdean)*, **nahi(z)** eta **zein** *(Hegoaldean)* erabiltzen dira perpaus jokatugabeak eta era guztietako sintagmak (perpausetik beherakoak) juntatuz "orobatasuna" adierazteko, juntagaien artean bata zein bestea berdintsu zaigula aditzera emateko."[19]

Hegoaldean ezezik, Iparraldean ere erabiltzen dela onartu behar dugu. Leizarragaren obran, adibide bat bakarrik aurkitu dugu; dena den, adibide honek Leizarragak juntagailu hori ezagutu eta erabiltzen zuela frogatzen du:

> - ... *lurrean diraden gauça guciac, visibleac eta inuisibleac,* **nahiz**-*biz Tronoac,* **nahiz** *Dominationeac,* **nahiz** *Principaltassunac,* **nahiz** *Puissançác, gauça guciac, diot, ...* (Col.,I,16)

Bestalde, Haranederrek ere NAHIZ juntagailua ezagutu eta erabiltzen du. Hala ere, aipatu dugun adibidea Haranederren Ebanjelioan bilatzen badugu ez dugu NAHIZ juntagailua aurkituko, ALA baizik:

> - ... *icusten direnac eta icus ecin daitezquenac;* **ala** *thronuac,* **ala** *dominacioneac,* **ala** *principalitateac,* **ala** *bothereac, guciac hartaz eta haren baithan içan dire créatuac.* (Haran., Col.,I,16)

EDO eta ALA juntagailuak aztertzean, ohiko balio hautakariaz gain, banakaritza edo orobatasuna ere adieraz dezaketela esan dugu. Egia esan, Leizarragak balio hau adierazteko EDO eta ALA juntagailuak NAHIZ baino sarriago erabiltzen ditu eta Haranederrek berdin egiten duela dirudi; dena den, Haranederrek ere NAHIZ erabiltzen du, Leizarragak ALA erabili duen adibide batean, hain zuzen ere:

---

[19] EUSKALTZAINDIA, Euskal Gramatika: Lehen Urratsak-IV. Juntagailuak, 181.or.

- *Cein guregatic hil içan baita: bagaude iratzarriric,* ***ala*** *bagaunça lo, harequin batean vici garén.* (Leiz., Thes.1,V,10)

- *ceiña hill içan baida guretçat,* ***nahiz*** *gaudecen iratçarriac,* ***nahiz*** *gaudecen lo, guciac betan bici gaitecentçat harequien.* (Haran., Thes.1,V,10)

Juntagailu honen **BALIOA**ri dagokionez, adiera banakaria duela esan dezakegu. Honez gain, gogora dezagun EGLU-k dioskuna:

"*Konposizio distributiboa, izan ere -horrela mintza bagaitezke- ez da juntadúraren bitartez gauzatzen, juntagailuz edo alborakuntzaz juntaturiko perpausetan partikula batzuk errepikatuz baizik (...) Ez dira, ordea, errepikaturiko partikula horiek beroriek juntadura gauzatzen dutenak,* ***zein*** *eta* ***nahi(z)*** *juntagailuen kasuan izan ezik.*"[20]

Bestalde, Leizarragaren adibidean, sintagmak elkartu arren, lehenengo juntagailuari itsatsirik aditz jokatu bat dugu:

- *... lurrean diraden gauça guciac, visibleac eta inuisibleac,* ***nahiz-biz*** *Tronoac,* ***nahiz*** *Dominationeac,* ***nahiz*** *Principaltassunac,* ***nahiz*** *Puissançác, gauça guciac, diot, ...* (Col.,I,16)

Ikus dezagun, zer esaten duen EGLU-k honetaz:

"*Inoiz behin "eta" edo aditz jokatu bat ere indargarri moduan edo erabiltzen dira*"[21]

Hala beraz, aginterazko adizki hori indargarria baino ez litzateke izango.

---

[20] EUSKALTZAINDIA, Euskal Gramatika Lehen Urratsak-III (Lokailuak), 18.or.

[21] EUSKALTZAINDIA, Euskal Gramatika: Lehen Urratsak-IV. Juntagailuak, 178.or.

2.3. AURKARITZAKOAK

Juntagailu aurkarien bitartez elkartzen diren perpausen arteko harremana definitu nahi badugu, perpauson artean kontrakotasuna nagusitzen dela esan beharko genuke. Juntagailu aurkaria daraman perpausa aurrekoari kontrajartzen zaio horretan adierazten dena gaitzetsiz edo informazio berria eskainiz.

Kontrakotasuna edo aurkaritza adierazteko hizkuntza guztiek baliabide ugari daukate. Emendiozkoetan aukera murritzagoa da eta juntagailuen artean bat baino ez dugu aipatu; aurkaritzakoen artean, berriz, juntagailu bat baino gehiago dugu eta hauekin batera aurkaritza adierazten duten lokailu anitz ere aipatu behar ditugu. Hona hemen Leizarragaren obran aurki ditzakegunak:

A.- LOKAILUAK:

2.3.1. AITZITIC

2.3.2. BERRIZ

2.3.3. ORDEA

2.3.4. ALABAINA

2.3.5. BADARIC-ERE

2.3.6. HALA ERE (HALERE)

2.3.7. GUCIAGATIC-ERE

2.3.8. SALBU[1]

B.- JUNTAGAILUAK:

2.3.9. BAINA (I)

2.3.10. BAINA (II)

2.3.11. BAICEN

---

[1] Berez lokailua ez den arren, inon kokatzekotan, multzo horretan egitea iruditu zait egokiena

Gogora dezagun itzulpen baten aurrean aurkitzen garela eta honelako itzulpenetan idazlea formari baino gehiago mezuari lotzen zaiola. Hala egiten du Leizarragak eta agian horregatik ez dugu prosa poetikoa edo baliapide literarioz jositako testua aurkitzen; baina itzulpen erlijioso batek eskatzen duen apaltasunaren barruan anitz errekurtso aurki daitezke eta probarik argiena aurkaritzakoak gauzatzeko erabiltzen dituen juntagailu, esapide eta lokailuen ugaltasuna izan daiteke.

A.- LOKAILUAK:

2.3.1. AITZITIC

2.3.1.1. Forma.

Lokailu honen forma oso sistematikoa da beti AITZITIC aurkitzen baitugu; dena den, zehaztu dezagun, sarritan, BAINA juntagailu edo lokailuak lagunduta ere ager dakigukeela:

> "**aitzitik** *eta* **baina**, *biak, esanahiaren aldetik berdintsuak dira. Hala ere, zenbaitetan biak batera aurkituko ditugu, aurkaritza nolabait indartzeko edo:*"[2]

> - *Eta ezteçaçuela communica ilhumbearen obra fructu gabetan,* **baina aitzitic** *reprehendi-ere itzaçue.* (Eph.,V,11)

Bi formen artean hain lotura sakona dagoenez, batzuetan, biak bat eginik aurkitzen ditugu:

> - *... Gentiletarát etzoaztela (...):* **Bainaitzitic** *çoazte Israeleco etcheco ardi galduetara.* (Mt.,X,5-6)

2.3.1.2. Tokia.

Lokailu honek perpausaren baitan hartzen duen kokaguneari gagozkiolarik, sistematikoki, bigarren perpausaren hasieran kokatzen dela esan dezakegu:

> - *Baina Iesusec etzieçón permetti,* **aitzitic** *erran cieçón, ...* (Mc.,V,19)
>
> - *... infidelendaco eztuc deus, chahuric,* **aitzitic** *dituc satsu ...* (Tite,I,15)

---

[2] EUSKALTZAINDIA, Euskal Gramatika Lehen Urratsak-III. (Lokailuak), 108.or.

Azter dezagun, halere, hurrungo adibidea:

> - *Asco du harc anhitzez eguin içan çayon reprotchu hunez. Hala non contrariora barka diecoçuen* ***aitzitic****, eta consola deçaçuen, tristitiaren handiegiz irets eztadinçát hura.* (Cor.2,II,6-7)

Adibide honetan, AITZITIC bigarren perpausaren hasieran agertu beharrean, perpausaren barruan txertatuta agertzen zaigu. Dena den, aurkitu dugun adibide bakarra dela aipatu behar dugu; beraz, zalantzarik gabe, joera nagusitik aldentzen den salbuespentzat jo beharko genuke. Gainera Haranederren obrarą jotzen badugu, honek AITCITIC, ETA-k lagunduta, baina perpausaren hasieran kokatzen duela jabetzen gara:

> - *Asco du haiñac orai den statuan hainitz presunen ganic içan duen centçagune hori. Eta are* ***aitcitic*** *barkhatu behar dioçue orai, eta consolatu behar duçue haiña, hondatua ez dadin tristecia handiegui batean.* (Haran., Cor.2,II,6-7)

2.3.1.3. Zein kontestutan agertzen den.

Lehendabizi, aipa dezagun AITZITIC lokailuaren bidez harremanetan dauden bi perpausetan, oro har, ez dagoela elipsirik, hau da, perpausok oso-osorik mantentzen direla, bion arteko kontrakotasuna agerian gera dadin.

Bestalde, harremanetan dauden perpausak zein motatakoak diren aztertu nahi badugu, alde batetik, lokabeak zein menpekoak izan daitezkeela esan dezakegu; dena den, lehenengo perpausari dagokionez behintzat, ez dirudi edozein izan daitekeenik, gehienetan "ezezkoak" baitira. Ikus ditzagun adibide batzuk:

1- PERPAUS LOKABEAK:

> - *Baina harc etzuen eguin nahi vkan,* ***aitzitic*** *ioanic eçar ceçan hura presoinean ...* (Mt.,XVIII,30)

> - *... çuec beraz eztaguiçuela galderic (...)* ***Bainaitzitic*** *bilha eçaçue Iaincoaren resumá, ...* (Lc.,XII,29-31)

Egia esan, bete beharreko baldintza horrek baditu bere salbuespenak, zenbait kasutan -gutxitan- lehenengo perpausa **baiezkoa**(1) edo **galderazkoa**(2) ere izan baitaiteke:

(1)- *... emazte batec populuarê artetic, erran baitzieçón, Dohatsu dituc hi egari auen sabela eta hic edosqui dituán vgatzac. Eta harc erran ceçan,* ***Baina aitzitic*** *dohatsu dirade ...* (Lc.,XI,27-28)

- *Ainençaçue supporta appurbat neure erhogoán,* ***baina aitzitic*** *supporta neçaçue.* (Cor.2,XI,1)

(2)- *... ala offrendatu drauzquidaçue niri oblationeac eta sacrificioac berroguey vrthez desertuan?* ***Aitzitic*** *hartu vkan duçue Moloch-en tabernaclea, ...* (Apost.Act.,VII,42-43)

- *ala vste duçue ecen Scripturác alferretan erraiten duela (...)?* ***Aitzitic*** *du gratia handiagoa emaiten, ...* (Iac.,IIII,5-6)

Baiezkoak ilunagoak dira bi perpausen arteko kontrakotasuna ez baita hain nabaria. Galde-perpausek, ordea, ezezkoen ahaide hurbilak izanik, errez ordezka ditzakete ezezkoak.

2- MENPEKO PERPAUSAK:

Perpaus lokabeetan gertatzen den bezala, hemen ere, oro har, lehenengo perpausa ezezkoa izaten da bi perpausen arteko kontrastea markatu ahal izateko:

- *Ceren baitaquit (...) ecen deusetan eznaicela confus içanen,* ***aitzitic*** *(...) orain-ere magnificaturen dela Christ ene gorputzean, ...* (Phil.,I,19-20)

- *Eztrauçuet scribatu vkan, eguiá eçagutzen eztuçuelacotz:* ***aitzitic*** *ceren hura eçagutzen duçuen, ...* (Io.1,II,21)

Edozein modutan, baiezkoak ere aurki ditzakegu, bai Leizarragaren erabileran, bai Haranederrenean:

- *Baina orain Iaincoa eçagutzê duçuenaz gueroz,* ***baina aitzitic*** *Iaincoaz eçagutu çaretenaz gueroz, nola conuertitzen çarete ...?* (Leiz., Gal.,IIII,9)

- *Orain ordean eçagutcen baiduçue Jaincoa, eta are* ***aitcitic****, eçagutuac baitçarete Jaincoaz, nolatan itçultcen çarete ...* (Haran., Gal.,IIII,9)

Mendebaldeko hiztunok behintzat, nekez ikusten dugu hor kontrakotasunik. Edonola ere, garai bakoitzak eta herrialde bakoitzak bere legeak ditu eta, seguraski, iparraldeko euskalkietan honelako perpausak guztiz zilegi ziren.

2.3.1.4. Adibide bereziak.

Hasieran aipatu dugunez, lokailu honek bi perpausen artean dagoen kontrakotasunaren berri ematen digu, eta horretarako, bi perpauson artean kokatzen da. Hala ere, adibide bereziak ere aipatu behar ditugu, hona hemen:

(1)- *Ecen eztugu (...) traffiquic eguiten (...)* ***aitzitic*** *integritatez beçala,* ***aitzitic*** *Iaincoaganic beçala (...) minço gara.* (Cor.2,II,17)

(2)- *... cein artha handia çuetan obratù vkan du:* ***aitzitic*** *cer satisfactionea,* ***aitzitic*** *indignationea,* ***aitzitic*** *beldurra,* ***aitzitic*** *desir hâdia,* ***aitzitic*** *affectione handia,* ***aitzitic*** *mendequioa?* (Cor.2,VII,11)

Dudarik gabe, nahiko arrotz suertatzen zaigu perpaus berean AITZITIC lokailua errepikaturik agertzea. Gainera, lehenengo adibidean perpausen arteko kontrakotasuna nabarmenagoa da; baina bigarren adibidea oso iluna da. Dena den, badirudi kasu honetan Leizarragak jatorrizko bertsioan aurkitu zuena errepikatu besterik ez zuela egin.

Izan ere, grekerara edo latinera jotzen badugu, hizkuntza hauetan errepikatze hori topatzen dugu; beraz, suposatzekoa da Leizarragak esku artean izan zuen bertsioan ere halaxe agertuko zela. Hala ere, euskararako,

hitzez-hitzezko itzulpen hauek bortxatuegiak direla aitortu behar dugu.

Ikus dezagun, halere, nola agertzen den bigarren adibidea hizkuntz horietan:

> (2)- ... *cein artha handia çuetan obratu vkan du:* **aitzitic** *cer satisfactionea,* **aitzitic** *indignationea,* **aitzitic** *beldurra,* **aitzitic** *desir hâdia,* **aitzitic** *affectione handia,* **aitzitic** *mendequioa?* (Cor.2,VII,11)
>
> – ἰδοὺ γὰρ αὐτὸ τοῦτο τὸ κατὰ Θεὸν λυπηθῆναι πόσην κατειργάσατο ὑμῖν σπουδήν, ἀλλὰ ἀπολογίαν, ἀλλὰ ἀγανάκτησιν, ἀλλὰ φόβον, ἀλλὰ ἐπιπόθησιν, ἀλλὰ ζῆλον, ἀλλὰ ἐκδίκησιν. ἐν παντὶ συνεστήσατε ἑαυτοὺς ἁγνοὺς εἶναι τῷ πράγματι.
>
> - *Ecce enim hoc ipsum secundum Deum contristari quantam in vobis operatum est sollicitudinem,* **sed** *defensionem,* **sed** *indignationem,* **sed** *timoren,* **sed** *desiderium,* **sed** *aemulationem,* **sed** *vindictam: in omnibus exhibuistis vos incontaminatos esse negotio.* (Cor.2,VII,11)

2.3.2. BERRIZ

Lokailu hau, beti, **ordea**, **ostera**, **aldiz**, edo **aitzitik** lokailuekin parekatzen da, nahiz eta guztiz baliokideak izan ez. Adibidez, EGLU-k ORDEA eta BERRIZ lokailuen arteko bereizketaren berri ematen digu:

> *"Badirudi **ordea**-k nolabait aurreko perpausak baieztatua ezabatu edo ukatu egiten duela; lehenago esan edo presuposatu dena zuzendu egiten duela, alegia, haren kontrakoa baieztatuz. **Berriz**, aldiz, aurretik esandakoari zerbait berri eta diferente eransteko erabiltzen dela dirudi.*[1]

Hala ere, Leizarragak darabilen BERRIZ multzo horren barruan koka dezakegu? Zalantza handiak ditut; dena den, utz dezagun puntu hau gerorako, partikula honen balioaz hitz egiten dugunerako, hain zuzen ere.

Azter dezagun, beraz, lehenago hainbeste buruhauste sortzen ez digun beste arlo bat:

2.3.2.1. Tokia.

Lokailu honek hartzen duen tokiari dagokionez, gaur egun, mendebaldeko erregistroan behintzat, bigarren perpauseko osagairen baten ondoren kokatzen da.

Leizarragaren erabilera aztertzen badugu, ordea, partikula hau bi posiziotan aurki dezakegu. Alde batetik, adibide gehienetan bigarren perpausaren hasiera-hasieran topatzen dugu:

> *- Erran cieçón Iesusec, **Berriz** scribatua duc, ...* (Mt.,IIII,7)
>
> *- ... Eguiaz erraiten drauçuet (...). Eta **berriz** diotsuet ,,,* (Mt.,XIX,23-24)

---

[1] EUSKALTZAINDIA, Euskal Gramatika Lehen Urratsak-III (Lokailuak), 99. or.

Baina, perpausaren barruko osagairen baten ondoan ere aurki dezakegu:

> - *Bigarren signo haur* ***berriz*** *eguin ceçan Iesusec ...* (Io.,IIII,54)
>
> - *ethorten da Philippe eta erraiten drauca Andriui, Andriuëc* ***berriz*** *eta Philippec erraiten draucate Iesusi.* (Io.,XII,22)

2.3.2.2. Balioa.

Balioari dagokionez, berriz ere, EGLU-k esaten diguna ekarri behar dugu gogora:

> *"... **ordea**-k kontrakotasuna adierazten du beti ere eta horretan **baina**-ren baliokide hurbila da. **Berriz** ez da horren markatua: kontrakotasuna bezala kontraste soila edo aldea seinalatzeko ere erabiltzen da eta horrelakoetan, jakina, ez da **baina**-ren guztiz parekoa. Zenbaitetan, gainera, badirudi topikoaren aldaketa seinalatzeko baizik ez dela erabiltzen (...) Emendiozko kutsu bat ere badu horrelakoetan"*[4]

Beraz, ikusten dugunez, lokailu honek adierazten duen aurkaritza, sarritan, oso kolokan dago. Izan ere, Leizarragak eskaintzen dizkigun adibideetan ez dirudi kontrakotasun handirik adierazten denik. Azter dezagun adibide bat:

> - *Baina harc ihardesten çuela erran ceçan, Scribatua duc, (...) Orduan hura du eramaiten deabruac Ciuitate saindura, eta du eçarten templeco pinacle gainean. Eta diotsó, Baldin Iaincoaren Semea bahaiz, egotzac eure buruä beherera: ecen scribatua duc, Ecen (...). Erran cieçon Iesusec,* ***Berriz*** *scribatua duc, Eztuc tentaturen eure Iainco Iauna.* ***Berriz*** *hura du eramaiten deabruac gucizco mendi gora batera ...*(Mt.,IIII,4-8)

Bi lokailu ditugu; hala ere ez dirudi balio aurkaria dutenik. Lehenengoan, adibidez, emendiozko zentzua nagusitzen da. Izan ere, adibide horretan, BERRIZ lokailuaren sinonimo bat bilatzekotan, ez genuke ORDEA edo

---

[4] Id., 99.or.

sail horretan aipaturiko lokailurik aukeratuko, emendiozko lokailu bat baizik, ERE edo antzekoren bat.

Haranederrek eskaintzen digun adibidea aztertzen badugu, beharbada argiago ikusiko ditugu gauzak:

> - *Baiñan Jesusec ihardetsi cioen: "Escribatua duc (...) Orduan eraman çuen deabruac hiri saindurat eta eçarri çuen templuaren gorenean, eta erran cioen: "Baldin Jaincoaren Semea baçare, etcha çaite hor behera; escribatua da ecen (...) Jesusec ihardetsi cioen: "**Halaber** escribatua ere duc: Ez duçu tentatuco çure Jainco Jauna". Deabruac **berriz** eraman çuen mendi haguitz gora batetarat ...* (Mt.,IV,4-8)

Hau ikusita, lehenengo lokailuari dagokionez, emendiozko balioa duela baiezta dezakegu.

Bigarrenari bagagozkio, berriz, bi aukera ditugu: alde batetik, lokailu aurkaria dela pentsa dezakegu: "Jesusek deabruari ez tentatzeko esan zion; deabruak, ordea, mendi batera eraman eta tentatu egin zuen" ; baina bestaldetik, aditzondo hutsa ere izan daiteke -sinesgarriagoa dena-: "Deabruak Jesus Hiri Saindura eraman eta tentatu egin zuen; gero, mendi batera eraman eta berriz ere tentatu zuen".

Bestalde, lokailu honek hartzen duen kokaguneari buruz hitz egitean, batzuetan perpausaren barruko osagairen baten ondoan agertzen dela esan dugu. Honek, halere, ez du eraginik BERRIZ-ek hartzen duen balioan, kasu hauetan ere ez delako aurkaritza zentzua nagusitzen. Ikus dezagun baten bat:

> - *ethorten da Philippe eta erraiten drauca Andriui, Andriuëc **berriz** eta Philippec erraiten draucate Iesusi.* (Io.,XII,22)

Honetan, Haranederrek ere BERRIZ lokailua erabiltzen du:

> - *Philipe goan citçayon erraterat Andresi; Andresec **berriz** eta Philipec erran cioten Jesusi.* (Io.,XII,22)

Baina aipatu adibidean BERRIZ-ek balio aurkaria daukala baiezta dezakegu?. Baldin badauka, oso ahula izango da; gainera, emendiozkoa ere izan liteke. Beraz, hemen seguraski, EGLU-k aurreko aipuan esaten zigunez, BERRIZ-en funtzioa topikoaren aldaketa seinalatzea besterik ez da.

Hortaz, BERRIZ lokailuaren balio aurkaria, arestian aipatu dugunez, oso kolokan dago. Izan ere, aipaturiko adibideetan oinarrituta, ezin esan liteke perpaus hauen artean kontrakotasuna nagusitzen denik.

Gainera, adibide gehienetan BERRIZ formak aditzondo hutsak dira:

> - *Eta igor citzan bere cerbitzariac ezteyetara gomitatuén deitzera: baina etziraden ethorri nahi içan.* ***Berriz*** *igor ceçan berce cerbitzariric, cioela, ...* (Mt.,XXII,3-4)
>
> - *Halacotz ecin sinhets ceçaqueten, ceren* ***berriz*** *erran baitu Esaiasec,* (Io.,XII,39)

Beraz, laburbilduz, ez dirudi Leizarragak partikula hau aurkaritza adierazteko erabiltzen duenik. Lokailua balitz, emendiozkoetatik aurkaritzakoetatik baino hurbilago egongo litzateke (gogora dezagun, bestela, EGLU-ren aipua). Dena den, adibide gehienetan, aditzondo arrunten aurrean aurkitzen garela aitortu behar dugu.

2.3.3. ORDEA

2.3.3.1. Forma eta funtzioa.

Lokailu hau, AITZITIC bezala, bi perpausen arteko aurkaritza adierazteko erabiltzen dugu. Lokailu den aldetik, ez du ez perpausik, ez perpausetik beheragoko osagairik elkartuko; haien artean suertatzen den harreman semantikoaren berri emango digu, besterik ez.

Ikus dezagun EGLU-k eskaintzen digun definizioa:

> "**Ordea** *lokailuak bi perpausen arteko aurkaritza aditzera ematen du, horretarako bi perpausotako osagai bana hartuta eta biak elkarren kontrakotzat aurkeztuz (...)* **baina** *juntagailuaren baliokide hurbila da* **ordea**."[5]

FORMAri dagokionez, balio hau adierazteko, teorian, bi forma aurki baditzakegu ere -ORDEA eta ORDEAN-Leizarragak lehenengoa bakarrik erabiltzen du:

> - ... *eriden nié purificatua templeâ, ez* **ordea** *gendetzerequin* ... (Apost.Act.,XXIIII,18)
>
> - ... *hitzac içanagatic, eztiradela* **ordea** *textu gorputz berecoac,* ... (Heu.,6-7,254.or.)

2.3.3.2. Tokia.

Tokiari dagokionez, EGLU-k dioskuna izan behar dugu gogoan:

> "... **ordea**-*k normalean bigarren perpausaren barnean hartzen du toki, perpaus horren osagairen baten ondoren (...) Gogoan hartu behar da, hori bai, askatasun handia izaten dutela lokailu hauek perpausaren barnean kokatzeko (...) Perpausaren azken muturrean ere joan ohi da inoiz (...) Kasu hauetan badirudi perpaus bien artean gertatzen dela aurkakotasuna, kontrastea zein osagairen artean dagoen bereziki markatu gabe (...) Perpausaren*

---

[5] EUSKALTZAINDIA, Euskal Gramatika Lehen Urratsak-III (Lokailuak), 95.or.

hasiera hasieran ere ageri da inoiz (...) badirudi lokailuak berekin duen kontrakotasun balio hori nolabait gesaldua gelditzen dela."[6]

Hortaz, lokailu honek askatasun handia du perpausaren hasieran, barruan zein amaieran kokatzeko. EGLU-k esaten digunaren arabera, normalean, perpausaren barruko osagai baten ondoren agertzen da; baina, ez da hau Leizarragaren obran nagusitzen den kokalekua:

A.- BIGARREN PERPAUSAREN HASIERAN (Ugariena)

- *... deussec eztrauçue calteric eguinen.* ***Ordea*** *harçaz etzaiteztela aleguera, ...* (Lc.,X,19-20)

- *Beraz haraguian diradenac, Iaincoari placent ecin direteque.* ***Ordea*** *çuec etzarete haraguian, ...* (Rom.,VIII,8-9)

ORDEA lokailua bigarren perpausaren hasieran agertzen denean sortzen den aurkaritza osagaien artekoa baino gehiago, perpausen artekoa dela dirudi, hau da, perpaus osoa kontrajartzen zaio aurreko perpausari. Dena den, hau ere ez da guztiz sistematikoa, perpausaren hasieran agertu arren, zenbait kasutan, bi osagairen arteko kontrastea markatzen baita:

- *Baina obratzê duenari alocairua etzayó gratiatan contatzen baina hartzetan:* ***Ordaa*** *obratzê eztuenari, (...) contatzen çayó.* (Rom.,IIII,4-5)

Azkenik, gogora dezagun Axularrengan ere kokaleku hau zela ugariena.

---

[6] Id., 95-97.orr.

B.- PERPAUSAREN BARRUAN:

1- Osagai baten ondoan:

- *... campocoa corrûpitzen bada-ere: barnecoa* **ordea** *arramberritzen da egunetic egunera.* (Cor.2,IIII,16)

- *Ecen gorputzez absent banaiz-ere, spirituz* **ordea** *çuequin naiz, ...* (Col.,II,5)

Eredu hau mendebaldeko hiztunontzat behintzat, ezagunena eta erabiliena da. Dena den, arestian aipatu dugunez, Leizarragaren obran, ORDEA gehienetan beste posizio batzuetan aurkituko dugu.

Bestalde, lokailu hauek osagaien ondoren agertzen direnez, adierazten duten kontrakotasuna ez da perpausen artekoa, osagaien artekoa baizik.

2- EZ aditzondoaren ondoren:

- *Ecen hamar milla pedagogo bacintuzte-ere Christean, ez* **ordea** *anhitz aita ...* (Cor.1,IIII,15)

- *Eta baldin idiot banaiz-ere minçoan, ez* **ordea** *eçagutzean ...* (Cor.2,XI,6)

Adibide hauetan, bigarren perpausaren aditza ezabatu da.

Bestalde, aurreko sailan aipatu ditugunetan bezala, hauetan ere, aurkaritza osagaien artekoa da; dena den, ohart gaitezen, bigarren osagaia ez dela ORDEA lokailuaren ezkerraldean agertzen, eskuinaldean baizik.

3- Aditz jokatuaren ondoren:

- *... oraino ezta aguertu içanen garena: badaquigu* **ordea** *ecen (...) hura irudico dugula ...* (Io.1,III,2)

- *... eçagun dençat ecen hec teztuan aditzen diraden hitzac içanagatic, eztiradela* **ordea** *textu gorputz berecoac, ...*(Heu.,5-7,254.or.)

Adibide hauetan, alde batetik bi perpausetan agertzen diren aditzak desberdinak direnez, ez da ezabaketarik suertatzen; bestetik, hemen ez dirudi

osagaien arteko aurkaritzaz hitz egin dezakegunik, perpausen arteko kontrakotasuna nagusitzen baita.

C.- PERPAUSAREN AMAIERAN (urriena)

- ... *Baldin guciac scandaliza baditez-ere, ni ez* ***ordea***. (Mc.,XIIII,29)

Obra osoan adibide bakarra aurkitu dugu. Kasu honetan ORDEA lokailua EZ aditzondoaren ondoren agertzen da eta amaieran aurkitzen dugu bigarren perpauseko aditza eta lehenengokoa berdinak direnez, bigarrena ezabatu egin delako.

Haranederrek eskaintzen digun adibidean, berriz, ezbaketarik gauzatzen ez denez, ORDEA perpausaren barruan osagai baten ondoan agertzen zaigu:

- ... *"Guciac escandalisa balitez ere çutan, ni* ***ordean*** *ez naiz eguiñen."* (Mc.,XIV,29)

Edozein modutan, Leizarragak ORDEA lokailua kokatzeko orduan askatasun handiz jokatzen duela baiezta dezakegu.

2.3.3.3. Balioa.

Hasieran aipatu dugunez, lokailu honek bi perpausen artean edo perpaus horietako bi osagaien artean suertatzen den kontrakotasunaren berri ematen digu.

ORDEA lokailuak bi perpausen artean sortzen den aurkaritzaren berri ematen digunean, bigarren aurkaritza-mota[7] adierazten duen BAINA juntagailuaren baliokidea dela esan dezakegu. Edozein modutan, ez dezagun

---

[7] Bigarren aukaritza-mota diogu, iparraldeko euskalkietan BAINA juntagailuak mendebaldean duen adieraz gain, guk BAIZIK edo BAINO juntagailuen bidez adierazten dugun adiera ere hartzen duelako. Eta azken hori da, hain zuzen, bigarren aurkaritza-mota.

ahanz baliokideak direla esatean, semantika mailan ari garela, ORDEA-k, lokailu den aldetik, ezin baitu juntadurarik gauzatu:

- ... *eztut neure buruã hoguendun senditzê:* ***ordea*** *huneçaz eznaiz iustificatu* ... (Cor.1,IIII,4)

- ... *nic etzaituztedan cargatu vkan:* ***ordea*** *(...) hartu vkâ çaituztet.* (Cor.2,XII,16)

Azkenik, aipa dezagun adibide berezi bat:

- *Halaber* ***ordea*** *hauc-ere lokarturic bere haraguia satsutzen duté* ... (Ivda,8)

Adibide honetan bi lokailu ditugu elkarturik, alde batetik HALABER emendiozkoa eta bestetik ORDEA aurkaria. Gainera bi lokailu hauek zeharo kontrajarriak dira: emendiozkoak, aurreko perpausa gaitzetsi gabe, zerbait eransten edo gehitzen dio; aurkariak, berriz, lehenengo perpausean adierazten denaren aurka, zerbait berria aldarrikatzen du. Beraz, elkarturik aurkitzea harrigarria da, ezbairik gabe.

Haranederrek, adibidez, ez du ORDEA lokailua erabiltzen:

- ***Manera berean*** *dute hauc ere bere haraguia hidoiztatcen* ... (Iuda,8)

2.3.4. ALABAINA

Lokailu honen bitartez ere aurkaritza adieraz dezakegu; dena den, kontutan hartu behar dugu lokailu honek oso erabilera urria duela (obra osoan, 8 adibide baino ez dugu aurkitu)

EGLU-k[6] lokailu honi eskaintzen dion atalean adierazten digunez, ALABAINA hegoaldeko testuetan balio esplikatiboarekin ere agertu arren, iparraldeko testu zaharragoetan aurkaritza adierazten duen lokailu gisa ageri zaigu.

Leizarragak eskaintzen dizkigun adibideetan hauxe da aurkitzen duguna, lokailu honen bidez, bi perpausen artean sortzen den aurkaritza ematen baita aditzera:

> - *Ecen crucificatu içan bada-ere infirmitatez,* ***alabaina*** *vici da Iaincoaren verthutez ...* (Cor.2,XIII,4)

2.3.4.1. Forma eta tokia.

Lokailu honek hartzen duen tokiari dagokionez, beti bigarren perpausaren hasieran agertzen dela esan behar dugu:

> - *... eta erautzen dié edocein batzuén fedea.* ***Alabaina*** *Iaincoaren fundamêta fermu diagoc, ...* (Tim.2,II,19)
>
> - *... carguären hartzera bathiric ecin naidiqueen (...)* ***Alabaina*** *segur içanez (...) gogo eguin neçâ ...* (Guc.,18-2,252-253.orr.)

Formari gagozkiola, esan dezagun lokailua oso sistematikoa dela, beti forma bera agertzen baitu; honez gain, batzuetan, ETA juntagailuak lagunduta ere aurki dezakegu:

---

[6] EUSKALTZAINDIA, Euskal Gramatika Lehen Urratsak-III (Lokailuak), 114.or.

- ... *deus gabe beçala,* **eta alabaina** *gauça gucien possediçale.* (Cor.2,VI,10)

- ... *cein baitzé, eta ezpaita,* **eta alabaina** *baita.* (Apo.,XVII,8)

2.3.4.2. Balioa.

Balioari dagokionez, orain arte aipatu ditugun lokailuen pare jarri beharko genuke. Gainera, Haranederrek eskaintzen dizkigun adibideetara jotzen badugu, hor aurkitzen ditugun formek ere horixe egiaztatzen digute:

(1)- *Ecen crucificatu içan bada-ere infirmitatez,* **alabaina** *vici da Iaincoaren verthutez ...* (Leiz., Cor.2,XIII,4)

- *Ecen gurutceficatua içan bada ere haraguiaren flaquitatearen arauera,* **ordean** *bici da Jaincoaren berthutez; ...* (Haran.,Cor.2,XIII,4)

(2)- ... *eta erautzen dié edocein batzuén fedea.* **Alabaina** *Iaincoaren fundaméta fermu diagoc, ...* (Leiz., Tim.2,II,18-19)

- ... *eta itçuli içan baidute cembeiten fedea.* **Ordean** *Jaincoaren cimendua tiesso dago, ...* (Haran.,Tim.2,II,18-19)

Haranederrek, ALABAINA lokailuaren ordez, ORDEAN ezezik, HALA ERE lokailua ere badarabil:

(3)- *Seduciçale beçala, eta* **alabaina** *eguiati: ez eçagunac beçala, eta* **alabaina** *eçagunac: hiltzen baguina beçala, eta huna vici gara: gaztigatzen garenac beçala, eta* **alabaina** *ez hilac: (...) deus gabe beçala, eta* **alabaina** *gauça gucien possediçale.* (Leiz., Cor.2,VI,9-10)

- ... *enganatçaille batçu baguiñe beçala, eguiatiac garen arren; eçagutu gabe batçu baguiñe beçala, ungui eçagutuac garen arren; hiltcen hari baguiñe beçala eta* **hala ere** *bici; colpeca darabiltçatenac beçala,* **ordean** *ez hiltceraiñocoan (...) deussic gabe garenac beçala eta* **hala ere** *gucien jabe.* (Haran., Cor.2,VI,8-10)

Azkenik, komenta dezagun adibide bat:

> - *Anhitzec bada gendetzecoetaric propos haurençun çutenean, erraiten çuten, Haur da eguiazqui Propheta hura.*
>
> *Bercéc erraiten çutén, Haur da Christ. Eta batzuc erraiten çutén,* ***Alabaina*** *Galileatic ethorriren da Christ?* (Io.,VII,40-41)

Oraingo honetan aurkitzen dugun lokailuak balio aurkaria ote du? Ez ote da galdera erretorikoak bereziki markatzen dituen ALA partikularen baliokidea?

Argibide bila, grekera, latina, edo Haranederrek eskaintzen digun adibidea aztertzen baditugu, ez dugu lokailu ez juntagailu aurkaririk topatzen: **Μὴ** (grekeraz), ***Numquid*** (latinez) eta Haranederrek:

> - *... Bertce batçuc berriz erraten çuten:* ***"Nasqui*** *Galileatic ethorrico baida Christo?* (Haran., Io.,VII,41)

Ikusten dugunez, forma hauek ALA lokailuaz hitz egin genuenean aipatu genituenak dira. Beraz, ALABAINA lokailuak aurkaritza adierazteaz gain, kutsu erretorikoa ere izan dezakeela dirudi. Dena den, ez dezagun ahanz adibide bakarra topatu dugula obra osoan.

2.3.5. BADARIC-ERE

Hau oso lokailu zaharra dugu; dirudienez, XVI eta XVII. mendeetan izan zuen hedadura, beranduago zaharkiturik geratu delarik.

Leizarragak beste lokailu batzuk sarriago erabiltzen baditu ere, BADARIC-ERE ez da gutxien erabiltzen dituenetarikoa, obra osoan 27 adibide aurkitzen baititugu; dena den, har dezagun kontutan adibide guztiak Testamenduaren itzulpenean aurkitzen ditugula, bat ere ez sarrera-testuetan.

2.3.5.1. Forma eta tokia.

Lokailu honek hartzen duen kokalekuari dagokionez, beti bigarren perpausaren hasieran agertzen dela aipatu behar dugu:

> - *... baldin nahi baduc iragan eçac copa haur eneganic:* ***badaric-ere*** *ez ene vorondatea baina hirea eguin bedi.* (Lc.,XXII,42)
>
> - *... ikus citzan oihalac aldaratuac:* ***badaric-ere*** *etzedin sar.* (Io.,XX,5)

Bestalde, formari dagokionez, BADARIC-ERE lokailu konposatua dugu beti; ez dugu adibide bat bera ere aurkitu ERE lokailuaren laguntzarik gabe.

2.3.5.2. Balioa.

Lokailu honen balio edo adierari gagozkiolarik, ALABAINA bezain zehazgaitza dela esan behar dugu. Adibidez, Haranederren erabilera aztertzen badugu, honek BADARIC-ERE lokailuaren ordez, forma anitz erabiltzen duela ikusiko dugu:

* BAINAN:

- ... *Hala duc Iauna:* **badaric-ere** *chakurréc iaten dié mahain azpian haourrén appurretaric.* (Leiz., Mc.,VII,28)

- ... *"Hala da, Jauna,* **baiñan** *chacur chumeac ere mahain azpian jaten dute bederen haurren ogui papurretaric".* (Haran., Mc.,VII,28)

* ORDEAN:

- ... *eriden cedin Iesus vr bazterrean:* **badaric-ere** *etzeçaten eçagut ...* (Leiz., Io.,XXI,4)

- ... *guerthatu cen Jesus ur basterrean; ez çuten* **ordean** *eçagutu dizcipuluec ...* (Haran., Io.,XXI,4)

* HALA ERE:

- *Gauça guciac ahal ditzaquet Christ fortificatzen nauenaz:* **badaric-ere** *vngui eguin duçue ...* (Leiz., Phil.,IIII,13-14)

- *Guciac ahal ditçaquet indarztatcen nauena baithan.* **Hala ere** *ungui eguin duçue, ...* (Haran., Phil.,IV,13-14)

* HALARIC ERE:

- ... *eta mirets ceçaten (...):* **badaric-ere** *nehorc etzieçón erran ...* (Leiz., Io.,IIII,27)

- ... *eta miretsi çuten (...)* **Halaric ere** *nihorc ez cioen erran: ...* (Haran., Io.,IV,27)

* HALARICAN ERE:

- ... *baldin nahi baduc iragan eçac copa haur eneganic:* **badaric-ere** *ez ene vorondatea baina hirea eguin bedi.* (Leiz., Lc.,XXII,42)

- ... *"Aita, baldin nahi baduçu, aldara çaçu calix hau ene ganic;* **halarican ere** *ez bedi eguin ene nahia, baiñan bai çurea".* (Haran., Lc.,XXII,42)

* BIZQUITARTEAN:

- *Ceinec (...) ezpaitu estimatu harrapatze Iaincoaren bardin içatea:* **Badaric-ere** *bere buruä ezdeustu vkan du, ...* (Leiz., Phil.,II,6-7)

- ... *ez baidu uste içan arrapatce bat ditequela narentçat Jaincoaren berdin içatea, ceiñec*

bizquitartean *ezdeussetaratu içan baidu bere burua, ...* (Haran., Phil.,II,6-7)

* GUCIEQUIEN ERE:

- *eta guc sperança guendián (...)* **badaric-ere** *horién gucion gainera, egun duc herén eguna ...* (Leiz., Lc.,XXIIII,21)

- *Guc, bada, esparantça guinduen (...) eta horiec* **guciequien ere**, *ja egun hirurgarren eguna doha ...* (Haran., Lc.,XXIV,21)

Beraz, lokailu hau balio bera har dezakeen multzo handi baten barruan kokatu beharko genuke.

2.3.6. HALA-ERE (HALERE)

Lokailu hau aurreko ataletan aipatu ditugunekin, hau da, ALABAINA eta BADARIC-ERE lokailuekin pareka dezakegu, guztiek aurreko perpausarekiko aurkaritza adierazten baitute.

Edozein modutan, HALA-ERE lokailua oso urria da; guztira, 7 adibide baino ez dugu aurkitu.

A.- Lokailu honek bi **FORMA** har ditzake:

* HALA-ERE:

> - *Orduan batzuc iaiquiric falsuqui testifica ceçaten haren contra, cioitela (...) Baina* ***hala-ere*** *hayén testimoniagea etzén conforme.* (Mc.,XIIII,57-59)

Obra osoan, bi adibide besterik ez dugu aurkitu. Beraz, formarik erabiliena ondoren aipatuko duguna da, dudarik gabe.

* HALERE:

> - *Eta hunela Paul ilki cedin hayén artetic. Batzuc* ***halere****, hari iunctaturic, sinhets ceçatè ...* (Apost.Act.,XVII,33-34)

B.- Bestalde, lokailu honek hartzen duen **KOKALEKUA**ri dagokionez, azter dezagun EGLU-k esaten diguna:

> " *Bigarren perpausaren hasiera dute lokailu guzti hauek ohizko kokaleku (...) Bestelako tokietan ere erabil daitezke (...)* ***halere****-k askatasun handiagoa erakusten du bai perpaus barruan bai azkenean kokatzeko (...) Zuzen zuzenean juntagailuaren ondoan ere joan daitezke, ordea.*"[*]

Leizarragak, gehienetan, bigarren perpausaren hasieran kokatzen du; dena den honek ez du esan nahi beste tokiren batean agertuko ez denik:

---

[*] EUSKALTZAINDIA, Euskal Gramatika Lehen Urratsak-III (Lokailuak), 123.or.

1- Bigarren perpausaren hasieran:

- ... *Çure verthute handiac (...) ene goga eraciteco asco eta sobera içanagatic (...)* **hala-ere** *(...) carguären hartzera bathitic ecin naidiqueen* ... (Guc.,29-18,251-252.orr.)

2- Perpausaren barruan:

- *Eta hunela Paul ilki cedin hayén artetic. Batzuc* **halere**, *hari iunctaturic, sinhets ceçatê* ... (Apost.Act.,XVII,33-34)

(Kokagune honetan adibide bakarra dugu)

3- Juntagailuen ondoan:

3.1. BAINA HALERE:

- ... *Obrabat eguin dut, eta guciac miraz çaudete.* **Baina halere** *Moysesec eman drauçue Circoncisionea,* ... (Io.,VII,21-22)

3.2. ETA HALERE:

- ... (*cein galtzen baita* **eta halere** *suz phorogatzen*) ... (Pier.1,I,7)

C.- Azkenik, lokailu honen **BALIOA**ri dagokionez, hasieran esandakoa errepikatu beharko genuke. Lokailu honek harremanetan dauden bi perpausen artean suertatzen den kontrakotasunaren berri ematen du. Halaber, beste lokailu batzuen baliokidea ere izan daiteke:

(1)- ... *Obrabat eguin dut, eta guciac miraz çaudete. Baina* **halere** *Moysesec eman drauçue Circoncisionea (...) eta Sabbathoan circonciditzen duçue guiçona* (Leiz., Io.,VII,21-22)

(1')- ... "*Gauça bat eguin dut choilqui eta guciac çaudezte miretsiac.* **Guciarequien ere**, *ceren Moisec ordenatu içan darotçuen circoncisionea (...) circoncidatcen duçue guiçona* ... (Haran., Io.,VII,21-22)

2.3.7. GUCIAGATIC-ERE

Lokailu honen berri ez dugu inon aurkitzen. Bai Villasantek bai EGLU-k antzeko bat aipatzen dute: GUZTIAREKIN ERE; baina forma hau -GUZTIAREKIN ERE, alegia- Leizarragaren obran ez dugu behin ere aurkitzen. Honek beti GUCIAGATIC-ERE erabiltzen du; dena den, bi lokailu hauek, formari dagokionez, berdin-berdinak izan ez arren, esanahiari gagozkiolarik, baliokideak bide dira.

Forma honek gainontzeko lokailuek duten funtzio berbera betetzen du, hots, bi perpausen artean suertatzen den aurkaritza edo kontrakotasuna aditzera ematea; beraz, kasu guztietan bi perpaus izango ditugu harremanetan.

A.- Hartzen duen **KOKALEKUA**ri gagozkiolarik, arestian aipaturiko lokailuak, hau da, ALABAINA, BADARIC-ERE edo HALA ERE agertzen diren toki berean aurkituko dugu, bigarren perpausaren hasieran, alegia:

> - *... Ezta ilki emaztetaric iayo diradenén artean, Ioannes Baptista baino handiagoric:* ***guciagatic-ere*** *ceruëtaco resumaco chipiena hura baino hâdiago da.* (Mt.,XI,11)
>
> - *Eta segur guiçonarê Semea (...) badoa:* ***guciagatic-ere*** *maledictione guiçon hari, ...* (Lc.,XXII,22)

Zenbait lokailu, beste juntagailu edo lokailuekin batera aurki ditzakegu. GUCIAGATIC-ERE, aldiz, beti bakarrik agertzen zaigu, besteren laguntzarik gabe.

B.- Bestalde, eta lokailu honen **BALIOA**ri dagokionez, arestian aipatu dugunez, aurkaritza adierazten duten lokailuen pare jar dezakegu, ALABAINA, BADARIC-ERE edo HALA-ERE lokailuekin, kasu, kidetasun handia baitu.

Gainera, kidetasun horren frogarik argiena Leizarragak berak eskaintzen digu. Ikus dezagun:

(1)- ... *baldin nahi baduc iragan eçac copa haur eneganic:* ***badaric-ere*** *ez ene vorondatea baina hirea eguin bedi.* (Lc.,XXII,42)

(2)- ... *baldin possible bada, iragan bedi eneganic copa haur:* ***guciagatic-ere*** *ez nola nic nahi baitut, baina nola hic.* (Mt.,XXVI,39)

Bi adibide hauek ia berdinak izanik ere, Leizarragak lokailu desberdinak erabili ditu; horregatik, bi forma hauek, BADARIC-ERE eta GUCIAGATIC-ERE guztiz baliokideak direla esan dezakegu.

Beste aldetik, Leizarragaren adibideak Haranederrek eskaintzen dizkigunekin erkatzen baditugu, azken honek ez duela GUCIAGATIC-ERE erabiltzen jabetuko gara; dena den, parekoa den GUCIAREQUIEN ERE aurki dezakegu:

(1)- *Hunegatic vkaiteco du emazteac buruän seignalea (...)* ***Gvciagatic-ere*** *ez guiçona emaztea gabe, ezeta emaztea guiçona gabe, gure Iaunean.* (Leiz., Cor.1.XI,10-11)

- *Hargatic behar du emasteac ekharri ainguеruen gatic ere bere buruaren gaiñean seiñalea (...)* ***Guciarequien ere*** *ez guiçona da emastea gabe, ...* (Haran., Cor.1,XI,10-11)

(2)- ... *eta ezteçaçuela conuersa harequin (...)* ***Guciagatic-ere*** *etsay beçala ezteçaçuela eduqui, ...* (Leiz., Thes.2,III,14-15)

- ... *eta ez deçaçuela har haiña çuen baltsarat (...)* ***Guciarequien ere*** *ez dioçaçuela beha etsai bati beçala, ...* (Haran., Thes.2,III,14-15)

Edozein modutan, BADARIC-ERE lokailuarekin gertatzen den bezala, GUCIAGATIC-ERE balio berdina adierazten duten lokailu-multzo handiago baten barruan koka dezakegu. Horregatik, askotan Haranederrek balio hau aditzera emateko beste lokailu batzuk erabiltzen ditu. Ikus ditzagun, bada, Leizarragaren GUCIAGATIC-ERE lokailuaren ordainean erabiltzen dituen lokailuak:

- *... herrautsa ere iharrosten dugu çuen contra. Jaquin eçaçue* ***ordean*** *...* (Haran., Lc.,X,11)

- *Alabaina Guiçonaren Semea badoha, exleyitua içan den beçala;* ***baiñan*** *çorigaitz guiçon haiñarentçat, ...* (Haran., Lc.,XXII,22)

- *... utci cituzten anayac baquearequien goaterat igorri içan cituztenen ganat.* ***Hala ere*** *apropos aurkhitu çuen Silasec ...* (Haran., Apost.Act.,XV,33-34)

- *Perfect garen guciac beraz gaudecen sentimendu hortan (...)* ***Bizquitartean*** *(...) gaudecen sentimendu beretan eta erreguela berean.* (Haran., Phil.,III,15-16)

Hauetan guztietan Leizarragak, sistematikoki, GUCIAGATIC-ERE erabiltzen du. Beraz, forma hau, lokailu horien guztien baliokidetzat jo dezakegu.

2.3.8. SALBU

Azkenik, balio murriztailea duen SALBU aditzondoa aipatu behar dugu

Egia esan, ez da oso forma erabilia, obra osoa aztertuta, bai Testamentuaren itzulpena, bai sarrera-testuak, 6 adibide bakarrik aurkitu baititugu.

A.- Esan dugunez, balio murriztailea du; beraz, perpausaren barruan hartzen duen **TOKIA**ri dagokionez, bereziki markatu nahi duen osagaiaren aldamenean aurkituko dugu. Hala ere, aldamenean agertzen dela esateak ez du esan nahi beti osagaiaren ondoan, eskuinaldean aurkituko dugunik, SALBU markatu nahi duen osagaiaren ezkerraldean zein eskuinaldean ager baitaiteke:

* Osagaiaren ezkerraldean:

- *Baina nic diotsuet, ecen norc-ere vtziren baitu bere emaztea, **salbu** paillardiçarê causaz, adulterio eguin eraciten draucala ...* (Mt.,V,32)

- *... eta guciac barreya citecen Iudeaco eta Samariaco comarquetarát, **salbu** Apostoluac.* (Apost.Act.,VIII,1)

(Hauxe da ugariena, aipaturiko 6 adibideetatik 5 osagaiaren ezkerraldean aurkitzen ditugu eta.)

* Osagaiaren eskuinaldean:

- *... eguin cindeizten halaco, nolaco ni bainaiz, estecaillu hauc **salbu**.* (Apost.Act.,XXVI,29)

Haranederrek eskaintzen dizkigun adibideak aztertzen baditugu, bi zehaztapen egin behar ditugu: alde batetik, ez duela SALBU erabiltzen eta bestetik, SALBU aditzondoaren ordezko formak osagaien eskuinaldean ezarri ohi dituela:

- *Norc ere utcico baidu bere emastea, adulterioaren casuz **landan**,...* (Haran., Mt.,V,32)

- ... *eta guciac, Apostoluez* **bertceac**, *barrayatu içan ciren* ... (Haran., Apost.Act.,VIII,1)

Leizarragak, berriz, arestian aipatu dugunez, adibide gehienetan, SALBU markatu nahi duen osagaiaren ezkerraldean kokatzen du, eta hau, ziuraski, hizkuntza erromanikoen eraginez egingo zuen, hizkuntza hauetan horixe baita kokalekua.

Edonola ere, itzultzailearen testuarekiko atxikimendua hain itsua ez zela izan frogatzeko, hortxe dugu Leizarragak eskuinean kokatzen duen adibidea:

- ... *eguin cindeizten halaco, nolaco ni bainaiz, estecaillu hauc* **salbu**. (Apost.Act.,XXVI,29)

B.- Azkenik, **BALIOA**ri dagokionez, forma honek BAICEN murriztailearen antzeko balioa adierazten du. Izan ere, Haranederrek adibide batean Leizarragaren SALBUren ordez BAICEN erabiltzen du:

- ... *banoa Ierusalemera, hartan heltzeco çaizquidan gauçác eztaquizquidalaric:* **salbu** *Spiritu sainduac hiriz hiri testificatzen baitraut,* ... (Leiz., Apost.Act.,XX,22-23)

- ... *han cer arribatu behar çaitan ez daquidalaric,* **baicen** *Izpiritu Sainduac hiri gucietan eçagutaracitcen baidarot* ... (Haran., Apost.Act.,XX,22-23)

Edonola ere, BAICEN juntagailua aurrerago aztertuko dugunez, momentuz, utz dezagun honetan.

B.- JUNTAGAILUAK:

2.3.9. BAINA (I)

Forma honek bi funtzio bete ditzake; alde batetik, maila sintaktiko bereko bi perpaus elkartzen dituen juntagailua izan daiteke; baina bestetik, juntadurarik gauzatzen ez duen lokailua ere izan daiteke. Beraz, bion arteko aldea aztertu beharko dugu.

2.3.9.1. BAINA lokailua.

Gogora dezagun lokailu-funtzioa aditzondoek ezezik juntagailuek ere bete dezaketela. Hauek bigarren perpausaren hasieran agertzen zaizkigu, baina aurreko perpausarekin harreman estua badute ere, testu mailari dagozkion elementuak dira. Hortaz, aurreko perpausarekiko duten harreman semantikoaren berri eman diezagukete, baina ez dira bi perpausok sintaktikoki elkartzeko gauza.

Leizarragaren obran, bai Testamentuaren itzulpenean, bai sarrera-testuetan BAINA oso ugaria da; edozein modutan, nagusitzen dena ez da BAINA juntagailua, lokailua baizik.

Hauek perpausaren hasiera-hasieran agertu ohi dira, aurrean etenaldi larria dutela:

> - *... eta debeta citzan mehatchurequin Iesusec, cioela, Bequirauçue nehorc eztaquian.* **Baina** *hec ilkiric barreya ceçaten haren famá herri hartan ...* (Mt.,IX,30-31)
>
> - *Eta Gobernadoreac dioste,* **Baina** *cer gaizqui eguin du?* (Mt.,XXVII,23)

Gogora dezagun Leizarragaren obran koma bera ere izan daitekeela puntuaketa larria.

2.3.9.1.1. Balioa.

Lokailu honek hartzen duen balioari dagokionez, adibide gehienetan aurkari arrunta dela aitortu behar dugu.

Nolanahi ere, BAINA-k adiera honez gain, hainbat euskalkitan -Iparraldean zein Bizkaian, esate baterako- ORDEA lokailuaren bitartez adieraziko genukeen balioa ere har dezake. Adibidez, Haranederren obra aztertzen badugu, adibide askotan Leizarragaren BAINA-ren ordez, ORDEAN aurki dezakegu:

> (1)- *Ecê Ioannesec batheyatu du vrez,* ***baina*** *çuec batheyaturen çarete Spiritu sainduaz ...* (Leiz., Apost.Act.,I,5)
>
> - *ecen Joannesec eman içan du urezco bathayo bat,* ***ordean*** *çuec errecibituco duçue ...* (Haran., Apost.Act.,I,5)
>
> (2)- *Ecen testimoniage ekarten drauet, nola Iaincoaren zeloa badutén,* ***baina*** *ez scientiaren araura.* (Leiz., Rom.,X,2)
>
> - *Lekhucotassuna errendatcen daroet ecen badutela Jaincoarentçat zelo; hequien zeloa* ***ordean*** *ez da scientiaren araueracoa.* (Haran., Rom.,X,2)

Izan ere, BAINA lokailuaren lekuan, Haranederrek ORDEAN ezezik, antzeko adiera duen AITCITIC ere erabiltzen du:

> (3)- *... vric ene oinetara eztuc eman:* ***baina*** *hunec ene oinac nigar vriz arregatu citic, ...* (Leiz., Lc.,VII,44)
>
> - *... uric ez darotaçu eman ene oiñen garbitceco; hunec* ***aitcitic*** *bere nigarrez busti ditu ene oinac ...* (Haran., Lc.,VII,44)

Hala ere, hau guztia BAINA-ren bigarren aurkaritza-mota aztertzean berrikusiko dugu.

2.3.9.2. BAINA juntagailua.

2.3.9.2.1. Forma eta funtzioa.

Formari dagokionez, gauza gutxi esan daiteke. Orokorrean juntagailu honek ez du forma aldaketa handirik jasaten, aldaera bakarrak "bainan" eta forma bustiak "baña, baiñan" baitira. Leizarragak, ordea, beti formarik arruntena -"baina"- erabiltzen du, kontestu guztietan eta salbuespenik gabe:

> - ... *Spiritua prompto da,* **baina** *haraguia flacu.* (Mc.,XIIII,38)

Juntagailu honen bidez, neurri handi batean kontrajarriak diren bi perpaus edo sintagma elkartzen dira; dena den, zehaztapen bat egin behar dugu:

> *"Aurreko perpausari berari ez, hark iradoki, edo suposaraz dezakeen zerbaiti egiten dio kontra bigarrenak..."*[10]

Beraz elkartzen diren bi perpausek ez dute nahitaez elkarren kontrakoak izan behar; bigarren perpausak espero genezakeen ondorio logikoa ez adieraztea edo ondorio horretatik, pitin bat behinik behin, aldentzea nahikoa da.

2.3.9.2.2. Tokia.

Juntagailu hau, sistematikoki, elkartzen dituen bi perpausen edo sintagmen artean kokatzen da:

> - ... *eta hil eraci nahi çuen,* **baina** *ecin ceçaqueen.* (Mc.,VI,19)
>
> - ... *emazte fidel baten seme,* **baina** *aita Grecbaten.* (Apost.Act.,XVI,1)

---

[10] EUSKALTZAINDIA, Euskal Gramatika Lehen Urratsak-IV. Juntagailuak, 185.or.

BAINA juntagailua, teorikoki bederen, beste posizioetan ere ager liteke; bestela, ikus dezagun zer dioskun EGLU-k:

> "... *adibide guztietan juntagaien artean kokatua ikusi dugu* **baina** *juntagailua (...) Gramatikariek esan izan dute, hegoaldean (...) bigarren perpausaren barruan eta azkenean ere erabiltzen dela inoiz juntagailu hori. Honelakoetan, ordea, badirudi lokailu zeregina betetzen duela ...*"[11]

Leizarragak, berriz, ez du inoiz BAINA bigarren perpausaren barruan edo azkenean kokatzen, bi juntagaien artean baizik.

2.3.9.2.3. Zer elkartzen duen.

BAINA juntagailuak, orokorrean, perpausak elkartzen ditu; baina, nolako perpausak? Villasantek REAL ACADEMIA ESPAÑOLA-k emandako definizioan oinarrituta, honako hau diosku:

> "*Cuando en la oración compuesta se contraponen una oración afirmativa y una negativa, la coordinación es adversativa, es decir, opone dos juicios de cualidad lógica contraria*"[12]

Edonola ere, Mitxelenak -orripeko oharrean- eta EGLU-k ongi apuntatzen dutenez, ez dirudi perpausak derrigorrez halakoak izan behar direnik:

> "... *juntadura horretan ez dutela derrigor perpausek batak baiezkoa eta besteak ezezkoa izan behar (...) Horrelakoak gerta daitezke, noski, baina baita biak baiezkoak edo biak ezezkoak ere (...) Gainera ez dute zer izan adierazpen-perpausak. Bestelakoak ere izan daitezke.*"[13]

---

[11] Id.,194.or.

[12] VILLASANTE, L., Sintaxis de la oración compuesta, 28.or.

[13] EUSKALTZAINDIA, Euskal Gramatika Lehen Urratsak-IV. Juntagailuak, 195.or.

Azter ditzagun, bada, juntagailu hau agertzen deneko kontestuak:

1- PERPAUS LOKABEAK:

1.1. Adierazpen-perpausak:

1.1.1. Baiezkoa + Baiezkoa:

- *Ayher ciraden bada haren hatzamaitera,* ***baina*** *populuaren beldur ciraden ...* (Mc.,XII,12)

1.1.2. Baiezkoa + Ezezkoa:

- *... nahia bada nitan,* ***baina*** *onaren complitzea, eztut erideiten.* (Rom.,VII,18)

1.1.3. Ezezkoa + Baiezkoa:

- *... eta eztuçue hura sinhetsi:* ***baina*** *publicanoéc eta paillardéc sinhetsi vkan duté ...* (Mt.,XXI,32)

1.1.4. Ezezkoa + Ezezkoa:

- *... berey minçatu ezpanin̂çaye,bekaturic ezluquete:* ***baina*** *orain excusaric eztuté ...* (Io.,XV,22)

1.2. Galde-perpausak:

- *... Cergatic Ioânesen discipuluéc barur eguiten dute (...)* ***baina*** *hiréc iaten eta edaten dute?* (Lc.,V,33)

1.3. Aginte-perpausak:

- *... Beguirauc nehori ezterroán:* ***baina*** *habil, eta eracuts ieçoc eure buruä Sacrificadoreari.* (Mt.,VIII,4)

1.4. Adierazpen-perpausa + Galde-perpausa:

- ... *haren iugemendua goratu içan da:* **baina** *haren irautea norc contaturen du?* ... (Apost.Act.,VIII,33)

1.5. Adierazpen-perpausa + Aginte-perpausa:

- ... *Iarreiquiren natzaic hiri:* **baina** *permetti ieçadac* ... (Lc.,IX,61)

2- MENPEKO PERPAUSAK:

Hauek ez dira lokabeak bezain ugariak; dena dela, adibideak aurki ditzakegu:

- *Hala çuec-ere estima eçaçue bekatuari hil çaizquiotela,* **baina** *Iaincoari vici çaizquiotela* ... (Rom.,VI,11)

- ... *ceren bekatuaren cerbitzari içan baitzarete,* **baina** *bihotzetic obeditu baituçue* ... (Rom.,VI,17)

Orain arte aipatu ditugun adibide guztietan perpaus lokabe bi edota menpeko perpaus bi elkartzen ziren. Nolanahi ere, Leizarragak darabiltzan adibideak aztertuta, beste aukera bat ere badagoela ematen du, alegia, menpeko perpaus bat eta perpaus lokabe bat elkartzea. Ikus ditzagun adibide batzuk eta erka ditzagun Haranederrek dituenekin:

(1)- *Eta harc ihardesten çuela erran cieçén, Ceren çuey eman baitzaiçue ceruëtaco resumaco secretuén eçagutzea,* **baina** *haey etzaye eman.* (Leiz., Mt.,XIII,11)

- *Eta ihardetsi çaroen eta erran:* **"Ceren** *çuey eman içan* **baitçaitçue** *ceruetaco Erresumaco misterioac eçagutcea,* **baiñan** *hei ez* **baitçaye** *emana içan."* (Haran., Mt.,XIII,11)

(2)- *Cein baita, secula eta adin guciéz gueroztic estaliric egon içan den mysterioa,* **baina** *orain manifestatu içan çaye haren sainduey.* (Leiz., Col.,I,26)

- *predicatcen darotçuedalaric misterioa, mende gucietan eta adin gucietan estalia içatu dena eta orai eracutsia içan çayena haren sainduei,* (Haran., Col.,I,26)

(3)- ... *eguin lieçoten imaginabat bestia hari, cein ezpataz çauri içan baitzén,* **baina** *viztu içan da.* (Leiz., Apo.,XIII,14)

- ... *eguin cioçatela imagina bat ezpata colpea errecibitu içan çuen bestiari eta* **hala ere** *bicia cenari.* (Haran., Apo.,XIII,14)

Adibide hauek erkatuta, BAINA juntagailuak maila sintaktiko bereko perpausak elkartu behar baditu ere, Leizarragak kausazkoak eta erlatibozkoak perpaus lokabeekin uztartzen dituela ikus dezakegu. Haranederren adibideetan, ordea, menpeko perpaus bi elkartzen dira.

Hala ere, ohart gaitezen erlatibozkoei dagokienean behintzat, Leizarragak eta Haranederrek mota desberdinak erabiltzen dituztela, eta agian hortxe egon daitekeela gakoa.

Izan ere, Haranederrek erlatibozkoak egiteko CEIN anaforikoa erabiltzen duenean Leizarragak bezalaxe jokatzen du:

(4)- ... *hamar regue dituc ceinéc resumá ezpaitute oraino hartu,* **baina** *(...) harturen dié ...* (Leiz., Apo.,XVII,12)

- ... *hamar erregue dire, ceiñec erressuma ez baidute oraiño errecibitu,* **baiñan** *botherea errecibitu dute ...* (Haran., Apo.,XVII,12)

Leizarragaren zein Haranederren adibideak aztertuta, CEIN...BAIT-, BAINA...BAIT- egitura nekez aurkitzen dugula konturatzen gara; hala ere, ene uste apalean, kasu honetan bi idazleek eredu erromanikoek eraginda, euskaraz onartu beharko ez liratekeen perpausak sortu dituzte, hizkuntza erromanikoetan menpeko perpaus bi eduki arren, menderagailu-adierazlea bakarrik lehenengo perpausaren hasieran agertzen baita: "10 reyes, **los cuales** aun no han

recibido el reino, pero recibirán...". Eta horixe da biek egin dutena, lehenengo perpausa bakarrik markatu.

3- PERPAUSETIK BEHERAGOKO OSAGAIAK

Arestian aipatu dugunez, BAINA juntagailuak, normalean, perpausak -lokabeak zein menpekoak- elkartzen ditu; nolanahi ere, perpausetik beheragoko osagaiak ere elkar ditzake:

> - *... discipulubat cén han Timotheo deitzen cenic, emazte fidel baten seme,* ***baina****, aita Grecbaten.* (Apost.Act.,XVI,1)
>
> - *Ni naiz (...) Tarte Ciliciacoan iayoa,* ***baina*** *hacia hiri hunetan ...* (Apost.Act.,XXII,3)
>
> - *... cein baita harri vicia, guiçonéz arbuyatua,* ***baina*** *Iaincoa baithan elegitua ...* (Pier.1,II,4)

Bestalde, emendiozkoak eta hautakariak aztertzean, juntagailuek -ETA-k eta EDO-k bereziki- osagai bi edo gehiago elkar zitzaketela ikusi genuen. Zer gertatzen da, ordea, BAINA juntagailuarekin? Ikus dezagun zer dioskun EGLU-k:

> " ***Eta****-k eta* ***edo****-k ez bezala, azkenik, badirudi* ***baina****-k ez dituela normalean juntagai bi baino gehiago elkartzen (...) Eta horixe da kontua:* ***baina****-k aurkaritza bakarra gauzatzen duela juntadura bakoitzean eta, hortaz, ez dituela bi juntagai baino gehiago elkartzen. Zenbaitetan, egia da, badirudi debeku hori horren guzizkoa ez dela. Ondoko adibidean, esaterako:*
>
> *- Bera ez dela joango esan du aitak, baina semea bai, baina denbora laburrerako.*
>
> *Zinetako perpaus elkarketa bakarra gauzatzen ote da, ordea, adibide horretan? Ez, noski. Hor maila desberdineko juntadura dugu...*[14]

---

[14] EUSKALTZAINDIA, Euskal Gramatika Lehen Urratsak-IV. Juntagailuak, 128.or.

Leizarragak, halere, zenbait adibidetan, badirudi bi juntagai baino gehiago elkartzen dituela. Ikus dezagun:

> - *Eta halaco gauça cinetén batzu:* **baina** *ikuci çarete,* **baina** *sanctificatu çarete,* **baina** *iustificatu çarete, ...* (Cor.1,VI,11)

Lehenengo BAINA lokailua dela esan dezakegu, baina hurrengoak? Juntagailuen aurrean gaudela onartzen badugu, BAINA juntagailuak juntagai bi baino gehiago elkar ditzakeela ere onartu behar dugu.

Egia esan, grekerara edo latinera jotzen badugu, hor errepikapena aurkitzen dugu:"**ἀλλὰ...ἀλλὰ...ἀλλὰ**", **"sed...sed...sed"**

Haranederrek, berriz, ez du juntagailurik errepikatzen; berak eskaintzen digun pasartean alborakuntza nagusitzen da:

> - *Eta horlacoac içatu ohi çarete ere batçu;* **baiñan** *garbituac içan çarete, santificatuac içan çarete, justificatuac içan çarete ...* (Cor.1,VI,11)

Leizarragak, seguraski, jatorrizko bertsioak eraginda errepikatu zuen BAINA; sortu zuen adibidea, halere, euskararako aski bortxatua da.

2.3.9.2.4. Balioa.

Euskeraz bi aurkaritza-mota bereiz daitezke: bata, kontrakoak diren juntagaiak elkartzen dituena eta bestea, galdegai bat ezeztatuz beste bat baieztatzen duena.

Aipatu ditugun adibide guztiak lehenengo motaren barruan kokatu behar ditugu ez baita lehenengo juntagaiak adierazten duena ukatzen bigarrenak adierazten duena aldarrikatzeko. Biak, neurri haundi batean, kontrakoak dira, baina ez elkartuezinak; hots, batak ez du bestea zeharo baztertzen. Ikus dezagun adibide bat:

- ... *cein baita harri vicia, guiçonéz arbuyatua,* **baina** *Iaincoa baithan elegitua* ... (Pier.1,II,4)

Adibide honetan BAINA juntagailuak elkartzen dituen bi sintagmen artean, dudarik gabe, kontrastea, oposizioa soma daiteke:

guiçonéz arbuyatua / Iaincoa baithan elegitua

"Arbuyatua" eta "elegitua" izenondo kontrastagarriak dira, eta horrexegatik, hain zuzen, erabiltzen dugu BAINA. "Gizonek arbuiatua, BAINA Jainkoa baitan mespreziatua" perpausa, ordea, guztiz onartezina izango litzateke.

Edozein modutan, osagaien arteko kontrasteak ez du suposatzen bietako bat alboratu behar dela, kontrastagarriak izan arren, biak batera ager baitaitezke.

Honetan datza, bada, lehenengo aurkaritza-mota.

Azkenik, BAINA juntagailuaren nagusitasuna onartu behar dugu, aipatu dugun aurkaritza-mota adierazteko hauxe baita mende eta euskalki guztietako jendeak erabili eta erabiltzen duen juntagailu bakarra.

2.3.9.2.5. Elipsiak.

Azkenik, aurkaritzakoen artean suertatzen diren elipsiak komentatu behar ditugu.

Sarritan ez da ezabaketarik gertatzen, hau da, BAINA-k elkarturiko perpausetan osagai amankomunik ez badago, ez da elipsirik burutzen:

- *Eta gendetzeac mehatchatzen cituen hec ichil litecençát,* **baina** *hec oihu guehiago egiten çutê* ... (Mt.,XX,31)

Osagai amankomunik ez dagoenez, bidezko da ezabakaterik ez gertatzea. Edozein modutan, maiz, elkartzen diren bi perpausen artean osagai amankomunak

ditugu -aditza, esate baterako- eta hala eta guztiz ere, juntadurak ez du ezabaketarik eragiten:

- *Eguia da, nic batheyatzen çaituztet vrez,* **baina** *harc batheyaturen çaituzte Spiritu sainduaz.* (Mc.,I,8)

- *Ecen Iaincoaren arauezco tristitiác, penitentia obratzen du (...):* **baina** *munduco tristitiác herioa obratzen du.* (Cor.2,VII,10)

Beraz, perpausak oso-osorik mantentzeko joera antzematen dugu. Dena den, elipsiak ere aurki ditzakegu:

a) ADITZ OSOAREN EZABAKETA:

* Aditz trinkoa ezabaturik:

- ... *ecen anhitz dirade deithuac,* **baina** *guti elegituac.* (Mt.,XX,16)

- ... *ekarrac eurequin, eta liburuäc,* **baina** *principalqui pergaminoac.* (Tim.2,IIII,13)

* Aditz perifrastikoa ezabaturik:

- *Eta ioanen dirade hauc tormenta eternalera:* **baina** *iustoac vicitze eternalera.* (Mt.,XXV,46)

- ... *adimêduaz cerbitzatzen dut Iaincoaren Leguea,* **baina** *haraguiaz bekatuaren leguea* (Rom.,VII,25)

b) ADITZ LAGUNTZAILEAREN EZABAKETA:

- ... *gueldi citecen icituric, haren voza bay ençuten,* **baina** *nehor ikusten etzutela.* (Apost.Act.,IX,7)

- ... *eçagutzeac hâcen du,* **baina** *charitateac edificatzen.* (Cor.1,VIII,1)

Ezabaketak, gehienetan, ezkerreko perpausean gauzatzen dira, baina (Apost.Act,IX,7) adibidean ikus dezakegunez, eskuinaldean ere burutu daitezke.

Bestalde, emendiozkoetan aipatu genuen bezala, aditz laguntzailea ezabatu arren, aditz nagusiak ez du bere aspektu-marka aldatzen.

EGLU-k beste ezabaketa mota bat aipatzen du:

> "... *Beste zenbaitetan, ordea, iruzkin osoa izaten dute berdina juntagai biek, batak baiezka eta besteak ezezka. Eta horrelakoetan, jakina, enfasiaren zerbitzuan-edo ez bada behintzat, ez da iruzkin hori bigarren juntagaian berritzen.Iruzkina juntagai batean ematen da eta bestean* **bai, ez, bai...ere (ere bai), ez...ere (ere ez)** *partikulak erabiltzen dira mintzagaiaren ondoan*"[15]

Leizarragak, ezabaketa mota hau ez du askotan erabiltzen; dena dela, ezin esan daiteke ez duela ezagutzen:

> - ... *Bada baldin adulteratzen ezpaduc,* **baina** *hiltzen* **bay**, *Leguearen transgrediçale eguin aiz.* (Iac.,II,11)

Kasu honetan bigarren perpausaren aditz laguntzailea izan da ezabatu dena, honen ordez BAY aditzondoa ezarriz.

Edozein modutan, aurkaritza-mota hau adierazten duen BAINA juntagailuaren kasuan ezabaketarik eza nagusitzen denez, adibideen urritasuna nabarmena da.

---

[15] EUSKALTZAINDIA, Euskal Gramatika Lehen Urratsak-IV. Juntagailuak, 193.or.

2.3.10. BAINA (II)

2.3.10.1. Forma eta funtzioa.

Aurreko atalean aipatu dugunez, bi aurkaritza-mota bereiz ditzakegu: batean, kontrakoak diren juntagaiak elkartzen dira; bestean, galdegaien arteko kontrastea adierazten da, hots, galdegai bat gaitzesten da, haren ordez beste bat baieztatuz.

Euskaraz, hegoaldeko euskalkietan bereizketa hau juntagailu desberdinen bidez gauzatzen da:

1.- "baina(n)"

2.- "baizik (eta)" (G); "baino" (B); "ezpada" (B)

Iparraldeko euskalkietan, berriz, gehienetan forma bera -BAINA- erabiltzen dute bi esanahiak adierazteko.

Ikus dezagun zer esaten digun EGLU-k juntagailu honetaz:

> " ... *bestelakoen* ***baina*** *eta* ***baizik*** *biak, besarkatzen ditu juntagailu horrek. (...) Berezketa garbia da, noski, bi perpausak baiezkoak direnean edota bigarrena ezezkoa denean. Kasu honetan euskalki guztietako* ***baina****-ren aurrean gaude. Zalantza sor daiteke lehena ezezkoa eta bigarrena baiezkoa direnean (...) ezezkoa galdegai bati dagokionean eta, hortaz, galdegaiak kontrastean ipintzen direnean, bigarren aurkaritza-motaren aurrean gaude."*[16]

Leizarragak ere horixe egiten du, BAINA forma bi aurkaritza-motak adierazteko erabiliz. Edozein modutan, gogora dezagun bigarren aurkaritza-mota adierazi ahal izateko bete beharreko baldintza lehenengo perpausa ezezko galdegai izatea dela.

---

[16] Id., 210-211.orr.

2.3.10.2. Tokia.

Dakigunez, BAINA-k iparraldeko euskalkietan bi adiera har ditzake; baina, forma bera izanik, bigarren hau lehenengoa aurkitzen genuen kokagune berean aurkituko dugu:

- *Ezta hemen,* **baina** *resuscitatu da ...* (Lc.,XXIIII,6)

- *... ezta confusionezco Iainco,* **baina** *baquezco, ...* (Cor.1,XIIII,33)

Beraz, ikusten dugunez, BAINA elkartzen diren bi juntagaien artean kokatzen da, aurrean, eskuarki, koma bat duela. Dena den, zenbait adibidetan BAINA-ren aurrean komaren ordez, puntuak gauzatutako pausaldi larria ere aurki dezakegu:

(1)- *... Eguiaz erideiten dut ecen Iaincoa eztagoela personén apparentiara beha.* **Baina** *natione gucietâ hari beldur çayona, eta iustitia eguiten duena, dela haren gogaraco.* (Apost.Act.,X,34-35)

(2)- *Ecen ezta hura Iudu, gainetic dena: ezeta gainetic haraguian eguiten dena circoncisione.* **Baina** *hura da Iudu, barnetic dena ...* (Rom.,II,28-29)

(3)- *Guehiagoric haour ezgarençát balençán ebilteco (...).* **Baina** *eguiari garreitzalaric charitatereguin, gucietan handi gaitecen hartan, ...* (Eph.,IIII,14-15)

Aurreneko begiradan perpaus lokabeen aurrean aurkitzen garela, hots, juntadurarik ez dagoela irudi lekiguke; baina ohart gaitezen lehenengo eta hirugarren adibideetan, kasu, menpeko perpausak ditugula, eta hauek bakarrik ezin dutela perpaus lokabe bat gauzatu.

Beraz, Leizarragak darabiltzan puntuazio-markak zalantzagarriak direla kontutan izanik, adibide guztietan perpausak elkartzen dituen BAINA juntagailua dugula esan dezakegu.

2.3.10.3. Zer elkartzen duen.

Azter dezagun BAINA juntagailuak zer-nolako juntagaiak elkartzen dituen, hauek kategoria desberdinetakoak izan baitaitezke:

1- PERPAUSETIK BEHERAGOKO OSAGAIAK:

1.1. Sintagmen osagaiak:

- ... *ezta confusionezco Iainco,* **baina** *baquezco,* ... (Cor.1,XIIII,33)

- ... *ez guiçonén gogara eguin nahi baguendu beçala,* **baina** *Iaincoaren,* ... (Thes.1,II,4)

1.2. Sintagmak:

Hau da, zalantzarik gabe, ugariena.

* Osagai bakarrekoak:

- *Eta eztute iraichequiten candelá eta hura eçarten gaitzurupean* **baina** *candelerean.* (Mt.,V,15)

* Sintagma konplexuak:

Sarritan, sintagma konplexu hauek erlatibozko perpausek osatuak izaten dira:

- ... *Ezta guiçona ogui beretic vicico,* **baina** *Iaincoaren ahotic ilkiten den hitz orotaric.* (Mt.,IIII,4)

Sintagma hauek, osagai bakarrekoek nahiz konplexuek, gehienetan, biek deklinabide-kasu berdina eramaten dute; hala ere, hau ez da guztiz sistematikoa:

- ... *Eritassun hori ezta heriotara,* **baina** *Iaincoaren gloriatan,* ... (Io.,XI,4)

- ... *eztrauçuet scribatu iniuria eguin vkan duenaren causaz, ezeta iniuriatu içan denaren causaz,* **baina** *çuec baithan manifesta ledinçát* ... (Cor.,2,VII,12)

- *Ecen eztut hura guiçonganic recebitu ez ikassi:* **baina** *Iesus Christen reuelationez.* (Gal.,I,12)

- *Ceinén ornamendua eztén lekoreco bilo içurduratan, edo vrrhezco paramendutan, edo abillamenduetaco habituan:* **Baina** *bihotzeco guiçon gordea ...* (Pier.1,III,3-4)

Deklinabide-kasu desberdinak izan arren, azken adibidean izan ezik -inesiboa eta absolutiboa batera agertzen baitzaizkigu-, gainerako adibideetan elkartzen diren sintagmak elkarrengandik oso hurbil dauden kasuak dira.

Honez gain, elkartzen diren sintagmek kontrastagarriak izan behar dute:

> "*Bata bestearekiko kontrastean ipini ahal izateko, funtzionalki homologoak izan behar dute galdegai biek (...) Homologoak ezezik, bestalde, kontrastagarriak ere izan behar dute galdegaiek, elkartuko badira ...*"[17]

Bestalde, sintagmekin amaitu aurretik, perpausetako elementuen ordenaz ere hitz egin behar dugu. Hasieran esan dugunez, aurkaritza-mota honetan galdegaiak dira elkartzen direnak: perpaus bateko galdegaia gaitzesten da, ondokoa baieztatu ahal izateko. Biak galdegai izanik, elkarren ondoan egon beharko lirateke, tartean, gehien jota, aditza dutelarik:

- ... *eztitut aditzen Iaincoaren diraden gauçác,* **baina** *guiçonén diradenac.* (Mt.,XVI,23)

- ... *eznau ni recebitzen,* **baina** *ni igorri nauena.* (Mc.,IX,37)

Edozein modutan, Leizarragak ez du beti orden hau gordetzen; sarritan, bi galdegaien artean, aditzaz gain beste osagai batzuk ere tartekatzen ditu:

- ... *senharrac-ere bere gorputza eztu bere bothereco,* **baina** *emazteac.* (Cor.1,VII,4)

---

[17] EUSKALTZAINDIA, Euskal Gramatika Lehen Urratsak-IV. Juntagailuak, 200-201.orr.

- *Hala Christec-ere eztrauca bere buruäri ohore haur eman vkan Sacrificadore subirano eguin ledin,* **baina** *hari erran vkâ draucanac, ...* (Hebr.,V,5)

2- PERPAUSAK:

BAINA juntagailuaren bidez, osagaiak ezezik, perpaus osoak ere elkar daitezke:

2.1. PERPAUS LOKABEAK:

* Adierazpen-perpausak (Ezezkoa + Baiezkoa):

- ... *Ezaiz desperiuraturen,* **baina** *rendaturen drautzac Iaunari eure iuramendu promettatuac.* (Mt.,V,33)

* Galde-perpausak (Ezezkoa + Baiezkoa):

- ... *Cergatic hire discipuluac eztabiltza aitzinecoen ordenancén araura,* **baina** *escuac ikuci gabe iaten dute oguia?* (Mc.,VII,5)

* Aginte-perpausak (Ezezkoa + Baiezkoa):

- ... *Ezaicela beldur,* **baina** *minçadi eta ezadila ichil.* (Apost.Act.,XVIII,9)

2.2. MENPEKO PERPAUSAK:

* Jokatugabeak:

- ... *ezta ethorri cerbitzatu içatera,* **baina** *cerbitzatzera ...* (Mc.,X,45)

* Jokatuak:

- ... *eguin ezteçaçuen: ez gu approbatu eriden gaitecêçát,* **baina** *çuec vngui daguiçuençát, ...* (Cor.2,XIII,7)

- *Deus appartatzen eztutelaric,* **baina** *leyaltate on gucia eracusten dutelaric, ...* (Tite,II,10)

Menpeko perpausen artean zenbait adibide aipagarri suertatzen zaizkigu:

A.- Osagaiekin gertatzen zen bezala, hemen ere gerta daiteke formalki berdin-berdinak ez diren perpausak elkartzea:

> - *Eta haur erran ceçan, ez paubrez harc ansiaric çuenez:* ***baina*** *cerê ohoin baitzen, ...* (Io.,XII,6)

Haranederrek ere ez du perpaus berdinik elkartu:

> - *Eta hori erran çuen ez pobrez antsia içanez,* ***baiñan*** *ceren ohoina baitcen ...* (Io.,XII,6)

Edozein modutan, elkarrengandik oso hurbil dauden perpausak dira; beraz, elkarketa guztiz zilegi da.

B.- Bestalde, Leizarragak zenbait pasartetan perpaus lokabeak eta menpekoak maila sintaktiko berekoak bailiran elkartzen ditu, nonbait:

> (1)- ... *ardién artheguira* ***sartzen eztena, baina da*** *igaiten bercetaric, hura ohoin da ...* (Io.,X,1)
>
> (2)- *Ecen baldin Iaincoac Aingueru bekatu eguin vkan dutenac* ***guppida vkan ezpaditu: baina (...) liuratu vkan ditu*** ... (Pier.2,II,4)
>
> (3)- ... *eta bere buruäc Iudu eguitê dituztenén blasphemioa, eta* ***ezpaitirade, baina dituc*** *Satanen synagoga.* (Apo.,II,9)

Haranederrek eskaintzen dizkigun adibideekin erkatzen baditugu, bi idazleek desberdin jokatu dutela ohartuko gara. Izan ere, Haranederrek, Leizarragak ez bezala, maila sintaktiko bereko perpausak jartzen ditu harremanetan:

> (1')- ... *Ardien arthaldean athetic* ***sartcen ez dena, bainan*** *bertce alde batetaric* ***igaten dena,*** *ohoiñ bat da ...* (Io.,X,1)
>
> (2')- *Baldinetariac ecen Jaincoac* ***ez baditu guphida içatu (...), aitcitic (...) arthiqui baditu*** *lecean behera, ...* (Pier.2,II,4)

(3')- ... *belzten çaituzte bere erassia gaixtoez judutar erraten diren batçuc eta ez* ***direnec, aitcitic*** *Satanen synagoga* ***direnec.*** (Apo.,II,9)

Haranederrek dituen adibideak ikusita, Leizarragak zenbait hutsegite burutu zituela onartu beharko genuke. Hala ere, adibide hauek azaltzeko, beste azalpen bat ere eman genezake. Agian, ez gaude BAINA juntagailuaren aurrean, AITZITIK lokailuaren balioa har dezakeen BAINA lokailuaren aurrean baizik. Lokailua balitz, ez genuke arazorik izango, lokailuek ez baitute perpausik elkartzen. Betetzen duten funtzioa bi perpausen artean suerta daitekeen harreman semantikoaren berri ematea da; beraz, kasu honetan, perpaus bat menpekoa eta bestea lokabea izatea zilegi litzateke.

Egia esan, Haranederrek berak azken bi adibideetan AITCITIC lokailua erabiltzen du; baina harremanetan jartzen dituen bi perpausak maila sintaktiko berekoak dira eta gaur egungo erregistrotik begiratuta, zuzenagoak dirudite.

Edozein modutan ere, BAINA arruntaz hitz egitean fenomeno berbera aurkitu genuen (Ikus. 139-140.orr.) eta han aipatu genuenez, agian honen guztiaren azalpena Leizarragak jarraitzen dituen eredu erromanikoetan dago, hizkuntz hauetan menpeko perpaus bi izan arren, menderakuntza-adierazlea bakar-bakarrik lehenengoaren hasieran kokatzen delako.

2.3.10.4. Balioa.

Aipatu dugun guztia aintzat harturik, BAINA honek har ditzakeen balioak aztertzeko bereizketa bat egin beharko genuke:

A.- Alde batetik, bigarren aurkaritza-mota adierazten duen BAINA juntagailua edukiko genuke. Honek kontrastagarriak diren bi galdegai elkartuko ditu, lehenengoa ezeztatuz, bigarrena baieztatu ahal izateko:

- *Eznauçue çuec ni elegitu,* **baina** *nic elegitu çaituztet ...* (Io.,XV,16)

- *Ecen eztugu borrocá odolaren eta haraguiaren contra,* **baina** *principaltassunén contra, ...* (Eph.,VI,12)

B.- Bestetik, AITZITIK edo ORDEA lokailuen balioa hartzen duen BAINA lokailua edukiko genuke. Ikus dezagun EGLU-k AITZITIK lokailuaz esaten duena:

> "... *sarritan, izan ere, lehenbiziko perpausa ezezka doa eta* **aitzitik** *bigarren perpausaren hasieran kokatzen da, honela bi perpausen arteko kontrakotasuna markatuz. Horretan, perpaus hasieran joaten den* **baizik (eta)** *juntagailuaren ordain egokia izan daiteke batzutan."*[18]

Dakigunez, juntagailuak lokailu gisa ere aritu daitezke. Beraz, bigarren aurkaritza-mota adierazten duen BAINA lokailu gisa arituz gero, AITZITIK edo ORDEA lokailuen balioa hartu beharko luke. Ikus ditzagun adibide batzuk:

(1)- ... *eta fidal da Iaincoa, ceinec ezpaitu permettiturê têta çaitezte (...):* **baina** *emanen du têtationearequin batean ilkitbidea-ere ...* (Cor.1,X,13)

(2)- *Ecen ezta haur bercéc solagemendu dutençát (...),* **baina** *egoalqui dembora hunetan çuen abundantiác suppli beça hayén peitutassuna.* (Cor.2,VIII,13)

Haranederrek dituen adibideetara jotzen badugu, honek AITCITIC lokailua erabiltzen duela ohartzen gara:

(1')- ... *bada fidel da Jaincoa eta ez du permetituco içan çaitezten tentatuac çuen indarrez gorago;* **aitcitic** *atheraracico ere darotçue tentacionetic ...* (Haran., Cor.1,X,13)

(2')- *Hala ez da ene gogoa bertceac içan daitecen guphidetsiac (...);* **aitcitic** *bai gauçac içan daitecen igoal.* (Haran., Cor.2,VIII,13)

---

[18] EUSKALTZAINDIA, Euskal Gramatika Lehen Urratsak-III. (Lokailuak), 107.or.

2.3.10.5. Elipsiak.

Aurkaritza-mota honetan elipsiak oso ugariak dira. Ikus dezagun nola definitzen dituen EGLU-k:

> "... *elementu, osagai berdinak juntagai batean baizik ez direla ageri, alegia, bestean ezabatuz. Eta aurkaritza honetan, hain zuzen, galdegaia ez beste guztia izaten da berdina. Horregatik, juntagaietako bat bestea baino laburragoa izaten da normalean. Batean osagai guztiak daude agerian eta bestean, aldiz,* ***galdegai berria*** *baizik ez."* [19]

Aipa ditzagun adibide batzuk:

- ... *Obra onagatic ezaugu lapidatzen,* ***baina*** *blasphemioagatic ...* (Io.,X,33)

- ... *eztu guiçon-bat arbuyatzen,* ***baina*** *Iaincoa ...* (Thes.1,IIII,8)

Bi adibide hauetan elipsiak bigarren perpausean gauzatzen dira; dena dela, lehenbiziko perpausean ere aurki ditzakegu:

- ... *ez ene vorondatea* ***baina*** *hirea eguin bedi.* (Lc.,XXII,42)

- *Eta ez aker edo aretze odolez,* ***baina*** *bere odol propriaz behin sarthu içan da ...* (Hebr.,IX,12)

Ikusten dugunez, ezabatzen diren elementuen artean aditza bera dugu. Eta ohart gaitezen aditza ezabatzekotan, aditz osoa eliditu behar dela. Beste elkarketa batzuetan, hala nola, emendiozkoetan edo hautakarietan, aditz laguntzailearen ezabaketa zen ugariena; hemen, berriz, aditz osoa desagertzen da:

- ... *eztuc hic erroa egarten,* ***baina*** *erroac hi.* (Rom.,XI,18)

---

[19] EUSKALTZAINDIA, Euskal Gramatika Lehen Urratsak-IV. Juntagailuak, 204.or.

- *Nehorc ezteçala bere propria bilha,* ***baina*** *batbederac bercerena.* (Cor.1,X,24)

Azkenik, esan dezagun zenbait adibidetan ezabatu diren elementuen ordez ERE BAY agertzen dela:

- *... haey eztrauztet nic neurorrec esquerrac emaiten,* ***baina*** *Gentilén Eliça guciéc-***ere bay.** (Rom.,XVI,4)

- ***Itsassoa,*** *ezta bethi guc lengoage cômuneâ hartzê duqû beçala hartzê* ***baina*** *(...) lac-agatic-***ere bay.** (Hitz eta Minçatzeco Manera, 1207.or.)

Edozein modutan, aurkaritza-mota honetan elipsia ia beti gauzatzen den arren, gerta daiteke ezer ez ezabatzea, hau da, bi juntagaietan berdinak diren elementuak errepikatzea:

- *... Eta eztute eçarten mahatsarno berria çahagui çarretan (...)* ***baina*** *mahatsarno berria çahagui berrietan eçarten duté ...* (Mt.,IX,17)

- *... eztaguiçuela nigarric ene gainean:* ***baina*** *ceuron buruén gainean eguiçue nigar, ...* (Lc.,XXIII,28)

Bestalde, kontrajartzen diren galdegaiak perpaus osoak direnean, normalena noski, elipsirik ez burutzea da:

- *... ecen ezta minçaturen bere buruz,* ***baina*** *cer-ereençun baituque erranen du ...* (Io.,XVI,13)

2.3.11. BAICEN

2.3.11.1. Tokia.

Juntagailu honek hartzen duen kokalekuari dagokionez, ikus dezagun zer dioskun EGLU-k:

> " **Baizen** *aldaera ere erabili izan da aurkaritza-mota hau aditzera emateko, juntagaiaren ondoan nahiz aurrean."*[20]

Leizarragak, berriz, oso jokabide tinkoa du BAICEN beti juntagaiaren ondoan kokatzen baitu:

> - ... *eta nehorc eztu eçagutzen Semea Aitác* **baicen:** *ezeta Aita nehorc eztu eçagutzen Semeac* **baicen** ... (Mt.,XI,27)
>
> - ... *eta hetaric batre eztuc galdu içan, perditionezco semea* **baicen.** (Io.,XVII,12)

Bestalde, kontutan hartu behar dugu BAICEN juntagailuak ez dituela beti ageriko bi juntagai elkartzen. Zenbait kasutan, azaleko egituran behintzat, juntagai hauetako bat ez da perpausean ageri, suposatu baino ez da egiten; hala ere, BAICEN bereziki markatu nahi den juntagai, edo agian hobeto esanda, osagaiaren ondoan aurkituko dugu:

> - ... *Eztiagu hemen borz ogui eta bi arrain* **baicen.** (Mt.,XIIII,17)
>
> - *Ohoina ezta ethorten ardiac ebats eta hil eta deseguin ditzançat* **baicen** ... (Io.,X,10)
>
> - ... *nehor ezta haren moienez* **baicen** *Aitagana ioaiten* ... (Adv.,15-16,273.or.)

Halako adibideak Leizarragak ezezik, beste idazleek ere erabiltzen dituzte. Ikus ditzagun, kasu, Haranederrek eskaintzen dizkigun zenbait adibide:

---

[20] EUSKALTZAINDIA, Euskal Gramatika Lehen Urratsak-IV. Juntagailuak, 208.or.

- ... *"Ez ditugu hemen bortz ogui eta bi arrain* **baicen"** (Haran., Mt.,XIV,17)

- *Ohoiña ez da ethortcen, lekhat ebasteco, hiltceco eta galtceco* **baicen;** ... (Haran., Io.,X,10)

2.3.11.2. Zer elkartzen duen.

BAICEN juntagailuak zer elkar dezakeen aztertzeaz gain, zer-nolako kontestuetan ager daitekeen aztertzea ere interesgarri suerta dakiguke.

Juntagailu hau bigarren aurkaritza-mota adierazten dutenen artean kokatu ohi denez, gogoratu behar dugu bigarren aurkaritza-mota honek nahitaezko baldintza bat duela, juntatzen diren bi perpausetatik lehendabizikoa ezezkoa izatea, alegia.

Honek, beraz, BAICEN juntagailua erabili ahal izateko, lehenengo perpausak ezezkoa izan behar duela pentsarazten digu. Eta halaxe da kasu gehienetan; dena den, bestelako kontestuetan ere aurki dezakegu. Azter ditzagun, bada, kontestuok:

1.- Adierazpen-perpausak (Ezezkoa + Baiezkoa):

Adierazpen-perpausak direla esan arren, ez dezagun ahanz azaleko egituran behintzat, elkartzen diren juntagaiak perpausetik beheragoko osagaiak izaten direla:

- ... *signoric etzayo emanen, Ionas prophetaren signoa* **baicen.** (Mt.,XII,39)

- *Batre ezta eridê içan itzuli denic, arrotz haur* **baicen** (Lc.,XVII,18)

Juntatzen diren bi osagaiek deklinabide-kasu berdina daramate, eta orokorrean, absolutiboak edo ergatiboak izaten dira:

ABSOLUTIBOA (NOR):

- ... *etzeçan nehor sartzera vtzi Pierris eta Iacques eta Ioannes eta nescatcharen aita eta ama* **baicen.** (Lc.,VIII,51)

Partitiboa ere aurki dezakegu:

- ... *baten-ere galtzeric ezta içanen, vnciarenic* ***baicen.*** (Apost.Act.,XXVII,22)

ERGATIBOA (NORK):

- *Eta nehorc ecin eros leçan edo sal mercá luenec* ***baicen,*** ... (Apo.,XIII,17)

Dena den, beste kasu batzuk ere aurki ditzakegu, urriagoak badira ere:

DATIBOA (NORI):

- ... *nehori declaratzen etzeraucatelaric Iaincoaren hitza, Iuduey berey* ***baicen.*** (Apost.Act.,XI,19)

ADLATIBOA (NORA, ZERTARA):

- ... *batetara-ere etzén igorri içan Elias, Sarepta Sidoniaco hirira* ***baicen,*** *emazte alhargun batgana.* (Lc.,IIII,26)

- (... *eçeinere berce gauçatara etziraden applicatzen, cembeit berriren erraitera edo ençutera* ***baicen)*** (Apost.Act.,XVII,21)

Bestalde, osagai hauek zehazkiago aztertu nahi baditugu, lehenengo perpausetakoak, oro har, indefinituak edota partitibodun sintagmak direla esan behar dugu:

- ... *eztuc* ***nehor*** *onic bat* ***baicen,*** *eta hura Iaincoa.* (Mt.,XIX,17)

- ... *baina* ***batre*** *etzén chahutu içan Naaman Syriacoa* ***baicen.*** (Lc.,IIII,27)

- ... *Eztiagu* ***reguerie*** *Cesar* ***baicen.*** (Io.,XIX,15)

- ... *eztuela* ***deus*** *iaquitera ez eçagutzera estimatu vkan Iesus Christ* ***baicén,*** ... (Adv.,27-28,272.or.)

2.- Galde-perpausak:

Hauek aurrekoak bezain ugariak ez badira ere, kontutan hartzekoak dira.

Kasu honetan ere osagai berdin guztiak eliditu dituzten bi perpausen aurrean aurkitzen gara; dena den, azaleko egiturari begira, perpausetik beheragoko osagaiak elkartzen direla esan dezakegu:

- *... norc barka ahal ditzaque bekatuac Iaincoac berac* ***baicen****?* (Lc.,V,21)

- *... nor da ni aleguera nençaqueenic, niçaz côtristatu liçatequeen bera* ***baicen****?* (Cor.2,II,2)

- *Eta ceini cin eguin cerauen (...) obeditu vkan etzuteney* ***baicen****?* (Hebr.,III,18)

Aurreko multzoan gertatzen den bezala, hemen ere elkartzen diren bi juntagaietako bat ez da sintagma arrunta izaten; adibidez, kasu honetan galde-hitza da:

- ***Nor*** *da bada Paul, eta* ***nor*** *Apollo, cerbitzari* ***baicen****, ...* (Cor.1,III,5)

- *... hunen eguiazqui vkaitea* ***baicen*** *(...)* ***cer berceric*** *mundu hunetan desira ahal gueneçaque?* (Adv.,37-39,272.or.)

Adibide hauek aztertzean, hasieran aipatu dugun baldintza, hau da, juntatzen diren bi perpausetatik lehendabizikoak ezezkoa izan behar duela apurtu egiten dela dirudi. Nolanahi ere, ez dezagun ahanz galde-perpausak ezezkoen ahaide hurbilak direla.

3.- Baldintzazkoak:

BAICEN juntagailua baldintzazko perpausen artean ere aurki dezakegu:

- *Edo hauc beróc errâ beçate baldin cerbait gaichtaqueria eriden baduté nitan, ni conseilluâ presentatu içan naicenean. Hayén artean nengoela*

oihu equin nueneco voz bakoitz haur **baicen**, ... (Apost.Act.,XXIIII,20-21)

Adibide honetan bi juntagaien artean puntuaketa larria -puntu bat- aurkitzen dugu; hala ere, ongi dakigu Leizarragaren puntuaketa-markak ez direla fidagarriak; beraz, nire ustez, horri ez diogu garrantzirik eman behar.

Bestalde, aurreko kontestuetan aztertu ditugun adibideetan bezala, lehenengo juntagaian dugun osagaia indefinitu bat da, eta lehenbiziko perpausa ezezkoa ez den arren, ez dugu ahaztu behar aurreko atalean aipatutakoa, alegia, baldintzazko eta galde-perpausak ez direla ezezkoak, baina hauen ahaide hurbilak direla, ezezkoetatik baiezkoetatik baino hurrenago daudelako.

2.3.11.3. Balioa.

BAICEN forma bigarren aurkaritza-mota adierazten duten juntagailuen artean kokatu ohi da. Hala ere, ez dirudi BAINA eta BAICEN -Leizarragaren hizkeran, noski- baliokidetzat jo ditzakegunik

BAINA erabiltzen den kasuetan, perpausetan deklinabide-marka bera daramaten bi sintagma arrunt aurkitzen ditugu. Honez gain, kontrastagarriak diren bi galdegai juntatzen dira, bata ezeztatuz, bestea baieztatu ahal izateko:

- ... *Ezta guiçona ogui beretic vicico,* **baina** *Iaincoaren ahotic ilkiten den hitz orotaric.* (Mt.,IIII,4)

BAICEN juntagailuak, ordea, bigarren aurkaritza-mota honen barruan **balio murriztailea** hartzen du. Horrela, bi juntagai elkartu arren, ez da bata gaitzesten, bestea hobesteko:

- ... *etzeçaten ikus nehor guehiagoric, Iesus bera* **baicen** *berequin.* (Mc.,IX,8)

BAINA daraman adibideak, gizona "ogui beretic" bizi beharrean, "Iaincoaren ahotic ilkiten den hitz orotaric" bizi dela esan nahi du. BAICEN-en adibidean, aldiz, ez dago esaterik "nehor" ikusi beharrean, "Iesus bera" ikusi zutela.

Beraz, elkarrengandik hurbil badaude ere, ezin ditugu sinonimotzat jo. Hala ere, kontutan hartu behar dugu BAINA juntagailuak -gutxitan bada ere- BAICEN-ek duen balioa ere adieraz dezakeela:

> - *Eta nehorc eztrauca emaiten bere buruäri ohore haur,* ***baina*** *Iaincoaz deitzen denac, ...* (Hebr.,V,4)

Hau ikusita, badirudi BAINA juntagailuaren ekintza-eremua zabalagoa dela, BAICEN juntagailuaren balioa ere har dezakeelako. BAICEN juntagailuak, ordea, Leizarragaren erabileran behintzat, ezin izango luke BAINA juntagailua ordezkatu.

Azter dezagun, bada, BAICEN juntagailuak hartzen duen adiera bereizgarria, hau da, **"balio murriztailea"**.

Juntagailu honen bidez gauzatzen den juntaduran ez da juntagai baten ordez beste bat proposatzen; aitzitik, aukera bakarra dagoela adierazten da.

Gainera, zenbait adibidetan, "aukera bakarra dagoela" areagotzeko, ez dago ageriko juntadurarik; BAICEN-ek, batzuetan, ematen du ez duela ez perpausik, ez sintagmarik elkartzen, aldamenean ez baitu kontrajartzen zaion galdegairik. Dena den, ez dezagun ahanz azaleko egituraz ari garela. Ikus ditzagun, halere, adibide batzuk:

> (1)- ... *Hunec eztitu deabruac campora egoizten Beelzebub deabruén princearen partez* ***baicen.*** (Mt.,XII,24)
>
> * Sakoneko egituran honako hau suposatu behar dugu:
>
> Hunec eztitu deabruac campora egoizten **beste nehoren partez** Beelzebub deabruén princearen partez baicen.

(2)- ... *eta oquibat* **baicen** *etzutén berequin vncian.* (Mc.,VIII,14)

(3)- ... *guertha eztaquidala gloria nadin Iesus Christ gure Iaunaren crutzean* **baicen** ... (Gal.,VI,14)

(4)- ... *sinhets deçagûçat ecen eztela Iainco eguiazcobat eta promettatu beçala harc igorri duen Iesus Christbat* **baicen** ... (Som.,35-37,278.or.)

Laburbilduz, BAICEN bigarren aurkaritza-mota adierazten duten juntagailuen sarean kokatzen den arren, ezin da bigarren aurkaritza-mota adierazten duen BAINA-ren baliokidetzat jo, azken honen ekintza-eremua askoz zabalagoa delako. Izan ere, BAICEN-k balio murriztailea adieraz dezake soilik (Leizarragaren erabileran bederen), inoiz ez bi galdegaien arteko aurkakotasuna; BAINA-k, ordea, bi adierak har ditzake.

2.4. ONDORIOZKOAK

Gramatikariek, oro har, ondoriozkoak menpeko perpausen artean kokatzen dituzte. Hala ere Luis Villasantek, adibidez, atal berezi bat eskaintzen die berak deitutako "Conjunciones Consecutivas Coordinadas" direlakoei:

> *"Aunque, ateniéndonos al criterio semántico adoptado, agrupamos todas las conjunciones consecutivas en un mismo capítulo, no obstante hay que decir que se distinguen claramente las coordinadas de las subordinadas."*[1]

Guk ondoriozko perpausak menpekoen artean sartuko ditugu; baina orain aztertzen ari garen atalean ere aipamen berezia egin behar diegu.

Edozein modutan, ezin hitz egin daiteke ondoriozko juntagailuez, bi perpausen arteko lotura edo erlazio semantikoa adierazten duten partikulez -lokailuez- baizik. Perpaus bat, beraz, aurrekoaren ondorioa da; hala eta guztiz ere, perpaus bakoitzak bere autonomia mantentzen du.

Ikus dezagun, bada, zeintzuk diren Leizarragak darabiltzan lokailuak:

2.4.1. BERAZ

2.4.2. BADA

2.4.3. HALA (Halaz, Halatan), HORRELA

2.4.4. HARREN

2.4.5. ORDUAN[2]

---

[1] VILLASANTE, L., Sintaxis de la Oración Compuesta, 163-164.orr.

[2] Zalantzagarria da ORDUAN partikula. Agian lokailutzat jo genezake; baina baliteke aditzondo soila izatea.

2.4.1. BERAZ

Ondoriozko lokailuei buruz hitz egiten dugunean bi aipatzen ditugu bereziki: BADA eta BERAZ. Edozein modutan, kontutan hartu behar dugu literatura klasikoan BADA lokailua BERAZ baino sarriago erabili izan dela.

Horrela, Leizarragaren obra aztertuta, BERAZ lokailua, BADA-ren aldean, oso urria dela ohartzen gara; izan ere, Testamentuan aurkitzen badugu ere, ez du BADA-k duen maiztasuna eta sarrera-testuetan ez dugu adibide bakar bat ere topatu. Beraz, Leizarragak ondorioa, nagusiki, BADA lokailuaren bidez adierazten duela esan behar dugu, BERAZ, lokailu markatua edo delarik.

Nolanahi ere, azter dezagun BERAZ lokailua.

2.4.1.1. Balioa.

Ikus dezagun zer esaten digun EGLU-k BERAZ lokailuaz:

> "**Beraz** *erabili ohi da ondorioa delakoa ia garbiro eta osoro aurreko perpausean esana dagoenean eta deus berririk handik atera ez baina ia gauza bera beste hitz batzuekin esaten denean (...) Gehienetan dedukzio bat adierazten du, burua gehiegi nekatu gabe esanetik edonork aise atera dezakeena (...) Axularren Gero bezala "diskurtsozko estiloz" onduriko liburu edo mintzaldietan arrazoibide luze baten edo argudio baten amaiera ere* **beraz**-*ek seinalatu ohi du."*[1]

Gehienetan, arrazoinamendu luze baten ondoren agertzen zaigu; beraz, lokailu honen bidez, aurreko perpausean egiten den argudioaren nolabaiteko bukaera adierazten dela esan dezakegu. Bestalde, eskaintzen digun informazioa ez da berria, aurrekoaren ondorio logikoa baizik.

---

[1] EUSKALTZAINDIA, Euskal Gramatika Lehen Urratsak-III (Lokailuak), 141-142.orr.

Azter ditzagun adibide batzuk eta erka ditzagun Haranederrek dituenekin:

(1)- *Bada othoitz eguiten duçuenean, ezteçaçuela anhitz edas Paganoéc beçala: ecen vste dute bere anhitz edasteazençunen diradela.*

Etzaretela **beraz** *hetarát irudi: ecen badaqui çuen Aitac ...* (Mt.,VI,7-8)

- Ez çareten, **beraz**, *hequien idurico; ...* (Haran., Mt.,VI,8)

(2)- *Eracustaçue dinerobat: norenac dit imagina eta scribua? Eta ihardesten çutela erran ceçaten,, Cesarenac.*

Orduan erran ciecén, Renda ietzoçue **beraz** *Cesaren diradenac, Cesari ...* (Lc.,XX,24-25)

- Orduan harc erran çaroen: "Bihur diotçotcue, **beraz**, *Caesaren direnac Caesari, ...* (Haran., Lc.,XX,25)

Ikusten dugunez, adibide hauetan BERAZ lokailuaren bidez, aurreko perpausetan gauzatu den argudioa borobildu egiten da, bukaera ezarriz.

Hala ere, gogoan izan behar dugu EGLU-k[4] dioskuna, alegia, zenbait kasutan BADA eta BERAZ lokailuak baliokideak edo errankideak direla.

Arestian aipaturiko adibideetan, esate baterako, Leizarragak eta Haranederrek lokailuen erabilerari dagokionez, berdin jokatzen dute. Dena den, salbuespenak ere badaude, Leizarragak BERAZ lokailua darabilen zenbait adibidetan, Haranederrek BADA erabiltzen baitu -errankideak diren seinale-:

(3)- *Norc-ere* **beraz** *hautsirê baitu manamendu chipién hautaric bat (...) chipién deithuren da ...* (Mt.,V,19)

- Norc ere, **bada**, *hautsico baidu manamendu hetaric chumeenetaric ere bat (...) behatua içanen da ceruetaco Erresuman ...* (Haran., Mt.,V,19)

---

[4] Id., 136-139.orr.

(4)- *Eta interroga ceçaten hura, eta erran cieçoten. Cergatic* **beraz** *batheyatzen ari aiz, baldin hi Christ ezpahaiz ...?* (Io.,I,25)

- *Galdeguin çioten berriz ere eta erran: "Cergatic,* **bada**, *hari çare bathayatcen, baldin ez baçare ez Christo ...?* (Haran., Io.,I,25)

Hau ikusita, BADA eta BERAZ lokailuen arteko bereizketa, diakronian behintzat, kolokan dagoela edo, agian hobeto esanda, sarritan ez direla bereizten aitortu beharko genuke.

2.4.1.2. Tokia.

Lokailu honek perpausaren baitan hartzen duen lekuari dagokionez, mugikortasun handia duela aipatu behar dugu. Hortaz, BERAZ lokailua perpausaren hasieran, barruan zein amaieran aurkitu ahal izango dugu:

1- PERPAUSAREN HASIERAN:

1.1. Adierazpen-perpausetan:

- ... *herio mereci duen gauçaric eztrauca eguin.*

Beraz *gaztigatu eta, largaturen dut.* (Lc.,XXIII,15-16)

1.2. Aginte-perpausetan:

- *Bada guehiagoric eztirade biga, baina haraguibat.* **Beraz** *Iaincoac iunctatu duena, guiçonac ezteçala separa.* (Mt.,XIX,6)

2- PERPAUSAREN BARRUAN:

2.1. Aditzaren ondoan:

2.1.1. Aginte-perpausetan:

- ... *Orduan erraten drave, Renda ietzoçue* **beraz** *Cesaren diradenac, Cesari ...* (Mt.,XXII,21)

2.1.2. Galde-perpausetan:

- ... *Cer eguinen dut* **beraz** *Iesusez Christ deitzen denaz?* (Mt.,XXVII,22)

2.1.3. Adierazpen-perpausetan:

- *Kentzen du* **beraz** *lehena, guerocoa eçar deçançát.* (Hebr.,X,9)

2.2. Bigarren lekuan:

2.2.1. Galde-hitzen ondoan:

Hauek aztertu aurretik ikus dezagun zer dioskun EGLU-k honetaz:

"*Galdegaiak eta aditzak osatzen duten multzoa ezin du beste elementu batek eten. Hala ere, aipatzekoa da, hiru kasuetan,* **nola, zergatik** *eta* **zertarako** *galde hitzak osatua izatea. Izan ere galde-hitz hauek (eta orohar adizlagunei dagokien kasu-marka hartzen duten gainerakoek,* **norekin, norendako** *e.a.) ez dute aditzaren aurre-aurrean joan beharrik. (...) Galde-hitz hauen jokabide berezia da, beraz, lokailuaren leku berezi horren arrazoia.*"[1]

Hona hemen adizlagunei dagokien kasu-marka hartzen duten galde-hitzak:

- *Diotsate, Cergatic* **beraz** *Moysesec manatu vkan du separationeco letraren emaitera, eta haren vtzitera?* (Mt.,XIX,7)

- *Nola* **beraz** *eztuc ene diruä banquean eman, ...* (Lc.,XIX,23)

Edonola ere, beste era bateko galde-hitzak ere aurki ditzakegu:

- *Cer* **beraz** *erranen dugu? ...* (Rom.,IX,14)

2.2.2. Bestelako osagaien ondoan:

- *Bere fructuetaric* **beraz** *eçaguturen dituçue hec.* (Mt.,VII,20)

- *Ezta hilén Iaincoa (...) çuec* **beraz** *haguitz enganatzen çarete.* (Mc.,XII,27)

---

[1] EUSKALTZAINDIA, Euskal Gramatika Lehen Urratsak-III (Lokailuak), 147-148.orr.

- *Dauid-ec* **beraz** *Iaun hura deitzen du ...* (Lc.,XX,44)

2.2.3. Zenbait aditzondoren ondoan:

- *... orain* **beraz** *ilkiric çoazte baquerequin.* (Apost.Act.,XVI,36)

- *Anhitzez areago* **beraz** *orain (...) salbu içanen gara hiratic.* (Rom.,V,9)

3- PERPAUSAREN AMAIERAN:

- *... Cer eguinen dugu* **beraz***?* (Lc.,III,10)

- *Orduan interroga ceçaten, Cer* **beraz***?* ... (Io.,I,21)

- *Cer erranen dugu* **beraz***?* (Rom.,VI,1)

Azken kontestu honetan, ohartzen bagara, beti galde-perpausak ditugu eta lokailua aditzaren ondoan agertzen zaigu, bigarren adibidean izan ezik, non, elipsiaren eraginez, galde-hitzaren ondoan agertzen baita.

Ikusi dugunez, BERAZ lokailuaren mugikortasuna handia da; dena den, aipa dezagun BERAZ lokailua bereziki bi posiziotan aurkituko dugula, testuan ditugun 119 adibideetatik, 54 perpausaren hasieran eta 58 barruan agertzen direlako.

2.4.1.3. Lokailu konposatuak.

BERAZ lokailua, zenbaitetan, aditzondo bati loturik agertzen zaigu, biek lokailu konposatua osatuz.

Gogora dezagun EGLU-k ematen digun azalpena:

"*... zenbait aditzondok* **beraz***-i aurrea hartzen diotela, itxuraz baizik ez da egia, horietan berez aditzondo diren horiek aditzondo izatea galtzen baitute eta bien artean osatzen lokailua, konposatua noski. Horregatik esan ere dugu hemen goian "ikusi batera aditzondo den beste elementu batez" osatuak direla lokailu konposatu hauek.*

Beraz balioari dihoakionez, batera nahiz bestera agertu, ***beraz****-en lokailu konposatuen aurrean gaude han eta hemen, eta ez bi osagai solteren aurrean,* ***beraz*** *bakarrik balitz bezala lokailua eta bestea aditzondoa."*

Leizarragaren obran, egia esan, ez dira oso ugariak, baina bakan batzuk aurki ditzakegu:

(1)- ***Hunela beraz*** *çuec othoitz eguiçue ...* (Mt.,VI,9)

Adibide hau Haranederrek eskaintzen digunarekin erkatzen badugu biek berdin jokatu dutela ikusten dugu:

(1')- ***Hunela, beraz,*** *eguiñen dioçue çuec othoitz ...* (Haran., Mt.,VI,9)

HALACOTZ BERAZ-en kasuan, berriz, Haranederrek ondoriozko lokailu bakarra darabil:

(2)- ***Halacotz beraz*** *electionea ezta nahi duenaren, ...* (Leiz., Rom.,IX,16)

- ***Beraz*** *ez dago nahi duenaren baithan, ...* (Haran., Rom.,IX,16)

(3)- ***Halacotz beraz*** *landatzen ari dena ezta deus, ...* (Leiz., Cor.1,III,7)

- ***Hala*** *landatcen duena ez da deus, ...* (Haran., Cor.1, III,7)

Hortaz, BERAZ lokailua berez aditzondo den edo izan daitekeen bati loturik agertu arren, biek lokailu bakarra osatzen dute. Gainera, lotura honetatik sortzen den lokailu konposatuak ez du esanahi berezirik hartzen, BERAZ lokailuak duen balio berbera adierazten du.

---

* Id., 149.or.

2.4.2. BADA

Ondoriozko lokailuen artean, hauxe dugu, dudarik gabe, ugariena eta, aldi berean, polisemikoena, hain erabilia izanik, askotan ez baitakigu zehazki zer-nolako adiera duen.

Ikus dezagun, bada, EGLU-k eskaintzen digun definizioa:

> *"Loturazko -hain zuzen, ondoriozko- lokailua dela esan dugu. Mitxelenaren hitzez esateko: "Eso no es más que una manera de ligar una frase con la anterior" (Villasante, Sintaxis de la oración compuesta,156.or.). Bi perpaus lotzen ditu, hortaz, baina aldi berean lehenaren ondorioa ateratzen."*

Lokailu honen berezko tokia eguneroko elkarrizketetan dugu; edonola ere, oraingo honetan ez gaude elkarrizketa baten aurrean, Ebanjelioaren itzulpenaren aurrean baizik; hala eta guztiz ere, arestian aipatu dugunez, BADA lokailurik erabiliena da. Beraz, elkarrizketatik kanpo ere badu bere tokia lokailu honek. Edozein modutan, ikus dezagun nola azaltzen duen diferentzia EGLU-k:

> *"Horrek bide ematen digu **bada**-k goi mailako literatur testuetan duen erabilera aztertzeko, batez ere "estilo diskurtsibo" delakoaz eihotako liburuetan, hots egileak zerbait kontatzeko edo frogatzeko solasaldi lauaz, lasaiaz, eta soseguzkoaz ontzen dituenetan. (...) **Beraz** baino askozaz sarriago gainera; Axularrek, adibidez, bi bider gehiagotan. Ez dirudi halere elkarrizketan adina ñabardura duenik; ezin izan ere, halako ñabardurak izatea elkarrizketari dagokion bereizgarria baita, aise aditzen den bezala, eta "estilo diskurtsibo" delakoari aldiz, berez zor baitzaio neutroagoa, alegia usainik, kolorerik eta zaporerik gabea, gabeagoa behintzat, izatea."*

EUSKALTZAINDIA, Euskal Gramatika Lehen Urratsak-III (Lokailuak), 149.or.

Id., 161.or.

2.4.2.1. Forma.

> *"Formari dagokionez esan behar da, autore zaharretan -eta ez hain zaharretan- beti osorik idatzirik agertzen den arren, azken ehun urte hauetan gutxi gorabehera* **ba** *idazteko ohitura zabaldu dela, batez ere hegoaldean ..."*[9]

BA aldaera berriagoa denez, Leizarragak forma laburtu hau behin ere ez du erabiltzen. Jaso ditugun adibide guztietan beti osorik aurkitzen dugu, edozein kontestutan eta salbuespenik gabe:

> - *Çareten* **bada** *çuec perfect, çuen Aita ceruëtan dena perfect den beçala.* (Mt.,V,48)
>
> - *Hec* **bada** *bildu ciradenean interroga ceçaten hura, ...* (Apost.Act.,I,6)

2.4.2.2. Balioa.

Hasieran aipatu dugunez, lokailu hau erabiliena izanik, adiera bat baino gehiago har dezake:

2.4.2.2.1. BADA kausazkoa?

Lokailu honek, teorian, bi adiera izan ditzake: ondoriozkoa eta kausazkoa; baina, Leizarragak darabilena, ene uste apalean behintzat, beti ondoriozkoa da; beraz, gure lanean ez litzateke zilegi BADA kausazkoa eta ondoriozkoa bereiztea, Leizarragak bigarrena bakarrik ezagutzen baitu. Dena den, saia gaitezen esandakoa frogatzen.

BADA kausazkoaren erabilera, Hegoaldean, bertako literaturaren hasieratik dago dokumentatuta; baina Iparraldeko literatura aztertzen badugu, ez dirudi BADA kausazkorik aipa dezakegunik. Lafittek bere Grammaire Basque-n[10] kausa adierazten duten "conjonctions de coordination" direlakoen artean bi aipatzen ditu: EZEN eta

---

[9] Id., 151.or.

[10] LAFITTE, P., Grammaire Basque (Navarro-Labourdin Littéraire), 173.or.

ALABAINAN; BADA, berriz, ez du aipatzen, bere ustez, Iparraldean ez delako balio honekin erabiltzen.

Villasantek, ordea, Axularren Gero aztertzean, BADA lokailuari bi balio ezartzen dizkio[11]: ondoriozkoa eta kausazkoa (gero Villasantek berak egindako itzulpenetan BADA gehienak ondoriozkoen bitartez itzultzen baditu ere). Hala ere liburu honetan bertan Mitxelena orripeko ohar batean kontra aritzen zaio:

> *"Michelena apostilla: **bada** ¿puede ser causal? Desde el punto de vista vasco, parece claro que **bada, beraz** son partículas coordinativas como **baina, ordea**, etc. Yo no veo que **bada hori zure eskuan dago** y **beraz hori zure eskuan dago** sean diferentes (...) Eso no es más que una manera de ligar una frase con lo anterior. Interpolar una causa sería lo mismo que admitirla en: "Fulanito, como ya os he dicho, se cayó de un tercer piso. Y se mató". ¿Es que **y** es causal?"* [12]

Ikus dezagun orain, auzi honetaz EGLU-k esaten diguna:

> *"Baina pasarte horretan bakarrik ez, Axularren guztietan BADA ondoriozkoa da, ez kausazkoa, gure ustez, (...)*
>
> *Hegoaldean **bada** kausazkoaren testigantzak bertako literaturaren sorrera bezain zaharrak dira (...) Iparraldeko autore zaharrek ere bai? Hor dago koska. Badira testu batzu non guztiz zaila baita erabakitzea ondoriozkoa ala kausazkoa den."*[13]

EGLUk esaten digunaren arabera, Iparraldeko idazleen artean BADA kausazkoa nekez aurkituko dugu. Ikus dezagun, bada, zer gertatzen den Leizarragaren obran.

Villasantek BADA ondoriozkoa eta kausazkoa posizioagatik bereizten ditu: kausazkoak, gehienetan,

---

[11] VILLASANTE, L., Sintaxis de la oración compuesta, 156, 164-169.orr.

[12] MITXELENA, K., in VILLASANTE, L., Sintaxis de la oración compuesta, 156-157.orr.

[13] EUSKALTZAINDIA, Euskal Gramatika Lehen Urratsak-III (Lokailuak), 188-189.orr.

perpausaren hasieran agertzen dira, ondoriozkoak, berriz, perpausaren barnean:

> "*En su sentido causal* **bada** *o* **ba** *se coloca en cabeza de frase. A veces, con todo, en la lengua hablada de hoy, aun con sentido causal se oye este* **ba** *o* **bada** *ocupando, no el primer lugar sino el segundo, tercero o aun otros más retrasados. El* **bada** *consecutivo aparece colocado no en cabeza, sino en segundo o tercer lugar de la frase.*"[14]

Azter dezagun orain EGLU-k esaten diguna:

> "**Bada** *kausazkoaren lekua bigarren perpausaren -arrazoia ematen duenaren- hasiera edo lehen-lehena da. Eta horretan bereizten da -batzutan!-* **bada** *ondoriozkotik, hau maiz, han esan genuen bezala, perpausean barrentzen baita. Beraz, ondoriozkoa nahiz hasieran nahiz barnean ager daitekeenez gero eta kausazkoa beti hasieran, barnekoa beti ondoriozkoa dela badakigu; hasierakoa, aldiz, batzutan bata izango da eta besteetan bestea, eta testuinguruaren zentzuak bakarrik erakus liezaguke noiz den bata, noiz bestea*"[15]

Ikusten dugunez, iritziok ez datoz bat, EGLU-k perpausaren hasieran BADA ondoriozkoa ere ager daitekeela onartzen baitu. Ikus dezagun orain nola jokatzen duen Leizarragak:

> (1)- *Guero erran ciecén: Sabbathoa guiçonagatic eguin içan da, ez guiçona Sabbathoagatic.*
>
> **Bada** *guiçonaren Semea Sabbathoaren-ere iabe da.* (Mc.,II,27-28)

> (2)- *Esquerrac emaiten drautzat Iaincoari Iesus Christ gure Iaunaz.* **Bada** *nic neurorrec adiméduaz cerbitzatzen dut Iaincoaren Leguea, baina haraguiaz bekatuaren leguea.* (Rom.,VII,25)

Ez dirudi adibide hauetan BADA lokailuaren bidez kausa adierazten denik, ondorioa baizik.

---

[14] VILLASANTE, L., Sintaxis de la oración compuesta, 165. or.

[15] EUSKALTZAINDIA, Euskal Gramatika Lehen Urratsak-III (Lokailuak),, 190-191.orr.

Nolanahi ere, zenbait kasutan, zalantzaren bat sor lekiguke. Ikus dezagun, adibidez, hurrengo adibidea:

(3)- *Aicén bada orhoit nola recebitu etaençun vkan duán: eta beguireçác, eta dolu bequic.* ***Bada*** *baldin veilla ezpadeçac ethorriren nauc hiregana ohoina beçala, ...* (Leiz., Apo.,III,3)

- *Iducaçu, bada, gogoan errecibitu içan duçuna eta entçun duçuna, eta beguira çaçu eta eguiçu penitentcia;* ***ecen*** *atçarria ez baçaude, ethorrico natçaitçu ohoin bat beçala, ...* (Haran., Apo.,III,3)

Haranederrek kausazkoa darabil; halere, grekerak edo latinak eskaintzen dizkiguten adibideak aztertzen baditugu, ondoriozko argiak **-οὖν, ergo-** aurkituko ditugu; beraz, Leizarragarena ere ondoriozkoa dela esan dezakegu:

Bestalde, zenbait kasutan BADA kausa adieraz dezakeen HALACOTZ aditzondoari loturik aurki dezakegu. Dena dela, BERAZ lokailua aztertzean aipatu genuenez, kasu hauetan aditzondoak bere balioa galtzen du, eta lokailuari, kasu honetan, BADA-ri atxikirik, biek lokailu konposatua osatzen dute. Ikus ditzagun adibide batzuk eta erka ditzagun Haranederren obran aurkitzen ditugunekin lokailu konposatu honen ondoriozko adiera agerian gera dadin:

(4)- *... Christ hiletaric resuscitatu duenac, viuificaturen ditu çuen gorputz mortalac-ere bere Spiritu çuetan habitatzen denaren causaz.*

Halacotz bada*, anayeác, çordun gara, ...* (Leiz., Rom.,VIII,12)

- ***Beraz****, ene anayac, çordun gare ...* (Haran., Rom.,VIII,12)

(5)- *Eztaquiçue ecen Aingueruäc iugeaturê ditugula? cêbatez areago vicitze hunetaco gauçac?*

Halacotz bada *baldin vicitze hunetaco gaucéz gorteac badituçue, Eliçán estima chipitacoen diradenac eçar itzaçue iar-lekuan.* (Leiz., Cor.1,VI,3-4)

- *Baldinetaric,* ***beraz****, munduco eguitecoen gaiñean hauci baduçue, har çatçue jugetçat Eliçan diren presunaric mendreénac.* (Haran., Cor.1,VI,4)

Hau guztia ikusita, ez dugu Leizarragak BADA kausazkoa erabili zuela pentsatzeko arrazoirik aurkitzen.

2.4.2.2.2. BADA ondoriozkoa

Aurreko atalean ikusi ahal izan dugunez, Leizarragak ondorioa adierazteko BADA lokailuaz gain, BERAZ lokailua ere erabiltzen du (azken hau urriagoa bada ere). Beraz, lehendabizi, bi lokailu hauen arteko bereizketaz ihardun beharko genuke. Baina, ba al dago bereizketarik?

BERAZ lokailua aztertzean, gaingiroki egin badugu ere, zenbait adibidetan behintzat desberdintasun handirik ez dagoela, hau da, baliokideak izan daitezkeela ohartu gara. Ikus dezagun zer esaten digun honetaz EGLU-k:

> "*Eguneroko hizkeran eta literaturan ezagunenak eta erabilienak izateaz gainera esan behar da zenbait esalditan* **beraz** *eta* **bada** *errankide direla, bata nahiz bestea agertzen bait da (...)*
>
> *Balio berekoak direla, batzutan noski eta diakronian bedere, testu beraren itzulpena egiterakoan idazle batek bata eta besteak bestea darabilela ikusten dugunean ageri da ongien.*"[16]

Leizarragaren erabilera aztertzen badugu, bi lokailuak -BADA eta BERAZ- kontestu berdintsuetan erabiltzen dituela jabetzen gara:

> (1) a.- *Norc-ere* **beraz** *hautsirê baitu manamendu chipién hautaric bat (...) chipién deithuren da ...* (Mt.,V,19)
>
> b.- *Norc-ere* **bada** *encuten baititu ene hitz hauc, eta hec eguiten, hura dut comparaturen ...* (Mt.,VII,24)

---

[16] EUSKALTZAINDIA, Euskal Gramatika Lehen Urratsak-III (Lokailuak), 136-139.orr.

Baina Haranederren obrara jotzen badugu, hona hemen aurkitzen duguna:

a.- *Norc ere,* ***bada****, hautsico baidu manamendu hetaric chumeenetaric ere bat (...) behatua içanen da ceruetaco Erresuman ...* (Haran., Mt.,V,19)

b.- *Norc ere,* ***bada****, entçuten baiditu ene hitz hauc eta obretan ematen, eta hura içanen da guiçon çuhur baten pare, ...* (Haran., Mt.,VII,24)

Haranederrek lokailu berdinak eta Leizarragak desberdinak darabiltza, BADA eta BERAZ baliokideak diren seinale.

Fenomeno hau ez da adibide bakar batean gertatzen. Gainera, ez dirudi honetan kontestuak edo perpaus motek zerikusirik dutenik, adierazpen, aginte zein galde-perpausetan aurki baitezakegu bereizketa eza. Bestalde, interesgarria da adibide gehienetan BERAZ/BADA ez daudela perpausaren aitzin buruan, barruan baizik:

(2) a.- *Etzaretela* ***beraz*** *hetarát irudi ...* (Leiz., Mt.,VI,8)

- *Ez çareten,* ***beraz****, hequien idurico ...* (Haran., Mt.,VI,8)

b.- *Etzaretela* ***bada*** *hequin parçoner.* (Leiz., Eph.,V,7)

- *Ez çaiteztela* ***beraz*** *jar hequien baltsaco* (Haran., Eph.,V,7)

(3) a.- *Cer* ***beraz*** *erranen dugu? ...* (Leiz., Rom.,IX,14)

- *Cer erranen dugu* ***beraz****?* (Haran., Rom.,IX,14)

b.- *... Cer* ***bada*** *nahi duçue daguicdan ...?* (Leiz., Mc.,XV,12)

- *... Cer nahi duçue,* ***beraz****, eguin deçadan judutarren erregeaz?* (Haran., Mc.,XV,12)

Adibide hauek ikusita, bi lokailuen artean desberdintasun handiegirik ez dagoela, are gehiago, baliokideak direla esan dezakegu.

EGLU-k bi lokailu hauek bereizten dituzten autoreetan oinarrituta, honako hau esaten digu:

> "*Horrenbestez esan daiteke* **beraz**-*ek bere aurreko solas zatiari egiten diola erreferentzia, esana bildu eta hura burututzat eta frogatutzat ematen duelarik.* **Bada**-*k aldiz ondoko solas zatiari egiten dio, hura iragartzen du, hari begiratzen eta hartara igortzen du irakurlearen arreta.* **Beraz**-*en ondoren esaten dena lehen ere esana dago nolazpait, ezaguna du irakurleak gutxi gorabehera aurreko lerroetatik.* **Bada**-*ren ondokoa aldiz ezezaguna eta berria da, mintzagai berria.*"[17]

Laburbilduz, BERAZ-ek aurreko perpausean azalduriko argudioari bukaera jartzen dio eta BADA-k hasiera ematen dio argudio berriari.

Hala ere, EGLU-k berak zehazten duenez, "*batez ere "estilo diskurtsibo" delakoaz eihotako liburuetan*"[18] antzematen da bereizketa hau eta Leizarragaren obrari bagagozkio, argi dago tratado diskurtsiboa ez denez gero, argudio gutxi aurkituko dugula. Izan ere, Leizarragaren pasarterik diskurtsiboena "sarrera-testuak" dira, eta hor ez da BERAZ ageri. Honekin, beraz, nahikoa litzateke Leizarragaren obran bereizketarik ez dagoela egiaztatzeko, bereizketaren bat egon zitekeen pasarte bakarrean -sarrera-testuetan- BADA lokailua aurkitzen dugulako beti.

Azkenik, aipatu behar dugu Leizarragaren erabileran kontestu bakar batean ematen duela bi lokailu hauek bereizten direla. Izan ere, pasarte horietan bi lokailuak -BADA eta BERAZ- agertzen zaizkigu; hortaz, perpaus batean BADA eta bestean BERAZ erabiltzen denez gero, bion arteko desberdintasuna hortxe somatu beharko genukeela pentsa

---

[17] Id., 162.or.

[18] Id., 149.or.

liteke; baina, hala ematen badu ere, ez da horrela. Azter ditzagun, bestela, hurrengo adibideak:

(4)- ... *Halacotz vtziren ditu guiçonac aita eta ama, eta iunctaturen çayo bere emazteari, eta içanen dirade biac haraguibat.*

Bada *guehiagoric eztirade biga, baina haraguibat.* **Beraz** *Iaincoac iunctatu duena, guiçonac ezteçala separa.* (Mt.,XIX,5-6)

(5)- *Hunegatic, vtziren ditu guiçonac bere aita eta ama, eta iunctaturen çayó bere emazteari.*

Eta biac içanê dirade haraguibat. **Beraz** *guehiagoric eztirade biga, baina haraguibat.*

Bada *Iaincoac iunctatu duena guiçonac ezteçala separa.* (Mc.,X,7-9)

Ikusten dugunez, bi pasarteak berdin-berdinak izan arren, lokailuen hauketa guztiz aleatorioa izan da. Beraz, ezin esan dezakegu BADA-k eta BERAZ-ek balio desberdinik adierazten dutenik.

Ikus dezagun, bidenabar, zer topatzen dugun grekeraz, latinez eta Haranederren obran:

(4)- **bada / beraz**

(5)- **beraz / bada** (LEIZ.)

(4)- **ὥστε / οὖν**

(5)- **ὥστε / οὖν** (GREK.)

(4)- **itaque / ergo**

(5)- **itaque / ergo** (LAT.)

(4)- **eta hala / beraz**

(5)- **eta hala / beraz** (HARAN.)

Beraz, adibide hauek ikusita, lokailuok, Leizarragarentzat behintzat, erabat baliokideak zirela, hots, edozein kontestutan bata zein bestea erabil zitekeela baiezta dezakegu.

2.4.2.2.3. Bestelako balioak.

Leizarragaren obran "ondoriozko" adieraz gain, beste zenbait balio somatu ditugu:

a) Lotura soila

Askotan lokailu honek ez du funtzio berezirik betetzen; hortaz, bi perpausen arteko lokarri hutsa dela esan genezake. Gogora dezagun, adibidez, Villasantek honetaz esaten zuena:

> "... *Hay que notar que* ***beraz, beraz hunelatan, bada*** *y otras locuciones (...) aparecen también empleados para servir de enlaces extraoracionales o como continuativos, para continuar y apoyar la oración y el contexto.*"[19]

EGLU-k ere, BADA lokailuak Literatura klasikoan izan duen erabilera aztertzean honako hau adierazten digu:

> "... *Ez dirudi halere elkarrizketan adina ñabardura duenik; ezin izan ere, halako ñabardurak izatea elkarrizketari dagokion bereizgarria baita, aise aditzen den bezala, eta "estilo diskurtsibo" delakoari aldiz, berez zor baitzaio neutroagoa, alegia usainik, kolorerik eta zaporerik gabea, gabeagoa behintzat izatea.*"[20]

Beraz, zenbaitetan, perpausak elkarri lotzeko baliabidea baino ez dela esan liteke. Ikus ditzagun adibide batzuk:

---

[19] VILLASANTE, L., Sintaxis de la Oración Compuesta, 164.or.

[20] EUSKALTZAINDIA, Euskal Gramatika Lehen Urratsak-III (Lokailuak), 161.or.

Beraz, adibide hauek ikusita, lokailuok, Leizarragarentzat behintzat, erabat baliokideak zirela, hots, edozein kontestutan bata zein bestea erabil zitekeela baiezta dezakegu.

2.4.2.2.3. Bestelako balioak.

Leizarragaren obran "ondoriozko" adieraz gain, beste zenbait balio somatu ditugu:

a) Lotura soila

Askotan lokailu honek ez du funtzio berezirik betetzen; hortaz, bi perpausen arteko lokarri hutsa dela esan genezake. Gogora dezagun, adibidez, Villasantek honetaz esaten zuena:

> "... *Hay que notar que* ***beraz, beraz hunelatan, bada*** *y otras locuciones (...) aparecen también empleados para servir de enlaces extraoracionales o como continuativos, para continuar y apoyar la oración y el contexto."*[19]

EGLU-k ere, BADA lokailuak Literatura klasikoan izan duen erabilera aztertzean honako hau adierazten digu:

> "... *Ez dirudi halere elkarrizketan adina ñabardura duenik; ezin izan ere, halako ñabardurak izatea elkarrizketari dagokion bereizgarria baita, aise aditzen den bezala, eta "estilo diskurtsibo" delakoari aldiz, berez zor baitzaio neutroagoa, alegia usainik, kolorerik eta zaporerik gabea, gabeagoa behintzat izatea."*[20]

Beraz, zenbaitetan, perpausak elkarri lotzeko baliabidea baino ez dela esan liteke. Ikus ditzagun adibide batzuk:

---

[19] VILLASANTE, L., Sintaxis de la Oración Compuesta, 164.or.

[20] EUSKALTZAINDIA, Euskal Gramatika Lehen Urratsak-III (Lokailuak), 161.or.

(1)- ... *Habil eure etcherát euretara, eta conta iecec (...)*

Ioan cedin ***bada****, eta has cedin predicatzen Decapolisen ...* (Mc.,V,19-20)

(2)- *Behar da beraz gurequin bildu içan diradê guiçon hautaric (...) bat eguî dadî haren resurrectionearen testimonio gurequin. Presenta citzaten* ***bada*** *biga, ...* (Apost.Act.,I,21-23)

Haranederrek dituen adibideetan ez dugu ondoriozkorik aurkitzen; gehienetan, **eta** emendiozkoak erabiltzen ditu, edo ezer ez. Beraz, perpaus hauetan BADA lokailuak ez dirudi funtzio berezirik betetzen duenik.

b) Aurkaritza:

Arrotz suerta badakiguke ere, BADA lokailuak zenbait adibidetan balio aurkaria duela ematen du. Gainera, grekera, latina edota Haranederren adibideak aztertzen baditugu, lokailu aurkariak topatzen ditugu:

(3)- *Etzaiteztela ceuroc mendeca, ene maiteác, baina leku emoçue hirari (...)*

Bada *baldin gosse bada hire etsaya, emóc iatera,...* (Leiz., Rom.,XII,19-20)

- ἀλλὰ ἐὰν πεινᾷ ὁ ἐχθρός σου, ψώμιζε αὐτόν ...

- ***Sed*** *si esurierit inimicus tuus, ciba illum; ...*

- ***Aitcitic*** *baldin gosse bada çure etsaya, emoçu jaterat; ...* (Haran., Rom.,XII,20)

(4)- *Eta ez gara Moysez beçala ceinec estalquia emaiten baitzuen bere beguitharte gainean, Israeleco haourréc abolitu behar cenaren finera beha ezleçatençát.*

Bada*, hayén adimenduac gogortu içan dirade ...* (Leiz., Cor.2,III,13-14)

- ***Ordean*** *tapatuac beçala egon dire hequien Izpirituac ...* (Haran., Cor.2,III,14)

Perpaus hauetan, beraz, BADA lokailuaren bidez adierazten dena aurreko perpausari kontrajartzen zaiola dirudi.

c) Banakaritza:

BADA lokailuak, errepikatzen denean, zentzu banakaria hartzen du. Baina, honetan ere, egiaztatzeko biderik ziurrena Haranederren adibideetara jotzea da, hauetan zentzu banakaria duten partikulak aurkitzen baititugu.

Ikus ditzagun adibideok:

(5)- **Bada** *Paul, **bada** Apollo, **bada** Cephas, **bada** mundua, **bada** vicitzea, **bada** herioa, **bada** presenteco gauçaric, **bada** ethortecoric, guciac dirade çuen ...* (Leiz., Cor.1,III,22)

- *Guciac ecen çuenac dire. **Nahiz** Paulo **nahiz** Apollo, **nahiz** Cephaz **nahiz** mundua, **nahiz** bicitcea **nahiz** heriotcea, **nahiz** presentecoac **nahiz** ethorquiçunecoac, guciac dire çuentçat.* (Haran., Cor.1,III,22)

(6)- *... batheyatu içan gara gorputzbat içateco, **bada** Iuduric, **bada** Grecoric, **bada** sclaboric, **bada** libreric ...* (Leiz., Cor.1,XII,13)

- *Alabaiñan Izpiritu beraz guciac bathayatuac gare, gorphutz bat eta bera içateco, **ala** judutarrac, **ala** jentillac, **ala** esclauoac, **ala** libroac; ...* (Haran., Cor.1,XII,13)

Beraz, BADA lokailuak har ditzakeen balioei dagokienez, esan dezagun hain erabilia izanik, balio anitz adieraz ditzakeela. Dena den, ez dezagun ahanz nagusitzen den adiera ondoriozkoa dela.

2.4.2.3. Tokia.

Azkenik, lokailu honen kokaguneaz ere zerbait esan beharko genuke. EGLU-k[21] esandakoan oinarrituta, oso mugikorra dela aipa dezakegu, perpausaren hasieran, barruan zein amaieran aurki dezakegularik. Nolanahi ere, zehaztu dezagun posizio guztietan ez dela maiztasun berdinaz agertzen; Leizarragaren obran, adibidez, maizenik perpausaren barruan aurkituko dugu (417 adibide), ondoren hasierako posizioa letorke (244 adibide) eta azkenik amaierako posizioa aipatu beharko genuke (7 adibide bakarrik):

1- PERPAUSAREN BARNEAN:

1.1. **Aditzaren ondoan**:

1.1.1. Aginte-perpausetan:

- *Emendadi* ***bada*** *eure malitia horretaric, ...* (Apost.Act.,VIII,22)

1.1.2. Galde-perpausetan:

- *... Nahi duc* ***bada*** *goacen eta bil deçagun hura?* (Mt.,XIII,28)

1.1.3. Adierazpen-perpausetan:

- *Ioan citecen* ***bada*** *leku desertu batetara ...* (Mc.,VI,32)

1.2. **Galde-hitzaren ondoan**:

- *... nolatan* ***bada*** *orain dacussa?* (Io.,IX,19)

- *Cer* ***bada*** *erranen dugu gauça hautara? ...*(Rom.,VIII,30)

1.3. **Bigarren posizioan, aditza ez den osagai baten ondoan**:

- *Harc* ***bada*** *iratzarri eta, har citzan ...* (Mt.,II,21)

---

[21] EUSKALTZAINDIA, Euskal Gramatika Lehen Urratsak-III (Lokailuak), 163-167.orr.

- ... *bere aitác* **bada** *ilkiric othoitz eguin cieçon.* (Lc.,XV,28)

- *Haren discipuluetaric* **bada** *anhitzec gauça haucençunic erran ceçaten ...* (Io.,VI,60)

- ... *orain* **bada** *athor, ...* (Apost,Act.,VII,34)

1.4. **Bigarren posizioan, aurrean menpeko perpaus bat duelarik:**

- *Dathorrenean* **bada** *mahasti iabeac cer eguinen drauë laborari haey?* (Mt.,XXI,40)

- *Daguiçuençat* **bada** *ecen guiçonaren Semeac baduela bothere ...* (Mc.,II,10)

2- PERPAUSAREN HASIERAN:

2.1. Adierazpen-perpausetan:

- **Bada** *norc-ere aboaturen bainau guiçonén aitzinean, aboaturen dut nic-ere hura ...* (Mt.,X,32)

2.2. Aginte-perpausetan:

- **Bada** *ficotzetic ikas eçaçue comparationea.* (Mc.,XIII,28)

3-PERPAUSAREN AMAIERAN:

- *Cer* **bada***? excellentago gara? ...* (Rom.,III,9)

- *Cer* **bada***? nola-ere baita (...) Christ predicatzen da ...* (Phil.,I,18)

Azken hau oso kokaleku urria da; gainera, ohart gaitezen elipsien ondorioz suertatzen dela.

2.4.3. HALA(Z), HALATAN, HORRELA

Ondoriozkoen artean BADA eta BERAZ lokailuez gain, beste partikula batzuk ere aurki ditzakegu; hauen artean HALA(Z), HALATAN eta HORRELA aipa ditzakegu.

2.4.3.1. Forma.

Formari gagozkiolarik, bi modu-aditzondo hartu behar ditugu oinarritzat: HALA eta HORRELA.

HALA ugariena da; izan ere, HORRELA behin baino ez da agertzen, eta bestalde, HALA aditzondotik eratorriak edo, beste forma batzuk ere baditugu: HALAZ eta HALATAN:

HALA:

- ***Hala*** *çuec-ere dacusquiçuenean gauça hauc guciac, albeitzineguite écen ...* (Mt.,XXIIII,33)

HALAZ:

- *... Iaincoaren haourrac eta elegituac repausatu eta consolatu içan dirade:* ***éta halaz*** *haci, sustengatu eta entretenitu vkan dute bere sperançá, ...* (Adv.,16-18,261.or.)

HALATAN:

- *... harçaz guiçonéc eçagut leçatençat cer den bekatua eta guiçonaren bihotzeco eta gogoco malitiá eta gaichtatassuna,* ***halatan*** *affectionatuquiago eta ordicozago Iesus Christen ethortea desira leçatençat ...* (Som.,15-19,275.or.)

HORRELA:

- *... eta diotsa Pierrisi,* ***Horrela*** *orembat ecin veillatu duçue enequin?* (Mt.,XXVI,40)

Bestalde, modu-aditzondo hauek, zenbaitetan, ETA emendiozkoari loturik agertzen direla aipatu behar dugu. Ikusi (Adv.,16-18,261.or.).

2.4.3.2. Balioa.

Aipatu dugunez, hauek guztiak, berez, modu-aditzondoak dira, baina zenbait kasutan ondoriozko adiera -BERAZ edo BADA lokailuen balioa- har dezakete.

Baina, bereiz ditzagun puntu batzuk:

1.- Aurreko ataletan ikusi ahal izan dugunez, adibide batzuetan modu-aditzondo hauek eta BERAZ edo BADA lokailuak batera aurkitzen ditugu:

> (1)- ***Hala beraz***, *norc-ere çuetaric bere on guciac ezpaititu renuntiatzen hura ecin date ene discipulu.* (Lc.,XIIII,33)
>
> (2)- ... *Reseruatu citiát neurorrêdaco çazpi milla guiçon belhaunic Baalen imaginari plegatu eztraucatenic.*
>
> ***Hala bada*** *dêbora hunetan-ere, reseruatione gratiazco electionearen arauez eguin içan da.* (Rom.,XI,4-5)

Adibide hauetan, modu-aditzondoek ondoriozko lokailuei itsastean, beren aditzondo-izaera galdu eta lokailuekin bat egiten dute. Beraz, dudarik gabe, ondoriozko adiera hartzen dute, baina ez beraiengatik, lokailuen arrimuan daudelako baizik.

2.- Edonola ere, Leizarragak, zenbaitetan, ondoriozko balio hau aditzera emateko HALA edo HORRELA lokailu soilak ere erabiltzen ditu:

> (3)- *Bere fructuetaric eçaguturen dituçue hec. Ala biltzen duté elhorrietaric mahatsic, edo karduetaric ficoric?*
>
> ***Hala*** *arbore on guciac fructu onac eguiten ditu, eta arbore gaichtoac fructu gaichtoac eguiten ditu.* (Mt.,VII,16-17)

Adibide honetan, HALA partikulak aditzondoa baino zerbait gehiago dela ematen du, honen ordez, BERAZ lokailua kokatuko bagenu esanahiak ez bailuke aparteko

aldaketarik jasango. Beraz, kasu honetan ondoriozko lokailutzat jo dezakegu.

Azter ditzagun beste adibide batzuk eta erka ditzagun Haranederrek aurkezten dizkigunekin ondoriozko balioa agerian gera dadin:

> (4)- ... *eta diotsa Pierrisi,* ***Horrela*** *orembat ecin veillatu duçue enequin?* (Leiz., Mt.,XXVI,40)
>
> - ... *Ecin egon çarete,* ***bada****, oren batez enequien atçarriac?* (Haran., Mt.,XXVI,40)

> (5)- *Eta baldin etchebat bere côtra partitua bada, ecin dauque etche hura.*
>
> ***Hala*** *baldin Satan-ere altcha badadi eta partitua bada bere contra, ecin dauque, baina fin du.* (Leiz., Mc.,III,25-26)
>
> - ***Beraz*** *baldin Satana altchatcen bada bera beraren contra, partitua diteque, ecin iraunen du, baiñan akhabo da hartaz.* (Haran., Mc.,III,26)

3.- Aztertu ditugun adibide hauetan guztietan ondoriozko adiera agerian dago; nolanahi ere, askotan, ondoriozkoak diren ala modu-aditzondo soilak diren ez da hain errez bereizten. Azter ditzagun, bada, hurrengo adibideak:

> (6)- *Eta eztute iraichequiten candelá eta hura eçarten gaitzurupean, baina candelerean, eta argui eguiten draue etcheco guciey.* ***Hala*** *argui begui çuen arguiac guiçonén aitzinean, ...* (Mt.,V,15-16)
>
> (7)- ... *eta sar dadin cembeit infidel edo ignorant, vençutzen da guciéz, eta iugeatzen da guciéz.* ***Eta halatan*** *haren bihotzeco secretuac manifestatzen dirade:* ***eta hala*** *ahoz beheraturic adoraturen du Iaincoa, ...* (Cor.1,XIIII,24-25)

Adibide hauetan ez dirudi HALA-ren bidez aurreko perpausean adierazitakoaren ondorioa adierazten denik. Beraz, forma hauek modu-aditzondoak direla baiezta genezake.

Halaber esan dezagun, adibide gehienetan hauxe dela nagusitzen den adiera. Haranederren obran, adibidez, HALA ondoriozkoa ugariagoa da; baina, Leizarragaren HALA gehienak modu-aditzondoak baino ez dira.

2.4.3.3. Tokia.

Azkenik, HALA ondoriozkoak hartzen duen kokaguneari dagokionez, beti bigarren perpausaren hasiera-hasieran agertzen dela aipatu behar dugu:

> - *Bere fructuetaric eçaguturen dituçue hec. Ala biltzen duté elhorrietaric mahatsic, edo karduetaric ficoric?*
>
> ***Hala** arbore on guciac fructu onac eguiten ditu, eta arbore gaichtoac fructu gaichtoac eguiten ditu.* (Mt.,VII,16-17)
>
> - *... eta diotsa Pierrisi, **Horrela** orembat ecin veillatu duçue enequin?* (Mt.,XXVI,40)

2.4.4. HARREN

Hasteko esan dezagun ez dela oso lokailu ugaria, obra osoa aztertuta, hamar adibide bakarrik aurkitu baititugu; edonola ere, lokailu honen ezaugarrien berri emateko aski izango direlakoan gaude.

Bestalde, har dezagun kontutan inon ez zaigula lokailu honen berri ematen. Hala eta guztiz ere, Leizarragaren obran aurkitu dugunez, adibideak aztertzen saiatuko gara.

Lokailu honen **BALIOA**ri dagokionez, kausazkotzat jo izan da Etxeparerengan eta Oihenartengan; baina, egia esan, kausalitatea ala ondorioa adierazten duen ez da hain argi bereizten, neurri handi batean bederen, HALACOTZ aditzondoaren parekoa delako:

> (1)- *Bethidanic Iaincoac badaçaguzqui bere obra guciac.* **Harren** *nic dut estimatzê ...* (Apost.Act.,XV,18-19)
>
> (2)- *Ecen Iaincoaren cerbitzari duc hire onetacotz: baina gaizquiric badaguic, aicén beldur: ecen eztic causa gabe ezpatá ekarten: ecen Iaincoaren cerbitzari duc, mendecari hiratan, gaizqui eguiten duenaren gainean.* **Harren** *behar da içâ suiéct ...* (Rom.,XIII,4-5)

Lehenengo begiratuan, badirudi HARREN lokailuak kausa adierazten duela. Dena den, Leizarragaren 10 adibideak Haranederrek dituenekin erkatuz gero, azken honek bi kasutan HARGATIC erabili arren, gainerako guztietan ondoriozko lokailuak darabiltzala konturatzen gara; eta gainera, batzuetan HARGATIC agertzen bada ere, ondoriozko lokailu bati loturik aurkitzen dugu, beraz ondoriozko adiera duen lokailu konposatu baten aurrean geundeke.

Ikus ditzagun adibide batzuk:

> (3)- *Cerê Legueac hirá engendratzê baitu: ecê non ezpaita lequeric, han ezta transgressioneric.* **Harren** *fedez da heretagea, ...* (Leiz., Rom.,IIII,15-16)

- **Hala** *fedeco direnentçat da primeça, ...* (Haran., Rom.,IV,16)

(4)- *Ecen Iaincoaren cerbitzari duc hire onetacotz: baina gaizquiric badaguic, aicén beldur: ecen eztic causa gabe ezpatá ekarten: ecen Iaincoaren cerbitzari duc, mendecari hiratan, gaizqui eguiten duenaren gainean.* **Harren** *behar da içâ suiect ...* (Leiz., Rom.,XIII,4-5)

- **Arren beraz**, *behar duçue içan sumetituac, ...* (Haran., Rom.,XIII,5)

(5)- *Ecen eztugu borrocá odolaren eta haraguiaren contra, baina principaltassunén contra (...)* **Harren**, *har eçaçue Iaunaré harmadura gucia, ...* (Leiz., Eph.,VI,12-13)

- **Hargatic beraz** *har çaçue Jaincoaren armadura, ...* (Haran., Eph.,VI,13)

(6)- *Ecen ezgaitu ordenatu Iaincoac hiracotzát baina saluamêduaren vkaitecotzát Iesus Christ gure Iaunaz (...) harequin batean vici garén.* **Harren**, *exhorta eçaçue elkar, eta edifica eçaçue batac bercea, ...* (Leiz., Thes.1,V,10-11)

- **Hargatic bada** *deçaçuen elkhar consola eta edifica batac bertcea, ...* (Haran., Thes.1,V,11)

Ikusten dugunez, Haranederren obran ondoriozko adiera nagusitzen da; beraz, honek Leizarragarenean gauza bera gertatzen dela pentsatzeko bidea ematen digu.

Azkenik, lokailu honek hartzen duen **KOKALEKUA**ri dagokionez, esan dezagun beti perpausaren aitzin-buruan azaltzen dela.

2.4.5. ORDUAN

Azken hau, benetan zalantzagarri suerta dakiguke, adiera bat baino gehiago har baititzake. Alde batetik, denbora-aditzondoa da; baina hortik ondorioa ere adieraztera hedatu dela dirudi. Ikus dezagun zer dioskun EGLU-k honetaz:

> "*Formari eta jatorriari bagagozkie, izen arrunt bat dugu hori inesibo kasuan. Jakina da gero denborazko aditzondoa izatera luzatu dela (...) eta gero, ez oso aspaldi literaturan bederen, lokailu eginbideetarako gaitu zuela eguneroko hizkerak, ahozkoak batez ere eta erro handiak egin, gainerako lokailuei lur handia jateraino. (...)*
>
> *Hegoaldean bezain zabaldua dago gutxi gorabehera ifarraldean. Han eta hemen, halere, literaturan baino egunoroko hizkeran eta hizkera horren ispilu izan nahi duten liburuetan gehiago. Baina han bezala hemen, ez oso aspaldidanik, literaturan bedere.*"[22]

EGLU-k esana aintzat harturik, Leizarragak darabilen ORDUAN aditzondo soila baino ez dela aitortu behar dugu, alde batetik, ORDUAN lokailua, literaturan behintzat, azken urteotan hedatu delako; eta bestetik, lokailu hau, batez ere eguneroko hizkeran edota hizkera hori isladatu nahi duten liburuetan agertzen delako.

Nolanahi ere, erka ditzagun adibide batzuk Haranederrek dituenekin zalantzarik egon ez dadin:

> (1)- *Eta ihardesten çuela Iesusec erran cieçón, Vtzac oraingoz: ecen hunela complitu behar diagu iustitia gucia.* ***Orduan*** *vtzi ceçâ eguitera.* (Leiz., Mt.,III,15)
>
> - ... ***Orduan*** *Joanesec utzi çuen eguiterat.* (Haran., Mt.,III,15)
>
> (2)- *Eta ikussiric Iesusec gendetzeac, compassione har ceçan heçaz, (...)* ***Orduan*** *dioste bere discipuluey, ...* (Leiz., Mt.,IX,36-37)

---

[22] EUSKALTZAINDIA, Euskal Gramatika Lehen Urratsak-III (Lokailuak), 169-170.orr.

- *Diotsate* **orduan** *bere dizcipuluei* ... (Haran., Mt.,IX,37)

Haranederrek Leizarragak bezala jokatzen du; baina grekerara edo latinera jotzen badugu, hizkuntz hauetan **τοτε** eta **tunc** denbora-aditzondoak aurkitzen ditugu. Beraz, Leizarragak eta Haranederrek darabiltzaten formak ondoriozko lokailuak direla esatea gauzak gehiegi bortxatzea izango litzateke.

Nolanahi ere, zenbait adibidetan, perpausen arteko lokarria dela dirudi. Gainera, Haranederrengana jotzen badugu, ez dugu aditzondorik aurkitzen, emendiozko lokailuak baizik:

(3)- *Eta inguratzen çuen Galilea gucia Iesusec, hayén synagoguetan iracasten ari cela (...)* **Orduan** *io ceçan haren famác Syria gucia* ... (Leiz., Mt.,IIII,23-24)

- **Eta** *nola haren fama barrayatu baitcen Siria gucian,* ... (Haran., Mt.,IIII,24)

(4)- *Eta hec presenta cieçoten:* **orduan** *dioste,* ... (Leiz., Mc.,XII,16)

- *Ekharri cioten* **eta** *harc erran çaroen* ... (Haran., Mc.,XII,16)

Adibide gehiago aipa litezke; dena den, hauek aztertuta, argi ikusten da Leizarragak darabilen ORDUAN gehienetan denbora-aditzondoa dela eta, batzuetan, bi perpausen arteko lokarria ere izan daitekeela. Ez dirudi, beraz, honen bidez, ondoriorik adierazten denik.

2.5. KAUSAZKOAK

Perpaus juntatuen artean kausazkoez hitz egitea arrotz suerta dakiguke, orokorrean kausazkoak menpeko perpausen barruan kokatzen direlako. Geuk ere halaxe egingo dugu; dena den, juntatuen artean ere aipamen berezi bat merezi dute, batez ere Leizarragarren erabilera aintzat hartzen badugu.

Gainera, euskal gramatikak aztertzen baditugu gramatikari batzuek, hala nola, P.Lafittek[1] edo L.Villasantek[2] kausazkoen artean juntatuak eta menpekoak bereizten dituztela ohartzen gara. Ekar ditzagun gogora Villasanteren hitzak:

> "*Desde el punto de vista morfológico en vasco son, pues, claramente distinguibles las oraciones causales coordinadas y las subordinadas. Coordinadas son las que se forman mediante una conjunción-vocablo sin afijo alguno que afecte al verbo. Subordinadas, en cambio, las que se forman con algún prefijo o sufijo que afecta al verbo; este prefijo o sufijo puede además estar en conexión con una conjunción-vocablo (anafórico), lo que no obsta para que siga siendo subordinada la tal oración. (...)*
>
> *Con todas las reservas parece que se puede afirmar que la causa verdaderamente determinante o de más rotundidad se expresa preferentemente con la subordinación; y la que es más débil o de menor entidad, con la coordinación. (...) Además tampoco hay que olvidar que el calibrar esto en casos concretos es algo que en gran parte queda al arbitrio del propio hablante y/o escribiente.*"

Dena den, ez dirudi kausazko juntagailuez hitz egin daitekeenik, hemen daukaguna bi perpausen artean suertatzen den harreman semantikoaren berri ematen duten lokailuak baitira. Bi perpauson arteko lotura sintaktikoa,

---

[1] LAFITTE, P. Grammaire Basque (Navarro-Labourdin Littéraire), 177.or.

[2] VILLASANTE, L. La oración causal en vasco, 254-256.orr.

beraz, ez dute lokailu hauek gauzatzen, alborakuntzak baizik.

Leizarragaren erabilera aztertzen badugu, kausazko lokailu bakarra erabiltzen duela ohartzen gara. Dena den, ez dezagun pentsa bakarra izateagatik garrantzi urrikoa denik, Leizarragak kausalitatea, nagusiki, lokailu honen bidez adierazten baitu; zehatzago esanda, menpeko kausazkoak eta lokailu honen bidez sortzen direnak erkatzen baditugu, azken hauek askoz ugariagoak direla jabetzen gara.

Bestalde, kausa adierazteko, lokailu honez gain, beste aditzondo eta esapide batzuk ere aipa ditzakegu. Edonola ere, zehaztu dezagun hauek deklinabide-kasuak, posposizioak edo aditzondoak direla. Beraz, gure azterketan ECEN lokailua izango da aztergai nagusia.

Ikus dezagun zeintzuk diren formarik erabilienak:

2.5.1. LOKAILUA:

* **ECEN**

2.5.2.BESTELAKOAK:

* **HALACOTZ**
* **HUNEGATIC**
* **-T(Z)EAGATIC / -GATIC**
* **-(R)EN CAUSAZ**
* **-(R)EN AMORECATIC**

2.5.1. ECEN

Kausa adierazten duten baliabide anitz aurki ditzakegu, baina gehienak menpeko perpausen eremuan sartu behar ditugu; Leizarragaren obran, ostera, erabiliena menderagailuen eremutik at atera behar dugu, ECEN ezin baitezakegu menderagailutzat jo.

Azter ditzagun, bada, forma honen zer-nolakoak:

2.5.1.1. Forma eta funtzioa.

Sarreran ikusi ahal izan dugunez, bai Lafittek bai Villasantek ECEN konjuntziotzat daukate; beraz, perpaus juntatuen eremuan kokatzen dute. Izan ere, ECEN lokailua daramaten perpausen eta menpeko perpausen artean, morfologiari dagokionez behintzat, desberdintasunak soma ditzakegu:

> - *Boz eta aleguera çaitezte,* ***ceren*** *çuen saria handi* ***baita*** *ceruëtan* ***ecen*** *hala persecutatu vkan dituzté çuen aitzineco Prophetác.* (Mt.,V,12)

Adibide honetan ikus dezakegunez, CEREN anaforikoak aditzean aurrizki bat darama: BAIT-. ECEN formak, berriz, aditza bere hartan uzten du, aurrizkirik ez atzizkirik hartzen ez duela.

ECEN perpaus juntatuen eremuan sartu ahal izateko beste froga bat adizki alokutiboen erabilerak eskain liezaguke:

> "... *Los afijos conjuntivos subordinantes, como* ***bait-, -n, -naz geroz*** *por ejemplo, no permiten que el verbo afectado por ellos reciba tales flexiones; en cambio, las conjunciones coordinantes, como* ***ezen****, sí.*
>
> *En un autor como Leizarraga, que recurre constantemente a la conjungación alocutiva, la excepción impuesta por la ley dicha, nos sirve para constatar la diferencia clara y neta entre subordinación y coordinación en el campo de las oraciones causales."*

Leizarragak oso maiz erabiltzen ditu adizki alokutiboak, baita ECEN formaren bitartez eraikitako perpausetan ere:

- *... idoqui eçac hura, eta iraitzac eureganic:* ***ecen*** *hobe duc hiretaco ...* (Mt.,V,29)

- *... baina misericordia eguin içan ciaitadac:* ***ecen*** *ignorâtiaz eguin vkan diat, ...* (Tim.1,I,13)

Kausazko perpausetan CEREN forma dugunean, berriz, sekula ez dugu adizki alokutiboen arrastorik topatzen. Dena dela, kontutan izan behar dugu Leizarragak ez duela CEREN Axularrek bezala erabiltzen, Axularren erabileran hiru CEREN bereiz ditzakegu eta:

CEREN ... O / CEREN ... BAIT- / CEREN ... -(E)N

Azken biak, noski, menpeko perpausen artean kokatu behar ditugu; baina lehenengoa, aditzak atzizki ez aurrizkirik hartzen ez duenez, juntatuen edo alboratuen artean koka dezakegu.

Leizarragak ez du halako erabilerarik, honek darabiltzan CEREN guztiak menpeko perpausen eremuan sartu behar baititugu:

CEREN ... BAIT- / CEREN ... -(E)N

Hau horrela izanik, ez dago tokirik adizki alokutiboentzat:

- *Esquerrac emaitê drauzquiot Iaincoari* ***ceren ezpaitut*** *çuetaric nehor bathéyatu, ...* (Cor.1,I,14)

- *... eta hil vkan dic hire aitac aretze guicembat,* ***ceren*** *ossoric hura recebitu* ***duen***. (Lc.,XV,27)

Argi dago, beraz, ECEN ezin dugula menpeko perpausen artean kokatu, alde batetik aditzak aurrizkirik ez

---

[3] VILLASANTE, L. La oración causal en vasco, 78.or.

atzizkirik hartzen ez duelako, eta bestetik, adizki alokutiboak onartzen dituelako.

Laburbilduz, partikula honen bidez kausalitatea adierazten dela agerian dago. Dena den, juntagailu izateko, perpausak zein perpausetik beheragoko osagaiak elkartzeko gauza izan beharko luke; baina ECEN aztertuz gero, hau ezinezkoa dela ohartzen gara. Beraz, bidezkoena, ECEN bi perpausen artean suertatzen den kausalitate-harremanaren berri ematen duen lokailutzat jotzea da.

2.5.1.2. Tokia.

ECEN-ek oso kokaleku tinkoa du, beti erlazionatzen dituen bi perpausen artean aurkitzen baitugu:

- ... *confirmaitzaçue çuen bihotzac:* **ecen** *Iaunaren aduenimendua hurbil da.* (Iac.,V,8)

- ... *halatan misericordia eguinen draucu:* **ecen** *hura ethorri içan da mundura ...* (Som.,9-10,278.or.)

Lokailuak betetzen duen funtzioa aintzat harturik, honek dirudi tokirik egokiena. Hortaz, Leizarragak sekula ez du ECEN lokailua beste posizio batean kokatzen; dena den, honek ez du esan nahi kokaleku hori unibertsala edo idazle guztiek erabilia denik. Azter dezagun, adibidez, Haranederren erabilera:

1.- Zenbait adibidetan, Leizarragak bezalaxe jokatzen du, hau da, ECEN lokailua harremanetan dauden bi perpausen artean kokatzen du:

(1)- ... *Vtzan behin haourrac ressasia ditecen:* **ecen** *eztun gauça bidezcoa ...* (Leiz., Mc.,VII,27)

- ... *Utçacu sassia deitecen behin haurrac,* **ecen** *ez da ungui ...* (Haran., Mc.,VII,27)

(2)- ... *Etzaretela beldur:* **ecen** *huná, euangelizatzen drauçuet ...* (Leiz., Lc.,II,10)

- ... *Ez duçuela beldurric;* **ecen** *berri handi bat ematerat heldu natçaitçue, ...* (Haran., Lc.,II,10)

2.- Beste askotan, berriz, Leizarragarena ez bezalako jokabidea agertzen du, ECEN lokailua, bigarren perpausaren barruan kokatuz, bai aditzaren ondoan, bai beste edozein osagairen ondoan:

(3)- ... *Emenda çaitezte:* **ecen** *ceruëtaco resuma hurbil da.* (Leiz., Mt.,III,2)

- ... *Eguiçue penitencia, hurbil da* **ecen** *ceruetaco erresuma.* (Haran., Mt.,III,2)

(4)- ... *arrangura citecen.* **Ecen** *Phariseuéc eta Iudu guciéc, maiz escuac ikuciric baicen, eztute iaten.* (Leiz., Mc.,VII,2-3)

- ... *erassi çuten hequien contra. Pharisauec* **ecen** *eta judutar guciec ere ez dute jaten escuac maiz garbituric baicen, ...* (Haran., Mc.,VII,2-3)

2.5.1.3. Zein kontestutan agertzen den.

Lokailu den aldetik, ECEN-ek ezin du ez perpausik ez perpausetik beheragoko osagairik elkartu. Lokailuen eginkizuna beste juntagailu batek elkartzen dituen perpausei edota alboraturik dauden bi perpausei kutsu berezia eranstea izaten da. Dena den, ECEN lokailuaren kasuan, ezin esan daiteke harremanetan dauden bi perpaus horiek beste juntagailu batek juntatuak direnik, ECEN lokailua ez baita inoiz beste juntagailu baten arrimuan agertzen. Hortaz, harremanetan dauden bi perpaus horiek beren autonomia mantentzen dutela edo, gehienez, alborakuntzak elkarturiko perpausak direla esan behar dugu.

Beraz, perpaus beregainen arteko harremana denez, era guztietako perpausak aurki ditzakegu. Orokorrean, ECEN lokailua daramana adierazpen-perpausa izaten da, aurrekoa, berriz, adierazpen, galde zein aginte-perpausa izan daiteke:

1- Adierazpen-perpausa + Adierazpen-perpausa:

- *Baina gauça guciac, camporatzen diradenean arguiaz, manifestatzen dirade:* **ecen** *gucia manifestatzen duena, arguia da.* (Eph.,V,13)

- *Baina eztié guehiagoric auâçaturen:* **ecen** *hauén erhogoá claro içanê duc ...* (Tim.2,III,9)

2- Aginte-perpausa + Adierazpen-perpausa:

- *... ioan adi Israeleco lurrerát,* **ecen** *haourtchoaren arimarê ondoan çabiltzanac hil içan dituc.* (Mt.,II,20)

- *... renda eçac eure despêsaren contua:* **ecen** *guehiagoric ecin aiçate despensér.* (Lc.,XVI,2)

(Kontestu honetan aurkitzen dugu maizenik ECEN lokailua)

3- Galde-perpausa + Adierazpen-perpausa:

- *... Nolatán hori eçaguturen dut?* **ecen** *ni nauc çahar, eta ene emaztea duc bere egunetan aitzinaratua.* (Lc.,I,18)

- *Eta cer erranen dut guehiago?* **ecen** *dembora faltaturen çait, ...* (Hebr.,XI,32)

Hirugarren kontestu honetan zehaztapen bat egin behar dugu. Ikus ditzagun hurrengo adibideak:

- *... Cergatic fatigatzen duçue emazte haur?* **ecen** *obra ombat enegana obratu du.* (Mt.,XXVI,10)

- *... cergatic menospreciatzen duc eure anayea?* **Ecen** *guciac comparituren gara ...* (Rom.,XIIII,10)

Adibide hauetan CERGATIC galde-hitza daraman galde-perpausa dugu batetik, eta honen ondoan ECEN lokailua daraman perpausa; baina nahiz eta biak -CERGATIC eta ECEN- elkarren ondoan agertu, bigarren perpausa ez da inondik inora lehenengoaren erantzuna, galde-perpausak bere baitan duen erantzukiaren arrazoia baizik.

Honez gain, erka ditzagun goiko adibideak hurrengoekin:

- ... *Cergatic hemen çaudete egun gucian alfer? Diotsate,* **Ceren** *nehorc* **ezpaiquaitu** *alocatu.* (Mt.,XX,6-7)

- ... *cergatic nigarrez ago? Dioste,* **Ceren** *kendu* **baitute** *ene Iauna, eta* **ezpaitaquit** ... (Io.,XX,13)

Beraz, CERGATIC galde-hitzaren erantzuna CEREN anaforikoaren bidez adierazten da, baina inoiz ez ECEN lokailuaren bitartez.

Azkenik, galde-perpausez ari garenez, esan dezagun ECEN lokailua daraman perpausa, normalean, adierazpen-perpausa bada ere, zenbaitetan galde-perpausa ere izan daitekeela:

- ... *baina norc-ere galduren baitu bere vicia ene causaz, saluaturen du hura.* **Ecen** *cer probetchu du guiçonac ...?* (Lc.,IX,25)

- *Baina guiçon spiritualac iugeatzê ditu gauça guciac, eta bera ezta nehorçaz iugeatzen.* **Ecen** *norc eçagutu du Iaunaren intentionea, hura instrui deçan?* ... (Cor.1,II,15-16)

2.5.1.4. Balioa.

Aipatu dugunez, kausa adierazteko ECEN lokailua da formarik erabiliena.

Edonola ere, gogora dezagun, ECEN lokailua kausazko perpausetan ezezik, beste perpaus mota batzuetan ere aurki dezakegula, hala nola, konpletiboetan edota konparatiboetan. Dena den, perpaus hauen arteko bereizketa oso argia denez, inoiz ez dugu zeinen aurrean aurkitzen garen jakiteko eragozpenik izango:

- ... *baceaquiagu* **ecen** *eguiati aicela, eta nehoren ansiaric eztuála:* **ecen** *ezago guiçonén apparentiara beha* ... (Mc.,XII,14)

Pasarte beraren barruan bi ECEN baditugu ere, nekez nahastuko genituzke, lehenengoa perpaus konpletiboaren

osagarria dela eta bigarrena kausa adierazten duen lokailua dela agerian baitago.

Nolanahi ere, Leizarragaren obran bi ECEN hauen arteko bereizketa oso argia bada ere, ez dezagun ahaztu zenbait idazletan, batzuetan behintzat, zalantzagarriak suerta daitezkeela -hitzen ordenagatik-. Ikus ditzagun Haranederren adibide batzuk:

> (1)- ... *populu guciac harricatuco gaitu, segur daducate* **ecen** *Joannes profeta cela.* (Haran.,Lc.,XX,6)
>
> (2)- ... *ordean populuaren ciren beldur, eçagutu çuten* **ecen** *hequientçat erran içan çuela comparacione hura.* (Haran., Lc.,XX,19)

Bi adibide hauetan agertzen diren ECEN horiek, azaleko azterketa bat eginez gero, konpletiboaren osagarriak direla pentsa liteke, batez ere, agertzen direneko posizioan oinarriturik; dena den, konpletiboaren barruan sartuko bagenitu, perpausen arteko lotura eza nabarmena izango litzateke. Beraz, hau nahikoa litzateke kausazkoen artean sartzeko, batez ere, Haranederrek kausazko lokailu hauek perpausaren hasieran zein barruan kokatzen dituela kontutan hartzen badugu.

Leizarragarengana jotzen badugu, ordea, ez dugu zalantza-izpirik izango:

> (1')- ... *populu guciac lapidaturen gaitu:* **ecen** *segur daducate, Ioannes Propheta cela.* (Leiz., Lc.,XX,6)
>
> (2')- ... *baina populuaren beldur citecen:* **ecen** *eçagutu vkan çutén hayén côtra erran çuela comparatione haur.* (Leiz., Lc.,XX,19)

Bestalde, ECEN konparatiboei dagokienez, konpletiboak bezain argiak edo are argiagoak direla aitortu behar dugu, konparatiboa denean ECEN EZ aurkituko baitugu beti. Ikus dezagun adibide bat:

> - ... *eguiaz erraiten drauçuet* **ecen** *bozcario guehiago duela harçaz,* **ecen ez** *lauroguey eta hemeretzi errebelatu etziradenez.* (Mt.,XVIII,13)

ECEN kausazkoari bagagozkio, lehendabizi, lokailu honek adierazten duen kausalitatearen eta menpeko perpausen artean kokatzen ditugun kausazkoen bidez adierazten den kausalitatearen artean ea desberdintasunik dagoen aztertu beharko genuke.

Egia esan, ez dut uste -morfologia alde batera utzirik, noski- balioari dagokionez, desberdintasun handiegirik antzeman daitekeenik. Dena den, baieztapen hau egiaztatzen saiatu aurretik, har ditzagun kontutan bereizketaren aldeko argumentuak.

Auzi honetaz, egia esan, ez da ia inor arduratu, kausazko perpaus txertatuen eta juntatuen arteko bereizketa gaitzetsi egin delako. Dena den, desberdintasuna defendatu zuen gramatikari baten hitzak ekar ditzakegu gogora, Villasanterenak, hain zuzen ere:

> *"Esannahitik ere antzematen zaie, noski. Esannahiaren aldetik, subordinatuak kausa erreala adierazten dutela esan ohi da; koordinatuek, aldiz, kausa logikoa"*[4]

> *" Con todas las reservas parece que se puede afirmar que la causa verdaderamente determinante o de más rotundidad se expresa preferentemente con la subordinación; y la que es más débil o de menor entidad, con la coordinación. (...) Además tampoco hay que olvidar que el calibrar esto en casos concretos es algo que en gran parte queda al arbitrio del propio hablante y/o escribiente."*[5]

Hitz hauek ontzat emango bagenitu, ECEN lokailuaren bidez, kausalitate ahulagoa adierazten dela aitortu beharko genuke. Hau da, egiazko kausa adierazi beharrean, neurri handi batean behintzat, aurreko perpausean adierazitakoaren azalpen moduko bat baino ez dela adierazten esan beharko genuke. Dena den, ikus dezagun Mitxelenak egiten dion oharra:

---

[4] VILLASANTE, L. , LASARTE, Mª P., "Perpaus kausalak Lapeyre idazlea baitan" Euskera, XXV, 540.or.

[5] VILLASANTE, L., La oración causal en vasco, 256.or.

"No hay causas lógicas. Hay, o se supone que hay causas en el mundo real, pero no en inferencia lógica."

Dena den, bereizketarik dagoen ala ez zehazteko, biderik ziurrena Leizarragaren obran aurkitzen ditugun adibideetara jotzea dugu. Zenbait pasartetan, CEREN eta ECEN, biak, aurki ditzakegu; beraz jo dezagun grekerara eta latinera ea hizkuntz hauetan desberdintasunik dagoenentz ikusteko:

(1)- *Baina maledictione çuen gainean Scriba eta Phariseu hypocritác:* ***ceren*** *ersten* ***baituçue*** *ceruëtaco resumá guiçonén aitzinean:* ***ecê*** *çuec etzarete sartzen, eta sartzen diradenac eztituçue vtziten sartzera.* (Mt.,XXIII,13)

(2)- *Eta guero baçabilan Iesus Galilean:* ***ecen*** *etzén Iudean ebili nahi,* ***ceren*** *Iuduac* ***baitzabiltzan*** *hura hil nahiz.* (Io.,VII,1)

Perpaus hauek eta gehiago erkatuta, grekeran eta latinean bereizketa dagoela ikus dezakegu; izan ere, hona hemen zer aurkitu dugun:

- **ECEN / γὰρ / enim**
- **CEREN / ὅτι, διότι / quia, quoniam**

Hau ikusita, badirudi Leizarragak hizkuntza klasikoetan burutzen den bereizketa honetan oinarritutik erabiltzen duela bata edo bestea, Leizarragak ECEN darabilen adibide gehienetan, grekeraz **γὰρ** eta latinez **enim** aurkitzen baititugu. Baina, ohart gaitezen "adibide gehienetan" esan dugula eta ez "guztietan", adibide askotan hala gertatzen bada ere, fenomenoa ez baita guztiz sistematikoa. Bestela, azter ditzagun hurrengo adibideak:

(3)- *... ilki adi fitetz Ierusalemetic,* ***ecen*** *eztié recebituren hic niçaz emanen drauean testimoniagea.* (Apost.Act.,XXII,18)

MITXELENA, K., in VILLASANTE, L., Sintaxis de la oración compuesta, 154.or.

– ... ἔξελθε ἐν τάχει ἐξ Ἰερουσαλήμ, διότι οὐ παραδέξονταί σου μαρτυρίαν περὶ ἐμοῦ.

- ... *exi velociter ex Ierusalem,* **quoniam** *non recipient testimonium tuum de me.*

(4)- ... *eta suz erreren da:* **ecen** *Iainco Iauna borthitz da, ceinec iugeaturen baitu hura.* (Apo.,XVIII,8)

– ... καὶ ἐν πυρὶ κατακαυθήσεται. ὅτι ἰσχυρὸς Κύριος ὁ Θεὸς ὁ κρίνας αὐτήν.

- ... *et igni comburetur:* **quia** *fortis est Dominus Deus qui iudicavit illam.*

Hona hemen adibide hauetan aurkitzen duguna:

- **ECEN / ὅτι, διότι / quia, quoniam**

(Aurreko orrialdean CEREN menderagailuaren baliokidetzat jo ditugunak, hain zuzen ere)

Hortaz, adibide hauetan ECEN lokailuaren lekuan CEREN anaforikoa kokatuko bagenu, perpausa guztiz zilegi litzateke. Beraz, zenbait adibidetan behintzat, ECEN lokailuak CEREN anaforikoak duen balio berdina adieraz dezakeela onartu behar dugu.

Bestalde, grekerara edo latinera jo gabe, Leizarragaren beraren adibideak aztertuta, hainbat kasutan CEREN anaforikoa eta ECEN lokailua errankideak direla ohart gaitezke, pasarte berdinak edo ia berdinak euskaratzeko biak (batzuetan bata, besteetan bestea) erabiltzen baititu. Azter ditzagun, bada, hurrengo bikoteak:

(5)- *Bada dohatsu dirade çuen beguiac,* **ecen** *ikuśten duté: eta çuen beharriac,* **ecen** *ençuten duté.* (Mt.,XIII,16)

(5')- *Dohatsu dirade emeac:* **ceren** *hec lurra heretaturen* **baitute**. (Mt.,V,5)

(6)- *Orduan ikiric ikus ceçan gendetze handia Iesusec, eta compassione har ceçan heçaz:* **ecen** *ardi artzain gabeac beçala ciraden ...*(Mc.,VI,34)

(6')- *Eta ikussiric Iesusec gendetzeac, compassione har ceçan heçaz,* **ceren baitziraden** *errebelatuac eta barreyatuac ardi artzainic eztutenac beçala.* (Mt.,IX,36)

(7)- *... eta ardiac hari iarreiquiten çaizca,* **ecen** *eçagutzen dute haren voza.* (Io.,X,4)

(7')- *Eta arrotz bati etzaizca iarreiquiren, baina ihes eguinen draucate:* **ceren ezpaitute** *eçagutzen arrotzén voza.* (Io.,X,5)

Ikusten dugunez Leizarragak ia berdinak diren pasarteak euskaratzeko, batzuetan ECEN eta besteetan CEREN erabili du, jokabide honekin, biak baliokideak diren seinale ezin argiagoa eskainiz.

Beraz, zein puntutaraino onar daiteke Villasantek eginiko bereizketa, adibide gehienetan behintzat, ECEN lokailuak menderagailuen bidez adieraziko genukeen kausalitate bera adierazten badu?

Bestalde, Leizarragaren ECEN lokailudun adibideak Harenederrek dituenekin erkatzen baditugu, ondorio bera aterako dugu. Haranederrek ere ECEN lokailua darabil, baina Leizarragaren ECEN-en ordainean beste hainbat menderagailu ere erabiltzen ditu. Hona hemen ugarienak:

* ECEN:

- *... ezterrala Iaincoaz tentatzen dela:* **ecen** *Iaincoa ecin têta daite gaizquiz, eta nehor eztu tentatzen.* (Leiz., Iac.,I,13)

- *... ez beça erran Jaincoac tentatcen duela, Jaincoa* **ecen** *ez da gai gaizqui eguiterat tentatceco eta ez du ere nihor tentatcen.* (Haran., Iac.,I,13)

* ALABAINAN:

- ... *baina gorputz batetaco membro guciac, anhitz diradelaric, gorputzbat dirade: hala da Christ-ere.* **Ecen** *Spiritu batez gu gucioc batheyatu içan gara gorputzbat içateco, ...* (Leiz., Cor.1,XII,12-13)

- ... *hala ere gorphutz bakhar diren beçala, gauça bera da Jesuchristoz ere.* **Alabaiñan** *Izpiritu beraz guciac bathayatuac gare, gorphutz bat eta bera içateco ...* (Haran., Cor.1,XII,12-13)

* CEREN (ETA)...BAIT-:

- ... *Aleguera çaitezte enequin:* **ecen** *eriden dut neure ardi galdua.* (Leiz., Lc.,XV,6)

- ... *Bozcaria çaitezte enequien,* **ceren eta** *aurkhitu içan* **baidut** *ene ardi galdu nuena.* (Haran., Lc.,XV,6)

* CEREN...-(E)N:

- *Halacotz erraiten drauat barkatu çaizcala bere bekatu anhitzac,* **ecen** *haguitz onhetsi dic ...* (Leiz., Lc.,VII,47)

- *Hargatic darotçut erraten barkhatcen çaizcoela hainitz bekhatu,* **ceren duen** *hainitz maitatu ...* (Haran., Lc.,VII,47)

* CERGATIC...BAIT-:

- ... *Eçagut eçac Iauna:* **ecen** *eçaguturen nauté chipienetic hayén arteco handieneranoco guciéc.* (Leiz., Hebr.,VIII,11)

- ... *Eçagut çaçu Jauna;* **cergatic** *guciec eçagutuco* **bainaute**, *chumenetic handieneraiñoco guciec,* (Haran., Hebr.,VIII,11)

* -(E)NAZ GUEROZ:

- ... *iaten duena ezteçan iudica.* **Ecé** *Iaincoac hura bere recebitu vkâ du.* (Leiz., Rom.,XIII,3)

- ... *jaten ez duenac ez beça condena gucietaric jaten duena, Jaincoac hartu* **duenaz gueroz** *bere cerbitçurat.* (Haran., Rom.,XIV,3)

* BAIT-:

- ... *Cer eguiten dugu,* **ecen** *guiçon hunec anhitz signo eguiten du.* (Leiz., Io.,XI,47)

- ... *"Cer hari gare gu?, quiçon hunec miracuillu hainitz eguiten* **baidu**. (Haran., Io.,XI,47)

Beraz, hasieran aipatu dugunez, adibide gehienetan -guztietan ez esateagatik- ECEN lokailua, semantikoki, kausa adierazten duten multzo handiago baten barruan kokatu beharko genuke, inolako bereizketarik egin gabe.

2.5.2. BESTELAKO ESAPIDEAK

Aurreko atalean ikusi ahal izan dugunez, kausa adierazteko baliabiderik erabiliena ECEN lokailua da. Dena den, atal hau bukatu aurretik, Leizarragak kausa adierazteko, lokailuez gain, erabiltzen dituen beste hainbat formaren berri ematea interesgarri suerta liteke.

Edozein modutan, ohart gaitezen, atal honetan aipatuko ditugunak, aditzondoak, esapideak edo deklinabidearen barruan aurki ditzakegun kasu-markak baino ez direla. Beraz, azaleko azterketa bainc ez diegu eskainiko.

2.5.2.1. HALACOTZ / HUNEGATIC

Kausa adieraz dezaketen aditzondoen artean bi hauek aipatu behar ditugu. Dena den, zehaztu dezagun maiztasunari dagokionez, HALACOTZ bestea baino ugariagoa dela.

Aditzondo hauek, zenbait kasutan ondoriozko edo helburuzko kutsua ere har dezakete, baina gehienetan kausazko adiera nagusitzen da.

Bestalde, gogora dezagun HALACOTZ aditzondoak aldaera batzuk izan ditzakeela. Ikus ditzagun adibide batzuk:

* HALACOTZ:

- *... itzal eguinê draun* ***eta halacotz*** *hitaric sorthuren den saindua, Iaincoaren Seme deithuren dun.* (Lc.,I,35)

* HUNETACOTZ:

- *... deabruac bekatu eguiten du:* ***hunetacotz*** *aguertu içan da Iaincoaren Semea ...* (Io.1,III,8)

* HUNETARACOTZ:

- *... hura bere verthutez resuscitatu içan da, bere icenean bekatuac barkatu vkan ditu.* ***Eta***

hunetaracotz *etzuê causa gabe erraiten, ...* (Adv.,5-7,265.or.)

* HUNETACOTZAT:

- *... eztugu certaco berce, chedetara buru daguigun (...)* **Eta hunetacotzat** *dio S.Paulec ecen eztuela deus iaquitera ez eçagutzera estimatu vkan Iesus Christ baicen, ...* (Adv.,22-28,272.or.)

* HUNEGATIC:

- *Baina creatione hatsetic, arra eta emea eguin cituen Iaincoac.* **Hunegatic,** *vtziren ditu guiçonac bere aita eta ama, ...* (Mc.,X,6-7)

2.5.2.2. -GATIC / -T(Z)EAGATIC

Deklinabidearen arloan sartzen bagara, nahitaez, motibatibo kasua aipatu behar dugu, hau da, ZERGATIK galderari erantzuten diona.

Leizarragaren obran maiztasun handiz aurkituko dugu. Hona hemen adibide batzuk:

- *Eta Reguec haguitz tristeturic,* **cinagatic** *eta harequin mahaineân iarriric* **ceudenacgatic,** *eztu iraitzi nahi vkan.* (Mc.,VI,26)

- *... Haur da ene gorputza* **çuengatic** *emaiten dena ...* (Lc.,XXII,19)

- *Ez bothere eztugunez, baina gure buruén çuey exemplutan* **emaiteagatic,** *...* (Thes.2,III,9)

- *... humiliatu eta beheratu içan da, gure* **exaltatzeagatic** *eta* **goratzeagatic:** *suiet eguin içan da, gure libertatean* **eçarteagatic:** *paubre eguin içan da, gure* **abratseagatic:** *saldu içan da, gure* **redemitzeagatic:** *captiuo eguin içan da, gure* **deliuratzeagatic** *(...) desfiguratu içan da, guri itchura* **emaiteagatic** *...* (Adv.,7-16,271.or.)

2.5.2.3. -(R)EN CAUSAZ:

Aurrekoarekin batera, honako hau da kausa adierazteko gehien erabiltzen dena. Gainera, neurri handi batean aurrekoaren baliokide hurbila dela esan behar dugu; izan ere, zenbait adibidetan, sinonimotzat jo ditzakegu biak:

- ... *eta persecutaturen çaituzte, liuratzen çaituztela (...)* ***ene icenagatic.*** (Lc.,XXI,12)

- *Eta guciéz gaitzetsiac içanen çarete* ***ene icenaren causaz.*** (Lc.,XXI,17)

Bestalde, arestian aipatu dugunez, oso erabilia izanik, era guztietako sintagmetan aurki dezakegu:

- ... *ecen Israeleco* ***sperançaren causaz*** *cadena hunez inguratua nago.* (Apost.Act.,XXVIII,20)

- ... ***Hire causaz*** *hiltzen gaituc egun oroz ...* (Rom.,VIII,35)

- ... *eztruçuet scribatu iniuria* ***eguin vkan duenaren causaz,*** ... (Cor.2,VII,12)

2.5.2.4. -(R)EN AMORECATIC:

Forma hau oso urria bada ere, zenbait adibide behintzat jaso ditugu:

- ... *nehor ezta vtzi duenic etchea, edo anayeac (...)* ***ene eta Euangelioaren amorecatic.*** (Mc.,X,29)

- ... *caltetacc estimatu vkan ditu* ***Christen amorecatic.*** (Phil.,III,7)

- ***Propitiatorioa:*** (...) *Halacotz deitzê da Propitiatorio* ***ceinen amorecatic*** *Iaincoa amatigatu içan baita,* ... (Hitz eta Mincatzeco Manera,1210.or.)

Dena den, forma hauek guztiak aditzondoak edo deklinabide-kasuak direnez gero, aipamen labur hau, besterik gabe, honetan utziko dugu.

3. MENDERAGAILUAK

Atal berri honi ekin aurretik, lehendabizi, menpeko perpausak zertan dautzan aztertu beharko genuke.

Juntaduran ez bezala, menpeko perpausetan harremanetan dauden bi perpausak maila desberdinekoak dira, hau da, menderakuntzan perpaus bat ez zaio beste bati itsasten; aitzitik, beste baten barruan txertatzen da, honen osagai gisa edo.

Honez gain, juntaduraren eta menderakuntzaren arteko bereizketa argitu nahian, EGLU gramatikara jo dezakegu han ematen diren argibideak gogora ekarriaz:

> "- *Koordinazioan elkartutako bi atalak, normalki ordena jakin batean onartu behar dira. Ordena aldatuz gero, esanahi aldaketa ere gertatzen da sarritan. Menderakuntzan, berriz, ez da horrelakorik gertatzen. Perpaus nagusian edozein osagaik izango lukeen askatasun berbera izango dute lekuz aldatzeko.*
>
> - *Leku jakina eta zehatza betetzen dute juntagailuek perpaus elkartuan (...)*
>
> - *Menderagailuek ez bezala, juntagailuek ez dute hikako alokutiboen erabilera eragozten.*
>
> - *Euskaraz, normalki, menderakuntza atzizki bidez egin ohi da:* **-en, -ela, -elako, -elarik, -enez,** *e.a. Aurrizki batzu ere izan ohi dira:* **ba-** *eta* **bait-**. *Hauek denek aditzari itsatsirik joan behar izaten dute (...) Bestalde, adizkia jokatu gabe badago (aditz izena nahiz aditz partizipioa) dagokion kasu marka edo, daramalarik (***-tzen, -tzeko, -tzera, -tzeak, -tzeari; -tua, -turik, -tuta, -tuz,** *e.a.), orduan ere perpaus txertatu baten aurrean gauden seinale."*[1]

Juntadura eta menderakuntzaren arteko bereizketa argituta, ikus dezagun zeintzuk diren menderakuntzaren barruan sar daitezkeen perpaus motak:

---

[1] EUSKALTZAINDIA, Euskal Gramatika Lehen Urratsak-III (Lokailuak), 14-15.orr.

3.1. KONPLETIBOAK

3.2. ERLATIBOZKOAK

3.3. DENBORAZKOAK

3.4. MODUZKOAK eta KONPARATIBOAK

3.5. HELBURUZKOAK

3.6. KAUSAZKOAK

3.7. KONTSEKUTIBOAK

3.8. BALDINTZAZKOAK

3.9. KONTZESIBOAK

3.1. KONPLETIBOAK

Konpletiboak menderakuntzaren barruan arreta berezia merezi duten perpausak dira, batez ere, agertzen duten maiztasunagatik.

Perpaus nagusiaren baitan, konpletibo hauek beste edozein sustantibok bete lezakeen funtzioa betetzen dute; eskuarki, osagarri zuzenak izaten dira, baina noizbehinka, sujeto edo atributo-funtzioak ere bete ditzakete.

Edonola ere, argitu dezagun konpletibo guztiak ez direla berdinak; formari dagokionez, lehendabizi jokatuak eta jokatu gabeak bereizi behar ditugu; eta bestalde, forma jokatuen artean beste bereizketa bat egin behar dugu: adierazpenezkoak, galderazkoak eta aginterazkoak.

Puntu hau argituta, ikus ditzagun, Leizarragak hau guztia adierazteko erabiltzen dituen menderagailuak:

A.- JOKATUAK:

A.1.- Adierazpenezkoak:

3.1.1. (ECEN)...-(E)LA

3.1.2. -(E)N

3.1.3. NOLA...-(E)N

3.1.4. BAIT-

A.2.- Galderazkoak:

3.1.5. -(E)N(EZ)

A.3.- Aginterazkoak:

3.1.6. -(E)LA / -(E)N

B.- JOKATUGABEAK:

3.1.7. -T(Z)E...

A.- FORMA JOKATUAK:

A.1. ADIERAZPENEZKOAK:

3.1.1. (ECEN)... -(E)LA

Zalantzarik gabe, perpaus konpletiboak gauzatzeko baliabiderik erabiliena -(E)LA atzizkia da. Hau konpletibatzaile nagusia da; gainera, gaur egun ez ezik, tradizioan ere honen nagusitasuna agerian dago; adibidez, Leizarragaren obra aztertuta, hauxe da, dudarik gabe, gehien erabiltzen dena.

Oro har, -(E)LA atzizkiaren bidez eraikitzen diren konpletiboek perpaus nagusiaren barruan funtzio zehatza betetzen dute: kasu gehienetan osagarri zuzenak dira; dena den, hau adiera nagusia bada ere, beste funtzio batzuk ere -izen sintagma batek bete litzakeenak, hain zuzen- har ditzakete:

> *"... perpaus konpletibo hauek gehienak objetuaren lekuan egongo dira baina badira bakarren batzu perpausaren sujeto gisa agertzen direnak ere."*[2]

Azter ditzagun, bada, arretaz menderagailu honen zer-nolako guztiak.

3.1.1.1. Forma.

Orain aztertzen ari garen konpletibo-motak -(E)LA atzizkiaren bidez eraikitzen dira. Gogora dezagun, adibidez, Pierre Lafittek esaten duena:

> *"Avec les verbes et locutions verbales qui expriment une opinion pensée ou énoncée, une constatation ou une sensation, une résolution ou une promesse, on met le verbe de la subordonnée au complétif ordinaire (-la)"*[3]

---

[2] GOENAGA, P., "Perpaus konpletiboei buruz" Euskera-XXV, 584.or.

[3] LAFITTE, P., Grammaire Basque (Navarro-Labourdin Littéraire),

Honelako adibideak ugariak dira:

> - ... *eguiaz erraiten drauçquet,* ***eztudala*** *Israelem-ere hain fede handiric eriden.* (Mt.,VIII,10)

Edonola ere, zehaztu dezagun forma hau, adibide gehienetan, ECEN partikulak indarturik agertzen zaigula. Azter dezagun, adibidez, Villasantek esaten diguna:

> "*Este tipo de oraciones se construye ordinariamente por medio del sufijo* ***-la*** *aplicado al verbo (...) Además, con mucha frecuencia -pero no siempre- Ax., emplea la partícula introductoria* ***ezen****, que encabeza la oración subordinada.*"[1]

Leizarragak Axularrek bezalaxe jokatzen du, adibide gehienetan -(E)LA atzizkiarekin batera ECEN partikula ere aurkitzen baitugu:

> - ... *sinhets badeçac,* ***ecen*** *Iaincoac hura hiletaric resuscitatu* ***duela***, ... (Rom.,X,9)

Bestalde, menderagailu honek har ditzakeen formei gagozkielarik, beste bat ere aipatu behar dugu: **NOLA...-(E)LA**. Edonola ere, ohart gaitezen adibide bakarra dela, gainerako guztietan (ECEN)...-(E)LA edo NOLA...-(E)N aurkitzen baitugu. Beraz, agian, ez gaude forma berri baten aurrean, hutsegite baten aurrean baizik. Nolanahi ere, ikus dezagun adibidea:

> - *Eta badacussaçue eta badançuçue* ***nola*** *ez Ephesen solamêt, baina quasi Asia qucian Paul hunec sinhets eraciric itzuli* ***duela*** *populu hâdi, ...* (Apost.Act.,XIX,26)

Adibide hau Haranederrek eskaintzen digunarekin erkatzen badugu, konpletibo arrunt baten aurrean gaudela konturatzen gara:

447.or.

[1] VILLASANTE, L., Sintaxis de la oración compuesta, 49-50.orr.

- *eta icusten duçue eta aditcen, ez choilqui Ephesan baiñan oraiño quasi Asia gucian, Paulo hunec bere arroçoinamenduez urrundu* ***darocula*** *jendetze handi bat, ...* (Haran., Apost.Act,XIX,26)

Edozein modutan, gorago aipatu dugunez, adibide bakarra denez gero, seguraski, Leizarragaren edo inprimatzailearen hutsegitea baino ez da.

Azkenik, menderagailu honek izan dezakeen aldaera bat aipatu behar dugu: **-(E)LACO**

-(E)LA atzizkiarekin erkatzen badugu, oso erabilera urria duela aitortu behar dugu. Bestalde, bi atzizki hauek betetzen duten funtzioari dagokionez, badirudi desberdintasunak daudela, baina hori geroago aztertuko dugu. Ikus ditzagun orain adibide batzuk:

- *... salua ahal* ***guêtezquelaco*** *sperâça gucia gal gueneçâ.* (Apost.Act.,XXVII,20)

- ***Guertha eztadila*** *(...) baina neholere ecin hel* ***daitelaco*** *repostatan.* (Hitz eta Minçatzeko Manera, 1206.or.)

Bestalde, gogora dezagun -(E)LA menderagailu honek, zenbait euskalkitan behintzat, kontestu zehatz batzuetan beste aldaera batzuk izan ditzakeela: -(E)NA eta ezezko perpausetan -(E)NIK:

"Perpaus nagusia ezezka ematen denean (...) perpaus txertatuak ***-LA*** *atzizkiaren ordez* ***-NIK*** *atzizkia hartzen duela askotan (...) agian* ***-LA / -NIK*** *bereizketa hiztunaren "presuposizio" desberdinetan egongo litzateke. Alegia,* ***-LA****-k konpletiboaren egia presuposatuko luke eta* ***-NIK****-ek berriz, ez."*[5]

Leizarragak -(E)NA konpletibatzailea ez du ezagutzen, edo behintzat sekula ez du erabiltzen; dena den, -(E)NA

---

[5] GOENAGA, P., "Perpaus konpletiboei buruz" Euskera-XXV, 586-587.orr.

menderagailua bizkaieraren ezaugarria izanik, Leizarragak ez ezagutzea aski normala da.

Ezezko perpausetan, berriz, baiezko zein galde-perpausetan erabiltzen den forma bera, hau da, -(E)LA aurkitzen dugu:

> - ... *munduac-ere eztut vste eduqui* ***litzaqueela*** *scriba litezqueen liburuäc.* (Io.,XXI,25)
>
> - ... *ez naquian Sacrificadore subirano* ***cela*** ... (Apost.Act.,XXIII,5)

3.1.1.2. Tokia.

(ECEN)...-(E)LA menderagailuaren bidez eraikitzen diren perpaus konpletiboek perpaus nagusiaren barruan hartzen edo hartu beharko luketen tokiaz luze hitz egin da.

Sebero Altubek[6] galdegaiaz emandako arauen arabera, -(E)LA konpletiboa galdegai izanik, aditz nagusiaren aurrean kokatu beharko litzateke. Hala eta guztiz ere, gaur egungo zein aspaldiko testuak aztertzen baditugu, adibide gehienetan konpletibo hauek aditz nagusiaren ondoan agertzen direla ohartzen gara.

Bestalde, gramatikari askok Altubek emandako arauen aurkako jarrera agertu dute:

> *"Algunos gramáticos contemporáneos han insinuado que la genuina sintaxis vasca exige que la subordinada preceda a la principal. En realidad, ni en el habla coloquial ni en la lengua escrita se guarda preceptivamente esta regla. Ni esto es factible cuando la subordinada es larga o hay varias subordinadas."*[7]

> *"Esaldi laburretan, osagarri zuzena galdegai denean gehienetan aditzaren aurrean joaten bada ere, osagarri hori konplejoagoa denean -konpletiboa denean esate baterako- eskuinera, perpausaren muturrera pasatzeko joera handia du (...)*

---

[6] ALTUBE, S., Erderismos, &116

[7] VILLASANTE, L., Sintaxis de la oración compuesta, 58.or.

bazterreratze araua *(...) sujetoa eta aditzaren artean kokaturiko perpaus konpletiboa perpausaren azken bazterrera leku aldatzea da.*

a) Ezin da, erraz-erraz eta bestelako frogarik gabe, bazterreratze lege hori joskeran sarturiko erderakada denik esan (...)

b) Askotan, arau nagusiagoak tarteko direla, bazterreratze hau ezinezko gertatzen da. Esaterako (...) konpletiboaren nagusia hitz anaforikorik gabeko erlatiboa denean (...)

c) Zenbaitetan bazterreratzen dena ez da perpaus osoa, konpletibo osoa gure kasuan, haren zati bat baizik."[1]

Leizarragaren obran perpaus konpletibo hauek aditz nagusiaren aurrean zein ondoan aurki ditzakegu; hala ere, adibide gehienetan, galdegai izanik ere, aditz nagusiaren ondoan agertzen zaizkigu:

* Aditz nagusiaren ondoan:

- *... Iaunac eçagutzen du* ***ecen*** *çuhurrén pensamenduac vano* ***diradela***. (Cor.1,III,20)
- *Hic sinhesten duc* ***ecen*** *Iaincobat* ***dela*** *...* (Iac.,II,19)

* Aditz nagusiaren aurrean:

- *... Ni nor* ***naicela*** *dioite gendec?* (Lc.,IX,18)
- *Baina necessario* ***cela*** *estimatu vkâ dut ...* (Phil.,II,25)
- *... etorri* ***dela*** *confessatzen duen spiritu gucia, Iaincoaganic da.* (Io.1,IIII,2)

---

[1] MUJIKA, J.A., "-(E)LA eta beste konpletibatzaileak" Euskera-XXVII, 318-320.orr.

3.1.1.3. Konpletibo-motak.

Perpaus nagusiaren barruan betetzen duten funtzioa kontutan harturik, bi konpletibo-mota bereiz ditzakegu:

1- OSAGARRI ZUZENAK.

Hauxe da -(E)LA atzizkiaren bidez sortutako perpaus konpletiboek betetzen duten funtzio nagusia. Egia da, noiz edo behin, perpaus hauek sujeto-funtzioa ere bete dezaketela, baina oso gutxi direnez gero, guztiak sail honetan bilduko ditugu.

Sail honen barruan perpaus konpletiboek hartzen duten forma eta lekua ere aintzat harturik, beste sailkapen bat egin dezakegu:

1.1. Aditz ondoko EZEN-dunak

1.2. Aditz ondoko EZEN gabeak

1.3. Aditz nagusiaren aurrean doazenak[9]

1.1. Aditz ondoko EZEN-dunak

Perpaus konpletibo gehienak eredu honetan aurkitzen ditugu.

Gogora dezagun EZEN konpletiboari hasiera ematen dion partikula baino ez dela. Konpletibatzaile bakarra, hau da, menderagailua -(E)LA atzizkia da; beraz, EZEN lagungarria baino ez da, konpletiboa non hasten den markatzen digun partikula, alegia.

Hau esanda, EZEN, bereziki, konpletibo luze eta korapilotsuetan, hau da, aditz nagusia eta menderagailua daraman adizkia elkarrengandik urrun dauden kasuetan agertzen zaigula pentsa liteke; dena dela, honek ez dirudi EZEN partikula agertzeko nahitaezko baldintza, adibide

---

[9] MUJIKA, J.A. "Zenbait konpletiboren azterketa J. Leizarragagan" Euskera-XXV, 599.or.

askotan, perpaus sinple eta aski laburretan ere aurki baitezakegu egitura hau. Ikus dezagun adibide bana:

> - *Eta erraiten drauçquet* **ecen** *norc-ere vtziren baitu bere emaztea, paillardiçagatic baicen, eta berce batequin ezconduren baita, adulterio iauquiten* **duela** ... (Mt.,XIX,9)
>
> - ... *eta* ençun içan da **ecen** *etchean* **cela.** (Mc.,II,1)

Bestalde, askotan, juntagailuren batek elkarturiko konpletibo-multzo bat aurkitzen dugu. Kasu hauetan, eskuarki, EZEN lehenengo konpletiboaren hasieran baino ez da agertuko:

> - ... *conta ietzoçue (...)* **ecen** *itsuéc ikustea* **dutela** *recebitzé, mainguac* **diradela** *ebilten, sorhayóac* **diradela** *chahutzen gorréc* **dutela** *ençuten, hilac* **diradela** *resuscitatzen, paubrey* **çayela** *Euangelioa predicatzen.* (Lc.,VII,22)

Edonola ere, salbuespen bat aipatu behar dugu:

> - *Declaratzen eta proposatzen cerauela,* **ecen** *behar içan* **cela** *Christec suffri leçan eta resuscita ledin hiletaric: eta* **ecen** *haur* **cela** *Iesus Christ ...* (Apost.Act.,XVII,3)

Adibide honetan ETA emendiozkoak juntaturiko bi perpaus konpletiboren aurrean gaude, baina aurrekoetan ez bezala, honetan bi perpausen hasieran aurkitzen dugu ECEN partikula. Dena den, kontutan hartu behar dugu bien artean beste perpaus batzuk tartekatzen direla eta bi adizkiak elkarrengandik aski urrun daudela; agian horrexegatik erabili du birritan sarrera-partikula.

Bestalde, J.A.Mujikak bere konpletiboei buruzko azterketan EZEN partikula eskatzen duten bi kontestu aipatzen ditu. Ikus dezagun zer esaten digun:

> *"Hiru kasutan gertatzen da konpletiboa izen sintagma baten aposizio eta hiruretan egitura bera aurkitzen dugu:*
>
> *IS - Ad, ezen ...eLA*

*(...) Gogoratzekoa, bestetik, aipaturiko hiru testuetan sintagmaren eta honen aposizioaren tartean beste elementu bat dagoela: aditza. Eta urruntze honek badu, agian, **ezen**-en erabiltzean zer ikusirik.*

*(...) aditz nagusiaren eta konpletiboaren artean haren sujetoa edo konplementuren bat tartekatzen denean, horrenbestez aditz nagusia eta konpletiboa bata bestetik urrunduz, azken honek **ezen** darama:*

AN - X - ezen ...eLA"[10]

Egia da bigarren kontestuan, hau da, aditz nagusiaren eta konpletiboaren artean perpaus nagusiko osagaiak tartekatzen direnean, gehienetan, EZEN agertzen dela. Ikus dezagun adibide bat:

- *Eta bertan eçaguturic Iesusec bere spirituaz, **ecen** hala **ciharducatela** berac baithan, ...* (Mc.,II,8)

Baina, aposizioei dagokienez, kasu askotan EZEN-dun egiturak aurkitu arren, EZEN gabekoak ere aise aurki ditzakegu. Ikus dezagun adibide bana:

- *Haur bada iaquic, **ecen** azguen egunetan içanê **dela** dembora perilosic.* (Tim.2,III,1)

- *... gaucén sommarioa haur da, Halaco sacrificadore subiranobat **dugula**.* (Hebr.,VIII,1)

Eta bestalde, kontestu hauetatik at ez dirudi EZEN sarrera-partikulak noiz agertu behar duen arautzen duen erregelarik eman daitekeenik, kasu guztietan salbuespenak aurki baititzakegu. Gainera, EZEN partikula duten konpletiboak eta EZEN gabekoak erkatzen baditugu, askotan ia berdin-berdinak direla ohartzen gara:

(1)- ... *badaquiçue vdá hurbil **dela**.* (Mt.,XXIIII,32)

---

[10] MUJIKA, J.A. "Zenbait konpletiboren azterketa J. Leizarragagan" Euskera-XXV, 607-609.orr.

- ... *eçagutzen duçue* **ecen** *ia hurbil* **dela** *vdá.* (Lc.,XXI,30)

(2)- *Norc erraitê baitu hura baithan* **dagoela**, ... (Io.1,II,6)

- *Norc erraiten baitu* **ecen** *arguian* **dela**, ... (Io.1,II,9)

Adibide hauek guztiak berdin-berdinak izan arren, Leizarragak batean ECEN erabiltzen du, baina bestean ez. Beraz, ez dirudi partikula honek adiera esanguratsurik hartzen duenik; azken finean, aukeran dagoen lagungarria baino ez da.

Partikula honek, beraz, ez du balio erabakiorrik hartzen; hala ere, ez dezagun ahanz Leizarragaren konpletibo gehienetan agertzen dela eta berak sortutako sarrera-testuetan itzulpenetan bezain ugaria edo are ugariagoa dela.

1.2. Aditz ondoko EZEN gabeak

Nagusitzen den egitura aurrekoa izan arren, oraingo hau ere oso maiz erabiltzen du Leizarragak. Gainera, bi egitura hauek kontestu berdintsuetan aurki ditzakegu.

A.- Dakigunez, EZEN-ek hasiera ematen dio perpaus konpletiboari; beraz, konpletiboaren laguntzan agertzen zaigun partikula baino ez da, zinezko menderagailua -(E)LA atzizkia delarik. Horrela izanik, askotan aditz nagusia eta perpaus konpletiboaren adizkia elkarrengandik urrun dauden kasuetan aurkitzen dugu. Edonola ere, kontestu honetan ere EZEN gabeko konpletiboak aurki ditzakegu:

- *Baina nic erraiten drauçuet, Norc-ere beguiesten baitu emazteric, hura guthicia deçançat, hambatez adulteratu* **duqueela** *harequin bere bihotzean.* (Mt.,V,28)

- *Eguiaz erraiten drauçuet, norc-ere ezpaitu recebituren Iaincoaren resumá haourtchoac beçala,* **eztela** *sarthuren hartan.* (Lc.,XVIII,17)

B.- Bestalde, aurreko atalean ikusi dugunez, EZEN-dun konpletiboak kontestu honetan ezezik, perpaus sinpleetan ere ager dakizkiguke. Eta hauxe da, hain zuzen ere, EZEN gabeko konpletiboen kontesturik berezkoena:

- ... *ecen erraiten çuten, çoratu* ***cela***. (Mc.,III,21)

- ... *baldin nehorc aithor baleça hura* ***licela*** *Christ,* ... (Io.,IX,22)

C.- Azkenik, aurreko atalean, konpletiboen sekuentzia perpaus batek baino gehiagok osatzen dutenean lehendabiziko konpletiboan EZEN sarrera-partikula agertu ohi dela aipatu dugun arren, ohart gaitezen kontestu horretan ere EZEN gabeko konpletiboak topa ditzakegula EZEN ez baita nahitaez agertu beharreko elementua:

- ... *Magistruá, baceaquiagu eguiati* ***aicela***, *eta Iaincoaren bidea eguiazqui iracasten* ***duála***, *eta nehoren ansiaric* ***eztuála*** ... (Mt.,XXII,16)

- ... *baceaquigu vngui erraiten eta iracastê* ***duala***, *eta* ***ezagoela*** *personara behá, baina Iaincoaren bidea eguiazqui iracasten* ***duala***. (Lc.,XX,21)

Orain arte aztertu ditugun kontestuetan, bi egituren artean ez dagoela desberdintasunik ikusi dugu; hala ere, J.A.Mujikaren arabera, zenbait kontestutan EZEN partikularen agerpena galerazten da.

Ohart gaitezen Mujikak bere azterketa gauzatzeko S.Mateoren Ebanjelioan bakarrik oinarritu zela. Izan ere, Leizarragaren obra osoa aztertzen badugu Mukijak aipaturiko kontestu guztietan salbuespen ugari topatzen ditugu. Ikus ditzagun kontestuok:

1.- "*Perpaus nagusiak* **ezen** *daramanean, konpletiboak ez darama, beste arauren bat tartekatzen ez bada.*"[11]

Egia da perpaus nagusian EZEN kausazkoa dugunean, batzuetan, konpletiboak ez daramala EZEN sarrera-partikula:

- *... ecen guciéc çaducaten Ioannes eguiazco Propheta içan* **cela**. (Mc.,XI,32)

- *Ecen eguia duc, circôcisionea probetchable* **dela**, ... (Rom.,II,25)

Hala eta guztiz ere, erregela hori ezin dugu sistematikotzat jo, nagusiak eta konpletiboak, biek EZEN duteneko exenpluak ere badirelako:

- *Ecen ikussiric* **ecen** *(...) naturalqui Legueari dagozcan gauçác eguiten* **dituztela**, ... (Rom.,II,14)

- *Ecen segur naiz* **ecen** *(...) ecin separaturen* **gaituela** ... (Rom.,VIII,37-38)

2.- "*eLA konpletiboak menpeko perpausak eraman ditzake eta bera ere menpekoen menpeko izan daiteke, baina holakoetan eLA konpletiboaren menpekoak ez darama* **ezen**"[12]

Kontestu honetan, EZEN gabeko konpletiboak aurkitzen ditugu, baina EZEN-dun konpletiboak ere ager daitezke eta hauek ia-ia EZEN gabekoak baino ugariagoak dira. Ikus dezagun adibide bana:

- *Halacotz iaquin eraciten drauçuet,* **ecen** *(...) batec-ere* **eztuela** *erraiten Iesus maledictione* **dela**: *eta nehorc ecin* **derraqueela** *Iesus* **dela** *Iaun, ...* (Cor.1,XII,3)

- *Baina sperança dut eçaguturen* **duçuela ecen** *gu* **ezgarela** *reprobo.* (Cor.2,XIII,6)

---

[11] Id., 601-603.orr.

[12] Id., 606.or.

3.- "*Konpletiboaren ondoan nagusiaren beste menpekoren bat doanean, hark ez darama* **ezen**."[11]

Baina honetan ere salbuespenak aurki ditzakegu:

> - ... *Vste duçue* **ecen** *Galileano hauc berce Galileano guciac baino bekatoreago* **ciradela**, *ceren halaco gauçác suffritu baitituzte?* (Lc.,XIII,2)

Hau ikusita, ez dirudi egitura batek edo besteak noiz agertu behar duen jakiteko arau zehatzik eman daitekeenik. Azken finean, aukeran dagoen zerbait dela eta kontestu gehienetan bi egiturak, bai EZEN-dunak, bai EZEN gabeak zilegi direla esan dezakegu.

1.3. Aditz nagusiaren aurrean doazenak

-(E)LA atzizkiaren bidez eraikitzen diren perpaus konpletibo gehienak aditz nagusiaren ondoan kokatzen ditu Leizarragak; dena den, badira aditz nagusiaren aurrean ezartzen direnak, aurrekoekin erkatuta, oso urriak badira ere.

Hala ere, ba al dago arrazoirik konpletibo hauek aditz nagusiaren aurrean ager daitezen ala, besterik gabe, aukeran dagoen zerbait da?

Aditz nagusiaren aurrean doazen konpletiboak galdegai direla pentsa liteke; dena den, Leizarragak galdegaia ez du beti aditz nagusiaren aurrean kokatzen. Izan ere, aurreko azpiataletan aipatu ditugun egiturak, sarritan, galdegai ziren, eta hala eta guztiz ere, aditz nagusiaren ondoan agertzen ziren. Beraz, galdegai izatea, Leizarragaren obran behintzat, ezin da konpletiboaren kokalekua erabakitzeko irizpidea izan. Hona hemen zer dioskun honetaz J.A.Mujikak:

> "*Galdegaiaren arauak perpausaren joskeran holako eragina duen aztertzen hasi gabe ere eta S-O-V egituraz ezer esateko asmorik gabe ere, Leizarragak "horiençunic" baina "ençunic ...eLA" erabiltzen*

[11] Id., 606-607.orr.

duela gogoratuko dut, hau da, galdegaia izanik ere, konpletiboa gehienetan aditzaren ondoan ematen duela (ez "nekatu dela esan du", "esan du (ezen) nekatu dela" baizik)"[14]

Hala ere, aitor dezagun nagusitzen den joera ez bada ere, galdegai diren konpletiboak, batzuetan, aditz nagusiaren aurrean aurkitzen ditugula:

- ... *Iainco arrotzén eracusle* ***dela*** *dirudi* ... (Apost.Act.,XVII,18)

- *Baina necessario* ***cela*** *estimatu vkâ dut* ... (Phil.,II,25)

Nolanahi ere, galdegaiaren kontua alde batera utzirik, aditz nagusiaren aurreko konpletiboak, bereziki, hiru kontestutan aurkituko ditugu. Hauen berri J.A.Mujikak ere ematen digu:

1.- "... *aditz laguntzailearen elipsia egiten delarik, adizki nagusiak perpausaren azken lekua hartzen du, aposizio edo luzamen modukorik ez badu behintzat. Horregatik doa konpletiboa aditzaren aurretik.*"[15]

- ... *Hura* ***dela*** *Christ berac aithortzen.* (Mc.,XIIII,0-26)

- *Christ Saluadoera sorthu* ***dela*** *artzainey declaratzen.* (Lc.,II,0-10)

Kontestu honetan, konpletiboa aditz nagusiaren aurrean agertzea ia-ia sistematikoa da; hala ere, salbuespen bat aipatu behar dugu:

- *Harc denuntiatzen Christ resuscitatu* ***dela***. (Io.,XX,0-18)

---

[14] MUJIKA, J.A. "Zenbait konpletiboren azterketa J.Leizarragagan" Euskera-XXV, 611.or.

[15] Id., 611.or.

2.- "*Hirutan, eta hiru horietan bakarrik, aurkitzen dugu honako egitura: inter ...eLA - AN.*

Ni nor naicela dioite guiçonec...? (Mt 16,13)

(...) "nor naizela" sintagma galdekatzaileak, galdekatzaile denez, aditzaren aurrean du bere lekua ..."[16]

- ... *Cer irudi* **duela** *erranen dugu Iaincoaren resumác?* (Mc.,IIII,30)

- ... *Eta çuec nor* **naicela** *ni dioçue?* (Lc.,IX,20)

- ... *Nor* **naicela** *vste duçue?* ... (Apost.Act.,XIII,25)

Kontestu honetarako Leizarragaren obran ez dugu salbuespenik aurkitu; dena den, Haranederren adibideak aztertzen baditugu, gehienetan Leizarragak bezala jokatu bazuen ere, bestelako adibideak ere aurki ditzakegu:

- ... *Nor diote guiçonec* **dela** *Guiçonaren Semea?* (Haran., Mt.,XVI,13)

- ... *Nor diote* **naicela** *jendéec?* (Haran.,IX,18)

Nolanahi ere, Leizarragak honelako konpletiboak beti aditz nagusiaren aurrean kokatzen ditu.

3.- "*Beste lau kasutan, azkenik, erlatibo batean txertaturik gertatzen da konpletiboa (...) Holako erlatiboetan aditzak perpausaren azken lekua betetzen du (*etorri den gizona gaur) eta, horregatik, konpletiboak haren aurrean behar du nahitaez.*"*[17]

- ... **duela** *vste duena-ere edequiren çayo hari.* (Lc.,VIII,18)

- ... *çutic* **dagoela** *vste duenac, beguira biu ...* (Cor.1,X,12)

---

[16] Id., 611.or.

[17] Id., 611-612.orr.

Honelako adibideak oso ugariak dira; dena den, kontestu honetan ere salbuespen bat aipatu behar dugu:

- *Bada auçoéc, eta lehen ikussi çutenéc* ***ecen*** *itsu* ***cela****, erraiten çutén ...* (Io.,IX,8)

Adibide hau Haranederrek eskaintzen digunarekin erkatzen badugu, azken honek konpletiboa erlatibozko perpausaren barruan txertatzen duela ohartuko gara:

- *halaco moldez, non hauçoec eta lehenago esque bici* ***cela*** *icusten çutenec erraten baitçuten ...* (Haran., Io,IX,8)

Dena den, Haranederrek ez du beti horrela jokatzen; zenbait adibidetan, Leizarragak bezala, konpletiboa erlatibozko perpausetik kanpo ateratzen du:

- *... Çuec uste duçuena* ***naicela*** *ez naiz ni ...* (Haran., Apost.Act.,XIII,25)

Nolanahi ere, salbuespenak alde batera utzirik, Leizarragak kontestu honetan perpaus konpletiboak, gehienetan behintzat, erlatibozkoaren barruan txertatzen ditu.

Bestalde, hirugarren kontestu honetan erlatibozkoez bakarrik aritu bagara ere, eremua zabal dezakegu, perpaus konpletiboak erlatibozkoetan ez ezik, bestelako menpeko perpausetan ere aurki baititzakegu txertaturik:

- *... ceren harê Aita Iaincoa* ***cela*** *erran baitzuen, ...* (Io.,V,18)

- *... harc largatzeco* ***cela*** *iugeatu baçuen-ere.* (Apost.Act.,III,13)

- *... othoitz eguiten* ***dugula*** *ikus deçagunçát ...* (Thes.1,III,10)

- ***Guertha cedin*** *(...) venturazco edo tropuzco gauça* ***dela*** *erran nahi dugulacotz, ...* (Hitz eta Minçatzeko Manera, 1206.or.)

Dena den, kontestu honetan ere salbuespen ugari aurki dezakegu; beraz, zenbait kasutan behintzat, aurrean edo atzean jartzea aukerazkoa dela esan dezakegu:

- *Daquiçuencat bada* ***ecen*** *guiçonaren Semeac* ***baduela*** *authoritate lurrean bekatuen barkatzeco.* (Mt.,IX,6)

- *Principalqui ceren baitaquit eçagutzen* ***dituala*** ... (Apost.Act.,XXVI,3)

2- IZENLAGUN BILAKATURIKO KONPLETIBOAK

Hau ez da nagusitzen den funtzioa; hala ere, -(E)LA atzizkiaren bidez sortzen diren konpletiboen artean, batzuek behintzat, izenlagun-funtzioa bete dezakete.

Konpletibo-mota hauen barruan forma desberdinak bereiz ditzakegu:

2.1. -(E)LACO atzizkiaren bidez sortutakoak

2.2. -(E)LA atzizkiaren bidez sortutakoak

2.1. -(E)LACO

Leizarragak, egia esan, funtzio hau betetzeko oso gutxitan erabiltzen du atzizki hau; dena den, zenbait adibide aipa ditzakegu:

- ... *salua ahal* ***guêtezquelaco*** *sperâça gucia gal gueneçâ.* (Apost.Act.,XXVII,20)

- ***Guertha eztadila*** *(...) baina neholere ecin hel* ***daitelaco*** *repostatan.* (Hitz eta Minçatzeko Manera, 1206.or.)

2.2. -(E)LA

-(E)LA atzizkiaren bidez sortzen diren konpletiboak, gehienetan, sujetoak edo osagarri zuzenak izan arren, noizbait izenlagunak ere aurki ditzakegu.

Edonola ere, ezin esan dezakegu funtzio argirik betetzen dutenik, perpaus konpletiboa izen baten menpe

egon arren, askotan izen horrek ia ia aditz-balioa hartzen duelako. Beraz, konpletibo arrunten aurrean gaudela ere pentsa liteke. Ikus ditzagun adibide batzuk, halere:

* EZEN-dunak:

  - ... *Harc vstez* ***ecen*** *baratzeçaina* ***cela***, ... (Io.,XX,15)

  - ... *çueçaz gucioz fidaz* ***ecen*** *ene alegrançá, çuen guciona* ***dela***. (Cor.2,II,3)

* EZENgabeak:

  - ... *helduren* ***diradela*** *sperança duté*, ... (Apost.Act.,XXVI,7)

  - ... *bere intentionearen complimenduan* ***ciradela*** *vstez*, ... (Apost.Act.,XXVII,13)

Bestalde, izen baten menpe dauden zenbait perpaus berezi ere aipatu behar ditugu:

- ... *ecen ia hirur egun du enequin* ***dagoela***. (Mt.,XV,32)

- ... *Cembat dembora du haur heldu* ***çayola***? (Mc.,IX,21)

- ... *Huná, hambat vrthe dic cerbitzatzen* ***audala***, ... (Lc.,XV,29)

Adibide hauek ez dirudi benetako izenlagunak direnik, baina, konpletibo arruntak ere ez, perpaus hauek barnean denborazko adiera-edo daramatelako. Dena den, inon kokatzekotan, izen baten menpe daudenez gero, izenlagunen artean kokatzea iruditu zait egokiena.

3.1.2. -(E)N

Perpaus konpletiboak sortzeko menderagailurik erabiliena eta, dudarik gabe, garrantzitsuena -(E)LA atzizkia bada ere, honen parean beste atzizki bat ere aipatu behar dugu, Leizarragak behintzat, oso maiz erabiltzen duelako: -(E)N.

Azter dezagun, bada, zer-nolako kontestuetan erabiltzen den.

3.1.2.1. Forma.

Perpaus konpletibo hauek, formari dagokionez behintzat, ez dute aparteko berezitasunik agertzen. Guztiak aditzari itsasten zaion -(E)N atzizkiaren bidez eraikitzen dira eta honez gain, atzizki honek ez duela inolako aldaerarik, hau da, beti bere hartan mantentzen dela aipatu behar dugu.

Beraz, honelako adibidek aurkituko ditugu:

- *Eta mehatchurequin debeta citzan* ***ezleçaten manifesta***. (Mt.,XII,16)

- *... Behar da guiçonaren Semeac anhitz* ***suffri deçan****, eta* ***reproba dadin*** *(...) eta* ***hil dadin*** *eta hereneco egunean* ***resuscita dadin***. (Lc.,IX,22)

Bestalde, adibide hauetan ikus dezakegunez, -(E)N menderagailua hartzen duen aditzak subjuntiboa izan behar du.

Azkenik, formarekin bukatzeko adibide berezi bat aipatu behar dugu:

- *Ecen çuequin guinadenean-ere haour denuntiatzen guendrauçuen,* ***ecen*** *baldin cembeit trabaillatu nahi ezpada,* ***ian-ere ezteçan***. (Thes.2,III,10)

Dudarik gabe adibide honetan arreta deitzen diguna ECEN partikularen erabilera da, orain arte, -(E)LA menderagailuaren bidez eraikitako perpausen ezaugarri

berezia zela pentsatu izan baita. Egia esan, Leizarragak -(E)N menderagailuaren bidez sortutako konpletiboetan, behin baino ez du erabiltzen; hala ere, hutsegitea izan ote zen?

Obra osoan zehar adibide bakarra topatu dugu; dena den, ohart gaitezen Leizarraga ez dela egitura hau erabiltzen duen idazle bakarra; ikus ditzagun Haranederren zenbait adibide:

- ... *ustez* **ecen itçuri ciren** *pressonyerac.* (Haran., Apost.Act.,XVI,27)

- ... *ustez* **ecen** *gogo çutena* **ardietxico çuten**, ... (Haran., Apost.Act.,XXVII,13)

Beraz, dudarik gabe, sakonkiago aztertu beharko litzatekeen puntu baten aurrean aurkitzen gara.

3.1.2.2. Tokia.

Konpletibo hauek, perpaus nagusiaren barruan hartzen duten kokalekuari dagokionez, gehienetan aditz nagusiaren ondoan agertzen zaizkigula aipatu behar dugu. Beraz, arruntena honelako adibideak aurkitzea izango da:

- *Eta haguitz manatu vkan ditu, nehorc haur* **ezlaquian:** *eta erran ceçan iatera nescatchari* **eman lequión.** (Mc.,V,43)

- *Eta beldurrez leku gaitzetara* **eror litecen** *(...) desiratzen çutén eguna* **ethor ledin.** (Apost.Act.,XXVII,29)

Edonola ere, nagusitzen den joera ez den arren, aditz nagusiaren aurrean ere zenbait konpletibo aurki ditzakegu:

- ... *hala* **altcha dadin** *behar da guiçonaren Semea.* (Io.,III,14)

- *Baina haraguïan* **egon nadin** *necessarioago da çuengatic.* (Phil.,I,24)

Adibideak bi posizioetan aurki ditzakegu; dena den, gehienak aditz nagusiaren atzean aurkitzen ditugunez, aurrean kokatzea ia-ia salbuespentzat jo dezakegu. Izan ere, azken bi adibideetan ez dirudi arrazoi berezirik dagoenik perpaus konpletibo hauek aditz nagusiaren aurrean ager daitezen. Egia da biak kontestu berdintsuetan agertzen direla: **[KONPL.] behar da / [KONPL.] necessarioago da**; baina ezin dugu baieztatu aditz horiek eskatzen dutela konpletiboa aditz nagusiaren aurrean joan dadila, antzeko kontestuetan konpletiboak aditz nagusiaren ondoan ere aurki baititzakegu:

- ... *behar da anhitz* ***suffri deçan***, *eta ezdeusetan* ***eduqui dadin***. (Mc.,IX,12)

- ... *necessario da dispensaçaletan leyal batbedera* ***eriden dadin***. (Cor.1,IIII,2)

Edonola ere, salbuespenak alde batera utzirik, aditz nagusiaren aurrean agertzen diren konpletiboak, normalean, oso kontestu zehatzetan aurkitzen ditugu:

1- Perpaus nagusian aditz laguntzailearen elipsia suertatzen denean:

- *Charitatean abundos* ***diraden*** *Paulec desiratzen.* (Thes.1,III,0-12)

2- Erlatibozko perpausetan txertaturik:

- *Bada guiçonéc çuey* ***eguin dietzaçuen*** *nahi dituçuen gauça guciac eguin ietzeçue ...* (Mt.,VII,12)

3- Bestelako menpeko perpausetan txertaturik:

- ... ***circoncidi çaitezten*** *eta Leguea* ***beguira deçaçuen*** *manatuz, ...* (Apost.Act.,XV,24)

4- Izenlagun funtzioan:

- ... *tentaçaleac nolazpeit* ***tentatu centuquezté*** *beldurrez, ...* (Thes.1,III,5)

3.1.2.3. Konpletibo-motak.

-(E)N menderagailuaren bidez sortzen diren konpletiboen artean mota desberdinak bereiz ditzakegu. Edonola ere, oro har, konpletibo hauek eta forma jokatugabeen bidez, hau da, nominalizazioaren bidez sortzen diren konpletiboek funtzio berdinak betetzen dituztela baiezta dezakegu.

Forma jokatugabeen artean mota desberdinak bereiz ditzakegu; beraz, konparaketa bat eginez, azter dezagun -(E)N atzizkiaren bidez zer-nolako perpausak eraiki daitezkeen:

1- -T(Z)EA nominalizazioaren parekoak

a) Hauen artean, lehendabizi, perpaus nagusiaren sujeto-funtzioan agertzen zaizkigunak aipatu behar ditugu, hauek, usu, -(E)N atzizkidun perpausen bidez adierazten baitira:

- ... *ecen necessario da scandaloac* ***datocen*** ... (Mt.,XVIII,7)

- ... *Eztuc sori eure anayeren emaztea* ***duán.*** (Mc.,VI,18)

b) Bestalde, honelako perpausak osagarri predikatiboak ere izan daitezke. Hona hemen zenbait adibide:

- *Asco du discipuluac bere magistrua beçala* ***den*** ... (Mt.,X,25)

- ... *hobe luque errota harribat haren leppoaren inguruän* ***eçar ledin,*** *eta itsassora* ***egotz ledin.*** (Mc.,IX,42)

c) Osagarri zuzenei dagokienez, aurreko atalean funtzio hau, orokorrean, -(E)LA atzizkidun konpletiboek betetzen dutela ikusi dugu; dena den, -(E)N atzizkidun konpletiboek, zenbait kasutan behintzat, funtzio hau ere bete dezakete. Ikus ditzagun, bada, adibide batzuk:

- ... *eta eztuc permettiturê hire Sainduac corruptioneric* ***sendi deçan.*** (Apost.Act.,II,27)

- *Ecen emazteari iracastea, eztiarocat permetitzen, ezeta guiçonaren gainean authoritatez vsatzea, baina* ***den*** *silentiotan.* (Tim.1,II,12)

d) Azkenik, -T(Z)EA nominalizazioaren pare dauden konpletibo hauen artean, NAHI eta BEHAR aditz-lokuzioen menpe dauden konpletiboak ere aipatu behar ditugu. Aditz-lokuzio hauek bi perpausetako sujetoak desberdinak direnean -T(Z)EA nominalizazioa eskatzen dute; hala ere, funtzio hau -(E)N atzizkidun konpletiboen bidez adieraztea aski gauza arrunta da:

* BEHAR:

  - ... *behar içan dela Christec* ***suffri leçan eta resuscita ledin*** *hiletaric ...* (Apost.Act.,XVII,3)

* NAHI:

  - ... *Eta cerbitzariéc erran cieçoten, Nahi duc bada* ***goacen*** *eta* ***bil deçagun*** *hura?* (Mt.,XIII,28)

Honelako konpletiboak NAHI eta BEHAR aditz-lokuzioekin ezezik, nahia edo desioa adierazten duten bestelako aditzekin ere aurki ditzakegu. Hona hemen adibide batzuk:

* DESIRATU / DESIR VKAN:

  - ... *desiratzen çutén eguna* ***ethor ledin.*** (Apost.Act.,XXVII,29)

  - *Ecen desir nuque ni neuror Christganic separatua* ***nincén*** ... (Rom.,IX,3)

2- -T(Z)EN nominalizazioaren parekoak:

Konpletibo hauek ez dira aurrekoak bezain ugariak, dena den, zenbait adibide behintzat aipa daitezke.

Perpaus hauek betetzen duten funtzioari dagokionez, osagarri zuzenaren lekuan agertzen zaizkigula aipatu behar dugu; izan ere, Leizarragak dituen adibideak Haranederrek eskaintzen dizkigunekin erkatzen baditugu, azken honek zenbait adibidetan bederen, osagarri zuzenak diren -(E)LA atzizkidun konpletiboak darabiltzala ohartuko gara; dena den, ez dezagun ahanz Haranederrek Leizarragaren -(E)N menderagailudun konpletiboen ordainean -T(Z)EN nomizalizazioa ere erabiltzen duela. Ikus dezagun adibide bana:

(1)- ... *baina niri eracutsi draut Iaincoac guiçonic batre commû edo satsu* ***ezteçadan erran.*** (Leiz., Apost.Act.,X,28)

- ... *baiñan eracutsi içan darot niri Jaincoac* ***ez dela*** *guiçonic* ***iduqui behar*** *profanotçat edo lohitçat.* (Haran., Apost.Act.,X,28)

(2)- ... *ecen ceuroc Iaincoaz iracatsiac çarete, elkar* ***onhets deçaçuen.*** (Leiz., Thes.1,IIII,9)

- ... *halaz eta cebonec Jaincoa ganic ikhassi duçuenaz queroz elkharren* ***maitatcen;*** (Haran., Thes.1,IV,9)

Dena den, perpaus hauek -T(Z)EN nominalizazioarekin duten kidetasuna agerian uzteko ez da beharrezkoa Haranederren obrara jotzea, Leizarragak berak, zenbaitetan, adibide berdina bietara eskaintzen baitigu:

- ... *Vipera castá, norc auisatu çaituzte hira ethortecoari* ***ihes daguioçuen?*** (Mt.,III,7)

- ... *Vipera castá, norc auisatu çaituzte hira ethortecoari* ***ihes eguiten?*** (Lc.,III,7)

3- -T(Z)EKO nominalizazioaren parekoak:

Honelako perpausen artean bereizketa bat egin behar dugu, konpletibo hauek bi funtzio zeharo desberdinetan aurki baititzakegu.

a) Alde batetik, konpletibo hauek zenbait aditzen osagarri zuzenaren lekuan aurki ditzakegu, eskaera edo agintera adierazten duten aditzekin, bereziki. Ikus dezagun, adibidez, zer dioen honetaz Pierre Lafittek:

> "*Les verbes impliquant ordre, prière, exhortation, peuvent aussi se construire avec le génitif locatif du même infinitif nominal:*
>
> *Ex.: (...)* ***manatu zautan lehen-bai-lehen hari jarraikitzeko***
>
> *Les verbes déclaratifs peuvent recevoir une signification volitive. Dans ce cas, on les construit comme des verbes de volonté.*
>
> *Ex.:* ***erran daut egitea, eqiteko, egin dezadan***"[18]

Kontestu honetan, -(E)N atzikidun konpletibo ugari aurki ditzakegu; are gehiago, zehar estiloko aginterak adierazteko biderik erabiliena dela esan dezakegu. Izan ere, Leizarragak, zehar estiloko aginterak oso kasu urrietan adierazten ditu -T(Z)ECO nominalizazioaren bidez. Beraz, ikus dezagun zer-nolako konpletiboak aurki ditzakegun:

> (1)- ... *mana ceçan haren iaunac* ***sal ledin*** *hura, eta haren emaztea, eta haourrac eta cituen gauça guciac; eta çorra* ***paga ledin.*** (Mt.,XVIII,25)
>
> (2)- ... *nahi duc derragun sua* ***iauts dadin*** *cerutic, eta* ***deseguin ditzan,*** ... (Lc.,IX,54)
>
> (3)- ... *ecen ia ordenatu çuten (...) synagogatic* ***iraitz ledin.*** (Io.,IX,22)

Adibide hauek Haranederrek dituenekin erkatzen baditugu, honen obran, gaur egun mendebaldeko euskalkietan

---

[18] LAFITTE, P., Grammaire Basque (Navarro-Labourdin Littéraire), 449.or.

bederen, nagusitzen den jokabidea aurkitzen dugu, adizki subjuntiboa duten -(E)LA-dun konpletiboak, alegia. Ikus ditzagun adibideok:

> (1)- ... *manatu içan çuen haren naussiac* ***sal ceçatela*** *hura, haren emastea, haren haurrac eta harc cituen guciac, eta* ***bihurarar cioçotela*** *çor çuena.* (Haran., Mt.,XVIII,25)
>
> (2)-... *nahi duçu erragun* ***jauts dadilla*** *sua cerutic eta* ***irets detçala*** *horiec?* (Haran., Lc.,IX,54)

Leizarragak ez du halako konpletiborik erabiltzen; beti -(E)N atzizkiaren bidez eraikitzen ditu.

Edonola ere, ez dezagun ahanz konpletibo hauek -T(Z)EKO nominalizazioaren pare jartzea, gaur egungo eta batez ere mendebaldeko euskalkietako usadioan oinarrituta egiten dugula, hau berau adierazteko Leizarragak, maiz, -T(Z)ERA nominalizazioa erabiltzen baitu:

> - ... *Iauna, baldin hi bahaiz, mana neçac hiregana* ***ethortera*** *ur gainez.* (Mt.,XIIII,28)
>
> - ... *Iuduéc ordenatu dié hiri* ***othoitz eguitera,*** ... (Apost.Act.,XXIII,20)
>
> - ... *othoiztu içan guenén* ***egoitera*** *hequin* ... (Apost.Act.,XXVIII,14)

b) Bestalde, aipa dezagun perpaus konpletibo hauek har dezaketen bigarren adiera: **Izenlagun-funtzioa.**

> - ... *Ez, beldurrez asco* ***eztugun*** *gure eta çuen.* (Mt.,XXV,9)
>
> - ... *eznauc digne ene atharbe pean* ***sar adin.*** (Lc.,VII,6)
>
> - ... *eta escuac* ***ichil litecen*** *keinu eguinic, dio,* ... (Apost.Act.,XIII,16)

Dena den, gogora dezagun -(E)LA atzizkidun konpletiboez hitz egitean, hauek ere izenlagunaren lekuan

ager daitezkeela aipatu dugula. Azter ditzagun, bada, hurrengo bikoteak:

(1)- ... *vstez presoneréc* ***ihes eguin çutén***. (Leiz., Apost.Act.,XVI,27)

- ... *ustez* ***ecen itçuri ciren*** *pressonyerac.* (Haran., Apost.Act.,XVI,27)

(2)- ... *bere intentionearen complimenduan* ***ciradela*** *vstez, ...* (Leiz., Apost.Act.,XXVII,13)

- ... *ustez* ***ecen*** *gogo çutena* ***ardietxico çuten***, ... (Haran., Apost.Act.,XXVII,13)

Bi konpletibo hauek funtzio bera betetzen dutela Haranederren adibideek egiaztatzen dute; hala eta guztiz ere, Leizarragak funtzio hau adierazteko bi konpletibo-mota desberdin erabiltzen ditu.

Hurrengo adibideak ere aski antzekoak dira:

- ... *ecen ia hirur egun du enequin* ***dagoela***. (Mt.,XV,32)

- ... *ecen ia ordu dela lotaric* ***iratzar gaitecê*** ... (Rom.,XIII,11)

Beraz, izenlagun-funtzioa, gehienetan, -(E)N atzizkidun konpletiboen bidez adierazten bada ere, zenbait kontestutan, Leizarragaren erabilerari dagokionez behinik behin, -(E)LA atzizkidun konpletiboek ere funtzio bera bete dezaketela onartu behar dugu.

4- <u>-T(Z)ERA nominalizazioaren parekoak:</u>

Nominalizazio honen pare koka ditzakegun perpaus konpletibo hauetaz hitz egin baino lehen, iparraldeko euskalkietan aurkitzen dugun -T(Z)ERA, edo behintzat Leizarragak darabilena, eta hegoaldeko euskalkietan darabilguna desberdinak direla esan behar dugu. Hegoaldeko euskalkietan topatzen dugun -T(Z)ERA-k ZERTARA galde-hitzari erantzuten dio; iparraldekoak, berriz,

funtzio hau betetzeaz gain, beste zenbait balio ere har ditzake. Izan ere, Leizarragaren erabilera aztertuta, nominalizaziorik ugariena, erabiliena dela aitortu behar dugu; beraz, nahitaez, ekintza-eremu zabalagoa izan behar du.

Guri orain interesatzen zaizkigunak ez dira ZERTARA galde-hitzari erantzuten diotenak, horiek ezin baititugu konpletiboen sarean sartu; kontutan hartu behar ditugunak zenbait aditzen osagarri gisa agertzen zaizkigunak dira. Hona hemen adibide batzuk:

(1)- ... *Vztac* ***idoqui deçadan*** *fitsa hire beguitic,* ... (Mt.,VII,4)

(2)- ... *Iauna, permetti ieçadac behin* ***ioan nadin*** *neure aitaren ohorztera.* (Mt.,VIII,21)

(3)- *Eta Sacrificadore Principaléc incita ceçaté populua lehen Barabbas* ***larga liecén.*** (Mc.,XV,11)

(4)- ... *ecen probetchu dugula, guiçombat* ***hil dadin*** *populuagatic, eta natione gucia* ***gal eztadin.*** (Io.,XI,50)

(5)- ... *exhortatzen çaituztét* ***çareten*** *bihotz onetaco,* ... (Apost.Act.,XXVII,22)

(6)- *Ecen Aitáren placer ona içan da (...)* ***habita ledin:*** (Col.,I,19)

Aipatu dugunez, perpaus hauek iparraldeko -T(Z)ERA nominalizazioaren pare koka ditzakegu, eta frogarik erabakiorrena Leizarragak berak eskaintzen digu:

(1)- ... *Vtzitzac, hilac bere hilén* ***ohorztera*** ... (Lc.,Ix,60)

(2)- ... *permetti ieçaguc vrdalde hartara* ***ioaitera.*** (Mt.,VIII,31)

(3)- ... *cargu hunê* ***hartzera*** *incitatu vkan nautenéc* ... (Guc.,27-28,251.or.)

(4)- *Ala haraguian* ***vicitzera*** *probetchu dudanez,* ... (Phil.,I,22)

(5)- ... *exhorta çaitzatedançát bihotz* ***hartzera,*** ... (Ivda,3)

(6)- ... *aitaren placer ona içan da çuey resumarê* ***emaitera.*** (Lc.,XII,32)

5- -T(Z)ETIK nominalizazioaren parekoak:

Arraro gerta dakiguke -T(Z)ETIK bezalako nominalizazioa konpletiboen artean aipatzea; dena den, kontutan hartu behar dugu -T(Z)ERA nominalizazioarekin gertatzen den bezala, honen eremua ere -iparraldeko euskalkietan behintzat- guk ezagutzen eta erabiltzen dugun -T(Z)ETIK nominalizazioarena baino zabalagoa dela.

Konpletibo hauetaz Pierre Lafitte mintzatzen da:

> "*Les verbes d'empêchement (**debekatu, gibelatu, begira ukan, begiratu**, etc.) se construisent avec le subjonctif; mais d'ordinaire ce subjonctif est précédé en basque de la négation **ez**.*
>
> Ex.: **debekatu diot ez dezan holakorik egin**
>
> *(...) Ces verbes peuvent avoir une complétive à l'élatif de l'infinitif nominal.*
>
> *Ex.: **debekatu dut joaitetik** ..."*[19]

Leizarragaren obran honelakoak maiz aurkitzen ditugu. Ikus ditzagun, bada, adibide batzuk:

- *Beguirauçue çuen elemosyná **eztaguiçuen** guiçonén aitzinean ...* (Mt.,VI,1)

- *Eta mehatchurequin debeta citzan **ezleçaten manifesta**.* (Mt.,XII,16)

- *... nequez amatiga citzaten gendetzeac **sacrifica ezliecén**.* (Apost.Act.,XIIII,18)

- *... beguira biu **eror eztadin**.* (Cor.1,X,12)

Ohart gaitezen Pierre Lafittek esaten zuenez, perpaus hauetan guztietan EZ aditzondoa aurkitzen dugula, hau da, konpletiboa beti ezezkoa dela.

---

[19] LAFITTE, P., Grammaire Basque (Navarro-Labourdin Littéraire), 450.or.

6- Bestelakoak:

Azkenik, -(E)N atzizkiaren bidez sortzen diren konpletiboen artean beste zenbait adibide aipatu behar ditugu:

A.- Zenbaitetan, konpletibo hauek BAIT- aurrizkiaren bidez sortzen direnen pare jar ditzakegu. Izan ere, Leizarragak berak antzeko adibideak BAIT- aurrizkiaren bidez eraikitzen ditu (1)-(1'); eta bestalde, Haranederrek dituen adibideekin erkatzen baditugu, honek ere, adibide batzuetan behintzat, BAIT- aurrizkia darabilela ohartzen gara:

(1)- *Eta baldin guertha badadi* ***eriden deçan*** *hura, ...* (Leiz., Mt.,XVIII,13)

(1')- *Eta guertha cedin, çortzigarreneco egunean* ***ethor baitzitecen*** *...* (Leiz., Lc.,I,59)

(2)- *Eta nondic haur niri,* ***ethor dadin*** *ene Iaunaren ama enegana?* (Leiz., Lc.,I,43)

(2')- *Eta nondic heldu çait çorion hau, ene Jaunaren ama* ***heldu baida*** *ene ganat?* (Haran., Lc.,I,43)

(3)- *... Cer da guiçoná, harçaz* ***orhoit aicen****? edo cer da guiçonarê semea, hura* ***visita deçán***? (Leiz., Hebr.,II,6)

(3')- *... Cer da guiçona, hartaz* ***orhoit baitçare****, edo cer da guiçonaren semea, hura* ***bisitatcen baiduçu***? (Haran., Hebr.,II,6)

B.- Honelako perpausak aposizio gisa ere aurki ditzakegu. -(E)LA atzizkiaren bidez sortutako perpausek ere aposizio-funtzioa bete dezakete; beraz, ikus dezagun desberdintasuna:

-(E)LA:

- *... eguin içan çayen promessaz den becembatean:* ***Ecen*** *hura Iaincoac complitu* ***drauela*** *hayen haourrey ...* (Apost.Act.,XIII,32-33)

- *Haur bada iaquic,* ***ecen*** *azquen egunetan içanê* ***dela*** *dembora perilosic.* (Tim.2,III,1)

-(E)N:

- *Manamendu berribat emaiten drauçquet, batac berceari* **on daritzaçuen**, ... (Io.,XIII,34)

- *Haur da ene manamendua, batac bercea* **maite duçuen**, ... (Io.,XV,12)

Adibide hauek ikusita, -(E)LA atzizkiaren bidez sortzen diren aposizioak eta -(E)N atzizkiaren bidez sortutakoak zeharo desberdinak direla jabe gaitezke. -(E)LA atzizkiaren bidez adierazpen-perpausak sortzen dira; -(E)N atzizkiaren bidez sortutakoak, berriz, zehar estiloko aginte-perpausak dira.

C.- Azkenik, gogora dezagun perpaus konpletiboen eremutik at, -(E)N atzizkia harridura-perpausetan ere aurki dezakegula. Nolanahi ere, ohart gaitezen, perpaus hauetako aditzek -(E)N atzizkia hartzen badute ere, ez dutela zerikusirik perpaus konpletiboetan aurkitzen ditugun -(E)N atzizkidun subjuntiboekin:

- ... *Cein gaitz* **den** *onhassundunac Iaincoaren resumán sar ditecen!* (Lc.,XVIII,24)

- ... *O cein eder* **diraden** ...! (Rom.,X,15)

- ... *huná, su chipito batec cein egurtze handia* **irachequiten duen**. (Iac.,III,5)

3.1.3. NOLA... -(E)N

NOLA galde-hitza dugunez, zehar-galderen eremuan sartzen ari garela dirudi; dena den, zehar-galderen artean honelako perpausak aurki baditzakegu ere eta, sarritan, zalantzak sor dakizkigukeen arren, konpletiboen artean ere leku bat eskaini behar diegu NOLA...-(E)N egituraren bidez eraikitako perpausei. Gainera, Leizarragaren erabilera aztertuta, konpletibo hauek aski ugariak direla aitortu behar dugu.

Bestalde, zenbait gramatikarik esaten digutena aztertzen badugu, NOLA...-(E)N egiturak perpaus konpletiboen artean duen lekua ukaezina dela ohartuko gara:

* PIERRE LAFITTE:

  "Comme équivalent de proposition déclarative on trouve l'interrogation indirecte avec **nola** *et le conjonctif ... "*[20]

* PATXI ALTUNA:

  "Honi buruz hauxe dio Lafonek: **"Nola:** *avec une forme verbale à prefixe* **bait-**, *"comme, de même que" (I,411); avec une forme verbale à suffixe relative, "comme, alors que" (I,126), ou "que" (après un verbe signifiant "dire" ou "penser" (I,2)*[21] *(...) Beraz, Lafonen irakatsiaz adizkiak* **bait-** *du edo* **-en** *du edo deus ez du. Dirudienez, lehena konparativotzat jotzen du; bigarrena denborazkotzat edo, baina konpletivo ere izan omen daiteke, "esan" eta "pentsatu" esan nahi duten aditzen ondoan; hirugarrena kausaltzat."*[22]

Hau ikusita, azter ditzagun Leizarragak NOLA..-(E)N egituraren bidez sortzen dituen konpletiboak:

---

[20] LAFITTE, P., Grammaire Basque (Navarro-Labourdin Littéraire), 448.or.

[21] LAFON, R., "La langue de Bernard Dechepare", BRSVAP, VII (1951), 324.or.

[22] ALTUNA, P., "Zeren" eta "Nola" Etxeparengan", Euskera-XXV, 514.or.

3.1.3.1. **Forma eta tokia.**

A.- Formari dagokionez, konpletibo hauek zehar-galdera batek hartuko lukeen forma hartzen dutela esan behar dugu. Izan ere, NOLA galdetzailea konpletiboaren buruan kokatzen da eta konpletibo horren adizkiak -(E)N menderagailua hartzen du. Hau dela eta, noizbait gerta daiteke noiz den konpletiboa eta noiz zehar-galdera argi ez ikustea;hala ere, kontestuak beti lagunduko digu.

Nolanahi ere, azter dezagun zenbait gramatikarik diotena:

> "... ***nola***, *besteak beste, bi eratakoa dela diot Etxeparegan: benetako galdea, nahiz eta zeharkakoa (...) eta konpletiva ordezkoa (...) bereizkuntza horren arabera Etxeparek partitzipioa laguntzailearen aurrean ezartzen duela lehen kasuan eta atzekoz aurrera bigarrenean."*[23]

> "*P.Altunak goragoaipaturiko azterketan, Etxeparez ari dela, zehar galdera eta konpletibo deklaratiboa esanahian ezezik joskeran ere berezten direla dio, aditz perifrastikoa duten aditzetan behintzat. (...) Leizarragak ez du holakorik egiten. Segida bera dute biek: nola-ad.izenkia-ad.laguntzailea. Doinueraz eta azentuz bereziko ziren, behar bada, haren euskaran* ***nola*** *galdekatzailea eta* ***nola*** *konpletiboa. Idatzian, ordea, ez dugu esanahiaren aldea baizik somatzen."*[24]

Leizarragaz dioen horretan arrazoia eman behar diogu J.A.Mujikari, Leizarragak zehar-galderak eta konpletibo hauek berdin-berdin tratatzen dituelako, behintzat aditz nagusiaren eta laguntzailearen hurrenkerari dagokionean, bi motetan "A.NAGUSIA-A.LAGUNTZAILEA" aurkitzen baitugu:

* KONPLETIBOAK:

- ... *Eçagutu duc* ***nola*** *propos hori ençunic* ***scandalizatu içan diraden***? (Mt.,XV,12)

---

[23] ALTUNA, P., "Zeren" eta "Nola" Etxeparengan", Euskera-XXV, 514.or.

[24] MUJIKA, J.A. "Zenbait konpletiboren azterketa J.Leizarragagan" Euskera-XXV, 614.or.

* ZEHAR-GALDERAK:

- ... *eztuçuela artharic* **nola edo cer minçaturen çareten** ... (Mt.,X,19)

Edonola ere, aipa dezagun eredu honetatik aldentzen den salbuespen bat:

- *Halacotz, orhoit çaitezte* **nola** *çuec noizpait Gentilac haraguian, Preputio deitzen baitzineten, haraguian Circoncisione deitzen denaz eta escuz eguiten denaz,* **Baitzineten** *denbora hartan Christ gabe,* ... (Eph.,II,11-12)

Formari begira, ez dirudi konpletibotzat jo behar dugunik; baina esanahiari bagagozkio, non kokatu bestela?

Gainera, J.A.Mujikak goian aipaturiko artikuluetan, konpletiboen artean NOLA...BAIT- egitura aipatu eta Tartasen eta Leizarragaren adibide bana eskaintzen digu:

- (...) *guri erakhusteko,* **nola** *atzodanik egüdraiño, egundanik bihardraiño, arte hura* **baita** *labür eta hertsi* (Z) (Tartas 35)

- ... *sendi eraci liecêçat,* **nola** *hura baithâ desplegatu behar* **baitzen** *Iaincoarê resumarê verthute eta puissança gucia* ... (Leiz., Adv.,5-6,262.or.)

Hala eta guztiz ere, adibide hauen urritasuna aintzakotzat harturik, joera nagusitik aldentzen diren salbuespenak direla esan dezakegu.

B.- Bestalde, konpletibo hauek perpaus nagusiaren barruan hartzen duten **TOKIA**ri dagokionez, konpletibo-mota guztietan aipatu duguna ekarri behar dugu gogora. Dakigunez, Leizarragak, gehienetan, konpletiboak aditz nagusiaren ondoan kokatzen ditu; beraz, konpletibo hauek ez dira salbuespen izango:

- *Eta ençun çutenean (...)* **nola** *Samariac* **recebitu çuen** *Iaincoaren hitza,* ... (Apost.Act.,VIII,14)

- ... *testificatu vkan duté,* **nola** *(...) gauça guciac* **complitu içan diraden** ... (Adv.,24-26,264.or.)

Edonola ere, hau nagusitzen den joera bada ere, aditz nagusiaren aurreko konpletiboak ere aurki ditzakegu. Ikus dezagun adibide bat:

> - ... **nola** *Iesus Christ Iauna virgina bataganic* ***sorthurê cen*** *aitzinetic erran içan cen* (Adv.,21-23,260.or.)

Aditz nagusiaren aurreko konpletiboak, salbuespenak salbu, perpaus nagusiaren adizki laguntzailea eliditzen den adibideetan aurkitzen ditugu. Hala ere, perpaus hauen mugikortasuna kontutan izanik, kontestu honetan perpaus nagusiaren ondoko konpletiboak ere aurki ditzakegu. Ikus dezagun adibide bana:

> - ***Nola passionatu behar den*** *Christec aitzinetic discipulüey erraten.* (Lc.,XVIII,0-31)
>
> - *Iesusec aitzinetic erraiten* ***nola hil behar çuen.*** (Mt.,XXVI,0-1)

Bestalde, atal bakoitzaren hasieran agertzen zaizkigun izenburuetan, batzuetan ezin jakin dezakegu konpletiboa aditz nagusiaren aurrean ala ondoan agertzen den, ez baitaukagu aditz nagusirik:

> - ***Nola*** *hura Spiritu sainduaganic concebituric Maria virgina Iosephen emazteaganic* ***iayo içan den.*** (Mt.,I,0-18)
>
> - ***Nola*** *Ioannes* ***eztén*** *Christ.* (Io.I,0-20)

C.- Honaino, konpletiboak perpaus nagusiaren barruan hartzen duen tokiaz aritu gara; baina zer esan dezakegu konpletiboaren beraren barruan agertzen diren elementuek hartzen duten kokalekuaz?

Azter dezagun J.A.Mujikak dioskuna:

> "***Nola*** *konpletiboak perpausean duen lekuari dagokionez,* ***ezen*** *partikularen antza badu zerbaitean, ez ordea denean; hau bezala multzo konpletiboaren aitzin buruan doa honen eremua aurretik mugatuz.* ***Nola****, ordea,* ***ezen*** *ez bezala, a) aditz nagusiaren ondo ondoan doa; b) konpletibo koordinatuetan bakoitzean eman daiteke; eta c) ez*

da ken eta ezar daitekeen espletiboa, beti jarri behar den konpletibatzailea baizik."[25]

Egia da NOLA partikula ia beti konpletiboaren aitzin buruan doala, konpletiboari hasiera emanez edo; dena den, noiz edo behin perpaus konpletiboaren osagairen bat aurreratu eta NOLA-ren aurrean ager daiteke; edonola ere, hauek salbuespenak baino ez dira:

- ... *ecen baçaquiten guciéc haren aita* ***nola*** *Grec* ***cen.*** (Apost.Act.,XVI,3)

- *Doctor falsuac* ***nola içanen diraden*** *aitzinetic Paulec declaratzen.* (Apost.Act.,XX,0-29)

Bestalde, J.A.Mujikak hala baieztatzen badu ere, ez dirudi NOLA galdetzaileak, derrigorrez, aditz nagusiaren ondo-ondoan agertu behar duenik, Leizarragaren obra aztertuta, bi hauen artean bestelako osagaiak tarteka daitezkeela ohart baikaitezke:

1- Aditz Nagusia + NOLA + Adizkia (-(e)n):

- ... *orhoit çaitezte* ***nola errâ cerauçuen*** *oraino Galilean cela* ... (Lc.,XXIIII,6)

2- Aditz Nagusia + X + NOLA + Adizkia[26]:

- ... *orhoit cedin Pierris Iaunaren hitzaz,* ***nola erran vkan ceraucan*** ... (Lc.,XXII,61)

3- Aditz Nagusia + NOLA + X + Adizkia:

- ... *ecin sinhets gueneçaque* ***nola*** *Messiasa* ***igorri vkan duen*** *Iaincoac mundu hunetara, ezeta* ***nola*** *Messias hura Iesus* ***den.*** (Som.,18-20,276.or.)

---

[25] MUJIKA, J.A. "Zenbait konpletiboren azterketa J.Leizarragagan" Euskera-XXV, 614.or.

[26] X = Beste edozein osagai.

4- Aditz Nagusia + X + NOLA + X + Adizkia:

- *Eta ençun ceçaten haren auçoéc eta ahaidéc,* ***nola*** *frangoqui Iaunac bere misericordia* ***declaratu çuen*** *harengana, ...* (Lc.,I,58)

Beraz, ikusten dugunez, Leizarragak osagaiak ordenatzeko unean askatasun handiz jokatzen du.

D.- Azkenik, gogora dezagun, NOLA galdetzailea ez dagoela aukeran, hots, beti agertu beharreko partikula dela. Salbuespen bakarra juntagailuren batek elkarturiko perpaus multzo baten aurrean aurkitzen garenean suertatzen da, gerta baitaiteke NOLA lehenengo perpausean bakarrik agertzea:

- *... eztuçue iracurri (...)* ***Nola sarthu içan cen*** *Iaincoaren etchean, eta propositionezco oguiac* ***ian cituen,*** *...?* (Mt.,XII,3-4)

- *... Eta erran cieçoten, Iesus Nazarenoaz (...) Eta* ***nola*** *hura* ***liuratu vkâ dutén*** *Sacrificadore principaléc eta gure Gobernadoréc herioaré condemnationera, eta* ***crucificatu vkan dutén.*** (Lc.,XXIIII,19-20)

Hala eta guztiz ere, adibide gehienetan, NOLA konpletibo guztien hasieran aurkituko dugu:

- *... eta conta ciecén* ***nola*** *bideâ* ***ikussi çuen*** *Iauna (...) eta* ***nola*** *Damascen frangoqui* ***minçatu içan cé*** *...* (Apost.Act.,IX,27)

- *Ecen ençun duçue* ***nola conuersatu vkan dudan*** *Iudaismoan,* ***nola*** *(...) Eliçá* ***persecutatzen eta deseguiten nuen:*** *Eta* ***nola probetchatzé nincén*** *...* (Gal.,I,13-14)

3.1.3.2. Balioa.

Konpletibo hauen balioari dagokionez, azter dezagun J.A.Mujikak dioskuna:

> *"Lafitteren ustetan, itxuraz, bi era hauek egun balio beretsukoak dira (...)*
>
> *Leizarragagan, ordea, ez dirudi bi era hauek balio berekoak direnik. Izan ere, **eLA** perpausa beti eta edozein kasutan erabil daitekeen bitartean, **nola...eN** kasu berezi eta aski zehatz muga daitezkeenetan erabiltzen da."*[27]

> *"**Nola...-(e)N** konpletibatzailea noiz erabil daitekeen arau semantikoek agintzen dute. Edozein aditz nagusik ez dezake horrelako konpletiborik eraman: uste-eritzi-irudizkoek, adibidez, ez dute onartzen (...) **nola...-(e)N** egitura, konpletiboaren egia presuposatuz horri buruz zerbait esaten denean erabiltzen da; **(e)LA**, berriz, bai horrelakoetan bai bestelakoetan."*[28]

Beraz, honen arabera, -(E)LA konpletibatzailea edozein kontestutan aurki genezake; NOLA...-(E)N egitura, ordea, kontestu zehatzetan baino ez dugu aurkituko.

Leizarragaren obra osoa aztertuta, arrazoia eman behar diogu J.A.Mujikari, NOLA...-(E)N egituradun konpletiboak zenbait aditzekin bakarrik aurkitzen baititugu. Hona hemen ugarienak:

* IAQUIN:

  - *(Ecen baceaquian **nola** hura inuidiaz **liuratu çutén** Sacrificadore principaléc)* (Mc.,XV,10)

* ERRAN:

  - *Ecen erran vkan drauçuela, **nola** azquen demboretan **içanen diraden** abusariac, ...* (Ivda,18)

---

[27] MUJIKA, J.A. "Zenbait konpletiboren azterketa J.Leizarragagan" Euskera-XXV, 615.or.

[28] MUJIKA, J.A. "-(e)LA eta beste konpletibatzaileak" Euskera-XXVII, 306-307.orr.

* DECLARATU:

- *Simonec declaratu vkâ du* ***nola*** *lehenic Iaincoac* ***visitatu dituen*** *Gentilac ...* (Apost.Act.,XV,14)

* EÇAGUTU:

- *... Eçagutu duc* ***nola*** *Phariseuac propos hori ençunic* ***scandalizatu içan diraden***? (Mt.,XV,12)

* ORHOITU:

- *... orhoitic* ***nola*** *Iaincoaren manu expressa* ***den*** *...* (Guc.,18-19,253.or.)

* ENÇUN:

- *Ençun ceçan Iesusec* ***nola egotzi vkan çuten*** *hura campora ...* (Io.,IX,35)

* CONTATU:

- *... eta conta ciecén* ***nola*** *bideâ* ***ikussi çuen*** *Iauna (...) eta* ***nola*** *Damascen frangoqui* ***minçatu içan cê*** *...* (Apost.Act.,IX,27)

* IRACURRI:

- *Edo eztuçue iracurri Leguean,* ***nola*** *Sabbath egunetan Sacrificadoréc templean Sabbath eguna* ***hausten dutén,*** *eta hoguen-gabe* ***diraden***? (Mt.,XII,5)

Gauzak horrela, konpletibo hauek aztertzeko orduan sor dakigukeen eragozpen bakarra NOLA...-(E)N noiz den konpletiboa eta noiz den zehar-galdera bereiztea izan daiteke, formari dagokionez behintzat, berdinak baitira. Bereizkuntza beraz, gure senak eta kontestuak berak emandako datuetan oinarritutik egin beharko dugu.

Zenbait adibidetan, ez dago zalantza izpirik; gainera, perpaus horiek Haranederren obran aurkitutakoekin erkatuz gero, konpletibo argiak direla ohartzen gara:

(1)- *... Eçagutu duc* ***nola*** *Phariseuac propos hori ençunic* ***scandalizatu içan diraden***? (Leiz., Mt.,XV,12)

- *... Badaquiçu pharisauac hitz hori adituric* ***scandalisatu direla***? (Haran., Mt.,XV,12)

(2)- *Bada eçagutu çuenean Iaunac* **nola ençun çuten** *Phariseuéc* ... (Leiz., Io.,IIII,1)

- *Eçagutu içan çuenean, bada, Jesusec* **aditu çutela** *pharisauec* ... (Haran., Io.,IV,1)

Edozein modutan, oso argi eduki behar dugu kasu hauetan NOLA-k bere galde-izaera galdu eta adierazpenezko konpletibatzaile bilakatzen zaigula. Halaber, zehaztu dezagun egitura hau ez dugula edozein aditzekin aurkituko, beti aditz jakin batzuen menpe agertzen baita: JAKIN, ERRAN, DEKLARATU, EZAGUTU, ENTZUN, KONTATU, IRAKURRI ...

Badirudi konpletibo hauen bidez ezin dugula informazio berririk adierazi; nolabait, aldez aurretik ezaguna, irakurria, entzuna ... duguna errepikatu egiten da, besterik gabe.

Horretan datza, bada, NOLA...-(E)N eta -(e)LA konpletibatzaileen arteko aldea. Eta honetan ere bereizten da NOLA...-(E)N zehar-galderatik, azken honek ez duelako inolako murrizketarik, ez aditzen aldetik, ez aditzera ematen duen informazioaren aldetik ere.

3.1.4. BAIT-

BAIT- menderagailuak, iparraldeko euskalkietan bereziki, adiera eta balio anitz har dezake; baina balio hauen artean konpletiboak sortzearena aipa dezakegu? Bestela esan, BAIT- menderagailua konpletibatzaileen artean sar dezakegu?

Pierre Lafittek napar-lapurtera euskalkian oinarriturik eraiki zuen gramatikan BAIT- konpletibatzaileen artean kokatzen du. Hona hemen zer esaten digun:

> **"*Complétives des verbes impersonnels***
>
> *(...) Quand ils marquent un fait historique, on emploie le causatif en* ***bait-***
>
> ***Ex.: orduan gertatu zen, gizon bat joan baitzitzaion"***[29]

Luis Villasantek ere BAIT- aurrizkiak har ditzakeen balioez hitz egitean, honen adiera konpletiboa aipatzen digu:

> *"Los autores antiguos de los dialectos orientales conocen (...) un doble uso del prefijo* ***bait-*** *(...) un segundo uso en que* ***bait-*** *aparece solo, sin conexión con ninguna conjunción o anafórico: en este segundo caso el sentido de* ***bait-*** *es múltiple o polivalente; a veces es causal, a veces relativo no restructivo, a veces completivo, enunciativo, comparativo, etc."*[30]

Leizarragak ere BAIT- konpletibatzailea erabiltzen duen aztertu aurretik, ikus dezagun zer dioskun honetaz Leizarragaren obra aztertu duen J.A.Mujikak, hau ere BAIT- konpletibatzaileaz mintzatzen baita:

---

[29] LAFITTE, P., Grammaire Basque (Navarro-Labourdin Littéraire), 451.or.

[30] VILLASANTE, L., La oración causal en vasco, 232.or.

*"Sujetozko konpletiboetan, **gertatu, heldu** etabarren sujetoetan alegia, **bait + sintetikoa** edo **bait + laguntzailea** erabiltzen dira:*

Eta guerta cedin (...) populua miraz baitzegoen haren doctrináz (Mt 7,28)"[11]

Hizu aipu hauetatik eta bereziki Lafittek eta J.A.Mujikak esandakotik atera dezakegun ondorioa BAIT- menderagailua sujeto-funtzioa betetzen duten konpletiboetan aurkituko dugula da.

Ikus dezagun, bada, ea egia denentz:

3.1.4.1. Forma eta Tokia.

Ustezko konpletibo hauek hartzen duten **FORMA**ri dagokionez, esan gabe doa perpaus konpletiboaren adizkiak BAIT- aurrizkia hartu behar duela.

Azken urteotan hegoaldeko euskalkietan behintzat, menderagailu hau aditzetik bereizirik idazteko joera hedatu da; edonola ere, gaur egun Euskaltzaindiak berak gomendatzen du aditzari atxikia idaz dadila, tradizioan beti horrela idatzi izan baita.

Leizarragak BAIT- menderagailua beti aditzari atxikia aurkeztuko digu, adizki horretan beharrezkoak diren aldaketa fonetikoak eraginez:

- *... baina errac solament hitza, eta **sendaturen baita** ene muthilla.* (Mt.,VIII,8)

- *Eta guertha cedin ereiteâ, partebat **eror baitzedin** bide bazterrera, ...* (Mc.,IIII,4)

- *Eta guertha cequidan (...) **transporta bainendin** spirituz.* (Apost.Act.,XXII,17)

- *... ezgaitzaitza spirituén Aitari vnguiz suietago içanen, eta **vicico baicara**?* (Hebr.,XII,9)

---

[11] MUJIKA, J.A. "Zenbait konpletiboren azterketa J.Leizarragagan" Euskera-XXV, 598.or.

Bestalde, ustezko konpletibo hauek hartzen duten **KOKALEKUA**ri dagokionez, sistematikoki, perpaus nagusiaren eskuinaldean agertzen direla aipatu behar dugu:

- *Eta guertha cedin côparatione hauc acabatu cituenean, Iesus* ***iragan baitzedin*** *handic.* (Mt.,XIII,53)

- *Eta içanen da (...) han* ***deithuren baitirade*** *Iainco viciaren haour.* (Rom.,IX,26)

3.1.4.2. BAIT- agertzen deneko kontestuak eta Balioa.

Menderagailu honen balioa zehazten hasi aurretik, ustezko BAIT- konpletibatzailea zein kontestutan ager dakigukeen aztertzea interesgarria izan liteke.

Gogora dezagun aztertzen ari garen aurrizki hau beste partikula edo anaforikoei loturik menderakuntza mota desberdinetan aurki dezakegula. Edonola ere, oraingo honetan bakarrik agertzen den aurrizkia dugu aztergai, eta honek ere bestelako adierak, hala nola, kausazkoa, erlatibozkoa, e.a. har baditzake ere, azterketa honetan konpletiboen eremuan sar ditzakegunak soilik hartuko ditugu kontutan.

BAIT- aurrizki hau, bereziki bost kontestutan aurki dezakegu:

1.- Sujeto funtzioan:

Hauek dira, hain zuzen, Lafittek eta J.A.Mujikak aipatzen dituzten konpletiboak.

Egia esan, Leizarragaren obra osoa aztertuta, BAIT- aurrizkia oso maiz aurkituko dugu kontestu honetan, bereziki, **"Eta guertha cedin ...bait-"** egituran:

(1)- *Eta guertha cedin egun hetan, Iesus* ***ethor baitzedin*** *Nazareth Galileacotic, eta* ***batheya baitzedin*** *Ioannesganic ...* (Mc.,I,9)

(2)- *Eta guertha cedin, çortzigarreneco egunean* ***ethor baitzitecen*** *haourtchoaren circonciditzera ...* (Lc.,I,59)

Zalantzarik gabe, BAIT- aurrizkiaren bidez sortzen denak perpaus nagusiaren sujeto-funtzioa betetzen du; beraz, Lafittek eta J.A.Mujikak egiten duten bezala, geuk ere perpaus hauek konpletibotzat joko ditugu.

Egia da Haranederren obrara jotzen badugu, eskuarki, ez dugula konpletiborik aurkitzen. Dena den, ohart gaitezen Haranederrek, gehienetan, perpaus lokabeak erabiltzen dituela:

(1')- *Dembora hartan berean ethorri içan cen Jesus Nazareth Galileacotic eta içan cen bathayatua Joannesez ...* (Haran., Mc.,I,9)

(2')- *Eta çortcigarren egunean ethorri ciren haurraren circoncisatcerat ...* (Haran., Lc.,I,59)

Aipatu dugunez, gehienetan, Haranederrek ez darabil **"Eta guertha cedin..."** egitura; baina honen ordez, oso antzekoa den **"Guerthatu cen"** aurki dezakegu. Hala ere, adibide hauetan, normalean, ez dugu BAIT- aurrizkia aurkitzen, -(E)N atzizkia daraman adizki subjuntiboa baizik. Nolanahi ere, gogora dezagun Leizarragak honelako konpletiboak -(E)N atzizkiaren bidez ere adierazten dituela:

- *Eta baldin guertha badadi* **eriden deçan** *hura, ...* (Mt.,XVIII,13)

Haranederrek, beraz, Leizarragaren BAIT- aurrizkiaren ordainean, sujeto-funtzioan dauden perpaus hauetan -(E)N atzizkia erabiltzen du, honen bidez, benetako konpletiboen aurrean aurkitzen garela egiaztatuz:

- *Guerthatu cen* **aurkhi ceçaten** *hirur egunen buruan templuan ...* (Haran., Lc.,II,46)

- *Guerthatu cen, bada, (...)* **ethor cedin** *Lyddan ceudecen sainduenganat.* (Haran., Apost.Act.,IX,32)

Bestalde, honelako konpletiboak **"Eta guertha cedin...bait-"** egituran ez ezik, bestelako egituretan ere

erabiltzen ditu Leizarragak, baina beti sujeto-funtzioan. Ikus ditzagun adibide batzuk:

(1)- *Eta içanen da norc-ere inuocaturen baitu Iaunaren icena,* ***saluaturen baita*** *haina.* (Apost.Act.,II,21)

(2)- *... eta halatan eguin cedin guciac salburic* ***empara baitzitecen*** *lurrera.* (Apost.Act.,XXVII,44)

(3)- *Eta içanen da (...) han* ***deithuren baitirade*** *Iainco viciaren haour.* (Rom.,IX,26)

Gainera perpaus hauen konpletibotasuna egiaztatu nahian, Haranederren obrara jotzen badugu, honek ere -(E)N edo BAIT- menderagailuak darabiltzala ohartuko gara:

(1)- *Eta içanen da ordua, Jaunaren icena norc ere othoiztuco baidu, eta hura* ***içanen baida*** *salbatua.* (Haran., Apost.Act.,II,21)

(2)- *... eta manera hortan guertatu cen guciec* ***irabaz ceçaten*** *leyhorrerat.* (Haran., Apost.Act.,XXVII,44)

(3)- *eta guerthatuco da (...)* ***içanen baidire*** *deithuac Jainco biciaren umeac.* (Haran., Rom.,IX,26)

Beraz, kontestu honetan agertzen diren perpausak, Lafitterekin eta J.A.Mujikarekin bat eginik, konpletibotzat jo behar ditugu.

Aztertu berri dugun kontestuan aipaturiko perpausak konpletiboen artean sar ditzakegula esan dugu. Hurrengo kontestuetan, ordea, zalantzak dira nagusi ez baitirudi, adibide gehienetan bederen, perpaus konpletiboez hitz egin daitekeenik.

BAIT- aurrizkia, hegoaldeko hiztunok behinik behin, menderagailutzat jotzen dugu; baina ez dugu ahaztu behar aurrizki hau ez dela gure euskalkietakoa eta guk, beraz, oso erabilera murritza gauzatzen dugula. Izan ere, Leizarragak dituen adibideak aztertuta, kontestu askotan bederen, menderagailua baino gehiago, baieztapena

sendotzen duen partikula dirudi. Gogora dezagun, bestela, Villasantek berak dioskuna:

> *"Parece que de toda esta variedad de ejemplos y usos se desprende que la función básica de* **bait-** *es la de servir de relacionante, tomando esta palabra en su valor o sentido fundamental: es decir, que es un útil que denota relación, enlace o conexión. Este sentido relativo fundamental se traduce, según los casos y contextos, de diversas maneras; (...) En cuanto al valor primitivo de este prefijo, parece que debió de ser de simple afirmación y después pasó a ser un relacionante casi universal."*[32]

Nolanahi ere, azter ditzagun kontestuok:

2- "(ECEN)...-(E)LA eta ...BAIT-" egitura:

ETA emendiozkoak maila sintaktiko bereko perpausak juntatzen dituela onartzen badugu, kontestu honetan -(E)LA konpletibatzailea eta BAIT- menderagailua baliokidetzat jo beharko genituzke. Dena den, adibide hauetan aurkitzen dugun ETA juntagailua ote da? Horretan datza, bada, gakoa.

Kontestu honetan agertzen den BAIT- menderagailua ez da aurrekoa bezain ugaria, baina adibide batzuk behintzat aipa ditzakegu:

> (1)- *Vste duc ecin othoitz daidiodala neure Aitari eta* **baitinguzquet** *bertan hamabi legione baino guehiago Aingueru?* (Mt.,XXVI,53)
>
> (2)- *Bada segur naiz (...) ecen çuec ceuróc ontassunez betheac çaretela, eçagutze guciaz betheric: etare elkar* **admonesta ahal baiteçaqueçue**. (Rom.,XV,14)

Perpaus hauek ikusita bi aukera ditugu; alde batetik, ETA emendiozkoa juntagailua dela onartuko bagenu, bigarren perpausean agertzen zaigun BAIT- aurrizkia menderagailu konpletibatzailea dela aitortu beharko genuke; baina bestetik, bigarren adibidean ikusi ahal dugunez, juntagailuaren ordez, lokailua dugu; beraz, perpaus konpletiboa ETA edota ETARE lokailuen aurrean amaitzen

---

[32] VILLASANTE, L., Sintaxis de la oración compuesta, 219-221.orr.

dela ematen du. Hala balitz, eta hala dela uste dut, BAIT- aurrizkia ez litzateke menderagailua izango, adierazpen perpausa indartzen duen partikula baizik.

Dena den, ikus dezagun nola euskaratu dituen perpaus hauek Haranederrek:

> (1)- *Uzte duçue* ***ez deçaquedala othoitz*** *ene Aita eta* ***ez lietçaquedala igor*** *orai berean aimgueruzco hamabi legione baiño guehiago?* (Haran., Mt.,XXVI,53)
>
> (2)- *Neroni ere behintçat seguratu naiz çuetaz, ene anayac, betheac* ***çaretela*** *caritatez eta bai jaquintassun guciez, eta hala* ***escola ahal deçaqueçuela*** *elkhar batçuc bertceac.* (Haran., Rom.,XV,14)

Haranederrek darabiltzan ETA emendiozkoek ez dirudite lokailuak juntagailuak baizik; beraz, ikusten dugunez, Haranederrek maila sintaktiko bereko perpausak elkartzen ditu, konpletiboak hain zuzen ere. Edonola ere, Leizarragaren obran gauzak ez daude hain argi, arestian aipatu dugunez, Leizarragak ETA lokailuak erabiltzen baititu, antza; beraz, beldur naiz BAIT- aurrizkia daraman perpausa -(E)LA konpletiboaren baliokidea dela esatea ez ote den gauzak gehiegi bortxatzea.

Bestalde, zenbait adibidetan Haranderrek Leizarragak bezalaxe jokatzen du BAIT- aurrizkia erabiliz:

> (3)- *Ecen eguiaz erraiten drauçuet, anhitz Prophetac eta iustoc desiratu vkan dutela ikustera çuec ikusten dituçuen gaucén, eta* ***ezpaitituzte ikussi*** ... (Leiz., Mt.,XIII,17)
>
> - *Erraten darotçuet ecen eguia: Haiñitz profetec eta justuec dutela desiratu icustea çuec icusten duçuena eta* ***ez baidute icussi***, ... (Haran., Mt.,XIII,17)

BAIT- aurrizkiak ez dirudi -(E)LA menderagailuaren baliokidea. adierazpen perpausa sendotzen duen partikula baizik, eta hau egiazta dezakeen froga Haranederrek berak eskaintzen digu, batzuetan, Leizarragaren BAIT- aurrizkiaren ordainean perpaus lokabeak erabiltzen baititu:

(4)- ... *ecen icena duc vici aicela, eta hila* ***baitaiz***. (Leiz., Apo.,III,1)

- ... *icena duçu bici çarela eta hilla çare.* (Haran., Apo.,III,1)

3- Galderazkoetan:

BAIT- aurrizkia, arestian aipatu dugunez, bereziki, sujeto-funtzioan aurkituko dugu; baina, horrez gain, bigarren kontestu batean ere oso maiz topatuko dugu, galde-perpausetan, hain zuzen ere.

Galde-perpaus hauek, eskuarki, ETA emendiozkoak juntatzen dituen bi galderak osatuak izaten dira. Lehendabiziko galderan perpaus lokabe bat dugu, baina bigarrenean BAIT- aurrizkia topatzen dugu aditzari itsatsia. Edonola ere, ez dirudi BAIT- aurrizkia daraman perpausa menpekotzat jo dezakegunik, alde batetik ETA emendiozkoak maila sintaktiko bereko perpausak lotzen dituelako -beraz, lehendabizikoa lokabea bada, bigarrena ere lokabea izan beharko litzateke- eta bestetik, gure senak berak bigarren galderarako lehenengoa bezalako perpaus lokabea eskatzen digulako. Hortaz, BAIT- aurrizkia, kasu hauetan, indartzailea edo bide da. Ikus ditzagun, halere, zenbait adibide:

(1)- ... *Cergatic guc eta Phariseuéc barur eguiten dugu maiz, eta hire discipuluéc* ***ezpaitute*** *baruric* ***eguiten***? (Mt.,IX,14)

(2)- ... *Etzaituztet nic hamabi elegitu, eta çuetaric bat deabru* ***baita***? (Io.,VI,70)

(3)- *Eztuçue differentia eguin vkan ceuroc baithan, eta* ***eguin içan baitzarete*** *pensamendu gaichtoezco iuge?* (Iac.,II,4)

Argibide bila, perpaus hauek Haranederrek dituen adibideekin erkatzen baditugu, honek bi perpaus lokabe elkartzen dituela ohartuko gara. Ikus dezagun adibide bat:

(1')- ... *Cergatic pharisauac eta gu barurtcen gare maiz eta çure dizcipuluac ez dire barurtcen?* (Haran., Mt.,IX,14)

Beraz, hasieran aipatu dugunez, kontestu honetan agertzen diren perpausak lokabetzat jo beharko genituzke. Edonola ere, aipa dezagun BAIT- galde-perpausetan erabiltzea ez dela Leizarragaren ezaugarri berezia, Haranederrek ere zenbaitetan erabiltzen baitu:

(4)- ... *ezgaitzaitza spirituén Aitari vnguiz suietago içanen, eta* ***vicico baicara***? (Leiz., Hebr.,XII,9)

- ... *ez gaizco bada are sumetituago içan behar Izpirituen Aita denari, eta* ***bicico baigare***? (Haran., Hebr.,XII,9)

Azkenik, galderazkoekin amaitzeko, aipa dezagun BAIT-aurrizkia agertzen deneko galde-perpaus guztiak ez direla ETA emendiozkoak juntaturiko bi galderak osatuak. Adibide batzuetan, oso gutxitan bada ere, galderazko bat bestearen menpe dago; beraz, adibide hauetan bai, BAIT-menderagailuaren aurrean gaudela esan dezakegu. Baina ohart gaitezen menderagailua dela esateak ez duela esan nahi konpletibatzailea denik, hurrengo adibidean, kasu, moduzko adiera edo nagusitzen delako:

(5)- ... *Cer ari çarete,* ***lachatzen baituçue*** *asto-vmea?* (Leiz., Mc.,XI,5)

- ... *Cer hari çarete, asto ume hori* ***lechatcen baituçue***? (Haran., Mc.,XI,5)

4- Harridurazkoetan:

Kontestu honetan adibide bakarra aurkitu dugu; dena den, azter dezagun:

- ... *erran ceçan, Cembat alccacer diraden ene aitaren etchean oguia frango dutenic, eta ni gossez* ***hiltzen bainaiz***! (Lc.,XV,17)

Hemen ere ez dugu BAIT- konpletibatzaileaz hitz egiterik, BAIT- aurrizki honekin batera aurkitzen dugun perpausa ezin dugulako menderakuntzaren barruan sar.

Haranederrek duen adibidearekin erkatzen badugu, honek ere BAIT- aurrizkia darabilela ohartzen gara; dena den, biek aurrizki hau erabiltzeak ez du esan nahi menderagailutzat jo behar dugunik, Haranederrek ere, noizbait, BAIT- baieztapen-indartzaile gisa erabiltzen baitu.

5- Bestelakoetan:

Azkenik kontestu desberdinetan agertzen diren zenbait perpaus aipatuko ditugu:

A.- Adibide askotan, ETA emendiozkoak juntaturiko bi perpaus lokabe ditugu; beraz, nekez pentsa genezake BAIT- aurrizkia menderagailua denik:

- *Beraz behar erauën emâ ene dituä cambiadorey, eta ethorriric nic* ***recebitu bainuqueen*** *neurea* ... (Mt.,XXV,27)

- ... *baina errac hitza, eta* ***sendaturen baita*** *ene muthilla.* (Lc.,VII,7)

B.- Beste zenbait adibidetan, BAIT- aurrizkiaren bidez, estilo zuzenari hasiera ematen zaiola dirudi:

- *Eta haur vkanen duçue seignale,* ***eridenen baituçue*** *haourra* ...(Lc.,II,12)

- *Ihardets cieçón Iesusec, Eure arimá enegatic* ***eçarriren baituc?*** (Io.,XIII,38)

C.- Batzuetan BAIT- aurrizki honen balioa konpletiboetatik oso hurbil dagoela aitortu behar dugu ez baitakigu ziur estilo zuzenaren aurrean ala aposizio-funtzioa betetzen duen konpletibo baten aurrean aurkitzen garen. Ikus ditzagun adibide pare bat:

- *Eratchequi ceçâ haur-ere berce gucién gainera,* ***eçar baitzeçan*** *Ioannes presoindeguian.* (Lc.,III,20)

- *Baina haur baduc, Nicolaiten obrey* ***gaitz baitariztec,*** ... (Apo.,II,6)

Adibide hauek aposiziotzat jotzen baditugu -eta hala dirudi- BAIT- konpletibatzailearen aurrean egongo ginateke.

D.- Azkenik, adibide berezi bat aipatu behar dugu. Hona hemen:

- ... *Laur equn dic ordu hunetarano* ***bainincê*** *barur,* ... (Apost.Act.,X,30)

Gogora dezagun Leizarragak honelako adibideak -(E)LA zein -(E)N atzizkien bidez ere adierazten dituela:

- ... *ecen ia hirur egun du enequin* ***dagoela***. (Mt.,XV,32)

- ... *ecen ia ordu dela lotaric* ***iratzar gaitecê*** ... (Rom.,XIII,11)

Beraz, kasu honetan ere BAIT- konpletibatzailea dugula onartu beharko genuke.

Laburbilduz, esan dezagun, BAIT- aurrizkia perpaus nagusiaren sujeto-funtzioa betetzen duen kasuetan eta beste adibide bakan batzuetan menderagailua dela; baina gainontzekoetan perpaus lokabearen baieztapena sendotzen duen partikula besterik ez dela.

A.2. GALDERAZKOAK:

3.1.5. -(E)N(EZ):

Galderazkoena, zalantzarik gabe, arazo gutxien sortarazten digun arloa da euskalki ia guztietan jokabide bera aurkitzen baitugu.

Zehar galdera guztien ezaugarri amankomuna eta bereizgarriena aditzari atxikitzen zaion -(E)N atzizkia da.

Gogora dezagun, bidenabar, adierazpenezko konpletiboen artean -(E)N atzizkiaren bidez eraikitzen diren konpletiboak aztertu ditugula; dena den, nekez nahastuko ditugu, horien sakoneko egituran adierazpen-perpausa eta oraingoen sakoneko egituran galde-perpausa aurkitzen dugulako; gainera, hainbat zehar-galderatan hauen izaera ageriago uzten duten galdetzaileak ere aurkitzen ditugu. Beraz, bion arteko desberdintasuna ezin argiagoa da.

Azter ditzagun, beraz, Leizarragak darabiltzan zehar-galdera motak:

3.1.5.1. Funtzioa.

Zehar-galdera hauek betetzen duten funtzioari dagokionez, eskuarki, perpaus nagusiaren osagarri zuzenaren lekuan agertzen zaizkigula aipatu behar dugu.

Osagarri zuzen hauen artean bereizketa bat egin behar dugu, halere:

1- Osagarri sinpleak (zehar galdera bakar batek osatuak):

- *Baina çoazte, eta ikas eçaçue* ***cer den***, ... (Mt.,IX,13)

2- Osagarri konplexuak:

2.1. Izen Sintagma + Zehar galdera:

- *Baceaquizquiat hire obrác, eta* ***non habitatzen aicén,*** ... (Apo.,II,13)

2.2. Zehar-galdera bat baino gehiagok osatuak:

- ... *guero eracutsi vkan duté* ***harc cer môtatzen duê, eta hartaric cer probetchu recebitzé dugû, bay eta cer moldez hartzeco eta applicatzeco dugû*** ... (Adv.,27-30,262.or.)

Edonola ere, osagarri zuzena izateaz gain, bestelako funtzioak ere har ditzake, hala nola:

* Aposizioa:

- ... *Eztuçue haur-ere iracurri* ***cer eguin çuen Dauid-ec*** ... (Lc.,VI,3)

* Sujetoa:

- ... *declaratu içan baitzê,* ***norêganic, cer dêboratan eta cer lekutâ Iesus Christ sortzeco cen, cer afflictione eta cer herio mota suffritu behar çuen, cer gloriatan resuscitaturê cen, haren resumá ceric içanen cen: eta bereac cer saluamendutara guidaturen cituen*** ... (Adv.,16-20,260.or.)

3.1.5.2. Tokia.

A.- Zehar-galdera hauek perpaus nagusiaren baitan hartzen duten tokiari dagokionez, Leizarragak aurreko konpletibo guztietan agertu duen jarrera berbera mantentzen du.

Dakigunez, Leizarragak menpeko perpausak, orokorrean, perpaus nagusiaren eskuinaldean kokatu ohi ditu eta honetan zehar-galderak ez dira salbuespen, horixe baita kokalekurik usuena:

- ... *ecê badaquit* ***nondic ethorri naicén, eta norat ioaiten naicê*** ... (Io.,VIII,14)

- ... *erran nieçoán,* ***eya nahi licenez*** ... (Apost.Act.,XXV,20)

Edonola ere, aditz nagusiaren aurreko zehar-galderak ere topa ditzakegu. Zenbaitetan, zehar-galdera hauek kontestu berezietan aurkitzen ditugu eta horrexegatik agertzen zaizkigu aditz nagusiaren aurrean:

1- Aditz nagusian laguntzailearen ezabaketa suertatzen denean:

- ***Cein guehien içanen licén*** *Apostoluéc iharduqui.* (Lc.,IX,0-46)

2- Menpeko perpaus baten barruan txertaturik daudenean:

- ... ***Cer den*** *eztaquian haur, maradicatua da.* (Io.,VII,49)

- ... ***cer eguin cen*** *etzaquialaric,* ... (Apost.Act.,V,7)

- ... ***nola ihardetsi behar draucaçuen*** *daquiçuencát.* (Col.,IIII,6)

Baina kontestu arruntetan ere aurki ditzakegu; beraz, neurri handi batean, kokagunea aukeran dagoela esan behar dugu:

- *Baina* ***nolatan orain dacussan,*** *eztaquigu: edo* ***norc irequi dituen hunen beguiac,*** *guc eztaquigu* ... (Io.,IX,21)

B.- Bestalde zehar-galderaren barneko elementuek hartzen duten kokalekuaz ere hitz egin dezakegu.

Zehar-galderen artean, geroago zehaztuko dugunez, bi sail bereiz ditzakegu, alde batetik, BAI/EZ erantzuna eskatzen duten galderak eta bestetik, galdetzaileak daramatzaten galderak. Azken hauetan, galdetzailea galdegai izanik, aditza, orokorrean, honen ondo-ondoan joaten da. Baina, gogora dezagun, EGLU-k dioskuna:

"*Galdegaiak eta aditzak osatzen duten multzoa ezin du beste elementu batek eten. Hala ere, aipatzekoa da galdegaia, hiru kasuetan,* ***nola, zergatik*** *eta*

zertarako *galde hitzak osatua izatea. Izan ere galde-hitz hauek (eta orohar adizlagunei dagokien kasu-marka hartzen duten gainerakoek,* ***norekin, norendako*** *e.a.) ez dute aditzaren aurre-aurrean joan beharrik."*[33]

Izan ere, Leizarragak sarritan apurtzen du galdegaiak eta aditzak osatzen duten multzoa. Gehienetan, adizlagunei dagokien kasu-marka hartzen duten galde-hitzetan gertatzen da:

- ... *informa cedin hetaric* ***non Christ sortzeco cen.*** (Mt.,II,4)

- ... *Erraguc* ***noiz gauça horiac içanen diraden,*** ... (Mc.,XIII,4)

- ... *iaquin leçançát* ***cer causagatic hala oihuz leuden*** ... (Apost.Act.,XXII,24)

- ... *artha du Iaunaren gaucéz,* ***nolatan Iaunaren gogoraco daten.*** (Cor.1,VII,32)

Edonola ere, adizlagunei dagozkien galde-hitzetan ez ezik, bestelako galde-hitzetan ere topa dezakegu etendura hau:

- ... *eztuçue irakurri* ***cer Iaincoaz erran içan çaiçuen,*** ... (Mt.,XXII,31)

- ... *eta conta iecec* ***cein gauça handiac Iaunac eguin drauzquián*** ... (Mc.,V,19)

- ... *badu* ***norc hura condemna deçan*** ... (Io.,XII,48)

Beraz, ikusten dugunez, Leizarragak beldurrik gabe apurtzen du galdegaiaren eta aditzaren arteko lotura, bion artean bestelako elementuak tartekatuz.

---

[33] EUSKALTZAINDIA, Euskal Gramatika Lehen Urratsak-III (Lokailuak), 147.or.

3.1.5.3. Zehar-galdera motak.

Zehar-galdera motak bereizteko ekar dezagun gogora P.Goenagak proposatzen digun sailkapenerako irizpidea:

> *"a) Lehenbizi, kontutan hartu behar den bereizkuntza da ea perpaus horrek aditz jokatua daraman ala jokatu gabea (...)*
>
> *b) (...) beste tasun bereizgarri bat [+GALDERAZKO]"*[34]

Sail honetan aipatzen ditugun perpaus guztiek [+GALDERAZKO] tasuna dute; beraz, sailkapena egitean, forma jokatuak ala jokatugabeak diren izan beharko dugu kontutan.

A.- FORMA JOKATUAK:

Hauen barruan beste sailkapen bat egin behar dugu:

A.1. BAI/EZ erantzuna eskatzen duten galderak:

Zehar galderen ezaugarri bereizgarria, formari dagokionez behintzat, aditzari atxikitzen zaion -(E)N atzizkia da; edonola ere, Leizarragak zehar-galderak eraikitzeko molde bat baino gehiago darabilela izan behar dugu kontutan. Baina, lehendabizi, gogora dezagun Villasantek esaten diguna:

> *"Tanto en las interrogativas generales como en las parciales, el verbo recibe el sufijo* **-n** *(...) Ax. (y también algunos otros autores) refuerzan a veces dicha* **-n** *con la adición de una* **z** *...*
>
> *Michelena apostilla: Ax. y los demás sólo añaden* **-(e)z** *etc., si no estoy muy equivocado, cuando la interrogativa es general. Me parece que es imposible "Dakusagun ea nork dioenz"*[35]

---

[34] GOENAGA, P., "Konpletiboak, zehargalderak eta erlatiboak" Euskal sintaxiaren zenbait arazo, 159-161.orr.

[35] VILLASANTE, L., Sintaxis de la oración compuesta, 62-63.orr.

BAI/EZ erako zehar-galderak ez dira oso ugariak, baina ia guztietan aurkituko dugu forma bera; beraz, arlo honetan Leizarragaren jokabidea oso sistematikoa izan zela aitortu behar dugu:

* -(E)N:

Gaur egun, hegoaldeko euskalkietan behintzat, nagusitzen den forma izan arren, BAI/EZ erako zehar-galderetan, Leizarragaren obra osoa aztertuta, ez dugu adibide bat ere aurkitu.

* -(E)NEZ:

BAI/EZ erantzuna eskatzen duten zehar-galdera guztietan forma hau aurkitzen dugu; dena den, bi egitura bereizi behar ditugu:

1. -(E)NEZ (bakarrik, beste partikularik gabe):

   - ... *Gaichto* ***denez*** *eztaquit* ... (Io.,IX,25)

2. EYA ... -(E)NEZ:

   - *obra onetan testimoniage duena:* ***eya*** *haurrac* ***haci dituenez,*** ***eya*** *estrangerac* ***alogeatu dituenez,*** ***eya*** *sainduén oinac* ***ikuci dituenez,*** ***eya*** *affligituac* ***aiutatu dituenez,*** ***eya*** *obra on orori ardura* ***iarreiqui içan çayonez.*** (Tim.1,V,10)

Bi egitura hauetatik bigarrena, hau da, "EYA... -(E)NEZ" da erabiliena.

Nolanahi ere, garrantzitsuena era honetako perpaus guztietan -(E)NEZ atzizkia erabiltzen dela da. Gainera, ez dirudi hau Leizarragaren edota gainontzeko iparraldeko idazleen joera berezia denik, Miren Azkaratek Aita Fray Pedro Antonio Añibarro-z egindako ikerketa batean gauza bera antzeman baitzuen. Ikus dezagun zer dioskun:

> " *BAI/EZ motako zehar galderetan aditzak -NEZ edo BA- hartuko du erlazio hizki bezala, baina ez -N soilik (...).*"[16]

---

[16] AZKARATE, M., "Zehar galderak: BA-, Denborazko perpaus

A.2. GALDETZAILEAK daramatzaten galderak:

Hauexek dira, zalantzarik gabe, Leizarragaren obran maizenik aurkitzen ditugun zehar-galderak.

BAI/EZ erantzuna eskatzen duten zehar-galderetan -(E)N atzizkiaren ordez, beti -(E)NEZ aurkitzen dugula aipatu dugu. Orain, berriz, guztiz kontrakoa aldarrikatu behar dugu, honelako perpausetan, Mitxelenak arestian aipaturiko aipuan ongi azaltzen zuenez, -(E)NEZ forma ez baitugu inoiz aurkitzen; beraz, galdetzaileak daramatzaten zehar-galdera guztietan -(E)N atzizki soila topatuko dugu:

- ... *ecen eztaquiçue* ***cer orduz*** *çuen Iauna* ***ethorteco den***. (Mt.,XXIIII,42)

- ... *erradac* ***non eçarri duán*** ... (Io.,XX,15)

Bestalde, esan dezagun, honelako zehar-galderetan, EYA sarrera partikula ere aurki dezakegula. Dena den, ohart gaitezen ez dela BAI/EZ erako zehar-galderetan bezain ugaria; obra osoa aztertuta, lauzpabost adibide baino ez ditugu aurkitu:

- *Guero sar citecen elkarrequin dispután,* ***eya*** *hetaric* ***cein cen*** *handiena*. (Lc.,IX,46)

- ... *gudu handia cen gendarmesén artean* ***eya*** *Pierris* ***cer eguin cen***. (Apost.Act.,XII,18)

Azkenik, gogora dezagun elementuen ordenaz hitz egitean aipatutakoa, hau da, Leizarragaren obran behintzat, galde-hitzak eta aditzak osatzen duten multzoa beste edozein sintagmak eten dezakeela.

---

txertatuen adibide kurioso zenbait" Euskera-XXVII, 642.or.

A.3. **"Eztic non ... reposa deçan"** erako zehar-galderak:

Hauen formari dagokionez, alde batetik, galdetzaileak daramatzaten galderak direla eta bestetik, aditzak beti -(E)N atzizkia hartzen duela aipatu behar dugu; baina ohart gaitezen zehar-galdera hauetako adizkiak beti subjuntiboak direla:

(1)- ... *baina guiçonaren Semeac eztic* ***non*** *bere buruä* ***reposa deçan.*** (Mt.,VIII,20)

(2)- ... *ecen eztut* ***nora bil ditzadan*** *neure fructuac.* (Lc.,XII,17)

(3)- *Huneçaz* ***cer seguric scriba dieçodan*** *iaunari eztut ...* (Apost.Act.,XXV,26)

Bestalde, aipa dezagun honelako galderak ez direla edozein aditzekin agertzen, Leizarragak beti IZAN, UKAN edo ERIDEN aditzen menpe eraikitzen baititu.

Aipatutako adibideak Haranederrek dituenekin erkatzen baditugu, azken honek forma jokatugabeak darabiltzala jabetzen gara:

(1)- ... *baiñan Guiçonaren Semeac ez du* ***non*** *burua* ***pausa.*** (Haran., Mt.,VIII,20)

(2)- ... *ecen ez dut* ***non çarra bildu*** *ditudanac?* (Haran., Lc.,XII,17)

(3)- *Ordean ez dut deussere guerthutic huntaz* ***escribatceco*** *emperadoreari ...* (Haran., Apost.Act.,XXV,26)

Gaur egungo moldeetatik gertuen geratzen zaiguna, dudarik gabe, Haranederren jokabidea da; edonola ere, halako adibideak Leizarragak ere badituela aipatu behar dugu. Azter ditzagun, beraz, forma jokatugabeak:

B.- FORMA JOKATUGABEAK:

B.1.- Goian aipatu dugunez, honelako zehar-galderak adierazteko Leizarragak bi molde erabiltzen ditu: alde batetik, aurreko atalean aipatu duguna, hots, forma jokatuez baliatzen dena (aipa dezagun, bidenabar, hauxe dela ugariena) eta bestetik, forma jokatugabeen bitartez eraikitzen dena:

> - *Eta ceren harc ezpaitzuen* ***nondic paga***, ... (Mt.,XVIII,25)
>
> - ... *ceren ezpaitute* ***nondic*** *hiri ordaina* ***renda***. (Lc.,XIIII,14)

Zehar-galdera hauek, A.3 multzoan aipatutakoak bezala, UKAN aditzaren menpe eraiki dira; eta, egia esan, molde desberdinak erabiltzen badira ere, ez dut uste bi ereduen artean desberdintasunik dagoenik. Azken finean, orain aztergai dugun eredu jokatugabea, nire ustez, aditz laguntzailearen ezabaketak sortarazten du, hots:

> * Eta ceren harc ezpaitzuen **nondic paga (ceçan)**, ...

B.2.- Bestalde, Patxi Goenagak perpaus konpletiboez egin zuen azterketari jarraitzen badiogu, badirudi forma jokatugabe hauek bi multzotan banatu behar ditugula:

1- Forma jokatuetatik eratortzen diren zehar-galdera jokatugabeak:

> *"Alegia, aditz jokatugabeko zehargalderak aditz jokatua dutenetatik erakartzeko modurik ez al da? Adibidez (28a) (28b)-tik?:*
>
> *(28) a. Ez dakigu nora joan*
>
> *b. Ez dakigu nora joan behar dugun*
>
> *Esanahiari begiratuta behintzat, nahikoa bidezkoa dirudi bata bestetik erakartzea. (28a) tankerako perpausetan beti bada halako obligazio kutsu bat, edo, gutxienez, etorkizunera begira edo daudela ematen du"*[37]

---

[37] GOENAGA, P., "Konpletiboak, zehargalderak eta erlatiboak" Euskal

Leizarragak ere baditu honelako adibideak:

- ... *ez iaquinez* ***cer eguin***, ... (Lc.,XXI,25)

- ... *eta etzaquitén* ***cer pensa***, ... (Apost.Act.,II,12)

Hala eta guztiz ere, Goenagak aipatzen duen "obligazio kutsua" oso zalantzagarria da. Azken finean, **Ez dakit ZER EGIN** esaten dugunean, derrigorrez zerbait egin BEHAR dugula suposatzen da? Ez dut uste obligazio kutsu hori ezinbestekoa denik. Beraz, ez zait hori parafrasirik egokiena iruditzen; dena den, ezer proposatzekotan, BEHAR baino gehiago, AHAL -edo NAHI- dela esango nuke:

- Ez dakit ZER EGIN

* Ez dakit zer egin BEHAR dudan (??)

- Ez dakit zer egin AHAL / NAHI dudan (Onargarriagoa nire ustez)

Bestalde, Goenagak "*gutxienez, etorkizunera begira edo daudela ematen du*" dio, eta honetan, neurri handi batean arrazoia eman geniezaioke, baina neurri handi batean bakarrik, ez baita guztiz sistematikoa. Izan ere, **"Ez dakigu nora joan"** bezalako perpaus batean etorkizun-kutsua edo onar liteke: "Ez dakigu nora joan(go garen)"; baina, **"Ez dakigu zer pentsatu"** perpausean ez dut uste "ez dakigu zer pentsatu(ko dugun) parafrasia onar daitekeenik.

Edozein modutan ezin ukatu dezakeguna hauek forma jokatuetatik eratortzen diren zehar-galderak direla da.

---

sintaxiaren zenbait arazo, 175-177.orr

2- Hona hemen Goenagak proposatzen duen bigarren multzoa: "Forma jokatuetatik eratortzen EZ diren zehar-galdera jokatugabeak".

> *"Izan ere, zenbait kasutan horrelako parafrasiak ezinak gertatzen direla dirudi, bereziki honako aditz hauetakoren bat tartean dugularik: EDUKI, UKAN, IZAN, AURKITU, ... (...)*
>
> *Horrelako adibideetan oinarritzen nintzen aditz mugagabea dutenak aditz mugatuzkoetatik elisio bidez deribatzea ez onartzeko, batez ere kontuan hartzen badugu aditz hauek, gainerakoan, ez dutela inolako konpletiborik ametitzen (...)*
>
> *Hortaz, EDUKI bezalako aditz batek mugagabezko perpaus zehargalderazkoa bakarrik onartzen duela onartu beharko genuke eta horren berri eman hiztegian."*[18]

Goenagak esandakoeran arabera, Leizarragaren ondoko adibideak bigarren multzo honetan sartu beharko genituzke:

- *Eta ceren harc ezpaitzuen* ***nondic paga,*** ... (Mt.,XVIII,25)

- ... *ceren ezpaitute* ***nondic*** *hiri ordaina* ***renda.*** (Lc.,XIIII,14)

- ... ***cer erran*** *eriden vkan dutén* ... (Guc.,i2,252.or.)

Gainera, Goenagaren ustez, *"EDUKI bezalako aditz batek mugagabezko perpaus zehargalderazkoa bakarrik onartzen duela onartu beharko genuke"* (goiko aipua).

Baina, honelako aditzek zehar-galdera jokaturik onartzen ez badute, zer dira, bada, hurrengo adibideak?:

- ... *ecen eztut* ***nora bil ditzadan*** *neure fructuac.* (Lc.,XII,17)

- *Huneçaz* ***cer seguric scriba dieçodan*** *iaunari eztut* ... (Apost.Act.,XXV,26)

---

[18] Id., 178.or.

Hau ikusita, ez dirudi Goenagaren teoria oso zuzena denik. Nolanahi ere, nahi izanez gero, zehar galdera jokatugabeen artean bi multzo bereiz litezke; baina, irizpidea ezin da izan batzuk forma jokatuetatik eratortzen direla eta besteak ez, biak eratortzen baitira forma jokatuetatik; bereizketa, beraz, forma jokatu horien arabera egin genezake. Ikus dezagun adibideen bidez:

a)- ... *ez iaquinez* ***cer eguin***, ... (Lc.,XXI,25)

b)- *Eta ceren harc ezpaitzuen* ***nondic paga***, ... (Mt.,XVIII,25)

a) multzokoak indikatibozko forma jokatuetatik eratortzen direla ematen du: "Ez jakinez **zer egin dezakeen/zezakeen**"

b) multzokoak, berriz, A.3. atalean ikusi dugunez, subjuntibozko formetatik eratortzen dira: "Zeren hark ez baitzuen **nondik paga zezan**".

Dena den, hau guztia aditz nagusiak eragiten du, antza denez, UKAN eta JAKIN aditzek erregimen desberdina eskatzen baitute. Horregatik ez dakit merezi duen bereizketa egiteak, azken finean, bi kasuetan aditz laguntzailearen ezabaketaren ondorioz sorturiko forma jokatugabeak baitauzkagu.

Edozein modutan, hau haizean uzten dudan teoria bat baino ez da, agian beste hainbat bezain arbuiagarria.

A.3. AGINTERAZKOAK:

3.1.6. -(E)LA / -(E)N:

Konpletiboen artean tarte berezia eskaini behar diegu -(E)LA edo -(E)N atzizkien bidez eraikitzen diren aginterazko perpausei.

Hauek, egia esan, badirudi perpaus bakunak direla ez baitaude ageriko aditz nagusi baten menpe; gainera, askotan aginterazko perpaus bakunei loturik agertzen zaizkigu:

- ... *vtzitzaçue haourtchoac, eta enegana ethortetic* ***eztitzaçuela empatcha*** ... (Mt.,XIX,14)

- ... *Ilki adi horrenganic, eta guehiagoric ez* ***adila sar*** *hori baithan.* (Mc.,IX,25)

Bi perpausak elkarren ondoan ikusirik, biak berdinak direla ematen du. Dena den, aztergai ditugun perpausak, formari dagokionez behintzat, menderakuntzaren barnean sartu behar ditugu.

Ikus dezagun zer dioskun perpaus hauetaz Villasantek:

> *"En castellano* ***Que*** *puede encabezar oraciones independientes exhortativas o interrogativas:* ***"Que se alivie"****. Se trata de subordinadas sin verbo subordinante expreso.*
>
> *Esta clase de oraciones es frecuente en Ax., y las construye con* ***-la*** *sufijado al verbo. Pero casi siempre se trata de oraciones negativas."*[39]

Villasantek -(E)LA atzizkia bakarrik aipatzen du; nolanahi ere, ondoren ikusiko dugunez, Leizarragak honelako perpausak sortzeko maizenik -(E)LA atzizkia badarabil ere, ez ditugu -(E)N atzizkiaren bidez eraikitako perpausak inola ere zokoratu behar.

---

[39] VILLASANTE, L., Sintaxis de la oración compuesta, 48.or.

3.1.6.1. Forma eta Funtzioa.

Arestian aipatu dugunez, aginterazko perpaus hauetan bi forma desberdin bereizi behar ditugu, alde batetik -(E)LA atzizkiaren bidez sortzen diren perpausak eta bestetik, -(E)N atzizkiaren bidez sortzen direnak. Biak oso maiz agertzen dira, baina zalantzarik gabe, ugarienak -(E)LA atzizkidun formak dira:

1. -(E)LA atzizkidun formak:

   - ... *harc erran ceçan,* ***Eztaguiçuela*** *nigarric ...* (Lc.,VIII,52)

   - *Bada Iaunac* ***chuchent ditzala*** *çuen bihotzac ...* (Thes.2,III,5)

2. -(E)N atzizkidun formak:

   - ... *erran ciecén discipuluey,* ***Goacen*** *Iudeárát berriz.* (Io.,XI,7)

   - ***Boz eta aleguera gaitecen,*** *eta* ***demogun*** *hari gloria ...* (Apo.,XIX,7)

Forma hauek betetzen duten **FUNTZIOA**ri dagokionez, ez dirudi desberdintasunik dagoenik, biek aginterazko perpausak sortzen baitituzte. Gerta daiteke, bi forma hauek, aurrerago ikusiko dugunez, kontestu desberdinetan aurkitzea, baina biek aginterak sortarazten dituzte.

3.1.6.2. Tokia.

Sarreran aipatu dugunez, konpletibo hauek ez dira ageriko aditz nagusi baten menpe agertzen; beraz, ezin hitz egin dezakegu konpletibo hauek perpaus nagusiaren baitan hartzen duten tokiaz. Edonola ere, bai hitz egin dezakegula aginterazko perpaus hauen barruko elementuek hartzen duten kokaguneaz.

Aginterazko perpaus bakunetan, adizkia, eskuarki, hasierako posizioan aurkitzen dugu. Halaber, -(E)LA eta

-(E)N atzizkien bidez sortzen diren aginterazko gehienetan posizio honetan aurkitzen dugu adizkia:

- ***Eztitzaçuela eguin*** *çuen thesaurac lurrean ...* (Mt.,VI,19)

- ***Çareten*** *ene imitaçale, ...* (Cor.1,XI,1)

Kokaleku hau, halere, ez da sistematikoa, aditzaren aurrean beste edozein motatako sintagmak aurki ditzakegu eta:

- *Bada Iaincoac iunctatu duena guiçonac* ***ezteçala separa.*** (Mc.,X,9)

- *... oha, eta guehiago bekaturic* ***eztaguinala.*** (Io.,VIII,11)

- *Iaten duenac, iaten duena* ***ezteçan menosprecia:*** *eta iaten eztuenac, iaten duena* ***ezteçan iudica*** *...* (Rom.,XIIII,3)

Beraz, elementuen kokaguneari dagokionez, Leizarragak askatasun handiz jokatzen duela aitortu behar dugu.

3.1.6.3. -(E)LA eta -(E)N agertzen direneko kontestuak

Bi atzizki hauek betetzen duten funtzioari eta perpausaren baitan hartzen duten kokalekuari dagokienez, berdin jokatzen dutela ikusi dugu. Dena dela, erabat baliokidetzat jo behar ditugu? Egia esan, bi atzizkien bidez, aginterazko perpausak eraikitzen dira; baina zenbait kasutan errankideak izan badaitezke ere, gehienetan kontestu desberdinetan agertzen dira.

Edonola ere, aurrera egin aurretik, ikus dezagun Lafittek aginterazkoez esaten diguna:

*"**L'ordre** est exprimé:*

a) par l'impératif aux 2ª et 3ª personnes

b) par le subjonctif-conjonctif à la première personne

Ex.: kanta dezagun

c) souvent, à la 3ª personne, l'impératif est remplacé par le subjonctif-complétif

Ex.: egin dezala

(...)

***La défense** est exprimée:*

a) par la négation suivie du subjonctif-complétif

Ex.: ez hadila hunat ager

b) à la 1ª personne du pluriel, on emploie plus souvent le subjonctif-conjonctif

Ex.: ez dezagun uste izan

*Les propositions **optatives** sont traduites actuellement par des substituts du votif tombé en désuétude:*

a) par le subjoctif-complétif

***Ex.: Jainkoak adi zaitzala** "*[40]

Lafittek, ikus dezakegunez, aginterazkoak sortzeko bi subjuntibo-mota -LA eta -(E)N (konpletiboa eta konjuntiboa) aipatzen ditu; dena den, ez ditu biak kontestu berberetan kokatzen.

Ikus dezagun, Leizarragak noiz eta zein kontestutan erabiltzen dituen bi atzizki hauek:

1- BAIEZKO AGINTERAK:

a) Lafittek bere gramatikan ongi adierazten duenez, honelako aginterazkoak sortzeko, usuena bigarren eta hirugarren pertsonako aginte-adizkiak aurkitzea izaten da. Edonola ere, ohart gaitezen hauek perpaus bakunak direla eta ez dutela zerikusirik menderakuntzarekin. Hona hemen adibide batzuk:

- ... ***Iaiqui çaitezte,*** ... (Mt.,XVII,7)

---

[40] LAFITTE, P., Grammaire Basque (Navarro-Labourdin Littéraire), .orr.

- ... ***Ilki adi*** *horrenganic, ...* (Mc.,IX,25)

- ... ***aiuta bitza*** *hec, ...* (Tim.1,V,16)

b) Baiezko aginteren artean sarritan aurkitzen dugun beste forma bat -(E)N atzizkiaren bidez sortutakoa da.

Lafittek esaten digunaren arabera, -(E)N atzizkia agintera lehenengo pertsonari dagokionean erabiltzen da. Dena den, Leizarragaren obran, lehenengo pertsonarekin ez ezik bigarren eta hirugarren pertsonekin ere erabiltzen da:

* 1.pertsona:

  - *... regla ber-batez* ***ebil gaitecen****, eta* ***garen*** *sendimendu ber-batetaco.* (Phil.,III,16)

* 2.pertsona:

  - *... habil baguerequin, eta* ***aicén*** *sendo eure plagatic.* (Mc.,V,34)

  - *Cioela ocengui,* ***Çareten*** *beldur Iaincoaren, ...* (Apo.,XIIII,7)

* 3.pertsona:

  - *Eta hec-ere* ***phoroga ditecen*** *lehen, guero* ***cerbitza deçaten,*** *...* (Tim.1,III,10)

c) Bestalde, baiezko aginteren artean, hain ugariak ez badira ere, -(E)LA atzizkiaren bidez sortzen direnak ere aipatu behar ditugu. Lafittek honelako aginterak, bereziki, hirugarren pertsonari dagozkiola diosku. Dena den, aurreko sailean ikusi dugunez, hirugarren pertsonako aginterak -(E)N atzizkiaren bidez ere adieraz daitezke; horrexegatik esan genuen hasieran bi atzizki hauek zenbaitetan behintzat, baliokideak izan daitezkeela.

Ikus dezagun adibideren bat:

- *... fornitzê draucanac, ogui-ere iateco* ***diçuela,*** *eta* ***multiplica deçala*** *çuê hacia, eta çuen iustitiaren fructuac* ***augmenta ditzala.*** (Cor.2,IX,10)

Hala ere, ohart gaitezen baiezko aginteretan -(E)LA atzizkia bakar-bakarrik hirugarren pertsonarekin aurkituko dugula. Beraz, baiezko aginterei dagokienez behintzat, -(E)N atzizkia baino mugatuagoa dela esan dezakegu.

Bestalde, baiezko aginteren artean, Lafittek **"propositions optatives"** deitutakoak aipatu behar ditugu, Leizarragak eskuarki -(E)LA atzizkiaren bidez adierazten dituenak:

- ... *Hosanna, benedicatu* ***dela*** *Iaunaren icenean ethorten dena.* (Mc.,XI,9)

- ***Laudatu dela*** *Israeleco Iainco Iauna,* ... (Lc.,I,68)

- *Bada baquezco Iaincoa* ***dela*** *çuequin gucioquin, Amen.* (Rom.,XV,33)

Laburbilduz, esan dezagun baiezko aginteretan, alde batetik forma bakunak ditugula, eta bestetik, menderakuntzaren baitan sar ditzakegun formen artean, -(E)N atzizkiaren bidez sortzen diren aginterazkoak direla nagusi, lehenengo, bigarren zein hirugarren pertsonekin ager daitezkeelarik. Bestalde, -(E)LA atzizkiaren bidez eraikitzen diren formak ditugu; baina, hauek bakar-bakarrik hirugarren pertsonako aginterak eta, gehienetan, desideratiboak izango dira.

2- EZEZKO AGINTERAK:

a) Baiezko aginteretan -(E)N atzizkiaren bidez sortzen diren formak baldin badira nagusi, ezezko aginteretan -(E)LA atzizkidun formen nagusitasuna aitortu behar dugu, atzizki hau adibide gehienetan eta pertsona guztiekin aurkitzen baitugu:

* 1.pertsona:

  - ... *minçatu baçayó* ***ezgaitecela*** *Iaincoaren contra* ***batailla.*** (Apost.Act.,XXIII,9)

* 2.pertsona:

- *Manamenduac badaquizquic,* ***Ezteçala adultera, Ezteçala hil, Ezteçala ebats,*** *Ezteçala testimoniage falsuric* ***erran,*** *Damuric* ***eztaguioala*** *nehori, ...* (Mc.,X,19)

* 3.pertsona:

- *... Beraz Iaincoac iunctatu duena, guiçonac* ***ezteçala separa.*** (Mt.,XIX,6)

b) Kontestu honetan -(E)N atzizkia ere aurki dezakegu. Lafittek aginterazko hauen erabilera GU pertsonara mugatzen du; baina Leizarragaren obra aztertuta, agintera hauek GU pertsonarekin ez ezik bestelakoekin ere ager daitezkeela ohartzen gara:

* 1.pertsona:

- *Eta* ***ezteçagun tenta*** *Christ, ...* (Cor.1,X,9)

* 2.pertsona:

- *... Halacotz diotsuet,* ***eztuçuen*** *artharic ...* (Lc.,XII,22)

* 3.pertsona:

- *Iaten duenac, iaten duena* ***ezteçan menosprecia:*** *eta iaten eztuenac, iaten duena* ***ezteçan iudica*** *...* (Rom.,XIIII,3)

-(E)N atzizkiaren bidez sortzen diren ezezko aginterak ez dira -(E)LA atzizkidunak bezain ugariak; baina ezin uka dezakegu bion arteko kidetasuna oso handia dela. Izan ere, batzuetan, Leizarragak berak adibide berdina, batean -(E)N atzizkiarekin eta bestean -(E)LA atzizkiarekin eskaintzen digu:

- ***Eztuçuela*** *beraz artharic erraiten duçuela ...* (Mt.,VI,31)

- *... Halacotz diotsuet,* ***eztuçuen*** *artharic ...* (Lc.,XII,22)

Bestalde, Leizarragaren adibideak Haranederrek dituenekin erkatzen baditugu, gehienetan jokabide berdina agertzen badute ere, zenbait adibidetan Leizarragak -(E)N atzizkia erabili duen adibideetan Haranederrek -(E)LA erabiltzen du eta alderantziz. Beraz, hau bi atzizki hauek, neurri haundi batean bederen, baliokideak diren seinale ezin argiagoa da. Ikus dezagun adibide bana:

(1)- *Eta* ***ezteçagun tenta*** *Christ, ...* (Leiz., Cor.1,X,9)

- ***Ez deçagula tenta*** *Jesuchristo, ...* (Haran., Cor.1,X,9)

(2)- *... Ilki adi horrenganic, eta guehiagoric* ***ez adila sar*** *hori baithan.* (Leiz., Mc.,IX,25)

- *... ilkhi adi haur horren ganic eta guehiago* ***ez hadin*** *sar horren baithan.* (Haran., Mc.,IX,24)

Hau ikusita, bi atzizkien arteko baliokidetasuna onartu behar dugu. Dena den, gogora dezagun baliokidetasun hau adibide batzuetan baino ez dugula aurkitzen eta kasu gehienetan, atzizki bakoitzak bere ekintza-eremua duela. Arestian aipatu dugunez, salbuespenak salbu, -(E)N atzizkia, nagusiki, baiezko aginteretan aurkituko dugu, eta -(E)LA atzizkia ezezkoetan (hirugarren pertsonako zenbait agintera eta desideratiboak kontutan hartu gabe). Gainera, Leizarragak berak egiaztatzen digu eremu-banaketa hori bere erabileraren bidez:

- *...* ***Ezteçagula*** *hura* ***erdira,*** *baina* ***daquigû*** *...* (Io.,XIX,24)

- *...* ***ezadila*** *vrguluz* ***hant,*** *baina* ***aicén*** *beldur.* (Rom.,XI,20)

- *Anayeác,* ***etzaretela*** *adimenduz haour: baina* ***çareten*** *malitiaz haour, ...* (Cor.1,XIIII,20)

Beraz, funtzio bera betetzen badute ere, adibide gehienetan behintzat, kontestu desberdinetan agertzen direla esan dezakegu.

B.- FORMA JOKATUGABEAK:

3.1.7. -T(Z)E...

Konpletiboen sarreran aipatu dugunez, perpaus-mota hauek aztertzeko, forma kontutan harturik, jokatuak eta jokatugabeak bereizi behar ditugu.

Aurreko ataletan forma jokatuak aztertu ditugunez, heldu diezaiogun orain, gaingiroki bada ere, forma jokatugabeen azterketari.

3.1.7.1. Nominalizazio-motak.

Forma jokatugabe edo nominalizazio hauen artean beste bereizketa bat egin behar dugu:

3.1.7.1.1. ADITZ BATEN MENPE sortzen direnak

Nominalizazio-mota ugari aurki ditzakegunez, hauek bete ditzaketen funtzioak ere anitz dira, nominalizazio desberdinen bidez edozein izen sintagmak beteko lituzkeen funtzioak adieraz baitaitezke.

Ikus dezagun, bada, zeintzuk diren Leizarragak erabiltzen dituen moninalizaziook:

3.1.7.1.1.1. -T(Z)EA:

Leizarragak gehien erabiltzen dituen nominalizazioetako bat oraingo hau dugu.

Gehienetan sujeto funtzioan aurkitzen dugu:

- ... *Sabbathoan vngui* ***eguitea*** *da sori, ala gaizqui* ***eguitea****? persona baten* ***emparatzea*** *ala* ***hiltzea*** ... (Mc.,III,4)

Edonola ere, honelako nominalizazioak sujetoak ez ezik, osagarri zuzenak ere izan daitezke (hauek urriagoak badira ere):

- ... *lengoage arrotzez* ***minçatzea*** *ezteçaçuela empatcha.* (Cor.1,XIIII,39)

- *Ecen emazteari* ***iracastea,*** *eztiarocat permetitzen* ... (Tim.1,II,12)

3.1.7.1.1.2. -T(Z)ERIC:

Beste edozein izen sintagmatan bezala, nominalizazioen artean partitiboari dagokion forma ere aurki dezakegu. Dena den, urria da eta aditz batean oinarrituriko forma bada ere, ez dirudi perpaus jokatugabeez hitz egin dezakegunik. Izan ere, askotan nominalizazio hauek aditzetatik eratorritako izen arruntak izaten dira; eta adibide hauetan izen arrunten aurrean gaudela ematen du:

- *Baina* ***sinhesteric*** *etzuten Iuduéc* ... (Apost.Act.,XIIII,2)

- ... *baten-ere* ***galtzeric*** *ezta içanen,* ... (Apost.Act.,XXVII,22)

3.1.7.1.1.3. -T(Z)EAC:

-T(Z)EA nominalizazioaz hitz egitean, eskuarki sujeto funtzioan aurkitzen dugula aipatu dugu. Nolanahi ere, zehaztu dezagun nominalizazio-mota hau aditz iragangaitzen sujetoa dela.

Aditz iragankorrekin, berriz, orain aztertzen ari garen nominalizazio-mota aurkituko dugu:

- ... *baina escuac ikuci gaberico* ***iateac,*** *eztu guiçona satsutzen.* (Mt.,XV,20)

- ... ***orhoitzeac****-ere buruco biloa latz eraciten drautâ captiuitatezco suiectionetic ilkiteco occasione eta moien* ... (Guc.,2-4,250.or.)

3.1.7.1.1.4. -T(Z)EC:

Aditz iragankorren sujeto funtzioa betetzen duten nominalizazioen artean bigarren bat ere aipatu behar dugu.

Izan ere, Leizarragak mugagabeaz gurea ez bezalako erabilera du, eta horixe da, hain zuzen, orain aurkitzen duguna, sujeto mugagabearen adiera hartzen duen nominalizazio-mota:

- ... *Ecen ezta deus (...) vrrund ahal ditzaquenic: ez gaitzetsi edo menospreciatu* ***içatec:*** *ez (...) ohorê* ***galtzec*** ... (Adv.,8-12,268.or.)

- ... *guibeleratzeco gaitu (...) iraitzi* ***içatec*** *edo (...) onhassunen* ***galtzec***? ... (Adv.,20-21,268.or.)

- ... *aldaraturen gaitu (...) estiratu* ***içatec*** ... (Adv.,29-30,268.or.)

3.1.7.1.1.5. -T(Z)EN:

Nominalizio-mota hau ere oso maiz aurkitzen dugu, baina beti aditz jakin batzuen menpe; hona hemen ugarienak: HASSI, IAQUIN, IRACATSI, IKUSI, ENSEYA(TU), ENÇUN, ERIDEN, ARI(TU) ...

Kasu hauetan, -T(Z)EN nominalizazioak ZERTAN galderari ematen dio erantzuna. Ikus ditzagun adibide batzuk:

- ... *ikus citzan ceruäc* ***erdiratzen,*** *eta Spiritu Saindua vsso columbabat beçala haren gainera* ***iausten.*** (Mc.,I,10)

- ... *badaquiçue gauça onén çuen haourrey* ***emaiten,*** ... (Lc.,XI,13)

- ... *eta has cedin discipuluen oinén* ***ikutzê,*** *eta (...) oihalaz* ***ichucatzen.*** (Io.,XIII,5)

- ... *ençuten baitzituen bere lengoage propiz hec* ***minçatzen.*** (Apost.Act.,II,6)

3.1.7.1.1.6. -T(Z)ECO:

Nominalizazio-mota hau -T(Z)EA eta -T(Z)EN formekin batera, maizenik erabiltzen direnetarikoa da. Dena den, ohart gaitezen -T(Z)ECO nominalizazio honek hiru funtzio zeharo desberdin bete ditzakeela:

a) -T(Z)ECO izenlaguna:

> - *... quiçonaren Semeac baduela authoritate lurrean bekatuén* ***barkatzeco*** *...* (Mt.,IX,6)
>
> - *Eta compli cedin Elisabethê* ***ertzeco*** *demborá ...* (Lc.,I,57)
>
> - *... ezta gauça hauçaz orain particularqui* ***minçatzeco*** *mengoaric.* (Hebr.,IX,5)

b) -T(Z)ECO osagarri zuzena:

Gaur egungo eta bereziki hegoaldeko erabilera kontutan hartzen badugu, -T(Z)ECO nominalizazioa zehar estiloko aginterak adierazteko erabiltzen dugula jabetzen gara. Leizarragak, egia esan, honelako perpausak, gehienetan, forma jokatuen bidez adierazten ditu (gogora dezagun, -(E)N menderagailuaz hitz egitean esandakoa); eta forma jokatugabeez baliatuz gero, gehienetan, -T(Z)ERA nominalizazioa erabiltzen du. Dena dela, honelako aginterak -T(Z)ECO nominalizazioaren bidez ere adieraz daitezke. Ohart gaitezen, halere, adibide gehienak -guztiak ez esateagatik- atalen hasieran ezartzen dituen tituluetan aurkitu ditugula:

> - *1. Ez* ***iudicatzeco****. 6. Gauça saindua orey ez* ***emaiteco****. 7.* ***Escatzeco, bilhatzeco, bulkatzeco****.* (Mt.,VII,0)
>
> - *...6.* ***Veillatzeco*** *eta sobre* ***içateco*** *(...) 10. Christequin* ***vicitzeco****. 11. Elkar* ***exhortatzeco*** *(...) 19. Spirituaren dohainac ez* ***iraunguiteco****. 21. Gauça guciac* ***experimentatzeco****, on dena* ***eduquitzeco****.* (Thes.,V,0)

C) "-T(Z)ECO UKAN / IZAN" egitura:

Egitura hau aztertzeko orduan sortzen zaigun lehendabiziko zalantza forma jokatuen ala jokatugabeen aurrean gauden da, egitura honek aldamenean UKAN edo IZAN aditzak baitaramatza. Baina IZAN eta UKAN aditz osoak ala adizki laguntzaileak dira?

Egia esan, bata edo bestearen agerpena badirudi -T(Z)ECO daraman aditzak berak baldintzatzen duela; beraz, forma jokatuen aurrean gaudela esango nuke.

Edonola ere, gaur egungo erregistroetatik urrun dauden formak izanik, aztertzea interesgarria izan daiteke.

Egitura hau Leizarragak ezezik, beste idazle batzuek ere erabiltzen dute. Jaso dezagun, adibidez, P.Altunak Bernard Etxepareren edizio kritikoan dioskuna:

> " *Amac* ***eztu sofriceco*** *semen artian guerlaric*" (Amorosen gaztiguya, 133)
>
> ***"eztu sofriceco:*** *bitxi samar egiten zaigu joskera hau: "una madre no puede tolerar". Ikus halere beste askoren artean Axularren hau: "... badirudi ezen, zeren lehenak diren, barkhakizun direla, eta bat bederak disimulatzeco, ez ikhusi egiteco, eta ere desenkusatzeko dituela". Hemen ere *edun-en adizkiaren aurretik* ***-tzeko*** *kasoan (zertako?) izenkiak. Villasantek "y todos las disimulan y excusan" dio, baina hobeki zegokeen "y todos las pueden disimular y excusar" esan balu, aurreko* ***barkhakizun*** *ere "perdonables" itzultzen baitu eta parekaturik datoz Axularrengan; hots, antzeko dira."*[41]

Aipuan ikusi dugunez, P.Altunak -T(Z)ECO egituraren azpian AHALERA edo ikusten du. Leizarragaren adibideetara jotzen badugu, egia esan, zaila da egitura hauen bidez adierazten dena argitzea, batez ere Leizarragak berak sorturiko testuetan, hauetan itzulpen bat edo beste ematea neurri handi batean, interpretazio kontua besterik ez baita. Ikus ditzagun adibide batzuk:

---

[41] ALTUNA, P., in ETXEPARE, B., Linguae Vasconum Primitiae, 110-111.orr.

- *Ecê ahal datequea ene côditionezco bachotassunic ezpa hunelaco berce gauçaric batre (...) Reguina bati dedicatzetic* ***guibeleratzeco nuenic?*** (Guc.,3-8, 251.or.)

- *... eta Euangelioari iarreiquiteagatic guiçonéz iniuriatu, menospreciatu, gaitcerran eta iraitzi içatea,* ***etzaicu gaitzi içateco*** *ez* ***eztugu refusatzeco*** *(...) Bada eçagutze hunetaric* ***guibeleratzeco gaitu*** *persecutionec edo ...?* (Adv.,14-21,268.or.)

- *... declaratu içan baitzê, norêganic, cer dêboratan eta cer lekutâ Iesus Christ* ***sortzeco cen,*** *cer afflictione eta cer herio mota suffritu behar çuen, ...* (Adv.,16-18, 260.or.)

Adibide hauetan, egia esan, iluntasuna da nagusi, edozein itzulpen -AHAL, BEHAR edo etorkizun-kutsu soilaizan bailiteke zilegi. Baina Ebanjelioetan aurkituriko adibideetara jotzen badugu, adibide argiagoak ditugu:

(1)- *Eta Herodesec hura* ***presentatzeco çuenean,*** *gau hartan lo cetzan ...* (Apost.Act.,XII,6)

("Presentatu AHAL zuenean" ala "Presentatu BEHAR zuenean"? Aukeratzekotan, bigarrenaren aldeko apostua egingo nuke)

Halaber, ikus dezagun nola euskaratu dituen Haranederrek honelako adibide batzuk:

(2)- *... informa cedin hetaric non Christ* ***sortzeco cen.*** (Leiz., Mt.,II,4)

- *... galdez cegocoten hea non* ***sorthu behar othe çuen*** *Christoc.* (Haran., Mt.,II,4)

(3)- *... gure aitê Iaincoac glorificatu du Iesus bere Semea, çuec liuratu eta vkatu duçuena Pilaten aitzinean, harc* ***largatzeco cela*** *iugeatu baçuen-ere.* (Leiz., Apost.Act.,III,13)

- *... harc jugeatu arren* ***utci behar cela*** *libro.* (Haran., Apost.Act.,III,13)

Adibide hauek ikusita, egitura honen azpian dagoen balioa "BEHAR" aditz-lokuzioarena dela esan beharko genuke. Hala ere, ez dagoela batere argi aitortu behar

dugu, askotan, BEHAR horrek "etorkizun-kutsua" besterik ez baitigu adierazten.

3.1.7.1.1.7. -T(Z)ECORIC:

Izenlagun-funtzioa betetzen duen nominalizazioaren kasuan, -T(Z)ECO-k izan dezakeen aldaera bat aipatu behar dugu. Izan ere, maiz, nominalizazioarekin batera agertzen zaigun izena ezabatu edo aurreratu egiten da, ondorioz -T(Z)ECORIC nominalizazioa sortuz:

- ... *badiat cerbait hiri* ***erraitecoric***. (Lc.,VII,40)

- ... *eratchequiten ceraucan gende saluatu* ***içatecoric*** *egun oroz Eliçari*. (Apost.Act.,II,47)

- ... *eta etzutén erideiten* ***iatecoric*** *gure Aitéc*. (Apost.Act.,VII,11)

3.1.7.1.1.8. -T(Z)ERA:

Hauxe da, zalantzarik gabe, Leizarragak gehien erabiltzen duen nominalizazio-mota. Hegoaldeko euskalkietan, gaur egun behintzat, helburuzko kutsua hartzen du; Leizarragak, ordea, gurea ez bezalako erabilera agertzen du, berak darabilen -T(Z)ERA formak helburuzko adieraz gain, bestelako funtzioak ere bete ditzakeelako:

- ... *permetti ieçaguc vrdalde hartara* ***ioaitera***. (Mt.,VIII,31)

- *Orduan mana ceçan populua lurrean* ***iartera***. (Mt.,XV,35)

- ... *eta etzituen deabruac* ***minçatzera*** *vtziten* ... (Mc.,I,34)

- ... *Eyeçue çuec* ***iatera*** *(...) eta emanen drauegu* ***iatera***? (Mc.,VI,37)

- ... *deliberatu vkâ dut, çuetara tristitiarequin berriz ez* ***ethortera***. (Cor.2,II,1)

3.1.7.1.1.9. -T(Z)EARI:

Nominalizazioak, bere izenak dioen bezala, aditz batetik eratorritako izena adierazten du; hortaz, aditz-izenak izanik, edozein izenek izango lukeen gaitasuna dute deklinatzeko.

Hona hemen, beraz, datiboari dagokion nominalizazioa:

- *Eta on darizté (...) guiçonéz deithu* ***içateari*** *Magistruá, ...* (Mt.,XXIII,6-7)

- *... aguio* ***iracurtzeari, exhortatzeari,*** *...* (Tim.1,IIII,13)

- *... bere vorondate paussatuaren* ***iragaiteari*** *eta* ***côplitzeari*** *darreitza, ...* (Adv., 21-22, 267.or.)

3.1.7.1.1.10. -T(Z)EAREN:

Genitibo edutezkoari dagokion nominalizazioa ere aipatu behar dugu.

Forma honek, eskuarki, izenlagun funtzioa betetzen du. Hala ere, ohart gaitezen, adibide gehienetan, nominalizazio hauek erabat sustantibaturik daudela; beraz, gehienetan, izen arrunten aurrean gaudela esan dezakegu:

- *... 50. Christ* ***sinhestearen*** *galdez egon.* (Lc.,VIII,0)

- *... ansia guti dut (...)* ***iudicatu içatearen*** *...* (Cor.1,IIII,3)

- ***Guiçon çaharra*** *(...) halacotz da gorputza herioaren eta* ***vsteldu içatearen*** *suiet ...* (Hitz eta Minçatzeko Manera, 1206.or.)

3.1.7.1.1.11. -T(Z)ETIC:

Nominalizazio-mota hau ere aski ugaria da Leizarragaren obran. Nagusiki, aditz batzuen menpe aurkituko dugu; hona hemen ugarienak: EMPATCHA(TU), ICHILDU, GUELDITU, DEBETATU, ERATCHEQUI, CESSATU, BEGUIRATU, BARA(TU), GUIBELERATU ...:

- ... *eztuc ene oiney pot* ***eguitetic*** *guelditu.* (Lc.,VII,45)

- ... *Guiçon haur ezta ichiltzen blasphemiotaco hitz* ***erraitetic*** ... (Apost.Act.,VI,13)

- ... *begira beça (...) enganioren* ***pronuntiatzetic***: (Pier.1,III,10)

3.1.7.1.1.12. -T(Z)EAZ:

Azkenik aipa dezagun instrumental kasuari dagokion nominalizazio-mota:

- ... *vste çuten lozco* ***lokartzeaz*** *erraiten çuela.* (Io.,XI,13)

- ... ***Ençuteaz, ikusteaz, iracurtzeaz*** *eta memoriotâ harturic obratan* ***eçartzeaz*** *errequeituric ez conturic eguitê ezpaduçue?* ... (Adv.,16-18,267.or.)

Nominalizazio mota honek aldaera bat izan dezake, mugagabeari dagokiona, alegia:

- *Eta haren* ***interrogatzez*** *perseueratzen çutela,* ... (Io.,VIII,7)

- ... *vngui* ***eguitez*** *(...) ahoa boça dieçoçuen.* (Pier.1,II,15)

3.1.7.1.2. IZENONDO BATEN MENPE sortzen direnak:

Orain arte aipatu ditugun nominalizazio guztiak aditz baten menpe sortzen ziren, hau da, aditz berezi batek eskatzen zuen nominalizazio-mota bat edo bestea.

Baina, honez gain, izenondo baten menpe sortzen diren nominalizazioak ere aipatu behar ditugu, zenbait kasutan aditz-izen hauek izenondo bati loturik agertzen baitzaizkigu:

- ... *gauça gucién* ***sinhestera*** *bihotz berantcorretacoac!* (Lc.,XXIIII,25)

- ... *biz guiçon gucia* ***ençutera*** *lehiati, berantcor* ***minçatzera***, *eta berantcor* ***asserretzera***. (Iac.,I,19)

- ... *Çareten beraz sobre eta iratzarri* ***othoitz eguitera*** (Pier.1,IIII,7)

Ikusten dugunez, izenondoen menpe dauden nominalizazioetan ere -T(Z)ERA forma nagusitzen da; beraz, Leizarragaren erabilerari dagokionez bederen, nominalizaziorik erabiliena eta garrantzitsuena dela aitortu behar dugu.

3.2. ERLATIBOZKOAK

Menpeko perpausen artean erlatibozkoek, ezbairik gabe, arreta berezia merezi dute hizkuntzaren baitan betetzen duten funtzioagatik eta erakusten duten maiztasunagatik.

Ezagut ditzagun, bada, Leizarragak erlatibozko perpaus hauek burutzeko erabiltzen dituen bideak, anitz dira eta:

3.2.1. -(E)N

3.2.2. BAIT-

3.2.3. ANAFORIKOAK:

3.2.3.1. Cein-(ere)... bait-

3.2.3.2. Cer-(ere)... bait-

3.2.3.3. Nor-(ere)... bait-

3.2.3.4. Norc-(ere)... bait-

3.2.3.5. Nori-ere... bait-

3.2.3.6. Noren-(ere)... bait-

3.2.3.7. Non-(ere)... bait- / -(e)n

3.2.3.8. Nora(t)-(ere)... bait-

3.2.3.9. Nondic... bait-

3.2.3.10. Norçaz... bait-

3.2.3.11. Certan-(ere)... bait-

3.2.3.12. Certara... bait-

3.2.3.13. Cembat-ere... bait-

3.2.1. -(E)N

Erlatibozko perpausez hitz egin nahi badugu, nahitaezko aipamena egin behar diogu euskalki guztietan eta garai guztietan menderagailu nagusia izan denari, hau da, -(E)N atzizkiari.

Atzizki hau erlatibozkoen eremuan ezezik, bestelako perpausetan -konpletiboetan, helburuzkoetan, etabarretan- ere aurki dezakegu, hedadura handiko menderagailua baita; dena den, betetzen dituen funtzioen artean, erlatibozkoak sortzearena garrantzitsuenetariko bat izanik, azter dezagun zer-nolako perpausak eraikitzen diren menderagailu honen bidez.

3.2.1.1. Forma.

-(E)N atzizkia oinarri dutela, bi erlatibo mota bereiz ditzakegu:

a) -(E)N

b) -(E)NECO

Azter ditzagun, gaingiroki bada ere, biok:

a) -(E)N

Hau da, zalantzarik gabe, Leizarragaren obran eta, orokorrean, garai guztietako euskara idatzian zein mintzatuan nagusitu izan den forma.

Erlatibozkoak sortzeko menderagailu hau menpeko bihurtzen den perpauseko aditzari atxikitzen zaio, alboan, eskuarki, ONDOKOA duelarik:

> - *Eta hara ethorriric habita cedin Nazareth deitzen* ***den hirian*** ... (Mt.,II,23)

Hala ere, gauzak ezin dira hain erraz laburtu. Menderagailu honen bidez eraikitzen diren erlatibo guztiek

ez daramate ondokorik, nominalizaturik egon baitaitezke; edo agian, ondokoa eramanda ere, hau ez da -(E)N atzizkiaren ondoan agertzen, aurrean baizik. Edonola ere, puntu hauek guztiak aurrerago ikutuko ditugunez gero, ezer aurreratu gabe, -(E)N atzizkiaren bidez eraikitako erlatiboen formari dagokiona, oraingoz, honetan utziko dugu.

b) -(E)NECO

Aurrekoaren hedadura eta garrantzia ez badu ere, erlatibozkoez hitz egitean, -(E)N atzizkiaren gainean sortzen den aldaera hau aipatu behar dugu, Leizarraga bere obran aldaera honetaz ere baliatzen baita erlatibozkoak sortzeko.

Aipatu dugunez, Leizarragaren obran behintzat, hedadura urriko menderagailua da. Izan ere, testu osoa aztertuta, sei adibide bakarrik aurkitu ditugu; hala eta guztiz ere, laburki bada ere, aldaera honen zer-nolakoak aztertzea interresgarri gerta dakiguke.

Menderagailu honen formari gagozkiolarik, -(E)N atzizkitik eratorritako forma dela agerian dago, menderagailua -(E)N atzizkiari leku-denborazko genitiboaren marka (-(e)ko) erantsiz lortzen dugu eta.

Bestalde, -(E)NECO menderagailua, -(E)N bezala, menpeko bihurtzen den perpauseko aditzari atxikitzen zaio, aldamenean, nominalizaturik ez badago, ondokoa duelarik:

- ... *Oha garbitzera Siloe, igorria erran nahi* ***deneco ikuzgarrira***. (Io.,IX,7)

Dena dela, bi menderagailu hauen arteko desberdintasuna aspektu formalei bakarrik dagokie ala ba ote dago bestelako bereizketarik?

Menderagailu hau Luis Villasantek aipatzen du, berak deituriko "Oraciones Circunstanciales de Lugar"[1] direlakoei buruz hitz egitean; hona hemen dioskuna:

> *"El sufijo temporal* ***-neko*** *("de cuando"), que se forma con el caso locativo* ***-ko****, se emplea en Oraciones Temporales pero también en las Circunstanciales de Lugar."*[2]

Leizarragaren adibideak aipatu aurretik, bereizketa bat egin behar dugu, forma honek bi aldaera izan baititzake: -NECO eta -NECOA forma nominalizatua.

-NECO formadun adibideak aztertzen baditugu, batean zalantzarik gabe esan dezakegu erlatibo horrek NON deklinabide-marka isiltzen duela:

> - *... ahalque iragan ezteçagun (...) çueçaz gloriatu gare****neco segurança hunetan****.* (Cor.2,IX,4)

Besteetan, egia esan, ez da NON kasua isiltzen; baina oso kontutan hartzekoa da adibide hauetan, sistematikoki, NORA deklinabide-markadun ondokoa dugula:

> - *... ethor citecen Philipperen Cesarea deitzen de****neco burgüetara*** *...* (Mc.,VIII,27)
>
> - *... Oha garbitzera Siloe, igorria erran nahi de****neco ikuzgarrira****.* (Io.,IX,7)

Azken adibide bat aipa dezakegu; baina honetan nagusitzen den adiera denborazkoa dela ematen du:

> - *Edo hauc beróc errâ beçate baldin cerbait gaichtaqueria eriden baduté nitan, ni conseilluâ presentatu içan naicenean. Hayén artean nengoela*

---

[1] Gogora dezagun Villasantek, "Jaio nintzen etxean lorategi ederra genuen" bezalako perpausak, funtsean erlatibozkoak direla onartzen duen arren, zirkunstantzialen artean sartzen dituela. Ikus. VILLASANTE, L., Sintaxis de la oración compuesta, 95-99.orr.

[2] Id., 99.or.

*oihu eguin nu**eneco voz bakoitz haur** baicen, ...* (Apost.Act.,XXIIII,20-21)

Adiera honekin jarraituz, -(E)NECOA forma nominalizatua aipatu behar dugu, honek -(E)N atzizki soilaren bidez nekez adieraziko genukeen denborazko adiera argia hartzen duelako:

- *Eta haur da Ioannesen testimoniage, Iudueç Ierusalemetic Sacrificadoreac eta Leuitác igorri cituzte**necoa**, ...* (Io.,I,19)

- *... eta hayen tormentá licen scorpionezco tormentá guiçona io duque**enecoa** beçala.* (Apo.,IX,5)

Laburbilduz, esan dezagun -(E)NECOA formak zalantzarik gabeko denbora-adiera hartzen duela. Leku-adierari dagokionez, hartu, har dezake; baina hori bera -(E)N atzizki soilaren bidez ere adieraz genezake:

- *Ethorri içan ciradenean bada Bur-heçur deitzen de**n lekura**, ...* (Lc.,XXIII,33)

- *Orduan has cequién hunela reprochatzen haren verthuteric anhitz eguin içan ce**n hiriey** ...* (Mt.,XI,20)

Hortaz, -(E)NECO menderagailua -(E)N atzizkiaren aldaera izanik, ekintza-eremu murritzagoa du (agian horrexegatik da hain urria, Leizarragaren obran, behintzat).

Azkenik, formarekin amaitzeko aipa dezagun -(E)N atzizkiak betetzen duen funtzio bera forma jokatugabeek ere bete dezaketela. Hona hemen adibide batzuk:

- *... recebi eçaçue, çuetan **landatu hitza**,...* (Iac.,I,21)

- *... denuntiatu içan çaizquiçuen gauçac çuey Euangelioa predicatu drauçueçatenez, cerutic **igorririco Spiritu sainduac**, ...* (Pier.1,I,12)

3.2.1.2. Tokia.

-(E)N menderagailuaren bidez eraikitzen diren erlatibozkoek perpaus nagusiaren baitan hartzen duten kokalekuari dagokionez, euskarak jokabide berezia erakusten duela aipatu behar dugu. Gogora ditzagun, bada, Mitxelenaren hitzak:

> *"... me parece inevitable hacer una referencia al hecho de que en vasco las oraciones de relativo muestran ramificación "a la izquierda", frente a las románicas, germánicas etc., "a la derecha"*[3]

Euskaraz, komunzki, erlatibozkoak ondokoaren ezkerraldean agertzen dira. Hona hemen, P.Goenagak eskaintzen digun azalpena:

> *"Perpaus bat izen sintagma baten barruan txertatua agertzen bazaigu, izenlagun gisa, perpaus hori* ***perpaus erlatiboa*** *dela esaten dugu. (...) Perpaus hau* ***izenlaguna*** *denez, laguntzen dion* ***izenaren ezkerretara*** *joan ohi da. (...) Hori eskuarki egia da, baina izenlaguna izenaren eskubitara ere joan daitekeen bezala, perpaus erlatiboa ere zenbait idazle zaharrengan eskubitara doala aurki genezake."*[4]

Baina beste posizio batean aurki ditzakegu. Ikus ditzagun biak:

1.- Berezko posizioan, hau da, ondokoaren ezkerraldean:

> - *Eta Ierusalemetic iautsi içan ciraden* ***Scribéc*** *erraiten çutén ...* (Mc.,III,22)
>
> - *... Legueari dagozcan* ***gauçác*** *egiten dituztela, ...* (Rom.,II,14)

---

[3] MITXELENA, K., in VILLASANTE, L., Sintaxis de la oración compuesta, 84.or.

[4] GOENAGA, P., Gramatika Bideetan, 280-281.orr.

Gogora dezagun erlatiboen katea nahi beste luza daitekeela erlatibo bat beste baten barruan txertatuz, baina beti ere ezkerretarantz:

- ... *Merkatuâ iarriric daudê eta bere laguney oihuz dagozten* **haourtchoac** *beçalaco da.* (Mt.,XI,16)

- ... *Dohatsu dirade çuec dacusquiçuen* **gauçac** *dacusquiten* **beguiac**. (Lc.,X,23)

2.- Ondokoaren eskuinaldean:

- *Ecê nor da çuetaric* **guiçona**, *baldin bere semea ogui esca badaquió, harri emanê draucana?* (Mt.,VII,9)

- ... *bat cequión hiri hartaco* **guiçon** *dembora lucez gueroz deabrua çuen* **bat** ... (Lc.,VIII,27)

Gogora dezagun erlatibozko hauek, neurri handi batean bederen, molde erromanikoetara hurbiltzen direla, hizkuntza erromanikoetan erlatibozkoak ondokoaren eskuinaldean agertzen baitira; hala eta guztiz ere, egitura hauen ustezko kutsu erromanikoa (balego) alde batera utzirik, oso egitura berezi eta interesgarriak direnez gero, zalantzarik gabe, leku bat merezi dute gure azterketan.

3.2.1.3. Erlatibo motak.

Erlatibozkoak sailkatzeko irizpide desberdinak har daitezke kontutan:

1.- Irizpide semantikoetan oinarriturik, erlatibo "restriktiboak" eta "ez-restriktiboak" bereiz ditzakegu.

Ikus dezagun R.de Rijk-ek eta P.Goenagak nola definitzen dituzten:

R.de RIJK:

"Ba omen dira bi erlatibo mota: mugatuak edo restriktiboak eta mugagabeak edo esplikatiboak. Zer alde dago horien artean? Hona hemen: bigarren

motako erlatiboa duen esaldian, ez dugu erlatiboaren beharrik ondokoa zertaz mintzo den jakiteko."[5]

P.GOENAGA:

*"... **erlatibo murrizgarriak** edo **restriktiboak** (...) era honetako erlatiboak, mugaketa bat, murrizte bat egiten dutenez, erlatibo murrizgarriak deitzen ditugu .*

*(...) erlatibo berezi hauek **erlatibo ez-restriktiboak** edo **ez-murrizgarriak** deitzen ditugu. Ez dute mugaketarik egiten. Egiten dutena hau da: aurreko izen sintagmari buruzko informazioa nolabait gehitu, esplikatu."*[6]

Aipa dezagun bidenabar, P.Goenagarentzat erlatibo ez-restriktiboak BAIT- aurrizkiaren edota anaforikoen bidez eraikitako egiturak direla.[7]

Honen arabera, orain aztertzen ari garen erlatiboak, nahitaez, *restriktiboen* sarean sartu beharko genituzke. Dena den, Leizarragaren obran gehienetan hala bada ere, -(E)N menderagailuaren bidez eraikitako zenbait erlatibo *ez-restriktiboen* artean ere koka ditzakegu, erlatibozko perpausaren laguntzarik gabe izen sintagma horiek aski mugatuak baitira. Ikus dezagun adibide bat:

- *... Cer bada nahi duçue daguiodan Iudúen Regue deitzen duçue**n huni**?* (Mc.,XV,12)

Adibide honetan ez dugu erlatibozko perpausa behar izen sintagmaren hedadura murrizteko, horrekin batera doan erakusleak berak mugatzen duelako.

---

[5] de RIJK, R., "Erlatiboak idazle zaharrengan" Euskera-XXV, 528.or.

[6] GOENAGA, P., Gramatika Bideetan, 293-294.orr.

[7] Id., 294, 338.orr. ("Euskaraz, bait- erabiltzen ez badugu, ez dugu "erlatibo ez restriktiboak" (edo "esplikatiboak") sortzeko modurik.")

R.de Rijk-ek ere gorago aipatutako artikuloan Leizarragaren obran aurkitu zituen zenbait erlatibo ez-restriktibo aipatzen ditu, bereziki, izen bereziak ondoko dituzten erlatiboak:

> - *Haur da bere Leguea gure bihotzezco tauletan bere Spirituaz scribatzê duen* ***Moyses Legue-eçarle subiranoa***. (Adv.,34-36,270.or.)

Hala ere, salbuespen hauek kenduta, -(E)N menderagailuaren bidez eraikitzen diren erlatibo gehienak *restriktiboak* direla aitortu behar dugu.

2.- Erlatibozkoek hartzen duten forman oinarriturik beste sailkapen bat egin dezakegu:

2.1. Ondokodun erlatiboak

- Izenlagunak
- Ondokoaren atal bat aurreratuta dutenak
- Aposizio gisakoak

2.2. Ondokogabeak:

- Mugatuak
- Mugagabeak*

2.1. ONDOKODUN ERLATIBOAK:

Erlatibo hauek perpausaren barruan hartzen duten tokiaz hitz egitean, euskaraz, erlatibozkoak, normalean, ondokoaren ezkerraldean agertzen direla aipatu dugu; dena den, hau nagusitzen den joera izan arren, ez da bakarra. Horregatik, ondokodun erlatiboen artean, ondoko hori

---

* "Mugagabeak" partitibo kasuan agertzen diren erlatiboak deitu ditugu. Erlatibo hauek ondokogabeen artean kokatu ditugu; baina, esan dezagun ondoko aurreratua duten erlatiboen artean ere honelakoak maiz aurki ditzakegula.

agertzen deneko posizioaren arabera, hiru multzo bereiz ditzakegu:

A.- Izenlagunak:

P.Goenagak eskaintzen digun definizioaren arabera (Ikus. 297.or.), erlatibozko perpausak izen sintagma baten barruan txertatzen dira, izenlagun-funtzioa hartuz. Horrexegatik izendatu ditugu horrela ondokoaren ezkerraldean agertzen diren erlatiboak.

Ondokoa, orokorrean, izen arrunta izaten da, baina bestelako ondokoak ere aurki ditzakegu, hala nola, izen bereziak, erakusleak, zenbatzaileak,...e.a. Ikus ditzagun adibide batzuk:

* Izen arruntak:

  - *... irudi du fundament gabe bere etchea lur gaineâ edificatu du**en guiçona*** ... (Lc.,VI,49)

* Izen bereziak:

  - *... Haur da beguiraz dituen ardiéz arrangura handia du**en Iacob artzain iratzarria*** ... (Adv.,27-29,270.or.)

* Erakusleak:

  - *Iautsi içan de**n hura bera** da* ... (Eph.,IIII,10)

* Zenbatzaileak:

  - *Eta ikussiric iniuria hartzen çue**mbat,*** ... (Apost.Act.,VII,24)

  - *Bada Iaincoaren iustitiá, Iesus Christen fedez sinhesten dute**n gucietara*** ... (Rom.,III,22)

B.- Ondokoaren atal bat aurreratuta dutenak:

Ondokodun erlatiboen artean gaur egun guretzat aipagarri suertatzen diren egiturak aurki ditzakegu:

B.1.- Aurreko multzoan aipaturiko erlatiboetan ondokoa -(E)N menderagailuaren eskuinaldean agertzen zen. Baina oraingo multzoan menderagailuaren eskuinaldean aurkitzen duguna ez da ondoko osoa, honen atal bat baizik.

Gaur egun, hegoaldeko euskalkietan bederen, honelako erlatiborik nekez aurkituko dugu; XIX.mendera arte, ordea, erlatibo hauek oso ugariak bide ziren. Ikus ditzagun, bada, adibide batzuk:

- ... *beraz* ***arbore*** *fructu onic eguiten eztu* ***en gucia*** *piccatzen da* ... (Mt.,III,10)

- ... *Eta ilki ciradenean eriden ceçaten* ***guiçon*** *Cyreniano Simon deitzen ce* ***mbat*** ... (Mt.,XXVII,32)

- ... *Ceren ikustera ilki içan çarete desertura?* ***canabera*** *haiceaz erabilten de* ***n baten***? (Lc.,VII,24)

Adibide hauetan aurreraturiko atala izena bera izan da, izen horri dagokion determinantea, kasu honetan, zenbatzailea, -(E)N menderagailuaren ondoan agertzen delarik. Beraz, ikusten dugunez, honelako erlatiboetan izen sintagmaren gunea den izenaren eta determinantearen artean txertatzen da erlatibozko perpausa, izenondo bat bailitzan.

Goian aipatu ditugun adibideetan -(E)N menderagailuaren eskuinaldean agertzen diren determinanteak zenbatzaileak dira; baina erakusleak edo -(E)N menderagailuari itsatsiriko mugatzaileak ere aurki ditzakegu:

- ... *ecen* ***monument*** *agueri eztirade* ***nac*** *beçala çarete*, ... (Lc.,XI,44)

- ... ***ene etsay*** *nic hayén gainean regna neçan nahi vkan eztute* ***n hec***, *ekatzue huna* ... (Lc.,XIX,27)

Bestalde, aipa dezagun izena ezezik, BESTE determinantea ere aurrera daitekeela:

- ... ***berce***, *hiletaric resuscitatu de* ***n baten*** *çaretençát* ... (Rom.,VII,4)

- ... *eta hauts citzaten lehenaren çangoac, eta* ***berce*** *harequin crucificatu ce* ***narenac***. (Io.,XIX,32)

Leizarragaren obran erlatibo hauek ezin ditugu salbuespentzat jo, Testamentuan zehar adibide ugari

aurkitzen baititugu. Guretzat ezohikoak dira, ezbairik gabe; dena den, ez dirudi funtzio berezirik betetzen dutenik, bestela, erka ditzagun hurrengo adibideak:

(1)- ... *hura dut comparaturen* ***guiçon çuhur*** *bere etchea arroca gain batetan edificatu du****enarequin***. (Mt.,VII,24)

(1')- ... *comparatu da ceruëtaco resumá haci ona bere landán erein du****en guiçonarequin***. (Mt.,XIII,24)

(2)- ... *Ceren ikustera ilki içan çarete desertura?* ***canabera*** *haiceaz erabilten de****n baten***? (Lc.,VII,24)

(2')- ... *Ceren ikustera ilki içan çarete desertura? haiceaz erabilten de****n canabera baten***? (Mt.,XI,7)

Ikusten dugunez, erkatzen diren adibideak berdinak edo oso antzekoak dira; hala eta guztiz ere, (1),(2) adibideetan Leizarragak B-eredua erabili du ondokoaren atal bat aurreratuz eta (1'),(2')-etan A-eredua darabil, ondoko osoa eskuinean kokatuz.

Gauzak horrela, atera dezakegun ondorio bakarra da bi erlatibo mota hauek formaren aldetik desberdinak izan arren, balioaren aldetik berdin-berdinak direla.

B.2.- Ondoren datozen adibideetan ondokoa aurreraturik dago, baina aurrekoetan ez bezala aurreratzen dena ez da ondokoaren atal bat, ondoko osoa baizik. Izan ere, -(E)N menderagailua hutsik, mugatzailerik gabe geratzen da:

- ... *ezta guelditure*n *hemen harria harriaren gainean, deseguin eztadi****n***. (Mt.,XXIIII,2)

- ... *nehor ezta vtzi duenic etchea, edo anayeac, edo arrebác, edo aita (...) ene eta Euangelioaren amorecatic. Recebi ezteça****n*** *orain demborá hunetan ehunetan hambát, etche eta anaye,...* (Mc.,X,29-30)

- *Edo cein da reguea berce regue baten contra batailla emaitera abiatzen dena, lehen iarriric consultatzen eztue****n***, *eya ...* (Lc.,XIIII,31)

- ... *eztu deus vtzi haren suiet eztén*: ... (Hebr.,II,8)

Gaur egun, hegoaldeko euskalkietan behintzat, ez dugu halako egiturarik; baina, dirudienez, Leizarragak honelako erlatiboak ontzat ematen zituen. Beraz, ondokoa aurreratzen duten erlatiboen artean, Leizarragak bi mota bereizten zituela esan dezakegu:

- "Cein da REGUE ... consultatzen eztueNA"
- "Cein da REGUEA ... consultatzen eztueN"

Edonola ere, aipa dezagun obra osoan zehar lau adibide hauek baino ez ditugula aurkitu; beraz, argi dago ez zutela aurrekoen hedadura.

C.- Aposizio gisakoak:

Erlatibozkoek hartzen duten tokiaz hitz egitean esan genuenez, erlatibo guztiak ez dira ondokoaren ezkerraldean agertzen. Zenbait kasutan, ondokoa aurreratu eta erlatibozko perpausa honen aposizioa bailitzan agertzen zaigu.

Bestalde, esan dezagun aposizio funtzioan agertzen den erlatiboa nominalizaturik dagoela. Beraz, izen sintagmari dagozkion determinantea eta deklinabide-markak aurreratu den erreferentean eta -(E)N menderagailuaren eskuinean, bi lekuetan aurkituko ditugu. Hona hemen zenbait adibide:

- *Ecê nor da çuetaric* ***guiçona****, baldin bere semea ogui esca badaquió, harri emanê drauca****na***? (Mt.,VII,9)
- ... *ethor citecen* ***burdinazco borthara****, ciuitatera darama****nera*** ... (Apost.Act.,XII,10)

Adibide hauetan guztietan aurreratu den ondokoa izen arrunta da; edonola ere, bestelako aposizioak ere aurki ditzakegu, adibidez, ondoko izen berezia dutenak:

- ... *glorificatu du* ***Iesus bere Semea****, çuec liuratu eta vkatu duçue****na*** ... (Apost.Act.,III,13)

- **Paulec** *Iesus Christen Apostolu Iaincoaren vorondatez de***nac**, *eta Timotheo anayeac, Iaincoaré Eliça Corinthen denari, ...*(Cor.2,I,1)

Ondokoa pertsona izenordaina denean ezin da -(E)N menderagailuaren ondoan agertu; beraz, kasu hauetan ondokoa, ezinbestez, aurreratu egiten da eta erlatibozko perpausa honen eskuinaldean agertzen da nominalizaturik:

- ... *prest naiz* **çuey** *Roman çarete***noy**-*ere euangelizatzera.* (Rom.,I,15)

- ... *ezau iugeaturen* **hi**, *letraz eta circoncisionez Leguearen hautsle aic***enor**? (Rom.,II,27)

- ... *compli dadinçát* **gutan**, *haraguiaren araura ezgabiltza***notan**, ... (Rom.,VIII,4)

2.2. ERLATIBO ONDOKOGABEAK:

-(E)N menderagailuaren bidez sortzen diren erlatiboen artean, oraingoan, ageriko ondokorik ez dutenak aipatu behar ditugu.

Erlatibo hauetan, ondokoa ezaguna izanik, ezabatu egiten da, baina honen ordainean, ezabatu den izen sintagmari zegozkion mugatzailea eta deklinabide-markak aurkituko ditugu -(E)N menderagailuari itsatsirik.

Edonola ere, ondokorik gabeko erlatibo hauek beste bi multzotan bana ditzakegu:

A.- Mugatuak:

Gorago aipatu dugunez, ondokoa ezabatzen bada ere, ez da horrela gertatzen honi dagozkion mugatzaile eta deklinabide-markekin, hauek nominalizaturik datorkigun erlatiboan aurkituko baititugu

Gogora dezagun nola deskribatzen dituen Villasantek erlatibozko hauek:

"En vascuence se realiza esta sustantivación de la oración adjetiva aplicando al sufijo **-n** *el artículo determinado* **-a** *o aun los demostrativos de primero y segundo grado* **(hau, hori)** *a los que pueden agregarse los casos de declinación."*[9]

Mugatzaileen artean, batetik, hirugarren graduari dagokion artikulu "arrunta" eta bestetik, lehenengo eta bigarren graduei dagokien artikulu "hurbila" bereizi behar ditugu, Leizarragak biak erabiltzen baititu.

A.1. *Hirugarren graduko artikuluak.*

Leizarragaren obran erlatibo ondokogabeak ondokodunak bezain ugariak edo ugariagoak dira eta, zalantzarik gabe, ugaltasun honen barruan oso paper garrantzitsua jokatzen dute hirugarren graduko mugatzailea daramaten erlatiboek.

Bestalde, gogora dezagun erlatibo hauek mugatzaileaz gain, perpausak berak eskatzen duen edozein deklinabide-marka eraman dezaketela:

- *... onhets itzaçue çuen etsayac, benedicaitzaçue maradicatzen çaituzte***nac**, *vngui eguieçue gaitz daritzuë***ney:** *eta othoitz eguiçue oldartzen çaizquiçue***nacgatic**, *eta persecutatzen çaituzte***nacgatic**. (Mt.,V,44)

- *... gauça guciac dituc possible sinhesten du***enaren**. (Mc.,IX,23)

- *Baina orain banoa ni igorri nau***enaganát**, ... (Io.,XVI,5)

A.2. *Artikulu hurbilak.*

Nominalizatzen den erlatiboa lehenego edo bigarren pertsonari dagokionean, artikulu hurbilak erabiltzen dira. Ikus dezagun zer dioskun EGLU-k artikulu hauetaz:

*"***-a + -k** *formaren parean,* **-o + -k** *dugu (...) Hau da, mugatzaile "neutroa", "ez markatua", nolabait esatearren, eta mugatzaile hurbila* **(-o)**, *lehen edo bigarren pertsonari dagokiona, hiztun edo entzulearen hurbiltasuna markatzen duena. Gaur egun, mugatzaile hurbil hau ondoren pluraltzailea*

---

[9] VILLASANTE, L., Sintaxis de la oración compuesta, 81.or.

darraikionean bakarrik erabiltzen dugu. Izen sintagma singularrean, aukera bakarra, mugatzaileari dagokionez, **-a** *da.*

(...) Azken batetan, **-a** *bera ere hirugarren graduko erakusle artikulu bilakatua baizik ez da. Gaur egun,* **-au** *eta* **-ori**, *lehen eta bigarren pertsonari loturik erabil ditzakegu forma markatu bezala;* **-a**, *berriz, edozein kasutan erabil daiteke. Hain zuzen,* **-au**, **-ori** *oraindik ere maiz erabiltzen ditugu erlatibozko perpausen ondoren."*[10]

EGLU-k esaten digunaren arabera, hirugarren graduko mugatzailea -neutroena- edozein kasutan erabil daiteke; horregatik, zenbaitetan, nahiz eta erlatiboak lehenengo edo bigarren pertsonari erreferentzia egin, hirugarren graduko mugatzailea aurki dezakegu:

- ... *Iaincoaren beldurra duçue***nác**, *ençunçue.* (Apost.Act.,XIII,16)

- ... *bekatuari hil içâ gaizquio***nac**, *nola hartan oraino vicico gara?* (Rom.,VI,2)

- ... *othoitz eguiten drauçuet (...) nic neurorrec Paulec, presentián çuê artean chipi, baina absentián çuetara hardit naice***nac**. (Cor.2,X,1)

Nolanahi ere, lehenengo edo bigarren pertsonei erreferentzia egiten dieten erlatibo gehienetan artikulu hurbilak aurkituko ditugu:

-OR (Sing.)

-OK (Plur.)

Ohart gaitezen, gaur egun, honelako erlatiboak sortzeko pluralean forma bera darabilgula, baina singularrean lehen eta bigarren graduko erakusleak erabiltzen ditugula:

(H)AU (1go pertsona adierazteko)

(H)ORI (2garren pertsona adierazteko)

---

[10] EUSKALTZAINDIA, Euskal Gramatika Lehen Urratsak, 136-137, 144-145.orr.

Leizarragak, berriz, bai singularrean, bai pluralean forma bakarra darabil bi pertsonak irudikatzeko. Ikus ditzagun adibide batzuk:

- ... *ikussiric ecen iugeatzen ari aic**enorrec**, gauça bérac eguiten dituála.* (Rom.,II,1)

- ... *Apostolu deithu içateco digne eznaic**enor**, ...* (Cor.1,XV,9)

- ... *parti çaitezte eneganic iniquitate eguiten duçue**nóc**.* (Mt.,VII,23)

- *gure irudia içan da consentimendu batez bildu gare**nona**, ...* (Apost.Act.,XV,25)

Azkenik, gogora dezagun artikulu hurbila daramaten erlatibo hauek pertsona izenordaina ere eraman dezaketela, baina hau beti aurreraturik:

- ... *ezau iugeaturen **hi**, letraz eta circoncisionez Leguearen hautsle aic**enor**?* (Rom.,II,27)

B.- Mugagabeak:

Atal honetan, mugatzailerik gabeko erlatiboak jasoko ditugu. Ondokorik gabeko zenbait erlatibotan zein ondokoa aurreratuta dutenetan -(E)N menderagailuaren ondoan mugatzailea aurkitu beharrean, mugatzailerik ametitzen ez duen partitibo kasua topatzen dugu.

Ikus dezagun zer dioskun honetaz Villasantek:

> *"En proposiciones interrogativas, negativas y aun en algunas de carácter un tanto impreciso, se emplea el caso partitivo de la declinación indefinida."*[11]

Villasantek dioskunaren arabera, partitibodun erlatiboak galderazko, ezezko eta beste zenbait perpausetan aurki ditzakegu. Azter ditzagun, bada, kontestuok:

---

[11] VILLASANTE, L., Sintaxis de la oración compuesta, 84.or.

1.- *Galde-perpausak*:

Kontestu hau ez da ugariena; dena den, zenbait adibide aipa ditzakegu:

> - ... *Nor da beraz salua ahal daitenic*? (Mt.,XIX,25)
>
> - *Ecen cein da çuetaric dorrebat edificatu nahi du**enic**, lehen iarriric gostuac contatzen eztituena, ...?* (Lc.,XIIII,28)

Adibide hauek ikusita, badirudi Leizarragak partitiboa ondoko zehatzik ez duten galderazkoetan erabiltzen duela. Horrela, partitiboaren bidez lortzen dituen galderek oso erreferentzia abstraktoa egiten dute, erantzunik espero ez duten galdera erretorikoak bailiran. Gainera, ohart gaitezen galdera horietan, sakonean, kutsu ezezkoa dagoela. Ikus dezagun adibide bat bere kontestuaren barruan:

> - *Eta berriz diotsuet, errachago dela cablebat orratzaren chulhotic iraqan dadin, ecen ez abratsa Iaincoaren resumán sar dadin.*
>
> *Gauça hauc ençunic harê discipuluac spanta citecen haquitz, cioitela,* ***Nor da beraz salua ahal daitenic?*** (Mt.,XIX,24-25)

Erka ditzagun orain ondoko perpausak:

1- Nor da beraz salba ahal daitekeenik?

2- Beraz, ez dago salba ahal daitekeenik.

Bi perpaus hauek desberdinak izan arren, goian aipaturiko kontestuan parekotzat jo genitzake. EGLU gramatika ere honelaxe mintzatzen da:

> *"Zer gertatzen zaigu, ordea, zati-galderetan?. Badirudi hauetan ere partitiboa erabil daitekeela, nahiz eta mugapen larriak izan oraingo honetan:*
>
> (b) Nola eros autorik dirurik gabe?
>
> *(...) Horrelakoetan, hala ere, badirudi hiztunak ez duela egiazki galdera bat egiten. Horrelako perpausak galdera bat baino gehiago ezeztapenak direla ematen du. Horrela, goiko perpaus horiek beste honako hauen pareko izango lirateke:*

(b) Ezin eros daiteke, inola ere, autorik dirurik gabe "[12]

EGLU-k proposaturiko adibideak eta Leizarragaren obran aurkitu ditugunak berdinak ez izan arren, galdera horiek sakonean duten ezeztapenean uste dut dagoela partitiboaren erabilera ulertzeko giltza.

2.- *Ezezko perpausak*:

Ezezko perpausa partitiboaren kontesturik berezkoena da; dena den, honek ez du esan nahi ezezko perpaus guztiek partitiboa eskatzen dutenik.

a. Ez dut etxerik erosi

b. Ez dut etxea erosi

Denok dakigunez, bi adibideak zeharo gramatikalak dira, desberdintasuna partitiboak perpausean ezartzen duen zehaztugabetasunean baitatza.

Beraz, erreferentzia zehatzik egiten ez duten erlatiboetan bakarrik aurkituko dugu partitiboa. Ikus ditzagun adibide batzuk:

- *Ezta deus guiçonaren campotic, hura baithan sartzen de***nic**, *hura satsu ahal deçaque***nic** ... (Mc.,VII,15)

- *Eta ezta nehor çaharretic edaten du***enic**, *bertan berritic nahi du***enic** ... (Lc.,V,39)

Aipaturiko adibideetan partitibodun erlatibo guztiek indefinido bat dute ondoko; hala ere, ondokorik gabeko erlatiboak ere topa ditzakegu:

- ... *eztuela eguin herio mereci du***enic** ... (Apost.Act.,XXV,25)

- *Ezta aditzen du***enic** *ezta Iaincoa bilhatzê du***enic**. (Rom.,III,11)

---

[12] EUSKALTZAINDIA, Euskal Gramatika Lehen Urratsak, 410.or.

Edonola ere, erreferentedunek zein erreferentegabeek, guztiek dute amankomunean erreferentzia abstraktoa, zeharo zehaztugabea burutzea.

3.- *Baiezko perpausak*:

Hau da, ezbairik gabe, kontesturik bereziena.

Villasantek "*aun en algunas de carácter un tanto impreciso, se emplea el caso partitivo*" zioen; dena den, bere hitzak aipatzen dituen perpausak bezain zehaztugabeak direla aitortu behar dugu ez baitakigu zer-nolako perpausei egiten dien erreferentzia. Nolanahi ere, aurretik galderazko eta ezezko perpausak aipatzen dituenez, baiezkoez ari dela suposa dezakegu.

EGLU-ra jotzen badugu, hona hemen zer dioskun baiezko perpausetan agertzen diren partitiboez:

> *"Batzutan, indar enfatikoa eman nahi diogunean sintagmari, baiezko esaldietan ere aurkituko dugu partitiboa. Hala nola:*
>
> (168)(a) Bada hemen hori dakienik "[13]

Hau ikusita, partitiboa baiezko perpausetan oso kasu mugatuetan bakarrik erabiltzen dela esan dezakegu. Dena dela, honek ez du esan nahi oso gutxitan agertuko denik, Leizarragaren obrara jotzen badugu, partitibodun erlatibo kopururik handiena baiezko perpausetan, hain zuzen, aurkitzen baitugu.

Zenbait adibidetan, Leizarragak EGLU-k esaten digunarekin bat eginik, partitiboa sintagmari edo, kasu honetan, erlatibozkoari enfasi berezia eman nahi dionean erabiltzen du:

> *- Eta nic eztut neure gloriá bilhatzen: bada bilhatzen* ***duenic****, eta iugeatzen* ***duenic****.* (Io.,VIII,50)

---

[13] Id., 410.or.

- ... *bada egun oroz assetiatzen nau***enic**, ... (Cor.2,XI,28)

Edonola ere, ez da hau partitiboak betetzen duen funtziorik garrantzitsuena; edo behintzat Leizarragak dituen adibide guztiak ikusita, partitibodun erlatibo gehienak beste kontestu batean eta beste funtzio batean agertzen direla esan dezakegu.

Partitiboa, eskuarki, ondokoa aurreratzen duten erlatibozkoetan topatzen dugu; dena den, argitu dezagun ondoko hau ezin dela nolanahikoa izan, zehaztugabea edo ezezaguna baizik. Ikus dezagun adibideen bidez:

- *Eta huná, presenta cieçoten paralyticobat ohean cetza***nic**. (Mt.,IX,2)

- *eta ciraden batzu berac baithan gaitzi çaye***nic**, *eta erraiten çute***nic** ... (Mc.,XIIII,4)

- ... *ecê ni baino sufficientagoric-ere içanê cela obrán escu eduquirê lue***nic** ... (Guc.,28-30,252.or.)

Ohartzen bagara, adibide hauetan guztietan aurreratu diren erreferenteek edo ez daramate mugatzailerik (azkenak partitiboa darama) edo zehaztugabetasun, mugagabetasun ikutu bat duten **bat/batzuk** zenbatzaileak daramatzate. Gogora dezagun Goenagak puntu honetaz dioena:

> *"**gizon bat**-ek ematen digun informazioa hau da, hots: "bat" dela eta ez dela ezaguna edo lehenago aipatua, edozein dela, alegia."*[14]

Aurreratzen diren ondokoak zehatzak edo ezagunak direnean, ordea, Leizarragak ez du inoiz partitiboa erabiltzen, mugatzaile arrunta baizik:

- *Ecen hura da gure baquea, biac bat eguin dituena, eta bién arteco paretarê cerraillua hautsi duena*: (Eph.,II,14)

---

[14] GOENAGA, P., Gramatika Bideetan, 86.or.

- ... *Huna Iaincoaren Bildotsa, munduaren bekatuac kencen dituena* ... (Adv.,22-23, 264.or.)

Amaitzeko eta Leizarragak burutzen duen bereizketa hau ageriago uzteko, erka ditzagun ondoko berdina duten bi adibide:

(1)- Ondoko hori ezezaguna edo behintzat lehen aldiz aipatua denean, Leizarragak partitiboa darabil:

- *Ikus cedin berce signobat-ere ceruän, eta huná, dragoin gorharats handibat, çazpi buru cituenic* ... (Apo.,XII,3)

(2)- Ondokoa, aurretik ezaguna, berriro aipatzen denean, ordea, mugatzaile arruntà erabiltzen du:

- *Eta iraitz cedin dragoin handia, sugue çahar hura, Deabru eta Satan deitzen dena,* ... (Apo.,XII,9)

Laburbilduz, esan dezagun partitiboa baiezko perpausetan bi kontestu oso zehatzetan aurkituko dugula: sintagmari enfasi berezia eman nahi zaion kasuetan eta ondoko ezezaguna edo, behintzat, lehen aldiz aipatua aurreratzen duten erlatibozkoetan.

3.2.1.4. Erlatibo bereziak.

Azkenik, P.Lafittek eta Villasantek aipatzen duten erlatibo berezi bat aipatu behar dugu:

"... *el llamado relativo de generalización "En cualquier parte", "a cualquier parte", etc., Ax. lo expresa con* ***non nahi den, norat nahi den.***"[15]

---

[15] VILLASANTE, L., Sintaxis de la oración compuesta, 99.or.

Leizarragaren obra osoan adibide bakarra aurkitu dugu; dena den, erlatibo berezi honen berri bazuela egiaztatzeko nahikoa izan daiteke:

> - ... *libre da* ***norequin nahi den*** *ezconceco,* ... (Cor.1,VII,39)

3.2.1.5. Erlatiboetan isiltzen diren posposizioak.

-(E)N menderagailuaren bidez sortzen diren erlatibozkoekin amaitu aurretik, gramatikari asko kezkatu dituen arazo bat aipatu behar dugu, erlatibatzeko gai diren posposizioena, alegia.

R.de Rijk eta P.Goenaga bat datoz erlatibatzeko gai diren posposizioak zerrendatzeko orduan. Ekar dezagun gogora, esate baterako, Goenagak dioena:

> *"... perpaus erlatiboa lortzeko ezabatu dugun izen sintagma ez daiteke nolanahikoa izan (...) Izen sintagma hori, NOR, NORK nahiz NORI sintagma izan daiteke. Orduan ez dago inolako oztoporik perpaus erlatiboa lortzeko. (...) Baina beste guztietan anbiguitatea sortzen zaigu batzutan, eta onartu ezinezko perpausak besteetan.*
>
> *(...) Bi perpausetako izen sintagmak era berdineko atzizkiak baldin badituzte (Hots: "era berdineko aditzlagunak baldin badira") erlatibo bidezko txertakuntza burutu daiteke.*
>
> *(...) Erlatibatzeko gai diren posposizioak:* ***O*** *(nor sintagmarena);* ***-K*** *(ergatiboarena);* ***-RI*** *(datiboarena);* ***-N*** *(inesiboarena);* ***-RA*** *(nora aditzlagunarena);* ***-TIK*** *(nondik aditzlagunarena); eta* ***-Z*** *(instrumentalarena)"*[16]

Erlatiboak sortzeko orduan, hauek dira, dudarik gabe, maizenik isiltzen diren posposizioak edota hiztunak errezen onartzen dituenak; edonola ere, jaso dezagun B.Oyharçabalek bi gramatikari hauei egiten dien kritika:

> *"Oso tentazio handia batzutan onesgarritasuna eta gramatikalitatea elkarri arras lotzea, eta badut beldurra hori gertatu den de Rijk eta Goenagaren azterketetan.*

---

[16] GOENAGA, P., Gramatika Bideetan, 283-289.orr.

Onespena normalean gramatikalitatearen seinale bada, ez da beti gaitzespena agramatikalitatearen marka. (...)

Ez da dudarik kontestu egokietan biziki arintzen direla molde horretako perpausen aurrean batek ukan ditzakeen duda-mudak.

(...) Zenbait hizkuntzatan badirudi oso zehazki mugatua dela izen erlatibatuak izan ditzakeen funkzioen zerrenda; euskaraz, ordean, gauzak ez dira hoin garbi, morfologiarekin batean, lexikoiak eta orokorki mintzatuz solas ingurumenak ere zer egin handia baitute."[17]

Leizarragaren erlatiboak aztertzen baditugu, maiztasunari begira, gehienetan, kasu gramatikalak -batez ere NOR/ZER eta NORK- erlatibatzen direla esan beharko genuke. Hona hemen adibide batzuk:

- (ZER) ... *Çoazte eta conta ietzoçue Ioannesi,ençuten eta ikusten dituçue***n gauçác**. (Mt.,XI,4)

- (NOR) *Merkatuan iarriric dauden, eta bata berceari oihuz dagozca***n haourtchoac** *beçalaco dirade* ... (Lc.,VII,32)

- (NORK) ... *ethor cequión thumbetaric spiritu satsua çue***n guiçombat**. (Mc.,V,2)

- (NORI) ... *Haur da Ioannes nic buruä edequi draucada***na** ... (Mc.,VI,16)

Gero, hauek bezain ugariak izan ez arren, de Rijk-ek eta Goenagak erlatibatzeko gai direnen artean aipatzen dituzten beste posposizioak ere aurki ditzakegu:

- (NON) ... *altchatu çuenean bera cetza***n ohetchoa**, ... (Lc.,V,25)

- (NORA) ... *nehor hurbil ecin daite***n arguian** *habitatzen delaric*, ... (Tim.1,VI,16)

- (NONDIK) ... *Itzuliren naiz neure ilki naice***n etchera**. (Mt.,XII,44)

---

[17] OYHARÇABAL, B., "Erlatibakuntza: Perpaus erlatiboaren egitura; Izen erlatibatuaren betakizuna haren barnean" in GOENAGA, P., Euskal sintaxiaren zenbait arazo, 144-146, 152.orr.

- (ZEREZ, ZERTAZ) ... *ni minçatu naicen* **hitzac** *condemnaturen du hura* ... (Io.,XII,48)

Edonola ere, B.Oyharçabali arrazoia emanez, esan dezagun, kontestu egokietan -lexikoak edo testuinguruak lagun- bestelako posposizioak ere aurki daitezkeela. Hala ere, onar dezagun posposizio hauek isiltzen dituzten erlatiboak ez direla lehen aipatutakoak bezain argiak eta ulergarriak:

- ... *ni naiz çuec galdez çaudetena* ... (Apost.Act.,X,21)

- ... *cergatic gaichto iudicatzê naiz nic esquerrac emaiten ditudan* **gauçagatic**? (Cor.1,X,30)

3.2.2. BAIT-

Erlatibozkoak sortzen dituzten menderagailuen artean beste bat aipatu behar dugu, nahiz eta -(E)N atzizkia bezain garrantzitsua ez den.

BAIT- aurrizkiaz hitz egitean bereizketa bat egin behar dugu, menderagailu hau bakarrik edo anaforiko batekin harremanetan aurki baitezakegu. Atal honetan, halere, bakarrik agertzen den BAIT- menderagailuaz arduratuko gara.

Bestalde, BAIT- aurrizkia adiera anitz har ditzakeen menderagailua izanik, iparraldeko testuetan batez ere, perpaus mota desberdinetan aurki dezakegu; dena den, oraingoan, BAIT- konpletibatzailea edo kausazkoa alde batera utzirik, erlatibozkoen artean sar dezakeguna aztertuko dugu.

3.2.2.1. Forma.

BAIT- aurrizkiaren bidez sortzen diren erlatibozkoek hartzen duten formari gagozkiolarik, BAIT- konpletibatzaileaz esandakoa ekar dezakegu gogora, menderagailu honek bi perpaus motetan berdin jokatzen baitu. Aurrizkia izanik, erlatibozko perpauseko aditzari itsatsirik aurkituko dugu, honekin bat egiteko beharrezkoak diren aldaketa fonetiko guztiak burutuz:

* /t/ + /d/ = /t/

  - *... eta erran cieçón Ephphata, erran nahi* ***baita****, Irequi adi.* (Mc.,VII,34)

* /t/ + /g/ = /k/

  - *Gu* ***baicara*** *naturaz Iudu, eta ez Gentiletaric bekatore.* (Gal.,II,15)

* /t/ + /z/ = /tz/

  - *... Baina ethorriren dirade egunac edequiren* ***baitzaye*** *ezcondua ...* (Mt.,IX,15)

* /t/ + /n/ = /n/

- ... *Nola hi Iudu aicelaric, edatera niri esquez aut,* **bainaiz,** *emazte Samaritana?* (Io.,IIII,9)

* /t/ + /h/ = /h/

- ... *eta hi* **baihago** *Leguearen arauez (...) manatzen duc ...?* ((Apost.Act.,XXIII,3)

3.2.2.2. Tokia.

-(E)N menderagailuaren bidez sortzen diren erlatiboei buruz hitz egitean, hauen mugikortasuna azpimarratu genuen, erlatibo horiek ondokoaren ezkerraldean zein eskuinaldean aurki baititzakegu. BAIT- aurrizkiaren bidez eraikitzen diren erlatibozkoek, berriz, oso kokaleku tinkoa dute, beti ondokoaren eskuinaldean agertzen baitira:

- ... *eman citzan bi peça chipi,* **baitziraden** *quadrantbat.* (Mc.,XII,42)

- ... *vkan duqueitê fedearê fina,* **baitate** *saluamendu eternala ...* (Adv.,33-34,269.or.)

Aipaturiko adibideetan, erlatibozkoa ondokoaren eskuinaldean, baina ondo-ondoan agertzen zaigu; dena den, ez dirudi ondoan agertzea beharrezkoa denik, Leizarragak, sarritan, ondokoaren eta honi dagokion erlatiboaren artean beste elementu batzuk (aditz nagusia bera ere) tartekatzen baititu:

- *Orain bada ni hil nahiz çabiltzate,* **bainaiz,** *Iaincoaganic ençun dudan eguia erran drauçuedan guiçona ...* (Io.,VIII,40)

- *Eta visionebat gauaz aguer cequión Pauli,* **baitzen** *hunela, Macedoniaco guiçon-bat presenta cedin ...* (Apost.Act.,XVI,9)

3.2.2.3. Kontestuak eta Balioa.

Sarreran aipatu dugunez, erlatiboak sortzeko orduan BAIT- menderagailua ez da -(E)N atzizkia bezain emankorra; beraz, oso kontestu zehatzetan aurkituko dugu.

Balioari dagokionez, gogora dezagun Villasantek, Mitxelenak eta Goenagak esaten dutena:

K.MITXELENA:

> *"Lo que está claro es que introduce relativas* ***no restrictivas****, como dicen en inglés ..."*[18]

L.VILLASANTE:

> *"Por los ejemplos que hemos visto parece se puede afirmar que sobre todo sirve para introducir oraciones relativas explicativas (no restrictivas) y causales-consecutivas ..."*[19]

P.GOENAGA:

> *"Euskaraz,* ***bait-*** *erabiltzen ez badugu, ez dugu erlatibo ez restriktiboak (edo esplikatiboak) sortzeko modurik (...) perpausa ez-murrizgarria edo ez-restriktiboa dela esaten dugu. Hots: ez du Izen sintagma murrizten, izen sintagma horren esplikazio bat -aposizio gisa- ematen baizik. Hain zuzen, gorago aipatu ditugun* ***zein...*** ***bait-*** *horien kidekoa litzateke."*[20]

Ikusten dugunez, puntu honi dagokionez, gramatikari guztiak datoz bat, BAIT- menderagailuaren bidez sortzen diren erlatiboak "ez restriktiboak" direla aldarrikatuz.

Hau guztia kontutan harturik, ikus dezagun zer-nolako kontestuetan aurki dezakegun menderagailu hau:

---

[18] MITXELENA, K., in VILLASANTE, L., Sintaxis de la oración compuesta, 213.or.

[19] Id., 221.or.

[20] GOENAGA, P., Gramatika Bideetan, 338-339.orr.

A.- Aposizio gisa agertzen diren erlatibo ez-restriktiboetan:

Hau da, zalantzarik gabe, BAIT- aurrizkidun erlatiboen kontesturik berezkoena; beraz, adibide gehienak kontestu honetan aurkituko ditugu:

(1)- ... *ethor cedin Iudas,* **baitzén** *hamabietaric bat,* ... (Mc.,XIIII,43)

(2)- ... *aitabat diagu,* **baita** *Iaincoa.* (Io.,VIII,41)

Adibide hauetan ikus dezakegunez, erlatiboak ken litezkeen espletiboak baino ez dira. Izan ere, adibide hauek Haranederrek ematen dizkigunekin erkatzen baditugu, azken honek ez darabilela erlatiborik ohartzen gara:

(1')- ... *ethorri cen Judas Iscariotes hamabietaric bat* ... (Haran., Mc.,XIIII,43)

(2')- ... *aita bat dugu eta hura Jaincoa.* (Haran., Io.,VIII,41)

Bestalde, aztertzen ari garen multzo zabal honen barruan, pertsona-izenordainak ondoko dituzten erlatiboak aipatu behar ditugu. Hauek, lehenengo edo bigarren pertsonei dagozkien izenordainak izaten dira:

- *Ni Aitac sactificatu eta mûdura igorri* **bainau,** *çuec dioçue ecen blasphematzê ari naicela,* ... (Io.,X,36)

- *Ecen gu* **baicara** *anhitz, oguibat gara* ... (Cor.1.IIII,9)

- ... *cerê bihotzean baitzadutzatet (...) çuec gucioc enequin* **baitzarete** *participant ene gratian.* (Phil.,I,7)

Erlatibo hauek ondokoa beti aurrean daramate; dena den, ondokoa pertsona izenordaina denean, gerta daiteke jakintzat ematea eta, beraz, ez agertzea. Ikus dezagun adibide bat:

- *Eta dohatsu aiz sinhetsi* **baitun,** ... (Lc.,I,45)

Adibide honetan ondokoa agerian egon ez arren, euskara dakien edonork jakingo luke HI dela ezabaturiko izenordaina, aditzak berak halaxe adierazten digulako. Horregatik, honelako kasuetan erlatibo hauek ondokorik gabe ere ager daitezke.

Laburbilduz, esan dezagun BAIT- menderagailuaren laguntzaz eraikitzen diren erlatibo hauek ez dutela aurrean daramaten izen sintagma mugatzen. Betetzen duten funtzio bakarra ezaguna den ondoko bati buruzko argibideren edo azalpenen bat ematea besterik ez da. Gainera, funtzio hau agerian geratzen da Leizarragak behin eta berriro darabilen **"erran nahi baita"** egituran:

- ... *eta erran cieçón Ephphata,* ***erran nahi baita,*** *Irequi adi.* (Mc.,VII,34)

- ... *eta Grec-ez Apollyon* ***erran nahi baita*** *deseguilea.* (Apo.,IX,11)

Beraz, kontestu honetan, hots, aposizio funtzioan, adibide ugari topa dezakegu; dena den, ohart gaitezen erlatibo ez-restriktiboak BAIT- aurrizkiak ez ezik, beste menderagailu batzuek ere sor ditzaketela. Leizarragak, behintzat, honelako erlatiboak -(E)N eta CEIN... BAIT-menderagailuen bidez ere sortzen ditu. Ikus ditzagun adibide batzuk:

(1)- ... *oihuz dagoela, Abba,* ***errâ nahi baita,*** *Aita.* (Gal.,IIII,6)

(1')- *Abba, da hitzbat (...)* ***cein erran nahi baita*** *hambat nola, Aita.* (Hitz eta Minçatzeco Manera,1201.or.)

(2)- ... *Hic Iauna guciê bihotzac* ***baiteçaguzquic,*** *eracutsac cein elegitu duán bi hautaric,* (Apost.Act.,I,24)

(2')- ... *Hic templea deseguiten duanorrec, eta hirur egunez edificatzen, empara eçac eure buruä* ... (Mt.,XXVII,40)

B.- NON/NOIZ kasuko izen sintagmak isiltzen dituzten erlatiboetan:

Bigarren multzo honetan aipatzen ditugun erlatiboak, aurrekoak bezala, aposizio gisa agertzen dira, ondokoa aurrean daramatelarik; baina beste sail desberdin batean kokatu ditugu ez baitirudi erlatibo "ez-restriktiboak" direnik.

Villasanteren, Mitxelenaren eta Goenagaren arabera, BAIT- aurrizkia daramaten erlatibo guztiak "ez-restriktiboak" dira; baina ikus dezagun zer dioen honetaz de Rijk-ek:

> *"Ohargarria da, bestalde, **bait-** aurrizkiarekin moldatutako erlatiboak mugatuak izan daitezkeela Leizarraga-ren lumapean:*
>
> *(23). Baina ethorriren dirade egunac edequiren baitzaye ezcondua eta orduan barur eguinen baituqueite. (S.Mattheu,IX-15)"*[21]

De Rijk-ek aipaturiko adibidea ez da bakarra; izan ere, kontestu honetan adibide ugari aurki ditzakegu:

> - *... Ethorriren dirade egunac desiraturen **baituçue** guiçonaren Semearen egunetaric baten ikustera, eta **ezpaituçue** ikussiren.* (Lc.,XVII,22)
>
> - *... baina ethorten da ordua **ezpainaitzaiçue** guehiagoric comparationez minçaturen, baina claroqui neure Aitaz minçaturen **bainaitzaiçue**.* (Io.,XVI,25)

Adibide hauetan ikus dezakegunez, erlatibo hauek ez dira aurreko izen sintagmari buruzko azalpen bat ematen duten espletiboak, erlatibo hauen bidez, izen sintagma hori murriztu eta zehazten baitugu; erlatiborik gabe, berriz, ez genuke jakingo zein egunez edo zein orduz hitz egiten ari garen.

---

[21] DE RIJK, R., "Erlatiboak idazle zaharrengan" Euskera-XXV, 532.or.

Bestalde, ohart gaitezen kontestu honetan, aurrekoan bezala, BAIT- aurrizkiak betetzen duen funtzioa beste menderagailuek ere bete dezaketela:

> - ... *ecen eztaquiçue guiçonaren Semea ethorriren den eguna ez orena*. (Mt.,XXV,13)
>
> - ... *ethorriren dirade egunac* **ceinetan ezpaita** *gueldituren harria harriaren gainean deseguin eztadin*. (Lc.,XXI,6)

C.- Beste erlatibo bati loturik dauden erlatiboetan:

Kontestu honen barruan sartzen diren erlatiboak aipatu aurretik, gogora dezagun Villasantek BAIT-aurrizkiaz dioskuna:

> *"Parece, no obstante, que su función fundamental o valor típico específico es su carácter "relativo" en sentido amplio, es decir, que es un relacionante e índice o marca de subordinación. Por sí no tiene sentido determinado, y según los casos concretos puede asumir los más varios."*[22]

Beraz, BAIT- aurrizkia menderakuntza-adierazle izanik, aldamenean duen menderakuntza motaren arabera balio bat edo beste adieraziko du. Eta hauxe da, hain zuzen, kontestu honetan aurkitzen duguna: BAIT-aurrizkiak, berez, ez du erlatiborik sortzen, erlatiboa, lehendik, -(E)N menderagailuak sortu baitu; baina erlatibo hori perpaus batek baino gehiagok osatzen dutenez, lehenengoaren aldamenean agertzen direnek -(E)N menderagailua eraman beharrean, balio bera adieraz dezakeen BAIT- menderagailua hartzen dute. Ikus ditzagun adibide batzuk:

> - *Eta bere nabussiaren vorondatea eçagutu duen* **cerbitzaria**, *eta* **ezpaita** *preparatu, eta* **ezpaitu** *haren vorondatearen araura eguin, cehaturen da* ... (Lc.,XII,47)
>
> - ... *eta bere buruäc Iudu eguitê dituztenén blasphemioa, eta* **ezpaitirade**, ... (Apo.,II,9)

---

[22] VILLASANTE, L., Sintaxis de la oración compuesta, 209.or.

- *Cembeit persona-ere badituc (...) satsutu eztituztenic, eta ebiliren* ***baitirade*** *enequin ...* (Apo.,III,4)

Adibide hauek ikusita, konturatzen gara BAIT- aurrizkiak ez duela erlatibo mota berezirik sortzen; adibide hauetan BAIT- aurrizkia -(E)N menderagailuaren baliokidea da; hortaz, biek funtzio bera betetzen dute.

BAIT- menderagailua agertzen deneko hiru kontestuak aztertuta, atera dezakegun ondorioa da erlatiboak sor ditzakeen menderagailu hau ez dela edonola eta edonon erabiltzen, oso kontestu zehatzetan baizik.

Honez gain, menderagailu honek betetzen dituen funtzioak -(E)N menderagailuak eta, askotan, CEIN... BAIT-formak ere bete ditzakete.

3.2.3. ANAFORIKOAK:

Aurreko ataletan -(E)N eta BAIT- menderagailuen bidez sortzen diren erlatiboak aztertu ditugu; baina erlatiboak sortzeko beste bide bat ere aipatu behar dugu. Izan ere, Leizarragaren obran -(E)N atzizkia menderagailu nagusia izan arren, honen ostean anaforikoen bidez sortzen diren erlatiboak aipatu behar ditugu, oso maiz erabiltzen baitira.

Dakigunez, XIX. mendearen amaieran eta mende honen hasieran nagusitu zen joera garbizalea zela eta, anaforikoen erabilera erabat gaitzetsi zen. Leizarragaren garaian, berriz, anaforikoak erlatibozko perpausak sortzeko baliabide egokiak izan bide ziren, honek eta garai horietako idazle gehienek parra-parra erabiltzen baitzituzten. Hortaz, ez gara sartuko anaforiko hauek erabili ala baztertu behar diren epaitzera; baina ezin uka dezakegu tradizio handiko baliabideak izan direla eta orain gutxira arte bizi-bizirik zeudela.

Edozein modutan ere, auzi honen inguruan sortu diren zenbait iritzi gogora ekartzea interesgarria izan daiteke:

1- P. LAFITTE:

Gramatikari honek anaforikoen bidez eraikitzen ziren erlatibozkoak gaitzetsi zituen erabat. Ikus dezagun, halere, Villasantek jokabide garbizale honi egiten dion kritika:

> *"Tenemos, pues, que Lafitte reprueba estas oraciones de relativo formadas a base de* ***bait-*** *en conexión con* ***zein*** *o* ***zoin*** *(**zeiñismo**). Pero no dice, claro, cómo han de resolver la papeleta los que no recurren a* ***bait-*** *para esta clase de oraciones. (...) Aduce ejemplos, y concluye:"No dudamos en condenar esta jerigonza". Pero añade:"Sin embargo, ciertas construcciones están tan hondamente introducidas en la lengua, que conviene aceptarlas". (...)*
>
> *Sin embargo, a la crítica de Lafitte cabe hacer la siguiente crítica: 1) Su condena equivale a condenar en bloque toda la literatura y todos los autores vascos relativamente antiguos (...).Esto, ya de entrada, resulta sin más inadmisible, pues la lengua es como ha sido históricamente y no como*

quisiéramos que hubiera sido. 2) Es verdad que en el uso de los dialectos vascofranceses, el prefijo ***bait-****, sin necesidad de anafóricos cumple él solo múltiples funciones y sirve para formar diversas clases de oraciones subordinadas (...) Pero hay que decir también que esta multiplicidad de funciones de* ***bait-*** *tiene su contrapartida: la ambigüedad de las oraciones así formadas. (...) 3)Gracias al anafórico más* ***bait-*** *se obtienen, efectivamente, oraciones subordinadas, más pesadas, si se quiere, pero precisas e inequívocas."*[23]

2- LUIS VILLASANTE:

Villasantek Lafitte-ri eginiko kritikan aski ondo agertzen du bere jarrera. Villasantek anaforikoen erabilera onesten eta goraipatzen du. Azken finean, ez dezagun ahanz Villasante bere ikerketak egiteko, gehien bat, idazle klasikoetan oinarritu zela eta hauek maiztasun handiz erabiltzen zituztela aipaturiko anaforikoak.

3- P. GOENAGA:

Goenagaren jarrera eklektikoena da; idazle zaharrak kontutan harturik, anaforikoak aipatzen ditu, baina ez da anaforiko hauek onetsi ala gaitzetsi behar diren auzian sartzen, erabiltzea zein baztertzea norberaren esku utziz. Ikus dezagun zer dioen:

"Idazle zaharrak hartzen baditugu, barra barra aurkituko ditugu ***nor... bait-****,* ***zein... bait-****,* ***non... bait-*** *eta antzeko egiturak.*

Forma hauek ez dute oso fama ederra, baina agian erabilgarriak dira."[24]

Geuk ere, Goenagaren jokabidea hobetsiz, Leizarragaren testuan aurkitzen diren anaforikoak

---

[23] VILLASANTE, L., La oración causal en vasco, 32-34.orr.

[24] GOENAGA, P., Gramatika bideetan, 294.or.

aztertuko ditugu, baina hauen erabilera ez eredutzat hartzeko, ez gaitzesteko asmorik gabe.

3.2.3.1. CEIN-(ERE)... BAIT-

CEIN erlatibozko perpausak sortzen dituen anaforikorik erabiliena da.

3.2.3.1.1. Forma.

A.- Erlatibo hauetaz hitz egitean anaforikoen bidez sortzen direla esaten dugu; dena den, ez dugu ahaztu behar anaforiko batek, bakar-bakarrik, ezin duela ez erlatibozkorik ez bestelako perpausik sortu. Anaforiko hauek menpeko perpaus bat sortuko badute, benetako menderagailu baten laguntza izan behar dute; beraz, anaforikoa agertzen deneko perpaus berean BAIT- edo -(E)N menderagailuak aurkituko ditugu.

CEIN anaforikoaren kasuan, menderagailurik erabiliena BAIT- izaten da:

(1)- *Eta Iacob-ec engendra ceçan Ioseph Mariaren senharra,* ***ceinaganic*** *iayo içan* ***baita*** *Iesus,* ***cein*** *erraiten* ***baita*** *Christ.* (Mt.,I,16)

(2)- ... *Spiritu sainduac,* ***cein*** *igorriren* ***baitu*** *Aitac ...* (Io.,XIIII,26)

Edonola ere, zenbait salbuespen aipatu behar dugu, hainbat adibidetan CEIN anaforikoa -(E)N atzizkiarekin batera topatzen baitugu:

(3)- ... *ecen berce icenic ezta ceruären azpian guiçoney emâ çayenic,* ***ceinez*** *saluatu behar* ***garén.*** (Apost.Act.,IIII,12)

(4)- ... *Ecen eman içan baliz Leguea* ***céinec*** *viuifica ahal* ***leçan,*** *segur ...* (Gal.,III,21)

(5)- ... *fedezco broquela harturic,* ***ceinez*** *Gaichtoaren gueci suz eraichequi guciac iraungui ahal* ***ditzaçuen.*** (Eph.,VI,16)

(6)- *Ecen beharra guenduen halaco Sacrificadore subiranobat guenduen, saindua, innocenta, (...)* ***Ceinec ezluen*** *beharric egun oroz (...) lehenic bere bekatuacgatic sacrificioric offrendatu, guero populuarenacgatic ...* (Hebr.,VII,26-27)

Testu osoa aztertuta, lau adibide bakarrik aurkitu ditugu; dena den, adibide hauek ikusita, anaforikoekin -(E)N menderagailua ere ager daitekeela onartu behar dugu. Baina, orain arazo berri bat sortzen zaigu: noiz erabiltzen den BAIT- eta noiz -(E)N bereiztea.

BAIT- aurrizkiaren bidez sortzen diren erlatiboak -(1),(2)- eta -(E)N atzizkiaren bidez sortutakoak -(3),(4),(5),(6)- erkatzen baditugu, formalki ezezik, morfologikoki ere desberdinak direla ohartzen gara. CEIN... -(E)N egituradun erlatibo guztietan aspektu markarik gabeko aditzak dauzkagu; CEIN... BAIT- egituradun erlatiboetan, berriz, nagusitzen den modua indikatiboa da; beraz, bi egituren arteko bereizketa aditzaren moduan datzala suposa dezakegu. Horrela, CEIN... BAIT- egitura aditza indikatiboa denean agertuko zaigu; CEIN... -(E)N, ordea, subjuntiboekin topatuko dugu.

B.- Bestalde, anaforiko honek hartzen duen formarekin jarraituz, honek daukan aldaera bat ere aipatu behar dugu: CEIN-ERE

- *Eta* ***cein-ere*** *hiritan edo burgutan sarthuren* ***baitzarete,*** *informa çaitezte ...*(Mt.,X,11)

- *Eta* ***cein-ere*** *spirituc* ***ezpaitu*** *confessatzen (...) hura ezta Iaincoaganic ...* (Io.1,IIII,3)

C.- Formaz ari garenez, aipa dezagun CEIN anaforikoa deklina daitekeela eta deklinabide marka guztiak har ditzakeela:

* NOR / ZER:

- ... *iayo çaiçuela Saluadorea,* **cein baita** *Christ Iauna.* (Lc.,II,11)

• NOR BAITHAN:

- ... *discipulu ancianoa,* **cein baithan** *ostatuz behar* **baiquenen.** (Apost.Act.,XXI,16)

* NORK / ZERK:

- ... *glorifica ceçaten Iaincoa,* **ceinec** *emâ vkan* **baitraue** *halaco authoritatea guiçoney.* (Mt.,IX,8)

* NORI:

- *Lehenic Symon, (***ceini** *icen eman* **baitzieçon** *Pierris)* (Mc.,III,16)

* NOREN(A):

- ... *ençunic emaztebatec,* **ceinen** *alabatchoac* **baitzuen** *spiritu satsua,* ... (Mc.,VII,25)

• (Genitibo objetiboa):

- ... *presoindeguian eçarri içan dena,* **ceinen** *escatu içan* **baitziraden** ... (Lc.,XXIII,25)

* NOREKIN:

- *Iaquiçue gure anaye Timotheo largatu içan dela,* **ceinequin** *(...) ikussiren* **baitzaituztet.** (Hebr.,XIII,23)

* NONGO:

- ... *cein baita Eliçá.* **Ceinetaco** *ministre eguin içan* **bainaiz,** ... (Col.,I,24-25)

* NON:

- ... *non baitzén baratzebat,* **ceinetan** *sar* **baitzedin** *hura* ... (Io.,XVIII,1)

• (Biziduna):

- ... *Haur da ene Seme maitea,* **ceinetan** *neure atseguin ona hartzen* **baitut** (Pier.2,I,17)

* NORA:

- ... *lot aquio vicitze eternalari,* **ceinetara** *deithu-ere* **baitaiz,** ... (Tim.1,VI,12)

* NONDIK:

- *Eta eztatchecalaric buruäri,* **ceinetaric** *gorputz gucia (...) Iaincoaren hacitzez hatzen* **baita.** (Col.,II,19)

• (Biziduna):

- ... *eta eriden ceçaten guiçona* ***ceinetaric*** *deabruac ilki içan* ***baitziraden,*** ... (Lc.,VIII,35)

* NORENGANDIK:

- ... *Aitabat dugu,* ***ceinaganic baitirade*** *gauça guciac* ... (Cor.1,VIII,6)

* NORENGATIK:

- ... *galdurê da anaye infirmo dena,* ***ceinagatic*** *Christ hil içâ* ***baita***? (Cor.1,VIII,11)

* ZERGATIK:

- ... *cer da causá* ***ceinagatic*** *hemen* ***baitzarete***? (Apost.Act.,X,21)

* ZEREN CAUSAZ:

- ... *notifica deçadançát Euangelioaren mysterioa,* ***Ceinen causaz bainaiz*** *embachadore cadenán* ... (Eph.VI,20)

* ZEREN AMORECATIC:

- ***Propitiatorioa*** *(...) Halacotz deitzê da Propitiatorio* ***ceinen amorecatic*** *Iaincoa amatigatu içan* ***baita,*** ... (Hitz eta Minçatzeco Manera,1210.or.)

* ZEREZ / ZERTAZ:

- ... *eznaicén hardit hardieça batez,* ***ceinez*** *deliberatzen* ***baitut*** ... (Cor.2,X,2)

- ... *iaquin ahal ditzaquec gauça guciac,* ***ceineçaz*** *guc hori accusatzen* ***baitugu.*** (Apost.Act.,XXIIII,8)

• (Biziduna):

- *Ecen haur da* ***ceinez*** *scribatua* ***baita,*** ... (Mt.,XI,10)

- *Ecen anhitz dirade dabiltzanac,* ***ceineçaz*** *anhitzetan erran vkan* ***baitrauçuet,*** ... (Phil.,III,18)

Adibide hauetan guztietan ikusi ahal dugunez, deklinabide marka CEIN anaforikoari itsasten zaio; dena den, anaforiko hau indefinido bat denez gero, berarekin sustantibo bat eraman dezake eta, kasu honetan, sustantiboak berak eramango du kasu-marka:

- ... *Iudaren leinutic ilki içan dela gure Iauna,* ***cein leinutan expaitu*** *(...) deus erran.* (Hebr.,VII,14)

- Fedez Noéc, (...) appresta ceçan arká bere familiaren saluatzeco: ***cein arkaz*** *condemna* ***baitzeçan*** *mundua ...* (Hebr.,XI,7)

Adibide hauetan, Leizarragak ondokoa errepikatu eta erlatibozko perpausaren barruan sartzen du CEIN anaforikoari loturik.

Aipatu ditugun adibideetan, CEIN anaforikoak edozein kasu-marka har dezakeela ikusi dugu; baina aldi berean, kasu gehienetan ez daramala mugatzailerik, hau da, mugagabea dela ohartzen gara. Dena den, "kasu gehienetan" diogu, hainbat adibidetan plurala behintzat bereizten baitu.

Edonola ere, aurrera egin aurretik gogora dezagun zenbait gramatikarik auzi honetaz esaten digutena:

L.VILLASANTE:

> *"...* ***zein*** *sirve tanto para el singular como para el plural (...) En realidad* ***zein*** *recibe los sufijos de la declinación indefinida, la cual no conoce plural."*[25]

Villasantek eginiko ikerketen arabera, Axularren erabileran behintzat, ZEIN anaforikoa beti mugagabea dela eta singularra zein plurala adieraz ditzakeela ondoriozta dezakegu. Dena den, Leizarragaren erabilera aztertzen badugu, gauzek ez dirudite hain sinple. Ikus dezagun, bestela, H.SCHUCHARDT-ek dioena:

> *"... La declinación indeterminada del pronombre relativo sirvió inicialmente también para la expresión del plural: Leizarraga tiene todavía* ***cein*** *también como nominativo plural, después* ***ceinéc***, ***ceinén***, ***ceinéz*** *se diferencian, como formas de plural, de los indeterminados* ***ceinec***, ***ceinen***, ***ceinez***, *pues sólo hay un plural determinado (otros dialectos, ciertamente, conocen también, sin duda según un modelo románico, un singular determinado* ***ceina***, ***ceinac***, *etc., y Leizarraga tiene por lo menos* ***ceinagatic***) *y a aquellos se les ha unido* ***ceiney***, *frente al* ***ceini*** *del singular ..."*[26]

---

[25] VILLASANTE, L., Sintaxis de la oración compuesta, 89-92.orr.

Beraz, ikusten dugunez, Leizarragaren eta Axularren erabilerak, puntu honi dagokionean behintzat, ez datoz bat. Leizarragak darabiltzan adibideak aztertuta, badirudi ez duela normalean singular mugaturik erabiltzen, singularrerako, **bi salbuespen kenduta**, forma mugagabeak aurkitzen ditugulako:

> - *Hura da ene ondoan ethorten dena,* ***cein*** *ni baino aitzinecoagoa* ***baita,*** ***ceinen*** *çapataco hedearen lachatzeco* ***ezpainaiz*** *ni digne.* (Io.,I,27)
>
> - *... eriden-ere badut aldarebat,* ***ceinetan*** *scribatua* ***baitzén,*** *...* (Apost.Act.,XVII,23)

Nolanahi ere, goian aipatu dugunez, bi salbuespen izan behar ditugu kontutan:

> - *Eta Iacob-ec engendra ceçan Ioseph Mariaren senharra,* ***ceinaganic*** *iayo içan* ***baita*** *Iesus, ...* (Mt.,I,16)
>
> - *... ezteçála eure viandagatic hura gal,* ***ceinagatic*** *Christ hil içan* ***baita.*** (Rom.,XIIII,15)

Bi adibide hauetan anaforikoek mugatzailea daramate, ezin esan baitezakegu kasu-markak -AGANIC, eta -AGATIC direla. Ikus dezagun, gainera, hurrengo adibidea:

> - *Ecen desir nuque ni neuror Christ* ***ganic*** *separatua nincén neure anayeac* ***gatic,*** *...* (Rom.,IX,3)

Adibide honetan argi eta garbi ikus dezakegunez, ZERGATIK/NORENGATIK eta NORENGANDIK kasuei dagozkien markak -GATIK eta -GANIK dira; beraz, kasu gehienetan Leizarragak forma mugagabeak erabiltzen dituen arren, singular mugatuak ere ezagutzen dituela aitortu behar dugu.

---

[26] SCHUCHARDT, H., in LEIZARRAGA, I., Iesus Christ gure Iaunaren Testamentu berria, 196.or.

Bestalde, pluralari dagokionez, ABSOLUTIBOan, esate baterako, CEIN mugagabeak bai singularra bai plurala adierazten ditu:

- *Halacotz igorri drauçuet Timotheo,* ***cein baita*** *ene seme maitea ...* (Cor.1,IIII,17)

- *... har-itzaçue (...) exemplutan Prophetác,* ***cein*** *minçatu* ***baitirade*** *Iaunaren icenean.* (Iac.,V,10)

Baina H.Schuchardt-ek liburuaren sarreran aipatzen duenez, badirudi Leizarragak, zenbait kasutan behintzat, singularra eta plurala bereizten dituela, anaforikoa plurala denean, azentodun formak erabiltzen dituelako:

(1)- *... glorifica ceçaten Iaincoa,* ***ceinec*** *emâ vkan* ***baitraue*** *halaco authoritatea guiçoney.* (Mt.,IX,8)

(1')- *... conta ciecén, Iesusequin ciradeney,* ***ceinéc*** *dolu ekarten* ***baitzuten*** *eta nigar eguiten.* (Mc.,XVI,10)

(2)- *... Christez viuificatu vkan gaitu,* ***ceinen*** *gratiaz saluatu içan* ***baitzarete.*** (Eph.,II,5)

(2')- *... eta Gentil guciéc,* ***ceinén*** *gainean inuocatu içan* ***baita*** *...* (Apost.Act.,XV,17)

(3)- *... Iesus Christ qure Iaunaz,* ***ceinez*** *orain reconciliatione recebitu* ***baitugu.*** (Rom.,V,11)

(3')- *Harç erranen drauzquic hitzac,* ***ceinéz*** *saluaturen* ***baitaiz,*** *...* (Apost.Act.,XI,14)

Honez gain, ez dezagun ahaztu Leizarragak NORI kasuan singularra eta plurala formalki ere bereizten dituela:

(4)- *Lehenic Symon,* ***(ceini*** *icen eman* ***baitzieçon*** *Pierris)* (Mc.,III,16)

(4')- *... içar errebelatuac,* ***ceinéy*** *apprestatua* ***baitzaye*** *tenebretaco ilhûhea eternalqui.* (Ivda,13)

Hau guztia ikusita, bi ondorio atera ditzakegu: alde batetik, singularra adierazteko aipaturiko

ZERGATIK/NORENGATIK eta NORENGANDIK kasuak kenduta, forma mugagabeak nagusitzen direla; eta bestetik, plurala adierazteko forma mugatuak erabiltzen direla. Forma mugatu hauek, NORI kasuan adibidez, formalki bereizten dira; gainerako kasuetan, ordea, berdinak dira, baina dirudienez, Leizarragak forma mugatuak azentuaren bidez bereizten zituen.

3.2.3.1.2. Tokia.

CEIN...BAIT- egituraren bidez sortzen diren erlatibozkoek perpaus nagusiaren baitan hartzen duten tokiari dagokionez, oso kokaleku tinkoa dutela aipatu behar dugu, beti ondokoaren eskuinaldean agertzen baitzaizkigu:

- ... *Eta hequin ceqoen Iudas-ere* **ceinec** *traditzen* **baitzuen** *hura.* (Io.,XVIII,5)

- ... *denuntiatzen çuelaric baquea Iesus Christez,* **cein baita** *gucién Iauna.* (Apost.Act.,X,36)

Nolanahi ere, BAIT- menderagailu soilaren bidez eraikitzen diren erlatiboekin gertatzen den bezala, ondokoaren eskuinaldean agertzen direla esateak ez du esan nahi ondokoaren albo-alboan agertu behar dutenik; izan ere, ondokoaren eta erlatibozko perpausaren artean beste elementu batzuk tarteka daitezke:

- ... *Huná, nic igorten diat neure mandataria hire beguitharte aitzinean,* **ceinec** *hire bidea appainduren* **baitu** *hire aitzinean.* (Mt.,XI,10)

- *Eta bestiá hatzaman cedin, eta propheta falsu haren aitzinean signoac eguin cituena harequin,* **ceinéz** *seducitu* **baitzituen** ... (Apo.,XIX,20)

Dakigunez, erlatibozkoen katea nahi dugun beste luza dezakegu, erlatibozko bat bestearen barruan txertatuz. Erlatibo hauek ondokoaren ondoan agertzen zaizkigu; beraz, katea luzatzekotan, ezinbestez luzamendua eskuinetarantz egin behar da:

- ... *eta Christen afflictionén gaineracoac complitzen ditut neure haraguiá, haren gorputzagatic,* ***cein baita*** *Eliçá.* ***Ceinetaco*** *ministre eguin içan* ***bainaiz,*** *Iaincoaren dispensationez,* ***cein*** *eman içan* ***baitzait*** *çuec baithara,...* (Col.,I,24-25)

Bestalde, anaforikoari gagozkiolarik, esan gabe doa erlatibozko perpausaren hasiera-hasieran agertzen dela, erlatibozkoa non hasten den seinalatuz. Edonola ere, gerta daiteke erlatibozko hori perpaus batek baino gehiagok osatzea; kasu hauetan bi jokabide bereiz ditzakegu:

A.- Erlatibozkoa ETA emendiozkoak elkarturiko bi perpausek osatzen badute eta bi perpausetan anaforikoak funtzio bera betetzen badu, eskuarki, anaforiko hau lehenengo perpausaren hasieran bakarrik aurkituko dugu; dena den, bigarren perpausa ez da hutsik geratzen, aditzak BAIT-menderagailua hartzen duelako:

- ... *Cen aitafamiliabat,* ***ceinec*** *landa* ***baitzeçan*** *mahastibat, eta hura hessiz ingura* ***baitzeçan,*** ... (Mt.,XXI,33)

- ... *dacussatenean bestiá,* ***cein baitzén,*** *eta* ***ezpaita,*** *eta alabaina* ***baita.*** (Apo.,XVII,8)

Edonola ere, nahiz eta bi perpausetako anaforikoek funtzio desberdinak izan, aditzaren bidez anaforikoak betetzen duen funtzioa ongi isladatzen bada, bigarren perpauseko anaforikoa ezaba daiteke:

- ... *ikus ceçan Iesusec maite çuen discipulu hura, iarreiquiten cela,* ***cein*** *sustengatu-ere baitzén affarian harê estomac gainera, eta erran* ***baitzeçan,*** ... (Io.,XXI,20)

B.- Hala ere, aipatu berri dugun kasuan bigarren anaforikoaren ezabaketa zilegi bada ere, Leizarragak, anaforikoek funtzio desberdinak betetzen dituzten kasu gehienetan, biak mantentzen ditu:

- *Ecen presentatu içan da (...) Iaincoaren Aingueruä,* ***ceinena bainaiz*** *ni, eta* ***cein*** *cerbitzatzen* ***baitut.*** (Apost.Act.,XXVII,23)

- *Ez Cainec beçala,* ***cein baitzén*** *Gaichtoaganic, eta* ***ceinec*** *hil* ***baitzuen*** *bere anayea.* (Io.1,III,12)

3.2.3.1.3. Balioa.

CEIN... BAIT- egituraren bidez sortzen diren erlatiboek duten balioari dagokionez, gogora dezagun P.Goenagak dioena:

> *"Galdetzaileaz baliatuz sortzen ditugun erlatibo berezi hauek erlatibo ez-restriktiboak edo ez-murrizgarriak deitzen ditugu. Ez dute mugaketarik egiten. Egiten dutena hau da: aurreko izen sintagmari buruzko informazioa nolabait gehitu, esplikatu."*[27]

1.- Beraz, egitura honen bidez, kasu gehienetan behintzat, erlatibo ez-restriktiboak sortzen direla baiezta dezakegu. Erlatibo hauek aurrean daramaten izen sintagmari buruzko informazioa eskaintzen digute; dena dela, erlatibook kenduta ere, aise ulertuko genuke perpaus nagusian ematen zaigun mezua, ondokoak, berez, ezagunak eta aski mugatuak direlako. Ikus ditzagun adibide batzuk:

- ... *eta sarthuric Philippe Euangelistaren etchean* ***(cein baitzén*** *çazpietaric bat)* *egon guentecen hura baithan.* (Apost.Act.,XXI,8)

- ... *glorifica deçaçuençát Iaincoa,* ***cein baita*** *Iesus Christ ...*(Rom.,XV,6)

Hala ere, CEIN... BAIT- egituradun erlatiboen artean "restriktiboak" izan daitezkeen zenbait adibide ere aipa ditzakegu:

- *Ethor cedin (...) eguna,* ***ceinetâ*** *hil behar* ***baitzen*** *Bazcoa.* (Lc.,XXII,7)

- ... *ecen ethorriren da orena* ***ceinetan*** *monumentetaco guciécençunen* ***baitute*** *haren voza.* (Io.,V,28)

- ... *ikara cedin lekua* ***ceinetan*** *bilduac* ***baitziraden*** ... (Apost.Act.,IIII,31)

---

[27] GOENAGA, P., Gramatika Bideetan, 294.or.

Adibide hauetan ez dirudi erlatibo ez-restriktiboez hitz egin daitekeenik, erlatiborik gabe ezin baitezakegu jakin zein egunez, zein orenez edota zein lekuz hitz egiten ari garen. Erlatibo hauek aurrean daramatzaten ondokoak, berez, ez daude mugatuta; beraz, erlatiboek zehaztu eta murriztu behar dituzte. Ohart gaitezen, gainera, honelako erlatiboak -(E)N menderagailu restriktiboaren bidez ere adieraz daitezkeela:

> - ... *ecen eztaquiçue guiçonaren Semea ethorriren* *den* ***eguna*** *ez* ***orena***. (Mt.,XXV,13)

Dena den, erlatibo restriktiboen sarean sar ditzakegun erlatibo hauek oso zehatzak dira, beti lekua edota denbora adierazten baitute; gainerako guztiak, berriz, ez-restriktiboen multzoan kokatu behar ditugu, hauxe baita erlatibo hauen baliorik berezkoena.

2.- Egitura hauek duten balioaz hitz egitean, beste adiera bat ere aipatu behar dugu, Villasantek "Relativos de generalización" deitutakoak, hain zuzen ere:

> *"Nos referimos a formaciones que equivalen a las castellanas "Quien o Quienquiera que...", "Cualquier cosa que...", etc. Es decir, a los llamados Relativos o Interrogativos de generalización.*
>
> *Esta clase de oraciones Axular las construye con* ***Nor ere***, ***Zer ere***, *etc., prefijando al verbo el consabido* ***bait-***."[28]

Leizarragaren testuan ere honelako erlatiboak aurki ditzakegu:

> - *Eta* ***cein-ere*** *hiritan edo burgutan sarthuren* ***baitzarete***, *informa çaitezte ...* (Mt.,X,11)
>
> - *Eta bestan largatzen ohi cerauen presonerbat,* ***ceinen-ere*** *esca* ***bailitez***. (Mc.,XV,6)
>
> - *Eta* ***cein-ere*** *spirituc* ***ezpaitu*** *confessatzen (...) hura ezta Iaincoaganic ...* (Io.1,IIII,3)

---

[28] VILLASANTE, L., Sintaxis de la oración compuesta, 210.or.

Ohart gaitezen, azkenik, honelako erlatiboetan ondokoa erlatibozkoaren barruan txertatzen dela eta beti forma mugagabeak izaten direla. Hortaz, egitura hauek izenorde indefinituak edo direla esan genezake: "Sartuko zareten **edozein** hiritan ..." edo honen antzekoak, alegia.

3.2.3.2. CER-(ERE)... BAIT-

Anaforiko honen bidez sortzen diren erlatibozkoak aztertzen hasi aurretik, bereizketa bat egin behar dugu, CER-(ERE)... BAIT- egituraren bitartez bi erlatibo mota eraiki baitaitezke:

A.- Zenbait adibidetan CER... BAIT- egitura, CEIN... BAIT- bezala, izenorde indefinitua izan daiteke:

- *Ecen* ***cer iugemenduz*** *iudicaturen* ***baituçue****, iudicaturen çarete eta* ***cer neurriz*** *neurthuren* ***baituçue****, aldiz neurthuren çaiçue.* (Mt.,VII,2)

- *...* ***cerere gauça*** *ençun* ***baitugu*** *eguin içan diradela Capernaum-en, eguin itzac ...* (Lc.,IIII,23)

B.- Adibide gehienetan, berriz, anaforikoa bakar-bakarrik aurkitzen dugu, izenordain gisa edo.

Hasteko, ikus dezagun zeintzuk diren anaforiko honek erlatibozko perpausaren baitan betetzen dituen funtzioak:

1.- Aditz iragangaitzen sujetoa:

- *Ecen* ***cer-ere*** *Iaincoaganic iayo* ***baita****, garaitzen çayo munduari ...* (Io.1,V,4)

2.- Aditz iragankorren osagarri zuzena:

- *...* ***cer-ere*** *lothurê* ***baituçue*** *lurrean lothua içanen da ceruän: eta* ***cer-ere*** *lachaturen* ***baituçue*** *lurrean, lachatua içanen da ceruän.* (Mt.,XVIII,18)

Edonola ere, funtzioen zerrenda honi hirugarren bat ere gehitu behar diogu, ESKATU aditzak, adizki laguntzaile iragangaitzekin agertu arren, osagarri moduko sintagma bat eramaten baitu:

> - ... *nahi guendiquec* ***cer-ere*** *escaturen* ***baicara,*** *eguin ieçagun.* (Mc.,X,35)
>
> - *Eta* ***cer-ere*** *escaturen* ***baitzarete*** *ene iceneâ, hura dut eguinê ...* (Io.,XIIII,13)

Baina, honez gain, erlatibozko perpausak perpaus nagusiaren baitan betetzen duen funtzioaren berri ere eman behar dugu, anaforikoak betetzen duen funtzioa eta erlatibozko perpausak betetzen duena ez baitira derrigorrez berdinak izan behar.

Orokorrean, CER-(ERE)... BAIT- egituradun erlatiboak aditz iragangaitzen sujetoak edo aditz iragankorren osagarri zuzenak izaten dira; baina aipatu dugunez, gerta daiteke anaforikoa sujetoa izatea, baina honek sortzen duen erlatibozko perpausa osagarri zuzena izatea, edo alderantziz. Ikus dezagun adibide bana:

> - ... *baina* ***cer-ere*** *emanen* ***baitzaiçue*** *ordu hartan, hura albeitzinarrate ...* (Mc.,XIII,11)
>
> - ... *eta* ***cer-ere*** *lothuren baituc lurrean, lothua içanen duc ceruëtan ...* (Mt.,XVI,19)

3.2.3.2.1. Forma eta balioa.

Formari gagozkiolarik, gogora dezagun salbuespenak alde batera utzirik, anaforikoek, orokorrean, perpauseko aditzean daramaten menderagailua BAIT- aurrizkia dela. Eta hala da kasu honetan, Leizarragaren obran CER-(ERE)... -(E)N egitura ez baitugu behin ere aurkitu.

Nolanahi ere, adibide berezi batzuk aipatu behar ditugu, zenbait erlatibotan BAIT- aurrizkia aurkitu beharrean BA- aurkitzen baitugu:

> - *Eta* ***ceren-ere*** *esca* ***bagaitez,*** *recebitzen dugu harenganic ...* (Io.1,III,22)

- ... *harcençuten gaituela,* ***cer-ere*** *esca* ***bagaitez*** ... (Io.1,V,15)

- ... *bere Aitaganic impetraturen duela,* ***cerere*** *hari berari (...) esca* ***bagaquitza*** ... (Som.,38-1,277-278.orr.)

Egia esan, oso adibide gutxi -hiru- aurkitu ditugu, eta guztiak ESKATU aditzarekin; dena den, aditz honekin agertzeak ez du esan nahi aditz honek BA- aurrizkia eskatzen duenik, beste hainbat adibidetan, aditz hau BAIT-menderagailuarekin aurkitzen baitugu:

- ... ***cer-ere*** *esca* ***baitzaquizquiote*** *ene Aitari ene icenean, eman dieçaçuençat.* (Io.,XV,16)

Beraz, erlatibozkoak sortzeko BA- aurrizkia ere aipatu behar dugu, Leizarragak, oso gutxitan bada ere, CER-ERE... BA- egitura ere erabiltzen baitu. Nolanahi ere, hegoaldeko hiztunoi egitura hau arrotz suerta dakigukeen arren, iparraldean behintzat, erabili izan da, Lafittek bere gramatikan jasotzen baitu:

" les relatifs indéfinis se construisent différemment selon leur forme:

- le mot interrogatif simple est suivi du suppositif en ***ba-****.*

Ex.: nor bazira*, qui que vous soyez;* ***nun izanen bazira****, où que vous soyez un jour."*[29]

Hala ere, ez dirudi egitura honen bidez balio berezirik adierazten denik; CER-ERE... BAIT- egituraren aldaera hutsa dela esan dezakegu.

Bestalde, orain arte aipatu ditugun adibideak arretaz aztertuz gero, CER... BAIT- eta CER-ERE... BAIT- forma

---

[29] LAFITTE, P., Grammaire Basque, 461.or.

desberdinen bidez funtzio bera adieraz daitekeela ohart gaitezke.

Leizarragak dituen adibideak aztertuta, nagusitzen den forma CER-ERE... BAIT- dela jabetzen gara, CER...BAIT- egitura lau adibidetan bakarrik aurkitzen baitugu. Dena den, ba al dago bi forma hauek bereizterik ala, funtsean, baliokideak dira?

Aurreko atalean ikusi dugunez, Villasantek ERE formadun erlatiboak "*de generalización*" deitzen ditu, erreferentzia zabalagoa, orokorragoa egiten dutelako. Honen arabera, CER... BAIT- egituraren bidez sortzen diren erlatiboek erreferentzia zehatzagoa egiten dutela ondorioztatu beharko genuke. Ikus dezagun ea horrela den:

(1)- *Eta* ***cer*** *ikussi eta* ***ençun*** ***baitu*** *hura testificatzen du ...* (Io.,III,32)

(1')- *... baina* ***cer-ere*** *ençun* ***baituque*** *erranen du ...* (Io.,XVI,13)

(2)- *... eztut* ***cer*** *nahi* ***baitut,*** *hura eguitê ...* (Rom.,VII,15)

(2')- *...* ***cer-ere*** *nahi* ***baituque*** *esca çaitezte ...* (Io.,XV,7)

Adibideak konparatzen baditugu, (1) eta (2) erlatiboak perpaus nagusian ondoko gisa-edo dagoen erakusle batekin harremanetan daudela ohartzen gara. Hasiera batean, erakusle honek erlatiboaren errefentzia-eremua mugatu edo zehazten duela pentsa liteke; baina, CER-ERE... BAIT- egituradun erlatibo batzuk ere perpaus nagusiko erakusle batekin harremanetan aurki ditzakegu:

- *... ecen* ***cer-ere*** *harc eguiten* ***baitu,*** *hura Semeac-ere halaber eguiten du.* (Io.,V,19)

- *... ecen batbederac* ***cerere*** *vngui eguin* ***baituque,*** *hura recebituren duqueela, ...* (Eph.,VI,8)

Hau ikusita, bi egituren arteko desberdintasuna ez dela hain nabarmena ohartzen gara, biek globaltasun, orokortasun zentzua har baitezakete.

Beraz, ondorio gisa, esan dezakegu CER-ERE... BAIT-egituraren bidez sortzen diren erlatiboek besteek baino erreferentzia-eremu zabalagoa, orokorragoa dutelakoa ez dela inondik ageri eta, adibide gehienetan behintzat, ez dirudiela CER... BAIT- eta CER-ERE... BAIT- egituren artean bereizketa erabakiorrik egin daitekeenik -adibide hauetan, bederen-.

3.2.3.3. NOR-(ERE)... BAIT-

Anaforiko honek, aurrekoak bezala, erlatibozko perpausaren barruan ABSOLUTIBOari dagozkion funtzioak betetzen ditu, hau da, aditz iragangaitzen sujetoa edo aditz iragankorren osagarri zuzena izaten da. Beraz, NOR eta ZER anaforikoen arteko desberdintasun bakarra, NOR anaforikoak daraman [+BIZIDUNA] tasunean datza.

Jaso ditzagun bete ditzakeen funtzioen adierazle diren adibide batzuk:

1.- Aditz iragangaitzen sujetoa:

- *Eta* ***nor-ere*** *regla hunen araura ebiltê* ***baitirade****, baquea içanen da hayén gainean ...* (Gal.,VI,16)

2.- Aditz iragankorren osagarri zuzena:

- *... ecen* ***nor*** *harc igorri* ***baitu****, hura çuec eztuçue sinhesten.* (Io.,V,38)

Bidenabar, gogora dezagun anaforikoak erlatibozko perpausean betetzen duen funtzioa eta erlatiboak berak perpaus nagusiaren baitan betetzen duena desberdinak izan daitezkeela, erlatibozko perpausak funtzio ugari bete baititzake:

* (Sujeto iragangaitza)

  - ... *baina* **nor-ere** *handi nahi içanen* **baita** *çuen artean, biz çuen muthil.* (Mt.,XX,26)

* (Sujeto iragankorra)

  - **Nor-ere** *iayo içan* **baita** *Iaincoaganic, harc bekaturic eztu eguiten ...* (Io.1,III,9)

* (Osagarri zuzena)

  - ... **nor-ere** *çuec letraz approbaturen* **baitituçue**, *hec igorriren ditut ...* (Cor.1,XVI,3)

* (Zehar osagarria)

  - *Eta* **nor-ere** *minçaturen* **baita** *guiçonaren Semearen contra, barkaturen çayo hari ...* (Mt.,XII,32)

Bi ohar:

1.- Alde batetik, ohart gaitezen NOR anaforikoaren bidez, singularra zein plurala adieraz daitekeela; bestela esanda, Leizarragak ez duela plurala adierazteko forma berezirik.

2.- Bestetik, erlatibo hauek, sarritan, perpaus nagusian agertzen den erakusle batekin harremanetan daude. Erakusle honen agerpena ez da sistematikoa; hala ere, gehienetan lagungarria izaten da, anaforikoak edo erlatibozko perpausak berak ezin baitu inolaz ere betetzen duen funtzioaren arabera dagokion deklinabide-marka eraman. Erlatiboa -(E)N menderagailuaren bidez sortuko bagenu, honi erantsiko genioke deklinabide-marka; baina anaforikoen bidez sortzen diren erlatiboetan deklinabide-marka adieraztekotan, nahitaez, perpaus nagusian erlatiboarekin harremanetan dagoen erakuslearen bidez adierazi behar dugu, ez baitaukagu beste biderik. (Ikus. Mt.,XII,32)

Bestalde, **FORMA**ri dagokionez, CER-(ERE) anaforikoa aztertzean aipatu genuen formen bikoizketa bera topatzen dugu orain ere, funtzio bera adierazteko bi forma desberdin aurki baititzakegu.

NOR-(ERE)... BAIT- egitura ez da oso maiz erabiltzen, obra osoan 28 adibide bakarrik aurkitu ditugu eta. Edonola ere, urritasun horren barruan, NOR-ERE... BAIT- egituraren nagusitasuna aldarrikatu behar dugu, 28 adibide horietatik 25etan egitura hau aurkitzen baitugu.

Hona hemen NOR... BAIT- egituradun adibide bakarrak:

- ... *ecen* ***nor baita*** *chipiena çuen gucion artean, hura içanen da handi.* (Lc.,IX,48)

- ... *ecen* ***nor*** *harc igorri* ***baitu****, hura çuec eztuçue sinhesten.* (Io.,V,38)

- ... ***nor baitago*** *nitan, eta ni hartan, harc ekarten du fructu anhitz.* (Io.,XV,5)

Bestalde, NOR... BAIT eta NOR-ERE... BAIT- formen arteko bereizketari dagokionez, ez dirudi [+ zehatza] / [- zehatza] tasunetan laburtu daitekeenik. Egia da NOR... BAIT- egituraren bidez egiten den erreferentzia, batzuetan, aski zehatza dela:

- ... *ecen* ***nor*** *harc igorri* ***baitu****, hura çuec eztuçue sinhesten.* (Io.,V,38)

Baina beste adibideetan, NOR-ERE... BAIT- egituraren bidez sortzen diren erlatiboak bezain orokorra edo zehaztugabea izan daiteke:

- ... *ecen* ***nor baita*** *chipiena çuen gucion artean, hura içanen da handi.* (Lc.,IX,48)

Hemen ez gara pertsona zehatz bati buruz hitz egiten ari. Gainera, ez dirudi adibide honen eta ondoren aipatuko ditugunen artean desberdintasun handiegirik dagoenik:

- ... *ecen* **nor-ere** *asserretzen* **baitzayo** *bere anayeri causa gabe, iudicioaz punitu içateko digne datela* ... (Mt.,V,22)

- **Nor-ere** *enseyaturen* **baita** *bere viciaren saluatzen, harc du galduren hura* ... (Lc.,XVII,33)

Beraz, badirudi erreferentzia zehatza egin nahi dugunean, ezinbestez, NOR... BAIT- erabili behar dugula. Erreferentzia zehaztugabea edo orokorra denean, ordea, NOR... BAIT- zein NOR-ERE... BAIT- erabil genitzake.

Azkenik, gogora dezagun erlatibozko sekuentzia perpaus batek baino gehiagok osa dezaketela. Egia esan, obra osoan adibide bat bakarrik aurkitu dugu; dena den, esan dezagun, adibide honetan anaforikoa lehenengo perpausaren hasieran bakarrik agertzen dela, bigarrenean, BAIT- menderagailu hutsa aurkitzen dugularik:

- *Eta* **nor-ere** *vici* **baita**, *eta sinhesten* **baitu** *ni baithan, seculan eztun hilen* ... (Io.,XI,26)

Adibide honetan, gainera, ohart gaitezen ezabatu den anaforikoa eta mantendu dena desberdinak direla, bigarrena NORC-ERE izan beharko bailitzateke. Hala eta guztiz ere, ezabatu den anaforikoaren berri aditzak berak ematen digunez, guztiz zilegi da ezabaketa.

3.2.3.4. NORC-(ERE)... BAIT-

ABSOLUTIBOari dagozkion anaforikoak alde batera utzirik, has gaitezen orain ERGATIBOaren funtzioak betetzen dituen anaforikoarekin, honek erlatibozko perpausaren baitan funtzio bakarra betetzen baitu: aditz iragankorren sujeto izatea:

- ... *baina* ***norc-ere*** *perseueraturê* ***baitu*** *finerano hura saluaturen da.* (Mt.,X,22)

- ... ***Norc*** *ni sendatu* ***bainau****, harc erran draut ...* (Io.,V,11)

Edonola ere, ez dezagun ahaztu anaforikoak funtzio bakarra bete dezakeen arren, anaforiko honek sortzen duen erlatibozko perpausak funtzio ugari bete ditzakeela:

* (Sujeto iragangaitza)

  - ... *eta* ***norc-ere*** *hilen* ***baitu****, hura iudicioz punitu içateco digne date.* (Mt.,V,21)

* (Sujeto iragankorra)

  - ... ***norc-ere*** *hura recebitzen* ***baitu****, ni recebitzen nau ...* (Io.,XIII,20)

* (Osagarri zuzena)

  - *Bada* ***norc-ere*** *vkaturen* ***bainau*** *guiçonén aitzinean, vkaturen dut nic-ere hura ...* (Mt.,X,33)

* (Zehar osagarria)

  - *Eta* ***norc-ere*** *erranen* ***baitu*** *hitzic guiçonaren Semearen contra barkaturen çayó hari ...* (Lc.,XII,10)

Bestalde, **FORMA**ri dagokionez, aurreko anaforikoez esandakoa ekar genezake gogora, anaforiko honek ez baitu besteengandik aldentzen duen jokabide berezirik agertzen. Aurrekoetan bezala, honetan ere funtzio bera adierazteko bi forma desberdin aurki ditzakegu: NORC... BAIT- eta NORC-ERE... BAIT-.

Maiztasunari dagokionez, esan gabe doa formarik erabiliena NORC-ERE... BAIT- dela, NORC... BAIT- egitura, obra osoan, bederatzi adibidetan bakarrik aurkitzen baitugu.

Forma hauek duten **BALIO**ari dagokionez, ezin aporta dezakegu gauza berririk anaforiko honek aurreko ataletan aipatu ditugunek bezala jokatzen baitu. Badirudi NORC... BAIT- egituraren bidez egiten den erreferentzia, batzuetan, zehatza dela:

> - ... ***Norc*** *eçarten* ***baitu*** *enequin escua trempatzeco platean, harc traditurен nau.* (Mt.,XXVI,23)
>
> - ... ***Norc*** *ni sendatu* ***bainau****, harc erran draut ...* (Io.,V,11)

Besteetan, berriz, NORC... BAIT- eta NORC-ERE... BAIT- egiturek, biek, erreferentzia zehaztugabea gauzatzen dute:

> (1)- ... ***norc*** *ni baithan sinhesten* ***baitu****, nic equitê ditudan obrác, harc-ere eguinen ditu, ...* (Io.,XIIII,12)
>
> - *Baina* ***norc*** *perseueraturen* ***baitu*** *finerano, hura saluaturen da.* (Mt.,XXIIII,13)
>
> (2)- *Ecen* ***norc-ere*** *nahi vkanen* ***baitu*** *bere vicia saluatu, galduren du hura ...* (Mc.,VIII,35)
>
> - ***Norc-ere*** *hunelaco haourtchoetaric bat recebituren* ***baitu*** *ene icenean, ni recebitzen nau: eta* ***norc-ere*** *ni recebitzen* ***bainau*** *eznau ni recebitzen ...* (Mc.,IX,37)

Beraz, ikusten dugunez, bi egitura hauek formalki desberdinak diren arren, adierazten duten balioari dagokionez, ez dirudi bi egituren arteko aldea oso handia denik.

Azkenik, gogora dezagun erlatibozkoa perpaus batek baino gehiagok osatzen duten kasuetan anaforikoa lehenengo

perpausaren hasieran baino ez dela agertzen eta ondorengo perpausetan BAIT- menderagailu soila aurkitzen dugula:

> - *Eta* ***norc-ere*** *ençuten* ***baititu*** *ene hitz hauc, eta* ***ezpaititu*** *eguiten, comparaturen da ...* (Mt.,VII,26)

Ezabatu den anaforikoa eta perpausean mantendu dena berdinak dira; baina desberdinak izanda ere, aditzak anaforiko horren berri ematen badigu, ezabaketa guztiz zilegi da:

> - *Eta* ***norc-ere ezpaitacarque*** *bere crutzea, eta ene ondoan ethorten* ***ezpaita****, ecin date ene discipulu.* (Lc.,XIIII,27)

3.2.3.5. NORI-ERE... BAIT-

Oraingo honetan, NORI galde-hitzan oinarrituriko anaforikoa aztertu behar dugu eta, lehendabizi, adibideen urritasuna azpimarratu behar dugu.

Obra osoa aztertuta, bost adibide bakarrik aurkitu ditugu, eta bost adibide horietatik batzuk errepikaturiko formak dira; beraz, hiru adibide bakarrik daudela esan genezake.

Bestalde, anaforiko hauek erlatibozko perpausaren baitan betetzen duten funtzioari dagokionez, ez dago esan beharrik NORI galde-hitzan oinarrituriko formak direnez, DATIBO kasuari dagokion funtzioa betetzen dutela, hots, zehar osagarrien aurrean aurkitzen garela:

> - *... ezeta Aita nehorc eztu eçagutzen Semeac baicen, eta* ***nori-ere*** *Semeac manifestatu nahi vkanen* ***baitrauca***. (Mt.,XI,27)
>
> - *... Indaçue niri-ere bothere hori,* ***nori-ere*** *escuac gainean paussaturen* ***baitrautzat****, recebi deçan Spiritu saindua.* (Apost.Act.,VIII,19)

Nolanahi ere, jakina denez, erlatibozkoak perpaus nagusiaren baitan bestelako funtzioak bete ditzake. Aurkituriko adibide guztietan erlatibozkoak perpaus

nagusiaren sujeto dira, baina bi sujeto mota bereiz ditzakegu:

* (Aditz iragangaitzen sujetoa)

  - ... **Nori-ere** *pot eguinen* **baitraucat**, *hura da.* (Mt.,XXVI,48)

* (Aditz iragankorren sujetoa)

  - ... *ezeta Aita nehorc eztu eçagutzen Semeac baicen, eta* **nori-ere** *Semeac manifestatu nahi vkanen* **baitrauca**. (Mt.,XI,27)

Anaforiko hauek hartzen duten **FORMA**ri dagokionez, esan dezagun, aurreko anaforikoek ez bezala, hauek forma bakarra agertzen dutela: NORI-ERE... BAIT-

  - ... **Nori-ere** *pot eguinen* **baitraucat**, *hura da* ... (Mc.,XIIII,44)

  - ... *Indaçue niri-ere bothere hori,* **nori-ere** *escuac gainean paussaturen* **baitrautzat**, *recebi deçan Spiritu saindua.* (Apost.Act.,VIII,19)

3.2.3.6. NOREN-(ERE)... BAIT-

NORI-ERE... BAIT- egituraz oso urria dela aipatu dugu eta gauza bera esan behar dugu orain aztertzen ari garenaz, NOREN-(ERE)... BAIT- egitura, obra osoan, bost adibidetan bakarrik aurkitzen baitugu.

Anaforiko hauek erlatibozko perpausaren baitan betetzen duten funtzioari dagokionez, NOREN galde-hitzetik eratorritako formak direnez, GENITIBO EDUTEZKOARI dagokion funtzioa betetzen dute:

  - *Eta harri haren gainera eroriren dena, çathicaturen da: eta* **noren** *gainera eroriren* **baita**, *hura du chehaturen.* (Mt.,XXI,44)

  - **Noren-ere** *bekatuac barkaturen* **baitituçue**, *barkatzen çaizte haey: eta* **norenac-ere** *eduquiren* **baitituçue**, *eduquiac dirade.* (Io.,XX,23)

Bestalde, gogora dezagun anaforiko honen bidez sortzen den erlatibozkoak perpaus nagusiaren baitan bestelako funtzioak bete ditzakeela. Hona hemen Leizarragaren obran aurkitu ditugunak:

* (Sujeto iragangaitza)

  - **Noren** *gainera ikussirê* **baituc** *Spiritua iausten, eta egoiten haren gainera, hura duc ...* (Io.,I,33)

* (Osagarri zuzena)

  - *... eta* **noren** *gainera eroriren* **baita**, *hura du chehecaturen.* (Lc.,XX,18)

* (Zehar osagarria)

  - **Noren-ere** *bekatuac barkaturen* **baitituçue**, *barkatzen çaizte haey...* (Io.,XX,23)

Anaforiko hauek erakusten duten **FORMA**ri eta honek suposatzen duen **BALIOA**ri dagokienez, aurreko anaforikoetan aipatutakoa gogoratu behar dugu:

a) Bi forma bereiz ditzakegu: NOREN... BAIT- eta NOREN-ERE... BAIT-; baina oso adibide gutxi ditugunez, ezin esan dezakegu zein den erabiliena, biak maiztasun berberaz erabiltzen baitira.

b) Balioari dagokionez, esan dezagun NOREN... BAIT- egituraren bidez erreferentzia zehatza adieraz daitekeela:

> - *Eta nic eznuen eçagutzen hura: baina vrez batheyatzera igorri nauenac, erran cerautan,* **Noren** *gainera ikussirê* **baituc** *Spiritua iausten, eta egoiten haren gainean, hura duc Spiritu sainduaz batheyatzen duena.* (Io.I,33)

Nolanahi ere, zenbait adibidetan NOREN... BAIT- egitura eta NOREN-ERE... BAIT- baliokideak dira, biek erreferentzia orokorra eta zehaztugabea egiten baitute:

> - **Noren-ere** *bekatuac barkaturen* **baitituçue**, *barkatzen çaizte haey: eta* **norenac-ere** *eduquiren* **baitituçue**, *eduquiac dirade.* (Io.,XX,23)

- *Eta harri haren gainera eroriren dena, çathicaturen da: eta* **noren** *gainera eroriren* **baita**, *hura du chehaturen.* (Mt.,XXI,44)

Ohart gaitezen, bidenabar, honelako erlatiboak -(E)N menderagailuaren bidez nekez adieraziko genituzkeela. Hortaz, anaforikoen gaitzespenak, zenbait kasutan behintzat, ez dirudi oso bidezkoa denik, hauen erabilera gutxiestean hizkuntza bera adierazpiderik gabe uzten baitugu.

3.2.3.7. NON-(ERE)... BAIT-

NON galde-hitzan oinarrituriko anaforiko honetaz, lehendabizi, aurreko biak baino ugariagoa dela esan behar dugu.

Anaforiko honen bidez, INESIBO kasuari dagokion funtzioa adierazten da; beraz, erlatibozko perpausaren baitan NON-(ERE) anaforikoa, inoiz denbora, baina adibide gehienetan lekua adierazten duen adizlaguna dela esan dezakegu:

- ... *Çoazte hirira,* **non** *bathuren* **baitzaiçue** *guiçombat ...* (Mc.,XIIII,13)

- ... *ethorriren da demborá* **non** *norc-ere hilen baitzaituzte vste vkanen* **baitu** ... (Io.,XVI,2)

Bestalde, erlatibozkoak perpaus nagusiaren baitan bete ditzakeen funtzioei dagokienez, esan dezagun, gehienetan, anaforikoak berak betetzen duen funtzioa adierazten duela, hau da, erlatibozkoa perpaus nagusiaren barruan adizlaguna izaten dela:

* NON inesiboa:

- ... *eta arrotz eguin cedin Madiango lurrean,* **non** *engendra* **baitzitzan** *bi seme.* (Apost.Act.,VII,29)

- ... *ecê* **non** **ezpaita** *Legueric, han ezta transgressioneric.* (Rom.,IIII,15)

* NORA adlatiboa:

- ... *eta* **non** *ni içanen* **bainaiz**, *hara çuec ecin ethor çaitezquete.* (Io.,VII,34)

- ... *iraitz cedin suzco eta suphrezco stagnera,* **non** **baitirade** *bestiá eta propheta falsua* ... (Apo.,XX,10)

Edonola ere, bestelako funtzioak ere bete ditzakete. Izan ere, erlatibozko hauek ez-restriktiboen sarean sartzen ditugunez, bere funtzioa aurrean daramaten sintagmari buruzko argibideren bat ematea besterik ez da. Dena den, aurreko sintagma horren arabera, funtzio desberdinak beteko dituzte. Ikus ditzagun adibide batzuk:

* (Sujeto iragangaitza)

- ... *ceinetan baitzén vrrhezco pegarbat,* **non** **baitzén** *Mâna,* ... (Hebr.,IX,4)

* (Predikatu osagarria)

- ... *Haur da bada chedea,* **non** *gure adimendua arrastatu eta paussatu behar* **baitugu** ... (Adv.,21-22,273.or.)

* (Osagarri zuzena)

- ... *eriden ceçan lekua,* **non** *scribatua* **baitzén**, (Lc.,IIII,17)

Erlatibozko perpaus hauek anaforikoen bidez sortzen direla esaten dugun arren, ez dugu ahaztu behar anaforiko hauek guztiak erlatibozko perpausaren aditzean agertzen den menderagailu batekin harremanetan daudela. Anaforiko honetan ezezik gainerakoetan ere maizenik aurkitzen dugun menderagailua BAIT- da; dena den, honek ez du esan nahi beste menderagailurik ezin ager daitekeenik.

CEIN anaforikoaz hitz egitean, adibidez, forma honek BAIT- aurrizkiaz gain, -(E)N menderagailua ere har

dezakeela aipatu dugu; eta gauza bera aipatu behar dugu orain, adibide bakarra topatu badugu ere: **NON... -(E)N**

- ... *ezta hemen, huná lekua* **non** *eçarri vkan* **çutén**. (Mc.,XVI,6)

CEIN anaforikoa aztertzean, -(E)N menderagailua aspektu markarik gabeko aditzetan agertzen zela ikusi genuen; adibide honetan, ordea, ez dugu halakorik; baina, agian, HUNA partikulak badu zer ikusia, ez baita adierazkor soila. Beraz, -(E)N menderagailuaren agerpena partikula honek baldintzatzen duela pentsa genezake. Bestalde, erlatibo baten aurrean gaudela ezin uka daiteke. Ikus dezagun, esate baterako, adibide hau nola euskaratu duen Haranederrek:

- ... *ez da hemen; huna lekhua hura eçarri çute***na**. (Haran., Mc.,XVI,6)

Edonola ere, ohart gaitezen adibide bakarra topatu dugula obra osoan.

Bestalde, honelako erlatiboek perpaus nagusiaren baitan hartzen duten **FORMA**ri dagokionez, hiru egitura bereizi behar ditugu. Hona hemen:

1.- ONDOKOA - NON... BAIT-

Egitura honetan, erlatibozkoa perpaus nagusiaren eskuinaldean agertzen da; beraz, anaforikoaren aurre-aurrean honi dagokion ondokoa aurkitzen dugu:

- ... *Çoazte hirira,* **non** *bathuren* **baitzaiçue** *guiçombat* ... (Mc.,XIII,13)

- ... *Ierusalem dela lekua* **non** *adoratu behar* **baita**. (Io.,IIII,20)

Hauxe da, dudarik gabe, obra osoan zehar nagusitzen den egitura. Halaber, ohart gaitezen oraintxe aztertzen

ari garen egitura eta "ONDOKOA - CEINETAN ... BAIT-" guztiz baliokideak direla.

2.- NON... BAIT- ... HAN/HARA

Bigarren egitura honetan, erlatibozkoa ez da perpaus nagusiaren eskuinaldean agertzen; beraz, anaforikoaren aurrean ez dugu ondokorik aurkituko. Edonola ere, honek ez du esan nahi ez duenik ondokorik, erlatibozkoaren ondoan agertzen den perpaus nagusian anaforikoarekin harremanetan dagoen erakusle bat aurkitzen baitugu, ondoko gisa-edo:

- *Ecen* ***non baita*** *çuen thesaura, han içanen da cuen bihotza-ere.* (Mt.,VI,21)

- *... eta* ***non*** *ni içanen* ***bainaiz****, hara çuec ecin ethor çaitezquete.* (Io.,VII,34)

3.- NON-ERE... BAIT- ... (HAN/HARA)

Erlatibo hauek perpaus nagusian beraiekin harremanetan dagoen erakuslea eraman dezakete; baina erakusle honen agerpena ez da inolaz ere sistematikoa; aukeran dago, besterik gabe. Ikus ditzagun adibide batzuk:

- *Ecen* ***non-ere*** *içanen* ***baita*** *sarrasquia, hara bilduren dirade arranoac-ere.* (Mt.,XXIIII,28)

- *...* ***non-ere*** *predicaturen* ***baita*** *Euangelio haur mundu gucian, hunec eguin duena-ere contaturen da.* (Mc.,XIIII,9)

Aipa dezagun, bidenabar, NON-ERE...BAIT- egitura oso urria dela; izan ere, obra osoa aztertuta, sei adibide besterik ez dugu aurkitu, eta horietariko batzuk errepikaturiko formak dira.

Egitura hauen bidez adierazten den **BALIOA**ri dagokionez, aipa dezagun lehenengoak erreferentzia zehatza burutzen duela; baina bigarrena eta hirugarrena, formaz desberdinak izan arren, balioari dagokionez, baliokideak

direla, biek erreferentzia zehaztugabea adierazten baitute.

Azkenik, aipa dezagun, aurreko anaforikoetan bezala, erlatibozko sekuentzia perpaus batek baino gehiagok osatzen duten kasuetan, NON anaforikoa lehenengo perpausaren hasieran bakarrik agertzen dela, gainerako perpausetan BAIT- menderagailu soila aurkitzen dugularik:

> - ... *tentationeco egunean desertuan:* **Non** *tentatu vkan* **bainaute**, *experimentatu vkan* **bainaute**, *eta ikussi* **baitituzte** ... (Hebr.,III,8-9)

3.2.3.8. NORA(T)-(ERE)... BAIT-

Orain aztertzen ari garen anaforikoa NORA galde-hitzetik eratortzen da; beraz, ezinbestez, NORA ADLATIBOari dagokion funtzioa adieraziko du:

> - ... *Magistruá, iarreiquiren natzaic hiri,* **norat-ere** *ioanen* **baitaiz**. (Mt.,VIII,19)
>
> - *Eta* **nora-ere** *sarthuren* **baita**, *erroçue aitafamiliari* ... (Mc.,XIIII,14)

Bestalde, anaforikoek duten **FORMA** hartzen badugu aztergai, bi forma bereiz ditzakegu: NORA eta NORAT.

Testuan aurkitu ditugun adibide guztiak aztertuta, NORAT forma ugariena dela esan dezakegu bederatzi adibidetan aurkitzen baitugu; NORA forma, berriz, lau adibidetan besterik ez dugu topatzen. Edonola ere, bi formen arteko bereizketa, gaur egun oraindik, ez dago oso argi, nonbait:

> *"Iparraldeko euskalkietan, halere,* **-ra** *horren ondoan* **-rat** *ere erabiltzen dute eta* **norat** *galdetzen. Bata eta bestea zertan diren bereiz ez dagokigu hemen adieraztea, hizkuntzalarien arteko eritziak ere ez bait datoz bat eta egungo egunean nahasi samar erabiltzen bait dituzte hangoek berek."*[30]

Lafittek bere Gramatikan bereizketa proposatu zuen; baina, hona hemen dioena:

> **Adlatif.** *La désinence* **-rat** *est très souvent réduite à* **-ra**; *beaucoup d'auteurs ne voient pas de différence de sens entre les deux formes; pourtant* **banoa Pariserat** *veut dire:"je vais à Paris, sans retour" et* **banoa Parisera**: *"je vais à Paris, simple aller et retour"*[31]

Leizarragaren erabilerari dagokionez, ez dirudi Lafittek proposatzen duen bereizketa burutzen denik.

Leizarragak, agian, bi formak bereizten zituen; edonola ere, oso kontu iluna denez eta azken finean bereizketa -balego- arlo semantikoari eta ez guk aztertzen dihardugun formalari dagokionez, besterik gabe honetan utziko dugu.

Bestalde, anaforiko honen bidez sortzen diren erlatiboek hartzen duten forma aztertzen badugu, NON-(ERE)... BAIT- anaforikoa aztertzean egin dugun sailkapen bera egin behar dugu, honetan ere hiru egitura bereiz baititzakegu:

1- ONDOKOA- NORA... BAIT-

Erlatibozko hauek perpaus nagusiaren eskuinaldean agertzen dira, aurre-aurrean ondokoa daramatela. Erlatiboek ondokoari buruzko aipamen bat egiten dutenez, oso zehatzak izaten dira; horregatik, honelako erlatiboen artean inoiz ez dugu NORA(T)-ERE egitura aurkituko, honek erreferentzia orokorra eta zehaztugabea gauzatzen baitu. Hona hemen adibide batzuk:

> - ... *ceruëtan thesaur nehoiz-ere falta eztaitêbat:* **nora** *ohoinic* **ezpaita** *hurbiltzen, ...* (Lc.,XII,33)

---

[30] EUSKALTZAINDIA, Euskal Gramatika Lehen Urratsak-I, 373.or.

[31] LAFITTE, P., Grammaire Basque, 60.or.

- ... *iracatsi vkan diat synagogán eta templean,* ***nora*** *Iuduac alde gucietaric biltzen* ***baitirade,*** ... (Io.,XVIII,20)

2.- NORAT... BAIT-

Bigarren multzo honen barruan lau adibide aipa ditzakegu. Erlatibo hauek ez daramate ondokorik; dena den, hauek ere erreferentzia zehatza gauzatzen dute, horregatik anaforikoak ez darama ERE lokailua itsatsirik, ERE-duna ezin baita erabili balio zehatza edo konkretua adierazten denean.

- ... ***norat*** *ni ioaiten* ***bainaiz,*** *çuec ecin çatozquete.* (Io.,VIII,21)

- ... *eta bahindoâ* ***norat*** *nahi* ***baihincén*** ... (Io.,XXI,18)

3.- NORA(T)-ERE... BAIT-

Egiturarik ugariena eta, dakigunez, erreferentzia orokorra eta zehaztugabea gauzatzen duena da:

- ... *Magistruá, iarreiquiren natzaic hiri,* ***norat-ere*** *ioanen* ***baitaiz.*** (Mt.,VIII,19)

- ... *çuec guida neçaçuençát* ***norat-ere*** *ioanen* ***bainaiz.*** (Cor.I,XVI,6)

- ... *Bildotsari darreitzanac* ***norat-ere*** *ioan* ***baitadi*** ... (Apo.,XIIII,4)

3.2.3.9. NONDIC... BAIT-

Oraingo honetan ABLATIBO kasuari dagokion anaforikoa dugu aztergai eta, lehendabizi, oso forma urria dela aitortu behar dugu, obra osoan, sei adibide bakarrik aurkitu baititugu.

Edonola ere, sei forma horien artean bereizketa bat egin behar dugu, anaforikoak bi adiera har baititzake:

1.- Alde batetik, NONDIK ablatiboaren funtzioa betetzen duen anaforiko arrunta dugu:

> - ... *Itzuliren naiz neure etchera* ***nondic*** *ilki içan* ***bainaiz***. (Lc.,XI,24)
>
> - ... *embarca citecen Antiochera,* ***nondic*** *gommendatu içan* ***baitziraden*** *Iaincoaren gratiari, ...* (Apost.Act.,XIIII,26)
>
> - *Baina gure conuersationea ceruëtan da:* ***nondic*** *Saluadorearen-ere beguira* ***baicaude***, ... (Phil.,III,20)

Egitura hauetan guztietan erlatibozkoa perpaus nagusiaren eskuinaldean agertzen da, ondokoa aurrean duela. Horrela izanik, oso erreferentzia zehatza burutzen dute, horregatik aurkitzen dugu beti NONDIC eta ez NONDIC-ERE.

Bestalde, ikusten dugunez, Leizarraga anaforikoez baliatu da balio hau aditzera emateko; baina, anforikorik erabili gabe, -(E)N menderagailu arruntaren bidez ere sor daitezke honelako erlatiboak. Erka ditzagun, bestela, Leizarragak berak dituen bi adibide:

> (1)- ... *Itzuliren naiz neure etchera* ***nondic*** *ilki içan* ***bainaiz***. (Lc.,XI,24)
>
> (1')- ... *Itzuliren naiz neure ilki naicen* ***etchera***. (Mt.,XII,44)

2.- Bestalde, ageriko ondokorik ez duten hainbat egitura ere aipatu behar ditugu:

> - ... *dança cedin Herodiasen alabá artean: eta Herodesen gogara eguin ceçan.* ***Nondic*** *iuramẽdurequin prometta* ***baitzieçon*** ... (Mt.,XIIII,6-7)
>
> - *Estimaturic ecen Iaincoac hiletaric-ere resuscita ahal leçaquela:* ***nondic*** *are hura cõformitatez recubra* ***baitzeçan***. (Hebr.,XI,19)
>
> - ... *oraindanic-ere Antechristac anhitz dirade:* ***nondic*** ***baitaquigu*** *ecen azquen demborá dela.* (Io.1,II,18)

Erlatibozko hauen ondokoa aurreko perpaus osoa dela esan genezake; gainera anaforikoak hartzen duen adierari dagokionez, badirudi kausazko edo ondoriozko kutsua dutela. Ikus dezagun, adibidez, nola euskaratu duen Haranederrek horietariko bat:

(1)- ... *dança cedin Herodiasen alabá artean: eta Herodesen gogara eguin ceçan.* ***Nondic*** *iuramêdurequin prometta* ***baitzieçon*** ... (Leiz., Mt.,XIIII,6-7)

(1')- ... *dantçatu içan cen Herodiasen alaba gorthearen erdian eta agradatu citçayoen Herodesi,* ***halaco moldez, non*** *juramenturequien aguindu* ***baitcioen*** ... (Haran., Mt.,XIIII,6-7)

Argi dago, bada, 2. multzoan aipaturiko hiru adibideek ez daukatela zerikusik lehenengo multzoan aipaturikoekin, guztiak NONDIK ablatiboaren sarean sartu arren, adiera desberdina hartzen baitute.

Izan ere, hiru adibide hauetan latinak **unde** darabil. Leizarragak, beraz, kalkatu egin du latinezko menderagailuaren forma, balio sintaktikoa (= por lo cual) gogoan eduki gabe.

Azkenik, aipa dezagun anaforiko honek forma bakarra, alegia, NONDIC agertzen duela, bi adieretan erlatibo hauen bidez egiten den erreferentzia guztiz zehatza delako.

3.2.3.10. NORÇAZ... BAIT-

Anaforiko honetaz, lehendabizi, oso forma urria dela aipatu behar dugu, obra osoan hiru adibide bakarrik aurkitu baititugu. Hona hemen:

(1)- ... *baina maledictione hari,* ***norçaz*** *ethorten* ***baitirade***. (Lc.,XVII,1)

(2)- *Ecen gauça hauc* ***norçaz*** *erraiten* ***baitirade*** *hura berce leinuri appartenitzê çayó,* ... (Hebr.,VII,13)

(3)- ... *ecen* ***norçaz*** *nehor vençutu içan* ***baita****, hura haren sclabo eguin içan da.* (Pier.2,II,19)

Adibide hauetan ikusten dugunez, anaforiko honen bidez burutzen den erreferentzia zehatza eta puntuala da, horregatik behin ere ez dugu NORÇAZ-ERE forma aurkituko.

Bestalde, anaforiko honen bidez sortzen diren egiturei dagokienez, bi bereiz ditzakegu:

1- ONDOKOA -NORÇAZ... BAIT-

Adibide hauetan, erlatibozkoa perpaus nagusiaren eskuinaldean agertzen denez, ondokoa erlatibozkoaren aurre-aurrean aurkitzen dugu:

(1)- ... *baina maledictione hari,* ***norçaz*** *ethorten* ***baitirade.*** (Lc.,XVII,1)

2- NORÇAZ... BAIT-, HURA (Erakusleren bat)

Adibide hauetan, ordea, erlatibozkoa perpaus nagusiaren aurrean agertzen da, honen sujetoa baita; baina perpaus nagusiaren barruan erlatiboarekin harremanetan dagoen eta erlatiboak betetzen duen funtzioaren berri ematen digun erakusle bat aurkitzen dugu:

(2)- *Ecen gauça hauc* ***norçaz*** *erraiten* ***baitirade*** *hura berce leinuri appartenitzé çayó, ...* (Hebr.,VII,13)

(3)- ... *ecen* ***norçaz*** *nehor vençutu içan* ***baita****, hura haren sclabo eguin içan da.* (Pier.2,II,19)

Ohart gaitezen, bestalde, anaforikoak erlatibozko perpausaren hasiera-hasieran agertu ohi direla, beraiek markatzen baitute non hasten den erlatibozko perpausa. Baina, jokabide honekin apurtuz goian aipaturiko (2) adibidean anaforikoa ez dugu aitzin-buruan aurkitzen, honen aurrean erlatibozko perpausaren sujetoa baitugu. Gainera, Leizarragak ezezik, Haranederrek ere aurreratzen du sujetoa:

- *Ecen gauça hauc* ***norçaz*** *erraiten* ***baitirade*** *hura berce leinuri appartenitzé çayó, ...* (Leiz.,Hebr.,VII,13)

- *Ecen gauça hauc* ***ceiñez*** *erraten* ***baidire,*** *eta haiña bertce leiñu batetacoa da, ...* (Haran., Hebr.,VII,13)

Nolanahi ere, anaforikoa posizio horretan aurkitzea ez da oso normala, beraz salbuespena dela esan dezakegu. Haranederrek ere posizio berdinean kokatzen du; baina Haranederrek Leizarragaren obra ezagutzen zuela, eta bere obra egiteko orduan, zenbaitetan behintzat, aurrean izan zuela pentsa liteke.

3.2.3.11. CERTAN-(ERE)... BAIT-

Aurreko anaforikoa urria bazen, oraingo hau are urriagoa da, bi adibide bakarrik aipa baititzakegu:

(1)- *Batbedera* ***certâ*** *deithu içan* ***baita,*** *anayeác, hartan bego ...* (Cor.1,VII,24)

(2)- *... aitzitic* ***certan-ere*** *nehor hardit* ***baita*** *(...) hardit naiz ni-ere.* (Cor.2,XI,21)

Erlatibozkoak perpaus nagusiaren aurrean agertzen direnez, ez daramate ageriko ondokorik. Alabaina, lehenengoak perpaus nagusiaren barruan ondokoaren papera bete lezakeen erakusle bat darama:

- *Batbedera* ***certâ*** *deithu içan* ***baita,*** *anayeác, hartan bego ...* (Cor.1,VII,24)

Ohart gaitezen, bestalde, erlatibo hauek CER anaforiko indefinidoaren bidez ere adieraz daitezkeela: CER + IZENA (-TAN). Ikus dezagun adibide bat:

- *Batbedera* ***cer vocationetan*** *deithu içan* ***baita*** *hartan bego.* (Cor.1,VII,20)

Bigarren adibideari dagokionez, honek ez darama ez ondokorik, ezta funtzio hori bete lezakeen erakuslerik ere. Edonola ere, ez dezagun ahanz bigarren adibide honetan CERTAN-ERE egitura dugula. Honek erreferentzia zabala, orokorra adierazten du; beraz, ez du erreferentzia hori zehazten edo mugatzen duen ondokorik behar aldamenean.

3.2.3.12. CERTARA... BAIT-

Anaforikoen eremua zabala da oso, hauen bidez edozein funtzio adieraz baitaiteke; beraz, edozein galde-hitz harturik, honetan oinarrituriko anaforiko bat aurki dezakegu. Edonola ere, anaforiko guztiek ez daukate hedadura berdina.

Orain aztertzen duguna, kasu, Leizarragaren obran aurkituriko anaforiko guztien artean formarik urriena da, obra osoan adibide bakarra aurkitu baitugu:

> - *Guciagatic-ere* ***certara*** *heldu içan* ***baicara****, hartan regla bér-batez ebil gaitecen, ...* (Phil.,III,16)

Egitura honetan, erlatiboaren aurrean ez dugu ageriko ondokorik; hala ere, ez dugu ahaztu behar perpaus nagusian erlatiboarekin harremanetan dagoen erakuslea. Honek, nolabait, ondokoaren papera hartzeaz gain, erlatiboak berak perpaus nagusiaren baitan betetzen duen funtzioaren berri ematen digu.

Azkenik, aipa dezagun CERTARA... BAIT- egitura eta NORA(T)... BAIT- egituraren bidez sortzen diren erlatibozkoak, neurri handi batean behintzat, baliokideak direla.

3.2.3.13. CEMBAT-ERE... BAIT-

Leizarragaren erabilerari begira aipa dezakegun azken anaforikoa, ZENBAT galde-hitzan oinarritutakoa da.

Forma nau ere ez da ugarienetakoa, baina lau adibide behintzat aipa ditzakegu:

(1)- ... *emanén drauca* ***cembat-ere*** *behar* ***baitu.*** (Lc.,XI,8)

(2)- *Guciac* ***cembat-ere*** *ene aitzinean ethorri* ***baitirade*** *ohoin dirade ...* (Io.,X,8)

(3)- *Ecen çuey eguin çaiçue promessa eta çuen haourrey, eta vrrun diraden guciey,* ***cembat-ere*** *deithuren* ***baititu*** *gure Iainco Iaunac.* (Apost.Act.,II,39)

(4)- ... *marinerac eta* ***cembatec-ere*** *itsassoan* ***baitiharducate,*** *vrrun egonen dirade.* (Apo.,XVIII,17)

Azken adibidean ikus dezakegunez CEMBAT anaforikoa deklinatu daiteke.

Bestalde, anaforikoak hartzen duen **FORMA**ri dagokionez, forma bakarra agertzen du: CEMBAT-ERE, anaforiko honen bidez burutzen den erreferentzia oso zabala delako.

Edonola ere, badirudi erlatibo hauek, anaforikorik erabili gabe, erlatibozko perpaus gehienak sortzen dituen -(E)N menderagailu arruntaren bidez ere adieraz daitezkeela. Izan ere, Leizarragak dituen adibideak Haranederrek eskaintzen dizkigunekin erkatzen baditugu, azken honek ez darabilela anaforikorik jabetzen gara. Ikus ditzagun adibide batzuk:

(1)- *Guciac* ***cembat-ere*** *ene aitzinean ethorri* ***baitirade*** *ohoin dirade ...* (Leiz., Io.,X,8)

- *Ethorri içan diren* ***guciac*** *ohoinac dire ...* (Haran., Io.,X,8)

(2)- *Ecen çuey eguin çaiçue promessa eta çuen haourrey, eta vrrun diraden guciey,* ***cembat-ere*** *deithuren* ***baititu*** *gure Iainco Iaunac.* (Leiz., Apost.Act.,II,39)

- Çuei ecen eguin çaitçue aguintça eta çuen umeèi eta bai urrun diren guciei, gure Jainco Jaunac deithuco ***dituenei***. (Harán., Apost.Act.,II,39)

Leizarragak erabiltzen dituen anaforiko guztiak aztertuta, bi ondorio atera ditzakegu:

a) ANAFORIKOA... BAIT- eta ANAFORIKOA-ERE... BAIT-egituren arteko aldea honako honetan datza:

* EREduna ezin da erabili balio zehatza, konkretua adierazi nahi dugunean, termino **markatua** delako; horregatik erabilera mugatuagoa du, ondoko zehatz eta jakinetarako debekatua delarik.

* EREgabea, ordea, beti erabil daiteke **ez-markatua** delako; beraz, balioa zehatza denean, nahitaez, EREgabea aurkituko dugu; baina balioa orokorra edo zehaztugabea denean, bata zein bestea aurki ditzakegu.

b) Leizarragak, agian, anaforikoak gehiegi erabiltzen ditu -batzuetan, anaforikorik gabe, -(E)N menderagailu soilaren bitartez, funtzio bera adieraz zitekeela ikusi dugu- ; dena den, salbuespenak ere aintzakotzat hartu behar ditugu, zenbait kasutan anaforiko hauen erabilera ez baita hain gaitzesgarria; izan ere, zenbait ideia adierazteko oso lagungarri gerta dakizkiguke.

3.3. DENBORAZKOAK

Denborazko perpausen eremuan sartzean, kontutan hartu behar dugun lehendabiziko gauza denbora adieraz dezaketen menderagailuen ugaltasuna da. Dena den, ohart gaitezen, beste perpaus motetan ez bezala, denborazko adiera hartzen duten menderagailu gehienak euskalki guztietan direla ezagunak eta erabiliak; beraz, denborazkoen analisia, neurri handi batean behintzat, deskriptiboa baino ez da izango, perpaus hauek, salbuespenak kenduta, euskalki guztietan jokabide berdina agertzen baitute.

Menderagailuen ugaritasuna aipatuta, goazen, bada, Leizarragak darabiltzan menderagailuen berri ematera:

3.3.1. -(E)NEAN

3.3.2. -(E)LA / -(E)LARIC

3.3.3. NOIZ-(ERE)... BAIT-

3.3.4. -(E)NO

3.3.5. -(E)N ARTEAN / [-(E)N] ARTERANO

3.3.6. -(E)N BIZQUITARTEAN

3.3.7. -(E)N BECEMBATEAN

3.3.8. -(E)N BEÇAIN SARRI / -(E)N SARRIENAZ

3.3.9. -T(Z)EAN / -T(Z)ERACOAN

3.3.10. -(E)N BAINO LEHEN / AITZINEAN

3.3.11. -(R)IC

3.3.12. [-(E)N] ONDOAN

3.3.13. -(E)NETIC

3.3.14. [-(E)NA]Z GUEROZTIC

Ikusten dugunez, forma gehienak -(E)N menderagailuaren gainean eraikiak dira; hala ere, -(E)LA atzikia, anaforikoak eta zenbait forma jokatugabe (nominalizazioak, partizipioa + posposizioren bat ...) ere oso kontutan izan behar ditugu, denborazko perpausen sare joria guztien artean osatzen baitute.

3.3.1. -(E)NEAN

Zalantzarik gabe, Leizarragak denborazko perpausak sortzeko erabiltzen dituen menderagailuen artean -(E)NEAN garrantzitsu eta erabilienetariko bat da.

3.3.1.1. Forma.

Menderagailu honen formari dagokionez, agerian dago -(E)N atzizkiaren gainean eraikitako forma dela. Dakigunez, euskaraz, NOIZ kasuari dagokion deklinabide-marka NON inesiboarena berarena da; beraz, menderagailu honetan horixe da aurkitzen duguna: -(E)N atzizkia + -EAN inesiboa.

Bestalde, ekar dezagun gogora Goenagak forma honen jatorriaz dioskuna:

> *"Aditzlagun honek NOIZ galderari erantzuten dio, eta horregatik, perpaus "tenporala" dela esaten dugu; baina argi dago erlatibo baten aurrean gaudela."*[1]

Beraz, -(E)NEAN menderagailuaren barrenean denbora adierazten duen erlatibo nominalizatua besterik ez dugula esan dezakegu.

Bestalde, -(E)NEAN menderagailuaren bidez sortzen diren perpausek hartzen duten formari dagokionez, menderagailu hau atxikitzen zaion aditzak edozein aspektu marka edo markarik eza har dezakeela esan dezakegu. Hala ere, Villasantek denborazko perpausez egiten duen azterketa kontutan hartzen badugu, ondorio desberdinak atera zituela ohart gaitezke. Ikus dezagun berak zer dioen:

> *"Cuando se trata de tiempo futuro (...) el vasco tampoco recurre al futuro, sino que oscila entre el*

---

[1] GOENAGA, P., Gramatika Bideetan, 299-300.orr.

recurso al Indicativo (presente y pasado) y el uso del Subjuntivo.

Michelena apostilla: (...) Desde Leizarraga se puede decir ***etor dadinean****, pero nunca aparece* ***etor zedinean****, sino siempre* ***etorri zirenean****. No hay, pues, subjuntivos de perfecto."*[2]

Bai Mitxelenak, bai Villasantek denborazko perpaus hauei zenbait murrizketa ezartzen dizkiote. Villasanteren ustez, perpaus hauek geroaldia adierazi arren, ez daramate etorkizuneko aspekturik; eta Mitxelena, bere aldetik, adiera subjuntiboa duten aditzen eremuan sartzen da, Leizarragaren obran ***"etor zedinean"*** bezalako formarik ez dela agertzen aldarrikatuz.

Haatik, Leizarragaren obra aztertzen badugu, bata zein bestea oker daudela baiezta dezakegu, Leizarragak -(E)NEAN menderagailuaren bidez eraikitako denborazko perpausetan aspektu-marka guzti-guztiak -etorkizuna, barne- baitarabiltza. Honez gain, aspektu ezari dagokionez, orainaldiko zein lehenaldiko formak aurki ditzakegu. Edonola ere, ikus dezagun hau guztia adibideen bidez:

1.- SINTETIKOAK:

- *Guehiago, barur* ***daguiçuenean****, etzaretela itchurá tristetaco hypocritác beçala ...* (Mt.,VI,16)
- *... gazteago* ***incenean****, guerricatzen incén (...): baina çahar* ***adinean****, hedaturen dituc eure escuac ...* (Io.,XXI,18)

Aipaturiko adibideetan ikus dezakegunez, Leizarragak ez du inolako eragozpenik sintetiko hauek orainaldian zein lehenaldian erabiltzeko.

Azter ditzagun orain adizki perifrastikoak:

---

[2] VILLASANTE, L., Sintaxis de la oración compuesta, 103.or.

2.- PERIFRASTIKOAK:

2.1. ASPEKTU-MARKADUNAK:

• Burutua:

- [+orain, -ahal]:

· ... *eta* ***ençun dutenean*** *hitza, bertan bozcarioreguin recebitzen dute hura.* (Mc.,IIII,16)

- [+orain, +ahal]:

· *Eta* ***ioan naiçatenean,*** *eta leku çuey* ***appaindu drauqueçuedaneâ,*** *berriz ethorriren naiz, ...* (Io.,XIIII,3)

- [+irag,. -ahal]:

· *Eta Iesus* ***batheyatu cenean,*** *bertan ilki cedin vretic ...* (Mt.,III,16)

- [+irag., +ahal]:

· ... ***erdi çatenean,*** *haren haourra irets leçançát.* (Apo.,XII,4)

• Ezburutua:

- [+orain, -ahal]:

· *Baina* ***eguiten duanean*** *banquetbat, dei itzac paubreac ...* (Lc.,XIIII,13)

- [+irag., -ahal]:

· *Bada Herodesen sor eguneco bestá* ***eguiten cenean,*** *dança cedin Herodiasen alabá artean.* (Mt.,XIIII,6)

• Geroa:

- [+orain, -ahal]:

· *Eta hatzamanic* ***eramanen çaituztenean*** *etzaretela aitzinetic ansiatá ...* (Mc.,XIII,11)

- [+orain, +ahal]:

· *Halaber çuec-ere* ***ikussiren duqueçuenean*** *gauça hauc eguiten diradela eçagut albeitzineçate ...* (Lc.,XXI,31)

2.2. ASPEKTU-MARKAGABEKOAK:

• [+orain]:

- *Baina* ***resuscita nadinean*** *aitzinduren natzaiçue Galileara.* (Mc.,XIIII,28)

- ***Igor deçadanean*** *Artemas hiregana (...) diligenta albeitendi ...* (Tite,III,12)

• [+irag.]:

- *Eta harc* ***ençun ceçanean*** *populua iragaiten, galde eguin ceçan, ...* (Lc.,XVIII,36)

- *Eta arratsa* ***ethor cedinean****, iauts citecen ...* (Io.,VI,16)

Beraz aipaturiko adibideetatik atera dezakegun ondorioa da -(E)NEAN menderagailua aspektu marka guztiekin eta aspektu markarik ez daramaten adizkiekin ere ager daitekeela. Adibide gehienetan menderagailu hau hartzen duten aditzek aspektu burutua daramate; baina honek ez du esan nahi bestelako aspektu-markarik edo aspektu-marka eza aurkituko ez dugunik.

Aspektu ezari dagokionez, zehaztu dezagun orainaldiko formak, neurri handi batean behintzat, aspektu ezburutua daramatenen baliokideak direla:

(1)- *Bada* ***othoitz eguiten duçuenean****, ezteçaçuela anhitz edas ...* (Mt.,VI,7)

(1')- *Eta* ***ikus deçaçuenean*** *Ierusaleme gendarmeriaz inguratua, orduan albeitzinequite ...* (Lc.,XXI,20)

Iraganeko formei dagokienez, berriz, Leizarragak sarritan erabiltzen ditu; beraz, ezin da Mitxelenak eginiko murrizketa onartu. Baina, balioari gagozkiolarik, forma hauek iragan burutuko formekin kidetasun handia dutela aitortu behar dugu:

(2)- *Bada beguiac altchatu cituenean Iesusec eta* ***ikussi çuenean*** *(...) diotsa Philipperi, ...* (Io.,VI,5)

(2')- *Haur* ***ikus ceçanean*** *Iesusec cetzala, (...) diotsá ...* (Io.,V,6)

(3)- *Eta arratsa* ***ethorri cenean****, presenta cieçoten anhitz demoniatu ...* (Mt.,VIII,16)

(3')- *Eta arratsa* ***ethor cedinean****, iauts citecen haren discipuluac itsassora.* (Io.,VI,16)

Hortaz, forma hauek, agian, ez genituzke subjuntiboen artean kokatu beharko, funtsean, forma burutuek adierazten duten balio bera hartzen baitute. Ez dezagun ahanz, honelako formak, "aoristoak" deitu izan direnak, oso maiz erabiltzen dituela Leizarragak iragan burutuak bailiren. Beraz, kontestu honetan ulertu behar ditugu eta, beharbada, horixe bera adierazi nahi izan zuen Mitxelenak bere hitzekin.

3.3.1.2. Tokia.

Tokiaz hitz egiteko bereizketa bat egin behar dugu:

1.- Lehendabizi, -(E)NEAN menderagailuak denborazko perpausaren baitan hartzen duen kokalekuari dagokionez, askatasun handia duela aitortu behar dugu, menderagailu hau denborazkoaren hasieran, tartean zein amaieran aurki baitezakegu.

Izan ere, tradizioan bestela pentsatzen bazen ere, gaur egun gramatikari guztiak honetan bat datozela esan dezakegu; gogora ditzagun, esate baterako, Villasante edo Mitxelenaren hitzak:

> *"Dice Azkue (Morfología Vasca, p.354) que los sufijos conjuntivos deben, como los mojones, ocupar el extremo de su jurisdicción, o sea, el último lugar de toda la oración subordinada. Severo Altube concede valor de axioma o de principio incluso a esta regla ("Sobre Sintaxis Vasca.- Literatur-Euskera" en Euskera, 1956,3)*
>
> *Pero hay que decir que tal regla no está sancionada ni por la lengua coloquial ni por la práctica de los autores. A veces* **-nean** *ocupa, en efecto, el último lugar de la oración subordinada, otras veces no. (...)*
>
> *Michelena apostilla: Me parece evidente que el orden es libre, y no hay razón para que no lo sea ..."*[1]

Ikus ditzagun, bada, Leizarragaren obran topa ditzakegun zenbait adibide:

---

[1] VILLASANTE, L., Sintaxis de la oración compuesta, 102.or.

* Hasierako posizioan:

- *Eta* **ençun vkan çuenean** *Iesusec, ecen Ioannes presonér cela retira cedin Galileara.* (Mt.,IIII,12)

* Tartean:

- *Eta guertha cedin propos hauc* **acabatu cituenean** *Iesusec, populua miraz baitzegoen haren doctrináz.* (Mt.,VII,28)

* Amaieran:

- *eta hamabi vrthetara* **heldu cenean,** *igan citecen ...* (Lc.,II,42)

Beraz, ikusten dugunez, menderagailu honen mugikortasuna handia da.

2- Bestalde, -(E)NEAN menderagailuaren bidez sortzen diren denborazkoek perpaus nagusiaren baitan hartzen duten tokiari dagokionez, gauza bera esan dezakegu, alegia, arau zehatzik ez dagoela, denborazko hauek perpaus nagusiaren aurrean zein ondoan aurki baititzakegu. Ikus dezagun adibide bana:

- *Baina* **punitzen garenean,** *Iaunaz instruitzen gara ...* (Cor.1,XI,32)

- *... eta guti falta cedin non ezpainendin choil guibelera,* **nacussanean...** (Guc.,19-20,252.or.)

Dena den, ohart gaitezen, sarritan, denborazko hauek menpeko perpaus baten barruan txertaturik agertzen direla. Kasu hauetan, eskuarki, aurreko posizioan, hau da, perpaus txertatuak daraman aditzaren aurrean aurkitzen ditugu:

- *Ceinec precio handitaco perlabat* **eriden çuenean,** *ioanic sal baitzeçan çuen gucia, ...* (Mt.,XIII,46)

- *Ceren anhitzetan cepoz eta cadenaz* **estecatu içan cenean** *hauts baitzitzan cadenác, ...* (Mc.,V,4)

- *...* **dathorrenean,** *eta borthá* **bulka deçanean,** *bertan irequi deçotençát.* (Lc.,XII,36)

3.3.1.3. Balioa.

Jakina denez, -(E)NEAN menderagailuaren bidez sortzen diren perpausek NOIZ galderari erantzutzen diote; beraz, alde horretatik, perpaus hauek adierazten duten balioa oso argia dela esan dezakegu.

Nolanahi ere, perpaus hauen artean adiera berezia hartzen edo har dezaketen hainbat perpaus ere kontutan hartu behar ditugu, zenbait adibidetan denbora ala balio "kausal-esplikatiboa" adierazten den ez baita oso erraz bereizten.

Adiera hau har dezaketen perpaus hauek, halere, ez dira edozein, oso kontestu zehatzetan aurkitzen baititugu. Izan ere, denborazko hauek beti perpausaren nagusiaren aurrean aurkituko ditugu eta menderagailuak -gehienetan- menpekoaren aitzinburuan agertuko dira; honez gain, ezezkoak dira. Hona hemen horietako batzuk:

(1)- *Eta* ***erideiten etzutenean*** *nondic hura barnera liroiten, gendetzearen causaz, iganic etche gainera, teuletaric erauts ceçaten* ... (Lc.,V,19)

(2)- *Eta* ***eriden etzituztenean****, tira citzaten Iason eta anayetaric batzu hirico Gobernadoretara,* ... (Apost.Act.,XVII,6)

(3)- *Baina Iaincoa* ***eçagutzen etzendutenean*** *cerbitzatzê centuzten naturaz* ... (Gal.,IIII,8)

Perpaus hauek Haranederrek bere obran eskaintzen dizkigunekin erkatzen baditugu, honek ez darabilela denborazkorik ohartzen gara. Hona hemen Leizarragaren -(E)NEAN menderagailuaren ordainean aurkitzen duguna:

(1')- *Baina ecin* ***aurkhituz*** *nondic sararaz,* ... (Haran., Lc.,V,19)

(2')- *Eta ez* ***baitcituzten*** *hec* ***aurkhitu,*** ... (Haran., Apost.Act.,XVII,6)

(3')- *Eguia da: lehenago ez* ***baitcinduten eçagutcen*** *Jaincoa,* ... (Haran., Gal.,IV,8)

Adibide hauek ikusita, nagusitzen den adiera moduzkoa edota kausal-esplikatiboa dela esan dezakegu. Edonola ere,

ohart gaitezen Leizarragaren obra osoa aztertuta, honelako perpausak gutxitan aurkitzen ditugula (bospasei adibide baino ez dira izango). Gonbaraketa Haranederren adibideekin egin dugunez, aipa dezagun kontestu horretan, hau da, sekuentziaren hasieran agertzen diren ezezko perpausetan, zenbaitetan, Haranederrek ere -(E)NEAN erabiltzen duela. Ikus dezagun adibide bat:

(4)- *Eta* ***erideiten etzutenean,*** *bihur citecen Ierusalemera,* ... (Leiz., Lc.,II,45)

(4')- *Baiñan* ***aurkhitu ez çutenean,*** *bihurtu ciren Jerusalemerat* ... (Haran., Lc.,II,45)

Ikusten dugunez, ez dirudi denborazko adieraz hitz egin daitekeenik.

Ohart gaitezen, bestalde, latinez kontestu hauetan CUM partikula aurkitzen dugula. Partikula honek denborazko adieraz gain, kausal-esplikatiboa -esate baterako- ere har dezake. Beraz, hortik etor daiteke azalpena, hau da, seguraski, hitzez hitzezko itzulpenen aurrean gaude.

Hortaz, kontestu zehatz honetan, menderagailu honek denborazkoekin zerikusi urria duen adiera hartzen duela esan dezakegu. Edonola ere, ez dezagun ahanz arestian aipaturikoa, hots, adiera hau oso adibide bakanetan somatzen dugula.

3.3.2. -(E)LA / -(E)LARIC

Iparraldeko euskalkietan, -(E)LA(RIC) menderagailua -(E)NEAN bezain erabilia edo erabiliagoa dela esan izan da:

> *"Denbora adierazteko* ***-larik*** *eta* ***-nean*** *atzizkiak erabiltzen dira. Maiztasunaz mintzatzea arrisku handikoa bada ere, esan liteke* ***-larik*** *dela gehien bat erabiltzen dena, ..."*[1]

Leizarragaren obra osoa aztertuta, egia dela aitortu behar dugu. Edonola ere, datu kuantitatibo hauek arretaz aztertu behar ditugu, -(E)LARIC menderagailuak denbora ezezik, modua ere, kasu, adieraz baitezake. Beraz, denborazko adiera argia duten adibideak besteetatik bereizten baditugu, Leizarragaren obran behintzat, -(E)NEAN ugariagoa dela ohartzen gara.

Hortaz, atal honetan, denbora adierazten duen -(E)LA(RIC) menderagailua aztertuko dugu; hala ere, aitor dezagun adibide askotan denbora, modua ala beste zerbait adierazten den ez dela oso erraz bereizten, eta neurri handi batean, eman nahi diogun interpretazioaren araberakoa dela.

3.3.2.1. Forma.

A.- Menderagailu honek agertzen duen formari dagokionez, esan dezagun -(E)LA menderagailua duela oinarrian. Menderagailu honek, beraz, konpletibatzaile nagusia izateaz gain, konplet boekin zerikusirik ez duten beste adiera batzuk ere har c tzake.

Bestalde, menderagailu honek duen aldaera bat ere aipatu behar dugu, hainbat adibidetan -(E)LA aurkitu

---

[1] U.E.U., Euskal Dialektologiaren Hastapenak, 411.or.

beharrean, honen oinarrian eraikitako -(E)LARIC aldaera topatzen baitugu. Ikus dezagun adibide bana:

- ... *Eta hura oraino vrrun* **cela**, *ikus ceçan bere aitac* ... (Lc.,XV,20)

- ... *ethorten da goicean, oraino ilhun* **celaric**, *monumentera* ... (Io.,XX,1)

Edonola ere, zehaztu dezagun obra osoa aztertuta, denbora adierazten duten menderagailuen artean behintzat, -(E)LA dela formarik ugariena, -(E)LARIC zortzi adibidetan bakarrik aurkitzen baitugu. Dena dela, bi forma hauek adierazten duten balioari dagokionez, aurreko adibideetan ikus dezakegunaren arabera, ez dirudi bereizketarik egin daitekeenik; beraz, funtzio bera betetzen duten bi aldaeratzat joko ditugu.

B.- Aspektu formal hau argituta, ikus dezagun orain, menderagailu hauen bidez sortzen diren denborazko perpausek zer-nolako forma hartzen duten.

Menderagailua, dakigunez, denborazko perpausaren aditzari atxikitzen zaio; dena den, denborazko hauetan hainbat murrizketa aipatu behar ditugu, -(E)LA eta -(E)LARIC menderagailuak ezin baitira aspektu mota guztiekin agertu. Alderdi honi dagokionez, -(E)NEAN menderagailuak baino ekintza-eremu murritzagoa dutela aitortu beharko genuke. Hona hemen aurki ditzakegun adizki motak:

1. SINTETIKOAK:

- *Eta Iesusec Galileaco itsas aldean* **çabilala**, *ikus citzan bi anaye* ... (Mt.,IIII,18)

2. PERIFRASTIKOAK:

2.1. <u>Burutua</u>:

- *Eta bortcha ceçaten bidezco Simon Cyreniano deitzen cembat, landetaric* **heldu cela** *(...) haren crutzea eraman leçançat.* (Mc.,XV,21)

Obra osoan zehar denborazko adiera izan dezakeen aspektu burutudun adibide bakarra topatu dugu. Dena

den, ohart gaitezen mendebaldeko hiztunoi adibidea arrotza irudi badakiguke ere, ekialdean **"zetorrela"** formaren baliokidetzat jo daitekeela.

2.2. Puntukaria:

- *Eta guertha cedin egun batez hura* ***iracatê ari cela,*** *phariseuac eta Legueco doctorac baitzeuden iarriric ...* (Lc.,V,17)

2.3. Ezburutua:

- *Eta harc gauça hauc* ***erraiten cituela,*** *eguin cedin hodeybat ...* (Lc.,IX,34)

Adizki sintetikoak eta aspektu ezburutua daramatenak dira gehien aurkitzen ditugunak. Bestalde, geroaldiko aspektuari eta aspektu markarik gabeko formei dagokienez, behin ere ez ditugula aurkitu aipatu behar dugu.

3.3.2.2. Tokia.

1.- Alde batetik, menderagailuak denborazko perpausaren baitan hartzen duen tokiaz hitz egin behar dugu, menderagailu honek, -(E)NEAN-ek bezala, mugikortasun handia izan baitezake. Izan ere, hiru posiziotan aurki dezakegu:

* Hasieran:

- *Eta* ***ilkiten cela*** *templetic, erran cieçón ...* (Mc.,XIII,1)

* Tartean:

- *Eta hura iarriric* ***cegoela*** *Oliuatzetaco mendi gainean, ethor cequizquión discipuluac.* (Mt.,XXIIII,3)

* Amaieran (Ugariena):

- *Eta baldin Christez iustificatu nahiz* ***gabiltzalaric,*** *erideiten bagara ...* (Gal.,II,17)

2.- Bestalde, denborazkoak berak perpaus nagusiaren baitan hartzen duen kokaguneaz mintza gintezke. Honetan ere,

denborazko perpausen mugikortasuna da aipagai ez baitirudi kokagune zehatz batean agertu behar dutenik. Egia da adibide gehienak aditz nagusiaren aurrean aurkitzen ditugula, baina honen ondoko adibideak ere -gutxi izan arren- topa ditzakegu. Aipa dezagun adibide bana:

- ... *ecen haourra bessoetan* ***çaducala*** *errâ vkan çuê,* ... (Adv.,16,264.or.)

- ... *ençun vkan dugu, harequin batean* ***guinadela*** *mendi sainduan.* (Pier.2,I,18)

3.3.2.3. Balioa.

Atal honen sarreran aipatu dugunez, menderagailu honek, berez, adiera bat baino gehiago har dezake; hala ere, atal honetan denborazko adiera hartzen duten formak bakarrik jaso ditugu.

A.- Denborazko adiera hau, hainbat adibidetan argi-argia, zalantzarik gabekoa dela esan dezakegu. Gainera, Leizarragak eskaintzen dizkigun adibideak Haranederrek dituenekin erkatzen baditugu, -(E)LA(RIC) menderagailuaren bidez denborazko adiera-mota desberdinak adieraz daitezkeela ohartuko gara. Adibide gehienetan, Haranederrek, Leizarragak bezala, -(E)LA(RIC) darabil, baina beste hainbat adibidetan, menderagailu desberdinak aurki ditzakegu. Hona hemen hauetako batzuk:

-(E)NEAN:

- *Eta hec* ***ilkiten ciradela,*** *huná, presenta cieçoten guiçon mutu demoniatubat.* (Leiz., Mt.,IX,32)
- *Hec* ***ilkhi cirenean,*** *ekharri içan cioten guiçon bat mutua...* (Haran., Mt.,IX,32)

-(E)N BIZQUITARTEAN:

- *Eta hec erostera* ***ioaiten ciradela,*** *ethor cedin sposoa ...* (Leiz., Mt.,XXV,10)
- ***Cihoazen bizquitartean,*** *ethorri içan cen esposa...* (Haran., Mt.,XXV,10)

-(E)N BEÇAIN SARRI:

- *Eta bertan* ***ilkiten cela*** *vretic, ikus citzan ...* (Leiz., Mc.,I,10)
- *Uretic* ***ilkhi cen beçain sarri,*** *icussi içan cituen ...* (Haran., Mc.,I,10)

-T(Z)EAN

- *Eta* ***iragaiten cela*** *Iesusec ikus ceçan ...* (Leiz., Io.,IX,1)
- *Jesusec* ***iragaiten*** *icussi içan çuen ...* (Haran., Io.,IX,1)

Beraz, ikusten dugunez, perpaus hauetan guztietan denborazko adiera agerian dago; gainera, adibide hauek ikusita, menderagailu honek denborazko adieraren baitan balio anitz har ditzakeela esan dezakegu.

B.- Bestalde, denborazko adiera honen barruan adibide berezi batzuk aipatu behar ditugu; bereziak, orain arte deskribatu dugun moldetik ateratzen direlako. Izan ere, honelako adibideak konpletiboak aztertzean ere aipatu ditugu, neurri handi batean izenlagunak edo izan baitaitezke. Hala ere, konpletiboen eremutik at, adierazten dutena denborazkoetatik hurbilago dagoenez, atal honetan ere jasoko ditugu, hein handi batean behintzat, NOIZTIK galde-hitzari erantzuten baitiote. Ikus ditzagun batzuk:

- *... cein estecatu baitzuen Satanec, huná, hemeçortzi vrthe* ***dela,*** *...* (Lc.,XIII,16)
- *... egun duc herén eguna gauça hauc* ***eguin içan diradela.*** (Lc.,XXIIII,21)
- *... eta eriden ceçan hura ia laur egun* ***çuela*** *monumentean cela.* (Io.,XI,17)

C.- Edonola ere, sarreran aipatu dugunez, adibide guztietan denborazko adiera ez da hain argia, hots, batzuetan ez dakigu zehatz-mehatz denbora, modua ala beste zerbait adierazten den:

(1)- ... *ecen gauça hauc* ***eguiten dituçuela,*** *etzarete nehoiz-ere eroriren.* (Pier.2,I,10)

Perpaus hau denborazkoa, moduzkoa edo baldintzazkoa izan liteke:

- "egiten dituzuen bitartean"
- "eginez"
- "egiten badituzue"

(2)- *Eta hec heyagoraz* ***ceudela,*** *eta bere arropác iharrosten eta airerat errhautsa* ***iraizten çutela.*** *Mana ceçan Capitainac hura fortaleçara eraman ledin, ...* (Apost.Act.,XXII,23-24)

Adibide hau ere nekez sartuko genuke denborazkoen artean, sakonean adiera "kausal-esplikatiboa" edo duela ematen baitu. Izan ere, Haranederrek **bait-** menderagailua erabiltzen du adibide honetan:

- *Oihuz eta deyhadarrez* ***baitceudecen,*** *bada, eta bere arrobac arthiquitcen eta herrautsa airerat* ***etchatcen hari baitciren,*** *tribunac eramanaraci cituen gaztelurat; ...* (Haran., Apost.Act.,XXII,23-24)

Adibide gehiago aipa litezke, baina menderagailu honek har ditzakeen adieren berri izateko nahikoa delakoan nago. Beraz, ikusitakoa laburbilduz, esan dezagun, adibide gehienetan denborazko adiera argia nagusitzen dela, baina hala eta guztiz ere, batzuetan, "modu-denborazkoa" edota "kausal-esplikatiboa" ere aurki ditzakegula.

3.3.3. NOIZ-(ERE)... BAIT-

Denborazko perpausak sortzeko beste baliabide bat anaforikoen erabilera dugu. Erlatibozkoak aztertzean, Leizarragak anaforikoak oso sarritan eta edozein funtzio adierazteko erabiltzen zituela ohartu ginen. Hala beraz, orain aurkitzen duguna, anaforikoen beste funtzio bat baino ez da, NOIZ galde-hitzari erantzuten diona, hain zuzen ere.

3.3.3.1. Forma.

Izenburuan bertan ikus dezakegunez, anaforiko honek bi forma har ditzake:

1. NOIZ... BAIT-

Sarreran aipatu dugunez, forma hauek denborazko adiera hartzen duten anaforikoak baino ez dira; beraz, kasu gehienetan, beste edozein erlatibok hartuko lukeen forma bera hartzen dute: "Ondokoa - NOIZ... BAIT-":

> - ... *badatorque gaua* ***noiz*** *nehorc ecin obraric* ***baitaidi***. (Io.,IX,4)

2. NOIZ-ERE... BAIT-

Anaforiko hauen bidez erreferentzia zehaztugabea burutzen zela aipatu genuen; beraz, hemen ez dugu inolako ondokorik aurkituko:

> - ***Noiz-ere*** *nehorc ençuten* ***baitu*** *resuma hartaco hitza, eta ez aditzen, ethorten da Gaichto hura ...* (Mt.,XIII,19)

Azkenik, esan dezagun, denborazkoak sortzeko baliabide hau oso urria dela; dena den, aurkitu ditugun adibideak azterturik, ezin da esan forma bat bestea baino erabiliagoa denik, biek maiztasun parekoa agertzen

baitute: NOIZ... BAIT- (5 adibide) / NOIZ-ERE... BAIT- (6 adibide).

3.3.3.2. Tokia.

Anaforikoak denborazko perpausaren baitan hartzen duen kokaguneari gagozkiolarik, anaforiko guztiek bezala, denborazkoaren hasiera-hasieran agertzen dela aipatu behar dugu:

- ... *eta orain dun,* ***noiz*** *adoraçale eguiazcoéc adoraturen* ***baitute*** *Aita* ... (Io.,IIII,23)

Bestalde, denborazkoak berak perpaus nagusiaren baitan hartzen duen lekuari dagokionez, bereizketa bat egin behar dugu, aipatu ditugun bi formek joera desberdinak agertzen baitituzte:

1. NOIZ... BAIT-

* Perpaus nagusiaren ondoan (gehienetan):

- ... *eta orain dela,* ***noiz*** *hilécençunen* ***baitute*** ... (Io.,V,25)

* Perpaus nagusiaren aurrean (behin):

- ... *ecen* ***noiz bainaiz*** *impotent, orduan naiz botheretsu.* (Cor.2,XII,10)

2. NOIZ-ERE... BAIT-

* Perpaus nagusiaren ondoan (birritan):

- ... *haur eguiçue,* ***noiz-ere*** *edanen* ***baituçue,*** *ene memoriotan.* (Cor.1,XI,25)

* Perpaus nagusiaren aurrean (gehienetan):

- ... *eta* ***noiz-ere*** *nahi vkanen* ***baituçue,*** *haey vngui ahal daidieçue* ... (Mc.,XIIII,7)

3.3.3.3. Balioa.

Sarreran aipatu dugunez, forma hauen balioa, dudarik gabe, denborazkoa da; hala ere, bereizketa bat egin daiteke. Ikus dezagun:

1. NOIZ... BAIT-

Forma hau duten perpausek, ezbairik gabe, denborazko adiera hartzen dute, funtsean, NOIZ galde-hitzari erantzuten baitiote. Baina ez dugu ahaztu behar, kasu gehienetan, erlatibozkoen aurrean gaudela, ondoko eta guzti daukaten erlatibozkoen aurrean, alegia:

> - ... *ecen ethorten dela orena* ***noiz ezpaituçue*** *mendi hunetan ez Ierusalemen adoraturen Aita.* (Io.,IIII,21)

Gogora dezagun Leizarragak berak honelako adibideak NON edo CEINETAN... BAIT- erlatiboen bidez ere adierazten dituela:

> - ... *ecen ethorriren da orena* ***ceinetan*** *monumentetaco guciéc ençunen* ***baitute*** *haren voza.* (Io.,V,28)

Dena dela, egitura honen bidez, gehienetan erlatibo hutsak sortzen badira ere, zalantzarik gabeko denborazko perpausak ere adieraz daitezkeela aitortu behar dugu, Leizarragak adibide bat behintzat eskaintzen baitigu:

> - ... *ecen* ***noiz bainaiz*** *impotent, orduan naiz botheretsu.* (Cor.2,XII,10)

2. NOIZ-ERE... BAIT-

Egitura honen bidez sortzen diren perpaus guztiak, oinarrian erlatibozkoa badaramate ere, denborazkoen multzoan koka ditzakegu beldurrik gabe, funtsean, -(E)NEAN menderagailuaren bidez sortzen direnen baliokideak baitira:

> - ... ***Noiz-ere*** *erraiten* ***baitu*** *gueçurra, bere propritic minço da* ... (Leiz., Io.,VIII,44)
>
> - ... *gueçurra* ***erraten duenean*** *bere funtsetic mintço dă,* ... (Haran., Io.,VIII,44)

3.3.4. -(E)NO

Denborazko perpausen artean -(E)N menderagailuaren gainean eraikitzen den -(E)NO menderagailua ere aipatu behar dugu, oso maiz erabiltzen baita.

3.3.4.1. Forma.

Menderagailu honek forma bakarra agertzen du, hau da, adibide guztietan aditzari atxikitzen zaion -(E)NO menderagailua aurkitzen dugu:

- ... *Nehori ezterroçuela visionea, guiçonaren Semea hiletaric* ***resuscita daiteno***. (Mt.,XVII,9)

Bestalde, adibide honetan ikus dezakegunez, -(E)NO menderagailua aspektu markarik gabeko adizki bati itsatsi zaio. Edonola ere, honek ez du esan nahi menderagailu hau beti aspektu markarik gabeko adizkiekin agertuko denik, hauekin batera, aspektu markadunak ere topa baititzakegu:

1. SINTETIKOAK:

Hauek, dakigunez, modu indikatiboa zein subjuntiboa har dezakete, bietarako forma bera erabiliz.

- ... *eta aicén han nic* ***darraqueadano*** ... (Mt.,II,13)

2. PERIFRASTIKOAK:

2.1. ASPEKTU MARKARIK GABEKOAK:

Hauek, sintetikoekin batera, ugarienak dira. Orainaldia, iragana, zein forma hipotetikoak aurki ditzakegu; eta adizkiei dagokienez, erro desberdinak bereiz ditzakegu:

- ... *ezaiz ilkiren handic azquê pelata-ere* ***renda diroqueano***. (Lc.,XII,59)

- *Baina etzeçatê sinhets Iuduéc (...) aitamác* ***dei litzaqueteno***. (Io.,IX,18)

- *Baina duçuena, educaçue* ***ethor nadino.*** (Apo.,II,25)

2.2. ASPEKTU MARKADUNAK:

• Burutua:

Hauek oso urriak dira:

- *... vtzi eçac are vrthe hunetan, inguru* ***aitzurtu duquedano,*** *eta vngarri eman deçaqueodano.* (Lc.,XIII,8)

• Ezburutua:

Aspektu mota hau urriagoa da. Gainera, denborazko hauek ez dute aurrekoen balioa; -(E)N BITARTEAN adiera hartzen dute:

- *... oraino etzela irequi sanctuarioco bidea, lehen tabernaclea oraino çutic* ***egoiten ceno,*** *...* (Hebr.,IX,8)

3.3.4.2. Tokia.

Menderagailuak denborazko perpausaren baitan hartzen duen kokaguneari dagokionez, aurreko menderagailuek bezala, mugikortasun handia duela aipatu behar dugu, hiru posiziotan aurki baitezakegu. Edonola ere, hirurak ez dira berdin erabiltzen, ugariena, ezbairik gabe, amaierako posizioa baita:

* Hasieran:

- *... Iar adi ene escuinean,* ***eçar ditzaquedano*** *hire etsayac hire oinén scabella.* (Mt.,XXII,44)

* Tartean:

- *... candela bati beçala, egunac arguitzen has deçaqueno, eta artiçarra* ***ilki daiteno*** *çuen bihotzetan.* (Pier.2,I,19)

* Amaieran:

- *... predica ceçan Euangelioa hiri gucietan Cesareara* ***hel leiteno.*** (Apost.Act.,VIII,40)

Bestalde, denborazkoek perpaus nagusiaren baitan hartzen duten tokiari gagozkiolarik, kokagune zehatzik ez dagoela azpimarratu behar dugu. Adibide gehienak perpaus nagusiaren ondoan aurkitzen ditugu, baina aurrean ere ager daitezke. Ikus dezagun adibide bana:

- *Munduâ* ***naiceno,*** *munduaren Arguia naiz.* (Io.,IX,5)

- *... eman dieçoten bere resumá bestiari Iaincoaren hitzac* ***compli daitezqueno.*** (Apo.,XVII,17)

3.3.4.3. Balioa.

Menderagailu honek bi adiera zeharo desberdin har ditzake; beraz, kontestuaren laguntzaz jakingo dugu bata ala bestearen aurrean gauden:

A. -(E)N ARTE:

Adibide gehienak multzo honetan sar ditzakegu:

- *Eta ezpaitzeçaten eçagut dilubioa* ***ethor cedino,*** *eta guciac* ***eraman citzaqueeno.*** (Mt.,XXIIII,39)

- *... eztu arguia vizten, eta etchea escobatzen, eta bilhatzen diligentqui hura* ***eriden deçaqueno?*** (Lc.,XV,8)

B. -(E)N BITARTEAN:

- *... Ezteyetaco gendéc baruric ahal daidite ezcondua hequin* ***deno?*** *ezcondua berequin* ***duteno*** *baruric ecin daidite.* (Mc.,II,19)

- *... ecen oraino eztuela balio testamentu eguilea* ***vici deno.*** (Hebr.,IX,17)

3.3.5. -(E)N ARTEAN / [-(E)N] ARTERANO

Atal honetan, aurreko menderagailuaren baliokidea izan daitekeen forma aztertu behar dugu. Edonola ere, adieraren aldetik baliokideak badira ere, maiztasunari dagokionez, ohart gaitezen forma hau aurrekoa baino urriagoa dela, obra osoa azterturik, zortzi adibide bakarrik topatu baititugu.

3.3.5.1. **Forma.**

Denborazkoen artean forma jokatuak zein jokatugabeak bereiztu behar ditugu, sarritan menderagailu bera bietara aurki baitezakegu. Eta horixe da, hain zuzen, atal honetan topatzen duguna:

A.- FORMA JOKATUGABEAK:

Egia esan, forma bakar bat bailitzan hitz egiten ari gara, baina izenburuan bertan ikus dezakegunez, bi formez edota forma baten bi aldaerez hitz egin behar dugu.

Nolanahi ere, bi aldaera horietatik, bakarra topatuko dugu jokatugabeen artean: ARTERANO:

> - ***Veillá*** *(...) iguzquia sar cedinetic* ***ilki arterano*** *gaua laur parte bardinetara partitzen çutén.* (Hitz eta Minçatzeco Manera, 1213.or.)

Aitor dezagun forma jokatugabe hauek aski urriak direla, obra osoan bi adibide bakarrik aurkitu baititugu.

B.- FORMA JOKATUAK:

Jokatuen artean bai aipatu behar ditugula bi aldaerak, balio bera adierazteko bi forma desberdin aurkitzen ditugu eta:

* -(E)N ARTEAN (Erabiliena):

- ... *Traffica eçaçue* ***nathorren artean.*** (Lc.,XIX,13)

* -(E)N ARTERANO:

- ... *barnean gorde vkan baitu, gucia* ***altcha dadin arterano.*** (Mt.,XIII,33)

Bestalde, esan dezagun -(E)N menderagailua, eskuarki, aspektu markarik gabeko adizkiei (sintetikoei zein perifrastikoei) atxikitzen zaiela:

- ***Ethor nadin artean,*** *aquió iracurtzeari,* ... (Tim.,IIII,13)

- ... *Traffica eçaçue* ***nathorren artean.*** (Lc.,XIX,13)

3.3.5.2. Tokia.

Denborazko hauek perpaus nagusiaren baitan hartzen duten kokaguneari gagozkiolarik, posizio baten aldeko joera garbia aipatu behar dugu, adibide gehienetan denborazkoak aditz nagusiaren ondoan aurkitzen baititugu. Hala ere, ez dugu ahaztu behar aurreko posizioan ere aurki ditzakegula. Jar dezagun adibide bana:

* Aurrean:

- ***Veillá*** *(...) iguzquia sar cedinetic* ***ilki arterano*** *gaua laur parte bardinetara partitzen çutén.* (Hitz eta Minçatzeco Manera, 1213.or.)

* Ondoan:

- ... *eta nola hertsen naiz haur* ***compli daiten artean?*** (Lc.,XII,50)

3.3.5.3. Balioa.

Sarreran aipatu dugunez, forma hau -(E)NO-ren baliokide argia da. Dakigunez, -(E)NO menderagailuak bi adiera desberdin har ditzake, alde batetik [-(E)N] ARTE formaren bidez adieraz genezakeena (ugariena, gainera), eta bestetik, -(E)N BITARTEAN egituraren bidez adieraziko genukeena.

Orain aztertzen dugun formak, arestian aipatu dugunez, bi aldaera ager ditzake. Beraz, balioez hitz egiteko, bi aldaera hauek oso kontutan hartu beharko ditugu, bataren ekintza-eremua bestearena baino zabalagoa delako.

A. [-(E)N] ARTERANO:

Honek balio bakarra adieraz dezake, beste euskalki batzuetan [-(E)N] ARTE formaren bidez adieraziko genukeena, alegia:

- *...çaudete han handic* ***ilki arterano***. (Mc.,VI,10)

B. -(E)N ARTEAN:

Forma honek, -(E)NO menderagailuaren baliokide argia izanik, gorago aipatu ditugun bi balioak adieraz ditzake:

* [-(E)N] ARTE adiera:

  - *... sar cedin templean denuntiatzen çuela purificationeco egunén complimendua, hetaric batbederagatic oblationea* ***offrenda ledin artean***. (Apost.Act.,XXI,26)

* -(E)N BITARTEAN adiera:

  - *... nola Legueac dominatione duen guiçonaren gainean* ***vici den artean***? (Rom.,VII,1)

Edonola ere, -(E)NO menderagailuarekin gertatzen den bezala, adierarik garrantzitsuena edo, behintzat, erabiliena lehenengoa dela baieztatu behar dugu.

3.3.6. -(E)N BIZQUITARTEAN

Denborazkoen artean menderagailu ugari ditugunez, sarritan forma desberdinak aurki ditzakegu balio bera adierazten. -(E)N BIZQUITARTEAN formak, izan ere, aurreko ataletan aztertu ditugun -(E)NO eta -(E)N ARTEAN menderagailuen adiera bat hartzen du, simultaneitatea edo aldi berekotasuna adierazten duena, hain zuzen ere. Edonola ere, gogora dezagun azterturiko menderagailuetan nagusitzen zen adiera "ARTE" zela eta "-(E)N BITARTEAN" aski urria zela.

Orain, -(E)N BIZQUITARTEAN menderagailua bera dugu; hala ere, aurreko ataletan bezala, adiera honen urritasuna azpimarratu behar dugu, obra osoa azterturik, lau adibidetan bakarrik topatzen baitugu (gainera, ohart gaitezen lau adibide horietatik bat errepikatuta dagoela).

3.3.6.1. Forma.

-(E)N menderagailuan oinarrituriko forma baten aurrean gaude, menderagailu honi BIZQUITARTEAN denbora-aditzondoa itsatsirik lortzen duguna, alegia:

> - *Guero bertan bere discipuluac sar eraci citzan vncira (...) berac populuari congit* ***lemon bizquitartean.*** (Mc.,VI,45)

Menderagailua, beraz, denborazko perpausaren adizkiari atxikitzen zaio, baina hain adibide gutxi izanik, zaila da tajuzko azterketa bat egitea; edozein modutan, esan dezagun lau adibideetatik hiru adizki sintetikoekin agertzen direla eta laugarrenak adizki sintetiko hauetatik oso urrun ez dabilen aspektu ezburutua daramala:

> - *... nola lehenago Aita Israelitác (...) beguira* ***ceuden bizquitartean*** *(...) Iainco Iaunac eman vkan çuen bere Leguea ...* (Som.,9-14,275.or.)

- ... *baina ni* ***ethorten naicen bizquitartean,*** *bercebat ene aitzinean iausten duc.* (Io.,V,7)

Beraz, modu indikatiboa nagusitzen da.

3.3.6.2. Tokia.

Denborazko hauek perpaus nagusiaren baitan hartzen duten kokaguneari gagozkiolarik, toki zehatzik ez dagoela aitortu behar dugu, honelakoak perpaus nagusiaren aurrean zein ondoan aurki baititzakegu. Gainera, maiztasunari begira ere ezin dugu ezer argitu, lau adibide horietatik, bi perpaus nagusiaren aurrean eta beste biak ondoan agertzen baitira:

* AURREAN:

  - ... *baina ni* ***ethorten naicen bizquitartean,*** *bercebat ene aitzinean iausten duc.* (Io.,V,7)

* ONDOAN:

  - *Eta bertan Iesusec bortcha citzan bere discipuluac vncian sartzera, eta haren aitzinean berce aldera iraqaitera: populuari conqit* ***lemon bizquitartean.*** (Mt.,XIIII,22)

3.3.6.3. Balioa.

Perpaus hauek hartzen duten balioari dagokionez, gogora dezagun sarreran esandakoa, hau da, -(E)NO eta -(E)N ARTEAN menderagailuen baliokideak direla. Erka ditzagun adibide batzuk:

- ... *nola lehenago Aita Israelitác (...) beguira* ***ceuden bizquitartean*** *(...) Iainco Iaunac eman vkan çuen bere Leguea ...* (Som.,9-14,275.or.)

- *Ala eztaquiçue (...) nola Legueac dominatione duen guiçonaren gainean* ***vici den artean?*** (Rom.,VII,1)

- *Ecen gauça iustoa estimatzen dut, tabernacle hunetan* ***naiceno*** ... (Pier.2,I,13)

Ikusten dugunez, hirurek adiera bera hartzen dute, hegoaldeko euskalkietan -(E)N BITARTEAN menderagailuaren bidez adieraziko genukeena, hain zuzen ere.

Hiruren arteko desberdintasuna, beraz, duten ekintza-eremuan datza: -(E)NO eta -(E)N ARTEAN menderagailuek bi balio adieraz ditzakete; beraz, zenbait kasutan testuinguruak lagundu beharko digu bata ala bestearen aurrean gauden bereizten; -(E)N BIZQUITARTEAN-ek, berriz, balio bakarra adieraz dezake.

3.3.7. -(E)N BECEMBATEAN

-(E)N BIZQUITARTEAN menderagailua urria dela esan dugu eta gauza bera esan behar dugu orain aztertzen dihardugun menderagailuaz, obra osoan zehar, -denborazko adieraz, noski-, lau adibidetan bakarrik topatzen baitugu.

3.3.7.1. Forma.

Menderagailu honen formari dagokionez, -(E)N BIZQUITARTEAN egituraz esandakoa ekar genezake gogora, biak -(E)N menderagailuari aditzondo bat edo atxikiz sortzen baitira:

> - ... *ene anaye chipién hautaric bati* ***eguin draucaçuen becembatean*** *niri eguin drautaçue.* (Mt.,XXV,40)

-(E)N BIZQUITARTEAN formarekin bat ez datorrena menderagailua daraman adizkiak hartzen duen aspektu marka da. Aurreko menderagailua adizki sintetikoekin edota aspektu ezburutua dutenekin agertzen dela ikusi dugu. -(E)N BECEMBATEAN-ek, berriz, topatu ditugun lau adibideetan behintzat, aspektu burutua darama:

> - ... *etzen ez egundano-ere içan vanitate baicen, verthute gucitaco Iauna* ***assistitu eta valiatu içan çayon becembatean*** *baicen* ... (Adv.,1-3,256.or.)

Nolanahi ere, honek ez du esan nahi forma honek beti aspektu burutuarekin agertu behar duenik. Leizarragak bere lau adibideetan hala darabil, baina, agian adibide gehiago aurkitu bagenu, bestelako aspektu markak ere aurkituko genituzkeen.

3.3.7.2. Tokia.

Denborazko hauek perpaus nagusiaren baitan hartzen duten kokaguneaz aurreko perpausez esan duguna gogora dezakegu, guztiek jokabide berdina agertzen baitute, aditz nagusiaren aurrean zein ondoan kokatuz:

* AURREAN:

  - ... *chipien hautaric bati* ***eguin eztraucaçuen becembatean,*** *niri-ere eztrautaçue eguin.* (Mt.,XXV,45)

* ONDOAN:

  - ... *anhitz aldez hura valiatu içan çait, eta principalqui (...) gage ordena lequidâ, çure Bearnoco herrian* ***entretenitu içâ naicen becembatean*** ... (Guc.,15-19,249.or.)

3.3.7.3. Balioa.

Forma honek hartzen duen balioari dagokionez, hegoaldeko euskalkietan behintzat erabiltzen ditugun -(E)N BAKOITZEAN / -(E)N GUZTIETAN / -(E)N BITARTEAN edo halako balioren bat hartzen duela esan dezakegu.

Edozein modutan ere, adibide hauetan denborazko adiera nahiko argia da; gainera adibideok Haranederrek dituenekin erkatzen baditugu, honek ere denborazkoak erabiltzen dituela ohartzen gara:

- ... *ene anaye chipién hautaric bati* ***eguin draucaçuen becembatean*** *niri eguin drautaçue.* (Leiz., Mt.,XXV,40)

- ... ***noiz eta ere*** *eguin içan* ***baidioçue*** *hori ene anaya chumeén hautaric bati, niri neroniri eguin içan darotaçueque.* (Haran., Mt.,XXV,40)

3.3.8. -(E)N BEÇAIN SARRI / -(E)N SARRIENAZ

3.3.8.1. Forma.

Formari dagokionez, egitura honek agertzen duen bikoizketaren berri eman behar dugu, ideia edo balio bera adierazteko bi forma erabiltzen baitira. Hala ere, lehendabizi, egitura honen urritasunaz ohartu behar gara, bi formak baturik, guztira, bost adibide bakarrik aurkitu baititugu:

1. -(E)N BEÇAIN SARRI[5]:

Forma hau hiru adibidetan aurkitzen dugu; beraz ikusten dugunez, batetik bestera ez dago alde handiegirik. Ikus dezagun adibide bat:

> - ... *hitz haur* ***ençun çuen beçain sarri,*** *diotsa synagogaco principalari* ... (Mc.,V,36)

2. -(E)N SARRIENAZ:

> - ... ***erori içâ cê sarrienaz,*** *côsola eta côfortagarri hala promettatu içâ çayô,* ... (Adv.,38-39,259.or.)

Bestalde, egitura hauen bidez sortzen diren denborazko perpausek hartzen duten forma aztertzen badugu, perpaus hauek aspektu markadun adizkiekin agertzen direla aipatu behar dugu. Leizarragaren adibideetan behintzat, sekula ez dugu aspektu markarik gabeko adizkirik, ezta sintetikorik ere topatu. Hona hemen aurki ditzakegun formak:

---

[5] Ohart gaitezen forma hau, nahi izanez gero, konparatiboen artean ere koka genezakeela.

* Burutua:

- ... *hire salutationearê voza ene beharrietara* ***heldu içan den beçain sarri,*** *iauci içan dun bozcarioz haourra ene sabelean.* (Lc.,I,44)

* Etorkizuna:

- ... *eta hartan* ***sarthuren çareten beçain sarri,*** *eridenen duçue asto vmebat estecatua,* ... (Lc.,XI,2)

Aspektu ezburutua ez dugu aurkitu; dena den, gogora dezagun Leizarragak bost adibide bakarrik dituela. Bestalde, aurkituriko aspektu marken artean, erabiliena "burutua" dela aitortu behar dugu, bost adibideetatik lautan agertzen baita.

3.3.8.2. Tokia.

Denborazko perpaus hauek hartzen duten kokagunearen azterketak ez digu datu berririk eskaintzen, aurreko denborazkoen jokabide bera aipatu behar baitugu. Edonola ere, egitura hau perpaus nagusiaren aurrean zein ondoan aurki badezakegu ere, maiztasuna hartzen badugu kontutan, posizio baten aldeko joera garbia dagoela jabetuko gara, bost adibide horietatik lau perpaus nagusiaren aurrean aurkitzen baititugu. Beraz, badirudi, posizio hori dela berezkoena; dena dela, perpaus nagusiaren ondoan adibide bakar bat aurkitzen dugun arren, agerpenak berak zokoratu ezin daitekeen kokagunea dela egiaztatzen digu. Ikus dezagun adibide bana:

* AURREAN:

- ... *hitz haur* ***ençun çuen beçain sarri,*** *diotsa synagogaco principalari* ... (Mc.,V,36)

* ONDOAN:

- ... *igorriren drauçuedala, neure eguitecoey dreçu* ***eman drauqueedan sarrienaz*** (Phil.,II,23)

3.3.8.3. Balioa.

Forma hauek adierazten duten balioari dagokionez, beste euskalkietan aurki ditzakegun "[-(E)N] BEZAIN LASTER / FITE / AGUDO" edo "partizipioa + ORDUKO" egituren balioride argiak direla azpimarratu behar dugu, hauek guztiek balio bera adierazten baitute.

Bestalde, ikusi dugunez, Leizarragak bi forma erabiltzen ditu; dena den, ez dirudi, balioari dagokionez bien artean bereizketarik egin daitekeenik, funtsean, biek balio bera hartzen baitute. Izan ere, Leizarragak -(E)N SARRIENAZ egitura darabilen adibide batean Haranderrek -(E)N BEÇAIN SARRI erabiltzen du, biak erabat baliokideak direla egiaztatuz:

> - ... *igorriren drauçuedala, neure eguitecoey dreçu* ***eman drauqueedan sarrienaz*** (Leiz., Phil.,II,23)
>
> - ... *igorrico darotçuedala neure eguitecoei dreçu* ***eman dioquetedan beçain sarri.*** (Haran., Phil.,II,23)

3.3.9. -T(Z)EAN / -T(Z)ERACOAN

3.3.9.1. Forma.

Forma jokatugabeen aurrean aurkitzen garenez, esan dezagun Leizarraga denborazkoak sortzeko aditz izenaz ere baliatu zela. Halaber, zehaztu dezagun izenburuan bertan ikus dezakegunez, ez garela forma bakarraz ari, aitzitik, bi forma bereizi behar ditugu:

1. Aditz izena + Inesiboa: -T(Z)EAN:

Leizarragak maizenik erabiltzen duen forma da:

- *Eta Iesusec Ierusalemera* ***igaitean****, har citzan hamabi discipuluac appart bidean ...* (Mt.,XX,17)

2. Aditz izena + RACO (Noizko?) + Inesiboa: -T(Z)ERACOAN:

Bigarren forma hau askoz urriagoa da, guztira, lau adibide bakarrik topatu baititugu:

- *... eta* ***embarcatzeracoâ*** *behar cenaz forni guêçaten.* (Apost.Act.,XXVIII,10)

Patxi Goenagak bi formak desberdindu nahirik, bereizketa formala baino ez digu aipatzen. Gogora ditzagun bere hitzak:

> *"Esanahiaren aldetik, ez dirudi desberdintasun nabarmenegirik denik (1) eta (2) perpausen artean. Agian egituraren aldetik bai, zeren* ***mendira igotzerakoan*** *perpaus txertatuaren azpian beste honelako egituraren bat egon baitaiteke:*
>
> Mendira igotzerako (garai)an
> izenlaguna izena
>
> *Eta* ***mendira igotzean*** *perpausaren azpian berriz:*
>
> Mendira igotze an
> izena "

3.3.9.2. Tokia.

Forma jokatugabe hauek perpaus nagusiaren baitan hartzen duten kokaguneari dagokionez, gehienetan, perpaus nagusiaren aurrean agertzen direla aipatu behar dugu:

- ... *eta* ***hiltzean*** *etzieçán leinuric vtzi.* (Mc.,XII,20)

- *Eta Paulec fortaleçán* ***sartzeracoan*** *diotsa ...* (Apost.Act.,XXI,37)

Edonola ere, hain normala ez den arren, bi egitura hauek perpaus nagusiaren ondoan ere aurki ditzakegu; dena den, ohart gaitezen obra osoan zehar posizio honetan adibide bana bakarrik topatu dugula; beraz, argi dago, forma hauen kokagunerik usuena perpaus nagusiaren aurrekoa dela. Ikus ditzagun, hala ere, perpaus nagusiaren ondoko adibide horiek:

- *Aitzinetic Ioannesec emendamendutaco Baptismoa Israeli predicatu vkan ceraucanean haren* ***ethorteracoan.*** (Apost.Act.,XIII,24)

- *Ala falta eguin dut neure buruâren* ***beheratzean,*** ... ? (Cor.2,XI,7)

3.3.9.3. Balioa.

Forma hauek adierazten duten balioari dagokionez, lehenago ikusi dugunez, P.Goenagak desberdintasunik ez dagoela esaten digu.

Villasantek, berak deituriko "Sucesión de anterioridad" atalean honako forma hau aurkezten digu:

"Ax. emplea también ***aitzinean*** *precedido de nombre verbal con* ***-rako:***

Ax 159 ***Hiltzeraco aitzinean"***

GOENAGA, P., Gramatika Bideetan, 368-369.orr.

VILLASANTE, L., Sintaxis de la oración compuesta, 109.or.

Hau ikusita, -T(Z)ERACOAN, funtsean, -T(Z)ERACO AITZINEAN egituraren laburdura edo dela pentsa liteke; baina hala balitz, -T(Z)EAN eta -T(Z)ERACOAN formen arteko bereizketa formala ezezik semantikoa ere badela aitortu beharko genuke, honen arabera, -T(Z)EAN formak "aldi berekotasuna" eta -T(Z)ERACOAN-ek "lehentasuna" edo adieraziko bailukete. Ikus dezagun egia denentz:

(1)- *Aitzinetic Ioannesec emendamendutaco Baptismoa Israeli predicatu vkan ceraucanean haren* ***ethorteracoan.*** (Leiz., Apost.Act.,XIII,24)

(1')- *ceiña* ***ethortceco aitcinean,*** *predicatu içan baidio Joannensec penitentciaren bathayoa Israelgo populuari.* (Haran., Apost.Act.,XIII,24)

(2)- *Eta* ***ereitean*** *hacitic batzu eror citecen bide bazterrera.* (Leiz., Mt.,XIII,4)

(2')- *Eta* ***ereinten hari dela*** *ereintçaren parte bat erori cen ...* (Haran., Mt.,XIII,4)

Adibideak Haranederrek dituenekin erkatuta, badirudi zenbaitetan behintzat, -T(Z)EAN-ek "aldi berekotasuna" adierazten duela, hau da, menpeko perpausak adierazten duena aditz nagusiak adierazten duen ekintza burutzen ari den momentu berean gertatzen dela; -T(Z)ERACOAN formak, berriz, "lehentasuna" adieraziko luke, hots, forma jokatugabea daraman adizkiak adierazten duen ekintza oraindik burutu gabe edo, agian, hobeto esanda, hastear dagoela; gaztelaniaz "al ir a" formaren bidez adieraziko genukeena, hain zuzen ere.

Edozein modutan hauek oso matizazio zehatzak eta puntualak dira; zenbait adibidetan gerta daiteke bi formak aise bereiztea, baina, agian, besteetan baliokidetzat jo genitzake.

Beraz, bien artean desberdintasunen bat egon daitekeen arren, hau hain txikia izanik, beharbada, hobe dugu P.Goenagari jarraituz, baliokideak bailiran erabiltzea.

3.3.10. -(E)N BAINO LEHEN / AITZINEAN

Atal honetan aztertuko dugun egiturak, bere formak berak seinalatzen digunez, perpaus nagusian adierazten den ekintza denborazkoan adierazten dena baino lehenago gertatu dela ematen du aditzera.

Bestalde, atal honetan, nagusiki, -(E)N BAINO LEHEN egitura aztertu arren, ez dugu ahaztu behar honek izan dezakeen baliokide bat: ADITZ ERROA + AITZINEAN.

3.3.10.1. **Forma.**

Denborazko perpaus hauek aditzari -(E)N menderagailuaren bidez BAINO LEHEN aditzondoa atxikiz lortzen dira; beraz, oraingo honetan ere -(E)N menderagailuaren oinarrian eraikitako forma baten aurrean gaude:

- ... *ecen gau hunetan oillarrac* ***io deçan baino lehen*** *hiruretan vkaturen nauăla.* (Mt.,XXVI,34)

Honez gain, denborazko hauetan hainbait murrizketa aipatu behar ditugu, menderagailu hau bi adizki motarekin bakarrik aurkitzen baitugu. Hona hemen:

1. SINTETIKOAK:

   - ... *Abraham* ***cedin baino lehen,*** *ni naiz.* (Io.,VIII,58)

2. PERIFRASTIKOAK (Aspektu markarik gabeak):

   - ... *nola deithu içan baitzén Ainqueruăz, sabelean* ***concebi cedin baino lehen.*** (Lc.,II,21)

Bestalde, formarekin amaitu aurretik, aipa dezagun BAINO LEHEN aditzondoak aldaera bat izan dezakeela, NOIZTIK galde hitzari erantzuten diona, hain zuzen ere:

- ... *ecen maite vkan nauc mundua* ***funda cedin baino lehendanic.*** (Io.,XVII,24)

3.3.10.2. Tokia.

Denborazko hauek perpaus nagusiaren baitan hartzen duten kokaguneari dagokionez, gainerako denborazkoek bezala, perpaus nagusiaren aurrean zein ondoan aurki ditzakegula gogoratu behar dugu; gainera, maiztasunari begira ere ezin dugu baten aldeko joera nabarmenik somatu, perpaus nagusiaren ondoan adibide gehiago aurkitu dugun arren, bion arteko aldea ez baita oso handia; beraz, posizio batean zein bestean agertzea aukeran dagoela esango dugu. Ikus dezagun adibide bana:

* AURREAN:

- ... *ecen* ***eraman cedin baino lehen,*** *testimoniage vkan ceçan* ... (Hebr.,XI,5)

* ONDOAN:

- ***Sacrificadorea*** *(...) Eta officio haur cen populu Iudaicoan Iesus Christ* ***ethor cedin baino lehen*** ... (Hitz eta Minçatzeco Manera, 1211.or.)

3.3.10.3. Balioa.

Sarreran aipatu dugunez, menderagailu honen bidez perpaus nagusian adierazten den ekintza lehenago gertatu dela ematen da aditzera:

- ... *eta gu hura* ***hurbil dadin baino lehen,*** *prest gara* ... (Apost.Act.,XXIII,15)

Gainontzeko euskalkietan, balio bera adieraz dezaketen beste forma batzuk topa ditzakegu, hala nola, "partizipioa + BAINO LEHEN; partizipioa + AURRETIK ..."; baina beste euskalkietara jo gabe, Leizarragaren obran bertan -(E)N BAINO LEHEN egituraren baliokide bat aipa dezakegu: ADITZ ERROA + AITZINEAN. Obra osoan adibide

bakarra topatu dugu; dena den, Leizarragak horren berri bazuela egiaztatzeko nahikoa da. Ikus dezagun, bada:

- ... *ezpaitzedî ikuz* ***barazcal aitzineâ.*** (Lc.,XI,38)

Azkenik, esan dezagun forma hauek, berez, aditzondoak direnez, maiz, denborazko perpausik sortu gabe, posposizio gisa aurki ditzakegula:

- *Eta bazco besta* ***aitzinean,*** *çaquiala Iesusec ecen* ... (Io.,XIII,1)

- ... *notable diradenac, eta ni* ***baino lehen*** *içan diradenac Christean.* (Rom.,XVI,7)

3.3.11. -(R)IC

Denbora adieraz dezaketen formen artean, dakigunez, jokatuak zein jokatugabeak bereiz ditzakegu. Egia esan, Leizarragaren obran forma jokatuak dira nagusi, baina noiz edo behin denborazko adiera hartzen duten forma jokatugabeak ere topa ditzakegu.

Orain aztertzen dihardugun forma jokatugabeen artean kokatu behar dugu nahitaez, forma honen oinarrian partizipioa aurkitzen baitugu: PARTIZIPIOA + -(R)IC:

- *Hec bada reguea* ***ençunic*** *parti citecen ...* (Mt.,II,9)

- *Eta* ***ethorriric*** *erideiten du hura scobatua ...* (Lc.,XI,25)

3.3.11.1. Tokia.

A.- Alde batetik, partizipio honek denborazko perpausaren baitan hartzen duen kokagunea azter dezakegu; eta aipatu behar dugun aurreneko gauza forma honen mugikortasuna da, hiru posizio desberdinetan aurki baitezakegu:

* Hasieran:

  - *Eta* ***deithuric*** *bi Centenér erran ciecén, ...* (Apost.Act.,XXIII,23)

* Tartean:

  - *Eta languilequin* ***accordaturic*** *dinero batetan eguneco, igor citzan bere mahastira.* (Mt.,XX,2)

* Amaieran:

  - *... etsayen menetic* ***deliuraturic,*** *baque onetan goberna litzatençat, ...* (Adv.,38-39, 261.or.)

Zehaztu dezagun, halere, adibide gehienak denborazkoaren hasieran edo amaieran agertzen direla.

B.- Bestalde, denborazkoak perpaus nagusiaren baitan hartzen duen kokalekuaz hitz egin dezakegu; eta honetan ere, irizpide jakinik eza nagusitzen dela aitortu behar dugu, denborazko hauek perpaus nagusiaren aurrean, ondoan edota barruan txertaturik ere aurki baititzakegu. Egia da eskuarki perpaus nagusiaren aurrean aurkitzen ditugula; dena den, hau nagusitzen den joera izan arren, ez da inolaz ere, derrigorrezkoa. Ikus ditzagun adibide batzuk:

* Perpaus nagusiaren aurrean:

  - *Guero* **deithuric** *elkarrequin bere hamabi discipuluac, eman ciecén ...* (Lc.,IX,1)

* Perpaus nagusiaren ondoan:

  - *... murruac eror citecê, çazpi egunez inguratuac* **egonic.** (Hebr.,XI,30)

* Perpaus nagusiaren barruan:

  - *Ecin nehorc borthitz baten ostillamenduac, haren etchera* **sarthuric**, *pilla ahal ditzaque ...* (Mc.,III,27)

3.3.11.2. Balioa.

Partizipio hauen bidez denbora adieraz daitekeela aipatu dugu; dena den, ez dugu ahaztu behar denboraz gain, partizipio honek bestelako adierak ere har ditzakeela, hala nola, moduzkoa, kausa-ondoriozkoa, kontzesiboa ...e.a.[9]

Atal honetan, denborazko adiera duten partizipioak biltzen saiatu gara; hala ere, maiz, zalantzak ugariak izan direla aitortu behar da, adibide guztietan ez baita argi gelditzen denbora ala beste zerbait adierazten den.

---

[9] LETAMENDIA, J.A., "Leizarragak partitiboz dakartzan partizipioak Duvoisinen ordainekin alderaturik" Euskera-XXV, 455-482.orr.

Izan ere, hau, neurri handi batean, eman nahi diogun interpretazioaren araberakoa da.

Argibide bila, Haranederrek erabili dituen formetara jotzen badugu, sarritan ez dagoela argitzerik jabetzen gara, biek -(R)IC markadun partizipioa erabiltzen baitute:

(1)- *Halacotz,* ***iraitziric*** *cithalqueria qucia (...) recebi eçaçue ...* (Leiz., Iac.,I,21)

- *Hargatic bada* ***egotciric*** *bekhatuaren lohigunea eta sobrania guciac, errecibi çaçue ...* (Haran., Iac.,I,21)

Edonola ere, beste adibide askotan, Haranederrek Leizarragaren partizipioen ordainean denborazko menderagailu argiak (-(E)NEAN, [-(E)N] ONDOAN, [-(E)NAZ] GUEROZTIC, ETA, ETA BEREHALA, -TZEAN ...) darabiltza. Ikus ditzagun adibide batzuk:

(2)- *Eta içarra* ***ikussiric*** *bozcario handiz boz citecen haguitz.* (Leiz., Mt.,II,10)

- ***Icussi çutenean,*** *bada, içarra boztu içan ciren handizqui.* (Haran., Mt.,II,10)

(3)- *Eta hauc* ***erranic,*** *voz goraz oihu eguin ceçan,...* (Leiz., Io.,XI,43)

- *Horiec* ***erran ondoan,*** *boz goraz oihu eguin çuen ...* (Haran., Io.,XI,43)

(4)- *Eta bekatuaren azpitic* ***ilkiric,*** *iustitiaren cerbitzari eguin içan baitzarete.* (Leiz., Rom.,VI,18)

- *Bekhatutic bada libratuac içan* ***eta,*** *eguin içan çarete justiciaren gathibu.* (Haran., Rom.,VI,18)

(5)- *... officioa* ***cambiatu içanic,*** *necessario da ...* (Leiz., Hebr.,VII,12)

- ***Gambiatu gueroztic*** *ecen apheztassuna, mengoa da ...* (Haran., Hebr.,VII,12)

Adibide hauetan nabarmena da denborazko adiera; hala ere adibide guztiak ez dira hauek bezain argiak; aitzitik, gehienetan zalantzak direla nagusi aitortu behar dugu.

Bestalde, adibide askotan Haranederrek Leizarragaren partizipioaren ordez ETA juntagailua erabiltzen du. Ikus ditzagun adibide batzuk:

(6)- *Eta diotsó Iesusec, Nic* ***ethorriric*** *sendaturen diat hura.* (Leiz., Mt.,VIII,7)

- *Jesusec erran cioen: "Ethorrico naiz* ***eta*** *sendatuco dut".* (Haran., Mt.,VIII,7)

(7)-... ***Iaiquiric*** *oha...*(Leiz., Apost.Act.,IX,11)

- ... *Altcha çaite* ***eta*** *çohaz* ... (Haran., Apost.Act.,IX,11)

Haranederrek bi perpaus bakun erabiltzen ditu; edozein modutan ohart gaitezen, ETA juntagailuaren bidez ere, nolabait, denborazko balioa ematen dela aditzera:

* Etorriko naiz eta (gero) sendatuko dut

Beraz, honelako adibideak ere denborazkoen artean kokatu behar ditugu.

Nolanahi ere, gogora dezagun adibiderik argienak, hots, zalantza gutxien sortarazten dizkigutenak bakarrik aipatu ditugula, zenbaitetan denbora, modua ala beste zerbait adierazten den ez baita hain errez bereizten.

3.3.12. [-(E)N] ONDOAN

Forma hau ez da erabilienetarikoa, obra osoa aztertuta, 24 adibide bakarrik topatu baititugu. Hala ere, honek adierazten duen balioa Leizarragak, sarritan, -(R)IC markadun partizipioaren bidez adierazten duela izan behar dugu kontutan. Hortik, bada, formaren urritasuna.

Edonola ere, ekin diezaiogun forma honen azterketari:

3.3.12.1. Forma.

Dakigunez, denborazkoen artean forma jokatuak eta jokatugabeak bereiz ditzakegu; baina, batzuetan, forma bera bietara aurki dezakegu, [-(E)N] ONDOAN, kasu. Gainera, maiztasunari dagokionez, jokatuak jokatugabeak bezain ugariak direla aipatu behar dugu, topatu ditugun 24 adibideetatik, 12 jokatuak eta beste 12ak jokatugabeak direlako.

A.- JOKATUGABEAK:

Forma jokatugabeetan ONDOAN aditzondoa, normalean, partizipioarekin aurkitzen dugu:

> - *Christ desertuan* ***barur eguin ondoan*** *Satanez têtatu.* (Mt.,IIII,0-1)

Dena den, salbuespen bat behintzat aipatu behar dugu, adibide batean, partizipioaren ordez aditz erroa aurkitzen baitugu:

> - *Eta* ***affal ondoan*** *(...) Iaiquiten da affaritetic,* ... (Io.,XIII,2-4)

Edonola ere, ohart gaitezen obra osoan topatu dugun adibide bakarra dela eta, bestaldetik, agian ez gaudela aditz erroaren aurrean, "afalondo" forma lexikalizatuaren aurrean baizik.

B.- JOKATUAK:

ONDOAN forma jokatuetan -(E)N menderagailuari atxikitzen zaio eta menderagailua, bere aldetik, aspektu markadun zein aspektu markarik gabeko aditzei itsasten zaie. Hala ere, aspektu markadun adizkien aldeko joera garbia aipatu behar dugu, adibide guztiek, batek izan ezik, aspektu marka baitaramate:

* Aspektu markarik gabekoak (gertatuko dena adierazteko):

  - *Baina* ***resuscita nadin ondoan,*** *çuen aitzinean ioanen naiz Galileara.* (Mt.,XXVI,32)

* Aspektu markadunak (gertatua adierazteko):

  - *... bere gauçác* ***creatu cituen ondoan,*** *creatu vkan çuen Adam ...* (Som.,17-18,274.or.)

Aipa dezagun bidenabar, aspektu markari dagokionez, adibide guztietan, salbuespenik gabe, aspektu burutua aurkitzen dugula.

3.3.12.2. Tokia.

Denborazko hauek perpaus nagusiaren baitan hartzen duten kokaguneari dagokionez, oso joera tinkoa aipatu behar dugu, topatu ditugun adibide ia guztiak perpaus nagusiaren aurrean agertzen baitira. Edonola ere, joera nagusitik aldentzen diren bi salbuespen ere aipatu behar ditugu, hauetan denborazkoak perpaus nagusiaren ondoan eta barruan agertzen baitira. Ikus dezagun adibide bana:

* Perpaus nagusiaren aurrean:

  - *Baina* ***erein den ondoan,*** *goratzen da, ...* (Mc.,IIII,32)

* Perpaus nagusiaren ondoan:

  - *... ian eta edan baitugu harequin hura hiletaric* ***resuscitatu içan den ondoan.*** (Apost.Act.,X,41)

* Perpaus nagusiaren barruan:

- *Ecen nic badaquit haur, sarthuren diradela ene* ***ioan ondoan*** *otso dorpeac çuen artera, ...* (Apost.Act.,XX,29)

3.3.12.3. Balioa.

[-(E)N] ONDOAN formak hartzen duen balioari dagokionez, agerian dago ekintza nagusia denborazkoak adierazten duenaren ondoren gertatzen dela ematen dela aditzera:

- ... ***predicatu ondoan***, *neuror reprobatu eriden eznadinçát.* (Cor.1,IX,27)

Balio hau adierazten duten forma ugari aurki ditzakegu eta sarreran aipatu dugunez, Leizarraga bera, maiz, -(R)IC markadun partizipioaz edota ETA "menderagailuaz" baliatzen da hau berau adierazteko.

Bestalde, gogora dezagun ONDOAN forma partizipio bati edota -(E)N menderagailuari atxikirik denborazko adiera hartzen duen menderagailu bihurtzen dela; baina honez gain, edozein izen sintagmari loturik denbora adierazten duen posposizioa ere izan daiteke. Kasu honetan, sintagmari genitibo edutezkoaren bidez atxikitzen zaio. Ikus dezagun adibide bat:

- *Eta* ***egun hayén ondoan*** *haren emazte Elisabethec concebi ceçan ...* (Lc.,I,24)

3.3.13. -(E)NETIC

Oraingo hau benetan forma urria da, obra osoan bi adibide bakarrik aurkitu baititugu.

3.3.13.1. Forma.

Denborazko hau -(E)N menderagailuaren gainean eraikitzen da; baina NOIZTIK galde-hitzari erantzuten dionez, -(E)N menderagailuari ABLATIBO marka itsasten zaio.

Forma jokatua denez, zer-nolako adizkiekin agertzen den aztertzea interesgarria izan liteke. Dena den, ez dezagun ahanz bi adibide besterik ez ditugula, beraz, azterketa ezin da inolaz ere erabakiorra izan.

Bi adibide hauetan, batean aspektu burutua eta bestean aspektu eza aurkitzen dugu. Ikus ditzagun biak:

> - ... *nola hamabi egun baino guehiago eztiraden,* ***igan nincenetic*** *Ierusalemera,* ... (Apost.Act.,XXIIII,11)
>
> - ***Veillá*** *(...) iguzquia* ***sar cedinetic*** *ilki arterano gaua laur parte bardinetara partitzen çutén.* (Hitz eta Minçatzeco Manera, 1213.or.)

Gauza jakina da Leizarragak [+iragan] tasuna daramaten aspektu markarik gabeko adizkiak, "aoristoak" deiturikoak, oso maiz erabiltzen dituela adizki burutuak bailiren. Edonola ere, ohart gaitezen azken adibidean, adizkiaren bidez adierazten dena guk **"sartzen zen"** formaren bidez adieraziko genukeena dela. Beraz, ez dut uste aoristo baten aurrean gaudenik.

3.3.13.2. Tokia.

Aipaturiko adibideetan ikus dezakegunez, arlo honetan -(E)NETIC forma ez da gainerako denborazkoetatik bereizten, guztiek mugikortasun handia agertzen baitute.

Hala beraz, -(E)NETIC forma ere perpaus nagusiaren aurrean zein ondoan aurkitu ahal izango dugu:

* Perpaus nagusiaren aurrean:

  - ***Veillá*** *(...) iguzquia* ***sar cedinetic*** *ilki arterano gaua laur parte bardinetara partitzen çutén.* (Hitz eta Minçatzeco Manera, 1213.or.)

* Perpaus nagusiaren ondoan:

  - ... *nola hamabi egun baino guehiago eztiraden,* ***igan nincenetic*** *Ierusalemera,* ... (Apost.Act.,XXIIII,11)

Adibide bana topatu dugu; baina, obra osoan bi adibide bakarrik aurkitu ditugunez, ezin jakin dezakegu posizio baten aldeko joerarik dagoenentz.

3.3.13.3. Balioa.

Azkenik, balioari dagokionez, gogora dezagun hasieran esandakoa, hau da, -(E)NETIC formak NOIZTIK galde-hitzari ematen diola erantzuna.

Ikusi dugunez, oso forma urria da; dena den, kontutan hartu behar dugu Leizarragak adiera hau berau beste forma batzuen bidez ere adierazten duela, urrunegi joan gabe, ondoren aipatuko dugun -(E)NAZ GUEROZTIC formaren bidez.

3.3.14. [-(E)NA]Z GUEROZTIC

Denborazko hau ez dugu oso maiz aurkitzen; dena den, Leizarragak denbora adierazteko hainbeste forma erabiltzen dituenez, normala da forma hauek oso ugariak ez izatea; sarritan, adiera bera bi forma desberdinen bidez adieraz baitaiteke. Edonola ere, obra osoa azterturik, hamaika adibide jaso ditugu, beraz, behintzat aurrekoa bezain urria ez dela esan dezakegu.

3.3.14.1. Forma.

Menderagailu honek bi forma desberdin ager ditzake balio bera adierazteko:

A.- JOKATUGABEAK:

Forma jokatugabeetan GUEROZTIC aditzondoa partizipioarekin agertzen zaigu; hala ere, partizipioak INSTRUMENTAL kasua daramala aipatu behar dugu. Hona hemen, bada, sortzen zaigun forma:

> - ... *eta* ***batheyatuz gueroztic*** *Philipperê aldetic etzén higuitzen* ... (Apost.Act.,VIII,13)

B.- JOKATUAK:

Forma jokatuetan GUEROZTIC aditzondoa -(E)N menderagailuarekin batera aurkitzen dugu. Dena dela, forma hauetan ere INSTRUMENTAL kasua topatuko dugu, kasu honetan -(E)N menderagailuari itsatsirik.

Honez gain, zehaztu dezagun -(E)NAZ GUEROZTIC forma bi adizki motarekin aurki dezakegula, sintetikoekin eta, guk topatu ditugun adibideetan behintzat, aspektu burutua daramaten adizkiekin. Ikus dezagun adibide bana:

> - *Eta hec, Galilean* ***cenaz gueroztic*** *iarreiqui içan çaizcan* ... (Mc.,XV,41)

- ... *baina haur,* ***sarthu naicenaz gueroztic,*** *eztuc ene oiney pot eguitetic guelditu.* (Lc.,VII,45)

Forma jokatu eta jokatugabeen maiztasunari dagokionez, berdintsu agertzen direla aipatu behar dugu, jokatugabeak bost adibidetan eta jokatuak seitan aurkitzen baititugu.

3.3.14.2. Tokia.

Denborazko hauek perpaus nagusiaren baitan hartzen duten kokaguneari dagokionez, posizio baten aldeko joera tinkoa aipatu behar dugu, topatu ditugun hamaika adibideetatik bederatzitan denborazkoa aditz nagusiaren aurrean aurkitzen baitugu:

- ... *eguiarê eçagutzea* ***recebituz gueroztic,*** *ezta guehiago sacrificioric bekatuacgatic guelditzen:* (Hebr.,X,26)

Hala ere, joera nagusitik aldentzen diren salbuespenak ere aipatu behar ditugu, noizbehinka, denborazko hauek azkenengo posizioan ere aurki baititzakegu:

- *Haur cen ia heren aldia Iesus bere discipuluey manifestatu içan çayena hiletaric* ***resucitatuz gueroztic.*** (Io.,XXI,14)

3.3.14.3. Balioa.

Forma honek adierazten duen balioari dagokionez, -(E)NETIC formaren baliokide argia dela aipatu dugu eta halaxe da. Erka ditzagun, bestela, bi adibide:

(1)- ... *nola hamabi egun baino guehiago eztiraden,* ***igan nincenetic*** *Ierusalemera,* ... (Apost.Act.,XXIIII,11)

(2)- *Haur cen ia heren aldia Iesus bere discipuluey manifestatu içan çayena hiletaric* ***resuscitatuz gueroztic.*** (Io.,XXI,14)

Ez dirudi bi formen artean alde handiegirik dagoenik, biek adiera berdina hartzen baitute.

Azkenik, gogora dezagun GUEROZTIC aditzondoa edozein izen sintagmari loturik denbora adierazten duen posposizioa dela:

- ... ***dembora harçaz gueroztic*** *Iaincoaren resumá euangelizatzen da, ...* (Lc.,XVI,16)

- ... *haur* ***ençun vkan guenduen egunaz gueroztic,*** *ezgara baratzen ...* (Col.,I,9)

Kasu hauetan ere, izen sintagmak INSTRUMENTAL kasua darama.

3.4. MODUZKOAK eta KONPARATIBOAK

Gramatika eta gramatikari gehienek bi perpaus mota hauek aztertzeko orduan atal desberdinak eta beraz, azterketa diferenteak eskaintzen dizkiete; edonola ere, perpaus mota desberdinak izan arren, funtsean, zenbait puntu amankomun badituztela aitortu behar dugu.

Honez gain, hainbat formak modua zein konparazioa adieraz dezakete. Adibidez:

1- Zuk [egin duzun] BEZALA egin dut.

Perpaus honek, zalantzarik gabe, NOLA galde-hitzari erantzuten dio; beraz, moduzkoen sarean kokatu beharko genuke; baina, bestalde, perpaus horrek berdintasunezko konparaketa ere adierazten du:

- Zuk HONELA egin duzu
- Nik HONELA egin dut

Beraz:

- Biok BERDIN ["honela"] egin dugu.

Balioaren aldetik sortzen den bikoiztasun hau [-(E)N] BEZALA forman ezezik, beste batzuetan ere aurki dezakegu. Jar dezagun beste adibide bat:

2- "Nik zuk BEZAIN ongi egin dut"

Inork ez luke zalantzarik izango perpaus hau konparatiboen artean kokatzeko unean; dena den, honen bidez, ez al da modua ere adierazten? Azken finean, konparatibo horrek NOLA galde-hitzari erantzuten dio.

Bikoizketa hau, noski, ez da aipatuko ditugun forma guztietan somatzen, baina batzuk halakoak izanik, zer egin hauekin?, non kokatu?; azken finean, forma hauetan, non dago moduaren eta konparazioaren arteko muga "igaroezina"?

Gauzak horrela, moduzkoak eta konparatiboak batera aztertzeari egokiena iritzi diogu; dena den, esan dezagun berriz ere, forma guztiak ez direla horrelakoak; beraz,

batera ikasi arren, alde batetik modua bakarrik adieraz dezaketenak eta, bestetik, konparazioa -eta inoiz modua ere- adieraz dezaketenak bereiziko ditugu.

Ikus dezagun, bada, proposaturiko sailkapena:

A.- MODUA ADIERAZTEN DUTENAK:

3.4.1. -(E)LA / -(E)LARIC

3.4.2. -(R)IC

3.4.3. -(E)Z

3.4.4. -(E)N BECEMBATEAN

3.4.5. -(R)EN ARAURA/ARAUEZ

B.- KONPARAZIOA (eta inoiz MODUA ere) ADIERAZTEN DUTENAK:

3.4.6. (HALA)... NOLA... BAIT-, ... (HALA)

3.4.7. [-(E)N] BEÇALA

3.4.8. BEÇAIN

3.4.9. [-(E)N] BECEMBAT

3.4.10. CEMBAT(ENAZ) ... (-AGO) ... BAIT-, HAMBAT(ENAZ)... -AGO

3.4.11. [-(E)N] BAINO... -AGO

3.4.12. -AGO... ECEN EZ

A.- MODUA ADIERAZTEN DUTENAK:

3.4.1. -(E)LA / -(E)LARIC

Menderagailu honen berri denborazko perpausak aztertzean eman genuen. Atal hartan aipatzen genuenez, adiera anitz har ditzakeen forma baten aurrean gaude. Izan ere, Leizarragaren obra osoa azterturik, menderagailurik ugarienetarikoa dela ohartzen gara; beraz, normala da menderagailu honek balio bat baino gehiago adieraztea.

Denborazko perpausen artean, zenbait adibidetan menderagailuak adierazten zuen balioa aztertzean, zalantzak sortzen zitzaizkigun ez baitzegoen oso argi denbora ala beste zerbait adierazten zuen. Eta "beste zerbait" horren barruan, dudarik gabe, moduzko adiera sartu behar dugu, agian menderagailu honek duen adierarik garrantzitsuena (edo behintzat Leizarragak usuen darabilena).

3.4.1.1. **Forma**.

A.- Menderagailu honen forma aztertzeko, denborazko perpausez hitz egitean esandakoa ekarri behar dugu gogora, menderagailu beraren aurrean aurkitzen baikara.

Dakigunez, -(E)LA menderagailu nagusian oinarrituriko forma dugu; baina, honez gain, menderagailu honek izan dezakeen aldaera bat ere aipatu behar dugu, zenbait adibidetan -(E)LA atzizkiari -(R)IC marka atxikitzen baitzaio, -(E)LARIC aldaera sortaraziz.

Maiztasunari dagokionez, bi formen adibideak zenbatzen baditugu, -(E)LA gehiagotan topatzen dugula aitortu behar dugu:

> - *Eta iragaiten ciradenéc iniuriatzen çuten hura, bere buruäc* **higuitzen cituztela**. (Mt.,XXVII,39)

Edonola ere, -(E)LARIC forma hasierako Ebanjelioetan urri samarra izan arren, aurrera egin ahala gero eta maizago aurkitzen dugu. Izan ere, azkenengo Epistoletan eta, -(E)LARIC formak -(E)LA-k adinako garrantzia du:

> - *Diacreac diraden emazte bederaren senhar,* ***gobernatzen dituztelaric*** *honestqui bere haourrac* ... (Tim.1,III,12)

Eta bestalde, Testamentutik at, Leizarragak berak sorturiko testuetan, -(E)LARIC forma nagusitzen da, adibide ia guztietan hauxe aurkitzen dugu eta:

> - ... *nahi çaituê othoi bere Spiritu sainduaz bethi* ***illuminatzen çaituelaric*** *(...) luçaqui conseruatu.* (Guc.,28-32,253.or.)

B.- -(E)LA(RIC) menderagailuak izan ditzakeen aldaerak alde batera utzirik, ez dago esan beharrik menderagailu hau menpeko perpausaren aditzari atxikitzen zaiola. Beraz, azter ditzagun menderagailu hau aurki dezakeguneko kontestuak.

Leizarragaren obran topatu ditugun adibide guztiak azterturik, gure idazleak oso jokabide tinkoa agertzen duela aipatu behar dugu, adibide gehienak bi kontestutan aurkitzen baititugu: adizki sintetikoekin eta aspektu ezburutua daramatenekin. Hala ere, honek ez du esan nahi bestelako aspektu-markarik aurkituko ez dugunik, baina bai hauek ez direla, inondik inora, arestian aipaturiko biak bezain sistematikoak. Ikus dezagun adibideen bidez:

1. ADIZKI SINTETIKOAK:

> - ... *eta thumbetan cen oihuz* ***cegoela****, eta bere buruäri harriz* ***ceraunsala****.* (Mc.,V,5)

2. ADIZKI PERIFRASTIKOAK:

2.1. <u>Puntukariak</u>(Aski urriak):

> - *Eta eztugu nehoren oguia dohainic ian: baina trabaillurequin eta nequerequin gau eta egun* ***languiten ari guinadela****,* ... (Thes.2,III,8)

2.2. Aspektu burutua dutenak(Are urriagoak):

- *... eriden ceçan deabrua* ***ilki cela****, eta alabá ohe gainean cetzala* (Mc., VII,30)

(Ohart gaitezen adibide ilunak direla konpletiboak ere izan bailitezke)

2.3. Aspektu ezburutua dutenak:

(Ezbairik gabe, maizenik aurkitzen ditugunak)

- *Eta truffatzen ciraden harçaz gendarmesac-ere,* ***hurbiltzen çaizcala*** *eta vinagre* ***presentatzen ceraucatela*** (Lc.,XXIII,36)

Adizki sintetikoak izan ezik, gainerako guztiak aspektu-markadun aditzak dira. Hortaz, moduzko perpaus hauen artean aspektu-markarik gabeko aditz perifrastikorik ez dugu aurkituko.

3.4.1.2. Tokia.

Tokiaz hitz egiteko bereizketa bat egin behar dugu:

A.- Lehendabizi, -(E)LA(RIC) menderagailuak menpeko perpausaren baitan hartzen duen kokagunea aztertzen badugu, menderagailuaren mugikortasuna azpimarratu behar dugu, hiru posizio desberdinetan aurki baitezakegu:

* Hasiera-hasieran:

- *... ençun ceçan hura,* ***iracurtzen çuela*** *Esaias prophetá ...* (Apost.Act.,VIII,30)

* Tartean:

- *... sinhetsiren lituzten guciac, hura baithan berean* ***eçarten lutelaric*** *bere confidança ...* (Som.,3-5,275.or.)

* Amaieran:

- *... ethor cedin harengana guiçombat, haren aitzinean* ***belhauricatzen cela.*** (Mt.,XVII,14)

B.- Bestalde, -(E)LA(RIC) menderagailuaren bidez sortzen diren moduzkoek perpaus nagusiaren baitan hartzen duten kokalekuaz hitz egin dezakegu eta, honetan ere, moduzko perpaus hauen mugikortasuna litzateke aipagai. Ikus ditzagun, beraz, posizio desberdinetako adibideak:

* Perpaus nagusiaren aurrean:

(Adibide gehienak nagusiaren ondoan aurkitzen ditugu, baina posizio hau ere aski ugaria da)

- *Eta* ***ihardesten çuela*** *Iesusec erran cieçón, ...* (Mt.,III,15)

* Perpaus nagusiaren ondoan:

- *... ikus neçâ berce Ainguerubat iausten cela cerutic, bothere hâdia* ***çuela*** ... (Apo.,XVIII,1)

* Perpaus nagusiaren barruan txertaturik:

- *... has cedin nigarrez* ***cegoela*** *haren oinén nigar vriz arregatzen ...* (Lc.,VII,38)

3.4.1.3. Balioa.

Lehendabizi, -(E)LA eta -(E)LARIC menderagailuen artean, balioari dagokionez behintzat, desberdintasunik ez dagoela, alegia, baliokideak direla aipatu behar dugu. Erka ditzagun, bestela, hurrengo bikoteak:

(1)- *... Baina harc* ***mehatchatzen cituela****, etzituen vtziten erraitera...* (Lc.,IIII,41)

(1')- *Orduan harc* ***mehatchatzen cituelaric*** *mana citzan nehori haur ezlerroten.* (Lc.,IX,21)

(2)- *Eta hacia ilkiten eta hatzen licén, harc* ***ezlaquiala*** *nola.* (Mc.,IIII,27)

(2')- *... cer equin cen* ***etzaquialaric****, sar baitzedin.* (Apost.Act.,V,7)

Hau argituta, azter dezagun menderagailu honen bidez adierazten den balioa:

A.- MODUZKO ADIERA ARGIA:

Moduzko adiera honen barruan bereizketa batzuk egin behar ditugu:

1.- Adibide gehienetan, -(E)Z jerundioaren bidez ere adieraz genezakeen moduzko balio argia dugu:

> - *Eta inguratzen cituen Iesusec hiri eta burgu guciac,* ***iracasten ari cela*** *hayén synagoguetan, eta* ***predicatzé çuela*** *resumaco Euangelioa eta* ***sendatzen çuela*** *eritassun mota gucia ...* (Mt.,IX,35)
>
> - *Aitzitic iraitzi ditugu ahalquezco estalguiac,* ***ebilten garela*** *ez fineciarequin, eta ez Iaincoaren hitza* ***falsificatzen dugula****, baina eguiaren declarationez* ***approba eracíten ditugula*** *gure buruäc ...* (Cor.2,IIII,2)

2.- Besteetan, berriz, -T(Z)EN jerundioaren bidez adieraz genezakeen modalitatea dugu, batez ere, ICUSSI, ERIDEN, ENÇUN ... eta halako aditzen menpe sortzen diren perpausetan:

> - *... eriden baitzeçatê hura templean, iarriric* ***cegoela*** *doctoren artean, haey* ***behatzen çayela*** *eta hec* ***interrogatzen cituela****.* (Lc.,II,46)
>
> - *Orduan ikus eta ençun neçan Ainguerubat* ***hegaldatzen cela*** *ceruären erdiaz, ...* (Apo.,VIII,13)

3.- Azkenik, moduzkoen artean, Leizarragak sarritan darabilen beste molde bat ere aipatu behar dugu. Perpaus hauetan modua adierazten da, baina neurri handi batean, erlatibozkoetatik hurbil daude. Izan ere, perpaus hauek Haranederrek dituenekin erkatzen baditugu, honek sarritan erlatibozkoak darabiltzala ohartzen gara:

> (1)- *Ecen içanen dituc guiçonac bere buruentár, auaritioso, vantari (...) Traidore, temerario, hantuac, Iaincoari baino voluptatey hobe erizle. Pietatearen irudia* ***dutelaric****, baina haren verthutea* ***vkatzen dutelaric*** *...* (Leiz., Tim.2,III,2-5)
>
> - *... traidoreac, temerarioac, orguilleriaz hantuac, Jaincoa baino bere atseguiña maiteago* ***dutenac****, jaincotiartassunaren itchurapen bat bada*

dutenac, *ordean haren eguiazco Izpirituari ukho eguiten* **diotenac**. (Haran., Tim.2,III,4-5)

(2)- *Ecen ichilic sarthu içan dirade guiçon batzu (...) gende Iaincoaren beldur gabeac, gure Iaincoaren gratia* **cambiatzen dutela** *(...) eta Iesus Christ gure Iauna* **renuntiatzen dituztela**. (Leiz., Ivda,4)

- *Sarthu içan dire ecen gure arterat guiçon batçu (...) Jaincoaren beldur gabeac, gure Jaincoaren gracia gambiatcen* **dutenac** *(...) eta gure Jauna ukhatcen* **dutenac**. (Haran., Ivda,4)

Perpaus hauek Haranederrek ez ezik, geuk ere, gaur egun, erlatibozkoen bidez adieraziko genituzke; hala ere, Leizarragaren obran aurkitzen ditugunak, ezbairik gabe, moduzkoak dira.

B.- ZALANTZAK SORTARAZTEN DIZKIGUTEN ADIBIDEAK:

Orain arte, zalantzarik gabeko adiera modala duten adibideak aztertu ditugu; baina, adibide guztiak ez dira arestian aipaturikoak bezain argiak, batzuetan moduzko adiera ez baita hain errez somatzen.

Menderagailu honen bidez, denborazko perpausak ere sortzen dira; beraz, zenbait adibidetan modua ala denbora adierazten den zalantzatan egon daiteke. Ikus dezagun adibide bat:

- *Eta ekarriric aretze guicena, hil eçaçue: eta* **iaten dugula** *atseguin har deçagun.* (Lc.,XV,23)

Adibide honen aurrean bi interpretazio eskain genezake:

* Iaten dugun bitartean
* Ianez

Seguraski, Leizarragak moduzko adiera eman nahi izan zion; dena den, honelako adibideetan zalantzak sor

daitezkeela aitortu behar dugu, kasu hauetan moduaren eta denboraren arteko muga ez baita inolaz ere zehatza.

Bestetik, zenbait adibidetan (batez ere, perpaus nagusiaren aurrean agertzen diren batzuetan) moduzko adieratik hurbil dagoen kutsu "kausal-esplikatiboa" edo aurki dezakegu. Ikus ditzagun adibide batzuk:

> - *Baina oraino hec alegueraz* ***sinhesten etzutela****, eta miraz* ***ceudela****, errâ ciecén, ...* (Lc.,XXIIII,41)
>
> - ***Çaquialaric*** *bada Iesusec bere baithan ecen haren discipuluéc huneçaz murmuratzé çutela, erran ciecén ...* (Io.,VI,61)

Perpaus hauek, gure erregistroetan -(E)NEZ (GERO) menderagailuaren bidez adieraziko genituzkeenen baliokideak dira. Edozein modutan, gure egunetara jo gabe, Haranederrek berak ematen digu balio honen berri:

> a - *Eta anhitz egunez baratch* ***ioaiten guenela****, eta nequez Gnidaco aurkara helduric, haiceac* ***permettitzen etzeraucalaric****, iragan guentecen ...* (Leiz., Apost.Act.,XXVII,7)
>
> a' - ***Nola*** *hainitz egunez nekhez* ***baiguinohacen*** *eta doi doya ere irabaci* ***baiguinduen*** *Gnida gainerat haiceac* ***debecatcenez****, ethorri guinen ...* (Haran., Apost.Act.,XXVII,7)

Zalantzatan jar genezake -TZENEZ forma jokatugabearen bidez modua ala kausa adierazten den; baina lehenengo perpausa (NOLA... BAIT- menderagailua daramana) zalantzarik gabe, kausal-esplikatiboen sarean kokatu behar dugu.

Edonola ere, honek ez du esan nahi perpaus nagusiaren aurrean agertzen diren -(E)LA(RIC) menderagailudun perpaus guztiak "kausal-esplikatiboak" direnik, moduzko argiak ere aurki baititzakegu:

> - *Eta othoizte* ***eguiten çutela*** *erran ceçaten, ...* (Apost.Act.,I,24)

Laburbilduz, esan dezakegu Leizarragak menderagailu honen bidez, adibide gehienetan behintzat, modua adierazten duen arren, zenbait adibidetan moduzkoetatik oso urrun ez dagoen balio "kausal-esplikatiboa" ere adierazten duela.

3.4.2. -(R)IC

Aurreko menderagailua bezala, orain aztertzen dugun forma denborazkoen artean ere aipatu dugu. Beraz, forma honetaz ere balio bat baino gehiago har dezakeela esan behar dugu.

Bestalde, agerian dago forma jokatugabe baten aurrean aurkitzen garela. Izan ere, moduzko perpaus hauek partizipioari -(R)IC marka -hainbat modu-aditzondotan aurkitzen duguna- erantsiz lortzen ditugu:

> - *... participant* ***eguin içanic****, haren irudi gloriazcoa gutan imprimitzen dela, eta (...) heredero* ***eguinic*** *ceruëtaco resumá côplituqui possedituren dugula ...* (Adv.,2-5,273.or.)

3.4.2.1. Tokia.

A.- Lehendabizi, menderagailu honek moduzko perpausaren baitan hartzen duen kokalekuaz hitz egin nahi badugu, nahitaez, menderagailuaren mugikortasuna aipatu behar dugu, forma hauek moduzko perpausaren hasiera-hasieran zein bukaeran aurki baititzakegu:

* Hasieran:

> - *Eta* ***hedaturic*** *bere escua bere discipuluén gainera, erran ceçan, ...* (Mt.,XII,49)

* Amaieran:

> - *Eta guiçón gaztebat iarreiqui içan çayón gorputz billuciaren gainean inguru mihisse batez* ***estaliric****, ...* (Mc.,XIIII,51)

B.- Beste alde batetik, menderagailu honen bidez sortzen diren moduzko perpausek perpaus nagusiaren barruan hartzen duten kokaguneaz ere hitz egin dezakegu. Menderagailuak posizio batean zein bestean agertzeko askatasun handia badu, moduzko perpausez ere gauza bera esan behar dugu, hiru posizio desberdinetan aurki baititzakegu:

* Perpaus nagusiaren aurrean:

(Kontestu hau ugarienetarikoa da; dena den, gero ikusiko dugunez, zalantza gehien sortarazten dituena ere bada.)

- ... *eta* **ioric** *Pierrisen seihetsa, iratzar ceçan,* ... (Apost.Act.,XII,7)

* Perpaus nagusiaren ondoan:

(Aurrekoa bezain ugaria izan ez arren, oso kontutan hartu beharreko kontestua da.)

- ... *fortifica cedin fedez Iaincoari gloria* **emanic**. (Rom.,IIII,20)

* Perpaus nagusiaren barruan tartekaturik(Urriena):

- *Eta huná, Iesusequin ciradenetaric batec,* **auançaturic** *escua, idoqui ceçan bere ezpatá,* ... (Mt.,XXVI,51)

3.4.2.2. Balioa.

Forma honen berezko balioa "denborazkoa" dela ematen du, adibide gehienak multzo horretan kokatu behar baititugu. Baina, sail honetan denborazko adiera horretatik aldendu eta modua adieraz dezaketen formak aztertu behar ditugu. Dena dela, kasu askotan, -batez ere perpaus nagusiaren aurrean agertzen direnen artean- denbora ala modua adierazten den ez da errez somatzen. Ikus ditzagun bi adibide:

(1)- ... *bere buruä beguitharte gainera* **egotziric** *othoitz ceçan* ... (Lc.,V,12)

(2)- ... *eta buruä* **beheraturic** *renda ceçan spiritua.* (Io.,XIX,30)

Azken finean, bi perpaus hauek zer adierazten digute, NOLA egin zuen otoitz edo NOLA rendatu zuen izpiritua ala NOIZ? Bi interpretazioak zilegi izan litezke; baina agian DENBORAren nagusitasuna onartu beharko genuke.

Edonola ere, moduzko adiera, zenbait adibidetan behintzat, ukaezina da:

(3)- ... *voz humanoz* ***minçaturic*** *repremi ceçan Prophetaré frenesiá.* (Pier.2,II,16)

Gainera, Haranederren obrara jotzen badugu, moduzko adiera hori errezago somatuko dugu. Batzuetan Haranederrek Leizarragak bezala jokatzen du -(R)IC erabiliz -aurreko adibidean, kasu-; baina besteetan modua adierazten duten menderagailuak darabiltza:

(4)- *Eta eçar ceçaten haren buru garayan haren causá,* ***scribaturic,*** *HAVR DA IVDVEN REGVEA.* (Leiz., Mt.,XXVII,37)

- *Eman içan ere çuten haren buruco gaiñean* ***scribuz*** *haren condenacionearen sujeta, ...* (Haran., Mt.,XXVII,37)

(5)- ... *badiradela hemen present diradenotaric batzu, herioa dastaturen eztutenic, Iaincoaré resuma bothererequin* ***ethorriric*** *dacusqueiteno.* (Leiz., Mc.,IX,1)

- ... *badiradela hemen direnetaric cembait hillen ez direnic, icussi içan gabetacoric* ***arribatcen*** *Jaincoaren Erressuma bere bothererequien.* (Haran., Mc.,IX,1)

(6)- ... *hil içan dirade promessac recebitu gabe: baina vrrundanic hec* ***ikussiric eta sinhetsiric eta salutaturic, eta aithorturic*** ... (Leiz., Hebr.,XI,13)

- *Fedean hill içan dire haiec guciac, errecibitu gabetaric aguindu citçaizten onac, baiñan urrundic hei* ***behatcen eta agur eguiten ciotela, eta aithortcen çutelaric*** ... (Haran., Hebr.,XI,13)

Azkenik, esan dezagun Leizarragak oso maiz darabilela forma hau, baina gehienetan aditzondo soila besterik ez dela:

- ... *declaraturen ditut munduaren fundatzetic* ***gorderic*** *egon içan diraden gauçác.* (Mt.,XIII,35)

3.4.3. -(E)Z

Oraingo forma, adierazten duen balioari dagokionez, -(R)IC eta -(E)LA(RIC) menderagailuen baliokidetzat jo dezakegu, hirurek -modua adierazten dutenean, jakina-adiera berdintsua baitaukate. Beraz, ikusten dugunez, Leizarragak balio bera adierazteko menderagailu ugari erabiltzen ditu Testamentuaren itzulpenak berez eskatzen zuen apaltasunaren barruan joritasuna edo erakutsi nahirik.

3.4.3.1. Forma.

Modua adierazteko erabiltzen dugun forma hau, ezinbestez, jokatugabeen artean kokatu behar dugu. Edonola ere, forma jokatugabeen artean bereizketa bat egin behar dugu:

A.- Adibide gehienetan, -(E)Z marka -zenbait modu-aditzondotan aurkitzen duguna- PARTIZIPIOARI itsasten zaio, honako hau sortaraziz:

> - ... *exemplu hura baithan har gueneçançat, haren vorondateari* ***iarreiquiz****, obra onic* ***eguinez****, haraguiaren obra eta eguitate guciez* ***renuntiatuz****, (...)* ***cerbitzatuz*** *(...) sainduqui gure içatea* ***iraganez*** ... (Som., 13-19, 277.or.)

B.- Zalantzarik gabe, adibide gehienak aurreko multzoan sartu behar ditugu; nolanahi ere, bigarren forma bat ere aipatu behar dugu: ADITZ IZENA + -(E)Z

> - ... ***Ençutez*** *ençunen duçue, eta ez adituren: eta dacussaçuela ikussiren duçue* ... (Mt.,XIII,14)
>
> - ... *ceinec irabaci hâdia emaiten baitzerauen bere nabussiey,* ***asmatzez*** (Apost.Act.,XVI,16)

Aipaturiko lehenengo adibidean ikusten dugunez, ENÇUTEZ eta DACUSSAÇUELA formek baliokideak dirudite;

bestalde, bigarren adibidean ASMATZEZ formak, dudarik gabe, modua adierazten digu, "NOLA, zeren bidez ematen zien irabazi handia" ematen baitigu aditzera.

Egitura hauek, agian, izen soiltzat jo beharko genituzte -ez dezagun ahaztu, azken finean, aditz izenen aurrean gaudela-; edozein modutan, arreta handiagoz aztertu beharreko puntua dela dirudi.

C.- Azkenik, aipa dezagun -(E)Z atzizkia partizipioekin eta aditz izenekin ezezik, izen arruntekin ere aurki dezakegula, hauekin ere moduzko adierarekin.

Izen hauek aditzei itsatsirik egitura bereziak sortarazten dituzte. Ikus ditzagun, bada, hauetako batzuk:

* NAHIZ:

  - ... *eta çabiltzâ hura barnera* ***ekarri nahiz*** *eta haren aitzinean* ***eçarri nahiz***. (Lc.,V,18)

* USTEZ:

  - *Eta hura beguira çayen çorrozqui, hetaric cerbait* ***recebitu vstez***. (Apost.Act.,III,5)

* GOGOZ:

  - ... *hala ordenatu çuen, berac bide hura oinez* ***eguin gogoz***. (Apost.Act.,XX,13)

* BELDURREZ:

  - ... *Syrtera* ***eror beldurrez***, *velác erautsiric, berehala eramaiten ciraden.* (Apost.Act.,XXVII,17)

* IRUDIZ:

  - *Iresten dituztela ema alhargunén etcheac, are luçaqui* ***othoitz eguin irudiz*** ... (Mc.,XII,40)

Forma hauek badirudi aditzarekin bat egiten dutela, moduzko perpausa bien artean sortuz.

Bestalde, aipa dezagun, berez, izenak izan arren konpletibo bat eraman dezaketela aldamenean:

  - *Baina* ***vstez*** *hura compainian cen, ioan citecen* ... (Lc.,II,44)

- ... *baina patient da guregana, ez* **nahiz** *nehor gal dadin, baina guciac emendamendutara datocen.* (Pier.2,III,9)

- ... **beldurrez** *gauza ez ledin moldez burutan ilki* ... (Guc., 17-18,252.or.)

Formarekin amaitzeko, esan dezagun Leizarragaren obran "PARTIZIPIOA + NAHIZ" egitura dela nagusi.

3.4.3.2. Tokia.

Forma honek hartzen duen tokiaz hitz egin nahi badugu, aurreko atalean aztertu genuen -(R)IC formaz esandakoa ekar genezake gogora, biek mugikortasun berdina agertzen baitute. Izan ere, -(E)Z formak moduzko perpausaren baitan hartzen duen kokagunea aztertzen badugu, hiru posizio desberdinetan aurki dezakegula jabetuko gara:

* Hasieran:

  - ... *eta* **tiratuz** *bortchaz guiçonac eta emazteac presoindeguian eçarten cituen.* (Apost.Act.,VIII,3)

* Tartean:

  - *Baina Festusec atseguin* **eguin nahiz** *Iuduey (...) erran ceçan,* ... (Apost.Act.,XXV,9)

* Amaieran: (Zalantzarik gabe, ugariena)

  - *Eta trabaillatzen gara, gure escu propiéz* **lan eguinez**. (Cor.1,IIII,11)

Bestalde, moduzko perpausak perpaus nagusiaren baitan hartzen duen kokagunea aztertu nahi badugu, gauza bera aipatu behar dugu, moduzko perpausak menderagailuak bezain mugikorrak direlako. Beraz, posizio finkorik ezean, perpaus hauek honako posizio hauetan aurkituko ditugu:

* Perpaus nagusiaren aurrean:

  - ... *eta harengana* **laster eguinez** *saluta ceçaten.* (Mc.,IX,15)

* Perpaus nagusiaren ondoan:

- *Sustengatu vkan du Israel bere haourra, bere misericordiáz* ***orhoit içanez.*** (Lc.,I,54)

* Perpaus nagusiaren barruan tartekaturik:

- *Eta norc çuetaric* ***artha vkanez*** *eratchegui ahal dieçagueo bessobat bere hâditassunari?* (Mt.,VI,27)

3.4.3.3. Balioa.

Sarreran aipatu dugunez, -(E)Z formaren bidez adierazten den balioa, neurri handi batean, -(R)IC eta -(E)LA(RIC) moduzkoen bidez adierazten dena da. Izan ere, Leizarragaren adibideak Haranederrek dituenekin erkatzen baditugu, azken honek, askotan, Leizarragaren -(E)Z formaren ordez, -(R)IC edo -(E)LA(RIC) erabiltzen dituela jabetzen gara. Ikus ditzagun adibide batzuk:

(1)- ... *Magistru oná, cer* ***eguinez,*** *vicitze eternala possedituren dut?* (Leiz., Lc.,XVIII,18)

- ... *Naussi ona, cer* ***eguinic*** *ardiets deçaquet bicitce eternala?* (Haran., Lc.,XVIII,18)

(2)- ... *bere arimác gommenda bietzote* ***vngui eguinéz.*** (Leiz., Pier.1,IIII,19)

- ... *obra onetan* ***hari direlaric,*** *gomenda biotçote bere arimac bere creatçaille fidelari.* (Haran., Pier.1,IV,19)

Edonola ere, Haranederren obrara jo gabe, Leizarragak berak menderagailu desberdinak dituzten adibide berdintsuak aurkezten dizkigu, menderagailu hauen artean desberdintasun handiegirik ez dagoela agerian utziz:

(3)- ... *eta haren aitzinean* ***belhauricatuz*** *truffatzen ciraden harçaz ...* (Mt.,XXVII,29)

- ... *eta harengana* ***laster eguinez*** *saluta ceçaten.* (Mc.,IX,15)

- ... *norbeitec harengana* **laster eguinic**, *eta haren aitzinean* **belhauricaturic**, *interroga ceçan*, ... (Mc.,X,17)

- ... *ethor cedin harengana guiçombat, haren aitzinean* **belhauricatzen cela**. (Mt.,XVII,14)

(4)- *Orduan içanen dirade signoac iguzquian (...) eta lurrean afflictione nationetá* **ez iaquinez** *cer eguin*, ... (Lc.,XXI,25)

- *Eta hacia ilkiten eta hatzen licén, harc* **ezlaquiala** *nola*. (Mc.,IIII,27)

Guztiek modua adierazten dute eta, agian, aipa dezakegun desberdintasun bakarra -(R)IC formak daraman [+iragan] tasuna da, adibide gehienetan, -(E)Z edo -(E)LA(RIC) formek adierazten dituzten ekintzak ezburutuak diren artean, -(R)IC honek ekintza burutuak aurkezten baitizkigu. Hala eta guztiz ere, aski parekoak direla aitortu behar dugu.

Bestalde, -(E)LA(RIC) forma aztertzean, honek balio modalaz gain, moduzko adieratik oso urrun ez dabilèn adiera "kausal-esplikatiboa" ere har zezakeela esan genuen. -(E)Z formari gagozkiolarik, puntu honetan -(E)LA(RIC) formarekin bat datorrela ikusten dugu, zenbait adibidetan kausazko adiera hau aise soma baitezakegu:

- *Eta hec* **ez vkanez** *nondic paga, quitta cieceán biey*. (Lc.,VII,42)

- *Eta içorra* **içanez** *heyagoraz cegoen* ... (Apo.,XII,2)

Laburbilduz, esan dezakegu -(E)Z forma -(R)IC eta, batez ere, -(E)LA(RIC) formaren baliokide argia izanik, bi adiera har ditzakeela: modala eta kausal-esplikatiboa -azken hau, aditz nagusiaren aurreko adibideetan, nagusiki-.

3.4.4. -(E)N BECEMBATEAN

3.4.4.1. Forma.

Modua adierazten duten forma jokatugabeak alde batera utzirik, orain -(E)N menderagailuaren gainean eraikiriko forma bat aztertu behar dugu:

> - *Eta hilén resurrectioneaz* ***den becembatean****, eztuçue iracurri ...* (Mt.,XXII,31)

Egia esan, gramatikari gutxik ematen dute menderagailu honen berri eta aipatzen duten horiek Leizarragak darabilen formatik zertxobait aldentzen den menderagailu bat aipatzen dute. Ikus dezagun, esate baterako, Villasantek aurkezten digun forma:

> *"El mismo autor (Ax.), para expresar la idea de "en cuanto a", "por lo que se refiere a" se sirve de la locución* ***denaz bezanbatean****, precedida de nombre en caso instrumental de la declinación definida."*[1]

Axular ezezik, Haraneder ere DENAZ BEÇAMBATEAN formaz baliatzen da bere obran:

> - *Hillen bitzteaz* ***denaz beçambatean****, ez duçue iracurri ...* (Haran., Mt.,XXII,31)

Beraz, ikusten dugunez, Axularrek edo Haranederrek INSTRUMENTAL kasu-marka -(E)N atzizkiari eransten diote; Leizarragak, ordea, -(E)N menderagailua hutsik uzten du, INSTRUMENTALA -agertuz gero- aurreko sintagmari atxikiz.

---

[1] VILLASANTE, L., Sintaxis de la oración compuesta, 130.or.

Bestalde, -(E)N BECEMBATEAN menderagailuaren bidez sor daitezkeen bi egitura mota bereizi behar ditugu:

1. INSTRUMENTALA + DEN BECEMBATEAN:

Kasu honetan menderagailua baino gehiago esapidea dirudi, oso kontestu zehatzean aurkitzen baitugu. Aurreko sintagmak, derrigorrez, instrumental-marka hartzen du eta honen ondoan IZAN aditza aurkitzen dugu, gainera, beti, sistematikoki, hirugarren pertsona singularra. Beraz honako adibide hauek topa ditzakegu:

- *Baina egun harçaz eta orenaz* ***den becembatean,*** *nehorc eztaqui ...* (Mt.,XXIIII,36)

- *... Aleguera naiz bada çueçaz* ***den becembatean ...*** (Rom.,XVI,19)

Esan dezagun, bide batez, obra osoa azterturik, egitura hau maizenik topatzen duguna dela.

2. -(E)N BECEMBATEAN:

Hau moduzko perpausak sortzen dituen menderagailu arrunta da. Edozein aditzekin (baita IZAN aditzarekin ere, noski) aurkitzen dugu eta, bestalde, aurrean ez du sintagma jakinik behar agertu ahal izateko. Hona hemen adibide batzuk:

- *Eta bothere eman drauca iugemendu-ere eguiteco, guiçonaren Seme* ***den becembatean.*** (Io.,V,27)

- *... eztu saindúen necessitatea supplitzen solament, baina abundatzen-ere badu anhitzec Iaincoari esguerrac* ***drauzquioten becembatean*** *(...) Eta çuengatic* ***othoitz eguiten duten becembatean*** *çuen desira dutelaric, ...* (Cor.2,IX,12-14)

3.4.4.2. Tokia.

-(E)N BECEMBATEAN menderagailu edo esapidearen bidez eraikitzen diren perpausak aztertzen baditugu, gainerako perpaus txertatuek bezala, kokagune finkorik ez dutela ohartuko gara. Izan ere, moduzko hauek perpaus nagusiaren aurrean, ondoan zein barruan tartekaturik aurki ditzakegu. Dena dela, mugikortasun honen barruan, posizio baten aldeko joera tinkoa aipatu behar dugu, adibide gehienak perpaus nagusiaren aurrean aurkitzen baititugu.

Ikus ditzagun, halere, hiru posizioetako adibideak:

* Perpaus nagusiaren aurrean:

  - ... *ethor ahal daitequeen emendioaz* ***den becébatean,*** *bercéc iugeaturen duté.* (Guc.,16-17, 253.or.)

* Perpaus nagusiaren ondoan:

  - ... *hunela erran vkan du çazpi garren egunaz* ***den becembatean,*** ... (Hebr.,IIII,4)

* Perpaus nagusiaren barruan tartekaturik: (Urriena)

  - *Syluano gure anaye,* ***vste dudan becembatean,*** *fidelarequin, laburqui scribatu drauçuet* ... (Pier.1,V,12)

3.4.4.3. Balioa.

Menderagailu honen bidez adierazten den balioari dagokionez, formaz hitz egitean aipatu dugun bi egituren arteko bereizketa ekarri behar dugu berriz ere gogora, bereizketa horren arabera, bi adiera desberdindu baititzakegu:

1. Alde batetik INSTRUMENTALA + DEN BECEMBATEAN egitura dugunean, nagusitzen den balioa gaur egun hegoaldeko euskalkietan behintzat "-(R)I DAGOKIONEZ" egituraren bidez adieraziko genukeena da:

  (1)- *Baina Gentil sinhetsi dutenez* ***den becembatean,*** *guc scribatu diagu,* ... (Apost.Act.,XXI,25)

(2)- *Euangelioaz* ***den becembatean****, bay etsay dirade çuen causaz, baina electioneaz* ***den becembatean****, onhetsiac, ...* (Rom.,XI,28)

2. -(E)N BECEMBATEAN formak, ordea, beste adiera bat hartzen du: gaur egun, -(E)N ALDETIK formaren bidez adieraziko genukeena, hain zuzen ere. Ikus ditzagun adibide batzuk:

(3)- *... ni Gentilén Apostolu* ***naicen becembatean****, neure ministerioa ohoratzen dut.* (Rom.,XI,13)

(4)- *Badaric-ere gauça hauc badute cerbait sapientia irudi bere vorondatezco deuotionean, eta spirituzco humilitatean, eta gorputza gupida* ***eztuten becembatean****: eztirade ordea eceinere preciotaco ...* (Col.,II,23)

Bigarren egiturak balio honez gain beste adiera bat ere har dezake, zenbait adibidetan -(R)EN ARABERA-ren baliokidea dela ematen baitu:

(5)- *Eta Iesus bera hasten cen hoguey eta hamar vrtheren inguruco içaten, seme* ***(estimatzen çuten becembatean)*** *Iosephen, ...* (Lc.,III,23)

(6)- *Syluano gure anaye,* ***vste dudan becembatean****, fidelareguin, laburqui scribatu drauçuet ...* (Pier.1,V,12)

Edonola ere, egiturarik erabiliena lehenengoa izanik, adierarik garrantzitsuena -(R)I DAGOKIONEZ formari dagokiona dela esan dezakegu.

3.4.5. -(R)EN ARAURA / ARAUEZ

Forma hau, zalantzarik gabe, moduzkoen artean sartu behar dugu, horixe adierazten baitu; baina argi eta garbi utzi behar dugu ez gaudela menderagailu baten aurrean, modua adierazten duen aditzondo edo posposizio baten aurrean baizik.

Hala izanik ere, azter dezagun moduzko posposizio hau.

3.4.5.1. Forma.

Posposizio honek, izenburuan bertan ikus dezakegunez, bi forma har ditzake: ARAURA eta ARAUEZ. Dena dela, ez dirudi bien artean bereizketarik egin daitekeenik; beraz, balio bera adierazten duten bi aldaera direla baiezta dezakegu.

Bi forma hauen maiztasunari dagokionez, Leizarragak biak berdintsu erabiltzen dituela aipatu behar dugu. Agian, ARAURA bestea baino ugariagoa da; baina bien arteko aldea oso-oso txikia da; hortaz, formaz desberdinak izan arren, bai adierazten duten balioari dagokionez, bai obran zehar agertzen duten maiztasunari dagokionez, parekoak direla esan behar dugu.

Ikus dezagun, bada, adibide bana:

> - ... *non ezpaitzen populuric ez regioneric on irudi* **çayonaren araura** *Iainco berriric eguiten etzuenic* ... (Adv.,4-6, 259.or.)
>
> - *Cein ezpaita Sacrificadore eguin içan (...)* ***Leguearen arauez,*** *baina vicitze immortaleco* ***puissançaren arauez.*** (Hebr.,VII,16)

Bestalde, posposizio honek izan dezakeen beste aldaera bat ere aipatu behar dugu, zenbait adibidetan posposizio hau IZENLAGUN bilakatzen baita. Kasu hauetan, ARAUEZCO aldaera topatuko dugu:

- ... *beréc bere* ***desirén arauezco*** *iracastunac bilduren baitituzté* (Tim.2,IIII,3)

Azkenik, formarekin amaitzeko, esan dezagun posposizioa izanik, ezinbestez, -(R)EN genitibo edutezkoaren laguntza behar duela sintagma bati atxikitzeko. Edonola ere, zehaztu dezagun sintagma hori IZEN batek, IZEN SINTAGMA oso batek, edota ERLATIBOZKO perpaus batek osa dezaketela. Ikus dezagun adibide bana:

(1)- ... *eta Sabbathoan reposa citecen,* ***manamenduaren araura.*** (Lc.,XXIII,56)

(2)- *Baina* ***eure gogortassunaren eta bihotz vrriquimendu gabearen araura,*** *hiraz thesaur eguiten draucac ...* (Rom.,II,5)

(3)- ... *batbederac gorputzean recebi deçançat* ***eguin duqueenaren araura,*** ... (Cor.2,V,10)

3.4.5.2. Tokia.

Posposizioak direnez, perpausaren baitan edozein sintagmak izan dezakeen mugikortasuna erakusten dute; beraz, posizio desberdinetan aurkituko ditugu:

* Aditzaren aurrean:

  - ... *çuen* ***fedearen araura*** *eguin bequiçue.* (Mt.,IX,29)

* Aditzaren ondoan:

  - ... *eguin bequit hire* ***hitzaren araura.*** (Lc.,I,38)

* Adizki laguntzaile eta aditz nagusiaren artean:

  - ... *eta eztutela* ***ordenancén araura*** *ebili behar.* (Apost.Act.,XXI,21)

* ... e.a.

Nolanahi ere, alde batetik, moduzko perpausik sortzen ez duen posposizio hutsa baino ez da eta, bestetik, gaur egun bizi-bizirik dirauen forma arrunta eta guztiok ezaguna da; beraz, ez du merezi aipamen hau luzatzeak.

B. KONPARAZIOA (eta inoiz MODUA ere) ADIERAZTEN DUTENAK

3.4.6. (HALA) ... NOLA... BAIT-, ... (HALA)

Dakigunez, Leizarraga anaforikoez sarritan baliatzen da edozein motatako perpausak sortzeko. Beraz, modu-konparatiboen artean ere tartetxo bat eskaini behar diegu, baliabide hau obran zehar oso maiz aurkitzen baitugu.

3.4.6.1. Forma eta Balioa.

Anaforiko baten bidez sorturiko forma izanik, honek menpeko perpausak sortuko baditu, benetako menderagailu bat behar du aldamenean eta kasu honetan BAIT- aurrizkia da topatzen duguna:

> - *Eta quitta ietzaguc gure çorrac,* ***nola*** *guc-ere gure çorduney quittatzen* ***baitrauegu.*** (Mt.,VI,12)

Edonola ere, zehaztu dezagun zenbait adibidetan NOLA anaforikoa bakarrik aurki dezakegula, baina ez honek moduzko perpausa osatzen duelako, baizik eta aditza ezabatu egin delako. Ikus ditzagun adibide batzuk:

* Aditz osoa eliditurik:

> - *... Egundano ezta* ***hala*** *minçatu guiçonic,* ***nola*** *guiçon haur.* (Io.,VII,46)

* Adizki laguntzailea eliditurik:

> - *...* ***nola*** *scribatzen,* ***hala*** *letra guciequin Latinén ançora pronuntiatzen-ere dirade ...* (Heu.,1-2, 254.or.)

Hala eta guztiz ere, joera nagusi honetatik aldentzen den adibide bat aipatu behar dugu, horretan aditza

oso-osorik agertu arren, BAIT- aurrizkia ez baita inondik agertzen:

> - *Eta* ***nola*** *Iesus Christ eta harê doctriná menospreciatzen ciradela çacussatenean* ***eztirate*** *haren aithortzera eta confessatzera ahalque içan, hala participant-ere içanen dirate haren glorián, ...* (Adv.,34-37, 269.or.)

Adibide honetan ez dugu BAIT- aurrizkia topatzen; dena dela, Leizarragak gainerako adibide guztietan BAIT- erabiltzen duela ikusita, hutsegite tipografikoa edo Leizarragarena berarena izan zela pentsatu behar dugu, hor **"ezpaitirate"** forma aurkitu beharko genuke eta.

Bestalde, modu-konparazioa adierazten duten perpaus hauen formarekin jarraituz, egitura hauek, sarritan, perpaus nagusian aurkitzen dugun modu-aditzondo batekin koerlazioan daudela aipatu behar dugu. Modu-aditzondorik ugariena HALA izaten da; dena den, oraintxe ikusiko dugunez, ez da bakarra.

Ikus ditzagun, bada, egitura posible guztiak (perpaus nagusian modu-aditzondoak daramatzatenak, zein aditzondo gabekoak). Hiru multzotan banatuko ditugu:

A.1. **(HALA) NOLA... BAIT- + P.N.**

A.1.1. NOLA... BAIT-, ...:

> - *... **nola** maite vkan **baitzituen** bereac, munduan ciràdenac, finerano maite vkan ditu hec.* (Io.,XIII,1)

A.1.2. (HALA) NOLA... BAIT-, HALA...:

> - *Ecen **hala nola** chistmista ilkiten **baita** Orientetic, eta eracusten Occidenterano: **hala** içanen da guiçonaren Semearen ethortea-ere.* (Mt.,XXIIII,27)
>
> - *Ecen **nola** gorputza spiritu gabe hila **baita**, **hala** fedea-ere obrác gabe hila da.* (Iac.,II,26)

A.1.3. (HALA) NOLA... BAIT-, HALABER...:

> - *Eta **hala nola** Iannesec eta Iambresec resistitu **baitraucate** Moysesi: **halaber** hauc-ere eguiari resistitzen diraucoé ...* (Tim.2,III,8)

A.2. **P.N. + NOLA... BAIT-**

A.2.1. P.N., HALA NOLA... BAIT-...:

- *Eta nor-ere nahi içanen baita çuen artean lehen içan, biz çuen cerbitzari.* ***Hala nola*** *guiçonarê Semea* ***ezpaita*** *ethorri cerbitzatu içatera, baina cerbitzatzera, ...* (Mt.,XX,27-28)

A.2.2. HALA P.N., NOLA... BAIT-...:

- *... eta* ***hala*** *eriden dié* ***nola*** *emaztéc errâ* ***baitzuten*** ... (Lc.,XXIIII,24)

A.3. **NOLACO(RIC)... BAIT-**

A.3.1. P.N. HALACO, NOLACO... BAIT-:

- *... eguin cindeizten* ***halaco,*** ***nolaco*** *ni* ***bainaiz,*** ... (Apost.Act.,XXVI,29)

A.3.2. P.N., NOLACORIC... BAIT-

- *... lur ikaratze handia eguin cedin,* ***nolacoric ezpaita*** *içan ...* (Apo.,XVI,18)

A.3.3. NOLACO... BAIT-..., HALACO P.N.:

- *... ecen* ***nolaco baicara*** *hitzez epistoletan absentián,* ***halaco*** *içanen garela ...* (Cor.2,X,11)

Egitura guztien artean bi dira nagusitzen direnak: "NOLA... BAIT-" eta "NOLA... BAIT-, HALA"; gainerakoak oso gutxitan aurkitzen ditugu.

Edonola ere, forma hauek agertzen duten maiztasuna alde batera utzirik, adierazten duten balioari dagokionez, alde batetik, MODUA eta, bestetik, KONPARAZIOA adierazten dutela esan beharko genuke.

MODUZKO adiera anaforikoak berak eskaintzen digu; gainera, ez dezagun ahanz moduzko hauek, sarritan, perpaus nagusian dagoen MODU-aditzondo batekin (HALA, HALAKO, HALABER ...) harremanetan daudela.

Moduzko adierarekin batera berdintasunezko KONPARAZIOA ere ematen da aditzera, multzo honetan aipatu ditugun adibide gehienak BEZALA modu-aditzondoaren bidez

ere adieraz baikenitzake. Gogora dezagun, esate baterako, P.Altunak dioskuna:

> *"HANBAT, HAIN, HALA (kuantitatezkoa, kualitatezkoa eta adverbio modala) euskaraz noiz eta nola erabiltzen diren dakiena berehala konturatzen da gauza batez: HANBAT + NOLA Axularrek maiz darabilen BEZANBAT berbera dela, bitan banatua; HAIN + NOLA, berebat, BEZAIN erditik ebaki eta bi zati egina; eta azkenik HALA + NOLA bestetan BEZALA dioen berbera."*[2]

Hau egiaztatzeko, Haranederren obrara jotzen badugu, honek, batzuetan, Leizarragak bezalaxe jokatzen duela, baina beste askotan NOLA... BAIT- egituraren ordez BEZALA erabiltzen duela jabetzen gara:

(1)- ... *guciagatic-ere ez* **nola** *nic nahi* **baitut**, *baina* **nola** *hic.* (Leiz., Mt.,XXVI,39)

- ... *halaric ere ez bedi eguin nic nahi dudana, baiñan çuc nahi* **duçun beçala**. (Haran., Mt.,XXVI,39)

(2)- ... **nola** *testificatu* **baituc** *niçaz Ierusalemen,* **hala** *behar duc Roman-ere testificatu.* (Leiz., Apost.Act.,XXIII,11)

- ... *ecen Jerusalemen lekhucotassuna errendatu* **darotaçun beçala**, *behar darotaçu oraiño errendatu Erroman ere.* (Haran., Apost.Act.,XXIII,11)

Leizarragak, geroago ikusiko dugunez, BEZALA modu-aditzondoa ere erabiltzen du, oso maiz, gainera. Dena den, askotan ikusi dugu Leizarragak balio bera adierazteko forma desberdinak erabiltzen dituela.

---

[2] ALTUNA, P., "Zeren" eta "Nola" Etxeparengan", Euskera-XXV, 518.or.

B.- Lehenengo multzokoak azterturik, aipa ditzagun orain bigarren multzoan sar ditzakegunak:

B.1. HAMBAT ... NOLA... BAIT-

- ... *nic vkan nuqueela* **hâbat** *atseguin* **nola** *vkan* **baitut** *atsecabe* ... (Guc.,23-24,251.or.)

- ... *eta haren lucetassuna cen* **hambat nola** *çabaltassuna* ... (Apo.,XXI,16)

Adibide hauetan ere berdintasunezko konparazioa ematen da aditzera; dena den, hemen aurkitzen dugun konparazioa ezin da A.-multzoko egiturak aztertzean aipatu dugunaren baliokidetzat jo. Horiek BEZALA modu-aditzondoaren pare jarri ditugu; baina orain aztertzen ari garena parekatzekotan, BESTE, ADINA, BEZANBAT edo halako aditzondoen pare jarri beharko genuke.

Edozein modutan, ohart gaitezen oso egitura urria dela, obra osoan, aipatu ditugun bi adibide hauek bakarrik aurkitu baititugu.

C.- Azkenik, hirugarren multzo bat ere aipatu behar dugu; dena den, multzo honetan sartu ditugun formak esapideak baino ez dira. Egitura hauen bidez, beraz, ez da ez moduzkorik ez konparatiborik sortuko; hala ere, NOLA anaforikoa eta HALA moduzkoa edo HAMBAT kuantitatiboa aurkitzen ditugunez, tartetxo bat eskaintzea interesgarri gerta lekigukeela iruditu zaigu:

C.1. ESPLETIBOAK:

- HAMBAT NOLA:

  - ... *Eriden diagu Messias, (erran nahi baita* **hambat nola** *Christ)* (Io.,I,41)

  - ... *hi deithurê aiz Cephas (***hambat** *erran nahi baita* **nola** *harria)* (Io.,I,42)

- HALA NOLA:

  - *Ecen munduan den gauça gucia (***hala nola,** *haraguiaren guthiciá, eta beguien guthicia, eta vicitzearen arrogantiá) ezta Aitaganic* ... (Io.1,II,16)

C.2. Zentzu banakaria hartzen duten partikulak:

• NOLA ... HALA:

- *Eta infirmitate haren causaz behar baitu* **nola** *populuagatic,* **hala** *bere buruägatic-ere offrendatu ...* (Hebr.,V,3)

• HAMBAT ... NOLA:

- *... pacificaturic haren crutzeco odolaz* **hambat** *ceruän* **nola** *lurrean diraden gauçác.* (Col.,I,20)

Nolanahi ere, gogora dezagun arestian aipaturikoa, hots, esapide hauek ez dutela menpeko perpausik sortzen; beraz, gure azterketatik kanpo geratzen direnez, zeintzuk diren eta zer adieraz dezaketen argituta, hauei dagokien azterketa, besterik gabe, honetan utziko dugu.

3.4.6.2. Tokia.

Dakigunez, menpeko perpaus hauek perpaus nagusian adizlagun batek beteko lukeen funtzio bera betetzen dute. Euskaraz, adizlagunek perpaus nagusiaren baitan askatasun handiz alda dezakete beren lekua; hortaz, adizlagun horren ordezkoa den menpeko perpausak ere ez du kokagune finkorik izango. Ikus ditzagun, bada, adibide batzuk:

* Perpaus nagusiaren aurrean:

- *Eta* **nola nahi baituçue** *eguin dieçaçuê çuey guiçonéc, çuec-ere eguieçue ...* (Lc.,VI,31)

* Perpaus nagusiaren ondoan:

- *Eztituc mundutic,* **nola** *ni-ere* **ezpainaiz** *mundutic.* (Io.,XVII,16)

* Perpaus nagusiaren barruan tartekaturik:

- *Norc erraitê baitu hura baithan dagoela, behar du,* **nola** *hura ebili* **baita,** *hala hainac-ere ebili.* (Io.1,II,6)

3.4.7. [-(E)N] BEÇALA

Modu-konparazioa adieraz dezaketen formen artean, Leizarragaren obran bederen, -(E)N BEÇALA da, zalantzarik gabe, garrantzitsuena edo behintzat maizenik erabiltzen dena.

3.4.7.1. Forma.

Moduzko aditzondo hau hain erabilia izanik, forma bat baino gehiago ager ditzake; edozein modutan, ugariena, dudarik gabe, BEZALA da:

A.- ADITZ BATI LOTURIK

Moduzko aditzondo honek modu-konparazioa adierazten duten perpausak sortuko baditu, derrigorrez, aditz bati loturik agertu behar du. Edonola ere, multzo honen barruan beste bereizketa bat ere egin behar dugu:

A.1. Aditz jokatuak:

BEZALA aditzondoa menpeko perpausaren aditzari, komunzki, -(E)N menderagailuaren bidez atxikitzen zaio:

- ... *Iosephec eguin ceçan Aingueruăc* **manatu ceraucan beçala** (Mt.,I,24)

Edonola ere, oso kontestu zehatzetan BAIT- aurrizkia ere aurki dezakegu. Baina, azal dezagun azken hau, gaizki ulertzerik sor ez dadin. Honek ez du esan nahi BEZALA aditzondoa BAIT- aurrizkiaren bidez atxiki dakiokeela aditzari, ez eta BAIT- aurrizkiak bakar bakarrik moduzko perpausak sor ditzakeela ere. Dakigunez, BAIT- aurrizkia oso maiz erabiltzen dute iparraldeko euskalkietan balio anitz adierazteko, funtsean, aurrizki hau "menderakuntza-adierazlea" delako. Eta horixe da aurreko hitzekin adierazi nahi genuena: batzuetan moduzko sekuentzia perpaus batek baino gehiagok osatzen dute; orduan kasu horietan, elkarren segidan dauden bi perpausetan -(E)N BEZALA errepikatu beharrean, erredundantzia saihestu nahian edo, bigarren perpausean

BAIT- aurrizkia erabiltzen du Leizarragak, menderagailu honek aurreko perpausean adierazten den balio bera har dezakeelako. Ikus dezagun adibide bat eta erka dezagun Haranederrek duenarekin:

> - *Eta ebil çaitezte charitatean Christec-ere* ***onhetsi vkan gaituen beçala,*** *eta* ***liuratu vkan baitrauca*** *bere buruä guregatic ...* (Leiz., Eph.,V,2)
>
> - *Eta ibill çaitezte amodioan eta caritatean, Jesuchristoc ere gu* ***maitatu içan gaituen beçala*** *eta bere burua gure gatic* ***eman içan duen beçala,*** *...* (Haran., Eph.,V,2)

A.2. Adizki jokatugabeak:

Zenbait kasutan -gutxitan, egia esan,- adizki laguntzailea eta, honekin batera, -(E)N menderagailua ere ezaba daitezke. Gogora dezagun P.Goenagak dioskuna:

> *"Hemen ere, aztergai dena da ea zein baldintzatan gertatzen den laguntzailearen ezabaketa edo ezkutatze hori (...) Erlatibo "arruntetan" aspektuak [+PERF] izan behar duela dirudi. Eta gauza bera, dirudienez, BEZALA-rekin ere. (...) Aspektu markarik gabea ere izan daiteke. Hori da, adibidez, BIZI, USTE, NAHI, MEREZI eta antzeko "aditzekin" gertatzen dena."*[1]

Ikus ditzagun Leizarragaren adibide batzuk:

> (1)- *... eztitu choil galdu sunsitu ez abysmatu vkan guiçonac, hayé iniquitateac* ***mereci beçala*** *...* (Adv.,31-32, 256.or.)
>
> (2)- *...* ***promettatu beçala*** *harc igorri duen Iesus Christbat baicen, ...* (Som.,36-37,278.or.)

Oso adibide gutxi topatu ditugu; dena den, horietan Goenagak esandakoa betetzen dela dirudi, aspektu perfektua (2) edo aspektu markarik gabeko adizkiak (1) topatzen baititugu.

---

[1] GOENAGA, P., "BEZALA" morfemaren inguruan eratzen diren egiturez" Mundaiz, 139.or.

B. ADITZA ELIDITURIK:

Aurreko multzoan adizki laguntzailea ezabatzen duten adibideak aztertu ditugu; baina laguntzailea ezezik, aditz multzo osoa ere ezaba daiteke. Aditz multzoa ezabatzen denean, BEZALA aditzondoaren aurrean edozein osagai aurki dezakegu.

Izen sintagma bat topatzen badugu, honek edozein deklinabide-marka eraman dezakeela ohartzen gara; dena dela, izen sintagmak ezezik, aditzondoak edota perpaus osoak aurki ditzakegu BEZALA-ren aurrean. Ikus ditzagun adibide batzuk:

- ... *bat diradençat,* ***gu beçala.*** (Io.,XVII,11)

- ... *cerê ezpaita haur içan fedez, baina* ***Legueco obréz beçala*** ... (Rom.,IX,32)

- ... *eta* ***ohi beçala*** *berriz iracasten cituen.* (Mc.,X,1)

- ... *argui içanen duc gucia, candelác bere claretateaz* ***arguitzen auënean beçala.*** (Lc.,XI,36)

Orain arte BEZALA formaz aritu gara, baina aditzondo honek hainbat aldaera izan ditzake; beraz, BEZALA formarekin batera, gutxienez, beste bizpahiru forma aipatu behar ditugu:

1. <u>BEÇALACO(A)(C)</u>:

Galde hitzen artean NOLA / NOLAKOA edota aditzondoen artean HONELA / HONELAKOA bereizten baditugu, perpaus hauen artean ere BEZALA / BEZALAKOA bereizi beharko genituzke.

Hasteko, esan dezagun Leizarragaren obran BEÇALACO(A) formak ez duela derrigorrez IZAN adizkiarekin agertu behar:

- ... ***nahi etzintuqueiztedan beçalaco*** *eriden etzaitzatedan, eta ni eriden eznadin çueçaz* ***nahi eztuçuen beçalaco*** ... (Cor.2,XII,20)

Nolanahi ere, hau arau nagusitik aldentzen den salbuespentzat jo genezake, adibide gehienetan BEÇALACO(A) forma IZAN kopulatiboarekin batera aurkitzen baitugu:

- ... *bere laguney oihuz dagozten haourtchoac* ***beçalaco*** *da.* (Mt.,XI,16)

- ... *eta haren oinac ciraden hartzarenac* ***beçalaco:*** *eta haren ahoa lehoinaren ahoa* ***beçalaco*** ... (Apo.,XIII,2)

Baina, ohart gaitezen kontestu honetan BEZALA ere aurki dezakegula; izan ere, hurrengo adibideak aztertzen baditugu, kontestu berdinetan, batean BEÇALACO(A) eta bestean BEÇALA agertzen direla ikusten dugu, biak baliokideak izan daitezkeen seinale:

- ... *ciraden churi, (...) Eta haren oinac cobre fina* ***beçalaco,*** *labean beçala çachetéla: eta haren voza vr handién hotsa* ***beçala.*** (Apo.,I,14-15)

- *Eta othien formá cen çaldi bataillara apprestatuén irudico, eta ciraden hayén buru gainetan vrrhea ciruditen coroac* ***beçalacoac:*** *eta hayén beguitharteac ciraden guiçonén beguitharteac* ***beçala.*** (Apo.,IX,7)

Beraz, badirudi perpaus modu-konparatibo hauek atributo edo predikatibo funtzioa betetzen dutenean, gehienetan BEÇALACO(A) forma agertzen bada ere, hau ez dela nahitaezko baldintza, BEÇALA-k berak funtzio bera bete baitezake.

2.- <u>BEÇALACO Izenlaguna</u>:

Orain aipatzen dugun forma eta aurreko atalean aipaturikoa berdinak izan arren, honek ez dauka zerikusirik atributo edo predikatibo funtzioarekin, orain izenlagunen aurrean gaude eta. Ikus ditzagun adibide batean biak, desberdintasuna agerian uzteko:

- ... *çuen guiçonac* ***beçalaco beguithartea,*** *eta laurgarren animalia hegaldaz dabilan arranoa* ***becalaco*** *cen.* (Apo.,IIII,7)

Ikusten dugunez, lehenengoa izenlaguna da, baina bigarrena atributoa baino ez da.

Izenlagun hauek ez dira oso ugariak; dena den, berezitasun bat aipatu behar dugu, ordenari dagokion berezitasuna, hain zuzen ere, BEÇALA aditzondoarekin doan izena honen eskuinaldean ezezik, ezkerraldean ere ager baitaiteke. Ikus dezagun adibide bana:

- ... *gure probetchua* ***ahal daidiquegun beçalaco exertitio*** ... (Adv.,35.271.or.)

- ... *ikus ceçaten haren beguithartea quasi Aingueru baten* ***beguithartea beçalaco.*** (Apost.Act.,VI,15)

3.- BEÇALACORIC:

Partitibo-markadun forma honek ere izenlagun funtzioa betetzen du; beraz, aurrekoaren pare jar genezake:

- ... *Prophetabat suscitaturen drauçue çuen Iainco Iaunac çuen anayetaric ni* ***beçalacoric*** ... (Apost.Act.,III,22)

- *Eta harriabar handiric talentbat* ***beçalacoric*** *iauts cedin* ... (Apo.,XVI,21)

Partitibodun forma hauek ez dira ezezko edo galderazkoetan agertzen, baiezko perpausetan baizik. Ohartzen bagara, izenlagun hauen izena aurreraturik dago, baina hemen ez ditugu BEÇALACO formarekin agertzen diren izen ezagunak edo zehatzak aurkitzen, izen zehaztugabeak, edo ezezagunak baizik. Izan ere, izen hauek BAT zenbatzaile zehaztugabea edota partitiboa bera daramate; horregatik ez da agertzen BEÇALACO forma, BEÇALACORIC baizik.

Azken finean, erlatibozko perpausez hitz egitean, zenbait erlatibotan, baiezko perpausak izan arren, partitiboa aurkitzen genuela ikusi genuen; eta azalpena gogoratzen badugu (ikus. Erlatibozkoak,2.2.B.3. "Baiezko perpausak") berdina dela konturatuko gara.

4.- BEÇALACA(TU) aditz bihurturik:

Azkenik, BEÇALA aditzondoaren oinarrian sor daitekeen BEÇALACATU aditza aipatu behar dugu, nahiz eta honen bidez moduzko perpausik ez sortu:

- ... *ici citecen goardác, eta hilac* ***beçalaca citecen.*** (Mt.,XXVIII,4)

- ... *eta sarrasquibaten odola* ***beçalaca cedin*** ... (Apo.,XVI,3)

3.4.7.2. Tokia.

Modu-konparatibo hauek perpaus nagusiaren baitan hartzen duten kokagunearí dagokionez, gainerako menpeko perpausez esandakoa aipatu behar dugu, hau da, perpaus nagusian beste edozein osagaik edukiko lukeen mugikortasun bera daukatela. Hortaz, modu-konparatibo hauek edozein posiziotan aurkituko ditugu. Ikus ditzagun adibide batzuk:

* Perpaus nagusiaren aurrean:

  - ... *Ohá eta* ***sinhetsi duán beçala*** *eguin beguic.* (Mt.,VIII,13)

* Perpaus nagusiaren ondoan:

  - ... *Plana eçaçue Iaunaren bidea, Esaias Prophetác* ***erran çuen beçala.*** (Io.,I,23)

* Perpaus nagusiaren barnean txertaturik:

  - *Eta segur guiçonarê Semea,* ***ordenatu içan den beçala*** *badoa* ... (Lc.,XXII,22)

3.4.7.3. Balioa.

BEÇALA modu-aditzondoak, hain erabilia izanik, balio bat baino gehiago har ditzake. Ikus ditzagun, bada:

1.- MODU-KONPARATIBOA:

Hauxe da, dudarik gabe, BEZALA aditzondoaren baliorik berezkoena eta Leizarragaren obran maizenik topatuko duguna.

Bibliografiari begiradatxo bat botatzen badiogu, gramatikari guztiek aipatzen dute balio hau. Ikus dezagun zer esaten duten:

> *"Bestalde, **bezala** horrek "modua" adierazteaz gainera, "konparazioa" ere badu berekin. Berdintasuna adierazten du, baina ez digu esaten zeri buruzko berdintasuna dugun"*[4]

> *"When two items are compared, it is asserted that those items are the same or that they differ in some way (...) On the other hand in sentences 6,7 (6. Ni bezala mintzatu da; 7. Erran duzun bezala eginen dut) there is no matter or degree, only a matter of sameness or difference. They can only be negated. In other words, the difference may not be in any manner measured; it can only be asserted."*[5]

> *"Orain arte berrikusitako bibliografiaren arauera, beraz, **bezala** juntagailuak, modu-adberbioa izanik, berdintasun-konparaketa adierazten duela ondoriozta dezakegu. Horrela (...) soilik moduzko eta berdintasunezko konparatiboen arteko intersekzioan dagoen eremu semantikoan erabili beharko genuke (...)Berdintasunezko konparatiboen artean, lexikalizazio-graduaren arauerako nolabaiteko graduazioa dagoela onartzekotan, **bezala** adberbio erlatiboaren bidez eraikitakoak, gradurik baxuenean kokatu behar genituzke ..."*[6]

Beraz, ikusten dugunez, puntu honi dagokionez, gramatikari guztiak datoz bat.

Leizarraga, arestian aipatu dugunez, oso maiz baliatzen da BEZALA aditzondoaz balio hau adierazteko. Ikus dezagun adibide bat:

> - *Aitac ni **eçagutzen nauen beçala**, nic-ere eçagutzen dut Aita ...* (Io.,X,15)

---

[4] GOENAGA, P., Gramatika Bideetan, 304.or.

[5] H. WILBUR, T., "The Comparative Construction in Basque" Anglo-American Contributions to Basque Studies, 177.or.

[6] ZABALA, I., ODRIOZOLA, J.C., "Gazteleraren COMO juntagailu ..." Euskera-XXXIV, 196-199.orr.

Edonola ere, hau baliorik garrantzitsuena bada ere, ez da bakarra. Izan ere, P.Goenagak BEZALA aditzondoaz egindako ikerketan[1] oinarriturik, honez gain, ondoko balio hauek ere aipa genitzake:

2.- KOPULA BALIOA:

Kasu hauetan BEZALA ez dago aditzari atxikirik, izen sintagma bati baizik. Gainera, izen sintagma hau mugagabea izaten da:

- *... eta baldin Eliçari behatzen ezpaçayó, albeiheduca* ***pagano eta publicano beçala.*** (Mt.,XVIII,17)

- *guciagatic-ere* ***etsay beçala*** *ezteçaçuela eduqui,* ... (Thes.,2,III,15)

Bi adibide hauetan BEÇALA aditzondoaren ordez, -TZAT prolatiboa ere erabil genezake. Honez gain, BEÇALA "GISA, MODURA" eta halakoen baliokidea ere izan daiteke:

- *... Cergatic ni goitiric* ***bekatore beçala*** *condemnatzen naiz?* (Rom.,III,7)

Leizarragak sarritan erabiltzen du egitura hau. Beraz, adiera hau lehenengoa bezain garrantzitsua izan ez arren, oso kontutan hartzekoa da.

3.- HURBILTZE BALIOA:

Goenagak aipaturiko artikuluan dioskunez, egitura hauen bidez BEZALA aditzondoaren aurreko sintagmei hurbiltze kutsu bat ematen zaie. Ikus ditzagun adibide batzuk:

- ... ***hoguey eta hamar stade beçala*** *abiroina tiratu ondoan ...* (Io.,VI,19)

- ... *eror nendin haren oinetara* ***hila beçala*** ... (Apo.,I,17)

---

[1] GOENAGA, P., "Bezala" morfemaren inguruan eratzen diren egiturez" Mundaiz, 131-152.orr

4. **-eNEZ** MODUZKOAREN BALIOKIDEAK:

Zenbait adibidetan, BEZALA, modu-konparazioa adierazi beharrean, modu-esplikatiboetarako erabiltzen dugun -eNEZ menderagailuaren baliokidea izan daiteke:

- *Scribatua* ***den beçala,*** *Ezta iustoric,* ... (Rom.,III,10)

- *Baina are,* ***daquiçuen beçala*** *(...) hardieça hartu vkan dugu gure Iaincoan* ... (Thes.1,II,2)

5. **-eN NEURRIAN**-en BALIOKIDEAK:

Hauek aski urriak dira, baina baten bat aipa dezakegu:

- ... *eta eztuçue mêgoaric nehorc iracats çaitzatê: baina vnctione berac gauça guciéz* ***iracasten çaituzten beçala*** *(...) eta vnctioneac* ***iracatsi çaituzten beçala,*** *hartan egonen çarete.* (Io.1,II,27)

- ... *renda dieçodançát batbederari haren obrá* ***içanen den beçala.*** (Apo.,XXII,12)

6.- DENBORA BALIOA:

Arraro irudi dakigukeen arren, zenbait adibidetan BEZALA aditzondoaren bidez -(E)NEAN menderagailuaren bidez adieraziko genukeen balioa ere adieraz daiteke:

- *Eta minçatzetic* ***ichildu cen beçala,*** *erran cieçón Simoni,* ... (Lc.,V,4)

- ... *Pierris* ***sartzen cen beçala,*** *Cornelio aitzinera ilki baitzequión,* ... (Apost.Act.,X,25)

Adibidez, Haranederren obrara jotzen badugu, adibide hauetan, honek -(E)NEAN denborazkoa erabili duela ohartuko gara. Ikus dezagun adibide bat:

- *Mintçatcetic* ***guelditu cenean,*** *erran cioen Simoni* ... (Haran., Lc.,V,4)

7.- APOSIZIOZKOAK:

Beste hainbat adibidetan BEZALA aditzondoarekin batera doan perpausa edo sintagma aposizioa baino ez da:

- *eta ikus ceçan (...) vncibat,* ***mihisse hâdibat beçala,*** ... (Apost.Act.,X,11)

- *... eror cedin cerutic içar handi irachequibat,* ***çucibat beçala,*** ... (Apc.,VIII,10)

8.- MODU-BALDINTZAZKOAK:

Sarritan, BEZALA aditzondoa -(E)N menderagailuari atxikirik aurkitu beharrean, baldintzazkoei dagokien BA-aurrizkiarekin harremanetan aurkitzen dugu, bien artean "modu-baldintzazko" adiera sortaraziz. Aipa dezagun, bidenabar, baldintzazko hauek beti hipotetikoak izaten direla:

- *... scribatu drauçuet partez, çuec* ***orhoit eraciten bacintuztét beçala,*** ... (Rom.,XV,15)

- *... cergatic gloriatzen aiz* ***recebitu ezpahu beçala?*** (Cor.1,IIII,7)

Beraz, ikusten dugunez, BEZALA aditzondoaren bidez balio anitz adieraz daitezke.

3.4.7.4. BEZALA-ren baliokideak.

Azkenik, BEZALA aditzondoaren baliokideak aipa ditzakegu, aditzondo honek adierazten duen balioa beste forma batzuek ere adieraz baitezakete. Ikus ditzagun, Leizarragak erabiltzen dituenak:

1. LEGUEZ:

Forma hau, guztiok dakigunez, BEZALA aditzondoaren baliokide argia da; baina, "Bizkaiera" euskalkiari dagokion forma dela pentsatu izan da beti. Hala eta guztiz

ere, Leizarragak honen berri bazuela aitortu behar dugu, adibide bat topatu dugu eta:

- *Eta etzaretê idolatre, hetaric batzu* **leguez**, ... (Cor.1,X,7)

2. ANÇO(RA):

Forma hau ere BEZALA-ren baliokide argia da, honek betetzen duen edozein funtzio bete baitezake:

A. Izen sintagma bati loturik:

- ... *Iaincoa bere haourrey* **anço** *presentatzen çaiçue* ... (Hebr.,XII,7)

- ... (*erho* **anço** *minço naiz*) ... (Cor.2,XI,23)

BEZALA-ren baliokide ezin argiagoa dela frogatzeko, erka ditzagun azken adibidea Leizarragak berak duen hurrengoarekin:

- ... (*guiçon* **beçala** *minço naiz*). (Rom.,III,5)

B. Aditz bati loturik:

- ... *segurançá emaiten draucu, prestuzco beharquian bahi on batec segurança* **emaiten duen ançora** ... (Som.,32-34, 276.or.)

C. Izenlagun funtzioan:

- *Eta aguer cequizquien suaren* **ançoco mihi partituac**, ... (Apost.Act.,II,3)

Honez gain, ANÇORA posposizio soila ere izan daiteke:

- ... *heldu cen* **haice baten ançora**, ... (Apost.Act.,II,2)

3. POSPOSIZIOAK: -(r)en guissan, -(r)en berdin:

- ... *eta ikus ceçan Iaincoaren Spiritua* **vsso columba baten guissán** *iausten* ... (Mt.,III,16)

- ... *bere buruä* **Iaincoaren bardin** *eguinez*. (Io.,V,18)

3.4.8. BEÇAIN

Konparazioaren eremuan sartzen bagara, lehendabizi berdintasunezko konparazioa aztertu beharko genuke. Aurreko atalean aztertu dugun formak -BEZALAk- ere berdintasunezko konparazioa adierazten du; dena den, P.Goenagaren, T.Wilburren edo I.Zabalaren eta J.C.Odriozolaren hitzak gogoratzen baditugu, BEZALA-k konparazio-gradurik baxuena adierazten du; hots, bi termino konparatzen ditugu, baina zertan konparatzen ditugun jakin gabe, bien arteko berdintasuna edota desberdintasuna agerian jarriz, baina berdintasun edo desberdintasun hori zertan datzan zehaztu gabe.

BEZAIN formak, berriz, berdintasunezko konparazioaren baitan kualitatea adierazten du; beraz, honako egitura hau aurkitu beharko genuke:

"Bi konparaburuak + BEZAIN + Izenondoa/Aditzondoa"

Ikus dezagun orain Leizarragaren erabilera honekin bat datorren.

Hasteko, Leizarragaren obran, BEÇAIN oso urria dela aipatu behar dugu, obra osoa azterturik, 5 adibide bakarrik aurkitu baititugu; gainera bost adibide horietatik hiru errepikaturik daude, beraz, hiru adibide baino ez ditugula esan dezakegu.

Baina, hiru adibide hauek azterturik, goian proposaturiko egiturari Leizarragak adibide bakar batean jarraitzen diola ohartzen gara. Hona hemen adibidea:

> - ... *hura behin berce erran ahal daitenic batre* ***beçain*** *laincoaren hitzaren recebitzera behatu gaitzetaco eta rebeleracutsi içanic,* ... (Guc.,17-19, 250.or.)

Adibide honetan, beraz, gaur egun, hegoaldeko euskalkietan bederen, nagusitzen den egitura bera

aurkitzen dugu. Baina, Leizarragak aurkezten dizkigun gainerako adibideetan beste egitura bat aurkitzen dugu:

"Bi konparaburuak + BEZAIN + Aditz Nagusia"

BEZAIN formaren bidez, dakigunez, berdintasunezko konparazio kualitatiboa adierazten da; baina azken egitura honetan ez da inondik agertzen kualitatea adieraziko lukeen izenondoa edota aditzondoa; hauek jakintzat ematen dira eta, beraz, ezabatu egiten dira. Ikus ditzagun adibide batzuk:

- ... *eta haren escua, bercea* ***beçain*** *senda cedin.* (Mc.,III,5)

- ... *haren beguitharteco formá mutha cedin, eta haren abillamendua churit eta chist-mista* ***beçain*** *arguit.* (Lc.,IX,29)

Benetan bereziak dira azken adibideak, hauetan BEZAIN formak betetzen duen funtzioa BEZALA-k beteko lukeen funtziotik oso hurbil baitago. Izan ere, adibide hauetan BEZAIN formaren bidez burutzen den konparazioak ia ez dirudi kualitatiboa; bi konparaburu alderatzen ditugu eta bien arteko berdintasuna uzten dugu agerian, baina berdintasun hori definituko luketen, hau da, konparatzen dugun kualitatearen berri emango liguketen izenondoak edota aditzondoak ez dira, azaleko egituran behintzat, agertzen.

3.4.9. [-(E)N] BECEMBAT

Berdintasunezko konparazioarekin jarraituz, baina konparazio kualitatiboa alde batera utzirik, konparazio kuantitatiboa aztertu behar dugu orain.

Leizarragaren obran, [-(E)N] BECEMBAT forma urri samarra dela aitortu behar dugu, obra osoan 8 adibide bakarrik topatu baititugu.

Konparazio kuantitatiboa adierazteko, hona hemen aurkitzen dugun egitura:

"Konparaburuak + [-(E)N] BECEMBAT + (Izena)"

Ikusten dugunez, elementu batzuk aukeran daude; beraz, Leizarragaren obran hiru egitura bereizi behar ditugu:

1. -(E)N BECEMBAT + IZENA:

- ... *ecen eguiaz diotsuet, baldin mustarda bihibat* ***den becembat*** *fede baduçue, erranen draucaçue mendi huni, ...* (Mt.,XVII,20)

- *Ceinec* ***behar den becembat*** *ignorâtéz eta falta eguiten dutenéz pietate ahal baituque:* ... (Hebr.,V,2)

Ohart gaitezen BECEMBAT zenbatzailearen ondoan doan izena beti mugagabea dela.

2. -(E)N BECEMBAT

Bigarren egitura honetan BECEMBAT zenbatzailea izenorde bihurtzen da; beraz, honen ondoan ez dugu izenik aurkituko, BECEMBAT bera baita izen sintagmaren gunea.

Bestalde, BECEMBAT konparatiboa, orokorrean, gutxi erabiltzen den arren, bigarren egitura hau erabiliena dela aipatu behar dugu, aurkitu ditugun zortzi adibide horietatik, lau multzo honetan sartu behar baititugu. Ikus ditzagun, bada, adibide batzuk:

- *Eta har citzan Iesusec oguiac: eta gratiac rendaturic parti cietzén discipuluey: eta discipuluéc iarriric ceudeney: halaber arrainetaric-ere* ***nahi çuten becembat*** (Io.,VI,11)

- *... Eta ez Iaincobat solament, baina hayen otrecuidança eta ausartgoa erhoac* ***imaginatu eta eguin vkan ahal duen becembat****-ere bay ...* (Adv.,1-3, 259.or.)

3.- (Aditza eliditurik) BECEMBAT

Perpaus nagusiko aditza eta konparatiboan aurkitzen duguna berdinak baldin badira, konparatibokoa ezaba daiteke BECEMBAT konparatiboa bakarrik utziz.

Honez gain, hirugarren egitura honetan ere BECEMBAT izenorde bilakatzen da; beraz, honen ondoan ez dugu izenik aurkituko.

Ikus ditzagun adibide batzuk:

- *... baina nahi diarocat azquen huni eman, hiri bay* ***becembat***. (Mt.,XX,14)

- *DRACHMA cen dineroac* ***becembat*** *valió çuen peçabat,...* (Hitz eta Minçatzeco Manera,1204.or.)

Teorian, beste egitura bat egon beharko litzeteke: "(Aditza eliditurik) + BECEMBAT + IZENA"; baina Leizarragaren obran ez dugu adibide bat ere aurkitu.

Ikusitakoaren arabera, Leizarragak berdintasunezko konparazio kuantitatiboa eta honekin batera BECEMBAT forma gutxitan erabiltzen duela ohartzen gara; edonola ere, azterturiko adibideen bidez, Leizarragak darabilen BECEMBAT formadun konparazioa, gaur egun, BESTE edo ADINA formen bidez adierazten dugun konparazio bera dela jabetzen gara.

3.4.10. CEMBAT(ENAZ) ... (-AGO) ... BAIT-, HAMBAT(ENAZ) ... -AGO

Aurreko bi konparatiboak -BEÇAIN eta BECEMBAT- urriak zirela aipatu badugu, beste horrenbeste esan behar dugu orain aztergai dugun egituraz, obra osoa azterturik, zazpi adibide bakarrik topatu ditugu eta.

3.4.10.1. Forma.

Adibide gutxi topatu ditugu; baina formari dagokion aldetik, guztiak desberdinak dira. Izan ere, zenbatzaileak hiru forma desberdin ager ditzake:

A. CEMBATENAZ:

- Cembatenaz... -ago... bait-, hambatenaz... -ago

  - ***Cembatenaz*** *Ainqueruäc* ***baino excellentago*** *eguin içan* ***baita,*** ***hambatenaz*** *hec* ***baino icen excellentagobat*** *acquisitu vkan du ...* (Hebr.,I,4)

- Hambatenaz... -ago, cembatenaz... bait-...

  - *... eta hau* ***hambatenaz guehiago cembatenaz baitacussaçue*** *hurbiltzê dela egun hura.* (Hebr.,X,25)

  Adibide honetan ikus dezakegunez, CEMBATENAZ zenbatzaileak ez darama -AGO graduazio markarik.

- ...-ago P.N., cembatenaz... -ago... bait-

  - *Baina orain gure Sacrificadore subiranoac* ***ministerio excellentagoa*** *obtenitu vkan du,* ***cembatenaz Alliança hobeago*** *baten ararteco* ***baita,*** *...* (Hebr.,VIII,6)

  Honetan izan ezik, gainerako adibide guztietan CEMBATENAZ perpaus nagusiko partikula batekin koerlazioan agertzen da; dena den, partikula horren funtzio bakarra berekin daraman konparatiboa edota -AGO graduazio marka indartzea da; beraz, adibide honetan ikusten dugunez, indartzaile hori ezaba dezakegu (nahiz eta hasieran aipatu dugunez, adibide ia guztietan agertu)

B. CEMBATEZ:

• Hambatez... -ago..., cembatez... -ago... bait-

- *Ecen* ***hambatez*** *haur Moyses* ***baino gloria handiagoren*** *digne estimatu içan da,* ***cembatez ohore handiagotan baita*** *etchea edificatu duena,* ***ecen ez*** *etchea bera.* (Hebr.,III,3)

• Hambatez... -ago, cembatez... bait-

- ... *nacussanean* ***hambatez*** *ene entrepresa* ***handiago, cembatez*** *nic scribatu dudan lengoage motá* ***baita,*** *sterilenetaric eta diuersenetaric* ... (Guc.,20-22, 252.or.)

C. CEMBAT:

• Cembat-ere... bait-, vnguiz... -ago

- ... *baina* ***cembat-ere*** *harc defenda* ***baitziecén, vnguiz guehiago*** *publicatzen çutén.* (Mc.,VII,36)

• Cembat...bait-, hambat

- ***Cembat*** *bere buruä glorificatu vkan* ***baitu,*** *eta deliciotan ican* ***baita,*** *emoçue* ***hambat*** *tormenta eta nigar* (Apo.,XVIII,7)

Ikusten dugunez, egitura desberdinak aurki ditzakegu; edonola ere, desberdinak izan arren, zenbait puntu amankomun badituzte; alde batetik, perpaus gehienetan CEMBAT-ek -AGO graduazio marka darama berekin eta, bestetik, perpaus nagusiko konparatiboa bera indartzen duen partikula batekin harremanetan dago.

3.4.10.2. Tokia.

Aurreko atalean ikusi dugunez, CEMBATENAZ... BAIT- formak ez du kokaleku zehatzik. Izan ere, aurkitu ditugun adibideak aztertuta, perpaus nagusiaren aurrean hiru ditugu eta gainerakoak perpaus nagusiaren ondoan. Ikus dezagun adibide bana:

* Perpaus nagusiaren aurrean:

- ***Cembatenaz*** *Ainguerüac* ***baino excellentago*** *eguin içan* ***baita, hambatenaz*** *hec* ***baino icen excellentagobat*** *acquisitu vkan du ...* (Hebr.,I,4)

* Perpaus nagusiaren ondoan:

- *Ecen* ***hambatez*** *haur Moyses* ***baino gloria handiagoren*** *digne estimatu içan da,* ***cembatez ohore handiagotan baita*** *etchea edificatu duena,* ***ecen ez*** *etchea bera.* (Hebr.,III,3)

3.4.10.3. Balioa.

Azkenik, forma honek adierazten duen balioaz hitz egin nahi badugu, Villasanteren obrara jo dezakegu, gramatikari honek berdintasunezko konparatibo kuantitatiboen artean kokatzen baitu. Hona hemen esaten diguna:

> *"Para expresar una proporción (que puede ser de más a más o de menos a menos) Ax. se sirve de* ***zenbatenaz, zenbatenaz gehiago*** *o* ***zenbatenaz gutiago*** *(...)*
>
> *Mucho más frecuente es en Ax. el giro siguiente:*
>
> ***Zenbatenaz...hanbatenaz***
>
> *El verbo de la primera oración -cuando está expreso- lleva el prefijo* ***bait-***"[a]

Beraz, forma hau BECEMBAT-ekin batera kantitatea adierazten duten berdintasunezko konparatiboen sarean kokatu behar dugu, Dena dela, ikusi dugunez, bi forma hauek zeharo desberdinak dira, CEMBATENAZ... BAIT- forma perpaus nagusiko beste partikula batekin koerlazioan agertzen baita. Ohart gaitezen, funtsean, orain aztertzen ari garen forma, gaur egun, hegoaldeko euskalkietan bederen, darabilgun ZENBAT ETA... -AGO, HAINBAT ETA... AGO egituraren baliokide argia dela.

---

[a] VILLASANTE, L., Sintaxis de la oración compuesta, 126.or.

3.4.11. [-(E)N] BAINO... -AGO

Berdintasunezko konparazioa alde batera utzirik, desberdintasunezko konparazioaren eremuan sartu behar dugu; eta esparru honen barruan, aipamen berezia egin behar diogu BAINO... -AGO baliabideari, konparazio mota hau adierazteko formarik erabiliena baita.

3.4.11.1. Forma eta balioa.

Forma kontutan harturik, bereizketa bat egin behar dugu:

A. Aditz jokatuaz: -(E)N BAINO... -AGO

Perpaus konparatiboak sortzeko, BAINO... -AGO forma aditzari atxikirik agertuko zaigu, atxikidura, kasu guztietan -(E)N menderagailuaren bidez burutuz.

Bestalde, perpaus hauek adierazten duten balioa kontutan harturik, egitura honen barruan beste bereizketa bat egin behar dugu, konparatibo batzuek kualitatea, baina beste batzuek kantitatea adierazten dutelako. Ikus dezagun adibide bana:

* Kualitatea:

  - ... (*cein içan baita nehorc lehen vicitic* ***estima ahal liçaqueen baino handiago***) (Guc.,22-23, 251.or.)

* Kantitatea:

  - ... *daquidalaric ecen* ***erraiten dudan baino guehiago****-ere eguinen duála*. (Phile.,I,21)

B. Aditza eliditurik: BAINO... -AGO:

Adibide gehienetan hauxe da aurkitzen dugun egitura, perpaus konparatiboaren aditza eta perpaus nagusiarena berdinak direnean, lehenengoa ezabatu egiten delako.

Egitura honetan ere aurrekoan proposaturiko bereizketa -kualitatiboak eta kuantitatatiboak, alegiagauzatu behar dugu:

B.1. KUALITATEA:

Kualitatea adierazten duten konparatiboetan honako egitura hau topatuko dugu:

"Konparaburuak + BAINO + ...-AGO"

Edonola ere, ohart gaitezen -AGO graduazio-marka kategoria desberdinei lot dakiekeela. Ikus ditzagun adibide batzuk:

* Izen sintagma osoa:

  - ... *hau* ***baino berce manamendu handiagoric*** *eztuc.* (Mc.,XII,31)

* Izenondoa (Ugariena):

  - *Ala hi gure aita Abraham* ***baino handiago*** *aiz...?* (Io.,VIII,53)

* Aditzondoa:

  - ... *nic* ***baino hobequi*** *berce batec eguin vkan luqueela* ... (Guc.,10-11, 251.or.)

* BAINO partikula:

  - ... *ceren ethor baitzedin lurraren bazterretic Salomonen sapientiarenençutera, eta huná, Salomon* ***bainoagoa*** *hemen* (Mt.,XII,42)

B.2.KANTITATEA:

Kantitatea adierazten duten konparatiboen artean, berriz, ondorengo egitura aurkituko dugu:

"Konparaburuak + BAINO... GEHIAGO/GUTXIAGO"

Nolanahi ere, Leizarragak dituen adibide gehienetan BAINO... GEHIAGO aurkitzen badugu ere, bestelako egiturak ere topa ditzakegu. Ikus ditzagun, bada:

* BAINO GUEHIAGO:

  - ... *cembatez çuec choriéc* ***baino guehiago*** *balio duçue?* (Lc.,XII,24)

* BAINO AREAGO:

  - ... *eta eguin denean, gehennaco seme eguiten duçue dobláz ceuroc* ***baino areago.*** (Mt.,XXIII,15)

* BAINOAGO:

  - *Batac estimatzen du egun bata bercea* ***bainoago,*** ... (Rom.,XIIII,5)

* BAINO GUTIAGO:

  - *Emazte alharguna hauta bedi ez hiruroguey vrthe* ***baino gutiagotacoa,*** ... (Tim,1,V,9)

Bestalde, zenbait adibidetan -AGO graduazio marka indartzen duen partikula bat ere aurki dezakegu:

- ... *etzarete çuec* ***anhitzez*** *hec* ***baino excellentago?*** (Mt.,VI,26)

C. FORMA BEREZIAK:

Konparatibo hauek har dezaketen formaren azterketarekin amaitzeko, egitura berezi batzuk aipatu behar ditugu, adibide hauetan -AGO graduazio-markarik gabeko konparatiboak aurkitzen ditugu eta:

- ... *ezta vicia viandá* ***baino guehiago,*** *eta abillamendua* ***baino*** *gorputza?* (Mt.,VI,25)

- *Vicia vianda* ***baino guehiago*** *da, eta gorputza abillamendua* ***baino.*** (Lc.,XII,23)

-AGO graduzio-markarik gabeko konparatiboak direla esan dugu; baina, zehaztu dezagun, gaizki ulertzerik sor ez dadin. Adibide hauetan, elkarren segidan datozen bi konparatibo ditugu eta bigarrenean bakarrik suertatu da

-AGO graduazio-markaren ezabaketa, agian errepikapena saihestu nahian.

Gaur egun, tamalez, -AGO graduazio-marka ezabatzeko joera gero eta hedatuago dago; gehienetan, gainera, ageriko arrazoirik gabe, erosotasun hutsagatik edo. Baina, Euskaltzaindiak berak esaten duenez, halako egiturak erabat gaitzetsi beharko genituzke; izan ere, gauza bat da, Leizarragak egin duen bezala, errepikapena edo saihestu nahian bigarren konparatiboan aurretik ezaguna dugun -AGO marka eliditzea eta beste gauza bat -zeharo desberdina gainera- konparatibo bat sortu nahi izatea -AGO graduazio-markarik gabe, hau, funtsean, zentzugabekeria hutsa delako.

D. HUTSEGITEA?

Erka ditzagun ondoko bi adibideak:

(1)- ... *Eztitiagu borz ogui eta bi arrain* ***baino guehiago***:... (Lc.,IX,13)

(2)- ... *Eztiagu hemen borz ogui eta bi arrain* ***baicen***. (Mt.,XIIII,17)

Ez al gaude adibide beraren aurrean? Leizarragak, halere, batean BAINO GEHIAGO konparatiboa eta bestean BAIZEN murriztailea erabili du. Baina, benetan konparatibotzat jo dezakegu lehenengo adibidea ala hutsegite baten aurrean gaude? Nire ustez, lehenengo adibidean ez dago konparaziorik ez daukagulako konparabururik; hor daukagun "mas que", niri uste apalean, balio murriztailea har dezaketen BAINO, BAIZEN, BAIZIK edo BESTERIK formen bidez adierazi beharko litzateke.

Haranederren obrara jotzen badugu, Leizarragak bezalaxe jokatu zuela ikusten dugu; dena dela, agian honek Leizarragaren obra ezagutzen zuen eta, beraz, hor aurkitu zuena kopiatu zuen, besterik gabe.

3.4.11.2. Tokia.

Konparatiboek perpaus nagusiaren baitan hartzen duten kokaguneaz gainerako menpeko perpaus guztiek duten askatasun bera agertzen dutela aipatu behar dugu, konparatibo hauek perpaus nagusiaren aurrean zein ondoan aurki baititzakegu. Ikus dezagun adibide bana:

* Perpaus nagusiaren aurrean:

  - ... *Deus* ***ordenatu çaiçuen baino guehiago*** *ezteçaçuela erekar.* (Lc.,III,13)

* Perpaus nagusiaren ondoan:

  - ... *ezgara hedatzen* ***behar den baino guehiago*** ... (Cor.2,X,14)

Baina, agian interesgarriago suerta dakiguke konparatiboen barruko elementuek har dezaketen tokiaz hitz egitea, bi hurrenkera bereizi behar baititugu:

1.- <u>Hurrenkera ez-markatua</u>:(Ugariena)

"Bi konparaburuak + BAINO... -AGO"

- *Ecen Iaincoaren erhogoá guiçonac* ***baino çuhurrago*** *da: eta Iaincoarê flaqueçá guiçonac* ***baino borthitzago*** *da.* (Cor.1,I,25)

2.- <u>Hurrenkera markatua</u>: (Enfasi berezia eman nahirik edo)

*"Konparaburua + BAINO + konparaburua + ...-AGO"

- ... *parra-choriéc* ***baino*** *çuec* ***guehiago*** *valio duçue.* (Mt.,X,31)

- ... *Iaincoari* ***baino*** *voluptatey* ***hobe*** *erizle.* (Tim.2,III,4)

* "Konparaburua + ...-AGO + konparaburua + BAINO"

- ... *Christec dathorrenean* ***guehiago miraculu*** *eguinen othe du, hunec eguiten dituenac* ***baino***? (Io.,VII,31)

- *Eguin vkan duc hura* ***chipichiago*** *Aingueruäc* ***baino***: ... (Hebr.,II,7)

3.4.12. -AGO ... ECEN EZ

Desberdintasunezko konparazioa adierazten duen bigarren forma bat ere aipatu behar dugu, aurreko atalean aipatu dugun BAINO... -AGOren baliokidea baita.

3.4.12.1. Forma eta Balioa.

Forma honek adierazten duen balioari dagokionez, arestian aipatu dugunez, BAINO... -AGO konparatiboaren baliokide argia da. Izan ere, ez dirudi bi forma hauen artean, balioari dagokion aldetik behintzat, desberdintasunik aipa daitekeenik. Edonola ere, zenbait konparatibotan egitura bat bestea baino egokiagoa dela ematen du:

a) Konparaburuak izen sintagma arruntak direnean, bata zein bestea erabiltzea idazlearen esku geratuko litzateke, bi egiturak zilegi baitira:

> - ... *mundu hunetaco haourrac* ***çuhurrago*** *dirade,* ***ecen ez*** *arguico haourrac* ... (Lc.,XVI,8)

Adibide honetan, esate baterako, -AGO... ECEN EZ egitura erabili du, baina BAINO... -AGO egitura erabiliz gero, perpausa ez litzateke ezertan aldatuko.

b) Konparaburuak menpeko perpausak direnean, ordea, -AGO... ECEN EZ egituraren erabilerak egokiago dirudi, konparatibo hauek nekez adieraziko baikenituzke BAINO... -AGO egituraren bidez:

> - *Eta berriz diotsuet,* ***errachago*** *dela cablebat orratzaren chulhotic iragan dadin,* ***ecen ez*** *abratsa Iaincoaren resumán sar dadin.* (Mt.,XIX,24)
>
> - *Ecen* ***hobe*** *da vngui eguiten duçuela affligi çaitezten, (...)* ***ecen ez*** *gaizqui eguiten duçuela.* (Pier.1,III,17)

Perpaus hauek ere desberdintasunezko konparazioa adierazten dute; baina, kasu hauetan, BAINO... -AGO egitura erabiliko bagenu, ulergarritasuna, agian, kolokan geratuko litzateke. Horrexegatik diogu kontestu honetan egokiagoa izan daitekeela -AGO... ECEN EZ egitura. Dena den, gogora dezagun, Leizarragak -AGO... ECEN EZ kontestu honetan ezezik, BAINO... -AGO aurkitzen dugun gainerako kontestuetan ere erabiltzen duela. Beraz, beste hainbatetan gertatu den bezala, Leizarragak, bere hizkera aberastu nahian edo, balio bera duten bi egitura desberdin erabiltzen ditu.

Bestalde, konparatibo hauen formari dagokionez, guztiek -AGO... ECEN EZ forma agertzen badute ere, adierazten duten konparazio-motaren arabera, bi multzotan sailka ditzakegu:

A. KUALITATEA adierazten dutenak:

BAINO... -AGO formarekin gertatzen den bezala, honetan ere -AGO graduazio-marka kategoria desberdinei atxikirik aurki dezakegu:

* Izen sintagma oso bati:

  - ... ***Gauça dohatsuagoa*** *dela emaitea* ***ecen ez*** *hartzea.* (Apost.Act.,XX,35)

* Izenondoari:

  - ... *ecen* ***hobe*** *da ezconcea* ***ecen ez*** *erre içatea.* (Cor.1,VII,9)

* Aditzondoari:

  - ... *orain* ***hurbilago*** *daucu saluamẽdua,* ***ecẽ ez,*** *sinhetsi vkâ dugunẽa.* (Rom.,XIII,11)

Egitura hauek konparatiboa indartzen duen partikula batekin ere ager daitezke:

- *Çuen fedearen phorogançá* ***vnguiz preciosoagoa ecen ez*** *vrrhearena (...) eriden dadinçát, ...* (Pier.1,I,7)

B. KANTITATEA adierazten dutenak:

Kantitatea adierazten dutenen artean ere bi egitura bereiz ditzakegu:

* "... guehiago... ecen ez":

  - *... ecen Iesusec* ***discipulu guehiago*** *eguiten çuela eta batheyatzen,* ***ecen ez*** *Ioannesec.* (Io.,IIII,1)

* -AGO aditzari atxikirik:

  Graduazio-marka aditzari bi kasutan bakarrik atxikitzen zaio, aspektu markarik gabeko "aditzekin": maite, nahi... (baldin eta aditzak badira) eta aspektu ezburutua daramatenekin:

  - *Baina Eliçán* ***nahiago*** *naiz borz hitz neure adimenduz minçatu (...)* ***ecen ez*** *hamar milla hitz lengoage arrotzez.* (Cor.1,XIIII,19)

  - *... dignitatera* ***behatzenago*** *duçularic* ***ecê ez*** *Translataçalearen imperfectionetara ...* (Guc.,24-26, 253.or.)

3.4.12.2. Tokia.

Konparatibo hauek perpaus nagusiaren baitan hartzen duten kokagunea aski finkoa dela aipatu behar dugu, adibide guztietan "...-AGO .../ ECEN EZ..." egitura aurkitzen baitugu.

Edonola ere, konparatiboen barruko elementuek hartzen duten kokalekuari dagokionez, hurrenkera desberdinak topa ditzakegu:

1. -AGO + Aditza + Konparaburua + ECEN EZ + Konparaburua: (Ugariena)

- ... *eguiaz erraiten drauçuet ecen* ***bozcario guehiago*** *duela harçaz,* ***ecen ez*** *lauroquey eta hemeretzi errebelatu etziradenez.* (Mt.,XVIII,13)

- ... *ecen* ***guehiago*** *ditun vtziaren haourrac* ***ecen ez*** *senhardunarenac.* (Gal.,IIII,27)

2. Konparaburua + -AGO + Aditza + ECEN EZ + Konparaburua:

- ... *paubre hunec* ***guehiago*** *eman duela* ***ecen ez*** *truncorà eman duten guciéc.* (Mc.,XII,43)

- ... *Tyr eta Sidon* ***emequiago*** *tractatuac içanen dirade iudicioan* ***ecen ez*** *çuec.* (Lc.,X,14)

3. (Aditza)+ Konparaburua + -AGO + ECEN EZ + Konparaburua + (Aditza):

Hurrenkera hau urriena da, pare bat adibide bakarrik topatu ditugu eta:

- *Erraiten drauçuet ecen hala bozcario içanen dela ceruän bekatore emendatzen den baten gainean,* ***guehiago ecen ez*** *lauroquey eta hemeretzi iusto emendamendu mengoa eztutenén gainean.* (Lc.,XV,7)

- *Çuen fedearen phorogançá* ***vnguiz preciosoagoa ecen ez*** *vrrhearena (...) eriden dadinçát,* ... (Pier.1,I,7)

3.5. HELBURUZKOAK

Menpeko perpausen artean tarte bat eskaini behar diegu xedea adierazten duten perpausei. Gainera Leizarragaren obran honelako perpausak oso maiz aurkitzen ditugu.

Hala ere, zehaztu dezagun helburuzko perpaus hauen azterketak ez digula datu berri askorik eskainiko, Leizarragak darabiltzan forma gehienek gaur egun, mendebaldeko euskalkietan behintzat, bizi-bizirik baitiraute.

Ikus ditzagun, halere, Leizarragak xedea adierazteko darabiltzan menderagailuak:

3.5.1. -(E)N

3.5.2. -(E)NÇAT

3.5.3. -T(Z)ERA

3.5.4. -T(Z)ECO

Sailkapena ikusita, agerian geratzen da Leizarragak xedea adierazteko forma jokatuak zein jokatugabeak erabiltzen dituela. Beraz, biak aztertuko ditugu.

3.5.1. -(E)N

Helburuzko perpausak sortzeko baliabiderik berezkoena -(E)N menderagailua dela esan dezakegu; edonola ere, dakigunez, menderagailu honek bestelako perpausak, hala nola, konpletiboak, erlatibozkoak ... e.a. sor ditzake. Hortaz, hain erabilia izanik, zenbait perpausen aurrean zalantzak sor litezke; horregatik, anbiguitate hau saihestu nahian, helburuzko perpausak sortzeko beste forma batzuk garatu dira.

Hala izanik, -(E)N helburuzkoa, Leizarragaren obran behintzat, bigarren maila batean geratzen da.

Edozein modutan, azter dezagun:

3.5.1.1. Forma.

Helburuzko perpaus hauek hartzen duten formari dagokionez, arestian aipatu dugunez, -(E)N menderagailua dute oinarrian; nolanahi ere, zehaztu dezagun menderagailu hau ezin dela edozein aditzekin agertu.

Honelako perpausak sortuko baditu, -(E)N menderagailuak aspektu markarik gabeko adizkiekin agertu behar du; beraz, alde batetik adizki sintekikoekin aurkituko dugu, hauek forma bakarra agertu arren, modu subjuntiboa zein indikatiboa adieraz baitezakete; eta bestetik, adizki perifrastikoekin, baina hauek beti aspektu markarik gabeko formak izango dira. Ikus dezagun adibide bana:

* Adizki sintetikoak:

  - *Hauc dié bothere ceruären ersteco, vriric* ***eztaguian*** *hayen prophetiazco egunetan ...* (Apo.,XI,6)

* Aditz perifrastikoak:

  - *Ecen guicendua da populu hunen bihotza, eta beharriéz gogorqui ençun vkan duté eta beguiac ertsi vkan dituzté: beguiez ikus, eta beharriéz*

ençun, eta bihotzaz ***adi ezteçaten, eta conuerti eztitecen, eta senda eztitzadan.*** (Mt.,XIII,15)

Edonola ere, joera nagusi honetatik aldentzen den salbuespen bat aipatu behar dugu, horretan -(E)N menderagailua aspektu markadun adizki bati atxikitzen baitzaio:

- *... eta haey cômunica niecén Gentilén artean predicatzen dudan Euangelioa, baina particularqui estimatan diradeney, neholere alfer* ***laster eznaguian*** *edo* ***eguin ez nuen.*** (Leiz., Gal.,II,2)

Haranederren obrara jotzen badugu, honek ere aspektu burutudun adizkia darabilela ikusten dugu:

- *... eta jentillei predicatcen diotedan Evangelioa comunicatu nioten han cirenei, beregainqui ordean cerbeit cirela ciduritenei,* ***beldurrez*** *ecen alferric* ***nindabillan*** *edo* ***ibilli içan nintcen.*** (Haran., Gal.,II,2)

Kontua da **"laster eguin ez nuen"** formaren bidez iraganeko ekintza eman nahi dela aditzera: "para que no hubiese corrido". Baina nola adierazi hori aspektu markarik gabeko adizkien bidez? Izan ere, aspektu markarik gabeko adizki guztiek nolabaiteko [+geroa] tasuna daramate beren baitan. Beraz, besterik ezean, aspektu markadun forma batera jo behar izan zuen.

Hortaz, lehenaldiko ekintza adierazi nahi denean, aspektu markadun aditzak erabiltzea guztiz zilegi dela esan dezakegu. Gainontzeko helburuzkoetan, ordea, eskuarki, "etorkizun" zentzua somatzen dugunez, kutsu hau daramaten adizki sintetikoak edota aspektu markarik gabekoak aurkituko ditugu.

3.5.1.2. Tokia.

Dakigunez, menpeko perpausek askatasun handia izaten dute perpaus nagusiaren baitan kokatzeko. Edonola ere, helburuzko perpausek hartzen duten kokaguneari gagozkiolarik, kokaleku zehatz baten aldeko joera nagusitzen dela aipatu behar dugu, adibide gehienak perpaus nagusiaren ondoan, hots, azken muturrean aurkitu baititugu. Izan ere, obra osoa azterturik, perpaus nagusiaren aurrean adibide pare bat baino ez dugu topatu; beraz, -(E)N menderagailuaren bidez sorturiko helburuzkoek gainerako menpeko perpausek baino kokaleku finkoagoa dutela esan dezakegu.

Ikus ditzagun, halere, bi posizioetako adibideak;

* Perpaus nagusiaren aurrean:

  - *Baina luçaquiago* ***eduqui ezeçadan,*** *othoitz eguiten drauat ençun gaitzán ...* (Apost.Act.,XXIIII,4)

* Perpaus nagusiaren ondoan:

  - *... igor eçac Lazaro,* ***busta deçâ*** *bere erhi mocoa vrean, eta* ***refresca dieçadan*** *mihia ...* (Lc.,XVI,24)

3.5.1.3. Balioa.

A.- Dakigunez, menderagailu honen bidez perpaus mota desberdinak sor daitezke; beraz, zenbait kasutan gerta daiteke konpletiboen ala helburuzkoen aurrean gauden ziur ez jakitea. Ikus dezagun adibide bat:

- *... Othoitz eguiçue* ***sar etzaitezten*** *tentationetan.* (Lc., XXII, 40)

Perpaus honek bi interpretazio izan litzake:

* Konpletiboa: "sar ez zaiteztela"
* Helburuzkoa: "Sar ez zaitezten" / " ez sartzeko"

Konpletiboak zein helburuzkoak sortzeko -(E)N menderagailua aspektu markarik gabeko adizkiei atxikitzen zaie; beraz, bi perpaus mota hauek jokabide berdina dutenez, zenbait adibidetan zalantzak sor daitezke eta, ezinbestez, kontestuak edota geure senak lagundu beharko digu auzia argitzen.

Edozein modutan, arestian aipaturiko adibidea Haranederrek bere obran duenarekin erkatzen badugu, helburuzko baten aurrean gaudela ikusiko dugu:

- ... *Eguiçue othoitz,* ***sar ez çaiteztentçat*** *tentacionean.* (Haran., Lc,XXII,40)

Bestalde, konpletiboen eremutik irten gabe, hainbat adibidetan gaitza da helburuzkoen ala izenlagunen aurrean gauden bereiztea, bi interpretazioak ontzat eman baititzakegu. Ikus dezagun adibide bat:

- ... *eta norc emâ drauc authoritate hori gauça horiac* **eguin ditzán**? (Mc.,XI,28)

Dakigunez, Leizarragak izenlagunaren eskuinaldean joan beharko lukeen izena, sarritan, aurreratu egiten du; beraz, kasu honetan -(E)N menderagailuaren bidez sortzen den perpausa izenlaguna ala helburuzkoa den, neurri handi batean, eman nahi diogun interpretazioaren arabera argituko dugu, biak onargarriak baitira.

Ohart gaitezen, bidenabar, -T(Z)EKO forma jokatugabearekin ere zalantza bera sor dakigukeela.

B.- Anbiguitate hauek alde batera utzirik, -(E)N menderagailuak helburuzko balio argia ere adieraz dezake. Gainera, zalantzarik izanez gero, adibide hauek Haranederrek dituenekin erkatzen baditugu, azken honek helburua adierazten duten menderagailu ezin argiagoak darabiltzala ohartzen gara. Ikus ditzagun adibide batzuk:

(1)- ... *baina iragaiten naiz, nehorc niçaz* ***estima ezteçan*** ... (Leiz., Cor.2,XII,6)

- ... *Baiñan guelditcen naiz, nihorc* ***estima ez naçantçat*** ... (Haran., Cor.2,XII,6)

(2)- *Ecen exemplu emâ vkâ drauçuet (...) çuec-ere* ***daguiçuen***. (Leiz., Io.,XIII,15)

- *Exemplua eman darotçuet ecen (...) çuec ere hala* ***eguin deçaçuen gatic***. (Haran., Io.,XIII,15)

(3)- ... *igor citzaten sargeantac,* ***erran leçaten,*** ... (Leiz., Apost.Act.,XVI,35)

- ... *igorri içan ciotçaten cargudunec charchoac* ***erraterat,*** ... (Haran., Apost.Act.,XVI,35)

(4)- *Ecen Iaincoa ezta iniusto,* ***ahanz daquión*** ... (Leiz., Hebr.,VI,10)

- *Ez da ecen Jaincoa injustu,* ***ahanztecotçat*** ... (Haran., Hebr.,VI,10)

Beraz, ikusten dugunez, -(E)N menderagailuak, berak bakarrik, helburua adieraz dezake. Gainera, Haranederren obrara jo gabe, Leizarragak berak, honen froga argia eskaintzen digu; izan ere, sarritan, helburuzko sekuentzia perpaus batek baino gehiagok osatzen dute eta, kasu askotan, -(E)N menderagailua helburuzko adiera argia duen beste menderagailu batekin batera agertzen zaigu, bere balioa agerian utziaz. Ikus ditzagun adibide batzuk:

(5)- ... *eta eçar ditzán escuac haren gainean, senda dadinçát eta* ***vici den***. (Mc.,V,23)

(6)- ... *Cer signo bada hic eguiten duc, dacussagunçát eta hi* ***sinhets eçagun***? (Io.,VI,30)

3.5.2. -(E)NÇAT

Helburuzkoak sortzeko, Leizarragaren obran behintzat, formarik erabiliena -(E)N menderagailuaren gainean sorturiko -(E)NÇAT menderagailua da.

Gogora dezagun Villasantek honetaz dioskuna:

> *"... por el poco cuerpo y relieve que tiene esta forma de expresar la finalidad, y porque el sufijo* **-n** *sirve además para muchas otras funciones, Ax., y en general los autores orientales, acostumbran a reforzar esa* **-n** *final con la palabra* ***amorea(k)gatik*** *(...)*
>
> *Otro modo de reforzar el sentido final de la* **-n** *es agregando a ésta el sufijo destinativo* **-tzat** *de la declinación."*[1]

3.5.2.1. Forma.

A.- Arestian aipatu dugunez, -(E)NÇAT, -(E)N menderagailuaren gainean sorturiko forma dugu:

"-(E)N + -TZAT destinatiboa (Leiz. -ÇAT)":

- *... Bada hauc guciac eguin içan dirade* ***eçagut eta sinhets deçagûçat*** *(...) eta sinhestez vicitze eternala Iesus Christ hunez* ***dugunçat*** *...* (Som.,34-35, 278.or.)

Zehaztu dezagun, -(E)N menderagailuarekin gertatzen den bezala, -(E)NÇAT forma ere helburuzko perpausak sortzekotan, adizki sintetikoekin edota perifrastikoen barruan, aspektu markarik gabekoekin agertu behar dela. Ikus dezagun adibide bana:

* Sintetikoekin:

- *... gauça guciac suffritzen ditugu, Christen Euangelioari empatchuric batre* ***eztemogunçát.*** (Cor.1,IX,12)

---

[1] VILLASANTE, L., Sintaxis de la oración compuesta, 136-137.orr.

* Perifrastikoekin (Aspektu markarik gabekoak):

- ... *dohatsu da (...) billuzgorriric* **ebil eztadinçát**, *eta nehorc haren laidoa* **ikus ezteçançát**. (Apo.,XVI,15)

B.- Bestalde, formaren barruan, aditz nagusiaren eta helburuzko perpausean dugun aditzaren arteko komunztaduraz ere hitz egin behar dugu, Leizarragak gaur egungo moldeetatik aldentzen den jokabidea agertzen baitu:

B.1. ORAINALDIKO FORMAK ("DADINÇAT"):

Perpaus nagusiko aditzean orainaldiko adizkiak dituqunean, helburuzkoan ere orainaldiko formak aurkituko ditugu. Perpaus nagusiko adizki hauek edozein aspektu-marka zein aspektu markarik eza eraman dezakete, baina derrigorrez, orainaldiko formak izan behar dira. Ikus ditzagun, aspektu-marka desberdinak agertzen dituzten adizkiak:

* SINTETIKOAK:

- ... *desir handia dut, cembeit dohain spirituál* **parti dieçaçuedâcát**, ... (Rom.,I,11)

* PERIFRASTIKOAK:

• Orain burutua:

- ... *eta ethorri gara hura* **adora deçagunçat**. (Mt.,II,2)

- ... *erho diradenac elegitu vkan ditu Iaincoac* **confundi ditzançát** *çuhurrac* ... (Cor.I,1,27)

• Orain ez-burutua:

- ... *eta ezta arguira ethorten, haren obrác* **reprehendi eztitecençat**. (Io.,III,20)

• Orain-geroa:

- ... *ioanen aiz Iaunaren beguitharte aitzinean, haren bideac* **appain ditzançat**. (Lc.,I,76)

• Orain aspektugabeak:

- *Ezteçaçuela iudica,* **iudica etzaiteztençát**. (Mt.,VII,1)

- ... *prophetiza ahal deçaqueçue, guciéc* **ikas deçatéçát** *eta guciac* **consola ditecençát**. (Cor.1,XIIII,31)

Helburuzko perpausean dugun adizkia sintetikoa bada, bete beharreko baldintza berdina da, orainaldiko formak behar baititu perpaus nagusian:

> - ... *vicitara itzuli içan da, hambat hilén nola vicién gainean dominatione* **duençát** (Rom.,XIIII,9)
>
> - ... *çaudete hartan: aguer dadinean assegurança* **dugunçát**, *età haren aitzinean côfus* **ezgarençát** ... (Io.1,II,28)

B.2. ALEGIAZKO FORMAK ("LEDINÇAT"):

Lehendabizi, ikus dezagun nola definitzen dituen alegiazko formak EGLU-k:

> *"Adizki berri hauek errealitatetik urrundu bezala egiten gaituzte, alegiazko mundu batean kokatzen delarik aditz ekintza, denboraren aldetik markatu gabe balitz bezala (...) hiztuna kokatuta dagoen momentutik kanpo gelditzen diren ekintza guztiek ez dute "gaurkotasunik". Hortaz,* **banentor** *età* **nentorke** *ezin dira [+orain] izan, ez baitira hiztunaren momentuan kokatzen. Hala guztiz, ikusten da ezin dutela eraman [+iragan] ezaugarria ere (...) geratzen zaigun hautabide bakarra [-orain, -iragan] aukeratzea da."*[1]

Honelako adizkiek [-orain, -iragan] tasuna daramatenez gero, gaur egun behintzat, baldintza hipotetikoen esparruan erabiltzen ditugu.

Leizarragaren obran, berriz, bestelako jokabidea antzemango dugu "LEDINÇAT" bezalako formak kontestu hipotetikoetan oso gutxitan topatzen baititugu. Ikus dezagun, halere, adibide bat:

> - ... *baldin mundu hunetaric baliz ene resumá, ene gendeac combati litezquec Iuduey* **liura eznendinçát** ... (Io.,XVIII,36)

Alegiazko formek, egungo mendebaldeko hiztunontzat bederen, [-iragan] tasuna daramate (aurreko adibidean ikusi duguna). Baina adibide hau ia-ia salbuspentzat jo dezakegu Leizarragaren obran, forma hau duten adibide

---

[1] EUSKALTZAINDIA, Euskal Gramatika Lehen Urratsak-II, 132.or.

gehienak **iraganeko** kontestuetan topatzen baititugu. Beraz, Leizarragak alegiazko forma hauen bidez iraganaren barruan nolabaiteko "geroa" edo adierazi nahi izan zuela esan liteke.

Izan ere, helburuzkoen bidez adierazten den ekintza, beti, ekintza nagusia kokatuta dagoen momentutik at geratzen da, hau da, ekintza nagusia gertatzen den momentuan helburuzkoak adierazten duena, oraindik, burutzeke dago.

Orainaldiko kontestuetan "geroaldi-kutsua" aspektu markarik gabeko orainaldiko formen bidez ematen da aditzera, aspektu markarik gabeko formek beti baitaramate beraiekin "gertatu gabea" kutsu hori.

Iraganeko kontestuetan, berriz, ezin zuen orainaldiko formarik erabili; beraz, besterik ezean, eta arestian aipatu dugunez, iraganaren barruan "gertakizun-kutsua" ezarri nahian, Leizarraga alegiazko formez baliatzen da.

Bestalde, gogora dezagun -(E)NÇAT menderagailua beti aspektu markarik gabeko adizkiekin agertzen dela eta Leizarragarentzat "ETOR CEDIN" gure "ETORRI ZEN" forma burutuaren baliokidea dela. Beraz, hauxe izan daiteke alegiazko formak aukeratzeko arrazoia.

Azter ditzagun, bada, alegiazko formak aurki ditzakegun kontestu desberdinak:

* SINTETIKOAK:

  - ... *Haur cioiten, hura* ***acussa leçatençat.*** (Mt.,XII,10)

* PERIFRASTIKOAK:

  • Orain burutua:

  - *Ecen gauça hauc eguin içan dirade Scriptura* ***compli ledinçát,*** ... (Io.,XIX,36)

  - ... *Iaunari othoitz eguin draucat hura eneganic* ***parti ledinçát.*** (Cor.2,XII,8)

Kontestu honetan, helburuzko perpausetan orainaldiko formak ere aurki ditzakegu; beraz bien arteko

desberdintasuna helburuzkoari eman ahal zaion [+orain] edo [+iragan] tasunean datzala esan dezakegu.

Izan ere, adibide berean bi formak -orainaldikoa eta alegiazkoa- aurki ditzakegu:

> - *Baina Christec redemitu vkan gaitu Leguearen maledictionetic (...) Abrahamen benedictionea Gentiletara* ***hel ledinçát*** *Iesus Christez, eta Spiritvaren promesa fedez* ***recebi deçagunçát.*** (Gal.,III,13-14)

Nolabait bereizteko, esan dezakegu lehenengo helburuzkoak [+iragan, +geroa] tasuna duela, iraganean gertaturiko ekintza batez ari baita; bigarrenak, berriz, [+orain, +geroa] tasuna du, ekintza oraindik ez baita gertatu, guk geuk jaso beharko dugu promesa hori orain. Bestalde, Haranederren obrara jotzen badugu, bereizketa bera topatuko dugu (hala ere, ohart gaitezen, Haranederrek Leizarragaren alegiazko formen ordez, iraganekoak darabiltzala):

> - *Jesuchristoc erossi içan gaitu leguearen madaricionetic (...) Abrahami eman citçayoen benedicionea jentilletarat* ***hel cedintçat*** *Jesuchristo baithan eta aguinduricaco Izpiritua* ***errecibi deçaguntçat*** *fedeaz.* (Haran., Gal.,III,13-14)

Beraz, hau ikusita, Leizarragaren alegiazko formek [+iragan] tasuna dutela aitortu behar dugu.

Edonola ere, orainaldiko kontestua baino ez dugu aipatu; baina forma hauek, nagusiki, iraganeko kontestuetan topatzen ditugu:

- Iragan burutua:

  - *... ecen ethorri cela haren orena* ***iragan ledinçat*** *mundu hunetaric ...* (Io.,XIII,1)

- Iragan ez-burutua:

  - *Baina harc haguitz mehatchatzen cituen,* ***manifesta ez leçatençat.*** (Mc.,III,12)

• Iragan aspektugabea:

- *Eta egon cedin han Herodesen finerano, Iaunac Prophetáz erran çuena* **côpli ledinçát.** (Mt.,II,15)

Esan gabe doa adizki sintetikoek jokabide berdina dutela, iraganeko kontestuetan alegiazko formak ditugu eta:

- ... *igor ceçan laborari hetara cerbitzaribat, mahastico fructutic* **lemotençat** ... (Lc.,XX,10)

- ... *eta hurbil cequion Iesusi pot* **leguionçát.** (Lc.,XXII,47)

Hortaz, adibide hauek ikusita, agerian dago Leizarragak gurea ez bezalako erabilera eskaintzen diela alegiazko formei, hauek iraganeko kontestuetan erabiliz.

B.3.- IRAGANEKO FORMAK ("CEDINÇAT"):

Iraganeko kontestuetan, aurreko atalean ikusi dugunaren arabera, alegiazko formak erabiltzen ditu Leizarragak; edonola ere, salbuespen bat aipatu behar dugu, adibide batean iraganeko forma bat aurkitzen baitugu:

- ... *eta tormenta iragaiten çuen* **erdi cedinçát.** (Apo.,XII,2)

Dudarik gabe, hauxe da egungo erabileratik hurbilen gelditzen zaigun forma; baina Leizarragaren obra osoa azterturik, adibide bakarra dela ohartzen gara. Aurreko atalean ikusi dugunez, iraganeko kontestu guztietan, sistematikoki, alegiazkoak erabiltzen ditu; beraz, ez al da susmagarria **"cedinçat"** adibide bakar batean aurkitzea?

Hortaz, gainerako adibide guztietan alegiazko formak erabiltzen direla ikusita, baliteke **cedinçat** forma

"zuzena" ez izatea, hau da, Leizarragaren edo H.Schuchardt-en akats tipografikoa izatea.

Dena den, agian, beste azalpenen bat eman liteke.

C.- Azkenik, menderagailu honen formarekin amaitzeko, esan dezagun Leizarragak -(E)NÇAT forma jokatua, perpaus nagusiaren eta helburuzkoaren sujetoak berdinak zein desberdinak direnean erabiltzen duela. Ikus dezagun adibide bana:

* Sujeto berdinak:

- *Eta egotz neçan neure buruä haren oinén aitzinera hura* **adora neçançát** ... (Apo.,XIX,10)

* Sujeto desberdinak:

- ... *Iesus Christ paubre eguin içan dela (...)* ***iarreiqui gaquitzonçat*** ... (Adv.,27-28, 268.or.)

3.5.2.2. Tokia.

-(E)NÇAT menderagailuaren bidez sortzen diren helburuzkoek perpaus nagusiaren baitan hartzen duten kokaguneari dagokionez, edozein posiziotan agertzeko askatasuna badute ere, adibide gehienak perpaus nagusiaren ondoan aurkitzen ditugula aitortu behar dugu.

Perpaus nagusiaren aurrean agertzen diren helburuzkoek, batzuetan, nahitaez agertu behar dute posizio horretan menpeko perpaus batean txertaturik daudelako:

- ... *ecen niri Aitac* ***compli ditzadançat*** *eman drauzquidan obréc (...) testificatzen duté* ... (Io.,V,36)

Nolanahi ere, beste askotan ez dago ageriko arrazoirik perpaus nagusiaren aurrean ager daitezen.

Beraz, posizio batean zein bestean kokatzea aukera kontua besterik ez da.

Ikus dezagun adibide bana:

* Perpaus nagusiaren aurrean:

- *Baina* ***scandaliza eztitzagunçát,*** *itsassora ioanic, egotzac amuä ...* (Mt.,XVII,27)

* Perpaus nagusiaren ondoan (ugariena):

- *Baina gauça hauc scribatu içan dirade,* ***sinhets deçaçuençát*** *(...) eta sinhesten duçuela vicitzea* ***duçuençát*** *haren icenean.* (Io.,XX,31)

3.5.2.3. Balioa.

-(E)NÇAT menderagailuaren bidez adierazten den balioari dagokionez, zalantzarik gabe esan dezakegu helburuzkoen aurrean gaudela, menderagailu honek ez baitu beste baliorik.

Edozein modutan, ohart gaitezen xedea adierazteko Leizarragak ia forma bakarra -berau- darabilela. Haranederrek, berriz, joritasun handiagoa erakusten digu, Leizarragaren -(E)NÇAT menderagailuaren ordez, baliabide ugari erabiliz. Ikus ditzagun adibide batzuk:

(1) -(E)N(T)ÇAT:

- *... baina gauça hauc erraiten ditut çuec* ***salua çaiteztençát.*** (Leiz., Io.,V,34)

- *... baiñan hauc erraten ditut çuec salbatuac* ***içan çaiteztentçat.*** (Haran., Io.,V,34)

(2) -(E)N:

- *Eta escuetan eramanen autela, eure oinaz harrian* ***behaztopa ezadinçát*** (Leiz., Lc.,IIII,11)

- *eta escuetan erabillico çaituztela, çure oinez* ***jo ez deçaçun*** *cembait harriren contra.* (Haran., Lc.,IV,11)

(3) -(E)N AMOREAGATIC / -(E)N GATIC:

- *Orduan haourtchoac presentatu içan çaizcan escuac gainean* ***eçar lietzençat*** *eta othoitz* ***leguiançat*** ... (Leiz., Mt.,XIX,13)

- *Orduan ekharri ciotçaten haur chume batçu, escuac* ***pausa ciotçaten amoreagatic*** *buruen gainean, eta hequientçat* ***othoitz eguin ceçan gatic*** ... (Haran., Mt.,XIX,13)

(4) -T(C)ERAT:

- ... *haren ahaideac ilki citecen* ***hatzaman leçatençat*** ... (Leiz., Mc.,III,21)

- ... *ethorri ciren haren ahaideac haren* ***hartcerat,*** ... (Haran., Mc.,III,21)

(5) -T(C)ECO(TÇAT):

- ... *eta igor ceçaten presoindeguira* ***erekar litecençát.*** (Leiz.,Apost.Act.,V,21)

- ... *eta igorri cituzten presondeguirat Apostoluac handic* ***erakhartcecotçat.*** (Haran., Apost.Act.,V,21)

(6) -T(C)EA GATIC:

- ... *eztut ianen haraguiric seculan, neure anayea* ***scandaliza ezteçadançát.*** (Leiz., Cor.1,VIII,13)

- ... *ez dut janen haraguiric seculerenean, ene anaya ez* ***scandalisatcea gatic.*** (Haran., Cor.1,VIII,13)

Agian forma gehiago aipa litezke; dena den, adibide hauen bidez agerian geratzen da, alde batetik, -(E)NÇAT menderagailuaren helburuzko adiera ukaezina dela eta, bestetik, Leizarragaren urritasunaren aldean, Haraneder oparoagoa dela.

3.5.3. -T(Z)ERA

Dakigunez, xedea forma jokatuen zein jokatugabeen bidez adieraz daiteke; beraz, aurreko ataletan aztertu ditugun forma jokatuak alde batera utzirik, azter ditzagun orain jokatugabeak.

3.5.3.1. **Forma.**

Forma jokatugabea izanik, honako egitura hau aurkitzen dugu:

"Aditz-izena:-T(Z)E + -RA adlatiboa":

- *Eta igor citzan hec Iaincoaren resumaren* ***predicatzera*** *eta erién* ***sendatzera***. (Lc.,IX,2)

Edozein modutan, -T(Z)ERA forma honek izan dezakeen aldaera bat aipatu behar dugu:

"Aditz-izena: -T(Z)E + -RANO adlatibo bukatuzkoa".

- *... gaizqui tracta citzan gure aitác, bere haourrén heriotara* ***abandonna eraciterano***. (Apost.Act.,VII,19)

- *... gaizetsi vkan du Iaincoac, bere etsay eta contrast especial anço: bay* ***errraterano*** *ecen ...* (Adv.,20-21,256.or.)

Obra osoan bi adibide hauek bakarrik topatu ditugu; edonola ere, zehaztu dezagun bi forma hauen bidez adierazten den balioak ez daukala zerikusirik -T(Z)ERA helburuzkoaren bidez adierazten denarekin. Formari dagokionez, bata bestetik eratortzen da; hala ere, balioari dagokionez, -T(Z)ERANO formaren bidez "hasta el punto de" edo antzeko balioren bat adierazten da. Beraz, formaren aldetik kideak izan daitezke; baina, ez, ordea, balioaren aldetik.

Azkenik, formarekin amaitzeko, gogora dezagun "IGORRI" aditzaren menpe sortzen diren perpausak alde batera utzirik, forma jokatugabeak ager daitezen bete beharreko baldintza perpaus nagusiaren eta helburuzkoaren sujetoak berdinak izatea dela:

- *... ioan içan ciraden hirira iateco* ***erostera***. (Io.,IIII,8)

Nolanahi ere, aipatu dugunez, IGORRI aditzaren menpe sortzen diren perpausak arau nagusi honetatik aldentzen dira, perpaus hauetan bat datozenak bi sujetoak izan beharrean, perpaus nagusiaren osagarri zuzena eta helburuzkoaren sujetoa baitira. Ikus dezagun adibide bat:

- *Ecen eznau igorri Christec* ***batheyatzera***, *baina* ***euangelizatzera*** ... (Cor.1,I,17)

3.5.3.2. Tokia.

Tokiari dagokionez, adibide gehienak perpaus nagusiaren ondoan agertzen dira; hala ere, noizbehinka, aurreko posizioan ere aurki ditzakegu.

Adibidez, helburuzkoa beste menpeko baten barruan txertaturik dagoen kasuetan, normala da helburuzko hauek aurreko posizioan aurkitzea. Ikus ditzagun adibide batzuk:

- *Eta hec* ***erostera*** *ioaten ciradela, ethor cedin sposoa* ... (Mt.,XXV,10)

- *... Içanen da Iesserenic çain-bat, eta, Gentilén* ***gobernatzera*** *altchaturen den-bat* ... (Rom.,XV,12)

Edonola ere, Leizarraga ez da sistematikoa perpaus hauek posizio zehatz batean kokatzeko orduan, helburuzkoak, askotan, menpeko perpaus baten barruan txertaturik egon arren, azken muturrean aurkitzen baititugu:

- *Batre ezta eridê içan itzuli denic, Iaincoari gloria* ***emaitera*** ... (Lc.,XVII,18)

- *Eta baciraden Grec batzu igaiten ohi ciradenetaric* ***adoratzera*** *bestán.* (Io.,XII,20)

Beraz, adibide hauetatik atera daitekeen ondorioa Leizarragak menpeko perpausak kokatzeko askatasun handiz jokatu zuela da. Gainera, mugikortasun hau menpeko perpausen barruan txertaturik dauden helburuzkoetan ezezik, adibide arruntetan ere antzeman dezakegu:

* Perpaus nagusiaren aurrean:

  - *Suaren* ***emaitera*** *ethorri naiz lurrera ...* (Lc.,XII,49)

* Perpaus nagusiaren ondoan:

  - *... ezalbeiledi guibelerat itzul, bere abillamenduaren* ***hartzera***. (Mc.,XIII,16)

Hala ere, gogora dezagun kokagunerik arruntena perpaus nagusiaren ondokoa dela.

3.5.3.3. Balioa.

Forma jokatugabe honen bidez adierazten den balioaz hitz egiteko, perpaus konpletiboak aztertzean, forma jokatugabeen artean, -T(Z)ERA nominalizazioa ere aipatu genuela gogoan izan behar dugu.

Leizarragaren obran nominalizazio mota guztiak azterturik, -T(Z)ERA formarik erabiliena dela konturatzen gara; baina erabiliena izanik, dudarik gabe, adiera anitz hartuko du:

1. -T(Z)ERA nominalizazioa:

Zenbait aditzek -T(Z)ERA forma jokatugabea eskatzen dute; beraz, adibide hauetan ezin hitz egin daiteke helburuzko perpausez, aditz jakin batek eskaturiko nominalizazioaz baizik:

- *Eta bertan Iesusec bortcha citzan bere discipuluac vncian* ***sartzera***, *eta haren aitzinean berce aldera* ***iragaitera*** ... (Mt.,XIIII,22)

- *... Eta nehor guehiagoric etzayón ausart* ***interrogatzera***. (Mc.,XII,34)

- ... eta exhortatzen cituê guciac (...) **perseueratzera** Iaunarequin. (Apost.Act.,XI,23)

2. -T(Z)EKO-ren baliokideak:

Adibide batzuetan, -T(Z)ERA formaren bidez eraikitako perpausak -T(Z)EKO formaren bidez eraikiko genituzkeenen baliokideak dira. Ikus ditzagun adibide batzuk:

- ... cioela, Ioseph Dauid-en semeá, ezaicela beldur eure emazte Mariaren **hartzera** ... (Mt.,I,20)

- Ala ez naiz haiçu nahi dudanaren **eguitera** neure onéz?. (Mt.,XX,15)

- ... prest naiz çuey çuey Roman çaretenoy-ere **euangelizatzera**. (Rom.,I,15)

Edozein modutan gogora dezagun perpaus hauek -T(Z)EKO nominalizazioaren bidez sor litezkeenekin parekatzea, hein handi batean, gure gaur egungo erregistroetan oinarriturik egiten dugula, Leizarragak -T(Z)ERA formari eremu semantiko zabalagoa atxikitzen baitzion.

3. -T(Z)ERA helburuzkoa:

Helburuzko adiera argia duten adibideak nolabaiteko mugimendua adierazten duten aditzen menpe agertzen direnak dira. Aditz asko aipa genitzake, baina hona hemen ugarienak:

* ETHORRI:

  - Ecen ethorri içan da guiçonaren Semea galdu cenaren **saluatzera**. (Mt.,XVIII,11)

* IGORRI:

  - ... eta igorri içan nauc hirequin **minçatzera**, eta berri on hauen hiri **declaratzera**. (Lc.,I,19)

* IOAN:

  - Bada orain banoa Ierusalemerát, sainduey **administratzera**. (Rom.,XV,25)

* ILKI:

  - *... orduan ilki citecen* ***ikustera*** *cer eguin içan cen.* (Mc.,V,14)

* IGAN:

  - *... igan cedin Pierris etche gainera* ***othoitz eguitera*** ... (Apost.Act.,X,9)

* ITZULI:

  - *Batre ezta eridê içan itzuli denic, Iaincoari gloria* ***ematera*** ... (Lc.,XVII,18)

* IAUTSI:

  - *... eta iautsi içan nauc hayén* ***idoquitzera,*** ... (Apost.Act.,VII,34)

* SARTHU:

  - *Eta igor citzan bere cerbitzariac ezteyetara gomitatuén* ***deitzera.*** (Mt.,XXII,3)

Orain arte mugimendua adierazten duten aditzen menpe sortzen diren helburuzkoak aipatu ditugu; dena den, ohart gaitezen honelako perpausak izenondo edota aditzondo baten menpe ere sor daitezkeela. Ikus ditzagun adibide batzuk:

* Izenondo baten menpe:

  - *Arin dirade hayén oinac odol* ***issurtera.*** (Rom.,III,15)

  - *... Guciac içâ dira itsu arguira, gor aduertimenduetara, eta gogortuac manaméduetara. Salbu (...) vnguiguile subiranoarê* ***eçagutzera.*** (Adv.,32-36, 258.or.)

* Aditzondo baten menpe:

  - *... hayen armadác bilduric* ***guerla eguitera*** ... (Apo.,XIX,19)

Ohart gaitezen, bidenabar, azken adibide hauetan ere mendebaldeko hiztunok behintzat, -T(Z)ERA formaren ordez -T(Z)EKO erabiliko genukeela.

4. Adibide bereziak:

A.- "-T(Z)ERA + IOAN" egitura topatzen dugun zenbait adibidetan forma jokatugabearen bidez sortzen diren perpausak helburuzkoak izan beharrean, -T(Z)EAR, -T(Z)EKO ZORIAN EGON edo -T(Z)EN ARI formen bidez adieraziko genituzkeenetatik hurbil daude:

> - *Eta Centener baten cerbitzaria eri içanez* ***hiltzera çohian,*** ... (Lc.,VII,2)
>
> - *Harc ikus citzanean Pierris eta Ioannes templean* ***sartzera cioacela,*** *othoitz eguin ciecen* ... (Apost.Act.,III,3)

B.- Bestalde, -T(Z)ERA forma jokatugabearen bidez eraikitzen den beste egitura berezi bat aipatu behar dugu, berezia ez baitago aditz baten menpe. Ikus ditzagun adibide batzuk:

> - ***Osanna,*** *edo (hobequi* ***scribatzera****) Hosiah-na,* ... (Hitz eta Minçatzeco Manera,1208.or.)
>
> - ... *eta ikussiric ecen halacoequin* ***comparatzera*** *ez-deus baino ez-deusago nincela...*(Guc.,12-14, 252.or.)
>
> - *Eta labur* ***erraitera,*** *guiçona cena cen beçala (...) gaizetsi vkan du Iaincoac,* ... (Adv.,17-20, 256.or.)
>
> - *Bada hitz gutitan* ***erraitera,*** *guçaz onic içatecotz (...) eriden behar duguna da,* ... (Adv.,12-14, 272.or.)

Ikusten dugunez, adibide hauetan nominalizazioak ez daude mugimendua adierazten duen aditz baten menpe, bakar-bakarrik baizik. Hala ere honek ez du esan nahi ez direla helburuzkoak; baina, inorekin parekatzekotan, berriro -T(Z)EKO formaren baliokidetzat jo beharko genituzke.

Beraz, -T(Z)ERA forma jokatugabeak har ditzakeen balio guztiak ikusita, argi dago honek gaur egun hegoaldekook erabiltzen dugun formak baino ekintza-eremu zabalagoa zuela.

3.5.4. -T(Z)ECO

Xedea adierazten duten forma jokatugabeen artean -T(Z)ERA ezezik -T(Z)EKO ere aztertu behar dugu.

3.5.4.1. Forma.

Helburuzko hauek jokatugabeak izanik, oinarrian beti aditz-izena izango dute; beraz, hona hemen aurki dezakegun egitura:

"Aditz-izena :-T(Z)E + -KO genitiboa"

- *Eta conseillu eduqui ceçaten fineciaz Iesusen* ***hatzamaiteco*** *eta* ***hiltzeco.*** (Mt.,XXVI,4)

Edozein modutan, -T(Z)EKO forma ugariena bada ere, honek izan ditzakeen aldaerak ere kontutan izan behar ditugu, Leizarragak zenbait adibidetan helburuzko adiera indartzeko edota ageriago utzi nahian bestelako egiturak erabiltzen baititu. Ikus ditzagun adibide batzuk:

a) -T(Z)ECOTZ[1]:

- *Christen discipulu* ***içatecotz*** *nola gucia renuntiatzeco.* (Lc.,XIIII,0-33)

- *... guçaz onic* ***içatecotz,*** *Scriptura gucian diligentqui bilhatu eta eriden behar duguna da* ... (Adv.,13-14, 272.or.)

b) -T(Z)ECOTZAT:

Forma jokatuen artean ikusi dugunez, Leizarragak behintzat, sarritan -(E)N menderagailua -TZAT destinatiboak lagunduta erabili ohi du helburuzko zentzua agerian gera dadin. Hemen gauza bera aurkitzen dugu:

---

[1] Ohart gaitezen, forma honek beste balio bat ere adieraz dezakeela, baldintzazkoa, alegia. Dena den, adiera hau ondorengo atal batean aztertuko dugu.

- ... *auançatu da ene gorputzaren vnctatzera ene* ***ohorztecotzat***. (Mc.,XIIII,8)

- ... *hura da Iaincoaren puissançá, sinhesten duten gucién* ***saluatzecotzat*** ... (Adv.,33-34, 266.or.)

c) -T(Z)ECOTAN:

Gogora dezagun forma honek har dezakeen balioaz P.Goenagak hitz egiten digula:

"Esan daitekeela uste dut, -T(Z)EKOTAN agertzen zaigun bakoitzean, -T(Z)EKO ASMOTAN, edo -T(Z)EKO ESPERANTZATAN edo USTETAN edo horrelako zerbait ulertu beharra dagoela."[1]

- ... *parti cedin leku vrrun batetara, resuma baten conquestatzera, guero* ***itzultzecotán***. (Lc.,XIX,12)

- *Eta eracusteco resuscitatu duela hura hiletaric guehiagoric sepulchrera ez* ***itzultzecotan***, *hunela erran vkan du,* ... (Apost.Act.,XIII,34)

Bestalde, formarekin amaitzeko, esan dezagun forma jokatugabeak ager daitezen perpaus nagusiaren NOR, NORK edo NORI sintagmak (hau da, kasu gramatikalak) eta helburuzkoaren sujetoa berdinak izan behar direla. Ikus ditzagun adibide batzuk:

1.- BI SUJETOAK (berdinak):

- ... *bihotz harturen duté (...) berriz* ***ikusteco*** *eta* ***corrigitzeco:*** *bayeta (...) annotationén* ***eçarteco*** ... (Heu.,25-28, 254.or.)

- ... *cer eguin behar dut* ***saluatu içateco***? (Apost.Act.,XVI,30)

2.- Perpaus nagusiaren OSAGARRI ZUZENA eta helburuzkoaren SUJETOA (berdinak):

- ... *elegitu au hi bere vorondatearen* ***eçagutzeco*** *eta Iustoaren* ***ikusteco***, *eta haren ahotic vozaren* ***ençuteco***. (Apost.Act.,XXII,14)

---

[1] GOENAGA, P., Gramatika Bideetan, 372.or.

- ... *eztitu Iaincoac elegitu mundu hunetaco paubreac fedez abrats* **içateco**, ... (Iac.,II,5)

3.- Perpaus nagusiaren ZEHAR OSAGARRIA eta helburuzkoaren SUJETOA (berdinak):

- ... *baina occasione emaiten drauçuegu guçaz* **gloriatzeco** ... (Cor.2,V,12)

- ... *hitzaren borthá Iaincoac irequi dieçagunçát, Christen mysterioaren* **denuntiatzeco**, ... (Col.,IIII,3)

3.5.4.2. Tokia.

Helburuzko hauek perpaus nagusiaren baitan hartzen duten kokaguneari dagokionez, forma honek aurrekoen jokabide bera agertzen duela jabetzen gara, adibide gehienak perpaus nagusiaren ondoko posizioan aurkitzen ditugu eta.

Aurreko posizioan agertzen diren adibideetako batzuek nahitaez agertu behar dute posizio horretan, beste menpeko perpaus baten barruan txertaturik daudelako:

- ... *guerla* **eguiteco** *hautatu duenaren gogoraco dençát.* (Tim.2,II,4)

Nolanahi ere, perpaus berezi hauek alde batera utzirik, gehienetan helburuzkoa aditz nagusiaren aurrean zein ondoan agertzea aukera kontua baino ez da. Ikus dezagun adibide bana:

* Perpaus nagusiaren aurrean:

  - ... *hurbiltzeco moienic* **vkaitecotz** *behar eta necessario içan da* ... (Adv.,21-22, 259.or.)

* Perpaus nagusiaren ondoan:

  - *Eta gogoa demogun elkarri charitatera eta obra onetara* **incitatzeco**. (Hebr.,X,24)

Aurreko formetan bezala, hemen ere posiziorik ugariena perpaus nagusiaren ondokoa da; dena den, aipa dezagun forma jokatugabe hau aurreko ataletan aztertu ditugunak baino sarriago agertzen dela aurreko posizioan.

3.5.4.3. Balioa.

-T(Z)ECO forma jokatugabeak adierazten duen balioari dagokionez, adibide gehienetan helburuzko balio argia duela aipatu behar dugu, ZERTARAKO galde-hitzari ematen baitio erantzuna. Ikus ditzagun adibide batzuk:

- *Har ceçaten bada berriz harri Iudúec haren* ***lapidatzeco.*** (Io.,X,31)

- *... ecen hec deus etzuten cerbitzatzen Iesus Christec bekatuaren* ***abolitzeco*** *eta* ***iraunguitzeco*** *bere gorputz propriaz eguin behar çuen eguiazco oblationearen* ***representatzeco*** *baicen ...* (Som.,21-24, 275.or.)

Edonola ere, zenbait kasutan zalantzak sor dakizkiguke, -T(Z)EKO forma adizlaguna izan beharrean, izenlaguna ere izan baitaiteke:

- *... baduela authoritate lurreâ bekatuén* ***barkatzeco*** *...* (Lc.,V,24)

- *Hauc dié bothere ceruären* ***ersteco*** *(...) eta dié bothere vren gainean, hayen odoletara* ***conuertitzeco,*** *eta lurraré* ***açotatzeco*** *...* (Apo.,XI,6)

Leizarragak, sarritan, izenlagunaren eskuinaldean joan ohi den izena aurreratu egiten du; horregatik askotan ez dakigu ziur izenlagun ala adizlagunen aurrean gauden.

3.6. KAUSAZKOAK

Zenbait gramatikarik, hala nola, Lafittek edo Villasantek kausazko perpausetan koordinatuak eta subordinatuak bereizten zituzten. Gogora dezagun gramatikari hauen ustez zertan datzan desberdintasuna:

> *"Oraciones causales coordinadas son aquellas que se construyen exclusivamente con conjunciones-vocablos. Expresan la causa, pero, al parecer, una causa no tan rotunda o determinante como la que expresan las oraciones causales subordinadas (...)*
>
> *Son, en cambio, oraciones causales subordinadas las que se construyen con afijos aplicados al verbo, a veces exclusivamente (...) y a veces en conexión con conjunciones o anafóricos. Esta clase de oraciones causales enuncian la causa determinante (que puede aún matizarse como sujetiva, opinada, etc.).*[1]

Guk, egia esan, ez dugu halako bereizketarik onartu; hala ere, aitor dezagun menderagailuen eremutik at beste forma bat -ECEN lokailua- aztertu dugula.

Ikus ditzagun orain Leizarragak erabiltzen dituen menderagailuak:

3.6.1. CEREN... BAIT-

3.6.2. CEREN... -(E)N

3.6.3. -(E)LACOTZ

3.6.4. NOLA... BAIT-

3.6.5. -(E)NAZ GUEROZ

3.6.6. -(E)NAREN GAINEAN

3.6.7. BESTELAKOAK:

- **-(e)nez**
- **bait-**
- **-(e)la(ric) / -(e)z / -(r)ic**

---

[1] VILLASANTE, L., La oración causal en vasco, 259.or.

3.6.1. CEREN... BAIT-

Lafittek eta Villasantek ZEREN anaforikoa kausa adieraz dezaketen menderagailuen artean kokatu zuten. Gaur egun, berriz, EGLU-k plazaraturiko azken teoriaren arabera, baiezta dezakegu egiazko menderagailua aditzak hartzen duen **bait-** aurrizkia dela eta ez ZEREN anaforikoa:

> "... *Ez dugu proposatuko, hortaz, analisi bikoitza, hots: alde batetik* **zeren** *lokailua eta bestetik* **zeren bait-** *menderagailua. Aitzitik,* **zeren** *beti lokailu dela esan genezake: batzutan menderakuntza indartzera edo datorrena; besteetan alborakuntza garbia izango dugu eta beste batzutan bi perpaus lokabek (sintaktikoki lokabek) duten kausa erlazioa agerian jartzea izango litzateke lokailuaren betebeharra.*"[2]

Leizarragaren erabilerari bagagozkio, kausa adierazteko formarik erabilienak ECEN lokailua eta CEREN anaforikoa direla jabetuko gara. Edozein modutan, ohart gaitezen Leizarragak sekula ez duela forma bera perpaus lokabeetan eta menpekoetan erabiltzen. Izan ere, Axularren erabilera aztertzen badugu, honek ZEREN anaforikoa menpeko perpausen artean zein perpaus lokabeetan erabiltzen zuela konturatzen gara. Leizarragak, aldiz, perpaus lokabeen eremuan beti ECEN lokailua erabiliko du eta menpeko perpausen eremuan, beste forma batzuekin batera, CEREN anaforikoa.

Hortaz, Leizarragaren azterketarako ez digu EGLU-ren analisiak balio, Leizarragak ez baitu CEREN anaforikoa lokailu gisa erabiltzen. Anaforiko hau agertuko bada, aditzak, nahitaez, atzizki edo aurrizkiren bat behar du aldamenean.

Beraz, Leizarragak anaforiko hau, beti eta salbuespenik gabe, menpeko perpausen esparruan erabiltzen duenez, kausazko hauen azterketa errezteko edo, CEREN...BAIT- menderagailutzat joko dugu, nahiz eta zinezko menderagailua BAIT- aurrizkia dela jakin.

---

[2] EUSKALTZAINDIA, Euskal Gramatika Lehen Urratsak-IV. Juntagailuak, 10-11.orr.

Azkenik, gogora dezagun, Leizarragak ezezik, iparraldeko beste zenbait idazlek ere, hala nola, Haranederrek edo Lapeyrek ZEREN anaforikoa beti menpeko perpausen eremuan erabiltzen dutela. Ikus dezagun, adibidez, Villasantek Lapeyrez dioskuna:

> *"Axular-ek, Espainia aldeko kulturaren eragina zuelako, nonbait, gaztelanian dagoen nahaste bera egiten du. Esan nahi dut:* ***zeren*** *"porque" erabiltzen du bai subordinatuetan eta bai koordinatuetan ere; (...) Lapeyre-k, berriz, frantsesa izanik, ez du horrelako nahasterik. Autore honengan* ***zeren*** *konjuntzioak beti du berekin subordinazio marka aditzean:* ***bait-*** *edo -bakanago-* ***-n****. Koordinatu hutsetan Lapeyre-k ez du sekula erabiltzen* ***zeren, ezan*** *baizik. Eta orduan aditzak ez du inongo aurrizki edo atzizkirik."*[1]

3.6.1.1. Forma.

Leizarragak CEREN anaforikoa, eskuarki, bakar-bakarrik erabiltzen du, hau da, beste lokailuen laguntzarik gabe:

> - *Dohatsu dirade spirituz paubreac:* ***ceren*** *hayén* ***baita*** *ceruëtaco resumá.* (Mt.,V,3)
>
> - *Aleguera naiz bada* ***ceren*** *gauça gucietan çueçaz assegura ahal* ***bainaite*** (Cor.2,VII,16)

Hala ere, noizbait ETA lokailuaren laguntzaz ager dakiguke. Dena den, esan dezagun joera hau oso urria dela; adibidez, Leizarragaren obra osoan adibide bakar bat baino ez dugu aurkitu:

> - *Ceinez propos lucea baitugu erraiteco, eta declaratzeco difficila:* ***ceren*** *ençutera naguitu içan* ***baitzarete:*** ***Cereneta*** *demboraren arauez iracatsle içan behar cinetelaric, berriz iracatsi behar* ***baitzarete*** ... (Hebr.,V,11-12)

---

[1] VILLASANTE, L.; LASARTE, Mª P., "Perpaus kausalak Lapeyre idazlea baitan" Euskera, XXV, 542.or.

3.6.1.2. Tokia.

CEREN anaforikoa beti menpeko perpausaren aitzinburuan aurkituko dugu, kausazko perpausari hasiera ematen baitio:

- *Ecen etzutén aditu oguiéz eguin içan cena:* ***ceren*** *hayén bihotza gogortua* ***baitzén.*** (Mc.,VI,52)

- *... guiçon gucietara herioa heldu içan da,* ***ceren*** *guciéc bekatu eguin* ***baituté.*** (Rom.,V,12)

Orain arte ikusi dugunaren arabera, menpeko perpausaren hasieran agertzeaz gain, kausazko hau perpaus nagusiaren eskuinaldean kokatu ohi dela esan beharko genuke. Dena den, joera hau maizenik aurkitzen duguna bada ere, ez da sistematikoa, kausazko hauek perpaus nagusiaren ezkerraldean ere ager baitaitezke:

- *... ordea* ***ceren ezpaitzarete*** *munduco, baina nic elegitu* ***baitzaituztet*** *mundutic, halacotz gaitz daritzue munduac.* (Io.,XV,19)

- *Eta* ***ceren*** *deus* ***ezpainuen*** *ikusten (...) Damascera ethor nendin.* (Apost.Act.,XXII,11)

Bestalde, esan dezagun kausazko sekuentzia horren barruan perpaus bat baino gehiago aurki dezakegula. Kasu hauetan, komunzki, CEREN anaforikoa behin bakarrik agertzen da, lehenengo perpausaren hasieran hain zuzen ere; baina BAIT- menderagailua guztietan errepikatzen da:

- *Eta haourric etzutén,* ***ceren*** *Elisabeth steril* ***baitzen,*** *eta biac* ***baitziraden*** *adinez aitzinaratuac.* (Lc.,I,7)

- *... ecen erts ceçaquec hura:* ***cerê*** *indar gutibat* ***baituc*** *hic, eta beguiratu* ***baituc*** *ene hitza, eta* ***ezpaituc*** *renuntiatu ene icena.* (Apo.,III,8)

Dena den, zenbait adibidetan, perpaus guztien hasieran ere ager daiteke CEREN anaforikoa:

- ... *eta erran ceçan comparationebat* ***ceren baitzen*** *Ierusalemeco aldean, eta* ***ceren*** *vste* ***baitzutén*** ... (Lc.,XIX,11)

- *Bada laudatzen çaituztet, anayeác,* ***ceren*** *ene gauça guciez orhoit* ***baitzarete,*** *eta* ***ceren*** *(...) ordenançac eduquiten* ***baitituçue.*** (Cor.1,XI,2)

Laburbilduz, esan dezagun, CEREN anaforikoa beti perpaus txertatuaren hasieran agertzen dela eta honen bidez sortzen den kausazkoa perpaus nagusiaren ezkerraldean zein eskuinaldean aurki dezakegula -joerarik nagusiena perpaus nagusiaren eskuinaldean agertzea bada ere-. Bestalde, kausazko sekuentzia perpaus batek baino gehiagok osatzen dutenean, anaforikoa, salbuespenak alde batera utzirik, lehenengo perpausaren hasieran bakarrik agertzen da; BAIT- menderagailua, ordea, guztietan.

3.6.1.3. Zein kontestutan agertzen den.

Tradizioari begira, CEREN...BAIT- forma kausazko perpausak sortzeko biderik erabiliena izan da; beraz, kausalitatea adierazteko baliabide nagusiena izanik, printzipioz, edozein kontestutan aurkituko dugu. Dena den, bereiz ditzagun puntu batzuk:

1.- Lehendabizi, azter dezagun Villasantek eta Mª Pilar Lasartek esaten digutena:

> "... ***zeren*** *(edo* ***zerren****) hizkuntzaren hedadura guztian erabili da eta erabiltzen da: sortaldeko euskalkietan* ***bait-*** *aurrizkiarekin eta sartaldekoetan* ***-n*** *atzizkiarekin erlazionaturik. (...) Perpaus aski luzeetan konstrukzio honek badu abantail bat nabaria: esaldiaren hasieran* ***zeren*** *hori jartzen duzu berri ekarle bezala. Orduan badakizu jadanik kausala dela esaldi hura: gero aditzean* ***bait-*** *aurrizkiak bururatzen edo borobiltzen du* ***zeren****-ek iragarri zuena.* ***-Lako*** *egokiagoa da, beharbada, esaldi laburretan."*[1]

---

[1] VILLASANTE, L.; LASARTE, Mª P., "Perpaus kausalak Lapeyre idazlea baitan" Euskera, XXV, 551.or.

Ideia hau Villasanteren La oración causal en vasco liburuan ere aurki dezakegu:

> "... *siendo así que la construcción* **zeren** *más* **bait-** *tiene idéntica función y valor ¿habrá que concluir que una de las dos está de sobra? En modo alguno. En oraciones cortas y de factura simple* **-lako** *está en su sitio y parece preferible. Pero en períodos largos o complicados puede interesar colocar en el comienzo de la frase la partícula que anuncia la causal y que tal vez se halla relativamente distante del verbo que lleva* **bait-**."[5]

Leizarragaren obran bi menderagailuak -CEREN...BAIT- eta -(E)LACOTZ- aurki ditzakegunez, ikus dezagun ea Villasanteren teoria betetzen den.

Egia da zenbait adibidetan CEREN agertzen deneko perpausa luze samarra dela eta, askotan, BAIT- menderagailua perpausaren hasieratik aski urrun aurkitzen dela. Kasu hauetan beraz, gomendagarria litzateke anaforikoaren erabilera kausazko perpausa non hasten den zehazteko:

> - ... *nehorc ecin esteca ciroen.* **Ceren** *anhitzetan cepoz eta cadenaz estecatu içan cenean hauts* **baitzitzan** *cadenác, eta çathica cepoac ...* (Mc.,V,3-4)

> - *Baina certificatzê du bere charitatea gu baithara Iaincoac,* **ceré** *oraino bekatutara abâdonnatuac quinela, Christ guregatic hil içan* **baita**. (Rom.,V,8)

Adibide hauetan kausazko sekuentziaren barruan beste mota bateko perpausak ere tartekatu dira; horregatik, hasierako anaforikoaren erabilera lagungarri suerta daiteke kausalitatea agerian gera dadin.

Edonola ere, hau adibide bakan batzuetan baino ez da gertatzen; aitzitik, adibide gehienetan perpaus sinpleak eta aski laburrak aurkitzen ditugu:

---

[5] VILLASANTE, L., La oración causal en vasco, 242.or.

- *Dohatsu dirade bihotzez chahu diradenac:* **ceren** *hec Iaincoa ikussiren* **baituté.** (Mt.,V,8)

- *... Scribatu drauçquet, gazteác,* **ceren** *borthitz* **baitzarete,...** (Io.1,II,14)

Hau ikusita, CEREN...BAIT- forma kausazkoak sortzeko biderik erabiliena izanik, edozein eratako perpausetan -luze eta korapilotsuetan zein sinpleetan- ager daitekeela esan dezakegu.

2.- Halaber, esan dezagun CEREN...BAIT- formaren bidez eraikitzen diren kausazko perpausek, CERGATIC galde-hitzari erantzun diezaioketela:

- *... Cergatic hemen çaudete egun gucian alfer? Diotsate,* **Ceren** *nehorc* **ezpaiquaitu** *alocatu.* (Mt.,XX,6-7)

- *... Cergatic nigarrez ago? Dioste,* **Ceren** *kendu* **baitute** *ene Iauna, eta* **ezpaitaquit...** (Io.,XX,13)

3.- Bestalde, Patxi Altunak Axularrengan oinarriturik ZEREN agertzen den hainbat kontestu aztertu ditu. Hona hemen esaten duena:

"*1. Aginduzko perpausaren, hots adizkia inperatiboan duenaren ondoan dagoenean,* **zeren**-*en adizkiak ez du ia behin ere* **bait-** *hartzen ez* **-en,** *baizik soilik dago.*"[1]

Dakigunez, Leizarragak behin ere ez du CEREN anaforikoa biluzik erabiltzen; beraz, aginduzko perpausaren ondoan agertu arren, Leizarragaren adibideetan aditzak beti BAIT- aurrizkia hartuko du:

- *Boz eta aleguera çaitezte,* **ceren** *çuen saria handi* **baita** *ceruëtan ...* (Mt.,V,12)

---

[1] ALTUNA, P., " "Zeren" eta "Nola" Etxeparengan" Euskera, XXV, 503.or.

- *Oihu vanoac eta profanoac reprimitzac:* ***cerȇ*** *impietate hâdiagotara auâçaturen* ***baitirade.*** (Tim.2,II,16)

Dena den, ohart gaitezen kontestu honetan Leizarragak, gehienetan, ECEN lokailua erabiltzen duela:

- *Veilla eçaçue bada:* ***ecen*** *eztaquiçue guiçonaren Semea ethorriren den eguna ez orena.* (Mt.,XXV,13)

- *Iratzar çaiteztez iustoqui vicitzera, eta bekaturic eztaquiçuela:* ***ecen*** *batzuc Iaincoaren eçagutzea eztuté ...* (Cor.1,XV,34)

Beraz, kontestu honetan, Patxi Altunak esaten duenez, arruntena lokailu hutsa erabiltzea izango litzateke. Horregatik, Leizarragak CEREN anaforikoa beti aditzak aurrizki edo atzizkiren bat duelarik erabiltzen duenez, kontestu honetan ECEN lokailuaz baliatzen da nagusiki.

Patxi Altunak[1] ZEREN lokailua agertzen den kontestu gehiago aipatzen dizkigu; baina hauetan Leizarragak ez du CEREN anaforikoa erabiltzen, ECEN lokailua baizik, Leizarragaren CEREN ezin baita aurrizki edo atzizkirik gabe agertu. Azter ditzagun kontestuok:

2.- ZEREN NOLA...BAIT- ... O

- ***Ecen*** *hala nola Ionas balenaren sabelean hirur egun eta hirur gau içan baitzén: hala içanen da ...* (Mt.,XII,40)

3.- ZEREN BALDIN ... O

- ***Ecen*** *baldin çuey on daritzueney on badarizteçue, cer sari vkanen duçue?* (Mt.,V,46)

4.- ZEREN HAIN ... O

- ***Ecȇ*** *eztut nehor hain gogo bardinetacoric, ...* (Phil.,II,20)

---

[1] Id., 504-508.orr.

5.- ZEREN HALATAN ... O

> - *Boz eta aleguera çaitezte, ceren çuen saria handi baita ceruëtan:* **ecen** *hala persecutatu vkan dituzté çuen aitzineco Prophetác.* (Mt.,V,12)

6.- ZEREN BERTZELA ... O (Adibiderik ez)

7.- EZ ZEREN...-N / BAINA ZEREN...BAIT-/-N

Kontestu honetan, aditzak atzizki edo aurrizki bat hartzen duenez, Leizarragak ere CEREN anaforikoa darabil, menpeko perpausen eremuan baikaude:

> - ... *hura hil nahiz haguitzago çabiltzan, ez solament* **ceren** *Sabbathoa hautsi* **çuen**, *baina are* **ceren** *harê aita Iaincoa cela erran* **baitzuen**, ... (Io.,V,18)
>
> - ... *ene bilha çabiltzate, ez* **ceren** *miraculuac ikussi* **dituçuen**, *baina* **ceren** *ian* **baituçue** *oguietaric, eta ressasiatu içan* **baitzarete**. (Io.,VI,26)

8.- ZEREN BATAZ...O/BAIT- / BERTZEA BERRIZ ZEREN ...O/BAIT- (Adibiderik ez)

Beraz, Axularrek ZEREN anaforikoa huts-hutsean, hau da, atzizki edo aurrizkirik gabe erabiltzen duen kontestuetan, Leizarragak, komunzki, ECEN lokailua erabiltzen duela ondoriozta dezakegu.

3.6.1.4. Balioa.

Lehendabizi, CEREN...BAIT- formaren bidez adierazten den kausalitate-mota zehaztu beharko genuke. ECEN lokailuaz hitz egitean, Villasantek kausazko perpaus koordinatuen eta subordinatuen artean egiten zuen bereizketa aipatu genuen; gogora ditzagun hitzok:

> *" Con todas las reservas parece que se puede afirmar que la causa verdaderamente determinante o de más rotundidad se expresa preferentemente con la subordinación; y la que es más débil o de menor entidad, con la coordinación. (...) Además tampoco hay que olvidar que el calibrar esto en casos*

concretos es algo que en gran parte queda al arbitrio del propio hablante y/o escribiente."[*]

Hau ikusita, ECEN lokailuak adierazten duen kausalitatea ahula edo markatugabea dela eta CEREN...BAIT-formaren bidez adierazten dena, berriz, kausalitate markatua edo egiazkoa dela pentsatu beharko genuke. Baina, zertan edo nola bereizten dira kausalitate ahula eta markatua? Noiz esan dezakegu bataren edo bestearen aurrean gaudela?

Auzi hau argitu nahian, hizkuntza klasikoetara jo dezakegu, grekerak eta latinak kausazko perpausen artean, bereizketaren bat egiten dutela ematen baitu. Izan ere, hizkuntza hauetan, kausalitatea adieraz dezaketen formen artean, sekula nahasten ez diren bi sail bereiz ditzakegu:

1- γὰρ / **enim, etenim**

2- ὅτι, διότι / **quia, quod, quoniam**

Leizarragak eskaintzen dizkigun adibideak grekeraz zein latinez aurkitzen dituguneken alderatuta, adibide batzuetan behintzat, Leizarragak bereizketa bera gauzatzen duela ohart gaitezke, Leizarragaren CEREN...BAIT-en ordainean, adibide askotan, bigarren multzoan sartu ditugun formak aurkitzen baititugu. Ikus dezagun adibide bat:

(1)- *Dohatsu dirade misericordiosoac:* **ceren** *haey misericordia eguinen* **baitzaye.** (Leiz., Mt.,V,7)

- μακάριοι οἱ ἐλεήμονες, ὅτι αὐτοὶ ἐλεηθήσονται.

- *Beati misericordes,* **quia** *ipsi misericordiam consequentur.*

- *Dohatsu urricalcor direnac,* **ceren** *berec ere misericordia ardietsico* **baidute.** (Haran.,Mt,V,7)

Ikusten dugunez, Haranederrek Leizarragak bezalaxe jokatzen du CEREN...BAIT- erabiliz. Honez gain,

---

[*] VILLASANTE, L., La oración causal en vasco, 256.or.

Haranederrek Leizarragaren CEREN...BAIT- formaren ordez beste menderagailu batzuk ere erabiltzen ditu:

(2)- *Dohatsu dirade emeac:* ***ceren*** *hec lurra heretaturen* ***baitute.*** (Leiz., Mt.,V,5)

- *Dohatsu estiac,* ***cergatic*** *lurraren jabe içanen* ***baidire.*** (Haran., Mt.,V,4)

(3)- ... *esquerrac rendatzen drauzquiat,* ***ceren*** *estali* ***baitrauztec*** *gauça hauc çuhurréy eta adituey, eta manifestatu* ***baitrauztec*** *haour chipiey: bay Aitá,* ***ceren*** *hala içan* ***baita*** *hire placer ona.* (Leiz., Lc.,X,21)

- ... "*Esquerrac darozquitçut, ene Aita, ceruco eta lurreco Jauna, gauça hec estali* ***baidiotçatçute*** *çuhurrei eta jaquinei eta aguertu* ***baidiotçatçute*** *chumei. Baiqui, ene Aita,* ***ceren dén*** *horia çure placera.* (Haran., Lc.,X,21)

(4)- ... *munduac hec gaitzetsi vkan citic,* ***ceren ezpaitirade*** *mundutic, ...* (Leiz., Io.,XVII,14)

- ... *munduac ditu gaitzetsi,* ***ceren*** *ez* ***diren*** *munduco, ...* (Haran., Io.,XVII,14)

Beraz, orokorrean, Haraneder Leizarragarekin bat dator, biek kausalitate-mota hau menderagailuen bitartez adierazten baitute.

Edozein modutan, adibide gehienak honelakoak badira ere, ECEN lokailuaren pare koka genitzakeen hainbat adibide ere topa ditzakegu. Azter dezagun, bestela, hurrengo adibidea eta erka dezagun Haranederrek eskaintzen digunarekin:

(5)- ... *eta vngui dioçue:* ***ceren bainaiz.*** (Leiz., Io.,XIII,13)

- ... *eta ungui erraten duçue, hala naiz* ***ecen.*** (Haran., Io.,XIII,13)

Bestalde, grekera edo latina aztertzen baditugu, hona hemen zer aurkitzen dugun: **γὰρ** eta ***etenim***

Hortaz, adibide hau ikusita, kausalitate markatuaren eta markatugabearen arteko bereizketak funtsik gabekoa dirudi. Egia da hizkuntza klasikoek arestian aipaturiko bereizketa gauzatzen dutela eta Leizarragak, askotan, bereizketa bera burutzen duela:

1- **γὰρ / enim, etenim** - ECEN (Leiz.)

2- **ὅτι, διότι / quia, quod, quoniam** - CEREN...BAIT-

Edonola ere, Leizarragarentzat bereizketa honek ez bide zuen balio handiegirik, adibide askotan, ECEN lokailuaren bitartez eta CEREN...BAIT- menderagailuaren bitartez kausalitate-mota bera adierazten baitzuen.

Azkenik, ECEN lokailuaren eta CEREN...BAIT- menderagailuaren arteko "bereizketa" (balego) alde batera utzirik, jar dezagun geure arreta beste puntu batean. Arestian aipatu dugunez, CEREN...BAIT- menderagailua agertzen deneko kausazkoa perpaus nagusiaren ezkerraldean zein eskuinaldean ager daiteke. Honek ez liguke arazorik sortu beharko, perpaus txertatuek perpausaren beste edozein osagaik duen mugikortasuna baitute, horrek esanahi-aldaketarik suposatu gabe. Edonola ere, CEREN...BAIT- menderagailuaren bidez sortzen diren kausazkoen artean, zenbait adibidetan bederen, kokaleluak eragina duela ematen du.

Izan ere, kausazkoek perpaus nagusiaren ezkerraldean agertzen diren adibide batzuetan adiera kausal-esplikatibo hartzen dutela ematen du. Gainera, adibide hauek Haranederrek dituenekin erkatzen baditugu, azken honek, maiz, CEREN anaforikoa erabili beharrean, adiera kausal-esplikatibo duen NOLA..BAIT- menderagailua darabilela jabetzen gara:

(1)- *Orduan bere senhar Iosephec,* ***ceren*** *iusto* ***baitzen*** *eta* ***erpaitzuen*** *hura difamatu nahi, Secretuqui vtzi nahi vkan çuen.* (Leiz., Mt.,I,19)

- *Eta* **nola** *Joseph haren senharra justua* **baitcen** *eta ez* **baitçuen** *nahi desohoratu, secretuqui utci nahi içan çuen.* (Haran., Mt.,I,19)

(2)- *Eta* **ceren** *deus* **ezpainuen** *ikusten (...) Damascera ethor nendin.* (Leiz., Apost.Act.,XXII,11)

- *Ordean* **nola** *ez* **bainuen** *icusten (...) ethorri nintcen Damazerat.* (Haran., Apost.Act.,XXII,11)

Beraz, CEREN anaforikoak bi adiera -kausalitate arrunta eta kausal-esplikatiboa- har ditzakeela esan dezakegu. Nolanahi ere, bi kausalitate hauek bereiztea aski zaila izateaz gain, gogora dezagun Leizarragak balio kausal-esplikatibo hori adierazteko beste menderagailu batzuk ere erabiltzen dituela; beraz, CEREN...BAIT-menderagailuaren bitartez, adibide gehienetan behintzat, kausalitate arrunta adierazten dela aitortu beharko genuke.

3.6.2. CEREN... -(E)N

Atal berri honi ekiteko, kontutan hartu behar dugu CEREN anaforikoa ez dela beti BAIT- aurrizkiarekin agertzen; beste aukera bat ere badugu, CEREN anaforikoa -(E)N atzizkiarekin azaltzea, alegia.

Menderagailu honen maiztasunari gagozkiolarik, esan gabe doa CEREN...-(E)N forma aski urria dela, batez ere CEREN...BAIT- menderagailuarekin erkatzen badugu. Eta bestalde, forma hau aztertzeko orduan, galdera ugari eta erantzun gutxi aurkitzen ditugu; izan ere, zertan datza CEREN...BAIT- eta CEREN...-(E)N formen arteko desberdintasuna? Errankideak direla, hau da, kausalitate-mota berdina adierazten dutela esan daiteke? Desberdinak badira, noiz edo zertarako erabiltzen da bata eta noiz bestea?

Azter dezagun, bada, poliki auzi hau, ea punturen bat argitzen dugun:

3.6.2.1. **Forma**.

Formari dagokionez, CEREN...BAIT- menderagailuaz esandakoa ekarri behar dugu gogora, azken finean, bion arteko desberdintasun bakarra -formari dagokionez, bederen- aditzak hartzen duen menderagailuan baitatza, batak BAIT- aurrizkia eta besteak -(E)N atzizkia hartzen duelako:

> - *Andrea,* ***ceren*** *(...) dedicatzera ausartu içan* ***naicen****, mereci onez arintassunéz accusa ahal neinde, ...* (Guc.,1-6,249.or.)

CEREN...BAIT- menderagailuaz hitz egitean, adibide bakarra topatu arren, CERENETA...BAIT- aldaera ere aipatu genuen. Oraingo honetan, berriz, anaforikoa beti bakarrik agertuko zaigu.

3.6.2.2. Tokia.

Puntu honi dagokionez ere bat datoz bi formak, CEREN anaforikoa beti kausazko perpausaren hasieran agertuko zaigu eta:

> - ... *eta hil vkan dic hire aitac aretze guicembat,* ***ceren*** *ossoric hura recebitu* ***duen***. (Lc.,XV,27)

Bestalde, gerta daiteke kausazko sekuentzia ETA emendiozkoak juntaturiko bi perpausek osatzea. Kasu honetan, aurkitu ditugun bi adibideetan bederen, CEREN anaforikoa bi perpausetan agertzen zaigu:

> - *Esquerrac eman behar drauzquiogu Iaincoari (...)* ***ceren*** *haguitz handitzen* ***den*** *çuen fedea eta* ***ceren*** *abundatzen* ***den*** ... (Thes.2,I,3)
>
> - ... *Esquerraz drauzquiagu (...)* ***ceren*** *hartu* ***duán*** *eure puissançá handia, eta* ***ceren*** *hassi* ***duán*** *eure resumá:* (Apo.,XI,17)

Adibide bakar batean aurkitu dugu CEREN anaforiko bakarra duen bi perpausetako kausazko sekuentzia; baina adibide hau, ikusiko dugunez, aski berezia da, bi perpausak, formari begira behintzat, desberdinak baitira:

> - *Eztrauçuet scribatu vkan eguiá eçagutzen eztuçuelacotz: aitzitic* ***ceren*** *hura eçagutzen* ***duçuen****, eta gueçurric batre* ***expaita*** *eguiatic.* (Io.1,II,21)

Bestalde, aipa dezagun CEREN...BAIT- formarekin gertatzen den bezala, CEREN...-(E)N formaren bidez sortzen diren kausazkoak ere perpaus nagusiaren ezkerraldean zein eskuinaldean ager daitezkeela:

* Perpaus nagusiaren eskuinaldean (Ugariena):

> - ... *etzaiteztela aleguera,* ***ceren*** *spirituac suiet eguiten* ***çaizquiçuen*** ... (Lc.,X,20)

* Perpaus nagusiaren ezkerraldean:

- *Baina* **ceren** *gauça hauc erran* **drauzquiçuedan**, *tristitiác bethe du çuen bihotza.* (Io.,XVI,6)

3.6.2.3. Zein kontestutan agertzen den.

Lehendabizi, aipa dezagun CEREN...-(E)N menderagailua, orokorrean, ez dugula perpaus luze eta korapilotsuetan aurkitzen, perpaus labur eta sinpleetan baizik.

Bestalde, aipa dezagun forma honen urritasunaren barruan, maiztasun handiz agertzen dela kontestu zehatz batean, galde-perpausetan, alegia:

- ... *Magistruá, eztuc ansiaric* **ceren** *galduac* **goacen**? (Mc.,IIII,38)

- ... *asserre çarete ene contra* **ceren** *guiçon-bat ossoqui sendatu* **dudan** *Sabbathoan?* (Io.,VII,23)

- *Cergatic? ala* **ceren** *çuey on* **eztaritzuedan**? (Cor.2,XI,11)

Azkenik, gogora ditzagun Patxi Altunaren hitzak:

"*Bederatzi aldiz baliatu da Axular honako esapide honezaz: EZ ZEREN.../ BAINA ZEREN... (...) bi ataletako esapide horretan beti darabil* **-en** *lehen atalean,* **ez zeren**-*enean; ez, ordea beti, bitan bakarrik baizik, bigarrenean,* **baina zeren**-*enean, beste zazpietan* **bait-** *darabilelarik.*"[9]

Kontestu honi dagokionez, Leizarragak Axularrek bezala jokatu zuen. Honelako sei adibide topatu ditugu eta guztietan, lehenengo perpausean aditzak -(E)N atzizkia hartzen du; bigarren perpausean, berriz, BAIT- aurrizkia zein -(E)N atzizkia aurki ditzakegu; dena den, adibide

---

[9] ALTUNA, P., "Zeren" eta "Nola" Etxeparengan" Euskera-XXV, 507.or.

gehienetan (lau adibidetan, hain zuzen) aditzak BAIT-aurrizkia hartzen du:

1- EZ CEREN...-(E)N/ BAINA CEREN...BAIT-

> - *... hura hil nahiz haguitzago çabiltzan, ez solament* **ceren** *Sabbathoa hautsi* **çuen**, *baina are* **ceren** *harê aita Iaincoa cela erran* **baitruen**, ... (Io.,V,18)

2- EZ CEREN...-(E)N/ BAINA CEREN...-(E)N

> - *Orain aleguera naiz, ez* **cerê** *tristetu içan* **çaretan**, *baina* **ceren** *tristetu içan* **çaretan** *penitentiatara ...* (Cor.2,VII,9)

Beraz, ZEREN... -(E)N agertzen den **KONTESTU**ei dagokienez, badirudi, bereziki, bi kontestutan aurki dezakegula: galde-perpausetan eta "EZ ZEREN... -(E)N / BAINA ZEREN... -(E)N/BAIT-"-egituran.

3.6.2.4. Balioa.

Luis Villasantek ZEREN anaforikoa aztertzean[10] kausazko perpausari hasiera ematen ziola eta bere funtzioa, nolabait esateko, kausazko hori non hasten zen zehaztea zela esaten zuen.

Edonola ere, CEREN... -(E)N egituran behintzat, badirudi CEREN anaforikoak kausazko perpausaren hasiera zehazteaz gain, perpausari kausalitate-kutsua ere ematen diola, -(E)N atzizkiak, huts-hutsean, ez bailuke ezer adieraziko:

> - * *... eztitzatela menosprecia anaye* **diraden**: *baina aitzitic cerbitza bitzate, fidelac eta onhetsiac* **diraden**, ...

---

[10] VILLASANTE, L.; LASARTE, Mª P., "Perpaus kausalak Lapeyre idazlea baitan" Euskera, XXV, 551.or.

Perpaus hau ikusita ez genuke jakingo zer adierazi nahi duen idazleak, -(E)N menderagailuak aldamenean beste zerbait behar baitu kausalitatea adieraziko badu:

> - *... eztitzatela menosprecia* ***ceré*** *anaye* ***diraden:*** *baina aitzitic cerbitza bitzate,* ***ceré*** *fidelac eta onhetsiac* ***diraden,*** ... (Tim.1,VI,2)

Bestalde, orain arte azterturiko puntuetan oinarrituta, CEREN...BAIT- eta CEREN...-(E)N formen artean ez dugu leize handirik aurkitu. Ikus dezagun, bada, balioari dagokionez baliokidetzat jo ditzakegun.

Egia esan, auzi hau euskal gramatikak dituen korapilotsuenetariko bat dugu. Tradizioan eta, batez ere, iparraldean CEREN anaforikoarekin batera BAIT- aurrizkia zein -(E)N atzizkia aurkitu ahal izan ditugu eta ez dago esan beharrik biek kausa adierazten dutela.

Edozein modutan, Leizarragak dituen adibideak aztertu aurretik, gogora dezagun zenbait gramatikarik auzi honetaz esan dutena eta saia gaitezen hauek esandakoa Leizarragaren erabilerarekin bat datorren aztertzen:

> "***Zeren...-n.*** *Aurreko konstrukzioa* (Zeren...bait-) *baino askoz bakanago (...) Bestea bezala, kausal subordinatuak sortzeko eta kausa erreala adierazteko erabiltzen du hau ere"*[::]

> *"... los dialectos orientales (...) se ha desarrollado también un uso de* ***zeren*** *más* ***-n****, pero especializado para la expresión de la llamada causalidad sujetiva (...) con frecuencia se trata de oraciones negativas en que se descarta una falsa causa que alguien imaginariamente sustenta y frente a ella aparece después la causa verdadera o real. En estos casos la falsa causa se expresa con* ***zeren*** *más* ***-n*** *y el verbo tiene matiz subjuntivo; a continuación aparece afirmada la verdadera causa expresada con* ***zeren*** *más* ***bait-*** *y verbo en modo indicativo."*[::]

:: VILLASANTE, L.; LASARTE, Mª P., "Perpaus kausalak Lapeyre idazlea baitan" Euskera, XXV, 552-553.orr.

:: VILLASANTE, L., La oración causal en vasco, 242-244.orr.

"¿Por qué Ax. construye unas subordinadas con **bait-** *y otras con* **-n**? *El P.Goenaga (...) apunta la hipótesis de que las construcciones de tipo c) (zeren...-n) expresan la causa real o motivo determinante de la acción y son, por tanto, susceptibles de ser construidos con* **-lako**. *En cambio, las construcciones del tipo b) (zeren...bait-) expresarían una causalidad lógica.*

En cambio Larrarte, en el estudio de Tartas aventura otra hipótesis que parece la cierta. Es sabido que el prefijo **bait-** *no puede emplearse con formas subjuntivas. Es por esto que al encontrarse con formas subjuntivas o indicativas con sentido subjuntivo, los autores sustituyen* **bait-** *por* **-n**."[13]

"... *Lafonen ustez, beraz,* **zeren** *nahiz kausala* **bait-** *daramanean, nahiz finala eta kausala, adizkiak* **-en** *atzizkia duenean, izan daiteke (...) Latina ongi samar dakienari latinez aski nabarmen diren perpaus kausal, baina kausal berezi batzuk ekarriko dizkiote agian hauek (Zeren...-en) gogora; hots,* **quod** *edo* **quia** *subjuntivoz osatuak. Horien arrazoia, latinezko liburuetan irakatsi ohi denez, zera da: inork zerbaitetarako izan omen duen barne arrazoia edo aitzakia, arrazoi subjetivoa, adierazten dutela."*[14]

Azter ditzagun orain Leizarragak dituen adibideak; hala ere, ez dezagun ahaztu CEREN...-(E)N formaren bidez eraikitzen diren kausazkoak ez direla oso ugariak, batez ere CEREN...BAIT- formaren bidez sortutakoekin erkatzen baditugu.

Zaila da benetan, CEREN...-(E)N formaren bidez sortzen diren kausazkoek subjetibotasunik adierazten duten ala ez egiaztatzea, hori, neurri handi batean, idazlearen eta irakurlearen araberakoa baita. Nolanahi ere, zenbait kontestutan, hala nola galderazkoetan eta ezezko perpausetan, subjetibotasun hori ageriago dagoela aitortu behar dugu:

(1)- ... *etzaiteztela alequera,* **ceren** *spirituac suiet eguiten* **çaizquiçuen**: *baina aitzitic alequera*

---

[13] VILLASANTE, L., Sintaxis de la oración compuesta, 153.or.

[14] ALTUNA, P., "Zeren" eta "Nola" Etxeparengan" Euskera-XXV, 500, 510.orr.

çaitezte, **ceren** *çuen icenac scribatuac* **baitirade** *ceruëtan.* (Leiz., Lc.,X,20)

- Halarican ere ez çaiteztela bozcaria, **ceren** *izpirituac sumetitcen* **çaizquitçuen**; *bozcaria çaitezte aitcitic,* **ceren** *çuen icenac escribatuac* **diren** *ceruetan.* (Haran., Lc.,X,20)

(2)- *... asserre çarete ene contra* **ceren** *guiçon-bat ossoqui sendatu* **dudan** *Sabbathoan?* (Leiz., Io.,VII,23)

- ... cergatic niri sumintcen çaizquidate, **ceren** *guiçon bat gucia sendatu içan* **dudan** *sabbatho egunean?* (Haran., Io.,VII,23)

Ohart gaitezen, Haranederrek Leizarragak bezala jokatzen duela adibide hauetan CEREN...-(E)N menderagailua erabiliz.

Nolanahi ere, gogora dezagun CEREN... -(E)N menderagailudun kausazkoak kontestu hauetan ezezik bestelakoetan ere aurki ditzakegula:

(3)- *Andrea,* **ceren** *(...) dedicatzera ausartu içan* **naicen**, *mereci onez arintassunéz accusa ahal neinde, ...* (Guc.,1-6,249.or.)

(4)- *... vkan nuqueela hâbat atseguin nola vkan baitut atsecabe* **ceren** *niçaz berceric hatse baten equitera auançatu içan* **ezten** *...* (Guc.,23-26,251.or.)

Bestalde, Leizarragak berak eskaintzen dizkigun adibideetan -zenbaitetan bederen- desberdintasun handirik ez dagoela ematen du, adibide antzekoetan menderagailu desberdinak erabiltzen baititu:

(5)- *... Esquerrac drauzquiagu (...)* **ceren** *hartu* **duán** *eure puissançá handía, eta* **ceren** *hassi* **duán** *eure resumá:* (Apo.,XI,17)

- ... esquerrac emaitê drauzquiat, **ceren** *ençun* **bainauc**. (Io.,XI,41)

(6)- *Baina ihardesten çuela synagogaco principalac, gaitzituric* **ceren** *Sabbathoâ sendatu* **çuen** *Iesusec, erran cieçon populuari,...* (Lc.,XIII,14)

- *... ethor cequiztén Sacrificadoreac eta templeco Capitaina, etâ Sadduceuac, Gaitzituric* **ceren** *iracastê* **baitzutén** *populua, eta predicatzen* **baitzutén** ... (Apost.Act.,IIII,1-2)

(7)- *Alegueratu içan naiz Iaunean haguitz,* **ceren** *ia azquenecotz arrapherdatu* **çareten** ... (Phil.,IIII,10)

- *Aleguera naiz bada* **ceren** *gauça gucietan çueçaz assegura ahal* **bainaite**. (Cor.2,VII,16)

Aipaturiko adibideetan, berdintsuak izan arren menderagailu desberdinak aurkitzen ditugu; beraz, zenbait kasutan behinik behin, idazlearen aukera dela esan dezakegu.

Honez gain, Haraneder, adibide guztietan ez bada ere, gehienetan bederen, Leizarragarekin bat datorrela, alegia, Leizarragak CEREN...-(E)N menderagailua erabiltzen duen kasuetan, Haranederrek ere erabiltzen duela ohartzen gara.

Laburbilduz, zenbait kontestutan, hala nola, ezezko perpausetan edota galderazkoetan Leizarragak, ia-ia sistematikoki, CEREN... -(E)N egitura erabili ohi du; baina beste hainbat kontestutan, BAIT- edo -(E)N erabiltzea idazlearen aukera dela ematen du, kanpotik begiratuta, ez baitirudi CEREN... BAIT- eta CEREN... -(E)N egituren artean desberdintasun handirik dagoenik -(5), (6), (7)-. Edonola ere, aitor dezagun, auzi hau mendebaldeko euskaldunoi eskuetatik ihesi doakigula, euskalki hauetan ez baita inoiz ZEREN...BAIT- eta ZEREN...-(E)N menderagailuen arteko bereizketarik burutu, hemen BAIT- menderagailua ez zelako ezaguna. Hortaz, agian, iparraldeko gramatikari batek argitu beharko liguke auzia.

3.6.3. -(E)LACOTZ

Menderagailu hau, mendebaldeko euskalkietan behintzat, aski erabilia da kausa adierazteko. Dena den, tradizioari begira ezin dezakegu gauza bera baieztatu eta are gutxiago Leizarragaren erabilera aztertzen badugu, idazle honek, kausazkoen artean, nagusiki, CEREN anaforikoaren bidez sortzen diren bi egiturak CEREN...BAIT- eta CEREN...-(E)N erabiltzen baititu.

-(E)LACOTZ menderagailuari dagokionez, obra osoa aztertuta, zortzi adibide baino ez dugu aurkitu; edonola ere, adibide gutxi izan arren, Leizarragak menderagailu honen ezagutza bazuela egiaztatzeko aski dira.

Nolanahi ere, ez dezagun ahanz zenbait gramatikarik, hala nola Luis Villasantek, -(E)LAKO menderagailua, kausa adierazteko bederen, aski berria dela pentsatu dutela. Gogora ditzagun, bada, Villasanteren hitzak:

> "... *el estudio de los textos antiguos del idioma revela que el uso de* ***zeren****, por ejemplo, es más antiguo que el del sufijo* ***-lako*** *empleado como causal (...) llama poderosamente la atención la ausencia total, en Ax., del sufijo causal* ***-lako, -lakotz****. En realidad en todos los escritores más antiguos de la lengua falta este sufijo causal, hoy tan usado. (...) Este hecho parece indicar que la adaptación de este sufijo para esta función es reciente en la lengua."*[15]

> "*Según nuestros textos aparece por primera vez en el vizcaino Capanaga y en el suletino Belapeyre (siglo XVII)*"[16]

Villasanteren hitzak irakurrita, badirudi ez zuela Leizarragaren obra aztertu, idazle honek XVI.mendean -(E)LACOTZ menderagailua erabiltzen baitu. Gainera, Koldo Mitxelenak Sintaxis de la oración compuesta libururako egin zizkion oharretan gauza bera gogorarazten digu:

> "*Michelena cita el texto de Leizarraga, 1 Jo 2,21 (...) Michelena agrega también: La prueba* ***ex silentio*** *siempre es manca, y más cuando el material*

---

[15] VILLASANTE, L., Sintaxis de la oración compuesta, 144-150.orr.

[16] VILLASANTE, L., La oración causal en vasco, 241.or.

de que se dispone no es igualmente antiguo en todos los dialectos."[17]

Leizarragak -(E)LACOTZ menderagailua ezagutu eta erabiltzen zuela agerian dago. Hala ere, orain sor dakigukeen zalantza menderagailu honen bidez sortzen diren perpausek kausa ala beste zerbait adierazten duten da. Beraz, azter ditzagun Leizarragaren zortzi adibide horiek.

3.6.3.1. Forma eta balioa.

Menderagailu honek bi forma har ditzake: -(E)LAKO eta -(E)LAKOTZ. Dena den, bi forma hauen artean ez dirudi desberdintasunik aipa daitekeenik; izan ere, bata zein bestea erabiltzea, azken finean, euskalkiaren araberako kontua baino ez da.

Hala izanik, Leizarragak, iparraldeko idazle gehienek bezala, -(E)LACOTZ forma erabiltzen du:

> - *Ez* ***dominatzen dugulacotz*** *çuen fedearen gainean, baina çuen bozcarioaren aiutaçale* ***garelacotz*** *...* (Cor.2,I,24)

Bestalde, menderagailu honek betetzen duen funtzioari gagozkiolarik, lehendabizi gogora dezagun Villasantek esaten diguna:

> *"sorprende en gran manera el constatar que este sufijo, tan usado hoy para expresar la causalidad, no aparezca hasta bastante tarde en los textos (...) Pero aquí se impone una puntualización: no aparece con sentido causal, pero sí con otros sentidos. Aparece con profusión, por ejemplo, en oraciones complementarias de un sustantivo o adjetivo.* ***Mariari consecratuac garelaco marca bat*** *"una señal de que estamos consagrados a María"*[18]

---

[17] MITXELENA, K., in VILLASANTE, L., Sintaxis de la oración compuesta, 150.or.

[18] VILLASANTE, L., La oración causal en vasco, 241.or.

Ikus dezakegunez, Villasantek testu zaharretan -(E)LACOTZ menderagailuaren esistentzia onartzen badu ere, ez dio kausazko adierarik itsasten; beranduagoko testuetan, ordea, menderagailu honen adiera kausazkoa ametitzen du:

> *"Beronen bidez perpaus kausal subordinatuak sortzen ditu Lapeyre-k. (...) Kausa erreala adierazten da atzizki honekin. (...) Beste nonbait esan genuen harrigarria dela Axular-ek atzizki hau kausalak sortzeko behin ere ez erabiltzea. Lapeyre baitan agertzen da, bai, baina esaldi laburretan batez ere."*[19]

Azter ditzagun, bada, Leizarragaren adibideak kausalitatea adierazten dutenentz argitu ahal izateko.

Lehendabizi, -(E)LACOTZ menderagailuaren bidez eraikitzen diren perpaus guztiak berdinak direla aipatu behar dugu; eta berdinak direla esatean, guztiak kontestu berean aurkitzen ditugula esan nahi dut: EZ...-(E)LACOTZ kontestuan, hain zuzen ere:

> - *Eta halaco confidança dugu (...) Ez sufficient* ***garelacotz*** ... (Cor.2,III,4-5)
>
> - *... igorro vkan drautaçue.* ***Ez*** *emaitzeren galdez* ***nagoelacotz*** ... (Phil.,IIII,16-17)

Aurkitu ditugun zortzi adibideetatik, zazpi halakoak dira eta salbuespen bakarra ezezko perpaus batean topatzen dugu:

> - *Eztrauçuet scribatu vkan, eguiá* ***eçagutzen eztuçuelacotz,*** ... (Io.1,II,21)

Beraz, badirudi era honetako kausazkoak ezezko perpausetan edota EZ aditzondoak markaturiko perpausetan agertzen direla.

---

[19] VILLASANTE, L., LASARTE, M^a^P., "Perpaus kausalak Lapeyre idazlea baitan" Euskera XXV, 548.or.

Bestalde, eta balioari gagozkiolarik, zenbaitetan zalantzaren bat sor dakiguke:

(1)- ... *ecin bercez Cesargana appellatu içâ naiz: ez neure nationea cerçaz accusa deçadan* ***dudalacotz***. (Apost.Act.,XXVIII,19)

Argibide bila, Haranederrengana jotzen badugu, honek ez du ageriko kausazkorik erabiltzen:

(1')- ... *ecinbertcez apel eguin içan dut Caesarganat, ez ene nacioneco jendeac deussetan accusatceco chederic* ***içanez***. (Haran., Apost.Act.,XXVIII,19)

Edonola ere, -(E)Z forma kausalitatea adierazteko baliabiderik arruntena izan ez arren, perpaus honetan zalantzarik gabeko kutsu kausala antzeman daiteke.

Edozein modutan, adibide gehienetan zentzu kausala aski nabarmena dela esan dezakegu; gainera, Haranederren adibideek ere horixe bera adierazten digute:

(2)- *Nic bada Iaincoa dut testimonio deitzen neure arimaren gain, ecen çuen guppidaz, oraino eznaicela ethorri Corinthera. Ez* ***dominatzen dugulacotz*** *çuen fedearen gainean, baina çuen bozcarioaren aiutaçale* ***garelacotz***: ... (Leiz., Cor.2,I,23-24)

- ... *ez bada* ***naussitcen garelacotz*** *çuen fedeaz; aitcitic* ***lagundu nahi baidugu*** *çuen bozcarioa, ...* (Haran., Cor.2,I,23)

(3)- *Eya cerbait maneraz hel ahal naitenez hilen resurrectionera: Ez ia* ***ardietsi dudalacotz*** *edo ia perfect* ***naicelacotz***: *baina ...* (Leiz., Phil.,III,11-12)

- *ez bada ja* ***heldu naicelacotz*** *hartaraiño edo ja perfet* ***naitequelacotz***, *bainan ...* (Haran., Phil.,III,12)

(4)- *Eta halaco confidança dugu Christez Iaincoa baithan. Ez sufficient* ***garelacotz*** *gure buruz*

cerbaiten pensatzeco, guerorganic beçala ... (Leiz., Cor.2,III,4-5)

- Hortaz bada fida gare Jaincoaren aitciñean Jesuchristoz; ez gure baitharic gai ***garelacoan*** *concebitceco cerbeit guere baitharic beçala; ...* (Haran., Cor.2,III,4-5)

Adibide hauek ikusita, ez dirudi -(E)LACOTZ menderagailuaren kausa-adiera zalantzan jar daitekeenik. Nolanahi ere, zalantzarik balego, Leizarragak berak argituko lizkiguke, zenbait pasartetan -(E)LACOTZ menderagailua kausa adierazten duten beste menderagailu batzuekin batera aurkezten baitigu:

(5)- *Eztrauçuet scribatu vkan, eguiá* ***eçagutzen eztuçuelacotz;*** *aitzitic* ***ceren*** *hura* ***eçagutzen duçuen,*** *eta gueçurric batre* ***expaita*** *eguiatic.* (Io.1,II,21)

(6)- ***Hira:*** *(...) ez Iaincoac hissiric* ***abal duqueelacotz,*** *baina* ***ceren*** *guiçonéc (...) hura* ***senditzen baituté.*** (Hitz eta Minçatzeco Manera, 1207.or.)

3.6.3.2. Tokia.

-(E)LACOTZ menderagailuaren bidez sortzen diren kausazko perpausek hartzen edo hartu beharko luketen tokiaz luze hitz egin da. Gogora dezagun, adibidez, Sebero Altubek esandakoa:

"El sufijo ***-lako*** *se emplea casi únicamente cuando la locución causativa es mero sintagma (comunmente inquirido) de una oración, que luego expresa su consecuencia (...)*

Excepcionalmente aparece, a veces, colocado al final el sintagma causativo caracterizado por el sufijo ***-lako*** *(...) Obsérvese que en estos ejemplos el segundo miembro (el causativo) forma una oración en cierta manera separada (gramaticalmente) de la constituida por el primer miembro."*[20]

Sebero Altubek eta bere galdegaiari buruzko teoriek zenbait kritika jaso badituzte ere, puntu honi dagokionez,

---

[20] ALTUBE, S., Erderismos, §181-183

hainbat gramatikarik Altuberen teoria ontzat eman dutela dirudi. Hona hemen, adibidez, Patxi Goenagak esaten diguna:

> "... *joera bezala behintzat, badirudi,* ***elako*** *atzizkia daraman perpaus honek aditzaren aurrean joan behar duela, hots: galdegaia izan behar duela.* ***Bait****-ez osatua, berriz, ez litzateke galdegai izango. Nolabait esateko,* ***-elako****-k kausa-kausa adieraziko luke.* ***Bait****-ek gehiago dirudi zerbaiten esplikazioa."*[21]

Leizarragaren erabilera aztertzen badugu, ordea, guztiz kontrakoa aurkituko dugu, honek -(E)LACOTZ menderagailuaren bidez sortzen diren kausazkoak, beti, perpaus nagusiaren ondoan kokatzen baititu; dena den, kausazko hauek agertzen diren kontestuak aintzat harturik, ia-ia ez zeukala beste aukerarik esan dezakegu:

> - ... *ecin bercez Cesargana appellatu içâ naiz: ez neure nationea cerçaz accusa deçadan* ***dudalacotz.*** (Apost.Act.,XXVIII,19)

---

[21] GOENAGA, P., Gramatika Bideetan, 271-272.orr.

3.6.4. NOLA... BAIT-

Kausa adieraz dezaketen menderagailuen artean NOLA...BAIT- ere aipatu behar dugu; hala ere, gogora dezagun menderagailu honek adiera bat baino gehiago har dezakeela. Berez, modua adieraziko luke, baina zenbait adibidetan modua adieraztetik kausalitatea adieraztera igaro daiteke; beraz, kontestuaren laguntzaz argitu beharko dugu kausazkoaren ala moduzkoaren aurrean aurkitzen garen.

Leizarragaren obra osoa aztertuta, kausa adieraz dezakeen NOLA...BAIT- menderagailua aski erabilia dela aipatu behar dugu. Jakina denez, Leizarragak kausalitatea, nagusiki, CEREN anaforikoaren bidez adierazten du; edonola ere, NOLA...BAIT- menderagailua 25 aldiz aurkitzeak Leizarragak menderagailu honen kontzientzia argia zuela adierazten du.

3.6.4.1. Forma.

CEREN...BAIT- menderagailuarekin gertatzen den bezala, NOLA beti kausazko sekuentziaren hasiera-hasieran agertuko zaigu, kausazko perpausa non hasten den berak markatzen baitu.

Bestalde, aipa dezagun honelako perpausetan aditzak, ezinbestez, menderagailuren bat hartu behar duela; dena den, kausazko hauetan ez dago aukeratzerik, hau da, CEREN anaforikoa agertzen den perpausetan aditzak BAIT- aurrizkia edo -(E)N atzizkia har dezake; NOLA agertzen denetan, berriz, aditzak beti BAIT- aurrizkia hartuko du:

> - *Eta* ***nola*** *sposoac ethortera berancen* ***baitzuen****, guciac logale citecen ...* (Mt.,XXV,5)

Honez gain, kausazko sekuentzia perpaus batek baino gehiagok osatzen dutenean, NOLA, orokorrean, lehenengo perpausaren hasieran baino ez da agertzen, bigarren perpausean kausalitatea BAIT- menderagailuak adierazten duelarik:

- *Eta* **nola** *icituac* **baitziraden**, *eta beheititzen* **baitziraden** *beguithartez lurrera guiçon hec erran ciecén, ...* (Lc.,XXIIII,5)

- *Eta* **nola** *batzu gogortzen* **baitziraden** *eta* **ezpaitzuten** *obeditu nahi (...) separa citzan discipuluac, ...* (Apost.Act.,XIX,9)

Edonola ere, salbuespenak ere badira, zenbait adibidetan, NOLA perpaus guztien hasieran topatzen baitugu:

- *... nola bere arraça maradicaturat aurditê* **baitute** *guciéc, eta* **nola** *bere Aita Adamê successor eta primu* **baitirade** *(...) eztute côturic eguin ...* (Adv.,21-25,258.or.)

Azkenik, aipa dezagun zenbait adibidetan NOLA...BAIT-menderagailuak osaturiko sekuentzia perpaus nagusian dagoen partikula edo aditzondo batekin harremanetan egon daitekeela; dena den, adibide hauetan, sekuentzia horrek kausa ala modua adierazten duen ez da hain argi bereizten:

- *Eta* **nola ezpaituté** *conturic eguin Iaincoaren eçagutzetan eduquitera:* **hala** *abandonnatu vkan ditu ...* (Rom.,I,28)

- *... baina* **nola** *gauça gucia garaitic eman içan* **baitzen**, **hala** *goiti bethi beha leçan, ...* (Adv.,21-22,255.or.)

3.6.4.2. Tokia.

NOLA...BAIT- menderagailuaren bidez sortzen diren kausazkoek kokaleku tinkoa dutela ematen du, adibide gehienak, guztiak ez esateagatik, perpaus nagusiaren aurrean agertzen baitira:

- *Eta emaztea beldurric eta ikararic,* **nola baitzaquian** *hura baithâ eguin içan cena, ethor cedin, ...*(Mc.,V,33)

Salbuespen bakarra aipa dezakegu:

- *Halacotz Iaincoac-ere abandonnatu vkan ditu hec berén bihotzetaco guthicietara, satsutassunera, bere gorputz propriey itsusgoa eguitera elkarren artean:* **Nola** *Iaincoaren eguiá gueçurretara cambiatu*

vkâ **baituté**, *eta adoratu* **baitituzté** *eta cerbitzatu creaturác, vtziric Creaçalea cein baita eternalqui benedicatua, Amen. Halacotz bada abandônatu vkan ditu Iaincoac ...* (Rom.,I,24-26)

Haranederrek duen adibidera jotzen badugu, erlatibozkoak topatzen ditugu:

- Hargatican Jaincoac abandonatu içan ditu bere bihotcetaco guticietarat, lohiequeriarat; halaco moldez, non bere gorphutz propîoac hidoiztatcen baidituzte berec, haiñec, Jaincoaren eguia gueçurretarat çambiatu içan dutenec; creatu adoratu eta cerbitçatu içan dutenec eta ez creatçaillea, ... (Haran., Rom.,I,24-25)

Nolanahi ere, Leizarragaren adibidea ezin dugu inondik inora erlatibotzat jo eta inon kokatzekotan, badirudi kausazkoen artean sartu behar dugula.

3.6.4.3. Balioa.

Arestian aipatu dugunez, NOLA...BAIT- menderagailuak adiera bat baino gehiago har dezake; dena den, orain kausazko adieraz baino ez gara arduratuko.

CEREN...BAIT- menderagailua aztertzean, honek osaturiko kausazko sekuentzia perpaus nagusiaren aurrean agertzen denean kausal-esplikatibo adiera har dezakeela aipatu dugu. Gainera, adibide hauetan Haranederrek CEREN...BAIT- erabili beharrean, zenbait kasutan bederen, NOLA...BAIT- menderagailua darabil. Gogora dezagun adibide bat:

(1)- *Orduan bere senhar Iosephec,* **ceren** *iusto* **baitzen** *eta* **ezpaitzuen** *hura difamatu nahi, Secretuqui vtzi nahi vkan çuen.* (Leiz., Mt.,I,19)

- Eta **nola** *Joseph haren senharra justua* **baitcen** *eta ez* **baitçuen** *nahi desohoratu, secretuqui utci nahi içan çuen.* (Haran., Mt.,I,19)

Beraz, NOLA...BAIT- menderagailuaren bitartez eraikitzen diren kausazkoak perpaus nagusiaren aurrean

kokatzen diren CEREN...BAIT- menderagailudun perpausen baliokideak direla eta biek zentzu kausal-esplikatiboa dutela esan dezakegu.

Orokorrean, kausalitate mota hau adierazteko Haranederrek Leizarragak bezalaxe jokatzen du, NOLA...BAIT- menderagailua erabiliz:

(2)- *Eta* ***nola*** *icituac* ***baitziraden****, eta beheititzen* ***baitziraden*** *beguithartez lurrera guiçon hec erran ciecén, ...* (Leiz., Lc.,XXIIII,5)

- *eta* ***nola*** *icitu* ***baitciren*** *eta beguiac beheititu* ***baitcituzten****, erran içan çaroten ...* (Haran., Lc.,XXIV,5)

(3)- *... baina* ***nola*** ***baitzén*** *vrthe hartaco Sacrificadore subirano, prophetiza ceçan ...* (Leiz., Io.,XI,51)

- *... bainan* ***nola*** *aphez handi* ***baitcen*** *urthe hartaco, profetisatu içan çuen ...* (Haran., Io.,XI,51)

Hala ere, Haranederrek kausalitate mota hau adierazteko, Leizarragaren NOLA...BAIT- menderagailuaren ordez, BAIT- menderagailu soila ere erabiltzen du:

(4)- *Eta* ***nola*** *sposoac ethortera berancen* ***baitzuen****, guciac logale cítecen ...*(Leiz., Mt.,XXV,5)

- *Berantcen* ***baitçuen****, bada, esposac ethortcerat, logaletu ciren guciac ...* (Haran., Mt.,XXV,5)

(5)- *Eta emaztea beldurric eta ikararic* ***nola*** ***baitzaquian*** *hura baithâ eguin içan cena, ethor cedin, ...* (Leiz., Mc.,V,33)

- *Baiñan emaste hura icituric eta ikharaturic,* ***baitçaquien*** *cer iragan cen haren baithan, ethorri cen ...* (Haran., Mc.,V,33)

3.6.5. -(E)NAZ GUEROZ

Kausa adieraz dezaketen menderagailuen artean -(E)NAZ GUEROZ ere aipatu behar dugu. Edonola ere, Leizarragaren adibideak aztertu aurretik, gogora dezagun zer esaten duten zenbait gramatikarik menderagailu honetaz:

> " *Hay también en Leizarraga construcciones subordinadas de sentido causal, aunque pocas, a base de* ***nola*** *más* ***bait-****; asimismo, a base de* ***-naz geroz****. La construcción* ***nola*** *más* ***bait-*** *arroja un sentido causal fronterizo con el modal. La construcción a base de* ***-naz geroz****, en cambio, arroja sentido fronterizo con el temporal y corresponde al castellano "ya que", "puesto que".*[22]

> "*... puede tener y tiene en la práctica un doble valor, a saber temporal y causal.*"[23]

> " *Gaztelaniaz bada makina bat lokuzio bere gisako perpaus kausalak sortzeko erabiltzen direnak; adibidez, "pues que", "puesto que" (...) Gisa honetako perpausak sortzeko* ***-naz geroz*** *eta* ***-naz geroztik*** *lokuzioez baliatzen da Lapeyre. (...) esaldi subordinatu hau, bai printzipalaren aurretik eta bai ondotik ere jartzen du Lapeyre-k.*"[24]

Lafittek ere -(E)NAZ GEROZ kausa adierazten duten forma jokatuen artean aipatzen du. Beraz, agerian geratzen da menderagailu honen adiera kausala.

Azter dezagun orain Leizarragaren erabilera:

---

[22] VILLASANTE, L., La oración causal en vasco, 77-78.orr.

[23] Id., 244.or.

[24] VILLASANTE, L., LASARTE, Mª P., "Perpaus kausalak Lapeyre idazlea baitan" Euskera XXV, 549-550.orr.

3.6.5.1. Forma.

Menderagailu honek, komunzki, bi forma har ditzake: -(E)NAZ GEROZ eta -(E)NAZ GEROZTIK.

Villasantek aipatu duenez, menderagailu honek kausa zein denbora adieraz dezake eta badirudi Leizarragak hortik sor zitekeen nahastea saihestu nahian edo, formak espezialdu egin zituela. Beraz, -(E)NAZ GEROZTIK menderagailua denborazkoen artean aurkituko dugu eta -(E)NAZ GEROZ, ordea, kausazkoen artean:

- ... *Nola içanen da hori, quiçonic* ***eçagutzen eztudanaz gueroz***? (Lc.,I,34)

- ... *hain complimendu handitaco* ***denaz gueroz*** *(...) cer berceric mundu hunetan desira ahal gueneçaque?* (Adv.,36-39,272.or.)

3.6.5.2. Tokia.

Menderagailu honen bidez sortzen diren kausazko perpausek hartzen duten lekuari dagokionez, kokaleku finkorik ez dutela aipatu behar dugu.

Adibide gehienak perpaus nagusiaren aurrean aurkitzen ditugu:

- *Beraz Iaincoaré leinu* ***garenaz gueroz****, eztugu estimatu behar ...* (Apost.Act.,XVII,29)

- *Beraz hunelaco sperançá* ***dugunaz gueroz****, minçatzeco libertate handiz vsatzen dugu.* (Cor.2,III,12)

Edonola ere, perpaus nagusiaren eskuinaldean ere ager daitezke:

- ... *eta Iaincoaren seme dirade, resurrectionezco seme* ***diradenaz gueroz****.* (Lc.,XX,36)

- *Ecen guiçonac eztu estali behar buruä, Iaincoaren imaginá eta gloria* ***denaz gueroz***: ... (Cor.1,XI,7)

3.6.5.3. Balioa.

Menderagailu honen kausazko adiera agerian dago; dena den, perpaus nagusiaren ezkerraldean edo eskuinaldean agertzeak ba al du eraginik menderagailu honek adierazten duen kausalitate-motan? Ezetz dirudi; hala ere, ikus dezagun:

A.- Perpaus nagusiaren ezkerraldean agertzen denean, NOLA...BAIT- menderagailuaren baliokidea izanik, adiera kausal-esplikatiboa hartzen du. Honez gain, Leizarragak dituen adibideak Haranederrek eskaintzen dizkigunekin erkatzen baditugu, azken honek gehienetan Leizarragak bezalaxe jokatzen duela ikusten dugu:

(1)- ... *eguin içan çayón vnguiaz* ***examinatzen garenaz gueroz*** *(...) Iaquiçue* ... (Leiz., Apost.Act.,IIII,9-10)

- ... *eguin diogun unguiaz contu* ***galdetcen çaicunaz gueroztic,*** *(...) jaquiteco duçue* ... (Haran., Apost.Act.,IV,9-10)

(2)- *Haraguiaren arauez anhitz* ***gloriatzen diradenaz gueroz,*** *ni-ere gloriaturen naiz.* (Leiz., Cor.2,XI,18)

- *Hainitçac* ***gloriatcen direnaz gueroz*** *haraguiaren arauera, handietsico naiz bada ni ere aria hortaz;* (Haran., Cor.2,XI,18)

Honez gain, zenbait adibidetan, Haranederrek Leizarragaren -(E)NAZ GUEROZ menderagailuaren ordez, NOLA...BAIT- edota BAIT- menderagailuak ere erabiltzen ditu. Horregatik, menderagailu hauek, erabat baliokideak direla aitortu behar dugu:

(3)- ... *badaric-ere bera Augustogana* ***appellatu denaz gueroz,*** *deliberatu dut harengana igortera.* (Leiz., Apost.Act.,XXV,25)

- ... *bainan* ***nola*** *apel eguin* ***baidu*** *Augustoren ganat, deliberatu dut haren ganat igortcerat.* (Haran., Apost.Act.,XXV,25)

(4)- *Hala çuec-ere dohain spiritual guthicioso* ***çaretenaz gueroz,*** *çarreitzate ...* (Leiz., Cor.1,XIIII,12)

- *Hala çuec ere dohain izpiritualen guthicios* ***baitçarete,*** *lehia çaitezte ...* (Haran., Cor.1,XIV,12)

B.- Kausazkoa perpaus nagusiaren eskuinaldean agertzen denean, ordea, egia da batzuetan adierazten den kausalitatea CEREN...BAIT- menderagailuaren bidez adierazten denaren parekoa dela:

(5)- *Ecen guiçonac eztu estali behar buruä, Iaincoaren imaginá eta gloriá* ***denaz gueroz:*** ... (Leiz., Cor.1,XI,7)

- *Guiçonac alabaiñan ez du estali behar bere burua,* ***ceren*** *Jaincoaren imagina eta gloria* ***baida;*** ... (Haran., Cor.1,XI,7)

Nolanahi ere, adibide gehienetan, kausazkoa perpaus nagusiaren aurrean zein ondoan agertzeak ez dirudi esanahi-aldaketarik eragiten duenik. Erka ditzagun, bestela hurrengo adibideak:

(6)- ... *nola içanen da hori, guiçonic* ***eçagutzen eztudanaz gueroz?*** (Lc.,I,34)

(7)- *Haraquiaren arauez anhitz* ***gloriatzen diradenaz gueroz,*** *ni-ere gloriaturen naiz.* (Cor.2,XI,18)

Biek azalpen moduko kausalitatea adierazten dute; beraz, ez dut uste posizioaren arabera bereizteak merezi duenik.

3.6.6. -(E)NAREN GAINEAN

Hau, dudarik gabe, menderagailurik ilunena da, kausa ala beste zerbait adierazten duen ez baita oso argi ikusten.

-(R)EN GAINEAN forma deklinabidearen barruan ere aurki dezakegu; edonola ere, adibide gehienetan, kasu intrumentalaren ordezkoa dela dirudi. Gainera, Leizarragaren adibideak Haranederrek eskaintzen dizkigunekin erkatzen baditugu, ondorio bera atera dezakegu:

(1)- ... *guciéc mirets ceçaten haey artzainéz erran içan çaizten* ***gaucén gainean***. (Leiz., Lc.,II,18)

- *Eta aditu çuten guciac espantitu ciren artçainec condatu ciotçaten* ***gaucez***. (Haran., Lc.,II,18)

Dena den, zenbait adibidetan, Haranederrek ere kausazko kutsua ezartzen die. Azter ditzagun, bada, hurrengo adibideak:

* -(R)EN ARIAZ:

(2)- ... *hala bozcario içanen dela ceruän bekatore emendatzen den* ***baten gainean*** ... (Leiz., Lc.,XV,7)

- ... *hala bozcario guehiago içanen dela ceruan penitencia eguiten düen* ***bekhatoros baten ariaz,*** ... (Haran., Lc.,XV,7)

* BAIT-:

(3)- ... *eta lehena ezconduric hil ciedián: eta leinuric* ***etzuenaren gainean,*** *vtzi cieçoan bere emaztea bere anayeri* ... (Leiz., Mt.,XXII,25)

- ... *eta lehenbicicoa emaste batequien ezcondu eta hill cen eta, ez* ***baitçuen*** *haurric, utçi içan cioen bere emastea bere anayari.* (Haran., Mt.,XXII,25)

* -(E)NAZ GUEROZ:

(4)- ... ***contrasta ecin daitenaren gainean,*** *appacega çaitezten behar da,* ... (Leiz., Apost.Act.,XIX,36)

- *Beraz horren contra nihor* **ecin dohaquenaz gueroz**, *sosseguan egon behar duçue ...* (Haran., Apost.Act.,XIX,36)

(5)- *Beraz gauça hauc guciac* **deseguin behar diradenaren gainean**, *nolaco behar duçue içan ...?* (Leiz., Pier.2,III,11)

- *Horiec guciac suntsitu beharrac* **direnaz gueroz**, *nolacoac behar duçue içan ...?* (Haran., Pier.2,III,11)

Beraz, adibide hauek ikusita, -(E)NAREN GAINEAN formaren bidez kausa ere adieraz daitekeela onartu behar dugu.

Bestalde, ohart gaitezen forma honen bidez eraikitzen diren kausazko perpausak eta Leizarragak berak darabiltzan NOLA...BAIT- edo -(E)NAZ GUEROZ formen bitartez sortutakoak, neurri handi batean bederen, baliokideak direla.

Azkenik esan -(E)NAREN GAINEAN forma ez dela oso erabilia; izan ere, balio bera adierazten duten beste formekin erkatuta, aski urria dela esan beharko genuke. Edonola ere, harrigarriena adibide gehienak Leizarragak sortutako sarrera-testuetan aurkitzea da:

- ... *eta guciac Christino* **estimatzen garenaren gainean**, *suffrituren dugu...?* (Adv., 5-6,266.or.)

- ... *resumâ heretatzeco moiena Euangelioâ* **iracastê çaicunarê gainean** *(...) Euangelio, huni iarreiquiteaz eta behatzeaz errequeituric eztugu eguinen? ...* (Adv.,26-30,267.or.)

- ... *eta hura gureguin* **denarê gaineâ**, *ecin hel daquidigu ...* (Adv.,36-37,268.or.)

3.6.7. BESTELAKOAK

Azkenik aipa ditzagun, laburki bada ere, kausa adierazteko erabil daitezkeen beste hainbat forma:

3.6.7.1. -(E)NEZ

Menderagailu honen bidez ere kausa adieraz daiteke. Izan ere, Villasantek berak kausa adieraz dezaketen menderagailuen artean aipatzen du:

> " *Su sentido es más bien modal, pero a veces roza o se confunde con el causal.*"[25]

Egia esan, Leizarragak, kausa adierazteko behintzat, oso gutxitan erabiltzen du, obra osoa aztertuta, lau adibide bakarrik aurkitu baititigu; dena den, lau adibideotan, kausalitatea agerian dagoela ematen du:

> (1)- ... *hura ethorten da enegana. Ez Aita* ***ikussi duenez*** *nehorc, Iaincoaganic denac baicen:* ... (Io.,VI,45-46)
>
> (2)- *Baina halere Moysesec eman drauçue Circoncisionea, (ez Moysesganic* ***denez****, baina Aitetaric)* (Io.,VII,22)
>
> (3)- *Eta haur erran ceçan, ez paubrez harc ansiaric* ***çuenez****: baina cerê ohoin baitzen,* ... (Io.,XII,6)
>
> (4)- *Eta eztugu nehoren oguia dohainic ian (...) Ez bothere* ***eztugunez****, baina gure buruén çuey exemplutan emaiteagatic,* ... (Thes.2,III,8-9)

Forma hau aztertzean, -(E)LACOTZ menderagailuaren baliokide hurbila dela ohartzen gara, biak kontestu berean agertzen baitira, hau da, EZ aditzondoak markaturiko perpausetan:

> - ... *igorri vkan drautaçue.* ***Ez*** *emaitzeren galdez* ***nagoelacotz*** ... (Phil.,IIII,16-17)

---

[25] VILLASANTE, L., Sintaxis de la oración compuesta, 244.or.

Haranederrek ere gauza bera pentsarazten digu Leizarragaren -(E)NEZ menderagailuaren ordez, -(E)LACOTZ-en baliokidetzat jo dezakegun -(E)LACOAN erabiltzen baitu:

> - ... *hura ethorten da enegana. Ez Aita* ***ikussi duenez*** *nehorc, Iaincoaganic denac baicen:* ... (Leiz., Io.,VI,45-46)
>
> - ... *heldu da hura ene ganat. Ez Aita* ***icussi duelacoan*** *nihorc, hainac baicen ceina heldu baida Jaincoa ganic;* ... (Haran., Io.,VI,45-46)

Bestalde, -(E)LACOTZ-ekin gertatzen den bezala, zenbaitetan, -(E)NEZ menderagailua kausalitate argia adierazten duten beste menderagailu batzuekin agertzen da; beraz, adibide hauetan behintzat, menderagailu honen balio kausala ukaezina dela aitortu behar dugu:

> - *Eta haur erran ceçan, ez paubrez harc ansiaric* ***çuenez:*** *baina* ***cerê*** *ohoin* ***baitzen,*** *eta eçarten ciradenac harc ekarten* ***baitzituen.*** (Io.,XII,6)

3.6.7.2. BAIT-

Jakina denez, BAIT- iparraldeko euskalkietan menderagailurik garrantzitsu eta erabilienetarikoa da; nolanahi ere, hain erabilia izanik, batzuetan ez da aise antzematen zer adierazten duen. Ikus dezagun zer esaten digun Villasantek aurrizki honetaz:

> "... *Parece que su papel es subordinante en general, quedando el sentido un poco en el aire y debiendo ser éste determinado por el contexto. De aquí su carácter un tanto genérico y polivalente. (...) Este mismo carácter indiferenciado debió de ser la razón -entre otras- de que se sintiera la necesidad de asociar a este prefijo con varios anafóricos, con el fin de obtener así distintas clases de oraciones subordinadas perfectamente caracterizadas y diversificadas entre sí ...*"[26]

---

[26] VILLASANTE, L., La oración causal en vasco, 237.or.

Kausazko perpausei gagozkielarik, BAIT-menderagailua, gehienetan, beste partikula bati loturik agertzen zaigula ikusi dugu: CEREN...BAIT-, NOLA...BAIT-. Baina, berak bakarrik kausalitaterik adieraz lezake? Agian gauzak muturrera eramatea izango litzateke; dena den, Haranederrek, adibidez, badirudi BAIT- kausazkoa ezagutu eta erabili zuela, Leizarragaren zenbait kausazkoren ordez, berau erabili baitzuen. Baina, Leizarragaz gauza bera esan daiteke? Egia esan, ezetz dirudi, Leizarragak kausalitatea bestelako menderagailuen bidez adierazten baitu; guztiarekin ere, ikus dezagun adibide pare bat behinik behin:

> - ... *Cer hitz da haur, authoritaterequin eta bothererequin* ***manatzen baititu*** *spiritu satsuac, eta* ***ilkiten baitirade***? (Leiz., Lc.,IIII,36)
>
> - *Erraiten çuten bada Iuduéc, Berac hilen othe du bere buruä? erraiten* ***baitu****, Norat ni ioaiten bainaiz, çuec ecin çatozquete.* (Leiz., Io.VIII,22)

Adibide hauetan, BAIT- menderagailuak, bera bakarrik agertu arren, kausa adieraz lezake; dena den, adibide bakan batzuk baino ez dira, BAIT- kausazkoa, normalean, beste partikula bati itsatsirik aurkitzen baitugu.

Gainera, adibide hauetan adierazten dena kausa ala beste zerbait den, nork bere modura interpreta dezake.

3.6.7.3. -(E)LA(RIC) / -(E)Z / -(R)IC

Hiru menderagailu hauek batera aztertzen ditugu, hirurak moduzkoen artean ere aipatu baititugu. Menderagailu hauen moduzko adiera aztertzean, moduzko adieratik oso urrun ez dagoen balio "kausal-esplikatiboa" ere har zezaketela aipatu genuen eta horixe da, hain zuzen ere, orain gogoratu behar duguna.

A.- Forma jokatuen artean, -(E)LA(RIC) menderagailua aipatu behar dugu. Adibide gehienetan modua adierazten du;

baina, perpaus nagusiaren aurreko zenbait adibidetan adiera kausal-esplikatiboa nagusitzen da:

- *Baina oraino hec alegueraz* ***sinhesten etzutela****, eta miraz* ***ceudela****, errâ ciecén, ...* (Lc.,XXIIII,41)

- *Eta hec* ***contrastatzen eta blasphematzen ari ciradela****, abillamenduac iharrossiric erran ciecén, ...* (Apost.Act.,XVIII,6)

Perpaus hauek, gure erregistroetan -(E)NEZ (GERO) menderagailuaren bidez adieraziko genituzkeenen baliokideak dira. Beraz, kausa, baina aldi berean modua edota "esplikazioa" ere adierazten dute; horrexegatik esan dugu ez daudela moduzko perpausetatik oso urrun.

B.- Forma jokatugabeen artean -(E)Z eta -(R)IC formen bidez sortzen diren perpausak aipatu behar ditugu; dena den, gogora dezagun forma hauek balio ugari har ditzaketela: denborazkoa, moduzkoa edo kausazkoa, besteak beste. Beraz, zeinen aurrean aurkitzen garen zehaztea lan gaitza izateaz gain, kontestuak berak lagundu behar digu. Edonola ere, kasu gehienetan, irakurleak eman nahi dion interpretazioaren arabera argituko da auzia.

Aipa ditzagun adibide batzuk:

* -(R)IC:

  - *Eta diuinoqui ametsetan* ***aduertitu içanic*** *ezlitecen Herodesgana itzul, berce bidez retira citecen bere comarcarát.* (Mt.,II,12)

  - *Eta* ***accusatu içanic*** *Sacrificadore principaléz eta Ancianoéz, deus etzeçan ihardets.* (Mt.,XXVII,12)

* -(E)Z:

  - *Eta hec* ***ez vkanez*** *nondic paga, quitta cieceán biey.* (Lc.,VII,42)

  - *Eta içorra* ***içanez*** *heyagoraz cegoen ...* (Apo.,XII,2)

Perpaus hauek, forma jokatuen bidez sortzen direnak bezala, perpaus nagusiaren aurrean agertzen dira. Bestalde, adierazten duten balioari dagokionez, kausa bada, kausal-esplikatiboak direla esan beharko genuke; dena den, ez dezagun ahanz eman nahi diegun interpretazioaren arabera, kausazkoak, denborazkoak edo moduzkoak izan daitezkeela.

3.7. KONTSEKUTIBOAK

Leizarragaren Testamentu Berria, guztiok dakigunez, ez da argumentazio-obra; hori dela eta, orain aztergai ditugun perpaus mota hauek ez ditugu oso maiz aurkituko.

Edozein modutan, Testamentuan adibideak urriak izan arren, ez dugu ahaztu behar obraren hasieran Leizarragak sarrera moduko zenbait testu utzi zizkigula. Beraz, bi testu moten artean perpaus hauek aztertzeko material nahikoa izango dugu.

Ikus dezagun, bada, zeintzuk diren Leizarragak ondorioa adierazteko erabiltzen dituen formak:

3.7.1. HAIN... NON... BAIT- / -(E)N

3.7.2. HALA... NON... BAIT- / -(E)N

3.7.3. HALACO (MANERAZ)... NON... BAIT- / -(E)N

3.7.4. HAMBAT... NON... BAIT- / -(E)N

3.7.5. NON... BAIT- / -(E)N

Ikusten dugunez, ondorioa adierazten duten perpaus guztiak berdinak dira, beraien arteko desberdintasun bakarra, perpaus nagusian agertzen den graduatzailea edo zenbatzailea izanik.

Sarreratxoa hau amaitzeko, zehaztu dezagun P.Lafitte kenduta, gainerako gramatikariek perpaus kontsekutibo hauek agertzen duten forma aztertzean, sarrera-partikula gisa NON forma aipatzeaz gain, EZEN ere aipatzen dutela, eta batzuek, hala nola, P.Goenagak eta S.Altubek EZEN hobesten dutela:

> *"**Ezen**-en ordez **non** eta beste zenbait ere erabiltzen dira. Baina Altuberi jarraituz, **ezen** izango litzateke egokiena, agian"*[1]

---

[1] GOENAGA, P., Gramatika Bideetan, 322.or.

"De construir así esta frase (o sea conforme al modelo erdérico) es preferible emplear el morfema ***ze*** *que no el interrogativo de lugar* ***(non, nun)*** *(...) el uso de los morfemas* ***ze, eze*** *y* ***ezen*** *es el menos nocivo, por cuanto apenas desempeñan éstos en euskera función determinada alguna, fuera de dichas locuciones."*:

Leizarragaren obrara jotzen badugu, behin ere ez dugu EZEN topatzen; beraz, baliteke, gaur egun, EZEN-en erabilpena egokiagoa izatea, baina NON tradizioan errotutako forma dela aitortu behar dugu, Leizarragak, bai itzuli zituen testuetan, bai berak sorturikoetan, salbuespenik gabe, NON erabiltzen baitu.

Puntu hau zehaztuta, azter ditzagun Leizarragak eskaintzen dizkigun perpaus kontsekutiboak:

: ALTUBE, S., Erderismos, 227.or.

3.7.1. HAIN... NON... BAIT- / -(E)N

3.7.1.1. Forma

Sarreran aipatu dugunez, perpaus kontsekutibo hauek guztiek egitura berdina agertzen dute: "NON... BAIT- / -(E)N". Hortaz, sailkapen bat egin nahi badugu, perpaus nagusian eraman ohi duten graduatzaile, zenbatzaile edo aditzondoaren arabera egin behar dugu.

Izenburuan bertan ikus dezakegunez, orain aztertzen dihardugun egiturak, perpaus nagusian, kualitatea markatzen duen HAIN graduatzailea darama; eta kualitatea adierazten duenez, beti izenondo, aditzondo edota izenondoa daraman izen sintagma oso batekin aurkituko dugu. Hona hemen adibide bana:

* Aditzondoa:

  - ... *non ezpaitu bere burua* **hain** *bekatore eçagutu nahi* **non** *Redemptore promettatuaren behar* **den** ... Adv.,12-14, 275.or.)

* Izenondoa:

  - ... *ezgarela* **hain** *bassa,* **nô** *gure lengoagez ecin eçagut eta lauda* **deçagun** *gure Iainco Iauna:* (Guc.,25-27, 252.or.)

* Izen sintagma osoa:

  - ... *ecin hel daquidigu* **hain** *mûduco eguitate gaitzic ez maledictione hâdiric,* **nô** *gure probetchutâ benedicatua eta sanctificatua* **eztén**, *ez* **hain** *gaitz hâdiric,* **nô** *gure emendiotan eta gure hobeagoatic* **eztén**. (Adv.,37-1, 268-269.orr.)

Perpaus nagusiei dagokien berezitasun hau alde batera utzirik, menpeko perpausei bagagozkie, Leizarraga honelako perpausak sortzeko bi menderagailuz baliatzen dela ohartzen gara, BAIT- aurrizkia eta -(E)N atzizkia topatu ditugu eta. Hala ere, ba al dago bi menderagailu hauek bereizterik ala baliokideak dira?

Hartzen duten balioari dagokionez ezin da bereizketarik egin, biek ondorioa adierazten baitute. Dena den, biek balio bera hartu arren, badirudi Leizarragak ez zituela biak, arbitrarioki, edozein kontestutan erabiltzen.

Hona hemen Villasantek eskaintzen digun azalpena:

> *"... entre los verbos citados hay tres en que el verbo está en subjuntivo y termina en* **-n**. *En ellos no figura el prefijo* **bait-**. *La razón es porque* **bait-** *no se usa con formas subjuntivas"*[1]

Villasanteren arabera, -(E)N menderagailua topatzen dugun bakoitzean, adizki subjuntiboen aurrean gaude. Egia izan daiteke, ZEDIN eta halako formak -aoristoak deitu izan direnak- subjuntibotzat jotzen ez baditugu, noski, forma hauek parra-parra agertzen baitira; baina honek ez digu argibiderik ezta konponbiderik ere eskaintzen, garrantzitsuena ez baita -(E)N menderagailua daraman adizkia subjuntiboa den ala ez jakitea, baizik eta zergatik den subjuntiboa; hau da, Villasantek ez digu azaltzen zergatik erabiltzen den zenbait perpausetan subjuntiboa indikatiboaren ordez edo, bestela esanda, noiz erabili behar dugun -(E)N menderagailua BAIT- aurrizkiaren ordez; eta argi dago arrazoiren bat egon behar dela, arestian aipatu dugunez, ez baitirudi Leizarragak bi menderagailu hauek arbitrarioki erabiltzen zituenik.

Saia gaitezen, bada, Leizarragak eskaintzen dizkigun adibideen bidez auzi hau nolabait argitzen:

1.- HAIN... NON... **BAIT-**

BAIT- menderagailua, egia esan, adibide bakar batean aurkitu dugu; beraz, hemendik ezin da ondorio erabakiorrik atera. Hala ere, ikus dezagun:

> - *... altchatu vkâ ditu bere enseignác eta armoriác, bay* **hain** *gauça clarotâ,* **nó** *ecin*

---

[1] VILLASANTE, L., Sintaxis de la oración compuesta, 172.or.

baitzatequê *nehor (...) excusaric batre ahal luqueenic.* (Adv.,5-9, 257.or.)

2.- HAIN... NON... **-(E)N**

L.Villasanteren teoria baieztatuz, Leizarragak -(E)N menderagailuarekin batera aspektu markarik gabeko adizkiak erabiltzen ditu. Baina, subjuntiboaren aldeko joera honek azalpenen bat behar du eta, agian, azalpena perpaus nagusiak eskain diezaguke, -(E)N menderagailua topatzen dugun adibide gehienetan perpaus nagusia ezezkoa delako. Ikus ditzagun adibide batzuk:

* Adizki sintetikoak:

- ... *Eta ezta nehor* **hain** *ausartic içateco,* **non** *hari* **derrón**, ... (Som.,13-14, 274.or.)

* Adizki perifrastikoak (Aspektu markarik gabekoak):

- ... *ezgarela* **hain** *bassa,* **nô** *gure lengoagez ecin* **eçagût eta lauda deçagun** *gure Iainco Iauna:* (Guc.,25-27, 252.or.)

Beraz, badirudi -(E)N atzizkia edo BAIT- aurrizkia erabiltzea ez dela idazleak egiten duen aukera, baizik eta perpaus nagusiak berak eskatzen duen kontua.

Eta urrutira joan gabe, gogora dezagun kausazkoen artean ere aipatu genuela formen bikoiztasun hau: CEREN... BAIT- / CEREN... -(E)N. Atal horretan aipatutakoa gogora ekarriaz, esan dezakegu, kontsekutiboetan gertatzen den bezala, bi formek adierazten zuten balioari zegokionez, erabat errankideak zirela; baina, hala eta guztiz ere, kontestu desberdinetan aurkitzen genituen. Izan ere, CEREN... -(E)N egitura, kasu gehienetan behintzat, perpaus nagusia ezezkoa edo galderazkoa zenean topatzen genuen, kontsekutiboetan aurkitzen dugun fenomeno bera, alegia.

Nolanahi ere, momentuz, kontsekutibo mota bakar bat aztertu dugu; beraz, egin dezagun aurrera proposatu berri

dugun ideia hau kontsekutibo mota guztietan betetzen den egiaztatu ahal izateko.

3.7.1.2. Tokia.

Dakigunez, menpeko perpausek askatasun handia dute perpaus nagusiaren baitan posizio batean zein bestean kokatzeko. Dena den, perpaus kontsekutiboei dagokienez, sistematizazio handia aipatu behar dugu, adibide guztiek orden berdina agertzen baitute. Hona hemen:

"HAIN (Perpaus nagusia) + NON... BAIT- / -(E)N"

- ... *Eta ezta nehor* **hain** *ausartic içateco,* **non** *hari* **derrón**, ... (Som.,13-14, 274.or.)

- ... *ezgarela* **hain** *bassa,* **nô** *gure lengoagez ecin eçagut eta lauda* **deçagun** *gure Iainco Iauna:* (Guc.,25-27, 252.or.)

Obra osoan ez dugu salbuespenik aurkitu; beraz, perpaus guztiek kokaleku bera hartzen dutela baiezta dezakegu. Azken finean, ohart gaitezen eredu erromaniko guztietan aurkitzen dugun hurrenkera bera dela.

3.7.2. HALA... NON... BAIT- / -(E)N

Perpaus kontsekutiboen artean, hauxe da, zalantzarik gabe, gehien erabiltzen dena.

3.7.2.1. Forma.

A.- Perpaus kontsekutiboak bereizteko hartu dugun irizpidea perpaus nagusian daramaten graduatzaile, zenbatzaile edo aditzondoa izan da.

Orain aztertzen dugun egiturak, esate baterako, perpaus nagusian, HALA modu-aditzondoa darama:

> - ***Hala*** *iharduqui ceçaten bada,* ***non*** *bata berceaganic separa* ***baitzitecen:*** *eta Barnabas Marc harturic embarca* ***baitzedin*** *Cyprerát.* (Apost.Act.,XV,39)

Honez gain, modu-aditzondo honek izan ditzakeen zenbait aldaera ere aipatu behar ditugu, oso gutxitan bada ere, noizbait aurki baititzakegu:

* HALACOA:

> - ... ***halacoa*** *da* ***non*** *asco* ***baita*** *eta mereci* ***baitu,*** ... (Adv.,31, 272.or.)

* HALACA:

> - ... *arqui citecen, eta haguitz churit elhurra beçala,* ***halaca non*** *bolaçalec lurraren gaineâ ecin hain churi eguin* ***baileçaque.*** (Mc.,IX,3)

* HALACARA:

> - ... ***halacara*** *mansotu eta ematu içan da,* ***nô*** *egungo egunean (...) predicatzen* ***baita,*** ... (Guc.,22-25, 250.or.)

Bestalde, modu-aditzondo hauek perpaus nagusiaren baitan jokatzen duten paperari dagokionez, bi mota bereizi behar ditugu:

1.- Adibide gehienetan, HALA modu-aditzondoa perpaus kontsekutiboaren NON partikularen aldamenean aurkitzen dugu; baina honek ez du esan nahi biak elkarturik daudenik, modu aditzondoa perpaus nagusiari baitagokio, NON sarrera-partikula menpeko perpausari dagokion bitartean.

Hala ere, adibide hauetan bereziena da HALA modu-aditzondoa perpaus nagusia osatzen duen elementu bakarra dela, gainerako osagaiak, jakinak direlakoan edo, ezabatu egin direlako. Ikus ditzagun adibide batzuk:

> - *Eta etzieçón ihardets hitz batetara-ere:* **hala non** *miresten* **baitzuen** *Gobernadoreac haguitz.* (Mt.,XXVII,14)
>
> - *... lur ikaratze handibat eguin cedin,* **hala nó** *iharros* **baitzitecen** *presoindegui fundamentac ...* (Apost.Act.,XVI,26)

2.- Aipatu dugunez, adibide gehienak aurreko multzoan sartu behar ditugu; baina noizbehinka, HALA modu-aditzondoa perpaus oso baten barruan ere aurki dezakegu:

> - *Bada haur* **hala** *declaratzen drauçuet* **non** **ezpaitzaituztet,** *laudatzen, ...* (Cor.1,XI,17)
>
> - *... ceinez* **hala** *cerbitza* **baiteçaquegu** *Iaincoa* **non** *harê gogoaraco* **baiquirate,** *...* (Hebr.,XII,28)

B.- Perpaus nagusiari dagokion forma alde batera utzirik, perpaus kontsekutiboaren eremuan sartzen bagara, lehendabizi, **SARRERA-PARTIKULA** aipatu behar dugu, perpaus hauek guztiek NON sarrera-partikula baitaramate:

> - *... abysmo handibat duc:* **hala non** *hemendic çuetarát iragan nahi diradenac, ecin* **baititezque,** ... (Lc.,XVI,26)

Gerta daiteke sekuentzia kontsekutiboa perpaus batek baino gehiagok osatzea; kasu honetan, NON sarrera-partikula lehenengo perpausaren hasieran bakarrik aurkituko dugu:

- ... *ilki cedin gucién presentian:* **hala non** *guciac spantatuac* **baitzeuden**, *eta glorificatzé* **baitzuten** *Iaincoa*, ... (Mc.,II,12)

Bestalde, perpaus kontsekutiboez hitz egin nahi badugu, derrigorrez, perpaus hauek sortzen dituzten **MENDERAGAILU**ez hitz egin behar dugu; eta aurreko atalean esandakoa gogora ekarriaz, berriz ere BAIT- eta -(E)N menderagailuen arteko bereizketa aipatu behar dugu, orain aztertzen dugun egituran ere biak aurki baititzakegu:

1.- HALA... NON... **BAIT-**

Aurreko egitura aztertzean BAIT- aurrizkia adibide bakar batean agertzen zela ohartu ginen. Oraingo egituran, berriz, hauxe da menderagailurik garrantzitsuena, adibide ia guztietan aurkitzen dugu eta.

L.Villasanteren arabera, BAIT- aurrizkia ezin da forma subjuntiboekin agertu; beraz, azter ditzagun menderagailu hau aurki dezakeguneko kontestuak:

* ADITZ SINTETIKOAK:

- *Eta spanta citecen guciac,* **hala non** *bere artean galdez* **baitzeuden**, ... (Mc.,I,27)

* ADITZ PERIFRASTIKOAK:

• Aspektu markadunak:

- ... *eçagutu içan da Ierusalemeco habitant guciéz:* **hala non** **deithu içan baita** ... (Apost.Act.,I,19)

- *Cein opposatzen eta altchatzen baita Iainco erraiten eta adoratzen den guciren contra:* **hala non** *hura iainco beçala, Iaincoaren templean* **iarten baita**, ... (Thes.2,II,4)

- *Orduan içanen dirade signoac (...)* **Hala non** *guiçonac hilac* **beçalacaturé baitirade** ... (Lc.,XXI,25-26)

- Aspektu markagabeak:

(Aspektu markarik gabeko aditzen artean, bi mota bakarrik onar daitezke: ahalezkoak eta egungo "iragan burutuaren" baliokideak ziren "aoristoak". Eta gogora dezagun, "aoristo" hauek gure subjuntiboen forma badute ere, Leizarragarentzat, kontestu gehienetan bederen, ez bide zirela subjuntibozko formak.)

- *... eta berriz gendetze handibat bil cedin,* ***hala non*** *oguiaren iateco artea-ere* ***ecin har baitziroiten***. (Mc.,III,20)

- *... eta adar handiac eguiten ditu* ***hala non*** *ceruco choriec ohatzeac* ***eguin ahal baititzaqueizte*** *haren itzalean.* (Mc.,IIII,32)

- *... eta io cedin iguzquiaren herén partea, eta ilharguiarê herén partea (...)* ***hala non*** *hayen herén partea* ***ilhun baitzedin***. (Apo.,VIII,12)

Halaber, ohart gaitezen kontsekutibo hauek guztiek perpaus nagusi baiezkoa dutela.

2.- HALA... NON... **-(E)N**

Egitura hau benetan urria da, testu osoa arakaturik, hiru adibide bakarrik topatu baititugu. Honez gain, ohart gaitezen hiruretan aspektu markarik gabeko adizkiak topatzen ditugula. Hona hemen:

- *... haraguiaren arauez deliberatzen ditut,* ***hala non*** *ni baithan* ***den*** *Bay eta Ez?* (Cor.2,I,17)

- *Asco du harc anhitzez eguin içan çayon reprotchu hunez.* ***Hala non*** *contrariora* ***barka dieçoçuen*** *aitzitic, eta* ***consola deçaçuen***, ... (Cor.2,II,6-7)

- *... ez gara hedatzen behar den baino guehiago (...) Ez gure neurrico etzén gauçaz gloriatzen guinadelaric (...) baina sperança dugularic ecen çuen fedea handi dadinean, gu-ere frangoqui handituren garela assignatu içan çaicun neurrian.* ***Hala non*** *çuec baino aitzinago diraden lekuetan* ***euangeliza deçadan*** *eta* ***ezgaitecen gloria*** ... (Cor.2,X,14-16)

Ikus dezagun orain zeintzuk izan daitezkeen adibide hauetan aspektu markarik gabeko aditzak erabiltzeko arrazoiak.

Lehenengo adibidean, galde-perpausa dugunez, ez dugu arazo handirik, galde-perpausak ezezkoen ahaide hurbilak baitira.

Hirugarrena ilunagoa izan daiteke, aurreko perpausak ezezkoak izan arren, kontsekutiboaren aurrean dagoena, bigarren adibidean gertatzen den bezala baiezkoa delako. Hala eta guztiz ere, ohart gaitezen, perpaus hauetan guztietan adiera kontsekutiboaz gain, helburuzko adiera ere soma dezakegula. Hortik, bada, seguraski, -(E)N menderagailuaren hautaketa.

3.7.2.2. Tokia.

Kontsekutiboek perpaus nagusiaren baitan hartzen duten kokaguneari dagokionez, gogora dezagun aurreko atalean esandakoa, hots, perpaus hauek guztiek eredu erromanikoari jarraitzen diotela; beraz, guztietan hurrenkera bera antzemango dugu, honako hau, alegia:

"HALA (Perpaus nagusia) + NON... BAIT- / -(E)N"

- ... *eta gauça hauc elkarren contra dirade:* **hala non** *nahi dituçuen gauça guciac* **ezpaitituçue** *eguiten.* (Gal.,V,17)

3.7.2.3. Balioa.

Hasieran aipatu dugunez, perpaus kontsekutiboen artean, HALA... NON... BAIT- / -(E)N egiturak sorturikoak dira erabilienak, Testamentuaren itzulpenean, behintzat. Nolanahi ere, hau formarik erabiliena izanik, neutroena ere badela aitortu beharko genuke, egitura honek kontsekutiboen artean sar ditzakegun adiera desberdinak har baititzake. Izan ere, Leizarragaren adibideak Haranederrek dituenekin erkatzen baditugu, zenbaitetan biek egitura bera erabiltzen badute ere, adibide anitzetan

egitura desberdinak topatzen ditugu; hala ere, Leizarragak matiz horiek guztiak HALA... NON... BAIT- / -(E)N egituraren bidez adierazten ditu. Ikus ditzagun adibide batzuk:

* HALA... NON... BAIT-:

- ... *eta hetaric estalia cen,* ***hala non ezpaitzutén*** *hura senditzen ...* (Leiz., Lc.,IX,45)

- ... *gauça estali bat cen hequientçat* ***hala, non*** *ez* ***baitçuten*** *deussic comprenitcen ...* (Haran., Lc.,IX,45)

* HALACO MOLDEZ / MANERAZ, NON... BAIT-:

- ... *eta senda citzan.* ***Hala non*** *populuac mirets* ***baitzeçan*** *çacusquianean mutuac mínçatzen ...* (Leiz., Mt.,XV,30-31)

- ... *eta sendatu cituen;* ***halaco maneraz, non*** *miretsiac jarri* ***baitciren*** *jende hec, ...* (Haran., Mt.,XV,30-31)

* HAIN... NON... BAIT-:

- ... *eta adar handiac eguiten ditu* ***hala non*** *ceruco choriec ohatzeac eguin ahal* ***baititzaqueizte*** *haren itzalean.* (Leiz., Mc.,IIII,32)

- ... ***hain*** *adar handiac ekhartcen ditu,* ***non*** *aireco hegastiñac egon ahal* ***baiditezque*** *haren itçalean.* (Haran., Mc.,IV,32)

* HARTARAIÑO(COAN)... NON... BAIT-:

- *Orduan içanen dirade signoac (...)* ***Hala non*** *guiçonac hilac beçalacaturé* ***baitirade*** *...* (Leiz., Lc.,XXI,25-26)

- *Orduan içanen dire seiñaleac (...)* ***Hartaraiño*** *bai,* ***non*** *ihartuco ere* ***baidire*** *guiçonac ...* (Haran., Lc.,XXI,25-26)

* -TCERAIÑOCOAN:

- ... *eta bagác sartzen ciraden vncira,* ***hala non*** *ia bethatzen* ***baitzén.*** (Leiz., Mc.,IIII,37)

- ... *eta uhiñac sartcen ciren barcuan hura* ***bethetceraiñocoan.*** (Haran., Mc.,IV,37)

Eta ez dezagun ahanz, menderagailuez hitz egitean aipatutakoa, hots, balio-aniztasun horren barruan, -perpaus hauek -(E)N menderagailua daramatenean, noski-beste bat sar dezakegula: "helburuzkoa", perpaus hauek kontsekutiboak izanik ere, ez daudelako oso urrun helburuzkoetan kokatu ditugunetatik.

3.7.3. HALACO (maneraz)... NON... BAIT- / -(E)N

3.7.3.1. Forma.

A.- Perpaus kontsekutibo hauek perpaus nagusian daramaten graduatzaile edo aditzondoa kontutan izanik, egitura hau, hein handi batean bederen, aurreko atalean aipatu dugun egituraren baliokidea dela ohartzen gara, honetan ere modu-aditzondo bat -HALAKO, alegia- topatzen baitugu:

- ... *ene manerá* ***halaco*** *bacen-ere,* ***non ezpaitruen*** *irudiric-ere* ... (Guc.,13-14,249.or.)

Nolanahi ere, modu-aditzondo honen barruan hiru forma bereiz ditzakegu:

* HALACO aditzondoa (HALA aditzondoaren aldaera):

  - ... *eta* ***halaco*** *eguin çarete* ***non*** *ezne behar* ***baituçue,*** ... (Hebr.,V,12)

* HALACO izenlaguna:

  - *Holocausta cê,* ***halaco sacrificio, non*** *gucia erratzé* ***baitzén,*** ... (Hitz eta Minçatzeco Manera, 1207.or.)

* HALACO MANERAZ esapidea:

  - ... *beguitan har ceçan,* ***halaco maneraz non*** *(...) placent çayon gucia, eguin* ***baitzequion*** *desplacent,* ... (Adv.,12-14,256.or.)

HALACO MANERAZ esapideari dagokionez, esan dezagun adibide guztietan NON sarrera-partikularen alboan aurkitzen dugula; dena den, honek ez du esan nahi loturik daudenik, HALA aditzondoarekin gertatzen den bezala, HALACO MANERAZ esapideak ere, berak bakarrik osatzen baitu perpaus nagusia. Ikus dezagun adibide bat:

- ... *gauça guciac Iesus Christez eguin içâ çaizquigu, gure probetchua ahal daidiquegun*

beçalaco exercitio: ***halaco maneraz non,*** *glorifica ahal* ***baiquaitezque*** ... (Adv.,34-36, 271.or.)

B.- Bestalde, perpaus kontsekutiboak hartzen duen forma aztertzeko, lehendabizi, kontsekutiboaren aitzinburuan aurkitzen dugun sarrera-partikula aipatu beharko genuke, baina kontsekutibo mota guztietan jokabide berdina somatzen dugunez, ez du merezi aurreko egituretan esandakoa errepikatzeak.

Azter dezagun, beraz, egitura honetan aurki ditzakegun menderagailuen jokabidea:

1.- HALACO (maneraz)... NON... **BAIT-**

BAIT- aurrizkia menderagailurik erabiliena da. Honez gain, gogora dezagun menderagailu hau aditz sintetikoekin zein perifrastikoekin ager daitekeela; hala ere, zehaztapen bat egin behar dugu gaizki ulertzerik egon ez dadin; izan ere, perifrastikoen artean, aspektu markadunekin ez dago inolako eragozpenik; aspektu markagabeen artean, ordea, bi mota bakarrik aurki ditzakegu: ahalezkoak eta "aoristoak" -azken hauek, Leizarragarentzat gure iragan burutuen baliokideak zirelako-. Ikus ditzagun adibide batzuk:

* ADITZ SINTETIKOAK:

- ... *eta bere bekatuaz* ***halaco*** *kotsua eta poçoina mundura eman vkan du,* ***non*** *(...) punitionearen digne* ***baicara*** ... (Som.,23-26, 274.or.)

* ADITZ PERIFRASTIKOAK:

• Aspektu markadunak:

- ... *hil içan da, guri vicitze ligunçat.* ***Halaco maneraz non*** *hunen beraren moienez* ***içan baita*** *gogorgoá* ***ematu,*** ... (Adv.,16-18, 271.or.)

- ... *creatu vkan çuen bere imaginara eta irudira,* ***halaco maneraz non*** *(...) claroqui* ***arguitzen baitzuen*** ... (Adv.,13-15, 255.or.)

- ... *ceineçaz eguiazco bidea blasphematurén baita.* ***Halaco maneraz non*** *auaritiaz (...) merkatalgoa çueçaz* ***eguiné baituqueite*** ... (Pier.2,II,2-3)

• Aspektu markagabeak: (Aoristoak eta ahalezkoak)

- ... *harc du engendratu (...)* **halaco reuerentiabat, non** *are çure ençagutzea eztutenec-ere* **ecin** *asco* **mirets baiteçaquete**. (Guc.,5-8,250.or.)

- ... *beguitan har ceçan,* **halaco maneraz non** *(...) placent çayon gucia,* **equin baitzequion** *desplacent, ...* (Adv.,12-14,256.or.)

Aurreko ataletan gertatzen zen bezala, BAIT-aurrizkia baiezko perpaus nagusien menpean agertzen zaigu.

2.- HALACO (maneraz)... NON... **-(E)N**

Aurreko egiturarekin erkaturik, benetan urria da, obra osoan adibide bakarra aurkitu baitugu.

Adibide honetan aspektu markarik gabeko adizki subjuntiboa aurkitzen dugu; hala ere, adibide honek ez digu buruhauste handirik sortzen, kontsekutibo hau aspektu markarik gabeko alegiazko forma baten menpe agertzen baitzaigu; beraz, honexek eragiten du -(E)N atzizkiaren erabilera, "consecutio temporum"-ek eskatuta:

- ... *nahi vkan du Israel-ere harê populu bereci dei ledin, baina* **halaco conditionerequin, non ezleçaten** *berce Iaunic* **eçagut** *ez berce Iaincoric* **recebi**. (Adv.,16-18, 258.or.)

3.7.3.2. Tokia.

Perpaus kontsekutibo hauek perpaus nagusiaren baitan hartzen duten tokiari dagokionez, aurreko ataletan aztertu ditugun egiturak bezain sistematikoak direla aipatu behar dugu, guztiek, salbuespenik gabe, eredu erromanikoari jarraitzen baitiote. Beraz, honako hurrenkera hau topatuko dugu beti:

"HALACO...(Perpaus nagusia) + NON... BAIT- / -(E)N"

- ... *eta senda ceçan hura,* **halaco maneraz non** *itsu eta mutu cena minço* **baitzen** *eta ikusten* **baitzuen**. (Mt.,XII,22)

3.7.4. HAMBAT... NON... BAIT- / -(E)N

Perpaus kontsekutiboen artean, Leizarragaren obran behintzat nagusitzen den egitura HALA... NON... BAIT- da; baina, honen ondoren, orain aztertzen ari garena aipatu behar dugu, Testamentuan zein Leizarragak berak sorturiko sarrera-testuetan oso maiz aurkitzen baitugu.

3.7.4.1. Forma.

A.- Aurreko egiturekin egin dugun bezala, lehendabizi, kontsekutiboarekin harremanetan dagoen perpaus nagusiaren berezitasunak aztertuko ditugu.

Egitura honek perpaus nagusian HAMBAT zenbatzailea darama:

> - *Eta bertan anhitz bildu içan dirade* **hambat non** *bortha aldiriéc-ere ecin eduqui* **baitzitzaqueizten** ... (Mc.,II,2)

Honez gain, HAMBAT zenbatzaileak izan dezakeen aldaera bat ere aipatu behar dugu: HAMBATETARANO:

> - ... *imaginatu eta eguin vkan ahal duen becembat-ere bay:* **hambatetarano non ezpaitzen** *populuric (...) Iainco berriric eguiten etzuenic.* (Adv.,3-5, 259.or.)
>
> - ... *côfirmatu içan da promes hura bera: bay* **hâbatetarano, nô** *(...) declaratu içan* **baitzé** ... (Adv.,14-16, 260.or.)

Hala ere, ohart gaitezen obra osoa azterturik, bi adibide hauek bakarrik topatu ditugula; beraz, HAMBATETARANO aski forma urria dela baiezta dezakegu.

Bestalde, HAMBAT partikulak perpaus nagusiaren baitan betetzen duen funtzioari dagokionez, esan dezagun zenbait

adibidetan -gutxitan, egia esan- "graduatzaile" funtzioa betetzen duela. Hona hemen adibide bat:

> - ... **hâbat** *côplitugui certificatu eta seguratu vkâ gaitu,* **non** *nehorerê (...) contrasta* **bailaite** ... (Adv.,28-32,263.or.)

Nolanahi ere, adibide gehienetan HAMBAT zenbatzaileak, berak bakarrik osatzen du perpaus nagusia, gainerako osagaiak, aurreko perpausaren bidez ezagutzen ditugunez, ezabatu egiten direlako:

> - *Eta signo handiac egiten cituen,* **hambat non** *sua cerutic lurrera eraits eraciten* **baitzuen** ... (Apo.,XIII,13)

B.- Perpaus nagusian aurkitzen dugun HAMBAT zenbatzailea alde batera utzirik, azter dezagun orain perpaus kontsekutiboak berak hartzen duen forma. Dena den, ohart gaitezen, aurreko ataletan aztertu ditugun egiturekin bat datorrela, perpaus hauen arteko desberdintasun bakarra perpaus nagusian daramaten graduatzaile, zenbatzaile edo aditzondoan baitatza.

Hala izanik, egitura honetan ere perpaus kontsekutibo guztien hasiera-hasieran **sarrera-partikula** topatuko dugu, eta sarrera-partikula hau, jakina denez, NON izango da:

> - *Eta emendatzenago cen Iaunean sinhesten çutenen compainiá (...)* **Hambat non** *karriquetara ekarten* **baitzituztén** *eriac, ...* (Apost.Act.,V,14-15)

Honez gain, gogora dezagun ETA emendiozkoak juntaturiko bi perpaus kontsekutibo ditugunean, menderagailua bietan agertu arren, sarrera-partikula lehenengoan bakarrik topatzen dugula:

> - ... *eta arbore bilhatzen da,* **hambat non** *ethorten* **baitirade** *ceruco choriac, eta ohatzeac eguiten* **baitituzte** *haren adarretan.* (Mt.,XIII,32)

Bestalde, perpaus kontsekutibo hauetan aurkitzen ditugun **MENDERAGAILU**ei dagokienez, aurreko egituretan aipaturikoa ekarri behar dugu gogora, guztiek berdin jokatzen baitute:

1.- HAMBAT... NON... **BAIT-**

Adibide batean izan ezik, gainerako guztietan BAIT- aurrizkia aurkitzen dugu; beraz, agerian dago BAIT- dela perpaus kontsekutiboen menderagailurik garrantzitsuena.

Gogora dezagun, bestalde, aurrizki hau ezin dela agertu aspektu markarik gabeko adizkiekin, salbuespen bakarrak ahalezkoak eta guretzat subjuntibo, baina garai hartan gure forma burutuen baliokideak ziren "aoristoak" izanik; beraz, hona hemen aurki ditzakegun formak:

* ADITZ SINTETIKOAK:

  - ... *imaginatu eta eguin vkan ahal duen becembat-ere bay:* ***hambatetarano non ezpaitzen*** *populuric (...) Iainco berriric eguiten etzuenic.* (Adv.,3-6, 259.or.)

* ADITZ PERIFRASTIKOAK:

  • Aspektu markadunak:

  - ... *Euangelioaren auançamemdutarago ethorri içan diradela:* ***Hambat non*** *ene estecadurác famatu* ***içan baitirade*** ... (Phil.,I,12-13)

  - *Bizquitartean bildu içanic gendetze mulço handiac* ***hambat non*** *elkar* ***aurizquité baitzutén***. (Lc.,XII,1)

  • Aspektu markagabeak (Aoristoak eta ahalezkoak):

  - *Eta bil cedin harengan gendetze anhitz,* ***hambat non*** *vnci batetara sarthuric* ***iar baitzedin***. (Mt.,XIII,2)

  - ... *içan bada glorioso,* ***hambat nô*** *Israeleco haourréc* ***ecin behá baitzeçaqueten*** *Moysesen beguithartéra,* ... (Cor.2,III,7)

2.- HAMBAT... NON... **-(E)N**

Leizarragaren obra osoa azterturik, -(E)N menderagailudun adibide bakar bat topatu dugu; beraz, argi dago, noizbait agertzen bada ere, ez daukala BAIT-aurrizkiaren hedadura. Edozein modutan, ikus dezagun adibidea:

> - *Eta baldin banu prophetiazco dohaina, eta naquizquiâ mysterio guciac eta scientia gucia: eta nuén fede gucia,* ***hambat non*** *mendiac* ***transporta nitzan****, eta charitateric eztudan, deus ezhaiz.* (Cor.I,XIII,2)

Ohart gaitezen, adibide honetan ere aspektu markarik gabeko aditzaren hautaketa aski argia dela, perpaus kontsekutiboa alegiazko baldintzen menpe agertzen delako. Alde batetik, alegiazko adizkiak izanik, Leizarragak alegiazko formari eutsi dio; eta bestetik, aipa dezagun baldintza hauek, hein handi batean, ezezko perpausen ahaide hurbilak direla.

Gainera, gogora dezagun HALA... NON... -(E)N formaz esan genuena, alegia, kontsekutiboa izan arren helburuzkoetatik aski hurbil zegoela. Eta, dudarik gabe, goian aipaturiko perpausean helburuzko zentzua agerian dago. Hortik, beraz, -(E)N menderagailuaren erabilera, nire ustez, behintzat.

3.7.4.2. Tokia.

Perpaus kontsekutibo hauek hartzen duten kokaguneari gagozkiolarik, aurreko egiturak bezain sistematikoak direla aipatu behar dugu. Beraz, adibide guztietan hurrenkera bera topatuko dugu:

"HAMBAT (Perpaus nagusia) + NON... BAIT- / -(E)N"

> - *Eta huná, tormenta handibat altcha cedin itsassoan,* ***hambat non*** *vncia bagaz estaltzen* ***baitzen***. (Mt.,VIII,24)
>
> - *... bardincen dirade guciac* ***hambat*** *vngui eta chuchengui,* ***non*** *(...) agueri* ***baita*** *claroqui ...* (Adv.,31-33, 264.or.)

3.7.4.3. Balioa.

Perpaus kontsekutibo hauen bidez adierazten den balioari dagokionez, perpaus nagusian HAMBAT zenbatzailea daramatenez, teorian behintzat, "kantitatea" adierazi beharko lukete eta, zenbait adibidetan, halaxe da:

> - *Eta bertan anhitz bildu içan dirade* **hambat non** *bortha aldiriéc-ere ecin eduqui* **baitzitzaqueizten** ... (Mc.,II,2)
>
> - *Bizquitartean bildu içanic gendetze mulço handiac* **hambat non** *elkar aurizquité* **baitzutén.** (Lc.,XII,1)

Edonola ere, adibide guztiak ez dira hain argiak, askotan HAMBAT honek kantitatea adierazi beharrean, kualitatea ere adierazten duelako. Ikus ditzagun adibide batzuk eta erka ditzagun Haranederrek eskaintzen dizkigunekin:

> (1)- ... *ethorri içan çaizcan bi demoniatu thumbetaric ilkiric, gucizco terribleac,* **hambat nô** *nehor ecin iragan* **baitzaiten** *bide hartaric.* (Leiz., Mt.,VIII,28)
>
> - ... *ethorri citçaizcon aitciñerat bi guiçon possedituac, thombetaric ilkhiac, eta* **hain** *furiosac,* **non** *ez* **baitcen** *nihor ausartcen bide hartaric iragaterat.* (Haran., Mt.,VIII,28)
>
> (2)- ... *içan bada glorioso,* **hambat nô** *Israeleco haourréc ecin behá* **baitzeçaqueten** *Moysesen beguithartera,* ... (Leiz., Cor.2,III,7)
>
> - ... **hain** *bethea içan bada gloriaz,* **non** *Israelgo umeéc ecin beha* **baitcioçaqueten** *Moiseren bisayarî,* ... (Haran., Cor.2,III,7)

Badakigu Haranederrek adibide hauetan HAIN... NON... BAIT- egitura erabiltzeak ez duela esan nahi Leizarragaren adibideek ere, derrigorrez, kualitatea adierazten dutenik. Baina, azter ditzagun hurrengo adibideak:

> (3)- ... *bardincen dirade guciac* **hambat** *vnqui eta chuchenqui,* **non** *(...) agueri* **baita** *claroqui* ... (Adv.,31-33, 264.or.)
>
> (4)- ... *(ceren guiçona baita* **hambat** *natura fierretaco eta corrumpitutaco,* **non ezpaitu** *bere*

burua hain bekatore eçagutu nahi ...) (Som.,11-13, 275.or.)

Adibide hauetan nekez esan genezake HAMBAT formak kantitatea adierazten duela, aditzondo eta izenondoekin aurkitzen baitugu. Gainera, Etxeparek berak Leizarragak bezala erabiltzen zuen HANBAT, honen bidez kantitatea zein kualitatea adierariz.

Azkenik, HAMBAT... NON... BAIT- egitura, zenbait adibidetan, ez kualitate, ez kantitate-adierazlea, baizik eta HALA(CO MANERAZ)... NON... BAIT- egituraren baliokidea ere izan daitekeela aipatu behar dugu. Ikus ditzagun adibide batzuk Haranederrek dituenekin erkatuz:

(5)- ... *iracasten cituen hec berén synagoguetan:* ***hámbat non*** *spantatuac* ***baitzeuden***, *eta erraiten* ***baitzuten*** ... (Leiz., Mt.,XIII,54)

- ... *iracasten çaroen bere sinagoguetan,* ***halaco maneraz non*** *miretsiric erraten* ***baitçuten*** ... (Haran., Mt.,XIII,54)

(6)- *Eta emendatzenago cen Iaunean sinhesten çutenen compainiá (...)* ***Hambat non*** *karriquetara ekarten* ***baitzituztén*** *eriac,* ... (Leiz., Apost.Act.,V,14-15)

- *Eta berretuz cihoan Jauna baitan sinhesten çutenen nombrea (...)* ***halaco maneraz, non*** *carriquetarat ekhartcen* ***baitcituzten*** *eriac* ... (Haran., Apost.Act.,V,14-15)

Ikusten dugunez, egitura honek adiera anitz har ditzake, forma beraren bidez, kantitatea, kualitatea eta modua adierazten delako.

Beraz, honekin agerian geratzen da perpaus kontsekutiboak adierazteko egitura desberdinak aurkitu arren, funtsean, guztiak aski parekoak direla.

3.7.5. NON... BAIT- / -(E)N

Azkenik, aipamen labur bat egin behar diegu "NON... BAIT- / -(E)N" egitura agertzen duten perpausei.

Leizarragaren obra osoa arakaturik, hiru adibide bakarrik topatu ditugu, hona hemen:

> (1)- *Orduan igan cedin hetara vncira: eta sossega cedin haicea:* **non** *are tinquetz spantago* **baitzitecen** *berac baithan ...* (Mc.,VI,51)
>
> (2)- *Baina çuec, anayeác, etzarete ilhûbean,* **non** *egun harc, ohoinac eguiten duen beçala, ardiets* **çaitzaten**. (Thes.1,V,4)
>
> (3)- *... eta guti falta cedin* **non ezpainendin** *choil guibelera, ...* (Guc.,19, 252.or.)

Perpaus kontsekutiboek, behintzat orain arte aztertu ditugunek, perpaus nagusian beraiekin harremanetan dagoen aditzondo, graduatzaile edo zenbatzaile bat daramate; baina, orain aztertzen ari garen perpausetan ez dugu halakorik topatzen. Hala ere, ohart gaitezen Leizarragaren testuan ezezik, Haranederrenean ere aurki ditzakegula halakoak, zenbaitetan gainera, Leizarragaren kontsekutibo argien ordainean. Ikus dezagun adibide bat:

> - *... eta berriz gendetze handibat bil cedin,* **hala non** *oguiaren iateco artea-ere ecin har* **baitziroiten**. (Leiz., Mc.,III,20)
>
> - *... bildu cen berriz harat oste handia,* **non** *ecin har ere* **baitcetçaqueten** *bere othuruntçac.* (Haran., Mc.,III,20)

Leizarragaren eta Haranederren arteko paralelismoa ikusi arren, arestian aipatu ditugun hiru adibideetan adierazten den balioari dagokionez, zalantzak sortzen zaizkigu ez baita oso argi ikusten kontsekutiboen ala beste zerbaiten aurrean gauden.

Argibide bila, Haranederren obrara jotzen badugu, honek ez darabilela kontsekutiborik ohartzen gara. Ikus dezagun nola euskaratu dituen idazle honek:

(1)- *Guero igan cen hequienganat barcurat eta guelditu içan cen haicea; eta hec are guehiago espantitu ere ciren bere baithan.* (Haran., Mc.,VI,51)

(2)- *Çuec ordean, ene anayac, ez çarete illhunbetan, egun harc ohoin batec beçala ustegabean atceman* **çaitçatentçat.** (Haran., Thes.1,V,4)

Hirugarren adibiderako ezin dugu baliokiderik bilatu, Leizarragak berak sorturiko testuetatik ateratako perpausa delako. Alabaina, hemen ere ez dago zalantzarik gabeko ondoriozko adierarik.

Beraz, ez dago batere argi zeren aurrean gauden, gaur egun behintzat, arrotz suertatzen baitzaizkigu perpaus nagusian aditzondorik edo graduatzailerik ez daramaten perpaus kontsekutiboak; hala ere, kontsekutiboak ez badira, non sartu, helburuzkoen artean, agian? Azken finean, gogora dezagun aurreko ataletan esandakoa, alegia, -(E)N menderagailua daramaten kontsekutiboak helburuzkoetatik aski hurbil daudela (2); hirugarren adibiderako ere aise onar genezake helburuzko zentzua; baina, ohart gaitezen BAIT- aurrizkia daramala eta beraz, honek apurtuko lukeela Villasanteren teoria -BAIT- aurrizkia ezin dela subjuntiboekin agertu-; lehenengo adibidean, ordea, ez dut uste helburuzkorik daukagunik eta inon kokatzekotan kontsekutiboen artean sartu beharko genukeelakoan nago.

Beraz, aitor dezagun egitura bitxiak eta aski urriak direla, ondorioa adierazteaz gain, helburua edo adierazteko gai direlako.

3.8. BALDINTZAZKOAK

Baldintzazkoak sortzeko forma jokatuak zein jokatugabeak erabil ditzakegu; hala ere, gauza jakina da tradizioan ezezik, gaur egun ere BA- aurrizkiaren bidez sortutako forma jokatuak izan direla eta direla nagusi. Eta Leizarragaren obran horixe aurkituko dugu forma jokatugabeak erabiltzen baditu ere, hauek ez baitaukate BA- formaren maiztasuna.

Edonola ere, luze gabe, ikus ditzagun Leizarragak baldintzazkoak sortzeko erabiltzen dituen formak:

A. FORMA JOKATUAK:

3.8.1. (BALDIN) BA-

3.8.2. NON... -(E)N

B. FORMA JOKATUGABEAK:

3.8.3. -T(Z)ECOTZ

A. FORMA JOKATUAK:

3.8.1. (BALDIN) BA-

Sarreran aipatu dugunez, baldintzazkoak sortzeko menderagailurik erabiliena BA- aurrizkia da; gainera, Leizarragaren obran ezezik, edozein idazleren obran eta gaur egungo erregistroetan ere nagusi agertzen zaigu.

3.8.1.1. Forma.

A.- Orain aztertzen ari garen baldintzazko perpausak aditzari atxikitzen zaion BA- aurrizkiaren bidez eraikitzen dira; beraz, honako egitura hauek topa ditzakegu:

"BA- + Adizki sintetikoa":

- ... *Interrogaturen çaituztet nic-ere çuec gauça batez, cein* ***badarradaçue*** *nic-ere erranen drauçuet,* .... (Mt.,XXI,24)

(Ohart gaitezen, adibide honetan erlatibozkoa eta baldintzazkoa, biak, batera ditugula; gertatzen dena da erlatibozkoaren BAIT- menderagailua ezabatuta, baldintzazkoaren BA- aurrizkia nagusitu dela.)

"Aditz Nagusia + BA- + Aditz laguntzailea":

- ... *Ceinec çuetaric astoa edo idia putzura* ***eror badaquió,*** *eztu bertan hura idoquiren Sabbath egunean?* (Lc.,XIIII,5)

B.- Edonola ere, BA- aurrizki soila oso gutxitan aurkituko dugu, adibide gehienetan BA- menderagailuaren laguntzan BALDIN sarrera-partikula agertzen baitzaigu honelako perpausak eratuz:

- ... *ecê* ***baldin*** *eçagutu vkan* ***baluté,*** *gloriazco Iauna etzuqueten crucificatu.* (Cor.1,II,8)

Beraz, ikusten dugunez, baldintzazko perpausak sortzeko bi baliabide ditugu:

* BA- aurrizki soila
* BALDIN... BA- egitura

Bi forma hauen maiztasuna aztertzen badugu, BALDIN BA- egitura erabiliena dela ohartuko gara, BA- aurrizki soila oso adibide bakanetan aurkitzen baitugu. Hala ere, ba al dago bi forma hauek bereizterik ala, besterik gabe, balio bera duten bi formen aurrean gaude?

Egia esan, adierazten duten balioaren aldetik ez dirudi bereizketarik egin daitekeenik, bi forma hauek adibide berdintsuetan agertzen baitira, sarritan biak batera gainera:

> - *... Eta cein da çuetaric aitá, semea ogui esca* ***badaquió,*** *harribat emanê draucana? edo* ***baldin*** *arrain esca* ***badaquio,*** *ala arrainaren lekuan suguebat emanen drauca?* (Lc.,XI,11)

Beraz, ikusten dugunez, bi forma hauek adierazten duten balioa berdin-berdina da. Gainera, bibliografia arakatzen badugu, puntu honetan gramatikari guztiak datoz bat:

> *"A este* ***ba-*** *precede con frecuencia (inmediatamente, o bien, admitiendo en el intermedio otros vocablos) la partícula* ***baldin,*** *que contribuye a dar al período condicional un cierto énfasis; pero el uso de este* ***baldin*** *no es obligatorio."*[1]

> *"****BA****-ren aurretik* ***BALDIN*** *ere jar daiteke.* ***BALDIN*** *honen zeregina* ***BA-*** *indartzea litzateke. Beraz, orduan, erlazio hizkia* ***BA-*** *gabe,* ***BALDIN BA-*** *izango genuke. Baina biak guztiz baliokide dira:* ***BALDIN****-ek ez dio ezer erasten ez kentzen* ***BA****-ri."*[2]

---

[1] VILLASANTE, L., Sintaxis de la oración compuesta, 180.or.

[2] GOENAGA, P., Gramatika Bideetan, 323.or.

L.Villasanteren arabera, BALDIN partikulak duen funtzio bakarra BA- aurrizkia indartzea edo enfasi berezia ematea da. Edonola ere, Leizarragaren obran behintzat, ez dirudi termino markatua denik, BALDIN BA- egitura perpaus ia guztietan agertzen delako.

BALDIN sarrera-partikula tartekatzeko beste arrazoi bat -oso bidezkoa, gainera- baldintzazkoaren aditza (BA-aurrizkia daramana) baldintzazko sekuentziaren hasieratik aski urrun dagoenean suertatzen da, baldintzazkoaren hasieran BALDIN sarrera-partikula kokatzea lagungarri suerta baitaiteke. Ikus dezagun adibide bat:

> - *Bada* ***baldin*** *landaco egun belhar dena, eta bihar labean eçarten dena, Iaincoac hala inguru veztitzen* ***badu:*** *eza çuec anhitzez areago, fede chipitacoac?* (Mt.,VI,30)

Adibide honetan, ohartzen garenez, BALDIN sarrera-partikularen funtzioa ez datza, ene ustez behintzat, baldintzazkoari enfasi berezia ematean, baldintzazko sekuentzia non hasten den markatzean baizik.

Edonola ere, arestian aipatu dugunez, Leizarragaren obran BALDIN sarrera-partikula ia-ia adibide guztietan agertzen da; eta guztietan, jakina, aditza ez dago baldintzazko sekuentziaren hasieratik urrun, sarritan hasiera-hasieran baitugu. Ikus ditzagun adibide batzuk:

> - ... *Iauna,* ***baldin nahi baduc,*** *chahu ahal niroc.* (Mt.,VIII,2)
>
> - ***Baldin*** *nic testificatzen* ***badut*** *neure buruäz, ene testimoniagea ezta sinhesteco.* (Io.,V,31)

Beraz, hau guztia ikusita, Leizarragaren obran bederen, ez dirudi BALDIN partikulak funtzio berezirik betetzen duenik. Ezbairik gabe, baldintzazko sekuentziaren hasiera markatzen du; baina hortik kanpo, espletibo hutsa besterik ez da.

Bestalde, Mitxelenak Villasanteren Sintaxis de la oración compuesta gramatikari egiten dizkion oharretan, honako hau topatu dugu:

> *"... Hablando con Aresti, confirmé mi impresión de que Leizarraga pone siempre* ***baldin****, si no hay negación:* ***ez bada***"[3]

Hau egia balitz, BA- soila eta BALDIN BA- egiturak zerbaitetan bereizteko bidea izango genuke; baina, zoritxarrez, Mitxelenaren inpresioa ez da zuzena, Leizarragak BALDIN partikula baiezko zein ezezko perpausetan erabiltzen baitu. Ikus ditzagun adibide batzuk:

* BAIEZKOAK:

- *Ecen* ***baldin*** *barka* ***badietzeçue*** *guiçoney bere faltác, barkaturen drauçue çuey-ere çuen Aita cerucoac.* (Mt.,VI,14)

* EZEZKOAK:

- *Baina* ***baldin*** *barka* ***ezpadietzeçue*** *guiçoney bere faltác, çuen Aitac-ere eztrauzquiçue barkaturen çuen faltác.* (Mt.,VI,15)

- *... **baldin** digne **ezpada** çuen baquea çuetara itzul bedi.* (Mt.,X,13)

Beraz, berriro diot Leizarragaren obran behintzat, BALDIN BA- forma ez dela inondik inora termino markatua, egiturarik arruntena eta orokorrena baizik, baldintzazko perpaus gehienetan aurkitzen baitugu. Hala izanik, kontestu guztietan agertuko zaigu, baiezko zein ezezko perpausetan eta, geroago ikusiko dugunez, edozein adizki-motarekin.

---

[3] MITXELENA, K., in VILLASANTE,L., Sintaxis de la oración compuesta, 180.or.

Bestalde, BALDIN partikularen **KOKAPENA**z ere hitz egin dezakegu, bi posiziotan aurki baitezakegu:

1.- Gaur egungo moldeetatik hurbilen geratzen zaiguna, hau da, aditzari loturik:

> - *eta* **baldin badathor** *bigarrẽ veillán (...) dohatsu dirade ...* (Lc.,XII,38)
>
> - *...* **Baldin sinhesten baduc** *eure bihotz guciaz, ahal aite.* (Apost.Act.,VIII,37)

BALDIN partikula baldintzazko sekuentziaren aitzin buruan agertzen denez, aditzak aurreratu egiten dira BALDIN partikularen aldamenean kokatuz.

2.- Adibide gehienetan, berriz, BALDIN partikula baldintzazkoaren hasieran agertu arren, honen eta aditzaren artean baldintzazkoaren beste osagai batzuk tartekatzen dira:

> - *Bada* **baldin** *preputioac Leguearen ordenâçác beguira* **baditza**, *haren preputioa ezta circoncisionetan estimaturen?* (Rom.,II,26)
>
> - **Baldin** *nehor captiuitatera eramaiten* **badu**, *captiuitatera eramanen da bera:* **baldin** *nehor ezpataz hil* **badeça**, *behar da ...* (Apo.,XIII,10)

3.- Azkenik, BALDIN partikularen kokapenarekin amaitzeko, gogora dezagun beste edozein perpaus txertatutan bezala, gerta daitekeela baldintzako sekuentzia perpaus batek baino gehiagok osatzea. Kasu hauetan, BALDIN sarrera-partikula, eskuarki, lehenengo perpausean bakarrik agertuko zaigu, gainontzekoetan BA- aurrizki soila dugularik:

> - *...* **baldin** *cembeiten anayea hil* **bada**, *eta vtzi* **badu** *emaztea, eta haourric vtzi* **ezpadu**, *har deçan ...* (Mc.,XII,19)

Nolanahi ere, Leizarragak, normalean, honela jokatzen badu ere, zenbait adibidetan, enfasi berezia eman nahirik edo, agian, jatorrizko bertsioaren eraginez, BALDIN partikula perpaus guztietan jartzen du:

> - *Baina* ***baldin*** *eguiten* ***baditut***, *eta* ***baldin*** *ni sinhets nahi* ***ezpanauçue***, *obrác sinhets itzaçue ...* (Io.,X,38)
>
> - *Ecen suffritzen duçue* ***baldin*** *nehorc suiectionetan eçarten* ***baçaituztez***, ***baldin*** *nehorc iresten* ***baçaituztez***, ***baldin*** *nehorc çuena edequiten* ***badrauçue***, ***baldin*** *nehor gaineancen* ***bada***, ***baldin*** *nehorc beguithartean ioiten* ***baçaituztez***. (Cor.2,XI,20)

C.- Orain arte, baldintzako perpausek agertzen dituzten forma nagusiak aztertu ditugu; dena den, forma hauek zenbait aldaera izan dezakete; beraz, eman dezagun hauen berri:

1- BALDINETA... BA-

Sarrera partikulak BALDINETA aldaera ager dezake; hala ere, biek adierazten duten balioa berdina da:

> - ***Baldineta*** *Spirituaz guidatzen* ***baçarete***, *etzarete Leguearen azpico.* (Gal.,V,18)
>
> - *Halaber emazteac suiet diradê bere senharrén,* ***baldineta*** *batzu hitzarê desobedient* ***badirade***, ... (Pier.1,III,1)

2- BALDIN... BA-... BER

P.Lafittek baldintzazkoak sortzeko BER partikula aipatzen du. Hona hemen bere hitzak:

> *"On les traduit par les formes* ***personnelles*** *suivantes (...)*
>
> *c) le conjonctif du subjoctif suivi de* ***ber***, *qui traduit "pourvu que".*
>
> ***Ex.: lanean ar dadin ber, zer nahi duzu gehiago"***[1]

---

[1] LAFITTE,P., Grammaire Basque, 456.or.

Leizarragak ez du Lafittek aipaturiko forma erabiltzen; hala ere, adibide batean behintzat, BER partikula ere badarabil, nahiz eta BA- aurrizkia daraman adizkiari atxiki:

> - ... ***Baldin*** *haren abillamenduac hunqui* ***baditzat ber,*** *sendaturen naiz.* (Mc.,V,28)

3- BALDIN... BA-... ETA ...-(E)N:

Baldintzazko sekuentzia ETA emendiozkoak elkarturiko perpaus batek baino gehiagok osatzen dutenean, sarritan, bigarren perpausean BA- aurrizkiaren ordez, -(E)N atzizkia aurkitzen dugu.

Ikus ditzagun adibide batzuk eta erka ditzagun Haranederrek dituenekin:

> (1)- *Eta* ***baldin banu*** *prophetiazco dohaina, eta* ***naquizquiâ*** *mysterio guciac eta scientia gucia: eta* ***nuen*** *fede gucia (...) eta charitateric* ***eztudan,*** *deus eznaiz.* (Leiz., Cor.1,XIII,2)
>
> - ***Baldin*** *profeciazco dohaiña* ***banu, baneaquizqui*** *ere misterio guciac eta jaquiteco diren guciac;* ***baldin banu*** *ere içan ahal daitequen fede gucia (...), caritatea ordean ez* ***badut,*** *deussic ez naiz.* (Haran., Cor.1,XIII,2)

> (2)- *Eta* ***baldin*** *anayea edo arrebá billuciac* ***badirade*** *(...) Eta çuetaric cembeitec haey* ***erran diecén*** *(...) eta* ***eztinguzteçuen*** *gorputzaren necessario diraden gauçác, cer probetchu duqueiten?* (Leiz., Iac.,II,15-16)
>
> - ***Baldinetariac*** *bada çuen anaya bat edo çuen arrebat bulhuciac* ***badire*** *(...) eta erraten* ***badiote*** *çuetaric cembeitec (...) eta ematen ez* ***badioçuete*** *gorphutceco behar dutena, cer probetchu duquete?* (Haran., Iac.,II,15-16)

Ikusten dugunez, Leizarragak -(E)N atzizkiaren bidez sortzen dituen perpausak baldintzazko argiak dira. Gainera, Haranederren obrara jo gabe, Leizarragak berak, ematen digu honen berri, adibide berdina bietara aurki baitezakegu:

- *Ecen cer probetchu du guiçonac,* **baldin** *mundu gucia irabaz* **badeça**, *eta bere arimá gal* **badeça**? (Mc.,VIII,36)

- *Ecen cer probetchu du guiçonac,* **baldin** *mundu gucia irabaz* **badeça**, *eta bere buruä destrui* **deçan** *eta gal* **dadin**? (Lc.,IX,25)

Edozein modutan, baliabide hau Leizarragak ezezik, iparraldeko beste idazle batzuek ere, hala nola, Tartasek edo Zib. Etxeberrik erabiltzen zuten.

4- BALDIN... BA-... ETA ...BAIT-:

Aurrekoaren baliokide hutsa da; baina oraingoan bigarren perpausean -(E)N atzizkiaren ordez, BAIT- aurrizkia topatzen dugu.

Dakigunez, BAIT- aurrizkia "menderakuntza-adierazlea" da; beraz, berarekin harremanetan dagoen perpausak adierazten duen balio bera har dezake eta horixe da, hain zuzen, hemen daukaguna.

Edonola ere, ohart gaitezen, obra osoan adibide bakarra aurkitu dugula, gainerako guztiak -(E)N atzikiaren bidez eraikitzen baitira.

Ikus dezagun, bada, aurkituriko adibidea eta erka dezagun Haranederrek duenarekin, adibide honen baldintzazko adiera agerian gera dadin:

- **Baldin** *cembeit ethorten* **bada** *çuetara, eta doctrina haur* **ezpaitu** *ekarten, hura ezteçaçuela recebi ...* (Leiz., Io.2,I,10)

- **Baldin** *nihor heldu* **bada** *çuen ganat eta ez* **badu** *ekhartcen dotrina hori, ez deçaçuela har etcherat, ...* (Haran., Io.2,I,10)

5- (BALDIN)... ALBA-:

Azkenik, aipa dezagun Leizarragaren obra osoa azterturik, hiru adibidetan BA- aurrizkia AL partikulak lagundurik aurkitzen dugula. Edozein modutan, ohart gaitezen AL partikula hau ahalezkoak sortzen dituen AHAL partikularen laburdura baino ez dela:

- ... *hartara, eguin* ***albalute****, vncia egotzi aiher ciraden.* (Apost.Act.,XXVII,39)

- *Eguin* ***albadadi*** *(...) guiçon gucieguin baquea duçuen.* (Rom.,XII,18)

- ... ***Baldin*** *possible içan* ***albaliz****, çuen beguiac idoquiric eman cendrauzquedetela.* (Gal.,IIII,15)

Haranederren obrara jotzen badugu, idazle honek AHAL forma osoa aurkezten digula jabetuko gara. Ikus dezagun adibide bat:

- *Eguin* ***ahal badadi*** *(...) duçuen baquea guiçon guciequien.* (Haran., Rom.,XII,18)

Leizarragak ez du beti AL forma laburtua erabiltzen; izan ere, arestian aipatu dugunez, hiru adibidetan bakarrik aurkitu dugu. Besteetan AHAL aurki dezakegu:

- ... ***baldin*** *hori* ***sinhets ahal badeçac****, gauça guciac dituc possible ...* (Mc.,IX,23)

3.8.1.2. Tokia.

Baldintzazkoek perpaus nagusiaren baitan hartzen duten kokaguneaz hitz egiteko, lehendabizi, perpaus txertatuek duten mugikortasuna izan behar dugu gogoan, baldintzazkoak aztertzean horixe somatzen dugu eta.

Adibide gehienetan baldintzazkoak perpaus nagusiaren aurrean aurkitzen ditugu, horixe baita bere kokalekurik berezkoena. Dena den, gehienak posizio horretan agertzen badira ere, perpaus nagusiaren ondoko adibideak ere

kontutan hartzekoak dira. Ikus dezagun, bada, adibide bana:

* Perpaus nagusiaren aurrean:

- ... *Bada bekatutan eror* ***bagaitez****, eztaguigula dudaric* ... (Som.,3-4,278.or.)

* Perpaus nagusiaren ondoan:

- ... *mereci onez arintassunez accusa ahal neinde,* ***baldin*** *neure ausartgoa hunez cerbait excusa bereren eman* ***ezpaneça.*** (Guc.,6-8, 249.or.)

Azkenik, baldintzazkoek har dezaketen tokiarekin amaitzeko, esan dezagun, zenbaitetan, adibide berean bi baldintza aurki ditzakegula, bata perpaus nagusiaren aurrean eta bestea ondoan:

- ***Baldin*** *gauça hauc* ***badaquizquiçue****, dohatsu içanen çarete* ***baldin*** *eguin* ***baditzaçue.*** (Io.,XIII,17)

- ***Baldin*** *guc çuey gauça spiritualac erein* ***badrauzquiçuegu****, gauça handia da çuen carnalac biltzen* ***baditugu***? (Cor.1,IX,11)

3.8.1.3. Baldintza-motak.

Baldintzazko perpausean dugun adizkiaren arabera, bi baldintza mota bereiz ditzakegu:

A. EZ-ALEGIAZKOAK.

Baldintza hauek "errealak", "gertagarriak" edo "ebentualak" deitu izan dira; dena den, guk sailkapen hau egiteko orduan, baldintzazkoen balioa alde batera utzirik, forman oinarritu garenez, "ez-alegiazkoak" deituko ditugu, baldintzazkoen aditzek forma hori agertzen baitute.

Baldintza hauek guztiek aldamenean ondorioa edo "apodosia" daramate; baina hau ezin da edozein izan. Hots, baldintza ez-alegiazkoa izanik, ondorioa ere, eskuarki,

halakoa izango da, baldintzaren eta ondorioaren artean nolabaiteko komunztadura baitago.

Azter ditzagun, beraz; baina horretarako, beste sailkapen bat egin behar dugu, adizkien formaren arabera, bi sail desberdindu baititzakegu:

A.1. Trinkoak:

Baldintzaren eta ondorioaren artean nolabaiteko komunztadura dagoela baieztatu arren, honek ez du esan nahi baldintzan adizki trinkoa badugu, ondorioan ere halakoa topatuko dugunik, ondorioetan ez-alegiazko formen artean aukera desberdinak baititugu:

* [+ orain]:

- ... ***Baldin*** *Iaincoaren Semea* ***bahaiz***, *egotzac eure buruä ...* (Lc.,IIII,9)

- *Baina* ***baldin*** *ikusten eztugunaz sperança* ***badugu***, *patientiaz iguriquiten dugu.* (Rom.,VIII,24)

* [+ iragan]:

- *Ceinéc behar baitzutén hire aitzineâ comparitu, eta ni accusatu,* ***baldin*** *deus ene contra* ***baçutén***. (Apost.Act.,XXIIII,19)

- ***Orena*** *(...) ecen lehenago eguna luce* ***bacén*** *labur* ***bacén*** *(...) partitzê cen hamabi orenetara, ...* (Hitz eta Minçatzeco Manera, 1208.or.)

Orainaldiko zein iraganeko formak aipatu baditugu ere, zehaztu dezagun ez dagoela bi forma hauek maiztasunaren aldetik parekatzerik, orainaldikoak sarritan aurkitzen ditugun bitartean, iraganekoak, obra osoan, arestian aipatu ditugun bi adibide horiek bakarrik topatu baititugu.

A.2. Perifrastikoak:

Aditz perifrastikoak daramatzaten baldintzen artean beste bereizketa bat egin behar dugu:

A.2.1. ASPEKTU MARKADUNAK:

Adizki trinkoak daramatzaten baldintzak aztertzean, hauek orainaldiko zein iraganeko formak izan daitezkeela ikusi dugu. Aditz perifrastikodun baldintzen artean, berriz, orainaldiko formak bakarrik aurkitu ditugu:

* Burutua:

- ... ***baldin recebitu vkan baduc,*** *cergatic gloriatzen aiz ...?* (Cor.1,IIII,7)

* Ezburutua:

- ... ***baldin*** *are circoncisionea* ***predicatzen badut,*** *cergatic are persecutatzen naiz? ...* (Gal.,V,11)

* Geroa:

Honetan adibide bakarra topatu dugu; dena den, dakigunez, forma hauek aski mugatuak dira, barruan "obligazio" kutsua edo baitaramate.

- ... *eta* ***baldin*** *çueçaz mundua* ***iugeaturen bada,*** *indigne çarete ...* (Cor.1,VI,2)

Ohart gaitezen, Haranederrek, adibidez, adibide honetan BEHAR tartekatzen duela:

- ... *eta* ***baldin*** *çuetaz jugeatua* ***içan beharra bada*** *mundua, ez çarete gay ...?* (Haran., Cor.1,VI,2)

A.2.2. ASPEKTU MARKAGABEAK:

Baldintza ez-alegiazkoen artean aspektu markarik gabeko adizkiak ere aurki ditzakegu; gainera, maiztasunari dagokionez, aspektu markadunak bezain garrantzitsuak direla esan dezakegu.

Ikus dezagun zer dioskun EGLU-k baldintza hauetaz:

> *" Horrelakoak baldintza gertagarriak edo ebentualak ditugu beti, gerta daitekeen zerbaitez mintzo zaizkigu eta, horregatik, baldintzaren ondorioa sarritan geroaldian eta agintekeran joan ohi da.*
>
> *Adizki hauen ordez, gaurko euskaldunik gehienek* ***etortzen bada*** *saileko adizkiak erabiltzen dituzte."*[5]

Hona hemen Leizarragaren adibide batzuk:

- *Eta,* ***baldin*** *arrain* ***esca badaquió****, ala suguebat emanen drauca?* (Mt.,VII,10)

- *...* ***baldin*** *hori* ***sinhets*** ***ah_l badeçac****, gauça guciac dituc possible ...* (Mc.,IX,23)

- *Eta* ***baldin parti badadi*** *bego ezcôdu gabe, ...* (Cor.1,VII,11)

B. ALEGIAZKOAK.

Izenak berak adierazten duenez, baldintza hauek alegiazko aditzak daramatzatenak dira.

Leizarragaren obran baldintza mota hauek aurrekoak baino urriagoak dira; hala ere, kontutan hartzekoak dira.

Aurreko sailean egin dugun bezala, hemen ere bi sail bereizi behar ditugu:

B.1. Trinkoak:

Alegiazko baldintzetan ere baldintzaren eta ondorioaren artean nolabaiteko komunztadura soma dezakegu, ondorio gehienetan alegiazko formak topatzen baititugu. Ikus ditzagun adibide batzuk:

- *Ecen* ***baldin*** *guciac membrobat* ***balirade*** *non liçateque gorputza?* (Cor.1,XII,19)

---

[5] EUSKALTZAINDIA, Euskal Gramatika Lehen Urratsak-II, 375.or.

- ... *Segur* **baldin** *oraino guiçonén gogaraco* **baninz**, *Christen cerbitzari eznińçandé.* (Gal.,I,10)

Bi adibide hauetan, ikusten dugunez, baldintzaren eta ondorioaren artean erabateko komunztadura dago, bietan [-iragana] tasuna daramaten alegiazko adizki trinkoak baititugu. Edonola ere, ondorioetan bestelako formak ere aurki ditzakegu:

- *Eta* **baldin bacinaquite** *cer den, Misericordia nahi dut eta ez sacrificio, etzintuzquezten condemnatu hoguen-gabeac.* (Mt.,XII,7)

- ... **Baldin** *hori gaizqui-eguile* **ezpaliz**, *ezquindrauqueán hiri liuratu.* (Io.,XVIII,30)

Azken bi adibide hauetan, ondorioetan alegiazko formak aurkitu arren, baldintzan ez bezala, adizkiek [+iragana] tasuna daramate. Beraz, baldintza eta ondorioaren artean nolabaiteko komunztadura dagoela esan arren, ez da beharrezkoa komunztadura hau erabatekoa izatea.

B.2. Perifrastikoak:

B.2.1. ASPEKTU MARKADUNAK:

Leizarragaren eta gure gaur egungo usadioak erkatzen baditugu, ezbairik gabe, puntu honetan somatuko ditugu desberdintasunik nabarmenenak, baldintzazko hauetan, hau da, aspektu markadunetan ekialdeko eta mendebaldeko hiztunek bide desberdinetatik jotzen baitute.

Mendebaldeko hiztunok honelako baldintzak sortzeko, [+geroa] aspektuaz baliatzen garen bitartean, ekialdean, eta Leizarragaren obran aise egiazta dezakegu, honen ordez, [+ezburutua] aspektu markaz baliatzen dira. Izan ere, Leizarragaren obra osoa azterturik, behin ere ez dugu [+geroa] aspektu-marka aurkituko.

Ikus ditzagun, bada, Leizarragak sortzen dituen baldintzak:

* Aspektu ezburutua:

- *Ecen* ***baldin*** *Moyses* ***sinhesten bacindute,*** *sinhets nindi-oqueçue ni* ... (Io.,V,46)

- ***Baldin eçagutzen baninduçue*** *ni, ene Aita-ere eçagut cineçaquete* ... (Io.,XIIII,7)

Ohart gaitezen, multzo honetako baldintzetan, mendebaldean ez bezala, ondorioetan, sistematikoki, ahalezko formak aurkitzen ditugula.

* Aspektu burutua:

Aspektu honen bidez iraganeko baldintzak adierazten dira; gainera, askotan ondorioetan ere lehenaldiko formak aurkitzen ditugu.

Honez gain, esan dezagun aleqiazkoen artean, baldintza-mota hau, adizki trinkoekin sortzen denarekin batera, ugariena dela.

- ... *ecen* ***baldin*** *Tyren eta Sidonen* ***eguin içan balirade*** *çuec baithan eguin içan diraden verthuteac, aspaldi çacurequin eta hautsequin emendatu ciratequeen.* (Mt.,XI,21)

- ... *Ecen eznuqueen eçagutu guthiciá* ***baldin*** *Legueac* ***erran ezpalu,*** ... (Rom.,VII,7)

Aipaturiko adibideetan, ondorioetan alegiazko formak aurkitu ditugu; dena den, iraganeko forma arruntak ere aurki genitzake:

- *Eta dioçue,* ***Baldin*** *gure aitén egunetan* ***içan baguina,*** *ezguinén hayén lagun içanen Prophetén odolean.* (Mt.,XXIII,30)

- ***Baldin*** *cêbeitec* ***menospreciatu balu*** *Moysesen Leguea, misericordiaric batre gabe, biguen edo hiruren testimoniagetic hiltzen cen.* (Hebr.,X,28)

Edozein modutan, ondorioa ez da, derrigorrez, iraganeko forma izan behar, [-iragan] tasuna duten adizkiak ere aurki baititzakegu:

- ***Baldin ethorri ezpaninz,*** *eta berey* ***minçatu ezpaninçaye,*** *bekaturic ezluquete* ... (Io.,XV,22)

- ... *Ezuque bothereric batre ene contra,* ***baldin eman ezpalitzaic*** *gainetic* ... (Io.,XIX,11)

B.2.2. ASPEKTU MARKAGABEAK:

Gaur egun, egia esan, honelako baldintzak - **etor baledi**, **egin baleza**, ...- aski arrotz suertatzen zaizkigu, hauen ordez, gaur egun sistematikoki, **etorriko/-tzen balitz** edo **egingo/-ten balu** esango baikenuke. Hala ere, tradizioan erabili izan dira, eta honen froga Leizarragaren testuan aurkitzen ditugun adibideak dira.

Ikus dezagun zer esaten digun EGLU-k baldintzazko hauetaz:

> *"Balioari dagokionez, hauek ere alegiazkoak direla esan behar. Ahalezko baldintzak direla ere esan ohi da. Dena den, ez dirudi oso garbi dagoenik zein izan daitekeen aurreko saileko adizkien (<TU>/<TZEN>/<TUKO> + balitz/balu) eta honako hauen arteko diferentzia, diferentziarik baldin bada."*[6]

Forma hauen balioa, beraz, ez da oso argia; hala ere, behintzat, aipa ditzagun Leizarragaren obran aurkitzen ditugunak:

> (1)- *Harc hobe luque* **baldin** *errota harribat haren leppoaren inguruän eçar* **baledi**, *eta egotz* **ledin** *itsassora, ...* (Lc.,XVII,2)
>
> (2)- *... ecen ia ordenatu çuten Iuduéc,* **baldin** *nehorc* **aithor baleça** *hura licela Christ, synagogatic iraitz ledin.* (Io.,IX,22)
>
> (3)- *Ecen* **baldin** *norbeit* **ethor baledi** *guc predicatu eztugun berce Iesusbat predica lieçaçuenic (...) hura vngui paira cineçaquete.* (Cor.2,XI,4)
>
> (4)- *... mereci onez arintassùnez accusa ahal neinde,* **baldin** *neure ausartgoa hunez cerbait excusa bereren eman* **ezpaneça**. (Guc.,6-8, 249.or.)

Hauek dira Leizarragaren obran aurkitu ditugun aspektu markarik gabeko alegiazko forma guztiak. Gerta daiteke besteren bat egotea eta gu ez konturatzea; hala eta guztiz ere, ikusten dugunez, aski forma urria da.

---

[6] EUSKALTZAINDIA, Euskal Gramatika Lehen Urratsak-II, 381.or.

Adierazten duten balioari dagokionez, ez dirudi ahalezko baldintzak direnik; egia da zenbait ondoriotan -(3),(4)- ahalezko formak agertzen direla, baina gogoratzen badugu, **"etortzen balitz"** erako baldintzazkoetan ere ahalezkoak ditugu ondorioetan, eta honek ez du esan nahi horiek "ahalezko baldintzak" direnik.

Bigarren adibidea perpaus konpletibo baten barruan sartuta dagoenez, arazo gutxien sortarazten diguna da. Azken finean, gogoratu behar dugu Leizarraga menpeko perpausetan askotan baliatzen dela alegiazko formez guk iraganeko formen bidez adieraziko genukeena adierazteko. Adibidez, helburuzko perpausetan gertatzen dena ekar dezakegu gogora, hor honelako komunztadurak aurkitu baikenituen:

- ... *igor ceçan laborari hetara cerbitzaribat, mahastico fructutic* **lemotençat** ... (Lc.,XX,10)

Beraz, nire ustez, hauxe da bigarren adibide horretan topatzen duguna. Dirudienez, guk iraganeko formen bidez burutuko genukeen aditz nagusiarekiko komunztadura, Leizarragak alegiazko formen bidez gauzatzen du.

Edozein modutan, gaur egun mendebaldean forma hauek erabat arrotz suertatzen zaizkigula aitortu behar dugu. Agian, alegiazko formen bidez adierazten den ebentualitate, gertakizun, edo irrealtasun hori areagotzeko bidea baino ez dira, edo, agian, aditz nagusiarekiko komunztaduran dago gakoa; baina, auskalo!

3.8.1.4. Balioa.

Azkenik, perpaus hauen bidez adierazten den balioari dagokionez, adibide gehienetan baldintzazko adiera argia nagusitzen dela aitortu behar dugu; azter ditzagun, bestela, hurrengo adibideak:

- *(Ecen* ***baldin*** *edoceinec bere etchearen gobernatzen* ***ezpadaqui****, nolatan Iaincoarê Eliçari gogoa emanen drauca?)* (Tim.1,III,5)

- ***Baldin*** *suffritzen* ***badugu****, regnaturen-ere harequin diagu:* ***baldin*** *vkatzen* ***badugu****, harc-ere gu vkaturen guiaitic:* (Tim.2,II,12)

Edozein modutan, hau adiera nagusia izan arren, baldintzazkoen artean bestelako adierak ere antzeman ditzakegu:

1.- BALDINTZA-MODUZKOAK:

Moduzko perpausak aztertzean, "baldintza" eta "modua" adierak batera ager daitezkeela ikusi genuen. Adibide hauetan, alde batetik baldintzazko adiera gauzatzen duen BA- aurrizkia eta bestetik BEZALA moduzkoa topatzen ditugu; hortik, bada, "baldintza-moduzkoak" adiera.

Edonola ere, perpaus mota hauek moduzkoei eskaini genien atalean aztertu genituenez, oraingoan adibide bakar bat aipatuko dugu, atal honetan ere bere lekutxoa izan dezaten:

- *... edo cergatic guregana beguiac çorrozturic çaudete, gure verthutez edo saindutassunez haur ebil eraci* ***baguindu beçala****?* (Apost.Act.,III,12)

2. DESIDERATIBOAK:

Zenbait adibidetan, baldintzazko adierarekin batera kutsu desideratiboa-edo ere soma dezakegu. Ikus ditzagun, bada, hurrengo adibideak:

- *...* ***Baldin*** *haren abillamenduac hunqui* ***baditzat ber****, sendaturen naiz.* (Mc.,V,28)

- *O* ***baldin*** *hic berere eçagutu vkâ* ***bahitu*** *...!* (Lc.,XIX,42)

Hauen artean, "HOBE LUKE / ON ZUKEEN ... BALDIN...BA-" egituraren bidez sortzen diren perpausak ere tarteka genitzake:

> - *... on çuqueen guiçon harc* ***baldin*** *sorthu içan* ***ezpaliz***. (Mt.,XXVI,24)
>
> - *Harc hobe luque* ***baldin*** *errota harribat haren leppoaren inguruän eçar* ***baledi***, *eta egotz* ***ledin*** *itsassora, ...* (Lc.,XVII,2)

Ohart gaitezen, hauek beti alegiazko formak direla.

Edozein modutan, kontutan hartu behar dugu, perpaus hauei aipaturiko kutsu desideratiboa, "ber", "berere" aditzondoek edota "Hobe luke / On zukeen" perifrasiek ematen dietela eta ez BA- aurrizkiak.

3.- BANAKARIAK:

Baldintzazkoek har dezaketen zentzu banakariaz hitz egin aurretik, agian komenigarria izan liteke banakaritzaz ulertzen duguna gogoratzea. Egin dezagun EGLU-k dioskunaren bidez:

> *"Konposizio distributiboa, izan ere -horrela mintza bagaitezke- ez da juntaduraren bitartez gauzatzen, juntagailuz edo alborakuntzaz juntaturiko perpausetan partikula batzuk errepikatuz baizik. (...) Azken batean, banaketa zentzu hori errepikatzearen bidez eta osagaiak korrelazioan jarriz lortzen da. Gainera, zentzu banakaria era askotako errepikatze eta enumerazioen bidez lor daiteke."*[1]

Ikusten dugunez, zentzu banakaria errepikatze hutsean datza; beraz, BA- aurrizki baldintzazkoak errepikatzen direnean zentzu hori nagusituko da. Ikus dezagun, hala ere, adibideen bidez:

> - *... Beraz nahi* ***bada*** *vici garén, nahi* ***bada*** *hiltzen garén, Iaunaren gara.* (Rom.,XIIII,8)

---

[1] EUSKALTZAINDIA, Euskal Gramatika Lehen Urratsak-III, 18.or.

- ***Orena*** *(...) ecen lehenago eguna luce* ***bacén*** *labur* ***bacén*** *(...) partitzê cen hamabi orenetara.* (Hitz eta Minçatzeco Manera,1208.or.)

4. ZALANTZAZKOAK:

Hauek, mendebaldeko hiztunoi behintzat, benetan arrotz suertatzen zaizkigu, baldintzazkoaren bidez "zalantza" edo adierazten delako.

Ikus ditzagun Leizarragak dituen adibideak eta erka ditzagun Haranederrek dituenekin "zalantzazko" adiera hori agerian gera dadin:

(1)- *Eta Pilatec miresten çuen* ***baldin ia hil baliz:*** *eta Centenera deithuric, interroga ceçan...* (Leiz.,Mc.,XV,44)

- *Pilatussec miretsiric hain lauster* ***hill othe cen,*** *erkharri içan çuen centeneroa eta galdeguin cioen ...* (Haran., Mc.,XV,44)

(2) - *Eta han hirur hilebethe eguinic, cerê Iudués celata eguiten baitzeraucaten Syriarat* ***embarcatu içan baliz:*** *haren abisua içan cen ...* (Leiz., Apost.Act.,XX,3)

- *ceinetan eguin ondoan hirur illhabethe, cetaletan baitcegozcon juduac* ***noiz embargatuco othe cen*** *Siriarat goateco, hartu çuen chedea ...* (Haran., Apost.Act.,XX,3)

Ikusten dugunez, Haranderrek baldintzazkoen ordez, zehar galderak darabiltza, hauen barruan OTHE zalantzazko partikula tartekatzen duelarik. Eta, egia esan, itzulpen egokiagoa dirudi, Leizarragaren adibideak, mendebaldeko hiztunontzat behintzat, aski ulergaitzak direlako -itzulpen bortitzegiak, akaso, latinez **si** agertzen delako-.

3.8.2. NON... -(E)N

Aurreko atalean aztertu dugun BALDIN... BA- forma bezain garrantzitsua izan ez arren, NON... -(E)N forma ere kontutan hartu behar dugu, gutxitan bada ere, Leizarragak erabiltzen duelako.

Nolanahi ere, hasi aurretik, zehaztu dezagun NON...-(E)N formaren bidez adierazten den balioa, eman nahi diogun interpretazioaren arabera, baldintzazkoa zein denborazkoa ere izan daitekeela.

Leizarragaren obran forma hau oso urria da, obra osoa azterturik, bost adibide bakarrik topatu baititugu. Hain gutxi izanik, guztiak batera aztertzea erabaki dut eta inon kokatzekotan, baldintzazkoen artean sartu ditut; hala ere, ez dezagun ahanz baldintzazko adierarekin batera, denborazkoa ere agerian dagoela.

3.8.2.1. Forma.

Baldintzazko hauetan, alde batetik NON sarrera-partikula topatzen dugu; eta menderagailuari gagozkiolarik, beste hainbat perpaus txertatutan aurkitu dugun -(E)N atzizkia dela esan behar dugu. Beraz, hona hemen, sortzen zaiguna:

> - ... *ecen eguiaz erraiten drauçuet, eztituçue inguraturen Israeleco hiri guciac,* **non ethor eztadin** *guiçonaren Semea.* (Mt.,X,23)

Bereiz ditzagun, bada, bi elementuak:

A. NON sarrera-partikulari dagokionez, Leizarragaren obran, salbuespenik gabe, baldintzazkoaren aitzin buruan agertzen zaigu, baldintzazko sekuentziari honexek ematen baitio hasiera:

> - *Nehorc etzaitzatela seduci, eceinere maneraz: ecen egun hura ezta ethorriren* **non** *reuoltamẽdua*

lehen **ethor eztadin,** *eta* **manifesta eztadin** *bekatutaco guiçona, ...* (Thes.2,II,3)

Bestalde, adibide honetan bertan ikus dezakegunez, baldintzazko sekuentzia perpaus batek baino gehiagok osatzen badute, NON partikula lehenengo perpausaren hasieran bakarrik agertuko zaigu, bestela sortuko litzatekeen erredundantzia saihestu nahian edo.

Honez gain, NON sarrera-partikulak ez du, inondik inora, aditza bere ondoan eskatzen -ager badaiteke ere-, bien artean, aipaturiko azken adibidean ikus dezakegunez, bestelako osagaiak tarteka baitaitezke.

B. -(E)N menderagailuari dagokionez, ez dago esan beharrik aditzari atxikirik doala; hala ere, zehaztu dezagun, Leizarragaren obran behintzat, menderagailu hau ez dela edozein adizkirekin agertzen, aspektu markarik gabekoekin bakarrik aurkitu dugu eta:

- *... Eguiaz erraiten drauçuet, nehor eztela vtzi duenic etchea, edo aitamác, edo anayeac, edo emaztea, edo haourrac Iaincoaren resumaren causaz,* ***Non*** *vnguiz guehiago* ***recebi ezteçan*** *dembora hunetan ...* (Lc.,XVIII,29-30)

Bestalde, perpaus nagusiaren eta baldintzazkoaren artean suertatzen den komunztadura ere aipagarria da. Izan ere, perpaus nagusian orainaldiko adizkiak ditugunean, baldintzazkoan ere orainaldiko formak nagusituko dira; perpaus nagusian iraganeko adizkiak baditugu, ordea, baldintzazkoan, iraganeko formen ordez, alegiazkoak topatuko ditugu. Ikus dezagun, bada, adibide bana:

* Orainaldiko formak:

- *... ezta sceptroa edequiren, ez haren exercitoaren guidaria,* ***non*** *igortèco dena* ***igor eztadin*** ... (Adv.,26-28,260.or.)

* Alegiazko formak:

- ... *etzuela herioric ikussirê,* ***non*** *lehen* ***ikus ezleçan*** *Christ Iaunarena.* (Lc.,II,26)

Azkenik, baldintza mota hauek agertzen duten formarekin amaitzeko, esan dezagun, sistematikoki, adibide hauetan ditugun bi perpausek, bai nagusiak, bai txertatuak ezezkoak izan behar dutela NON... -(E)N forma hau agertuko bada:

- ... *ecen eguiaz errraiten drauçquet, eztituçue inquraturen Israeleco hiri guciac,* ***non ethor eztadin*** *guiçonaren Semea.* (Mt.,X,23)

- ... *ecen egun hura ezta ethorriren* ***non*** *revoltamêdua lehen* ***ethor eztadin****, eta* ***manifesta eztadin*** *bekatutaco guiçona,* ... (Thes.2,II,3)

Hala ere, honek ez du esan nahi Leizarragak perpaus nagusia eta baldintzazkoa ezezkoak diren adibide guztietan NON... -(E)N egitura erabiltzen duenik, Leizarragaren beraren hurrengo adibidean ikus dezakegunez, nahiz eta bi perpausak ezezkoak izan, (BALDIN...) BA- egitura ere guztiz zilegi delako:

- *Eta merkatutic itzultzen, diradenean, ikuciac* ***ezpadirade****, eztute iaten.* ... (Mc.,VII,4)

Ohart gaitezen Haraneder, esate baterako, azken adibidea euskaratzeko NON... -(E)N egituraz baliatu zela:

- *Eta mercatutic heldu direnean ere ez dute jaten,* ***non ez diren garbitcen****;* ... (Haran., Mc.,VII,4)

Beraz, hemendik honako ondorio hau atera dezakegu: BALDIN... BA- nagusitzen den forma izanik, edozein kontestutan aurkituko dugula; NON... -(E)N forma, ordea, mugatuagoa izanik, ezezko kontestuetan -eta jakina, adiera erdi baldintzazkoa, erdi denborazkoa dutenean- bakarrik agertu ahal izango da.

3.8.2.2. Tokia.

Baldintzazko hauek perpaus nagusiaren baitan hartzen duten kokaguneari bagagozkio, oso kokaleku tinkoa dela aitortu behar dugu, aurkitu ditugun adibide guztiak perpaus nagusiaren ondoan agertzen baitzaizkigu. Ikus ditzagun adibide batzuk:

- ... *ecen egun hura ezta ethorriren* ***non*** *reuoltamẽdua lehen* ***ethor eztadin,*** *eta* ***manifesta eztadin*** *bekatutaco guiçona,* ... (Thes.2,II,3)

- ... *ezta sceptroa edeguiren, ez haren exercitoaren guidaria,* ***non*** *igorteco dena* ***igor eztadin*** ... (Adv.,26-28,260.or.)

3.8.2.3. Balioa.

NON... -(E)N formaren bidez aditzera ematen den balioa, hein handi batean, baldintzazkoa da; hala ere, badirudi denborazko kutsu berezia ere hartzen dutela. Izan ere, perpaus hauek gazteleraz "hasta que", "en tanto que" edota euskaraz, "[-(E)N] ARTE, -(E)N (BIT)ARTEAN formen bidez ere aise adieraz genitzake.

Honen froga argia Haranederrek eskaintzen digu, adibide batean behintzat, Leizarragaren NON... -(E)N egituraren ordez, -(E)N ARTERAIÑO forma baitarabil, bion arteko kidetasuna agerian utziaz. Ikus dezagun adibidea:

- ... *ecen eguiaz erraiten drauçuet, eztituçue inguraturen Israeleco hiri guciac,* ***non ethor eztadin*** *guiçonaren Semea.* (Leiz., Mt.,X,23)

- ... *Ez duçue akhabatuco Israelgo hiri guciac iracasteaz, Guiçonaren Semea* ***ethor daitequen arteraiño.*** (Haran., Mt.,X,23)

B.- FORMA JOKATUGABEAK:

3.8.3. -T(Z)ECOTZ

Baldintzazko adiera har dezaketen formen artean, sarreran aipatu dugunez, forma jokatuak dira nagusi, jokatugabeak agertzen badira ere, aski urriak baitira. Izan ere, Leizarragaren obra osoan baldintzazko adiera har dezakeen forma jokatugabe bakarra aurkitu dugu eta, hala eta guztiz ere, zalantzagarria dela aitortu behar dugu ez baita aise bereizten forma honek baldintzazko adiera ala helburuzkoa duen, biak zilegi dira eta.

Honez gain, forma honen urritasuna azpimarratu behar dugu, obra osoan hiru adibide bakarrik topatu baititugu. Baina, aurrera egin aurretik, ikus ditzagun adibideok:

(1)- *Christen discipulu* ***içatecotz*** *nola gucia renuntiatzeco.* (Lc.,XIIII,0-33)

(2)- *... hâbat Iuduéc nola Gêtiléc Iaincoagana hurbiltzeco moienic* ***vkaitecotz*** *behar eta necessario içan da Alliâça berribat, ...* (Adv.,20-22, 259.or.)

(3)- *... guçaz onic* ***içatecotz****, Scriptura gucian diligentqui bilhatu eta eriden behar duguna dà, ...* (Adv.,13-14, 272.or.)

Forma hauen bidez adierazten den balioari dagokionez, neurri handi batean helburuzko adiera argia izan lezakete; azken finean, ez dezagun ahanz forma hauek berauek helburuzkoei eskaini diegun atalean ere aipatu ditugula -T(Z)ECO forma jokatugabearen baliokide hutsak izan daitezkeelako.

Hala ere, baldintzazkoen artean ere aipamen bat merezi dutela ematen du. Ikus dezagun, esate baterako zer dioskun P.Lafittek forma honetaz:

"Voici des tournures ***non personnelles:***

a) L'infinitif locatif en ***kotz***

Ex.: egitekotz, berehala egizu,"[*]

Dakigunez, -T(Z)EKOTZ forma, gaur egun hegoaldekook behintzat, erabiltzen dugun -T(Z)EKOTAN formaren baliokide argia da. Eta bestalde, guztiok dakigu -T(Z)EKOTAN formak bi adiera bederen har ditzakeela:

* -T(Z)EKOTAN helburuzkoa:

- Diru gehiago irabaztekotan egin du.
(irabazteko asmoz)

* -T(Z)EKOTAN baldintzazkoa:

- Diru gehiago irabaztekotan, gogor egin beharko duzu lan.
(irabazi nahi baduzu, irabaziko baduzu)

Baina, ohart gaitezen azken adibidean, **"diru gehiago irabazteko** (helburuzkoa), **gogor egin beharko duzu lan"** parafrasia ere guztiz baliogarria izango litzatekeela.

Beraz, ikusten dugunez, -T(Z)EKOTAN helburuzko argia denean ez dago zalantzarik; baina, baldintzazkoa izan daitekeenean zailagoa da benetan baldintzazko ala helburuzko adiera duen bereiztea. Horregatik, Leizarragaren adibideak helburuzkoak zein baldintzazkoak izan daitezke, bi interpretazioak guztiz zilegi direlako.

Ikus dezagun adibide batekin:

---

[*] LAFITTE, P., Grammaire Basque, 457.or.

(3)- ... *guçaz onic* ***içatecotz****, Scriptura gucian diligentqui bilhatu eta eriden behar duguna da, ...* (Adv.,13-14, 272.or.)

Esan dugunez, adibide honi bi interpretazio eman geniezaioke:

* guçaz onic **içateco** (helburuzkoa)

* guçaz onic **içango badugu** (baldintzazkoa)

Eta adibide honetan aipatutakoa beste guztietara zabal dezakegu, funtsean, eman nahi diegun interpretazioaren arabera, helburuzko adiera (**-t(z)eko**) edo gaur egun **"izango bagara/badugu"** edo **"-t(z)ekotan"** baldintzazkoen bidez adierazten den balioa izango baikenuke.

Gainera, ohart gaitezen forma hauek guztiek halako "obligazio" kutsua edo daramatela, eskuarki, ondorioetan "behar" "necessario içan" eta halakoak topatzen baititugu.

3.9. KONTZESIBOAK

Gaur egun, edozein euskalkitan, honelako perpausak sortzeko baliabide ugari antzeman ditzakegu; Leizarraga, ordea, ez da hain oparoa, menderagailu bat baino gehiago badarabil ere, oro har, oso forma urriak baitira. Dena dela, azalpena, agian, L.Villasantek eman liezaguke. Ikus dezagun nola definitzen dituen perpaus hauek:

> *"El período concesivo opone dos juicos contrarios, como las coordinadas adversativas. Lo que se expresa mediante coordinación adversativa: "Me ha ofendido profundamente, pero sabré perdonarle", puede formularse también por medio de subordinación concesiva: "Aunque me ha ofendido profundamente, sabré perdonarle". Este parentesco lógico explica el parentesco histórico entre la coordinación adversativa y la subordinación concesiva..."*[1]

Lokailu eta juntagailu aurkariak aztertzean, Leizarragak oparotasun handia erakusten zuela jabetu ginen; beraz, agian hortxe egon liteke orain perpaus kontzesiboen artean hain baliabide gutxi topatzearen arrazoia.

Edonola ere, gaur egun kontzesiboen artean esparru zabalagoa eta aberatsagoa badugu ere, Leizarragak egindakoa ez da, inolaz ere, gutxiesteko modukoa; beraz, azter ditzagun erabili zituen formak:

A. FORMA JOKATUAK:

3.9.1. (BALDIN) BA-... ERE

3.9.2. -(E)LA / -(E)LARIC

3.9.3. -(E)NAREN GAINEAN

B. FORMA JOKATUGABEAK:

3.9.4. -(R)IC

3.9.5. -AGATIC

---

[1] VILLASANTE, L., Sintaxis de la oración compuesta, 190.or.

A. FORMA JOKATUAK:

3.9.1. (BALDIN) BA-... ERE

Sarreran aipatu dugunez, Leizarragaren obran perpaus kontzesiboak, eskuarki, nahiko urriak dira; hala ere, urritasun honen barruan menderagailu batzuk besteak baino emankorragoak dira. Izan ere, orain aztertzen dihardugun BA-... ERE perpaus kontzesiboak sortzen dituen menderagailurik erabiliena eta, beraz, garrantzitsuena dela esan dezakegu.

3.9.1.1. Forma.

Menderagailu honek hartzen duen formaz hitz egiteko zenbait bereizketa egin behar dugu, menderagailu berak forma bat baino gehiago ager baititzake:

A.- Perpaus kontzesibo hauek sortzeko argi dago BA- aurrizkiaz baliatzen garela. Baina BA- aurrizki soila erabiliz baldintzazkoen eremuan sartuko ginatekeenez, aurrizki horri ERE partikula itsasten diogu; beraz, hona hemen sortzen zaiguna:

> - *Seme* ***bacen-ere*** *ikassi vkan baitu obedientiá* ... (Hebr.,V,8)

Leizarragaren obra osoa azterturik, BA-... ERE forma ugariena dela egiaztatu ahal izan dugu. Izan ere, Leizarragak berak sorturiko sarrera moduko testuetan forma hau bakarrik aurkitzen dugu:

> - ... *gauça bachoa dela* ***iruditzen baçayo-ere,*** *halacoa da* ... (Adv.,30-31, 272.or.)

B.- Honez gain, Leizarragaren obran behintzat, beste forma bat ere aurki dezakegu: BALDIN BA-... ERE.

Dudarik gabe, perpaus kontzesiboek kidetasun handia dute baldintzazkoekin; horregatik, zenbait adibidetan, baldintzazkoekin batera agertzen ohi den BALDIN sarrera partikula kontzesiboen artean ere aurki dezakegu. Ikus ditzagun adibide batzuk:

- ... ***baldin*** *cembeit hiletaric* ***resuscita badadi-ere***, *eztié sinhetsiren.* (Lc.,XVI,31)

- *Baina* ***baldin ezcon badadi-ere***, *eztuc bekaturic eguin ...* (Cor.1,VII,28)

BALDIN sarrera partikula honetaz, lehendabizi, guztira, 13 adibidetan aurkitu dugula esan dezakegu. Hasiera batean, adibide franko direla irudi dakiguke; hala ere, ohart gaitezen BALDIN sarrera partikularik gabeko adibideak 55 inguru direla; beraz, agerian geratzen da forma urria ez bada ere, ez dela gehien erabiltzen dena.

BALDIN partikulari dagokienez, zehaztu dezagun agertzekotan, perpaus nagusiaren aurrean kokatzen diren kontzesiboetan bakarrik ager daitekeela:

- *Eta* ***baldin scribatu badrauçuet-ere***, *eztrauçuet scribatu ...* (Cor.2,VII,12)

Bestalde, baldintzazkoak aztertzean, Leizarragaren obran bederen, BALDIN partikula edozein kontestutan, hots, baiezkoetan zein ezezkoetan ager zitekeela ikusi genuen. Kontzesiboak honetan ez dira salbuespen, BALDIN partikula baiezko zein ezezko kontestuetan topatzen baitugu. Edozein modutan, aitor dezagun adibide gehienak baiezkoak direla, ezezko bat bakarrik topatu baitugu. Ikus dezagun, hala ere, adibide bana:

* Baiezkoak:

- *Eta* ***baldin iugea badeçat-ere*** *nic, ene iugemendua eguiazco da ...* (Io.,VIII,16)

* Ezezkoak:

- ... **baldin** *iaiguiric* **eman expadieço-ere**, *ceren haren adisquide den: halere harê muthiritassunagatic iaiguiric emanén drauca cenbat-ere behar baitu.* (Lc.,XI,8)

Ez dirudi BA-... ERE eta BALDIN BA-... ERE formen artean desberdintasunik dagoenik, adierazten duten balioaren aldetik, behinik behin. Gainera, Leizarragak berak batzuetan adibide berdina bietara eskaintzen digu, honekin bi forma hauek erabat baliokideak diren seinale ezin argiagoa emanez:

- ... *Guciac hitan* **scandaliza baditez-ere**, *ni iagotic ezniaitec scandaliza.* (Mt.,XXVI,33)

- ... **Baldin** *guciac* **scandaliza baditez-ere**, *ni ez ordea.* (Mc.,XIIII,29)

C.- Menderagailu honek har ditzakeen formekin amaitzeko, hirugarren forma bat ere aipatu behar dugu, zenbait adibidetan, BA- aurrizkiarekin agertzen den ERE partikulak aditzarekin bat egiten duelako honelako adibideak sortaraziz:

- ... *aduertimenduac recebitu, acceptatu eta laudatu vkan* **badituztere**: *bertan hautsi eta falsificatu vkan draucate fedea Iaincoari* ... (Adv.,11-13, 259.or.)

Egia esan, forma hau ez da oso ugaria; hala ere, mentzio berezia egin behar diogu BADERE formari, BADA ERE forma aurkitu beharko genukeen bederatzi adibideetatik bostetan BADERE aurkitzen baitugu, honekin ERE partikularen enklitikotasuna ageriago utziaz. Ikus ditzagun batzuk:

- ... **baldin hil içan badere** *vicico dun.* (Io.,XI,25)

- *Iauna bilha leçatençát, aguiâ haztatuz hura eridê leçaquetenez gure batbederaganic vrrun* **ezpadere**. (Apost.Act.,XVII,27)

3.9.1.2. Zein kontestutan agertzen den.

A.- BA-... ERE menderagailuaren bidez sortzen diren perpausek, kontzesiboak izanik, perpaus nagusian adierazten dena bete dadin nolabaiteko traba edo eragozpena ematen dute aditzera; bestela esanda, perpaus nagusiaren eta menpekoaren artean suertatzen den hartuemana ez da elkarren aurkako terminoen artean sortzen dena; baina, dudarik gabe, bi termino horiek, hein handi batean behintzat, kontrajarriak direla esan dezakegu. Horregatik, nahitaezko baldintza izan ez arren, oro har, perpaus nagusia baiezkoa bada, kontzesiboa ezezkoa izaten da eta alderantziz, jakina. Azken finean, ohart gaitezen perpaus nagusiaren eta kontzesiboaren arteko harremana BAINA juntagailu aurkariak juntatzen dituen perpausen artean sortzen denaren antzekoa dela -ez dira elkarren aurkakoak, baina bai kontrastagarriak-:

* Perpaus Nagusia (BAI) / Kontzesiboa (EZ):

- (*Iesus bera* ***batheyatzen ari ezpacen-ere***, *baina haren discipuluac*) (Io.,IIII,2)

* Perpaus Nagusia (EZ) / Kontzesiboa (BAI):

- ... *eta anhitz testimonio falsu* ***ethorri bacen-ere*** *etzeçaten eridê moldezcoric* ... (Mt.,XXVI,60)

Bigarren kontestua da, ezbairik gabe, obran zehar nagusitzen dena; edonola ere, ez dezagun ahanz bi perpausak baiezkoak edota ezezkoak ere izan daitezkeela, bi perpauson artean nolabaiteko kontrastea somatzen badugu, jakina:

* Perpaus Nagusia (BAI) / Kontzesiboa (BAI):

- *Ecen gucietaric libre* ***banaiz-ere***, *gucien suiectioneco neure buruä eguin vkan dut,* ... (Cor.1,IX,19)

* Perpaus Nagusia (EZ) / Perpaus Nagusia (EZ):

- ***Sabbathoa*** *(:::) ceren Euangelistéc Grecquez scribatzean lengoage hartaco* ***ezpacen-ere***, *ezpaitute cambiatu vkan.* (Hitz eta Minçatzeco Manera, 1211.or.)

B.- Bestalde, BA-... ERE menderagailua agertzen deneko kontestuak aztertu nahi baditugu, menderagailu honekin agertzen diren adizkiak izan behar ditugu kontutan.

Kontzesibo hauek baldintzazkoekin kidetasun handia dutenez, hauekin agertzen diren adizkiak aztertzeko, baldintzazkoetarako erabili genuen "alegiazkoak / ez-alegiazkoak" sailkapena ekarriko dugu gogora:

B.1. EZ-ALEGIAZKOAK:

Baldintzazko perpausak aztertzean, ez-alegiazkoak alegiazkoak baino ugariagoak zirela ohartu ginen; eta orain, kontzesiboez beste horrenbeste esan behar dugu, Leizarragaren obran ez-alegiazkoak, ezbairik gabe, nagusi baitira. Ikus ditzagun adibide batzuk:

B.1.1. TRINKOAK:

- ... *haur cen hura traditu behar çuena, hamabietaric bat* ***bacen-ere***. (Io.,VI,71)

B.1.2. PERIFRASTIKOAK:

B.1.2.1. Aspektu markadunak:

Perpaus kontzesiboen artean aurki ditzakegun aspektu markei dagokienez, eskuarki, [+burutua] edota [+ezburutua] aspektuak topatuko ditugula esan behar dugu, Leizarragak [+geroa] aspektu marka ez baitu behin ere erabiltzen:

- ... *nic deus* ***eguin ezpadut-ere*** *(...) liuratu içan naiz Romanoén escuetara.* (Apost.Act.,XXVIII,17)

- ... ***baldin*** *gure guiçon campocoa* ***corrûpitzen bada-ere:*** *barnecoa ordea arramberritzen da ...* (Cor.2,IIII,16)

B.1.2.2. Aspektu markagabeak:

Egia esan, hauek ez dira aspektu markadunak bezain ugariak, hala ere, aintzakotzat hartzekoak dira:

- *Eta* ***baldin interroga baçaitzatet-ere,*** *eznauçue ihardetsiren, ...* (Lc.,XXII,68)

B.2. ALEGIAZKOAK:

Hauek, Leizarragaren obran behinik behin, oso urriak dira; izan ere, obra osoa azterturik, lau adibide baino ez dugu aurkitu. Ikus ditzagun, bada:

B.2.1. TRINKOAK:

- ... *eta S.Paulec desiratzen du, hunez berce federic, edo Iesus Christez den saluamenduaz berceric predicaturen duen gucia Iaincoac deseguin, abysma eta sunsi deçan, are cerutic ethorri Ainguerubat* ***baliz-ere.*** (Som.,2-5, 279.or.)

- *Ecen hamar milla pedagogo* ***bacinturte-ere*** *Christean, ez ordea anhitz aita ...* (Cor.1,IIII,15)

B.2.2. PERIFRASTIKOAK:

Ohar gaitezen, baldintzazkoetan ez bezala, alegiazko kontzesiboetan Leizarragak aspektu markadun adizkiak erabiltzen dituela beti, aspektu markarik gabeko adizkirik ez dugulako aurkitu:

- *Segur nic-ere erran ahal deçaquet ecen milla* ***eriden içan balirade-ere,*** *ni arindu nêduqueitenic pena hunetaric (...) nic vkan nuqueela hâbat atseguin ...*(Guc.,19-24,251.or.)

- ... ***Baldin*** *hirequin* ***hil behar banu-ere,*** *ezaut vkaturen.* (Mc.,XIIII,31)

3.9.1.3. Tokia.

Kontzesiboek perpaus nagusiaren baitan hartzen duten kokaguneari bagagozkio, aurreko ataletan aztertu ditugun perpaus txertatuek adinako mugikortasuna agertzen dutela aipatu behar dugu. Hala ere, mugikortasun honen barruan, posizio baten aldeko joera soma dezakegu, Leizarragaren obran aurkitu ditugun adibide gehienak perpaus nagusiaren aurrean agertzen baitira. Edonola ere, ez dezagun ahanz "gehienak" esan dugula eta ez guztiak, perpaus nagusiaren ondoko adibideak ere aurki baititzakegu -urriagoak badira ere-. Ikus dezagun adibide bana:

* Perpaus nagusiaren aurrean:

- *Anhitz gauça* ***banuen-ere*** *çuey scribatzecoric, eztitut paperez eta tintaz scribatu nahi vkan,* ... (Io.2,1,12)

* Perpaus nagusiaren ondoan:

- ... *etzeçan beha bere gorputz ia hilera, ehun vrtheren inguruä* ***baçuen-ere*** ... (Rom.,IIII,19)

3.9.1.4. Balioa.

BA-... ERE menderagailuaren bidez adierazten den balioari dagokionez, zalantzarik gabeko adiera kontzesiboa nagusitzen dela aitortu behar dugu. Hona hemen adibide batzuk:

- ***Hallelu-ia*** *(...) cerê S.Ioânec Greçquez* ***scribatu badu-ere****, hitz Hebraicoa expressuqui eduqui nahi vkan baitu.* (Hitz eta Minçatzeco Manera, 1206.or)

- *Creatura gucietan Iaincoaré magnificétia eta gloriá scribatua beçala* ***testificatzen eta eracusten bacen-ere****, etzaye Gentiley deus probetchatu içâ ...* (Adv.,26-29, 258.or.)

Honez gain, ez dago ukatzerik aurkaritzan BAINA juntagailuarekin gertatzen den bezala, hemen ere kontrastagarriak diren bi terminoen arteko harremana dugula; nahiz eta, jakina, oraingoa menpekotasunezko hartuemana izan.

Bestalde, sarreran aipatu genuenez, Leizarragak zentzu kontzesiboa, gehienetan, BA-... ERE menderagailuaren bidez adierazten du. Edozein modutan, Leizarragaren adibideak Haranederrek dituenekin erkatzen baditugu, adibide askotan biek berdin jokatzen duten arren, beste zenbaitetan Haraneder Leizarraga baino oparoagoa dela jabetzen gara, BA-... ERE menderagailuaz gain, bestelako formak ere erabiltzen baititu. Ikus ditzagun adibide batzuk:

* PARTIZIPIOA + ARREN:

- ... *çuec liuratu eta vkatu duçuena Pilaten aitzinean, harc largatzeco cela* ***iugeatu baçuen-ere***. (Leiz., Apost.,Act.,III,13)

- ... *ceiña çuec libratu içan baiduçue eta ukhatu Pilatusen aitcinean, harc* ***jugeatu arren*** *utci behar cela libro.* (Haran., Apost.Act.,III,13)

* -(E)N ARREN:

- ... *ezta different deusetan cerbitzariaganic, gauça gucié iabe* ***badere***: (Leiz., Gal.,IIII,1)

- ... *ez dela deussetan berecia cerbitçaria ganic, gucien jaun eta jabe* ***den arren***. (Haran., Gal.,IV,1)

* -(E)LARIC ERE:

- ... *eta hambat* ***bacen-ere***, *etzedin ethen sarea.* (Leiz., Io.,XXI,11)

- ... *Eta hambat* ***celaric ere***, *ez cen hautsi sarea.* (Haran., Io.,XXI,11)

Agerian geratzen da, bada, BA-... ERE menderagailuaren bidez adierazten den balioa.

Hala ere, ez dezagun ahanz menderagailu honek sortzen dituen perpausek baldintzazkoekin duten kidetasuna. Izan ere, Leizarragaren BA-... ERE kontzesiboaren ordainean, Haranederrek, zenbaitetan, baldintzazkoak darabiltza, bi perpaus mota hauen arteko muga nahiko hauskorra dela erakutsiz:

(1)- *Eta* ***baldin interroga baçaitzatet-ere***, *eznauçue ihardetsiren, ...* (Leiz., Lc.,XXII,68)

- *nic berriz çuei cembait galde eguiten* ***badarotçuet***, *ez darotaçue ihardetsicó, ...* (Haran., Lc.,XXII,68)

(2)- *Baina* ***baldin ezcon babadi-ere***, *eztuc bekaturic eguin ...* (Leiz., Cor.1,VII,28)

- ***Baldinetaric*** *emastea hartu* ***baduçu***, *ez duçu hortan bekhatu eguin ...* (Haran., Cor.1,VII,28)

3.9.2. -(E)LA / -(E)LARIC

Perpaus kontzesibo gehienak eta argienak aurreko atalean aztertu dugun BA-... ERE menderagailuaren bidez sortzen dira. Hala ere, Leizarragak maiz darabilen beste menderagailu bat -(E)LA(RIC)- aipatu behar dugu, honen bidez ere zentzu kontzesiboa adieraz baitaiteke.

-(E)LA(RIC) menderagailua kontzesiboen artean ezezik, bestelako perpaus txertatuen eremuetan ere aurkitu dugu. Besteak beste, moduzkoak edota denborazkoak ekar genitzake gogora. Beraz, ikusten dugunez, menderagailu honek ez du adiera zehatzik hartzen, adierazten duen balioa kontestuaren arabera zehaztu behar dugularik.

3.9.2.1. **Forma.**

A.- Lehenik, perpaus kontzesiboak sortzen dituen menderagailuak berak hartzen duen forma azter dezakegu.

Izenburuan bertan ikus dezakegunez, -(E)LA menderagailuarekin batera -(E)LARIC aldaera ere aipatu behar dugu, kontzesiboetan ezezik, menderagailu honek har ditzakeen gainerako adieretan ere -konpletiboetan izan ezik, noski- bi formak aurki baititzakegu.

Denborazko edo moduzkoetan -(E)LA forma zen nagusitzen zena; kontzesiboetan, berriz, -(E)LARIC da nagusi, -(E)LA atzizkidun 6 adibideen aldean, -(E)LARIC menderagailua 34 adibidetan topatzen baitugu. Beraz, agerian geratzen da azken honen nagusitasuna. Edozein modutan, ikus dezagun adibide bana:

* -(E)LARIC:

  - *Eta hura* ***hil nahi çuelaric*** *populuaren beldur cen* ... (Mt.,XIIII,5)

* -(E)LA:

- ... *eta iracastê cituen diligentqui Iaunaren diraden gauçác,* **eçagutzen çuela** *solament Ioannesen Baptismoa.* (Apost.Act.,XVIII,25)

Gai honi dagokion euskal bibliografia arakatzen badugu, hona hemen zer aurkitzen dugun Villasanteren gramatikan:

"Este **-larik** *combinado con* **ere** *puede servir también para expresar el período concesivo."*[1]

Egia esan, Leizarragak -(E)LARIC menderagailuari inoiz ez dio ERE lokailua itsasten. Baina adibide batean, -(E)LA formari atxikirik aurki dezakegu:

- ... *Baina hunetan* **guelditzen naicela-ere,** *sporçu dut* ... (Guc.,30, 250.or.)

Nolanahi ere, ohart gaitezen obra osoan adibide bakar bat aurkitu dugula; beraz, esan dezakegu Leizarragaren obran behintzat, ERE lokailuaren agerpena ez dela nahitaezkoa, -(E)LA(RIC) menderagailuak, berak bakarrik, zentzu kontzesiboa adieraz baitezake.

B.- Bigarrenez, -(E)LA(RIC) menderagailua aditz bati atxikirik agertzen denez, adizki mota hauek ere azter ditzakegu.

BA-... ERE menderagailua aztertzean, hau aspektu markadun zein aspektu markarik gabeko adizkiekin ager daitekeela ikusi dugu. -(E)LA(RIC) menderagailua, berriz, mugatuagoa da, beti adizki sintetiko edota aspektu markadunekin agertzen baita. Ikus ditzagun adibide batzuk:

---

[1] VILLASANTE, L., Sintaxis de la oración compuesta, 201.or.

* SINTETIKOAK:

- *... Çuey eman çaiçue Iainccarê resumaco mysterioén eçagutzea: baina bercey comparationez,* ***dacussatelaric*** *ikus ezteçaten, eta* ***dançutelaric*** *adi ezteçaten.* (Lc.,VIII,10)

* PERIFRASTIKOAK (Aspektu markadunak):

- *Ecen haraguian* ***ebilten garelaric****, ez çara haraguiaren araura bataillatzen.* (Cor.2,X,3)

- *Cein* ***ikussi eztuçuelaric*** *maite baituçue: ceinetan orain* ***ikusté eztuçuelaric****, baina sinhesten duçuelaric, alegrâça erran ecin daitenez eta gloriosoz alegueratzen baitzarete.* (Pier.1,I,8)

Menderagailu honekin ager daitezkeen aspektu-markei dagokienez, inoiz [+burutua] agertzen bada ere, adibide gehienetan [+ezburutua] nagusitzen dela aitortu behar dugu.

C.- Azkenik, -(E)LA(RIC) menderagailuaren bidez sortzen den perpaus kontzesiboak berak hartzen duen formaz hitz egin genezake.

Dakigunez, perpaus kontzesiboaren eta nagusiaren artean suertatzen den harremana bi termino kontrastagarrien artean sortzen den hartuemana da. Horregatik, kasu gehienetan, perpaus nagusia baiezkoa bada, kontzesiboa ezezkoa izango da edo alderantziz. Hala ere, adibide gehienetan horrela gertatzen bada ere, bi perpausak baiezkoak ere izan daitezke:

* Perpaus Nagusia (Bai) / Kontzesiboa (Ez):

- *Ecen ikussiric ecen Gentiléc Leguea* ***eztutelaric****, naturalqui Legueari dagozcan gauçác eguiten dituztela, hec Leguea* ***eztutelaric****, bere buruençát berac dirade Legue:* (Rom.,II,14)

* Perpaus Nagusia (Ez) / Kontzesiboa (Bai):

  - *Eta lauroguey eta laur vrtheren inguruco alharguna* ***celaric,*** *etzen partitzê templetic ...* (Lc.,II,37)

* Perpaus Nagusia (Bai) / Kontzesiboa (Bai):

  - *... Romano* ***garelaric,*** *egotzi vkan gaituzte presoindeguira ...* (Apost.Act.,XVI,37)

3.9.2.2. Tokia.

-(E)LA(RIC) menderagailuaren bidez eraikitako kontzesiboek perpaus nagusiaren baitan hartzen duten tokiari dagokionez, menderagailu honek aurreko atalean aztertu dugun BA-... ERE-k bezalaxe jokatzen duela aipatu behar dugu, kontzesibo hauek perpaus nagusiaren aurrean zein ondoan aurki baititzakegu.

Edozein modutan, mugikortasun honen barruan, posizio baten aldeko joera argia aipatu behar dugu, adibide gehienak perpaus nagusiaren aurrean agertzen baitira.

Ikus ditzagun, halere, posizio desberdinetako adibideak:

* Perpaus nagusiaren aurrean:

  -*Eta* ***hatzaman nahi çutelaric,*** *populuaren beldur içan ciraden ...* (Mt.,XXI,46)

  - *Hala anhitz* ***garelaric*** *gorputzbat gara ...* (Rom.,XII,5)

* Perpaus nagusiaren ondoan:

  - *... nic ikuci baditut çuen oinac Iauna eta Magistrua* ***naicelaric,*** *...* (Io.,XIII,14)

  - *... ordenatu vkan çuten Herodes hayê gaineco reque, estranger* ***celaric,*** *...* (Adv.,32-33, 260.or.)

3.9.2.3. Balioa.

Dakigunez, -(E)LA(RIC) menderagailua kontzesiboetan ezezik bestelako perpaus txertatuetan, hala nola, denborazkoetan edota moduzkoetan ere aurki dezakegu. Horregatik, zenbait adibidetan gerta daiteke kontzesiboen ala, adibidez, moduzkoen aurrean gauden nekez bereiztea.

Azken finean, kontutan hartu behar dugu -(E)LA(RIC) menderagailuaren bidez "jerundio" bat sortzen dugula. Beraz, jerundio horrek zer-nolako adiera hartzen duen zehaztea ez da batere erraza, askotan eman nahi diogun interpretazioaren arabera adiera bat edo beste har baitezake. Ikus ditzagun adibide batzuk:

(1)- *Beguiac* ***dituçuelaric*** *eztacussaçue? eta beharriac* ***dituçuelaric*** *eztançuçue? ...* (Mc.,VIII,18)

(2)- *Iesusec bada* ***çaquizquialaric*** *haren gainera ethorteco ciraden gauça guciac, aitzinaturic erran ciecén, Noren bilha çabiltzate?* (Io.,XVIII,4)

(3)- *... banoa Ierusalemera, hartan heltzeco çaizquidan gauçác* ***eztaquizquidalaric***: (Apost.Act.,XX,22)

Adibide hauetan ikus dezakegunez, -(E)LARIC menderagailuaren bidez adierazten dena, eman nahi diogun interpretazioaren arabera, modua zein zentzu kontzesiboa izan daiteke, jerundioen eremuan behintzat, moduzkoen eta kontzesiboen artean ez baitago muga zehatzik.

Egia esan, anbiguitate hori adibide gehienetan soma dezakegu; baina, halere, zenbaitetan, badirudi adiera kontzesiboa argiagoa dela. Ikus ditzagun, bada, hurrengo adibideak:

(4)- *... Baldin hi Iudu* ***aicelaric*** *Gentil anço vici bahaiz, ...* (Gal.,II,14)

(5)- *Andrea, ceren ni çure eçagun gabea beçala* ***naicelaric***, *Testamentu berriaren heuscarazco translatione hunen çure Maiestateari dedicatzera ausartu içan naicen, ...* (Guc.,1-6, 249.or.)

Bestalde, menderagailu honek adierazten duen balioa zehaztu nahian Haranederren obrara jotzen badugu, adibide gehienetan, honek anbiguitate bera erakusten digu, -(E)LA(RIC) menderagailua darabil eta. Hala ere, zenbait adibidetan, Leizarragaren -(E)LA(RIC) menderagailuaren ordez, kontzesibo argiak erabiltzen ditu, -(E)LA(RIC) menderagailuak ere adiera kontzesiboa har dezakeen seinale. Ikus dezagun adibideen bidez:

* -(R)IC ERE:

  - *Eta gauça hauc* ***erraiten cituztela****, nequez amatiga citzaten gendetzeac sacrifica ezliecén.* (Leiz., Apost.Act.,XIIII,18)

  - *Horiec* ***erranic ere****, doi doya guibelatu çuten populua hei offrendatcetic.* (Haran., Apost.Act.,XIV,17)

* CEINNAHI... -(E)N:

  - *Huná, barcác-ere, hain handi* ***diradelaric****, eta haice borthitzéz* ***erabilten diradelaric****, hara huna erabilten dirade gobernail chipito batez, ...* (Leiz., Iac.,III,4)

  - *Ez duçue icusten untciac ere,* ***ceiñnahi*** *handiac* ***diren*** *eta haice hainitcez bulkhatuac* ***diren****, lema chume batez eraguiten çayela ...?* (Haran., Iac.,III,4)

* -(E)N ARREN:

  - *... eta iracastê cituen diligentqui Iaunaren diraden gauçác,* ***eçagutzen çuela*** *solament Ioannesen Baptismoa.* (Leiz., Apost.Act.,XVIII,25)

  - *... haguitz iracasten çuen Jesusi behatcen çayoena,* ***eçagutcen ez çuen arren*** *Joannesen bathayoa baicen.* (Haran., Apost.Act.,XVIII,25)

Beraz, batzuetan moduzkoen ala kontzesiboen aurrean gauden oso erraz bereizten ez den arren, besteetan menderagailu honek zalantzarik gabeko adiera kontzesiboa har dezakeela esan dezakegu. Hala ere, errepika dezagun gorago esandakoa, hots, jerundioen eremuan gaudenez, kasu gehienetan adiera bat edo beste atxikitzea interpretazio kontua besterik ez dela.

3.9.3. -(E)NAREN GAINEAN

Forma jokatuen bidez sortzen diren kontzesiboekin amaitzeko aipamen labur bat egin behar diogu -(E)NAREN GAINEAN formari.

Hala ere, gogora dezagun -(E)NAREN GAINEAN forma kausazkoen artean ere aipatu genuela, honek adiera "kausal-esplikatibo" hartzen baitzuen.

Baina orain, kausazkoen eremutik at, kontzesiboen esparruan sartzen bagara, berriro topatzen dugu forma hau. Dena den, ohart gaitezen kausazkoetan adibide gutxi topatu bagenituen, oraingoan askoz gutxiago topatu dugula, obra osoa azterturik, adiera kontzesiboa duen adibide bakar bat aurkitu baitugu.

Perpaus kontzesiboei dagokien bibliografia arakatzen badugu, berehala ohartuko gara inork ez duela -(E)NAREN GAINEAN forma aipatzen; hala ere, Leizarragaren obra aztertzen badugu, adibide batean behintzat, forma honen bidez balio kontzesiboa adierazten dela ematen du. Ikus dezagun, bada, adibidea:

> - *Ceren Iaincoa* ***eçagutu vkan dutenaré gainean,*** *ezpaitute Iainco beçala glorificatu, ez regratiatu: baina vano eguin içan dirade bere discursuetan, ...* (Rom.,I,21)

Adibide honen aurrean nekez hitz egin liteke balio kausal-esplikatiboaz ez bailuke zentzurik izango. Beraz, argi dago forma honek kausazko adieraz gain beste zerbait ere adieraz dezakeela.

Argibide bila Haranederren obrara jotzen badugu, egia esan, ezin dugu auzia erabat argitu. Hala ere, ikus dezagun nola euskaratu duen:

> - *Ceren* ***eçagutu dutelaric*** *Jaincoa, ez baidute Jainco beçala glorificatu eta ez baidiotçate esquerrac bihurtu; aitcitic errebelatu içan dire bere arroçoinamendu banoetan ...* (Haran., Rom.,I,21)

Aurreko atalean ikusi dugunez, -(E)LARIC menderagailuaren bidez balio kontzesiboa adieraz daiteke; hala ere, ez dezagun ahanz, menderagailu honek, jerundio-moduko adiera izanik, balio bat baino gehiago har ditzakeela.

Beraz, -(E)NAREN GAINEAN forma -(E)LA(RIC) menderagailuaren baliokidea dela onartzen badugu balio-zehaztasun eza nagusituko dela aitortu behar dugu, menderagailu honek adierazten duena balio kontzesiboa zein, adibidez, moduzkoa ere izan baitaiteke.

Edonola ere, moduzkoen edo kontzesiboen artean hautatu beharko bagenu, adibidea aurkitzen deneko kontestua eta perpaus nagusiaren eta txertatuaren artean suertatzen den kontrastea kontutan harturik, adiera kontzesiboaren aldeko apustua egin beharko genukeela uste dut.

B. FORMA JOKATUGABEAK:

3.9.4. -(R)IC

-(R)IC forma perpaus kontzesiboetan ezezik denborazko, moduzko edo kausazkoetan ere aurki dezakegu, -(E)LARIC menderagailuarekin gertatzen den bezala, -(R)IC partizipioaren bidez adierazten den balioa ez baita oso zehatza.

Edonola ere, zehaztugabetasun honen barruan, zenbait adibide behintzat, kontzesiboen esparruan sar ditzakegu. Beraz, azter ditzagun:

3.9.4.1. Forma.

Forma jokatugabeak izanik, alde honetatik behintzat ez da arazorik sortzen, guztiek forma bera agertzen baitute. Hona hemen:

"Partizipioa + -(R)IC":

- ... *eta kencen du hitza hayén bihotzetic,* ***sinhetsiric*** *salua eztitecençát.* (Lc.,VIII,12)

Edozein modutan, adibide gehienak horrelakoak badira ere, aipa dezagun -(R)IC forma zuzen-zuzenean perpaus kontzesiboaren adizkiari atxiki beharrean, adizkiarekin batera ager daitezkeen IZAN edo UKAN formei ere itsas dakiekeela:

- ... *behatu gaitzetaco eta rebel* ***eracutsi içanic,*** *guciagatic-ere (...) ematu içan da,* ... (Guc.,19-22, 250.or.)

3.9.4.2. Tokia.

Adiera kontzesibo "argia" duten adibideak ez dira asko; hori dela eta, ezin da ziurtasun osoz zein posiziotan agertzen diren zehaztu.

Dakigunez, perpaus txertatuek, orokorrean, askatasun handia dute perpaus nagusiaren baitan posizio batean zein bestean kokatzeko. Hala ere, kontzesiboen artean kokatu ditugun sei adibideetatik bost perpaus nagusiaren aurrean agertzen zaizkigu. Beraz, posizio hau jo beharko genuke nagusitzat.

Nolanahi ere, perpaus nagusiaren ondoan adibide bakarra aurkitu arren, ez dezagun ahanz oso adibide gutxi -sei- aipatu ditugula eta, beraz, adibide gehiago aurkitu bagenu, agian gauzak desberdinak izan litezkeela.

Ikus dezagun, halere, posizio desberdinetako adibide bana:

* Perpaus nagusiaren aurrean:

  - ... *Falta gabe guiçon haur guicerhaile da, cein itsassotic* **emparaturic** *mêdequioac ezpaitu permettitzen vici den.* (Apost.Act.,XXVIII,4)

* Perpaus nagusiaren ondoan:

  - ... *Ezaiz Iaincoarê berere beldur,* **ikussiric** *ecen condemnatione berean aicela?* (Lc.,XXIII,4)

3.9.4.3. Balioa.

Hasieran aipatu dugunez, partizipioari itsatsiriko -(R)IC formak perpaus mota asko sortaraz ditzake, besteak beste, denborazkoak, kausazkoak edota moduzkoak.

-(E)LARIC menderagailuarekin gertatzen den bezala, -(R)IC honen bidez aditzera ematen dena perpaus jerundiala da. Baina jerundio hauen balioa zehaztea ez da gauza erreza, hein handi batean, balioa eman nahi diogun interpretazioaren arabera sortuko baita.

Honez gain, ohart gaitezen adibide batean Haranederrek Leizarragaren -(R)IC formaren ordez, -(E)LARIC menderagailua darabilela, honekin bion arteko kidetasun horren seinale argia eskainiz:

(1)- *Eta hauc guciéc fedez testimoniage* ***obtenituric****, eztuté recebitu vkan promessa*: (Leiz., Hebr.,XI,39)

- *Eta hala ere hauc guciec, Escriturac horlaco lekhucotassuna* ***errendatcen daroelaric*** *bere fedea gatic, ez dute içatu aguindua çuten golardoa eta saria.* (Haran., Hebr.,XI,39)

Honaino, bi menderagailu hauek, -(R)IC eta -(E)LA(RIC), neurri handi batean behintzat, baliokideak direla jabetu gara; hala ere, honek ez du esan nahi adibide horietan zalantzarik gabeko balio kontzesiboa adierazten denik. Gogora dezagun, jerundio hauetan oso zaila dela adiera desberdinen arteko muga zehatzik ezartzea.

Nolanahi ere, atal honetan aipatzen ditugun adibideetan, perpaus nagusiaren eta ustezko kontzesiboaren artean nolabaiteko kontrastea soma dezakegunez, honek kontzesiboen aurrean gaudela pentsatzeko bidea ematen digu. Ikus ditzagun adibide batzuk:

(2)- ... *Falta gabe guiçon haur guicerhaile da, cein itsassotic* ***emparaturic*** *mêdequioac ezpaitu permettitzen vici den.*(Apost.Act.,XXVIII,4)

(3)- ... *behatu gaitzetaco eta rebel* ***eracutsi içanic****, guciagatic-ere (...) ematu içan da, ...* (Guc.,19-22, 250.or.)

Gainera, zehaztugabetasun-eremu honetatik atera gaitzakeen adibide bat behintzat aipa dezakegu, perpaus nagusiaren eta kontzesiboaren artean soma dezakegun kontrasteaz gain, adibidea Haranederrek eskaintzen digunarekin erkatzen badugu, azken honek zalantzarik gabeko kontzesiboa darabilela ohartzen baikara. Ikus dezagun:

(4)- ... *eta çuec hori* ***ikussiric****, etzarete emendatu guero.* (Leiz., Mt.,XXI,32)

- ... *eta çuec hori* ***icussi arren****, ez duçue içan urriquiric ondoan, ez sinhesteric.* (Haran., Mt.,XXI,32)

Beraz, azken adibide honetan ikusten dugunez, -(R)IC partizipioaren bidez ere balio kontzesiboa adieraz daiteke. Hala ere, askotan, perpaus kontzesiboa ala, adibidez, moduzkoa den jakitea zail samarra dela aitortu behar dugu, adiera jerundialen artean nekez ezar baitaiteke muga argirik.

3.9.5. -AGATIC

Azkenik, forma jokatugabeen artean, deklinabidearen barruan ere topa dezakegun -AGATIK atzizkia aipatu behar dugu. Deklinabidean, MOTIBATIBO kasua sortzeko erabiltzen dugu; baina deklinabidetik kanpo, adizki bati atxikirik adiera kontzesibo argia har dezake; beraz, azter dezagun:

3.9.5.1. Forma.

-AGATIK atzizkia edo posposizioa aditzari itsatsirik aurkituko dugu beti. Hala ere, bereizketa bat egin behar dugu, formari dagokionez behintzat, Leizarragaren obran bi jokabide aurki baititzakegu:

A.- Adibide gehienetan, -AGATIC partizipioari atxikirik agertzen zaigu:

> - ... *aditzen diraden hitzac* ***içanagatic****, eztiradela ordea textu gorputz berecoac ...* (Heu.,6-7, 254.or.)
>
> - ... *beguiz* ***ecin ikussiagatic*** *fedez eta spirituz comprehenditzen eta ardiesten çutelaric ...* (Adv., 22-23, 261.or.)

Forma hau, ezbairik gabe, arazo gutxien sortarazten diguna da, gaur egun ere partizipioari itsatsiriko -AGATIK atzizkia erabiltzen baitugu balio kontzesiboa adierazteko.

B.- Baina honez gain, aditz-izenari itsatsiriko adibideak ere aurki ditzakegu:

> - ... *Iaincoaren beldur ezpanaiz-ere eta nehorçaz conturic ez* ***eguitenagatic****: Badaric-ere (...) iustitia eguinen draucat ...* (Lc.,XVIII,4-5)
>
> - ... *Nic neurorçaz* ***testificatzenagatic*** *sinhesteco da ene testimoniagea ...* (Io.,VIII,14)

Aurrera egin aurretik eta gaizki ulertzerik sor ez dadin, kontutan izan behar dugu azken forma hauek ez daukatela zerikusirik gure -T(Z)EAGATIK formarekin. Gainera, Leizarragak berak oso ongi bereizten bide zituen aditz-izenari itsatsiriko -AGATIK kontzesiboa (-T(Z)ENAGATIK), eta motibatibo kasuan deklinaturiko aditz-izena (-T(Z)EAGATIK). Jar ditzagun adibide batzuk:

- *Ez bothere eztugunez, baina gure buruén çuey exemplutan* ***emaiteagatic,*** ... (Thes.2,III,9)

- ... *humiliatu eta beheratu içan da, gure* ***exaltatzeagatic*** *eta* ***goratzeagatic:*** *suiet eguin içan da, gure libertatean* ***eçarteagatic:*** *paubre eguin içan da, gure* ***abratseagatic:*** *saldu içan da, gure* ***redemitzeagatic:*** *captiuo eguin içan da, gure* ***deliuratzeagatic*** *(...) desfiguratu içan da, guri itchura* ***emaiteagatic*** ... (Adv.,7-16,271.orr.)

Adibide hauetan, ikusten dugunez, aditz-izen deklinatuak besterik ez daukagu; eta, adierazten duten balioari dagokionez, argi dago forma hauek ez direla kontzesiboak, kausazkoak edo helburuzkoak baizik.

Baina, erka ditzagun ondoko adibideekin:

- ... *Iaincoaren beldur ezpanaiz-ere eta nehorçaz conturic ez* ***eguitenagatic:*** *Badaric-ere (...) iustitia eguinen draucat* ... (Lc.,XVIII,4-5)

- ... *Nic neurorçaz* ***testificatzenagatic*** *sinhesteco da ene testimoniagea* ... (Io.,VIII,14)

Ikusten dugunez, hemen ez daukagu aditz-izen deklinaturik; adibide hauetan, -AGATIK atzikia inesibo deklinabide-marka daraman -TZEN aditz-izenari atxiki zaio, besterik gabe.

3.9.5.2. Tokia.

-AGATIK atzizkiaren bidez sortzen diren kontzesiboek perpaus nagusiaren baitan hartzen duten kokaguneari dagokionez, Leizarragaren obran topatu ditugun adibideetan oso sistematikoa dela aipatu behar dugu, guztiak perpaus nagusiaren aurrean agertzen baitzaizkigu. Hala ere, Leizarragaren obran -AGATIK atzizkidun sei adibide bakarrik aurkitu ditugu; beraz, agian adibide gehiago topatuz gero, bestelako kokalekuak ere onartu beharko genituzke.

Edozein modutan, ikus ditzagun aipaturiko kokaguneari dagozkion adibide batzuk:

- ... *ene adisquiderê sollicitatze ardurazcoac, ene goga eraciteco asco eta sobera* ***içanagatic*** *(...) eta nic hala vorondate* ***vkanagatic*** *(...) carguârê hartzera bathiric ecin naidiqueen, ...* (Guc.,3-18, 252.or.)

- ... *badaguigu gu herri batetaric iraitziac* ***içanagatic*** *Iaunarena dela lurra ...* (Adv.,22-23, 268.or.)

3.9.5.3. Balioa.

-AGATIK atzizkiaren bidez sortzen diren perpaus kontzesiboek hartzen duten forma aztertzean, Leizarragak behintzat, bi forma bereizten dituela ohartu gara.

Bitxia da, bestalde, -T(Z)ENAGATIC forma Testamentuaren itzulpenean aurkitzea eta -TUAGATIC Leizarragak berak sorturiko testuetan agertzea.

Edozein modutan, ez dirudi bi forma hauek balio desberdinik adierazten dutenik, biok adiera kontzesiboa hartzen baitute. Ikus dezagun, halere, adibideen bidez:

* -TUAGATIC:

  - ... *ene adisquiderê sollicitatze ardurazcoac, ene goga eraciteco asco eta sobera* ***içanagatic*** *(...) eta nic hala vorondate* ***vkanagatic*** *(...) carguârê hartzera bathiric ecin naidiqueen, ...* (Guc.,3-18, 252.or.)

- ... *aditzen diraden hitzac* ***içanagatic,*** *eztiradela ordea textu gorputz berecoac* ... (Heu.,6-7, 254.or.)

Halako adibideak gaur egun ere aurki ditzakegu; beraz, kasu honetan agerian dago -AGATIC atzizkiak hartzen duen adiera kontzesiboa dela.

* -T(Z)ENAGATIC:

Forma hau gaur egungo ikuspegitik begiratuta, arrotzen suertatzen zaiguna da; edozein modutan, Leizarragarentzat zalantzarik gabeko adiera kontzesiboa hartzen bide zuen. Izan ere, askotan, adiera kontzesibo argia duen beste perpaus bati loturik agertzen zaigu:

- ... *Iaincoaren beldur* ***ezpanaiz-ere*** *eta nehorçaz conturic ez* ***eguitenagatic:*** *Badaric-ere (...) iustitia eguinen draucat* ... (Lc.,XVIII,4-5)

Dakigunez, ETA emendiozko juntagailuak mota bereko perpausak elkartzen ditu; beraz, -AGATIK atzizkiak adierazten duena balio kontzesiboa izan behar da.

Bestalde, -TZENAGATIC formadun adibideak Haranederrek dituenekin erkatzen baditugu, ageriago geratuko da -AGATIK atzizki honek adierazten duena. Aipa dezagun adibide bat:

- ... *Nic neurorçaz* ***testificatzenagatic*** *sinhesteco da ene testimoniagea* ... (Leiz., Io.,VIII,14)

- ... *Neronec lekhucotassuna* ***errendatcen diodan arren*** *neure buruari, eguiazcoa da ene lekhucotassuna* ... (Haran., Io.,VIII,14)

Beraz, ikusten dugunez, formalki, bi perpaus mota bereizi behar ditugu; hala ere, balioari dagokion aldetik, ez dirudi bion artean bereizketarik egin daitekeenik.

4. ONDORIOAK

4.1. LOKAILUAK eta JUNTAGAILUAK

Leizarragak darabiltzan lokailu eta juntagailuen ezaugarririk bereizgarrienak gogora ekarri aurretik, gogora dezagun zertan datzan bion arteko desberdintasuna:

Juntagailuak maila sintaktiko bereko bi osagairen arteko elkarketa bideratzen duten partikulak dira, elkartzen dituzten juntagaiak, perpausak zein perpausetik beheragoko osagaiak (sintagmak, sintagmen osagaiak ...) izan daitezkeelarik.

Lokailuak, berez, aditzondoak dira, eta nahiz aurreko perpausari erreferentzia egiten dioten, ez dezakete perpausik, ez beste osagairik elkar; bi perpausok, bakarrik semantikoki egongo dira loturik edo behintzat harremanetan, baina sintaktikoki perpaus bakunak edo lokabeak izaten jarraituko dute.

Juntagailuen eta lokailuen arteko aldea argituta, ikus dezagun zeintzuk diren Leizarragak erabiltzen dituenak:

1- LOKAILU MOTAK:

1.1. Emendiozkoak:

- ERE
- HALABER
- BERERE(N) / BEHINÇAT
- BERÇALDE (BERCE ALDE)

* Emendiozko esamoldeak:

- EZ SOLAMENT...BAINA (ARE)...ERE (BAY)

1.2. Hautakariak:

- EZPERE
- BERCELA

1.3. Aurkaritzakoak:

- AITZITIC
- BERRIZ[1]
- ORDEA
- ALABAINA
- BADARIC-ERE
- HALA ERE (HALERE)
- GUCIAGATIC-ERE
- SALBU

1.4. Ondoriozkoak:

- BERAZ
- BADA
- HALA / HORRELA
- HARREN
- ORDUAN[2]

2.5. Kausazkoak:

- ECEN

---

[1] Aurkaritzakoen artean kokatu badugu ere, ez dirudi Leizarragagan aurkaria denik. Gehienetan aditzondo soilaren aurrean aurkitzen gara, eta lokailua denean, emendiozko lokailua dirudi.

[2] ORDUAN ere zalantzagarria da. Agian lokailutzat jo genezake, baina aditzondo arrunta dela ematen du.

2- JUNTAGAILU MOTAK:

2.1. Emendiozkoak:

- ETA

* Juntagailuaren inguruan sortutako formak:
  - (EZ)...EZ...(ERE) / EZ...EZETA...(ERE)
  - (BAY)...BAY...(ERE) / BAYETA...(ERE)
  - ETARE

2.2. Hautakariak:

- EDO
- ALA
- EZPA
- NAHIZ

2.3. Aurkaritzakoak:

- BAINA (Bi adiera izan ditzake)
- BAICEN

Edonola ere, ez dezagun ahanz juntagailuak ere lokailu gisa aritu daitezkeela.

Gogora ditzagun orain, laburki bada ere, juntagailu eta lokailu hauen ezaugarririk bereizgarrienak:

1.- EMENDIOZKOAK

1.1. LOKAILUAK:

ERE lokailurik erabiliena da. Enklitikoa denez, beti aurreko osagaiari loturik aurkituko dugu, aurreko osagai hori sintagma bat, aditza bera, zein perpaus oso bat -gehienetan, menpekoa- izan daitekeelarik.

Bestalde, aipa dezagun hegoaldeko euskalkietan, elipsiak direla eta, oso maiz aurkitzen ditugula ERE EZ, ERE BAI formak. Leizarragaren obran ez dugu ERE EZ formaren adibiderik aurkitu, baina ez Leizarragak ez duelako erabiltzen, baizik eta ez delako kontestu egokirik suertatu. ERE BAY formari dagokionez, ez dirudi BAI aditzondoaren agerpena derrigorrezkoa denik, Leizarragak ez baitu beti erabiltzen.

HALABER lokailuak aurreko lokailuaren antzeko balioa adierazten du; gainera, sarritan honekin batera agertzen da. Nolanahi ere, emendiozko zentzu hau ezezik beste adiera bat ere har dezake; izan ere, modu-konparazioa adierazten duten perpausetan aurki dezakegu HALA modu-aditzondoaren ordez.

BERERE(N)/BEHINÇAT lokailuak, neurri haundi batean behintzat, baliokideak dira; dena den, badirudi, BERERE(N) lokailua termino markatua dela, BEHINÇAT edozein kontestutan agertzen den bitartean, BERERE(N) lokailuaren ekintza-eremua mugatuagoa delako (baldintzazkoetan aurkituko dugu bereziki).

BERÇALDE.- Leizarragak GAINERA lokailua erabiltzen ez duenez, lokailu honen bidez adierazten du balio hori. Edozein modutan, ez da oso lokailu oparoa.

1.2. JUNTAGAILUAK:

ETA da emendiozkoen artean aipa dezakegun juntagailu bakarra eta aldi berean ugariena, Leizarragak gehien erabiltzen duen juntagailua baita. Honek maila sintaktiko

bereko perpausak zein perpausetik beheragoko osagaiak elkartzen ditu, emendiozko kutsua ezarten dielarik.

Honez gain, emendiozkoetatik kanpo, ETA denbora adierazten duen partikula enklitikoa ere izan daiteke.

Bestalde, aipa ditzagun ETA juntagailuaren inguruan sortzen diren beste forma batzuk:

* **(EZ)...EZ...(ERE) / EZ...EZETA...(ERE).**

Ugariena lehenengoa da, agian bigarrena markatuagoa delako; dena den, neurri handi batean, biak baliokideak dira. Bestalde, bietan, ERE lokailuaren erabilera aski urria da.

* **(BAY)...BAY...(ERE) / BAYETA...(ERE)**

BAYETA...(ERE) formarik erabiliena da eta aurrekoetan bezala, hemen ere ERE lokailua oso urria da.

BAY...(ERE) formari dagokionez, esan dezagun hiru balio-edo adieraz ditzakeela. Alde batetik, BAYETA...(ERE) edo ERE BAI formen baliokidea dugu; bestetik enumerazioetan aurki dezakegu balio banakaria adierazten; eta azkenik, adibide bereziak aipa ditzakegu, non BAY aditzondoak enfasi berezia ematen baitie perpausei.

* **ETARE**

Forma hau nahiko urria da. Adierazten duen balioari dagokionez, ETA juntagailu edo lokailu indartua baino ez dirudi, hau da, ARE aditzondoak indartzen duen emendiozko ETA adierazkorra. Formari dagokionez, esan behar dugu ETA ARE-tik sortua dela eta ez ETA ERE-tik.

* Azkenik, **EZ SOLAMENT...BAINA(ARE)...ERE(BAY)** esamoldea aipatu behar dugu. Formari begira, BAINA aurkaritzakoa izan arren, honelako esapideetan emendiozko adiera hartzen du, esamolde honen bidez ez baita aurrean esandakoa gaitzesten beste gauza bat aldarrikatzeko; aitzitik, aurrekoari zerbait eransten zaio. Izan ere, esapide hau gure EZEZIK...ERE formaren baliokide argia da.

2.- HAUTAKARIAK

2.1. LOKAILUAK:

EZPERE, BERCELA lokailuak Leizarragak oso gutxitan erabiltzen ditu. Bestalde, baliokideak direla aipatu behar dugu biek baldintza moduko hautaketa adierazten baitute.

2.2. JUNTAGAILUAK:

Hautakarien artean bi formarik erabilienak EDO eta ALA juntagailuak dira.

EDO: Juntagailu hautakariez hitz egiten dugunean oso erreza da dikotomiaren sinpletasunean erortzea eta beraz, EDO adierazpen-perpausetan eta ALA galde-perpausetan agertu behar direla esatea. Hala da, bai, baina kontutan hartu behar dugu EDO galde-perpausetan ere aurki dezakegula; adibidez, "*baldin cerbait differentia tonuz ezpademate* ***nola eçaguturen da chiruláz EDO harpáz ioiten dena?***" (Cor.1,XIIII,7)

Izan ere, EDO-ren berezitasuna ez datza zein motatako perpausetan aurki dezakegun, edozein motatan ager baitaiteke, baizik eta, perpaus horien sakoneko egituretan zer-nolako perpausak ditugun; eta hori bai, sakoneko egituran ditugun perpaus horiek beti izango dira adierazpen-perpausak.

Bestalde, EDO hain erabilia izanik, adiera bat baino gehiago har ditzake:

- Hautakaria (ez erabatekoa, hau da, osagai bat aukeratzeak ez du bestea zeharo gaitzestea suposatzen)
- Orobatasuna (Hiztunari aukera bat zein bestea berdin zaiola adierazten dugunean)
- Banakaritza (EDO juntagailuaren errepikatzean datza)

- Baliokidetasuna (Hemen ez legoke hautaketarik; bi juntagaien arteko baliokidetasuna adierazten da, besterik gabe)

- Inoiz Leizarragaren obran, badirudi EDO-k emendiozko kutsua ere har dezakeela.

ALA juntagailuari dagokionez, esan dezagun juntagailu hautakaria denean, beti galde-perpausetan agertzen dela. Honez gain, ALA juntagailuaren bidez adierazten den hautaketa erabatekoa da, juntagai bat aukeratzeak bestea gaitzestea suposatzen baitu. Azken finean, ALA-k galdegaiak juntatzen ditu eta perpaus batean galdegai bik ez dute tokirik.

EDO-k bezala, ALA-k ere beste adiera bat har dezake: banakaritza edo orobatasuna. Gainera, zehaztu dezagun ALA banakaria ez dela galde-perpausetan agertzen, adierazpen-perpausetan baizik.

ALA, juntagailua izateaz gain, lokailua ere izan daiteke. Hala ere, ez da lokailu hautakari arrunta. Galde-perpausetan agertu ohi da, baina ez du hautaketarik adierazten; galdera erretorikoa markatzen edo galdera mota hauei hasiera ematen dien partikula dirudi -gure gaur egungo AL, OTE edo halakoen baliokidea-. Gainera, obran zehar, hauxe da nagusitzen den adiera.

EZPA juntagailua oso urria dela, eta hein handi batean, EDO juntagailuaren baliokidea dela esan dezakegu.

NAHIZ juntagailua are urriagoa da, adibide bakar bat topatu dugu eta. Edozein modutan, agerian dago balio banakaria edo orbatasuna adierazten duten EDO eta ALA juntagailuen baliokide argia dela.

3.- AURKARITZAKOAK

3.1. LOKAILUAK:

AITZITIC lokailua, bigarren aurkaritza-mota adierazten duen BAINA juntagailuaren ordaina da; horregatik, harremanetan dauden bi perpaus horietarik lehenengoa ezezkoa izaten da kasu gehienetan.

BERRIZ formari dagokionez, Leizarragaren obran, iluntasuna dela nagusi aipatu behar dugu. Adibide gehienetan denbora-aditzondo hutsa da; hala ere, zenbaitetan lokailua ere izan daiteke. Nolanahi ere, lokailu honetaz nekez esan liteke balio aurkaria duenik; izan ere, inorekin alderatzekotan, emendiozkoekin parekatu beharko genuke.

ORDEA AITZITIC lokailuaren baliokidea da; izan ere, azken honetatik bereizten duen gauza bakarra ORDEA lokailuak duen mugikortasuna da, bigarren perpausaren hasieran, barruan zein amaieran aurki dezakegu eta.

ALABAINA, BADARIC-ERE, HALERE, GUCIAGATIC-ERE lokailuak baliokidetzat jo ditzakegu. Guztiek, harremanetan dauden bi perpausen artean suertatzen den kontrakotasuna ematen dute aditzera. Bestalde, esan dezagun ez direla oso ugariak eta guztiak posizio berean aurkitzen dituGula, hau da, bigarren perpausaren hasieran.

SALBU aditzondoak BAICEN lokailuaren antzeko balio murriztailea adierazten du.

3.2. JUNTAGAILUAK:

BAINA juntagailuaz hitz egitean, bi adiera har ditzakeela gogoratu behar dugu. Alde batetik, bi perpausen artean suertatzen den aurkakotasuna aditzera ematen duen juntagailua dugu. Bi perpauson artean, nolabaiteko kontrastea edo aurkaritza dago, baina perpaus batek ez du bestea erabat baztertzen.

Bestetik, bigarren aurkaritza-mota dugu; honetan harremanetan dauden perpausak erabat aurkakoak dira, galdegaien arteko aurkaritza adierazten delako. Horregatik, bigarren aurkaritza-mota honetan ezinbesteko baldintza bat topatzen dugu, lehendabiziko perpausa ezezkoa izatea.

Zenbait euskalkitan bi aurkaritza-mota hauek juntagailu desberdinen bidez adierazten badira ere, Leizarragak biak BAINA juntagailuaren bitartez adierazten ditu.

BAICEN juntagailua, komunzki, bigarren aurkaritza-mota adierazten duten formen artean kokatzen dugu; hala ere, zenbait desberdintasunez ohartu behar dugu. Esate baterako, BAINA juntagailua ager dadin, beharrezkoa da lehendabiziko perpausa ezezkoa izatea; BAICEN juntagailuaren kasuan, ordea, baldintza hori ez da nahitaezkoa ezezkoaren ahaide hurbilak diren galde-perpausak eta baldintzazkoak ere aurki baititzakegu.

Bestalde, BAINA-k elkartzen dituen juntagaiak beti kontrastagarriak eta aurkakoak izaten dira, hots, bata gaitzesten da, bestea baieztatu ahal izateko. BAICEN juntagailuak, berriz, balio murriztailea hartzen du beti.

Azkenik, aipa dezagun, BAINA-ren ekintza-eremua zabalagoa dela galdegaien arteko aurkaritzaz gain, BAICEN-ek adierazten duen balio murriztailea ere har dezakeelako. BAICEN-ek, berriz, -Leizarragaren hizkeran, behintzat- ezin du BAINA ordezkatu.

4.- ONDORIOZKOAK

Ondoriozko perpausak menpekoen artean kokatuko ditugu; hala ere, atal honetan ere aipamen bat egin behar diegu, bi perpausen arteko lotura semantikoaren berri ematen diguten ondoriozko lokailuak ditugulako.

* Bi lokailu nagusi ditugu: **BERAZ** eta **BADA**. Hala ere, zehaztu dezagun bi hauek ez dutela -Leizarragaren obran behintzan- maiztasun bera agertzen; izan ere, BADA da gehien erabiltzen dena.

Hartzen duten balioari dagokionez, aurreko perpausean adierazitakoaren ondorioa adierazten dutela esan behar dugu. Gaur egun, bi lokailu hauen arteko bereizketaz hitz egin daiteke; horrela, BERAZ-ek aurreko perpausean garatutako argudioari emango lioke bukaera, perpaus horretan adierazten dena nolabait laburbilduz; BADA-k, ordea, argudio berriari emango lioke hasiera.

Edozein modutan ere, Leizarragaren obran ezin dugu bereizketaz hitz egin, gure idazleak biak baliokidetzat jotzen baititu; izan ere, edozein kostestutan -batzuetan esaldi berdintsuetan- bata zein bestea erabiltzen ditu.

Egin daitekeen bereizketa bakarra lokailu hauen ekintza-eremuari dagokiona da. BERAZ-ek ondoriozko adiera baino ez du; gainera, arestian aipatu dugunez, BADA baino urriagoa da.

BADA-k, berriz, ondoriozko adieraz gain, beste adiera batzuk ere har ditzake:

- Bi perpausen arteko lokarri hutsa

- Aurkaria (Hau arraroa irudi lekiguke, baina Leizarragak BADA erabiltzen duen zenbait adibidetan, grekeraz, latinez edo Haranederren obran lokailu aurkariak aurkitzen ditugu)

- Banakaria (BADA lokailua errepikatzen denean)

Leizarragaren obran, behin ere agertzen ez dena BADA kausazkoa da.

HALA, **HORRELA** lokailuak, berez, modu-aditzondoak direnez, askotan ez dakigu ziur lokailu ala aditzondoaren aurrean aurkitzen garen. Nolanahi ere, lokailuen aurrean gaudenean, BERAZ eta BADA lokailuen antzeko balioa adierazten dute; izan ere, zenbait adibidetan biek ondoriozko lokailu konposatu bat osa dezakete: HALA BERAZ, HALA BADA.

HARREN lokailua ez dugu ohiko gramatiketan aurkitzen; dena den, Leizarraga lokailu honetaz baliatzen da ondorioa adierazteko.

ORDUAN lokailua azken urteotan ondoriozkoen eremuan indar handiz hedatu bada ere, Leizarragaren obran ez dirudi ondoriozko lokailuez hitz egin daitekeenik. Izan ere, adibide gehienetan denbora-aditzondoak besterik ez dira. Egia da adibide bakan batzuetan ORDUAN bi perpausen arteko lokarria izan daitekeela; baina lokarria baino ez da, hau da, ez du ondoriorik adierazten.

5.- KAUSAZKOAK

Ondoriozkoak bezala, kausazkoak ere menpekoen artean kokatu behar ditugu; edozein modutan ere, Leizarragaren erabilera kontutan hartuta, juntatuen artean ere aipamen berezia egin behar diegu.

Izan ere, Leizarraga kausa adierazteko, nagusiki, **ECEN** lokailuaz baliatzen da; are gehiago, lokailu hau kausa adierazten duten menderagailuekin erkatuz gero, ECEN askoz ugariagoa dela ohartzen gara.

Leizarragaren obran ECEN ezin dugu menderagailuen artean kokatu, alde batetik, honekin batera doan aditzak ez duelako ez aurrizkirik ez atzizkirik hartzen, eta bestetik, adizki alokutiboak ametitzen dituelako. Baina juntagailutzat ere ezin dugu jo partikula hau ez delako gauza perpausak edo perpausetik beheragoko osagaiak elkartzeko; beraz, alboraturiko perpausetan, bi perpauson artean suertatzen den kausalitate-harremanaren berri ematen digun lokailutzat jo behar dugu.

Bestalde, lokailu honek hartzen duen balioari dagokionez, gogora dezagun Villasantek kausalitate koordinatua eta subordinatua bereizten zituela, koordinatua ahulagoa, markatuagabea zela esanez.

Leizarragari bagagozkio, egia da morfologikoki menderagailuak eta ECEN lokailua bereizten dituela, menderagailuak beti menderagailu eta ECEN beti lokailu delako; baina, hau alde batera utzirik, hartzen duten balioari dagokionez, ez dirudi bereizketarik dagoenik, adibide gehienetan ECEN-ek CEREN...BAIT-/-(E)N menderagailuek adierazten duten balioa har dezakeelako.

Gainera, Leizarragaren beraren adibideak aztertzen baditugu, berehala ohartzen gara pasarte berdintsuetan batzuetan ECEN eta besteetan CEREN... BAIT-/-EN erabiltzen dituela, biak baliokideak diren seinale.

Azkenik, Haranederrek dituen adibideak aztertzen baditugu, honek Leizarragaren ECEN-en ordainean menderagailu ugari darabilela ohartzen gara; esate

baterako: CEREN...BAIT-, CEREN...-(E)N, CERGATIC...BAIT-, BAIT-, -(E)NAZ GUEROZ.

Beraz, ECEN lokailua, semantikoki noski, kausa adierazten duten partikulen multzo handiago baten barruan kokatu beharko genuke inolako bereizketarik egin gabe.

4.2. MENDERAGAILUAK

Leizarragaren obran agertzen diren menderagailuak ikusita, gaur egun erabiltzen ditugunetatik aski hurbil daudela ohartzen gara, funtsean, Leizarragak -XVI.mendeko idazlea izan arren- gaur egungo sistema bera erabiltzen baitzuen.

Leizarragak darabiltzan menderakuntza-mota guztiak aztertu ondoren, bereizketa bat egin behar dugu, zenbait menderakuntza-mota forma jokatuen zein jokatugabeen bidez adieraz baitaitezke. Hortaz, bereizketa hau eginda, ikus dezagun menderagailu bakoitzak zer-nolako adierak har ditzakeen:

1. FORMA JOKATUAK:

1.1. -(E)LA:

* Konpletiboa (adierazpenezkoa)- 3.1.1.[1]
* " (aginterazkoa)- 3.1.6.
* Denborazkoa- 3.3.2.
* Moduzkoa- 3.4.1.
* Kausazkoa- 3.6.7.3.
* Kontzesiboa- 3.9.2.

1.1.1. ERATORRIAK:

-(E)LARIC:

* Denborazkoa- 3.3.2.
* Moduzkoa- 3.4.1.
* Kausazkoa- 3.6.7.3.

---

[1] Adieraren ondoko zenbakiek aurkibideari egiten diote erreferentzia.

* Kontzesiboa- 3.9.2

-(E)LACOTZ: Kausazkoa- 3.6.3.

1.2. -(E)N:

* Konpletiboa (adierazpenezkoa)- 3.1.2.
* " " :Nola... -(E)N - 3.1.3.
* " (galderazkoa)- 3.1.5.
* " (aginterazkoa)- 3.1.6.
* Erlatiboa- 3.2.1.
* Denborazkoa:
  - -(E)N artean / arterano- 3.3.5.
  - -(E)N bizquitartean- 3.3.6.
  - -(E)N becembatean- 3.3.7.
  - -(E)N beçain sarri / sarrienaz- 3.3.8.
  - -(E)N baino lehen- 3.3.10.
  - -(E)N ondoan- 3.3.12.
* Modu-konparazioa:
  - -(E)N becembatean- 3.4.4.
  - -(E)N beçala- 3.4.7.
  - -(E)N becembat- 3.4.9.
  - -(E)N baino... -ago- 3.4.11.
* Helburuzkoa- 3.5.1.
* Kausazkoa: Ceren... -(E)N - 3.6.2.
* Kontsekutiboa- 3.7.1./2./3./4./5.
* Baldintzazkoa: Non... -(E)N - 3.8.2.

1.2.1. ERATORRIAK:

-(E)NEAN: Denborazkoa- 3.3.1.

-(E)NO: Denborazkoa- 3.3.4.

-(E)NETIC: Denborazkoa- 3.3.13.

-(E)NAZ gueroztic: Denborazkoa- 3.3.14
gueroz: Kausazkoa- 3.6.5.

-(E)NÇAT: Helburuzkoa- 3.5.2.

-(E)NAREN GAINEAN: Kausazkoa- 3.6.6.
Kontzesiboa- 3.9.3.

-(E)NEZ: Konpletiboa (galderazkoa)- 3.1.5.
Kausazkoa- 3.6.7.1.

1.3. BAIT-:

* Konpletiboa (adierazpenezkoa)- 3.1.4.
* Erlatiboa:
  BAIT- 3.2.2.
  Anaforikoak + BAIT- 3.2.3.
* Denborazkoa: Noiz-(ere)... BAIT- 3.3.3.
* Modu-konparazioa:
  Nola... BAIT- 3.4.6.
  Cembat(enaz)... (-ago)... BAIT- 3.4.10.
* Kausazkoa:
  BAIT- 3.6.7.2.
  Ceren... BAIT- 3.6.1.
  Nola... BAIT- 3.6.4.
* Kontsekutiboa: 3.7.1./2./3./4./5.

1.4. BA-:

* Baldintzazkoa- 3.8.1.
* Kontzesiboa: BA-... ere - 3.9.1.

2. FORMA JOKATUGABEAK:

2.1. -T(Z)E...:

* Konpletiboa- 3.1.7.
* Denborazkoa: -t(z)ean / -t(z)eracoan - 3.3.9.
* Helburuzkoa: -t(z)era / -t(z)eco - 3.5.3./4.
* Baldintzazkoa: -t(z)ecotz - 3.8.3.

2.2. -(R)IC:

* Denborazkoa- 3.3.11.
* Moduzkoa- 3.4.2.
* Kausazkoa- 3.6.7.3.
* Kontzesiboa- 3.9.4.

2.3. -(E)Z:

* Moduzkoa- 3.4.3.
* Kausazkoa- 3.6.7.3.

2.4. -AGATIC: Kontzesiboa- 3.9.5.

Menderagailuek har ditzaketen adierak ikusita, menderagailuon bidez sortzen diren menderakuntza motei bagagozkie, azterketan zehar ikusi dugunez, bederatzi mota bereiz ditzakegu:

3.1. KONPLETIBOAK

3.2. ERLATIBOZKOAK

3.3. DENBORAZKOAK

3.4. MODUZKOAK eta KONPARATIBOAK

3.5. HELBURUZKOAK

3.6. KAUSAZKOAK

3.7. KONTSEKUTIBOAK

3.8. BALDINTZAZKOAK

3.9. KONTZESIBOAK

Jaso ditzagun orain, gaingiroki bada ere, menderakuntza mota bakoitzaren ezaugarririk bereizgarrienak:

3.1. KONPLETIBOAK:

Menderakuntza mota honetan, beste hainbatetan bezala, forma jokatuak zein jokatugabeak bereiz ditzakegu.

Forma jokatuei dagokienez, hiru multzotan bana ditzakegu konpletiboak:

3.1.1. ADIERAZPENEZKOAK:

Adierazpenezko konpletiboen artean hiru menderagailu aurkitzen ditugu: -(E)LA, -(E)N eta BAIT-. Edozein modutan, zehaztu dezagun hiruretan garrantzitsuena edo, behintzat, erabiliena -(E)LA dela.

Atzizki honetaz aipa dezakegun berezitasun bakarra da Leizarragaren obran, gehienetan, EZEN sarrera-partikularen laguntzaz agertzen dela. Hala ere, partikula honek ez dio esanahi berezirik atxikitzen perpausari, aukeran dagoen espletiboa baino ez da.

* Adierazpenezkoen artean aurki dezakegun beste menderagailu bat -(E)N da. Leizarragaren obran, bi erabilera izan ditzake atzizki honek (beti adierazpenezko konpletiboen barruan, noski). Alde batetik, bera bakarrik ager daiteke aspektu markarik gabeko adizki bati itsatsirik; kasu honetan, forma jokatugabeen bidez (nominalizazioaren bidez) sortzen diren konpletiboen baliokideak eratzen dira.

Bestetik, NOLA galde-hitzari loturik ere ager daiteke, baina kasu honetan NOLA-k bere galde-izaera galdu eta adierazpenezko konpletibatzaile bilakatzen zaigu. Edozein modutan ere, zehaztu dezagun egitura hau ez dugula edozein motatako konpletiboetan aurkitzen, beti aditz zehatz batzuen menpe agertzen baita, adibidez: JAKIN, ERRAN, DEKLARATU, EZAGUTU, ENTZUN, KONTATU, IRAKURRI ... Badirudi konpletibo hauen bidez ezin dugula informazio berririk adierazi; nolabait, aldez aurretik ezaguna, irakurria, entzuna ... duguna errepikatu egiten da, besterik gabe.

* Azkenik, adierazpenezkoen artean BAIT- aurrizkia aipatu behar dugu. Aurrizki honek zalantza ugari sortarazten digu, hegoaldeko hiztunontzat aski berria delako. Halarik ere, adierazpenezkoetan sujeto-funtzioa betetzen duenean zinezko menderagailutzat jo dezakegu. Gainerako kasuetan, badirudi menderagailua baino gehiago perpausaren baiezkotasuna sendotzen duen partikula dela.

3.1.2.- GALDERAZKOAK

Galderazkoetan berriz ere aurkitzen dugu -(E)N menderagailua honen aldaera batekin -(E)NEZ. Hala ere, zehaztu dezagun bi aldaera hauek ez direla inoiz nahasten; izan ere, BAI/EZ erantzuna eskatzen duten zehar-galderetan beti -(E)NEZ aurkituko dugu, GALDE-HITZAK daramatzaten galderetan -(E)N aurkitzen dugun bitartean.

Beste aldetik, aipatu behar dugu Leizarragak aspektu markarik gabeko zehar-galderak eta hauetatik eratortzen diren forma jokatugabeak ere erabiltzen dituela.

- "... *eztic non bere buruä reposa deçan*" (Mt.,VIII,20)

- "...*ezpaitzuen nondic paga,...*" (Mt.,XVIII,25)

3.1.3.- AGINTERAZKOAK

Aginterazkoetan bi atzizki aurki ditzakegu: -(E)LA eta -(E)N. Adierazten duten balioari dagokionez, erabat baliokideak dira; edozein modutan ere, zehaztu behar dugu, gehienetan, kontestu desberdinetan agertzen direla, salbuspenak alde batera utzirik, -(E)N baiezko aginteretan eta -(E)LA ezezkoetan agertzen delako.

3.1.4.- FORMA JOKATUGABEAK

Atal honekin bukatzeko nominalizazioaren bitartez sortzen diren konpletibo jokatugabeak aipatu beharko genituzke. -T(Z)E... honek edozein deklinabide-marka har dezake eta horrela edozein izen-sintagmak adieraziko lituzkeen funtzioak bete ditzake.

Nominalizazio hauek agertzen duten berezitasun bakarra Leizarragak mugagabeaz egiten duen erabilera da, gaur egun arrotzak zaizkigun formak -hala nola, -T(Z)EC, aditz iragankorren sujeto mugagabea- aurki ditzakegu eta.

Azkenik esan, nominalizazio hauek aditz baten menpe -ohikoena- agertzeaz gain, izenondo baten menpe ere ager daitezkeela (kasu honetan beti -T(Z)ERA aurkituko dugu):

> "*biz guiçon guciaençutera lehiati, berantcor minçatzera, eta berantcor asserretzera*"(Iac.,I,19)

3.2. ERLATIBOZKOAK:

Erlatibozkoen artean bi multzo bereiz ditzakegu, alde batetik menderagailu soilen bidez eraikitako erlatiboak eta, bestetik, anaforikoen laguntzaz sortzen direnak.

Lehenengo multzoan -(E)N eta BAIT- menderagailuak aipatu behar ditugu, eta bereziki -(E)N garai guztietako euskara idatzian zein mintzatuan aurki dezakegu eta.

Menderagailu honen bidez Leizarragak bi erlatibo mota eraikitzen ditu:

1.- Erreferentedun erlatiboak:

* Izenlagunak (erreferenteraren ezkerraldean) (**Erori den etxea**)

* Erreferentearen atal bat aurreratuta dutenak (**Etxe erori dena**)

* Aposizio gisakoak (Erreferentea aurreraturik eta erlatiboa nominalizaturik dago) (**Etxea erori dena**)

* Erlatibo berezi batzuk ere aipa ditzakegu. Hauetan erreferentea aurreraturik aurkitzen dugu, baina aposizioetan ez bezala, -(E)N menderagailua hutsik agertzen da: (**Etxea erori den**)

2.- Erreferentegabeak :

* Mugatuak (Artikulu arrunta edo hurbila)

* Mugagabeak (Partitibodunak) - Hauek erreferentea aurreratuta duten erlatiboetan ere ager daitezke.

Bestalde, BAIT- aurrizkiari bagagozkio, lehenengo eta behin ez duela aurrekoaren hedadura aipatu behar dugu, oso kontestu zehatzetan aurkituko baitugu: erlatibo ez-restriktiboetan, aposizio gisa; NON/NOIZ posposizioak isiltzen dituzten erlatiboetan eta inoiz beste erlatibo bati (-(E)N menderagailuak sorturiko erlatibo bati) loturik.

Bigarren multzoan ANAFORIKOen laguntzaz eraikitzen diren erlatiboak ditugu. Baliabide hau XIX. mendearen amaieran eta mende honen hasieran zeharo gaitzetsia izan zen; baina, Leizarragaren obra aztertzean errekurtso hau -(E)N menderagailua bezain garrantzitsua dela jabetzen gara; beraz, aztertzea behintzat beharrezkoa da.

Anaforikoek, berez, ezin dute inolako perpausik sortu; beraz, beti menderagailu batekin agertu beharko dira erlatibozkoak sortuko badituzte. Eta menderagailu hau, salbuespen batzuk kenduta (inoiz, -(E)N edo BA-[CER-ERE...BA-] topatzen ditugulako), BAIT- izaten da.

Anaforikorik erabiliena deklinatzeko gaitasuna duen ZEIN da; hala ere, zehaztu dezagun edozein galde-hitz (bere galde-izaera galduta, noski) aurki dezakegula anaforiko gisa.

Baina anaforiko hauek duten berezitasunik aipagarriena kasu gehienetan agertzen duten formen bikoiztasuna da: NOR...BAIT- eta NOR-ERE...BAIT-

Leizarragak dituen adibideak aztertuta atera dezakegun ondorioa honako hau da: EREdunak markatuak direla eta, hortaz, bakar-bakarrik erreferentzia orokorra. zehaztugabea burutzen denean erabil daitezkeela; EREgabeak, berriz, markatugabeak izanik, erreferentzia zehatza zein zehaztugabea adierazteko erabiliko dira.

3.3. DENBORAZKOAK:

Denborazkoen artean sar ditzakegun menderagailu ia guztiek gaur egun oraindik bizirik diraute; beraz, atal honen berezitasuna Leizarragak agertzen duen ugaltasunean datza. Izan ere, Leizarragak menderagailu ugari eta, askotan, balio bera adierazteko forma desberdinak darabiltza.

Forma guztien artean, erabiliena gaur egun oraindik ere nagusitzen den **-(E)NEAN** da; gainera, Leizarragak honi oso ekintza-eremu zabala eskaini zion, aspektu marka guztiak -etorkizuna, barne- zein aspektu markarik gabeko aditzak ametitu baitzituen. Nolanahi ere, balio hau berau adierazteko Leizarragak beste forma batzuk ere erabili zituen, hala nola, **-(E)LA(RIC)** edo anaforikoez baliaturik, **NOIZ-(ERE)...BAIT-**

Bigarren multzo batean adiera bera hartzen duten hiru menderagailu aipa ditzakegu: **-(E)NO**, **-(E)N ARTEAN**, **-(E)N BIZQUITARTEAN**. Hiruren arteko bereizketa lehenengo biek duten ekintza-eremu zabalagoan datza, hauek -(E)N BITARTEAN adieraz gain, -(E)N ARTE zentzua ere adierazten baitute.

Adiera bera hartzen duten menderagailuen artean **-(R)IC** eta **[-(E)N] ONDOAN** formak ere aipa ditzakegu; gainera, biak jokatugabeak izan daitezke.

Eta azkenik, baliokidetasunarekin amaitzeko, **-(E)NETIC** eta **[-(E)NA]Z GUEROZTIC** aipatu behar ditugu, bi hauek ere zentzu bera adierazten baitute.

Hauetaz aparte, **-(E)N BECEMBATEAN**, **-(E)N BEÇAIN SARRI/SARRIENAZ**, **-T(Z)EAN/-T(Z)ERACOAN**, eta **-(E)N BAINO LEHEN** formak ere aipatu behar ditugu.

Batzuk oso urriak dira; baina Leizarragak agertzen duen ugaltasuna kontutan harturik, ulertzekoa da.

3.4. MODUZKOAK eta KONPARATIBOAK:

Perpaus mota hauek aztertzean, zenbait forma, hala nola, -(E)N BEZALA, moduzkoen zein konparatiboen esparruan sar ditzakegula ohartzen gara; horrexegatik erabaki dut biak batera aztertzea. Edozein modutan ere, oso argi eduki behar dugu forma guztiak ez direla berdinak eta, hortaz, batzuek modua bakarrik eta beste batzuek konparazioa bakarrik adieraziko dutela.

Modua adierazten dutenen artean, -(E)LA(RIC), -(R)IC, -(E)Z eta -(E)N BECEMBATEAN aipa ditzakegu. Gainera, ohart gaitezen azkena alde batera utzirik, beste hirurak baliokidetzat jo ditzakegula, guztiek zehazgaitza den adiera jerundiala dutelako; eta zehazgaitza diot, menderagailu hauek moduzkoen artean ezezik, denborazkoetan, kausal-esplikatiboetan eta bestelako perpaus motetan ere aurki ditzakegulako. Beraz, askotan gaitza da moduzkoen ala bestelakoen aurrean gauden zehaztea.

Modua eta konparazioa adierazten duten formen artean bi aipatu behar ditugu; gainera, neurri handi batean baliokideak direla esan dezakegu: (HALA)...NOLA...BAIT-, ... (HALA) eta [-(E)N] BEÇALA.

Baliokideak izan daitezkeela diot, NOLA anaforikoa perpaus nagusian doan HALA modu-aditzondoarekin harremanetan agertzen denean sortzen den egitura -(E)N BEZALA erabiliz sortzen denaren baliokide argia delako.

Bestalde -(E)N BEZALA formari dagokionez, Leizarragaren obran oso ugaria izanik, adiera anitz har dezakeela aipatu behar dugu. Izan ere, modu-konparazioaz gain, modu-baldintzazko adiera, kopula balioa, hurbiltze balioa, -eNEZ edo -eN NEURRIAN formen balioa edo denbora zentzua ere har litzake.

Azkenik aipatu behar da Leizarragak forma honen baliokidea den LEGEZ forma ere ezagutzen zuela, behin bakarrik erabili bazuen ere.

Amaitzeko, konparazioa adierazten dutenak aipatu beharko genituzke eta horretarako hiru multzo egin behar ditugu:

1.- Berdintasunezko konparazio kualitatiboa: **BEÇAIN**

Leizarragaren erabilera benetan aipagarria da, adibide askotan BEZAIN BEZALA-ren baliokidea bailitzan erabiltzen du eta. Izan ere, bi konparaburu alderatzen dira, bien arteko berdintasuna agerian utziz, baina berdintasun hori definitu edo zehaztu beharko luketen izenondoak edo aditzondoak, azaleko egituran behintzat, ez dira agertzen:

-"... *eta haren escua, bercea* **beçain** *senda cedin*" (Mc.,III,5)

2.- Berdintasunezko konparazio kuantitatiboa: **[-(E)N] BECEMBAT** eta koerlazioan agertzen den **CEMBAT...(-AGO)...BAIT-, HAMBAT...-AGO**

3.- Desberdinatsunezko konparazioa: **[-(E)N] BAINO...-AGO** eta **-AGO...ECEN EZ.**

Ohart gaitezen bi hauek formalki desberdinak izan arren, erabat baliokideak direla.

3.5. HELBURUZKOAK:

Dakigunez, Leizarragak perpaus mota desberdinak sortzeko forma jokatuez zein jokatugabeez baliatzen da.

Jokatuen artean -(E)N menderagailua dugu; gertatzen dena da menderagailu honek oso ekintza-eremu zabala duela. Izan ere, besteak beste, erlatibozkoetan edo konpletiboetan aurki dezakegu. Agian horrexegatik sortu zen honen aldaera bat: -(E)NÇAT, honek -(E)N menderagailuaren anbiguitatea saihestuko zuelakoan edo.

Leizarragaren obran, dudarik gabe, -(E)NÇAT forma nagusitzen da; edozein modutan ere, biak erabat baliokideak direla aitortu behar dugu.

Menderagailu honetaz bi aipamen egin ditzakegu, alde batetik, agertu ahal izateko aspektu markarik gabeko aditz bati atxikirik joan behar duela eta bestetik, oso bitxia gertatzen dela helburuzko hauek perpaus nagusiarekin agertzen duten komunztadura.

Izan ere, P.N.-ko aditza orainaldia denean, ez dago arazorik, helburuzkoan ere DADINÇAT erako formak aurkitzen baititugu. Iraganeko kontestuetan topatzen dugu bitxikeria Leizarragak kasu hauetan CEDINÇAT erako formak erabili beharrean, alegiazkoez -LEDINÇAT- baliatzen delako; agian, berarentzat ETOR CEDIN gure ETORRI ZEN formaren baliokidea zelako. Obra osoan, behin bakarrik topatu dugu CEDINÇAT forma, baina gainerako adibide guztietan LEDINÇAT erabiltzen duela kontutan harturik, nire ustez behintzat, akats baten aurrean gaude -Leizarragarena berarena edo tipografikoa-.

Bestalde, forma jokatugabeei dagokienez, bi aipatu behar ditugu: -T(Z)ERA eta -T(Z)EKO. Zalantzarik gabe, -T(Z)ERA da nagusitzen dena; azken finean gogora dezagun forma hau, Leizarragaren erabileran behintzat, nominalizaziorik erabiliena dela, oso ekintza-eremu zabala duelako. Izan ere, zenbait adibidetan -T(Z)EKO formaren baliokidea ere izan daiteke.

3.6. KAUSAZKOAK:

Dakigunez, lokailuen artean ECEN kausazkoari egin genion erreferentzia, kausa adierazteko biderik erabilienetarikoa dela aitortuz.

Orain, menderakuntzaren barruan kausa adierazten duten menderagailuak ere aipatu behar ditugu eta, dudarik gabe, garrantzitsuenak CEREN formarekin batera agertzen diren BAIT- eta -(E)N menderagailuak ditugu.

Egia esan, egiturarik erabiliena, agian markatugabea, neutroa delako, CEREN... BAIT- da, edozein kontestutan aurki dezakeguna; dena dela, ez dugu ahaztu behar, kontestu zehatz batzuetan, hala nola, galde-perpausetan edo ezezkoetan CEREN... -(E)N erabiltzen dela.

Bestalde, ECEN lokailuaren eta CEREN...BAIT- edo CEREN...-(E)N egituren arteko desberdintasunari dagokionez, ez dirudi, Villasantek esaten zuenez, kausalitate ahulaz edo markatugabeaz eta kausalitate markatuaz hitz egin daitekeenik, funtsean, bi formek kausalitate bera adierazten baitute.

Argi dagoena da ECEN ez dela inoiz menderagailu baten arrimuan agertzen eta CEREN anaforikoak beti daramala berekin menderagailu bat, BAIT- edo -(E)N, hots, ezin dela lokailu gisa aritu (Leizarragaren obran behintzat). Baina hortik, kausalitate desberdina adierazten dutela esatera tarte handia dago; hortaz, nire ustez behintzat, gauza bera adierazten duten bi baliabide desberdin dira, besterik gabe.

Menderagailuekin jarraituz, -(E)LACOTZ aipatu behar dugu; hala ere, ez dugu ahazterik menderagailu honek -Leizarragaren obran bederen- ez duela gaur egun duen hedadura. Izan ere, oso kontestu berezietan topatuko dugu: EZ... -(E)LACOTZ (EZ aditzondoak markaturiko kontestuetan)

Kontestu honetan Leizarragak beste menderagailu bat darabil: -(e)NEZ. Dena dela, ohart gaitezen oso forma urria dela, guztira 4 adibide bakarrik topatu baititugu.

Kausalitate arrunta -nolabait deitzearren- alde batera utzirik, kausal-esplikatiboen eremuan sartzen bagara, hiru forma aipa ditzakegu: NOLA...BAIT-, -(E)NAZ GUEROZ eta -(E)NAREN GAINEAN.

Lehenengoaz esan dezagun moduzkoetan ere aurki dezakegula eta, hortaz, batzuetan kontestuak lagundu beharko digula zeinen aurrean gauden bereizten.

-(E)NAZ GUEROZ formaz esan dezakegu Leizarragak nekez nahasten duela denbora adiera hartzen duen formarekin, denbora adierazteko beti -(E)NAZ GUEROZTIC erabiltzen duelako.

Eta -(E)NAREN GAINEAN formaz menderagailurik ilunena dela aipatu behar dugu, urria izateaz gain ez dagoelako oso argi zer adierazten duen. Edonola ere, Haranederren obrara jotzen badugu, honek -(R)EN ARIAZ, BAIT- edo -(E)NAZ GUEROZ formak erabiltzen dituela jabetzen gara; beraz, badirudi forma honek adiera kausala hartzen duela.

Azkenik, adiera jerundiala hartzen duten formak aipa ditzakegu: -(E)LA(RIC), -(E)Z eta -(R)IC. Forma hauek balio desberdinak har ditzakete, baina perpaus nagusiaren aurrean kokatzen direnean (ez beti, baina adibide askotan) adiera kausal-esplikatiboa hartzen dutela esan daiteke.

BAIT- menderagailuari dagokionez, beste partikula batekin harremanetan aurkitzen dugunean zalantzarik gabeko adiera kausala hartzen du. Baina, bera bakarrik agertzen denean?

Haranederrek badirudi baietz, honen bidez kausa adierazten duela, baina ez dezagun ahanz bi idazleen artean 200 bat urteko tartea dagoela. Izan ere, Leizarragak dituen adibideak ikusita, ez dirudi zalantzarik gabeko BAIT- kausalaz hitz egin daitekeenik; adibideren bat aurki liteke, baina beldur naiz ez ote garen gauzak gehiegi bortxatzen ari.

3.7. KONTSEKUTIBOAK:

Leizarragarena argumentazio-obra ez denez gero perpaus kontsekutibo gutxi topatuko ditugu; hala ere, zenbait mota bereiz ditzakegu.

Hasteko, ohart gaitezen kontsekutibo guztiek egitura bera agertzen dutela: NON sarrera partikula eta BAIT- edo -(E)N menderagailuak; beraz, bereizteko irizpidea perpaus nagusian beraiekin harremanetan daramaten graduatzaile, aditzondoa edo zenbaitzailea izango da.

Horretan oinarriturik, bost mota bereiz ditzakegu: HAIN graduatzailea, HALA modu aditzondoa, HALACO (maneraz) esapidea edo HAMBAT zenbatzailea daramatzatenak, alde batetik, eta, bestetik, perpaus nagusian partikularik ez daramatenak (azken hauek ilunenak, oso urriak izateaz gain, ez baita oso argi ikusten kontsekutiboen ala helburuzkoen aurrean gauden).

Hortaz, perpaus kontsekutibo hauek agertzen duten berezitasunik aipagarriena menderagailuen bikoiztasuna da. Egia da adibide gehienetan BAIT- aurrizkia topatzen dugula, agian neutroena edo markatugabea delako. Aurrizki hau aspektu markadun zein markagabeko adizkiekin agertzen da; hala ere, zehaztu behar dugu aspektu markarik gabeko adizkien artean bakar-bakarrik sintetikoak, ahalezkoak edo "aoristoak" deitu izan direnak ametitzen dituela -azkenak, formalki, subjuntiboak dira, baina Leizarragarentzat gure forma burutuen balioa bide zuten-.

-(E)N atzizkiari bagagozkio, urriagoa izateaz gain, badirudi ez dela edozein kontestutan agertzen. Alde batetik, beti aspektu markarik gabeko adizkiekin topatzen dugu eta, bestetik, esan dezakegu perpaus nagusiak berak eskatzen duela menderagailu hau. Izan ere, perpaus nagusi hauek, normalean, ezezkoak edo hauen ahaide hurbilak dira; gainera, -(E)N menderagailuaren bidez sortzen diren perpaus hauek, askotan, helburuzkoetatik aski hurbil daude.

3.8. BALDINTZAZKOAK:

Leizarragak baldintzazkoak sortzeko forma jokatuak zein jokatugabeak erabiltzen ditu; hala ere, jokatuen nagusitasuna aitortu behar dugu, bereziki BALDIN...BA- formaren nagusitasuna.

Adibide gehienetan BALDIN sarrera-partikularen laguntzaz agertzen zaigu; hala ere, ohart gaitezen BALDIN hau espletibo hutsa dela, hots, ez duela inolako funtziorik betetzen (ez bada baldintzazkoaren hasiera markatzea)

Bestalde, forma honek duen berezitasunik aipagarriena aurki dezakegun aldaera bat da. Izan ere, baldintzazko sekuentzia perpaus batek baino gehiagok osatzen dutenean, kasu gehienetan, bigarren perpausean BA- aurrizkia errepikatu beharrean, -(E)N atzizkia erabiltzen du Leizarragak.

Honez gain, BA- aurrizkia baldintza mota guztietan -ez-alegiazkoetan eta alegiazkoetan- aurkituko dugu eta hartzen duen balioari dagokionez, bere baldintzazko adieraz gain, bestelako balioak ere har ditzake, hala nola, baldintza-moduzkoa (BEZALA aditzondoarekin batera agertzen denean), desideratiboa ("ber", "berere", "nobe luke", "on zukeen" edo halakoekin agertzen denean), banakaria (BA- aurrizkia errepikatzen denean) eta zalantzazko adiera (azken hau, seguraski, latinezko SI formaren oso itzulpen bortxatua, Haranederrek, adibidez, perpaus hauek OTE partikula daramaten zehar-galderen bidez euskaratzen baititu).

Forma jokatuekin jarraituz, NON...-(E)N forma aipatu behar dugu. Hau, alde batetik, BA- formaren baliokidea izan daiteke; baina kontutan izan behar dugu bere ekintza eremua askoz mugatuagoa dela, forma markatua izanik, bakar-bakarrik aurkituko dugulako ezezko kontestuetan eta adiera erdi-baldintzazkoa, erdi-denborazkoa (-(E)N ARTE, -(E)N BITARTEAN) hartzen duenean.

Azkenik, forma jokatugabea aipatu behar dugu: -T(Z)ECOTZ. Hau, alde batetik, oso urria da eta, bestetik, arazo bat planteatzen digu helburuzko zein baldintzazko adiera har dezakeelako. Azken finean, gure gaur egungo -T(Z)EKOTAN formaren baliokidea da eta denok dakigunez, forma honek bi adierak har ditzake: helburuzkoa (-T(Z)EKO ASMOZ) edo baldintzazkoa (...-TUKO BADA/BADU).

Beraz, Leizarragaren adibideetarako ere bi adierak onar daitezke.

3.9. KONTZESIBOAK:

Hasteko, esan dezagun Leizarragak ez duela menderakuntza mota hau gehiegi erabiltzen; agian, bi terminoen arteko kontrastea adierazteko, gehien bat, lokailu eta juntagailu aurkariez baliatzen delako.

Erabiltzen dituen menderagailuen artean BADA...ERE da, zalantzarik gabe, nagusitzen dena. Bide batez, aipa dezagun menderagailu honen bidez sortzen diren kontzesiboek kidetasun handia dutela baldintzazkoekin; gainera, kidetasun hori areagotzeko, batzuetan BALDIN sarrera-partikula ere aurkitzen dugu perpaus mota hauetan.

Leizarragak forma gehiago erabiltzen ditu; baina askotan forma horien bidez adierazten dena ez da hain garbia. Hori da, esate baterako, -(E)LA(RIC) edo -(R)IC formekin gertatzen dena, hauek, funtsean, adiera jerundiala hartzen dutelako. Horrela izanik, askotan ez da errez bereizten kontzesiboen ala, adibidez, moduzkoen aurrean gauden, neurri handi batean, eman nahi diegun interpretazioaren arabera adiera bat zein bestea har dezaketelako.

Forma ilunen artean, ilunena -(e)NAREN GAINEAN dugu, obra osoa aztertuta, adiera kontzesiboa izan dezakeen adibide bakarra aurkitu dugulako. Hala ere, perpaus nagusiaren eta menpekoaren artean somatzen den kontrastea kontutan harturik, adiera kontzesiboaren aldeko apostua egin dezakegu.

Azkenik, forma jokatugabeen artean, gaur egun ere erabiltzen dugun forma bat topa dezakegu: -AGATIC.

Honek bi forma har ditzake:

a) Partizipioari loturik: -TUAGATIC

b) Aditz izenari loturik: -TZENAGATIC

Bi forma hauek desberdinak izan arren, adierazten duten balioari dagokionez, erabat baliokideak direla esan behar dugu.

Gainera, ohart gaitezen Leizarragak sekula ez duela nahasten kontzesioa adierazten duen -TZENAGATIC, kausa edo helburua adierazten duen -TZEAGATIC formarekin.

4.3.- AZKEN ONDORIOAK

Leizarragaren obra euskarak izan dituen lehenengo ekoizpen idatzietariko bat izan arren, horrek ez du esan nahi bere joskera sinplea, gehien bat alborakuntzan eta juntaduran oinarritua denik, azterketan zehar ikusi ahal dugunez, menderakuntza ere maisutasun handiz jorratzen zuelako. Izan ere, Leizarragak zerabiltzan menderagailuak ikusita, gehienak oraindik gaur egun -lau mende pasatuta- erabiltzen ditugula, bizi-bizirik daudela ohartzen gara. Harritzekoa da, benetan, garai hartako euskara, itzulpengintzan behintzat, landu eta finkatu gabea izanik, hain emaitza borobila erdiestea!

Beraz, Leizarragak euskal prosa sortze-prozesu horretan bete-betean asmatu zuela aitortu behar dugu. Ez dirudi, ez, lehendabiziko aldiz idazten den prosa, urte askotan erabiliaren erabiliaz finkatutako hizkera landua baizik, eta hori guztia, testu bibliko baten itzulpena izanik, honek eskatzen zuen testuarekiko atxikimenduarekin.

Honez gain, itzulpen lana izanik, ezin dugu sormena goraipatu; hala ere, hau ez da nahikoa Leizarragak itzulpen hori burutzeko erabili zuen hizkera ez aztertzeko, eta are gutxiago gaitzesteko.

Gaur egun, zorionez eta neurri handi batean Euskaltzaindiari esker, badirudi gaitzespen jokabide hori gaindituz goazela guztion eta gure hizkuntzaren beraren onerako. Izan ere, idazle guztiek bere gauza onak eta bere akatsak dituzte, baina honez gain, Etxepareri eta Leizarragari euskara idatzia sortzearen meritoa aitortu behar zaie.

Aipatu dugunez, Leizarragak baditu bere akatsak, gehienetan itzulpen bortxatuegiek eraginda. Baten bat aipatzearren:

> - Juntagailuen bidez maila desberdineko perpausak lotzen ditu -adib., erlatibozkoa eta perpaus lokabea-, seguraski hizkuntza erromanikoetan

menderakuntza adierazlea lehenengo perpausaren hasieran bakarrik agertzen delako:

"... *hamar regue dituc ceinéc resumá ezpaitute oraino hartu, baina (...) harturen dié*" (Apost.Act.,XVII,12)

- Latinezko SI forman oinarrituta, zehar-galderak izan beharko liratekeen batzuk BA- aurrizkiaren bidez adierazten ditu:

"... *cerê Iuduéc celata eguiten baitzeraucaten Syriarat embarcatu içan balitz ...*" (Apost.Act.,XX,3)

- -(E)NEAN menderagailuak perpaus nagusiaren aurrean agertzen den zenbait adibidetan adiera kausal-esplikatiboa hartzen du, seguraski latinez adiera anitz har zitzakeen CUM partikularen eraginez:

"*Eta eriden etzituztenean, tira citzaten Iason eta anayetaric batzu hirico Gobernadoretara...*" (Apost.Act.,XVII,6)

Beharbada, gehiago aipa litezke baina hauekin agerian geratzen da Leizarragak bere akatsak izan zituela, agian, erabiltzen zuen hizkera oraindik finkatugabea zelako edo agian estuegi lotu zitzaiolako testuari.

Edozein modutan ere, akatsak alde batera utzirik, Leizarragaren obran zer ikasia ere badugu. Esate baterako:

1.- **Emendiozkoetan** ERE lokailua dugu aipagarri, batez ere bere kokaguneagatik, ezkerreko aldean duen osagaiari itsatsita, enklituko bihurtuz, genitiboaren eta izenaren arteko lotura edo aditz nagusiaren eta laguntzailearen arteko lotura apurtu dezakeelako:

- "*Ecen Sabbathoaren-ere Iaun da...*" (Mt,XII,8)
- "... *Hec glorificatu-ere ditu.*" (Rom,VIII,29)

- Honez gain, aipatzekoa da elipsiak burutzeko agertzen duen sistematizazioa. Izan ere, elipsia non gauzatu aukeran badago ere, arau zehatz batzuk betetzen ditu, hala nola, ezabatzen den laguntzailea eta mantentzen dena berdinak edo sail berekoak izan behar direla edo aditz nagusiak laguntzailea galdu arren, lehen zuen aspektu marka (edo marka eza) mantendu behar duela. (Hortaz, Leizarragaren obran inoiz ez dugu aurkituko "Egunero goizeko 7etan jaiki eta korrika egitera joaten da", beti "jaikitzen" topatuko dugu.)

2.- **Hautakarietan** gaur egun hain nahasi darabiltzagun EDO eta ALA, inoiz ez dira nahastuko Leizarragaren obran, hautakariak direnean, noski, bi hauek orobatasuna edo banakaritza adierazten dutenean baliokideak direlako.

3.- **Ondoriozkoetan** BERAZ eta BADA Leizarragarentzat erabat baliokideak ziren; hala ere, BADA bestea baino ugariagoa zen.

- Honez gain, Leizarragak HARREN lokailua ere erabiltzen zuen ondorioa adierazteko.

4.- **Kausazkoetan** EZEN lokailua aipatu behar da, Leizarragak kausa adierazteko gehien darabilen forma.

5.- **Konpletiboetan** Aipagarriena BAIT-menderagailuaren erabilpena da, sujeto funtzioan agertzen denean, zinezko konpletibatzailea delako. Bestelako kontestuetan, konpletibatzailea baino gehiago, perpausaren baieztapena sendotzen duen partikula dela esan dezakegu.

- Galderazkoetan Leizarragak aspektu markarik gabeko zehar-galderak eta hauetatik eratortzen diren forma jokatugabeak ere erabiltzen dituela aipatu behar dugu.

- "... *eztic non bere buruä reposa deçan*" (Mt.,VIII,20)

- "...*ezpaitzuen nondic paga,...*" (Mt.,XVIII,25)

6.- **Erlatibozkoetan** alde batetik anaforikoen erabilera nabarmendu behar dugu, bi multzotan banatuta, EREdunak (markatuak, beti orokorrak) eta EREgabeak (markatugabeak, zehatzak zein orokorrak)

- Bestetik esan, Leizarragak erlatiboak sortzeko ikuspegi zabalagoa zuela. Alde batetik bi menderagailu ditu: BAIT- eta -(E)N eta, bestetik, gaur egun bitxi samarrak irudi dakizkigukeen erlatiboak aurki ditzakegu, hala nola:

"Errege agintzen ez duena"

"Erregea agintzen ez duen"

7.- **Helburuzkoetan** aditzen arteko komunztadura suertatzen da aipagarri:

* P.Nan: Orain / Helb.-an: Orain

* P.Nan: Alegiazkoa / Helb.-an: Alegiazkoa

* P.Nan: Iragana / Helb.-an: Alegiazkoa (Seguraski Leizarragarentzat aspektu markarik gabeko iraganak (aoristoak) gure iragan burutuaren baliokideak zirelako)

8.- **Kausazkoetan** CEREN anaforikoa beti menderakuntzan topatuko dugu, inoiz ez menderagailurik gabe (Axularrek bezala).

- -(E)LAKOTZ menderagailuari dagokionez, Leizarragak ezagutzen zuen; hala ere, ez zuen gaur egun duen hedadura.

- Menderagailu bereziak ere topa ditzakegu, hala nola, -(E)NAREN GAINEAN (adiera kausal-esplikatiboa duena)

9.- **Baldintzazkoetan** topatzen dugun berezitasunik aipagarriena aurki dezakegun aldaera bat da. Izan ere, baldintzazko sekuentzia perpaus batek baino gehiagok osatzen dutenean, kasu gehienetan, bigarren perpausean BA- aurrizkia errepikatu beharrean, -(E)N atzizkia erabiltzen du Leizarragak.

10.- **Kontzesiboetan** forma bereziak topa ditzakegu: -(E)NAREN GAINEAN.

- Forma jokatugabeen artean -AGATIC dugu aipagarri honek har ditzakeen formengatik; izan ere -AGATIC partizipioari loturik (gaur egun ezagutzen duguna) zein aditz izenari loturik (-TZENAGATIC) aurki dezakegu. Gainera, ohart gaitezen Leizarragak sekula ez duela nahasten kontzesioa adierazten duen -TZENAGATIC, kausa edo helburua adierazten duen -TZEAGATIC formarekin.

Hauek zertzelada batzuk baino ez dira; hala eta guztiz ere, ez dirudi, ez, Leizarragak darabilen hizkera gaitzesgarria denik, lehenengo ekoizpen idatzietariko bat izan arren, oso hizkera landua delako.

Honetan datza, gutxi gorabehera nire tesia. Lan hau xumea eta, dudarik gabe, zuzendu eta osatu beharrekoa da, hala eta guztiz ere, hor doa, behintzat aurrera egiteko oinarri bat izan dadin.

5. BIBLIOGRAFIA

AGIRRE, J.Mª, Euskal Gramatika Deskriptiboa, Bilbo, Labayru Ikastegia-Bizkaiko Foru Aldundia, 1991, 2 ale.

AKESOLO, L., "Joanes Leizarragaren garaia" Euskera, XVII, 1972, 132-143.orr.

"Joannes Leizarraga. Testamentu Berriaren leenengo euskaratzailea" Jaunaren Deia, 33, 271-283.orr.

"Joannes Leizarraga eta protestanteen euskerazko bibli-itzulpenak" Idazlan guztiak-II, Zornotza, Karmel Sorta, 1989, 823-843.orr.

"Leizarragari omenaldia Beskoitzen" Idazlan guztiak-II, Zornotza, Karmel Sorta, 1989, 844-845.orr.

ALTUBE, S., Erderismos, Bermeo, Gaubeko'ren Irarkolan, 1929

Observaciones al tratado de Morfología Vasca de Azkue, Bilbo, L.G.E.V., 2.arg.1969

ALTUNA, P.,"Villasante, Fr.Luis", Mundaiz, 7, 1977, 45-46.orr.

"Zeren" eta "Nola" Etxepareregan", Euskera XXV 1980, 499-522.orr.

"Leizarragaren morfosintaxiaz puntu batzuk", Mundaiz, 17-18, 1980, 93-95.orr.

"Juntagailu kopulatiboak", Fontes Linguae Vasconum XVIII, 1986, 47-97.orr.

AREJITA, A., Euskal Joskera, Durango, 1978

ARESTI, G., "Léxico empleado por Leizarraga de Briscous", FLV,V, 1973, 61-128.orr.

AURREKOETXEA, B., ARMAOLEA, J., Perpausen erabilera, Bilbo, Mensajero, 1990.

AZKARATE, M., "Zehar galderak: BA-, Denborazko perpaus txertatuen adibide kurioso zenbait", Euskera, XXVII, 1982, 639-643.orr.

AZKUE, R.Mª., Morfología Vasca, Bilbao, L.G.E.V., 1969

Diccionario Vasco-Español-Francés, Bilbao, L.G.E.V., 1969

BILBAO, J., Eusko Bibliographia, Auñamendi, EHU, 1970 eta hurr.

BOVER, J.M. O'CALLAGHAN, J., Nuevo Testamento Trilingüe, Madrid, BAC, N°400, 1988

BUTRON, J. DE PEDRO, L., Euskal Gramatika Praktikoa, Donostia, Erein, 1988

DE RIJK, R., "Erlatiboak idazle zaharrengan", Euskera, XXV, 1980, 525-537.orr.

ETXEPARE, B., Linguae Vasconum Primitiae Bilbo, Euskaltzaindia, 1987

EUSKALTZAINDIA, Euskal Gramatika Lehen Urratsak-I, Iruñea, 1985

Euskal Gramatika Lehen Urratsak-II, Bilbo, 1987

Euskal Gramatika Lehen Urratsak-III (Lokailuak), Bilbo, 1990

Euskal Gramatika Lehen Urratsak-IV (Juntagailuak), Bilbo, 1994

GILI GAYA, S., Curso Superior de Sintaxis Española, Barcelona, Vox, 11.arg.1973

GOENAGA, P., Gramatika Bideetan, Bilbo, Erein, 2.arg.,1980

"Perpaus konpletiboei buruz", Euskera, XXV, 1980, 581-596.orr.

"Complementación y nominalización en euskera", ASJU XIX-2, 1985, 493-570.orr.

"Konpletiboak, zehargalderak eta erlatiboak" Euskal sintaxiaren zenbait arazo, EHU, Donostiako Udako IV Ikastaroak, 1986

"BEZALA morfemaren inguruan eratzen diren egiturez", Mundaiz, 5, 1990, 129-157.orr.

HARANEDER, I., Jesu Christoren Evangelio Saindua, Bilbo, Euskaltzaindia, 1990, P.Altunak paratua.

IRIGOYEN, A., De Re Philologica Linguae Vasconicae-I,II, III, IV, Bilbo, Universidad de Deusto, 1985-...

ITHURRY, A., Grammaire basque. Dialecte Labourdin, Bayonne, 1895

KNÖRR, E., "Bezala gaizki erabiltzeaz", Euskera, XXV, 1980, 631-632.orr.

"Euskal konpletibatzaileak: bilduma baterako", Euskera, XXXIII, 1988, 523-534.orr.

LAFITTE, P., "Zer dakigu Leizarragaz", Euskera, XVII, 1972, 143-148.orr.

"Joanes Leizarragaren lanez", Euskera, XXII, 1977, 751-753.orr.

Grammaire Basque (Navarro-Labourdin Littéraire), Donostia, Elkar, 1987

LAFON, R., "Joanes Leizarraga, itzularia eta idazlea", Euskera, XVI, 1972, 148-154.orr.

Le systéme du verbe basque au XVIe siécle, Donostia, Elkar, 2.arg. 1980

LARRAKOETXEA, B., "Ala, naiz, edo", EGAN XXI, 1963, 128-133.orr.

LEIZARRAGA, J., Iesus Christ gure Iaunaren Testamendu Berria, Bilbo, Euskaltzaindia, 1990

LETAMENDIA, J.A., "Leizarragak partitiboz dakartzan partizipioak Duvoisinen ordainekin alderaturik", Euskera, XXV, 1980, 455-482.orr.

MITXELENA, L., Historia de la Literatura Vasca, Donostia, Erein, 2.arg.1988

MUJIKA, J.A., "Zenbait konpletiboren azterketa J.Leizarragagan" Euskera, XXV, 1980, 597-629.orr.

"-(E)LA eta beste konpletibatzaileak" Euskera, XXVII, 1982, 295-325.orr.

OIHARTZABAL, B., "Ba- Baiezko aurrezkia" Euskera, XXIX, 1984, 351-371.orr.

"Behako bat ezezko esaldieri", Euskera, XXX, 1985, 103-115.orr.

"Erlatibakuntza: Perpaus erlatiboaren egitura; Izen erlatibatuaren betakizuna haren barnean", GOENAGA, P., Euskal sintaxiaren zenbait arazo, EHU, Donostiako Udako IV Ikastaroak, 1986

REAL ACADEMIA ESPAÑOLA, Esbozo de una nueva Gramática de la Lengua Española, Madrid, Espasa-Calpe S.A., 1974

RUIZ DE ARZALLUS, I., VELEZ,J.M., Introducción a las obras de Leizarraga: sobre el modo de disponer la reimpresión, en particular sobre las erratas y variantes en el texto de Leizarraga, Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia, 1989

SALABERRI, P., "Aditz laguntzailearen ezabaketa eta hizkuntzaren irakaskuntza", Zutabe, 22, VII.urtea, 1990, 93-97.orr.

SALABURU, P., Sintaxi teoria eta euskara, EHU, 1989

SARASOLA, I., Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia, Donostia, GK, 1984 eta hurr.

SCHUCHARDT, H., Primitiae Linguae Vasconum, Salamanca, Colegio Trilingüe de la Universidad, 1947

"Sobre el modo de disponer la impresión, en particular sobre las erratas y variantes en el texto de Leizarraga", LEIZARRAGA, J., Iesus Christ gure Iaunaren Testamendu Berria, Estrasburgo, 1900

"Sobre el vascuence de Sara (Labort)", Euskera, XXXVII,1992, 253-292.orr.

TRASK, R.L. "Historical Syntax and Basque verbal morphology: Two hipotheses", Anglo-American contributions to Basque Studies, Reno, 1977, 203-217.orr.

TXILLARDEGI, Euskal Gramatika, Bilbo, Ed.Vascas, 1978

UEU, Euskal Dialektologiaren Hastapenak, Uztarri S.A., 2,arg.1987

VILLASANTE, L., "Euskaltzainburu Jaunaren hitzaldia", Euskera, XVII, 1972, 128-132.orr.

"Euskara idatziaren joskera. Euskal idazle zaharren gaitzestea XX.mendean", FLV, 1977, 325-342.orr.

Sintaxis de la oración compuesta, Oñate, Ed.Franciscana Aránzazu, 1979

La oración causal en vasco, Oñate, Ed.Franciscana Aránzazu, 1986

VILLASANTE, L., LASARTE, Mª.P., "Perpaus kausalak Lapeyre idazlea baitan", Euskera, XXV, 1980, 537-563.orr.

VINSON, N., Essai d'une bibliographie de la langue basque, Paris, Maissonneuve, 1891-1898 (1970)

WILBUR, T.N. "The Comparative Construction in Basque", Anglo-American contributions to Basque Studies, Reno, 1977, 177-180.orr.

ZABALA, I., ODRIOZOLA, J.C., "Gazteleraren "Como" juntagailu polisemikoak euskararen baitan izan ditzakeen ordezkoen problematika: 1. Subordinazioaren esparrua", Euskera, XXXIV, 1989, 187-239.orr.

"Como" gaztelerazko juntagailuarekiko interferentzian sarturiko atribuzioaren esparruko egiturak", Euskera, XXXIV, 1989, 597-620.orr.